

I. XEDAPEN OROKORRAK

ESTATUKO BURUZAGITZA

17339 *11/2020 Legea, abenduaren 30ekoa, 2021erako Estatu Aurrekontu Orokorrena.*

FELIPE VI.a

ESPAINIAKO ERREGEA

Honako hau ikusten eta ulertzen duten guztiei.

Jakizue: Gorte Nagusiek lege hau onetsi dutela eta nik berretsi egiten dudala:

HITZAURREA

I

Estatuaren Aurrekontu Orokorren oinarriko arau-esparrua 1978ko abenduaren 27ko Espainiako Konstituzioak, Aurrekontuei buruzko Lege Orokorrak eta Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko Lege Organikoak osatzen dute.

Estatuaren Aurrekontu Orokorren urteroko legeak izan beharreko edukia zehazten joan da Konstituzio Auzitegia, eta adierazi du derrigorrean honako alderdi hauek xedatu behar dituela: dagokion urtean, Estatuak eta hari lotutako edo haren mendeko erakundeek izango dituzten diru-sarreraren aurreikuspena eta gastuetarako baimena. Nahitaezko eduki horrekin batera, beste alderdi batzuk ere xeda ditzake legeak; betiere, diru-sarreraren aurreikuspenarekin, gastuetarako gaikuntzarekin edo politika ekonomiko orokorraren irizpideekin lotura zuzena badute, eta Estatuaren Aurrekontu Orokorrak nahiz Gobernuaren politika ekonomikoa errazago interpretatzeko eta efikazia handiagoz gauzatzeko ezinbesteko osagarri badira.

Bestalde, Konstituzio Auzitegiak adierazi du denborazkotasun-irizpidea ez dela erabakigarria arau jakin bat konstituzionala izateko edo ez izateko, arau hori aurrekontu-lege batean sartzeari begira. Horregatik, Aurrekontuei buruzko Legea funtsean aldi baterako araua den arren, ez dago inolako eragozpenik inoiz edo behin bertan zenbait urtetarako edo epemugarik gabeko manuak sartzeko.

Bestalde, zergen alorrean, Konstituzioaren 134. artikuluko 7. apartatuaren arabera, Aurrekontuei buruzko Legeak ezin du zergarik sortu, baina aldatu bai, ordea; hain zuzen ere, zerga-lege substantibo batek aukera hori jasotzen duen kasuetan.

Aurreikuspen horietatik kanpo gelditzen diren gaiak ez dira Estatu Aurrekontu Orokorren Legearen esparrukoak. Hortaz, Legearen edukia Konstituzioak berak mugatzen du –gainerako legeekin ez da halakorik gertatzen, haien edukia, printzipioz, mugagabea baita–: Estatuaren eskumenen eremukoak izango da, eta ez ditu lege organikoari erreserbatutako gaiak xedatuko.

Horrenbestez, 2021erako Estatuaren Aurrekontu Orokorren Legeak nahitaezko edukia eta Konstituzio Auzitegiaren doktrina errespetatzen dituzten xedapenak soilik jasotzen ditu.

COVID-19 koronabirusak pandemia eragin eta gero, osasun publikoko larrialdia sortu zen, eta nabarmenak izan dira osasun publikoko larrialdian eta munduko ekonomian izan dituen ondorioak; hortaz, ondorio horiek halabeharrez baldintzatu dituzte 2021erako Estatuaren Aurrekontu Orokorrak, zeinak osatu baitira Aurrekontuei buruzko azaroaren 26ko 47/2003 Lege Orokorren esparruan.

Egoera erabat ez ohikoa izanik, berehalako erabaki eraginkorrak hartu behar izan ziren ondorio okerrei aurrea hartzeko, besteak beste, COVID-19k eragindako osasun-krisia kudeatzeko alarma-egoera deklaratzeko duen martxoaren 14ko 436/2020 Errege Dekretua

eman zen, eta lege-jarduna orokorrean areagotu zen, pandemiaren osasun-, gizarte- eta ekonomia-ondorioak arintzeko behin-behineko eta ezohiko neurriak hartu ahal izateko.

Bestalde, Europako Batzordeak 2020/C 91 I/01 komunikazioan (martxoaren 20ko Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean jaso da) aitortu zuen gaixotasunak eragindako egoeraren larritasuna. Komunikazioa COVID-19aren agerraldiaren testuinguruan ekonomia sustatzea helburu duten estatuko laguntza-neurrien denbora-esparru erlatiboari buruzkoa da. Dokumentu horretan ebaluatu zituzten osasun-larrialdiak munduko ekonomian eta Europar Batasuneko ekonomian izan eta izango dituen ondorio txarrak. Ondorioz, ohartarazi zuten EBko ekonomia osoan atzerapen ekonomikoa gerta zitekeela; beraz, erakundeek eta estatu kideek era koordinatuan erantzutea proposatu zuten, ezinbesteko ekonomia-ondorio txarrak txikiagotzeko neurritzat hartuta.

Ildo horretatik, Europar Batasuneko ekonomia-ministroek martxoaren 23an egonkortasunari eta hazkundeari buruzko adierazpen bateratua egin zuten, COVID-19aren krisiaren esparruan. Ministroek, Europar Batzordeak bezala, pentsatzen zuten ekonomia modu larrian geldituko zela, eta, hortaz, EBko aurrekontuen esparrua babesteko klausula orokorra aktibatzen arrazoiak zeudela.

Horrez gain, 2020ko martxoaren 11n, Munduko Osasunaren Mundu Erakundeak nazioarteko pandemiatzat hartu zuen osasuneko larrialdi-egoera, eta adierazi zuen ezin dela zehaztu egoeraren epemugarik. Izatez, gaur egun ere bizitzen ari gara egoeraren ondorioak. Estatuak osasun publikoko neurriak, higie-neurriak eta ikerketak bultzatzeko neurriak era proaktiboan hartu arren, ezin da ziurtasunez jakin noiz amaitu edo konponduko den.

Gauzak horrela, ezinezkoa da Ministro Kontseiluak 2020ko otsailaren 11n onartu zituen akordioak betetzea, nahiz eta akordiook Diputatuen Kongresuak eta Senatuak berretsi zituzten, otsailaren 27an eta martxoaren 4an, hurrenez hurren. Akordio horiek Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren 15. artikuluan ezarritakoari jarraituz hartu ziren. Honako hauek ezarri zituzten: batetik, administrazio publiko guztiek eta azpisektore bakoitzak 2020an bete behar zituzten aurrekontuen egonkortasunari eta zor publikoari buruzko helburuak, Gorte Nagusiei helarazteko eta Estatuaren Aurrekontuaren gastu ez-finantzarioaren 2020ko muga finkatzeko; eta, bestetik, administrazio publiko guztiek eta azpisektore bakoitzak 2021-2022ko aldian bete behar zituzten aurrekontuen egonkortasunari eta zor publikoari buruzko helburuak, Gorte Nagusiei helarazteko eta Estatuaren Aurrekontuaren gastu ez-finantzarioaren 2021eko muga finkatzeko.

Testuinguru berri horretan Ministro Kontseiluak beste akordio bat hartu behar izan zuen 2020ko urriaren 6an, eta akordio horretan ezarri zuten aurrekontuen egonkortasunari eta zor publikoari buruzko helburuak eten behar zirela eta gastu ez-finantzarioaren 2021eko muga 196.097 milioi euro izango zela. Zenbateko hori ezin da modu homogeenan erkatu aurreko ekitaldiekin, pandemiak era ezohikoan areagotu baitu ekitaldi honetako egoeraren ziurgabetasuna. Zifra horrek barne hartzen ditu autonomia-erkidegoei eta gizarte-segurantzari egiteko ezohiko transferentziak eta Kontseilu Europarrak *Next Generation EU*ko planaren esparruan 2020ko uztailaren 21ean hartu zuen akordioaren ondoriozko europar funtsen zati bat. Horri dagokionez, Legeak egiturazko aldaketa bat ezartzen du; zehazki, ministerio-sailetak atal bakoitzean 50. Zerbitzua sortzea funts horiek behar bezala kudeatzeko.

Aurrekontuen egonkortasunari eta zor publikoari buruzko helburuak eteteko erabakia Diputatuen Kongresuaren osoko bilkurak berretsi zuen 2020ko urriaren 20an, Konstituzioaren 135.4 artikuluan ezarritako prozedurari eta Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren 11.3 artikuluan ezarritakoari jarraituz. Horretan egiaztatu zen ezohiko larrialdi-egoera zegoela, administrazio publikoen kontrolatik at zegoela eta Estatuaren finantza-egoera edo ekonomia-egonkortasuna nabarmen kaltetzen zuela. Horiek horrela, egiturazko defizita izatea baimendu zen, pandemiak gizartearen eta ekonomian eragiten dituen ondorio txarrak arintzeko neurriak hartu ahal izateko eta Europar Batzordearen proiektuarekin bat datorren susperraldi-plana landu ahal izateko.

Hala eta guztiz ere, horrek ez du salbuesten Konstituzioan ezarrita dagoen aurrekontuen egonkortasuna bermatzeko konpromisoa betetzea. Asmoa zerga-kontsolidazioa eta jasangarritasun finantzarioa epe ertainera lortzea da, ezohiko egoera bultzatu duten inguruabarrak amaitu bezain laster Europako itun fiskalean ezarritako aurrekontuen oreka-eskakizunak bete ahal izateko.

II

Aurrekontu Legearen funtsezko zatia I. tituluan dago («Aurrekontuak onartzea eta aldatzea»). Bertako I. kapituluan, «Hasierako kredituak eta haien finantzaketa» izenburupean, Estatuako sektore publikoaren diru-sarrera eta gastu guztiak onesten dira, eta Estatuaren tributuetan eragina duten zerga-onuren zenbatekoa kontsignatzen da.

I. kapitulu honetan, Estatuaren Aurrekontu Orokorren eremua zehazten da, kontuan hartuta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeak egiten duen sailkapena, zeinak eragina izaten baitu legearen gainerakoan.

Estatuaren Aurrekontu Orokorren esparrua Espainiako Bankuaren funtzionamendugastuen eta inbertsioen aurrekontuarekin osatzen da; aurrekontu hori, daukan berariazko legediaren arabera, ez da Estatuako sektore publikoko gainerako aurrekontuekin bateratzen.

II. kapituluan, aurrekontu-kredituak aldatzeko eta betearazteko arauak, aurrekontumugak eta Legearen indarraldian gauzatu behar diren kreditu lotesleak jasotzen dira, baita kreditu-gehikuntzak eta -txertaketak ere. Azken horiek legearen eranskinean daude zerrendatuta.

III. kapitulua «Gizarte Segurantzza» ri buruzkoa da, eta bertan arautzen da Osasun Kudeaketarako Institutuak eta Itsasoko Gizarte Institutuak emandako osasun-laguntza. Era berean, Estatuak Gizarte Segurantzari egin dizkion transferentzia guztiak jaso dira. Legean ezartzen da Inklusioko, Gizarte Segurantzako eta Migrazioetako Ministerioari klase pasiboen araubidearen kudeaketa eskualdatzeko behar diren ekarpenen erregimena, ministerio-sailak berriro egituratzen dituen urtarrilaren 12ko 2/2020 Errege Dekretuaren 22. artikuluan eta Inklusioko, Gizarte Segurantzako eta Migrazioetako Ministerioaren oinarritzko egitura organikoa garatzen duen apirilaren 28ko 497/2020 Errege Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarrian ezarritakoarekin bat etorrira.

III

Aurrekontu Legearen II. titulua, «Aurrekontu-kudeaketa» duena xede, hiru kapitulutan egituratuta dago.

I. kapituluak irakaskuntzako aurrekontuen kudeaketa arautzen du. Ikastetxe itunduei eusteko funts publikoak banatzeko modulu ekonomikoa finkatzen du, bai eta Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionalako (UNED) langileen kostuei dagokienez baimendutako zenbatekoa ere.

II. kapituluan, «Osasunaren eta gizarte-zerbitzuen aurrekontu-kudeaketa», bai Osasun Kudeaketarako Institutu Nazionalaren, bai Adinduen eta Gizarte Zerbitzuen Institutuaren eremuan aurrekontu-aldaketak egiteko berariazko eskumenak daude jasota. Diruzaintza-geldikinak Adinduen eta Gizarte Zerbitzuen Institutuaren aurrekontuan aplikatzeko arauak ere bertan biltzen dira.

III. kapituluak «Aurrekontu-kudeaketarako beste arau batzuk» jasotzen ditu, eta Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren partaidetza-portzentajea zehazten du, bere jardueratik bildutako diru-kopuru gordinari dagokionez. Portzentaje hori ehuneko 5ekoa izango da 2021erako.

IV

Estatuaren Aurrekontu Orokorren Legearen III. tituluak «Langileen gastuak» ditu helburu, eta hiru kapitulutan egituratuta dago.

I. kapituluan ondore horietarako «sektore publiko»ren definizioa zehaztu eta gero, langileen gastuak lantzen dira. Orokorrean aurreikusi da 2021ean sektore publikoaren

zerbitzuko langileen lansariak eta langile lan-kontratadunen soldata-kostuak % 0,9 handituko direla, 2020ko abenduaren 31ean indarrean zeudenen aldean. Era berean, kapitulu horretan enplegu publikoaren eskaintza ere arautzen da, indarren % 100eko berrezarpen-tasa ezarrita. Ehuneko 10eko tasa gehigarria ezarri da berrindartzeko ahalegin berezia behar duten sektore eta eremu jakin batzuetarako. Bestalde, % 115eko berrezarpen-tasa ezartzen da.

Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoentzat, Ertzaintzarentzat eta udaltzaintzat. Azkenean, aldi baterako langileen kontratazioa eta aldi baterako estatutupeko langileen edo behin-behineko funtzionarioen izendapena ez dira egingo, ez bada aparteko kasuetan eta larrialdiko eta ezin geroratzeko beharrezanetan.

II. kapituluak, «Ordainsarien araubideak» izenburupean, xedatzen du honako kargu hauen ordainsarien 2021eko eguneraketa: Estatuko Gobernuko eta kontseilu-organoetako goi kargudunena, Estatuko Administrazio Orokorreko kideena, Estatu Kontseiluko goi-kargudunena, Ekonomia eta Gizarte Kontseilukoena, bai eta Kontuen Auzitegiko, Konstituzio Auzitegiko eta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko kideena ere, eta Indar Armatueta, Poliziako eta Guardia Zibileko goi-kargudunena, eta Botere Judizialeko eta Fiskaltzako kargudun jakin batzuenak. Estatuaren Aurrekontu Orokorren Legean halako aurreikuspenak sartu dira organo horien aurrekontuak eta, ondorioz, aipatutako ordainsarienak, Gorte Nagusiek onetsi behar dituztelako. Aurrekontuaren batasun- eta unibertsaltasun-printzipioek agintzen dutenarekin bat, Estatuaren gastu guztiak bilduko dituen dokumentu bakar bati eman behar zaio onespena; hain zuzen ere, Estatuaren Aurrekontu Orokorren Legea da dokumentu hori.

Kapitulu horretan, bestalde, honako hauen ordainsariei buruzko arauak ere jasotzen dira: Estatuko funtzionarioak; Indar Armatueta, Guardia Zibileko eta Polizia Nazionaleko langileak; Gizarte Segurantzako estatutupeko langileak eta estatutupean ez daudenak; eta Estatuko sektore publikoko lan-kontratadun langileak.

Justizia Administrazioaren zerbitzupeko langileei buruzko arauekin batera, aipamen berezia egin behar zaie Karrera Judizial eta Fiskaleko kideen, Idazkari Judizialen Kidegoko kideen, eta Justizia Administrazioaren zerbitzupeko langileen ordainsariei buruzko araei.

Titulu honen III. kapituluak itxierako arau bat dauka, II. kapitulan jasotako arauetara egokitzen ez den ordainsari-sistema duten langileei aplikatzekoa. Arau horrekin batera, badira xedapen erkide batzuk, aurreko aurrekontu-legeetan bezala: langile aktiboaren araubideari buruzkoak, ohiz kanpoko diru-sarrerak galarazteari buruzkoak, eta sari, gurutze, domina eta mutilazio-pentsioak direla eta jaso beharreko zenbatekoak egunerazteari buruzkoak. Era berean, lan-kontratadun langileen eta funtzionarioak ez diren ordainsariak zehazteko edo aldatzeko baldintzak ezartzen dira; hartarako, Ordainsarien Ministerio arteko Batzordearen Batzorde Betearazlearen aldeko txostena eman beharko du.

V

Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko Legearen IV. titulua, «Pentsio publikoak» izenburupean, sei kapitulutan banatuta dago.

I. kapituluak xedatzen duenez, Gizarte Segurantzaren sistemak ordaintzen dituen pentsioen eta klase pasiboen balioa oro har ehuneko 0,9 goratuko dira 2021ean, eta kotizazio gabeko pentsioen balioa ehuneko 1,8 handituko da.

II. kapituluak Estatuko Klase Pasiboen Araubideko pentsioen eta gerrako pentsio berezien hasierako zehaztapena arautzen du.

III. kapitulan pentsio publikoen hasierako zehaztapenaren mugak daude jasota; hala, muga bikoitzeko sistema bat ezartzen da, hileko zenbateko osoaren gehieneko kopurua eta urteko zenbateko osoaren gehieneko kopurua finkatuta.

IV. kapituluak «Pentsio publikoen balioak handitzea eta aldatzea» arautzen du, eta Gizarte Segurantzako sistemaren arabera ordaintzen diren kotizaziopeko pentsioen eta klase pasiboen balioa handitzeari heltzen dio. Halaber, goratuko ez diren pentsioak zehazten ditu, eta pentsio publikoak goratzeko zenbatekoaren muga ezartzen du.

V. kapituluak gutxienekorako osagarrien sistema jasotzen du, bi artikulutan: bata Klase Pasiboen pentsioei buruzkoa da; eta bestea, Gizarte Segurantzako sistemako pentsioei buruzkoa.

VI. kapituluak jasotzen du, alde batetik, Gizarte Segurantzako kotizaziopekoak ez diren pentsioen hasierako zehaztapena eta balioa handitzea, eta, bestetik, iraungitako Zahartzaro eta Baliaezintasuneko Nahitaezko Aseguruari dagozkion pentsioen zenbatekoa finkatzea.

VI

«Finantza-eragiketak» izeneko V. titulua hiru kapitulutan egituratzen da. Honako gai hauek lantzen dira: zor publikoa, abal publikoak eta beste berme batzuk, eta Estatuaren eta Kreditu Ofizialeko Institutuaren arteko harremanak. Ministroen Kontseiluak eman ahal dituen abalen gehieneko zenbatekoa 500.000 mila eurokoa izango da.

Titulu horren xede nagusia Estatuak eta organismo publikoek zorpetze-eragiketak egiteko gehieneko zenbatekoa baimentzea da. Zorpetzeak I. kapituluan daude araututa, «Zor Publikoa» izenburupean.

VII

Zerga-arloan hainbat neurri hartzen dira ekonomiaren hazkunde orekatua eta zerga bidezko diru-sarreraren igoera bateratzeko. Horren helburuak ongizate-estatu indartzea eta desberdintasuna murriztea dira.

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga ere aldatu da, eta zerga handienei karga handiagoa ezarri zaie, bai zerga-oinarri orokorrean, baita kapitalaren errenta zergapetzen duen aurrezki-oinarrian ere.

Horrekin batera, gizarte-aurreikuspeneko sistemetara egiten diren ekarpenen zerga-oinarriari aplikatu ahal zaion muga orokorra ere murriztu da, baina, enpresen ekarpenenak direnean, muga hori handitu ahal izatea ezartzen da.

Bestalde, Espainiako ekonomiaren egoera dela eta, gaur egungo osasun-krisian komeni da araudi-esparru egonkorra osatzea autonomo txikiek zenbatespen objektiboaren metodoa euren jarduera ekonomikoaren etekin garbia kalkulatzeko erabiltzen jarrai dezaten, betebeharrak formal eta faktura-betebeharrak gehiago ezarri gabe. Horretarako, 2021eko zergaldira arte luzatzen dira pertsona fisikoen errentaren gaineko zergako zenbatespen objektiboaren metodoaren aplikazio-eremua mugatzen duten muga kuantitatiboak, alde batera utzita nekazaritza, abeltzaintza eta basogintzako jarduerak, haiek beren muga kuantitatiboa baitute sarrera-bolumenaren arabera.

Aurreko neurrian bezala, 2021eko zergaldira arte luzatzen dira balio erantsiaren gaineko zergaren araubide erraztua eta nekazaritzako, abeltzaintzako eta arrantzako araubide berezia aplikatzeko mugak ere.

Sozietateen gaineko zergari dagokionez, aldatu egin da egoitza Espainiako lurraldean duten zein ez duten entitateen funts propioetako balore adierazgarriak eskualdatzearen ondorioz sortutako errenten eta dibidenduen gaineko salbuespena arautzen duen manua, eta partaidetza horien kudeaketa-gastuak ezin izango dira kendu zergadunaren zerga-onuratik. Zenbatekoa dibidendu edo errenta positiboaren ehuneko 5 izango da; horrela, dibidendu edo errenta horren ehuneko 95 izango da zenbateko salbuetsia.

Xede bererako eta behin egokitzapen teknikoa eginda, aldatu egin da egoitza Espainiako lurraldean ez duten entitateen dibidenduen gaineko nazioarteko zergapetze bikoitza kentzea arautzen duen artikulua.

Kontseiluaren 2011ko azaroaren 30eko 2011/96/EB Zuzentarauan ezarritakoaren arabera (zuzentarau horretan Batasuneko estatu desberdinetan ari diren sozietate nagusi eta filialei aplikatu beharreko araubidea ezartzen da), estatu kideek erakunde filialeko partaidetzari lotutako kudeaketa-gastuak sozietate nagusiaren zerga-onuratik ez kentzeko ahalmena dute eta arauketa hori bat dator ahalmen horrekin; gainera, oroharreko zenbatekoa finkatu ahalko da, eta, kasu horretan, zenbateko hori ezin izango da izan sozietate filialak banatu dituen etekinen ehuneko 5a baino handiagoa.

Arrazoi sistematikoak direla eta, neurri hori hedatu beharko da zergaren gaineko legearen beste manu batzuetara, baldin eta eskualdatzearen ondorioz sortutako etekinen edo errenten dibidenduen edo partaidetzen gaineko zergapetze bikoitza kentzen badute.

Enpresa baten negozio-zifraren zenbateko garbia 40 milioi euro baino txikiagoa bada eta merkataritza-talde bateko kidea ez bada, zergadun horrek ez du aplikatuko arestian aipatutako dibidenduen salbuespena hiru urteko gehieneko epean, baldin eta dibidenduak egoitza Espainiako lurraldean duen zein ez duen sozietate filial batekoak badira, eta sozietatea 2021eko urtarrilaren 1aren ostean eratu bada.

Bestalde, kendu egiten dira 20 milioi eurotik gorako eskurapen-balioa duen entitate baten kapitalaren edo funts propioen partaidetzen eskualdatzearen ondoriozko etekinen eta errenten dibidenduen edo partaidetzen gaineko nazioarteko zergapetze bikoitzaren salbuespena eta ezabapena. Horren asmoa da neurri horiek mugatzea ehuneko 5eko partaidetza-ehuneko esanguratsua duten egoeretara, eta bost urteko araubide iragankorra arautzen da.

Amaitzeko, aldatu egiten da finantza-gastuen kengarritasunaren mugaren arauketa. Zehazki, ondare-tresnetako partaidetzen diru-sarrera finantzarioak ez zaizkio gehitu beharko mozkin operatiboari, baldin eta diru-sarrerak dibidenduak badira, eta partaidetzak eskuratzeko balioa 20 milioi eurotik gorakoa izan bada.

Ez-egoiliarren errentaren gaineko zergari dagokionez, egokitu egiten dira bai kapital propioak beste batzuei lagatzean lortutako interes eta gainerako etekinengatiko salbuespena, bai eta establezimendu iraunkorrik gabe lortutako ondasun higiezinaren ondoriozko ondare-irabaziak ere, Europako Esparru Ekonomikoaren Akordioan ezarritakora. Egokitzapenaren arabera, akordio horretan parte hartzen duten estatuek salbuespena baliatu ahal dute, Europar Batasuneko estatu kideek bezala. Era berean, Sozietateen Zergan ezartzen den neurriarekin bat, aldatu egiten da Espainiako lurraldean egoitza duten sozietate filialek Europako Esparru Ekonomikoa osatzen duten beste estatu batzuetan egoitza duten sozietate nagusiei edo azken horiek beste estatu kide batzuetan dituzten establezimendu iraunkorrei banatutako etekinei buruzko salbuespena. Horren arabera, salbuespen hori ezin izango dute baliatu, partaidetza eskuratzeko balioa 20 milioitik gorakoa denean; horrez gain, zuzeneko edo zeharkako partaidetzak ehuneko 5ekoa izan beharko du gutxienez, kasu guztietan Zergaren Legearen testu bateginean ezartzen diren gainerako baldintzak ere betetzen badira.

Ondarearen gaineko zergari dagokionez, neurri bi gehitzen dira: batetik, tarifaren azken tarteari aplikatu ahal zaion karga-tasa handitzen da; eta, bestetik, kargaren iraupen mugagabea ezartzen da. Neurri biak finantza publikoak sendotzeko eman dira.

Balio erantsiaren gaineko zergari dagokionez, aldatu egiten da edulkoratzaile gehituak dituzten edarien zerga-tasa, naturalak zein gehigarri edulkoratzaileak izan. Edari horien zerga-tasa ehuneko 21eko zerga-tasa orokorra izango da. Neurri hori gizartearen konpromisoa sustatzen du, txikiak eta gazteek edari horiek arduraz kontsumitu ditzaten eta edarien horien kontsumoa arrazionalizatzeko. Horrez gain, neurri hori bat dator ongizate-estatuaren kanpoko kostuak barneratzeko neurriaren xedearekin, hau da, gehitutako edulkoratzaileak dituzten edari asko hartzeagatik eta, hortaz, dieta osasuntsua ez izateagatik sortzen diren kostuak.

Ondare-eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergari dagokionez, ehuneko 2 igotzen da handitasunen eta noble-tituluen karga-eskala.

Estatuaren Aurrekontu Orokorren diru-sarreraren gaineko helburuak lortzen laguntzeko, aseguru-sarien gaineko zergaren karga-tasa igotzen da: ehuneko 6tik ehuneko 8ra.

Tokiko zergei dagokienez, epigrafe edo talde berriak sortzen dira ekonomia-jardueren gaineko zergaren tarifetan hornigai orokorrak (elektrizitatea eta gasa) merkaturatzeko jarduerak era espezifikoan sailkatzeko, gaur egun arte sailkatu gabe zeudelako. Epigrafe berria sortu da merkataritza-azalera handietarako, baldin eta azalaren jarduera nagusia arropa edo jakiak ez badira, eta egun arte berezko epigraferik ez bazeukaten; izan ere, gainerako merkataritza-guneen trataera antzekoa da «Merkataritza misto integratua edo azalera handietakoa» 661 taldean. Horrez gain, ibilgailu elektronikoak energiaz hornitzeko

jardueraren epigrafe berria sortzen da, kargaguneak edonon (bide publikoetan, gasolina-zerbitzuguneetan, garaje publikoetan edota garaje pribatuetan) izanda ere.

Tasei dagokienez, zenbateko finkoko tasengatikoko eska daitekeen zenbatekoa ehuneko 1era igo da, 2019ko urtarrilaren 1etik eman diren arauen bidez sortu edo eguneratu direnak izan ezik. Horrela, zenbatekoa eta tasen truke ematen diren zerbitzuen edo jardueren kostuen igoera egokitzen dira. Hala eta guztiz ere, jokoaren gaineko tasen zenbatekoek bere horretan jarraitzen dute. Tasak otsailaren 25eko 16/1977 Errege Lege Dekretuan ezarrita daude (16/1977 Errege Lege Dekretua, Zorte-, enbido-edo zori jokoen alderdi zigortzaile, administratibo eta fiskalak arautzen dituen).

Trafikoko Buruzagitza Nagusiak eska ditzakeen tasak, aurreko koefizientea aplikatu eta gero, hurbilen dagoen goiko edo beheko zentimora egokituko dira, koefizientea aplikatu eta gero sortzen den zenbatekoak hiru hamarren baditu.

Oro har, mantendu egiten da jabari publiko irrati-elektrikoko erreserbatzeagatikoko tasaren zenbatekoa zehazteko behar diren parametroen kuantifikazioa.

Tren-tasen eremuari dagokionez, honako xede hauek betetzeko tasak eguneratu egiten dira: tren-enpresaren lizentzia emateko; segurtasun-baimena eta segurtasun-ziurtagiria emateko; zentroak homologatzeko; erakundeak eta inguruko materiala ziurtatzeko; tituluak eta zerbitzuan jartzeko baimena emateko; eta tren-segurtasunaren arloko zerbitzuak emateko eta jarduerak egiteko.

Halaber, portu-tasen oinarrizko zenbatekoak mantentzen dira. Interes orokorreko portuetan ontzien, bidaiarien eta salgaien okupazio-tasei aplikatzeko hobariak eta koefiziente zuzentzaileak ezartzen dira, bai eta ontzien hondakinak hartzeko tarifa finkoari aplikatzeko koefiziente zuzentzaileak ere; hori guztia, Estatuko Portuei eta Nabigazio Zibilari buruzko Legearen testu bateginean (irailaren 5eko 2/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsia) ezarritakoarekin bat.

VIII

VII. titulua bi kapitulutan egituratuta dago; bata toki-erakundeei buruzkoa da; eta bestea, autonomia-erkidegoei buruzkoa.

I. kapituluan, toki-erakundeen finantzaketari buruzko arauak daude; hots, udalak, probintziak, uharteetako kabildo nahiz kontseiluak eta probintzia bakarreko autonomia-erkidegoak finantzatzeari buruzkoak.

Oinarri-oinarrian, toki-erakundeek Estatuaren tributuetan duten partaidetzaren artikulazioa dago, hala zenbatekoa zehaztean, nola tributu horiek ordainaraztean. Tresna gisa, parte-hartze hauek nabarmendu behar dira: lagapen bidez zerga jakin batzuen bilketan parte hartzea (esaterako, PFEZ, BEZ eta alkoholen fabrikazioaren, hidrokarburoen eta tabako-lanen gaineko zerga bereziak); Finantzaketarako Funts Osagarriaren bitartez parte hartzea, arreta berezia jarriz toki-erakundeei ekonomia-jardueren gaineko zergaren bilketan izandako galeragatik eman beharreko konpentsazioetan –azken horien barruan, abenduaren 27ko 51/2002 Legeak hasieran ezarritakoa zein azaroaren 18ko 22/2005 Legearen bidez bideratutako konpentsazio gehigarria sartzen dira–, bai eta Osasun Laguntzarako Ekarpen Funtsean parte hartzea ere, diputazioen, probintzia ez diren uharteetako autonomia-erkidegoen eta uharteetako diputazio eta kabildoen osasun-zentro ez-psikiatrikoak mantentzeko.

Kontuan hartu behar da, bestalde, 2020an berrikusi egin behar izan dela udalerriek Estatuaren tributuetan parte hartzeko ereduak aplikatzeko eremu subjektiboa, berrikuspen hori lau urtean behin egitekoa baita. Berrikuspen horrek 2020. urteari eta 2021etik 2023. ra arteko urteei ere eragiten die; hortaz, berrikuspen horren arauketa lege honetan sartu da, zehazki, I. kapituluaren 1. atalean.

Partaidetza-araubide berezien arauketa jasotzen da, bai Ceutakoa eta Melillakoa, bai Kanarietako toki-erakundeetako, bai Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde historikoetako eta Nafarroako toki-erakundeei dagokienera.

Dena den, arauketa horretan beste transferentzia batzuk ere sartzen dira, dirulaguntzez osatuak, eta toki-tributuetan pertsona fisiko edo juridikoei emandako zerga-onuren

konpentsazioa udalentsat; horrela, bete egiten da martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuak, Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testuategina onesten duenak, 9. artikuluan xedatutakoa.

Halaber, beste alderdi batzuk arautzen dira: toki-erakundeek informazioa emateko duten betebeharrak; aurrekontuak kudeatzeko arauak; udalei aurrerakinak ematea, tokiko tributuen bilketa kudeatzean gerta daitezkeen desorekak estaltzeko; eta toki-erakundeek Estatuarekiko dituzten zor irmoak konpentsatzeko prozedurak; horien artean sartzen dira berankortasunaren aurka borrokatzeko neurrien araudiak ezarritako ordainketa-epeak behin eta berriro ez betetzearen ondorioz aplikatzekoak direnak, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren 18. artikuluan xedatutakoa betez.

II. kapituluak arautzen ditu araubide erkideko autonomia-erkidegoen eta autonomia-estatutua duten hirien finantzaketari buruzko alderdi jakin batzuk.

2021eko indarreko finantzaketa-sistema 2009ko uztailaren 15eko bileran onetsi zuen Zerga eta Finantza Politikako Kontseiluak, eta bi modutara sartu zen ordenamendu juridikoan: Autonomia Erkidegoak Finantzatzeko Lege Organikoa aldatuz, eta abenduaren 18ko 22/2009 Legea onartuz, araubide erkideko autonomia-erkidegoen eta autonomia-estatutua duten hirien finantzaketa-sistema arautzen duena eta zerga-arau batzuk aldatzen dituena.

Sistemak autonomia-erkidego bakoitzaren finantzaketa-premia globalak estaltzeko esleitzen dituen finantza-baliabideak hauexek dira: Nahikotasun Globalaren Funtsa, Oinarritzko Zerbitzu Publikoak Bermatzeko Funtzaren Transferentzia eta tributua-ahalmena. Estatuaren Gastu Aurrekontuak Nahikotasun Globalaren Funtsa eta Estatuak Berme Funtsera egindako ekarpena jasotzen ditu. Hala ere, Estatuak guztiz edo partzialki laga ditzkien tributuen bilketa ez da Estatuak Aurrekontu Orokorretan ageri, haien izaera dela eta.

Gainera, autonomia-erkidegoen arteko konbergentzia eta *per capita* errenta txikiagoa dutenen garapena sustatzeko, 22/2009 Legeak konbergentzia autonomikorako bi funts arautzen ditu, Estatuaren baliabide gehigarriez hornituak daudenak: Lehiakortasun Funtsa eta Lankidetzaren Funtsa.

Bestalde, 2021ean gauzatuko da 2019ko ekitaldiari dagokion finantzaketa-sistemaren likidazioa, eta aipatutako kapituluaren arautzen dira hura kuantifikatzeko behar diren alderdiak.

Kapitulu horretan bertan arautzen dira, halaber, autonomia-erkidegoek 2021ean bere gain hartutako zerbitzuen benetako kostuari dagokion transferentzia-araubidea eta transferentzia berriak onesteko errege-dekretuen gutxieneko edukia.

Amaitzeko, lurraldearteko konpentsazio-funtzen araudia jasotzen da; funts horien artean, Konpentsazio Funtsa eta Funtz Osagarria bereizten dira. Bi funtsen helburua autonomia-erkidegoek egindako inbertsio-gastuak finantzatzea da. Funtz Osagarria, dena den, Estatuaren Aurrekontu Orokorren 36. atalaren kontura egindako inbertsioak abian jartzeko gastuak finantzatzeko erabil daiteke.

IX

Estatuak Aurrekontu Orokorrei buruzko Legeak, VIII. tituluaren, «Gizarte-kotizazioak» izenburupean, Gizarte Segurantzako araubide desberdinetan kotizatze oinarriak eta tasak jasotzen ditu, eta eguneratu ere egiten ditu.

Tituluak bi artikulatu ditu: bata «Gizarte Segurantzari, langabeziari, jarduera uzteagatik babesari, Soldadak Bermatzeko Funtzari eta Lanbide Heziketari egindako kotizazio-oinarriak eta -tasak, 2021ean»; eta bestea, «Funtzionarioen eskubide pasiboetarako eta mutualitate orokorretarako kotizazioa 2021erako».

X

Aurrekontuei buruzko Legeak zenbait xedapen ere baditu (gehigarriak, iragankorrak, indargabetzailak eta amaierakoak), eta xedapen horietan askotariko manuak daude jasota. Nolanahi ere, arloen eta dagozkien Legearen tituluei egindako erreferentzien arabera taldekatu dira, sistematizazio hobea lortzeko.

Hala, aurrekontu-kudeaketarekin lotutako arau osagarri gisan, Estatuko sektore publikoak hitzarmenak aipatutako moduan sina ditzan autonomia-erkidegoekin, Ogasun Ministerioaren txostena beharko da oraindik ere –aldekoa, nahitaezkoa eta loteslea izango da txostena– hitzarmen horien bidez Estatuaren baliabideen transferentzia egiten denean edota gastua egiteko konpromisoa sortzen denean edo bi inguruabarrak batera gertatzen direnean.

Estatuko Aurrekontu Orokorren kontura finantzatutako maileguei eta aurrerakinei dagokienez, aurrekontu-kudeaketaren arloko xedapen batzuk ere badira, aurrekontu-egonkortasunaren eta zorpetzearen helburuak bete daitezten.

Eskualde Garapeneko Europako Funtsa (EGEF) behar bezala xurgatzen dela ziurtatzeko, 2014-2020 aldirako, dirulaguntzak eta laguntzak emateko aurreikusita zenbateko osoaren 85.000 mila euro erreserbatzea ezartzen da. Halaber, ezarri egiten da Behartsuenei Laguntzeko Europako Funtsaren (FEAD) Programaren bidez finantzatzen diren Laguntza Programako dirulaguntzen aurrerakinen araubidea.

Administrazio Publikoaren Institutu Nazionala organismo autonomoaren diruzaintza-geldikinak eskualdatzeko baimena ematen da: gehienez ere 500.140 euro txertatu ahal dira, eta organismo horri esleitutako Enplegurako Prestakuntza Planak gauzatzera bideratuko dira.

Estatuak Gizarte Segurantzaren Diruzaintzari 13.830.090,00 mila euroko mailegua ematea aurreikusten da, Gizarte Segurantzaren betebeharre estaldura emate aldera eta haren aurrekontu-oreka bideratu ahal izateko. Mailegu hori gehienez ere hamar urteko epean kitatuko da, mailegua eman eta hurrengo urteko urtarrilaren 1etik aurrera.

Ohikoa denez, alderdi politikoen funtzionamendu- eta segurtasun-gastuetarako Estatuaren urteko dirulaguntza ere ezartzen da 2021erako, Alderdi Politikoen Finantzaketari buruzko uztailaren 4ko 8/2007 Lege Organikoan xedatutakoa betez.

Halaber, parke zientifiko eta teknologikoetako jarduerari finantza-laguntza emateko neurriak ezartzen dira. Aurreikusi egiten da kreditua sortzea jokoaren kudeaketa administratiboari dagokion tasarengatik. Tasa hori Jokoa Arautzeko 13/2011 Legearen 49.2 artikuluko 2. apartatuko f) letran eta 5. apartatuko f) letran ezartzen da, manu horietan ezarritako xedeak betetze aldera.

Aktiboak Berreskuratu eta Kudeatzeko Bulegoak lortutako baliabideen xedeekiko lotura-ehunekoa ezartzen da; zehazki, ehuneko 50ekoa izango da.

Langileen gastuei dagokienez, legearen xedapen gehigarrietan, gehieneko muga ezartzen da, bai karrera judizial eta fiskalean sartzeko enplegu publikoaren eskaintzari dagokionez (240 plaza), bai ekitaldiko abenduaren 31n soldadutza eta marineltzako militar profesionalen plantillari dagokionez (ezin izango dira 79.000 baino gehiago izan).

Jasotako mugekin eta baldintzekin, arautzen da merkataritza-sozietate publikoek, Aurrekontuei buruzko Legearen Bat apartatuko 18. artikuluan aipatzen diren enpresa-entitate publikoek eta sektore publikoko fundazioek eta partzuergoek aukera izan dezatela langile berriak kontratatu ahal izateko. Edonola ere, berrezarpen-tasa ehuneko 100ekoa izango da. Zuzendarien kasuan, 2021ean ezin izango da handitu aurreko urtean Estatuko sektore publikoaren eremuan zeuden zuzendaritza-kideen lanpostuen kopurua.

Ezarri egiten da Estatuko Administrazio Orokorren mendeko organismoen osasun-zentro eta -zerbitzuetako estatutupeko langileen plantillen aldaketak onetsi beharko direla, baldin eta aurrez Ogasun Ministerioaren aldeko txostena –Aurrekontu eta Gastuen Estatu Idazkaritzaren bitartez– badute.

Estatuko Administrazio Orokorren eta SME SA Lurreko Garraio Azpiegituren Estatuko Sozietatearen arteko hitzarmenaren arabera autobideak kudeatzeko dauden beharren esparruan, baimena emango zaie kontratu mugagabeak egin ditzaten, baina berrezarpen-

tasaren % 100eko muga eta espezifikoki ezartzen diren beste muga batzuk ere bete behar dituzte.

Bestalde, Defentsako Unibertsitate Zentroetako irakasleak aldi baterako kontratatzeko modalitateak arautzen dira, Unibertsitatei buruzko abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoan xedatutakoarekin bat.

Gainera, eguneratu egiten dira Gizarte Segurantzarekin elkarlanean jarduten duten mutualitateetako nahiz horien zentro mankomunatueta langileen ordainsariak, bai eta bake-epaiegietako bake-epaile eta idazkarien jardueragatiko konpentsazio ekonomikorako moduluak ere.

Toki-korporazioetako kideen ordainsarien araubidearen arloan sartzen da toki-korporazioetako kideek ordainsari-kontzeptu guztiengatik eta bertaratzeengatik jaso dezaketen diru-kopuruaren guztirako gehieneko muga, alde batera utzita kasuan-kasuan zerbitzu berezietako egoeran dauden karrerako funtzionarioek, eskubidea dutelako, jasotzeko dituzten hirurtekoak.

Azkenik, arlo horri dagokionez, hainbat arau ezartzen dira, langile-gastuen kudeaketa hobeto kontrolatzeko asmoz, estatu-agentzietako errendimendu-pizgarriekin lotuta. Halaber, ekitaldi honetan ere etenda egongo da Zerbitzuen Ondoriozko Kalte-ordainei buruzko maiatzaren 24ko 462/2002 Errege Dekretuaren 26.3 artikuluan xedatutakoa, atzerrian destinatutako langileei dagokienez.

Alderdi berri gisa, Gobernuari agintzen zaio enpleguaren pentsio-funts publikoen gaineko lege-proiektua egin dezala, eta proiektu horretan Estatuko Administrazio Orokorrari proiektua sustatzeko lege-ahalmena eman diezaiola.

Bestalde, ixteko arau gisa ezartzen da ministerio-sailek ekitaldian zehar proposatzen duten jarduerak ezin izango dutela handitu Administrazioaren zerbitzurako langileen gastu garbia.

Hainbat laguntza-prestaziori dagokionez, honako prestazio hauen zenbatekoak ezarri dira: Gizarte Segurantzako familia-prestazioenak, azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren testu bateginean jasotako sorospen ekonomikoenak eta laguntza-pentsioenak. Horrez gain, eguneratu egin ditu Gerra Zibilean atzerrira joandako espainiarrei martxoaren 18ko 3/2005 Legearen babesean aintzatetsitako prestazio ekonomikoak. Gizarte Segurantzako Sistema Eguneratzeari, Egokitzeari eta Modernizatzeari buruzko abuztuaren 1eko 27/2011 Legearen hogeita zortzigarren xedapen gehigarriaren aplikazioa geroratzeari eusten zaio. Horrez gain, Indar Armaturen Araubide Berezian baliaezintasun handiari dagozkion pentsioak handitzeko arauak ere badira legean, eta giza immunoeskasiaren birusak (GIB) kutsatuta daudenentzako gizarte-laguntzen zenbatekoa finkatzen da, 2021erako.

Ekonomiari lotutako arauak, lehenik eta behin, diruaren lege-interesari, berandutze-interesari eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 38.2 artikuluan aipatutako berandutze-interesari buruzkoak dira.

Estatuaren Bermeari buruzko manuak jasotzen dira aldi baterako lagatuko kultura-intereseko obrei dagokienez, Kultura eta Kirol Ministerioaren eskumen eskusiboko erakundeetan eta hari atxikitako organismoetan erakusgai jartzearen. Bestalde, baimendu egiten da ADIF-Alta Velocidad enpresa-entitate publikoa eta Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionala zorpetzea. Era berean, jasotzen da Estatuko portuei, Bartzelonako portu-agintariei eta Renfe Operadora entitateari baimena ematen zaiela bermeak formalizatzeke.

Estatuak Espainiako ekonomia nazioartekotzearen arriskuak estaltzeari dagokionez, hauxe xedatzen da: lege honen indarraldian, CESCEk kontratazio berrirako aseguru eta banatu ahal izango duen estaldura gehienez ere 9.000.000,00 mila eurokoa izango dela, Epe Laburreko Poliza Irekiak alde batera utzita, dokumentu-kredituak salbu. Ezarri egiten da atzerrian inbertsio espainiarra sustatzeko espainiar interesa duten funtsak zuzkitzea.

Bestetik, legearen xedapen gehigarrietan bere isla egokia dauka ikerketa zientifikorako eta garapen teknologikorako laguntzak. Hartara, oinarri teknologikoa duten enpresen enpresa-proiektuak laguntzeko linearen gehieneko zenbatekoa ezartzen da –linea hori

Familien aurrezpena eta enpresa txiki eta ertainak suspertzeko presako zerga-neurriak onesten dituen abenduaren 13ko 6/2000 Legearen bigarren xedapen gehigarriaren 2. zenbakian sortu zen-; zehazki, 20.500,00 mila eurokoa izango da. 2005erako Estatuaren Aurrekontu Orokorren abenduaren 27ko 2/2004 Legearen hogeita bosgarren xedapen gehigarrian aurreikusitako finantzaketa-ildoari 57.500,00 mila euroko zuzkidura eginez arautzen da enpresa txiki eta ertainentzako finantza-babesa. Ekintzaile gazteentzako laguntza ere arautzen da; hala, 2011rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren abenduaren 22ko 39/2010 Legearen hogeita hirugarren xedapen gehigarrian sortutako finantzaketa-ildoari 20.500,00 mila euroko ekarpena egiten zaio.

Nekazaritzako elikagaien arloko ETEek sustatutako eta teknologian oinarritutako enpresa-proiektuak finantzatzen laguntzeko finantzaketa-ildo bat sortzen da. Halaber, arrantza-, erauzketa-, akuikultura- eta transformazio-sektoreetako pertsona fisikoei eta pertsona juridikoei kredituak finantzatzen laguntzeko finantzaketa-ildo bat sortzen da abalen birfinkatzearen bidez, pertsona horiei kredituak eskuratzen laguntzeko.

Industriako Inbertsio Produktiboa sustatzeko Funtsa sortzen da. Funts horren bitartez, industriako inbertsioak egiteko finantza-laguntza emango da, baldin eta inbertsioak industriaren garapena bultzatzeko, industriaren lehiakortasuna indartzeko eta lurraldeko industria-indarrei eusteko baliogarriak badira. Bestalde, ekintzaile digitalei eta sortzen ari diren enpresei finantza-laguntza emateko neurriak arautzen dira.

Zergei dagokienez, lehentasuna duten mezenasgo-jarduerak eta -programak zehazten dira, eta ezohiko interes publikokotzat jotzen diren hainbat gertakariri aplikatu beharreko zerga-onurak arautzen dira.

Lurralde-erakundeei dagokienez, Osasun-kohesiorako funtsaren kudeaketa arautzen duen urriaren 20ko 1207/2006 Errege Dekretuaren 2.1.a), b) eta d) apartatuen aplikazioa eten egiten da, eta apartatu horiek aurrekontuez kanpo uzten dira. Bestalde, ezarri egiten da Espainiako egoiliar diren pazienteei osasun-laguntza emateak autonomia-erkidegoetan eragindako gastuak eta Laguntza Bermearen Funtsak estalitako osasun-laguntzako gastuak autonomia-erkidego bakoitzaren likidazioaren osteko saldo positiboak edo negatiboak konpentsatuta ordainduko dela.

Adostu egiten da Lemoizko zentral nuklearrak lehen okupatzen zuen lurraldearen jabetza osoa Euskal Autonomia Erkidegoari ematea; eta Bizkaiko Bermeoko Itsas Etxea, Gizarte Seguratzaren Diruzaintza Nagusiaren jabetzakoa, Bermeoko Arrantzaleen Kofradiari dohaintzan ematea. Aurreko ekitaldietan bezala, Kataluniako Gobernuari eskualdatutako aldirietako eta eskualdeko zerbitzuengatik konturako ordainketak baimentzen dira.

Bestalde, gizarte-intereseko helburuak betetzeko kopuruak esleitzeari buruzko xedapenak ezartzen dira.

Tributu-sarrerren bilakaera-indizea kalkulatzeko irizpideak ezartzen dira, tokiko erakundeek Estatuko tributu-sarreretan duten partaidetzaren arabera. Halaber, aldatu egiten da Toki Erakundeak Finantzatzeko Funtsaren Ordenazio Funtsaren eremu objektiboa. Salbuespen gisa, tokiko erakundeek zorpetze-eragiketa gehiago hitzartu ahalko dituzte likidatze-funtsarekin duten zorraren zati bat edo zor osoa kitatzeko eta hornitzaileei ordaintzeko xedez, baldin eta eskakizun batzuk betetzen badituzte. Horrekin batera, salbuespen gisa, 2021ean eskusiboki baimentzen da diruzaintzako geldikina adierazitako terminoetan duten toki-erakundeek indarrean dagoen epe laburreko zorra epe luzeko zor bilakatzeko eragiketarako egin ditzaten.

Campo de Gibraltar eskualdeko udalerrri jakin batzuei jarduketa zehatzak eta salbuespenekoak finantzatzeko arazuko dirulaguntzak emateko arauketa jasota geratzen da.

COVID-19ak eragindako osasun-krisiaren ondoriozko ezohiko egoera ekonomikoa dela eta, zorpetze autonomikoa arautzeko ezohiko erregimena ezartzen da 2021ean. Bestalde, Kataluniako polizia autonomikoaren finantzaketa berrikusia behin betiko sartzen da Kataluniako Autonomia Erkidegoko Finantzaketa Sistema Autonomikoaren Nahikotasun Funtsean. Bestalde, aurrekontu-zuzkidura espezifikoak ezartzen da 2021ean, autonomia-erkidegoei eta Ceuta eta Melilla hiriei finantzaketa handiagoa emateko.

Araupetu egiten dira, era berean, Madrilgo, Bartzelonako eta Kanarietako bidaiarien garraio publiko erregularra finantzatzeko dirulaguntza izendunak. Ezarri egiten da tokiko erakundeek ematen duten hiriko garraio kolektiboko zerbitzuari laguntzeko dirulaguntza izendunen erregimena, baldin eta betekizun batzuk betetzen badituzte. Bestalde, Estatuko Administrazio Orokorrek bere gain hartzen du 2007 Valentzia Partzuergoaren zorraren zati bat.

Tokiko erakundeei dirulaguntzak emateko erregimena ezartzeaz gain, Extremaduran eta Andaluzian enplegu-planak finantzatzeko ekarpenak ere antolatu dira. Horrez gain, Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak Kanarietako Enplegu Plan Integralean finantzaketa-ekarpenak egingo ditu.

Era berean, 2021erako ondorio askotarako errenta-adierazle publikoa (IPREM) ere ezarri da. Bestalde, enpresa-kotizazioan ehuneko 50eko hobaria izateko aukerari eusten zaio, haurdunaldian edo edoskialdi naturalean arriskua izateagatik lanpostua aldatzen den kasuetan, edota gaixotasun profesionala izaten denean.

Horrez gain, lanbide-heziketaren kuotatik eratorritako funtsak langabeentzako lanbide-heziketaren sistema finantzatzera bideratuko direla aurreikusten da, enpresek, langile aktiboek eta langabeek lan-merkatuaren premiei erantzungo dien prestakuntza jaso dezaten, eta ezagutzen oinarritutako ekonomia gara dadin. Baldintzak 2018rako ezarritakoan antzekoak dira. Zehatz-mehatz, Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak arauren arabera dagozkion prestakuntza-planak kudeatu beharko ditu, haren gastu-aurrekontuetan zordunduta. Era berean, Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak kudeatu beharko ditu bere gastu-aurrekontuaren kredituen erreserban zorduntzekoak diren zerbitzu eta programak, urriaren 23ko 3/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Enpleguaren Legearen testu bateginaren 18. h) artikuluan xedatutakoaren arabera.

Azkenik, turismo-sektorearen eta turismo-jarduerari lotutako sektoreen zabalpena kontratazioa indartzeko neurrien bidez sustatu behar denez, aldizkako kontratu finkoak dauzkaten langileen jarduera-aldia luzatzen laguntzeko neurriak ezartzen dira, turismo-sektorean eta turismo-jarduerari lotutako merkataritza- eta ostalaritza-sektoreetan.

Atzeratu egiten da Lan Autonomoaren Estatutuaren uztailaren 11ko 20/2007 Legearen zenbait manuren aplikazioa, eta kontingentzia profesionalei dagozkien kotizazioak murrizteko sistema eten egiten da laneko istripuen tasa jaisteagatik. Azkenik, Gizarte Segurantzaren babes-ekintza finantzatzeko modua ezartzen da. Zehazki, Estatuak hiru transferentzia egingo ditu Gizarte Segurantzaren aurrekontuetara, 2020ko Toledoko Itunaren lehen gomendioa betetzeko.

Pertsona fisikoei ofiziozko txandako zerbitzua ematetik dagozkien zerbitzu-sarien baremoaren araberako finantzaketa ezartzen da, aldez aurretik epaileak izendatuta. Era berean, sektore elektrikoa 2021eko ekitaldian finantzatzeko ekarpenak arautzen dira, zehazki, zergei eta kanonei dagokienez.

Alderdi berri gisa, aurreikusi egiten dira berotegi efektuko gasen emisio-eskubideen enkanteen bidezko diru-sarrerak jasotzea eta diru-sarrerek mugagabeko indarraldia izatea, edo behintzat Klima Aldaketaren eta Trantsizio Energetikoaren Legea indarrean jarri arte irautea.

Legearen xedapen indargabetzailearen arabera, baimena ematen da Estatuaren 2015eko Aurrekontu Orokorren Legearen 47. xedapen gehigarrian aurreikusitako luzapenari atxikitako urtekoak S-80 Programaren finantzaketaren barruan sartzeko.

Bestalde, Administrazioen ondare-erantzukizuna kalkulatzeko prozedura ezartzen da, zehazki, autopistak lagatzeko kontratu zehatz batzuei lotuta. Kontratuetan enpresa emakidadunen eta desjabetuen arteko hitzarmen bat sinatu zen, autobiderako lursailen hirigintza-aprobetxamenduen truke desjabetze-espeditentea eteteko.

Eratu egiten da Genero Ikuspegidun Aurrekontuak sustatzeko Ministerioen arteko Batzordea. Halaber, baimena ematen da Analisi Genomikoaren Zentro Nazionala ustiatzeko partzuergoa eratzeko, eta Estatuko Administrazio Orokorri atxikitzeko.

Ondare Nazionala arautzen duen ekainaren 16ko 23/1982 Legearen 5. artikuluan araututako errege patronatuen administrazioari buruzko arauak jasotzen dira, bai eta

Ererien Haraneko Gurutze Santuaren administrazioari eta SASME Zarzuela Hipodromoko Estatuko Sozietatearekiko ondare nazionalaren betebeharrei buruzkoak ere.

Hainbat xedapen iragankor jasotzen ditu legeak. Batetik, Estatuko sektore publikoaren zerbitzurako langileen bizilekuagatik kalte-ordainei buruzkoak, eta, bestetik, osagarri pertsonalei eta iragankorrei buruzkoak. Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko kideei aplikatu beharreko araubide iragankorra jasotzen da, baldin eta arduraldi eskusiborik ez badute, harik eta abenduaren 28ko 4/2018 Lege Organikoan (Botere Judizialaren uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoa erreformatzen duena) aurreikusitako sistema aplikatu arte.

Ezari egiten da Estatuaren 2018rako Aurrekontu Orokorren uztailaren 3ko 6/2018 Legearen hogeita bederatzigarren, hogeita hamargarren eta hogeita hamaikagarren xedapen gehigarrietan aurreikusitako epea salbuespenez luzatzea, aldi baterako enplegua egonkortzeko prozesuak baimentzeko eta argitaratzeko. Era berean, erregimen iragankorra ezartzen da, bidaiariak itsasoz eta airez erregulartasunez garraiatzeko diruz lagundutako txartelen salmentari aplikatzeko. Azkenik, Legeak ezartzen du trenbide-kanonei aplikatzeko unitateko zenbatekoen aldi baterako aldaketa.

Xedapen indargabetzaileek, Legearen artikuluekin bat etorriz, Ondarearen gaineko Zerga berrezartzen duen irailaren 16ko 13/2011 Errege Lege Dekretuari eragiten diote, aldi baterako; horrez gain, 2015eko Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 26ko 36/2014 Legearen 47. xedapen gehigarriari ere eragiten diote, orduko Industria, Energia eta Turismo Ministerioarekin S-80 itsaspekoen programaren garapen teknologikorako sinatutako lankidetzeta-hitzarmenaren esparruan hitzartutako finantzaketa itzultzeari dagokionez.

Legeak, bukaera aldean, azken xedapen batzuk biltzen ditu, lege jakin batzuetan egindako aldaketak jasotzeko. Zehazki, Legeak honako manu hauek aldatzen ditu: Landare-lorpenak babesteko martxoaren 12ko 12/1975 Legea; 70/1978 Legea, abenduaren 26koa, Administrazio Publikoan alde aurreko zerbitzuak aitortzeko;

apirilaren 11ko 849/1986 Errege Dekretua, Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamendua onartzen duena, Urari buruzko abuztuaren 2ko 29/1985 Legearen atariko tituluak (i, IV, V, VI eta VII) garatzen dituena; Estatuko Klase Pasiboen Legearen testu bategina, apirilaren 30eko 670/1987 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua;

3/2000 Legea, urtarrilaren 7koa, Landare Bilketak Babesteko Araubide Juridikoarena; abuztuaren 4ko 5/2000 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Lan-arloko Arau-hauste eta Zehapenei buruzko Legearen testu bategina; uztailaren 20ko 1/2001 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Uren Legearen testu bategina; 24/2001 Legea, abenduaren 27koa, Zerga-, Administrazio- eta Gizarte-neurriei buruzkoa; 9/2003 Legea, apirilaren 25ekoa, Genetikoki eraldatutako organismoak konfinatuta erabiltzeko, borondatez askatzeko eta merkaturatzeko araubide juridikoa ezartzen duena; 21/2003 Legea, uztailaren 7koa, Aire Segurtasunari buruzkoa; 33/2003 Legea, azaroaren 3koa, Herri Administrazioen Ondareari buruzkoa; Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra; 47/2003 Legea, azaroaren 26koa, Aurrekontuei buruzkoa; Higiezinaren Katastroari buruzko Legearen testu bategina, martxoaren 5eko 1/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua; Toki Ogasunak arautzen dituen legearen testu bategina, martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua; 8/2006 Legea, apirilaren 24koa, tropari eta marineltzari buruzkoa; 8/2009 Legea, abuztuaren 28koa, Espainiako Irrati eta Telebista SA Korporazioa Finantzatzeari buruzkoa; 13/2011 Legea, maiatzaren 27koa, Jokoa Arautzekoa; 14/2011 Legea, ekainaren 1ekoa, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarena; Estatuko Portuei eta Nabigazio Zibilari buruzko Legearen testu bategina, irailaren 5eko 2/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua; 2/2012 Legea, ekainaren 29koa, 2012rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzkoa; 3/2012 Legea, uztailaren 6koa, Lan-merkatua erreformatzeko premiazko neurriei buruzkoa; 17/2012 Legea, abenduaren 17koa, 2013rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzkoa; 36/2014 Legea, abenduaren 26koa, 2015erako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzkoa; 30/2015 Legea, irailaren 9koa, Lan-arloko Enplegurako Lanbide Heziketaren Sistema arautzen duena; 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide

Juridikoarena; Sendagaien eta osasun-produktuen bermeei eta erabilera arrazionalari buruzko Legearen testu bategina, uztailaren 24ko 1/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua; urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Langileen Estatutuaren Legearen testu bategina; Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina, urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua; Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bategina, urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua; 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora, 2014ko otsailaren 26koa; 28/2018 Errege Lege Dekretua, abenduaren 28koa, pentsio publikoen errealizazioari eta gizarte, lan eta enplegu arloko beste premiazko neurri batzuei buruzkoa; eta maiatzaren 5eko 17/2020 Errege Lege Dekretua, kultura- eta tributuzko sektoreari laguntzeko neurriak onartzen dituena, COVID-19aren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egiteko.

Legea ohikoa den xedapenarekin amaitzen da, zeinaren bidez Gobernuari baimena ematen baitzaio lege honek eskatzen duen erregelamenduzko garapena egiteko.

I. TITULUA

Aurrekontuak onartzea eta aldatzea

I. KAPITULUA

Hasierako kredituak eta haien finantzaketa

1. artikulua. *Estatuko Aurrekontu Orokorren eremua.*

2021eko ekitaldirako Estatuaren Aurrekontu Orokorretan, honako aurrekontu hauek biltzen dira:

a) Erakunde batzuek aurrekontu mugatzaileak dituzte. Hona hemen zein erakunde diren:

1. Estatu.
2. Organismo autonomoak.
3. Gizarte Segurantzaren sistema osatzen dutenak.
4. Estatuko sektore publikoko gainerako erakundeak, baldin eta Aurrekontuen 47/2003 Lege Orokorrean –azaroaren 26ko 47/2003 Legean– araututako espezifikazioen eta aldaketen araubidea aplikatu ahal bazaie, edo araudi espezifikoko batek haien aurrekontua mugatzen badie.

b) Erakunde batzuek gutxi gorabeherako aurrekontuak dituzte. Hona hemen erakundeok:

1. Enpresa-entitate publikoak, Estatuaren merkataritza-sozietateak, Estatuko sektore publikoko fundazioak eta Estatuko sektore publikoko gainerako erakundeak, baldin eta Merkataritza Kodean eta Espainiako enpresen Kontabilitate Plan Orokorrean eta hura garatzen duten egokitzapenetan eta xedapenetan ezarritako printzipioak eta arauak aplikatzen badituzte.

2. Partzuergoak, transferitu ez diren unibertsitate publikoak, nortasun juridikorik gabeko funtsak eta Estatuko sektore publiko administratiboan gutxi gorabeherako aurrekontua ezarrita duten zuzenbide publikoko gainerako erakundeak.

2. artikulua.¹ Lege honen 1. artikularen a) letran adierazitako erakundeen gastuen eta diru-sarreraren egoerak onartzea, hau da, aurrekontu mugatzailea duten erakundeak.

Bat. Aurreko artikularen a) letran adierazitako erakundeen aurrekontuetako gastuen egoeran integratutako programak gauzatzeko, 456.073.237,41 mila euroko kredituak onesten dira I.tik VIII.era bitarteko kapitulu ekonomikoetan, lege honen I. eranskinean zehaztutako programen arabera banaketari jarraikiz. Programa horiei dagozkien kredituak honako hauek dira, politiken arabera multzokatuta:

	Mila euro
Justizia.	2.048.130.86
Defentsa.	9.072.014.33
Herritarren segurtasuna eta espetxeak.	9.694.414.96
Kanpo-politika.	1.882.007.70
Pentsioak.	163.296.580.73
Beste prestazio ekonomiko batzuk.	20.622.903.69
Gizarte-zerbitzuak eta gizarte-sustapena.	5.201.178.94
Enpleguaren sustapena.	7.404.808.73
Langabezia.	25.011.796,59
Etxebizitza eskuratzea eta eraikuntzaren sustapena.	2.253.095.38
Lanaren eta gizarte-ekonomiaren kudeaketa eta administrazioa.	104.150.44
Inklusioaren, Gizarte Segurantzaren eta Migrazioen kudeaketa eta administrazioa.	2.499.120.21
Osasuna.	7.329.683.78
Hezkuntza.	4.893.456.13
Kultura.	1.148.063.83
Nekazaritza, arrantza eta elikadura.	8.405.077.71
Industria eta energia.	11.176.462.19
Merkataritza, turismoa eta ETEak.	2.220.008.18
Garraiorako dirulaguntzak.	2.618.291.54
Azpiegiturak eta ekonomia erresilienteak.	11.473.421.40
Ikerketa, garapena, berrikuntza eta digitalizazioa.	12.344.566.74
Izaera ekonomikoa duten beste jarduketak batzuk.	1.107.885.94
Organo konstituzionalak, Gobernua eta beste batzuk.	752.090.48
Izaera orokorreko zerbitzuak.	39.932.671.45
Finantza- eta zerga-administrazioa.	1.564.087.68
Transferentziak beste administrazio publiko batzuetara.	70.342.163.71
Zor publikoa.	31.675.104.09

¹ I. eranskin honetako zenbatekoetan ez dira jaso honako zenbaki hauen zuzenketa: 2423, 3257, 3258, 3261, 3266, 3268, 3054, 3056, 3068, ezin baitira instrumentatu kontabilitatean.

Bi. Aurreko zenbakian adierazitako erakundeen diru-sarreraren egoeran jasota daude aurrekontu-ekitaldian likidatzekoak diren eskubide ekonomikoen zenbatespenak. Finkatutako zenbatekoen banaketa, mila eurotan adierazita, honako hau da:

Erakundeak	Kapitulu ekonomikoak		
	I.etik VII.a arteko kapituluak Diru-sarrera ez-finantzarioak	VIII. kapitulua Aktibo finantzarioak	Diru-sarrerak, guztira
Estatua.	154.795.626.76	1.820.707.79	156.616.334.55
Organismo autonomoak.	38.364.588.58	753.291.40	39.117.879.98
Gizarte Segurantzza	126.384.880.79	1.036.421.01	127.421.301.80
Administrazioaren sektore publikoko gainerako entitateak, aurrekontu mugatzailea dutenak	684.956.62	156.235.28	841.191.90
Guztira.	320.230.052.75	3.766.655.48	323.996.708.23

Hiru. Artikulu honetako Bat zenbakian adierazitako erakundeen arteko barneko ordain-aginduetarako eta transferentzietarako, 65.101.990,46 mila euroko zenbatekoa osatzen duten kredituak onesten dira, erakundeen arabera honela banatuta:

Mila euro

Transferentziak eta ordain-aginduak, jatorriaren arabera	Transferentziak eta ordain-aginduak, destinoaren arabera				
	Estatua	Organismo autonomoak	Gizarte Segurantzza	Administrazioaren sektore publikoko gainerako entitateak, aurrekontu mugatzailea dutenak	Guztira
Estatua.	–	8.702.307.91	45.007.559.40	6.929.131.85	60.638.999.16
Organismo autonomoak.	288.991.01	83.145.04	–	2.790.92	374.926.97
Administrazioaren sektore publikoko gainerako entitateak, aurrekontu mugatzailea dutenak	25.212.63	15.908.13	–	88.514.64	129.635.40
Gizarte Segurantzza	183.992.69	17.875.00	3.756.561.24	–	3.958.428.93
Guztira.	498.196.33	8.819.236.08	48.764.120.64	7.020.437.41	65.101.990.46

Lau. Artikulu honetan onetsitako gastu-egoerei dagokienez, azpisektoreen arteko programetan eta transferentzietan jasotako kredituak honela banatzen dira organikoki eta ekonomikoki, mila eurotan adierazita:

Erakundeak	Kapitulu ekonomikoak		
	I.etik VII.a arteko kapituluak Gastu ez-finantzarioak	VIII. kapitulua Aktibo finantzarioak	Gastuak, guztira
Estatua.	236.330.915.88	52.830.723.55	289.161.639.43
Organismo autonomoak.	47.930.936.55	7.144.54	47.938.081.09
Gizarte Segurantzza	175.612.154.07	573.248.37	176.185.402.44

Erakundeak	Kapitulu ekonomikoak		
	I.etik VII.a arteko kapituluak Gastu ez-finantzarioak	VIII. kapitulua Aktibo finantzarioak	Gastuak, guztira
Administrazioaren sektore publikoko gainerako entitateak, aurrekontu mugatzailea dutenak	7.888.097.90	2.007.01	7.890.104.91
GUZTIRA.	467.762.104.40	53.413.123.47	521.175.227.87

Bost. Finantza-pasiboak amortizatzeko, Bat apartatuan adierazitako erakundeen gastu-egoerei buruzko IX. kapituluan 94.410.637,36 mila euroko zenbatekoa osatzen duten kredituak onesten dira. Haien banaketa, programen arabera, lege honen I. eranskinean zehazten da.

3. artikulua. *Zerga-onurak.*

Estatuko zergetan eragina duten zerga-onurak 39.049.080,00 mila eurokoak direla kalkulatu da. Haien antolaketa sistematikoa eranskin gisa jasotzen da, Estatuaren diru-sarreraren egoeran.

4. artikulua. *Lege honen 2. artikuluan onetsitako kredituak finantzatzea.*

Lege honen 2. artikuluko Bat apartatuan onetsitako kredituak, guztira 456.073.237,41 mila eurokoak, honela finantzatuko dira:

a) Ekitaldian likidatu beharreko eskubide ekonomikoekin (dagozkien diru-sarreraren egoeretan zehaztuta daude, eta 323.996.708,23 mila eurokoak izango direla zenbatesten da); eta

b) Lege honen V. tituluaren I. kapituluan araututako eragiketetatik sortutako zorduntze garbiarekin.

5. artikulua. *Lege honen 1. artikularen b) letran adierazitako erakundeen aurrekontuak, gutxi gorabeherako aurrekontuarekin.*

Bat. Onetsi egiten dira IX. eranskinean adierazitako Merkataritza Kodean, Espainiako Enpresen Kontabilitate Plan Orokorrean, haien egokitzapenetan eta haiek garatzeko xedapenetan aipatzen diren kontabilitate-printzipio eta -arauak aplikatzen dituzten zuzenbide publikoko erakundeen aurrekontuak, aplikatzekoak diren xedapenetan jasotako kontrol-mekanismoak ezertan eragotzi gabe. Aurrekontu horietan, aipaturiko erakundeen gastuen zenbatespenak eta diru-sarreraren aurreikuspenak daude jasota, bai eta finantza-egoerak ere.

Bi. Onetsi egiten dira Estatu merkataritza-sozietateen aurrekontuak, gastuen zenbatespenak eta diru-sarreraren aurreikuspenak jasotzen dituztenak, banaka aurkeztuak edo bakoitzari dagokion enpresa-taldearekin finkatuak; azken kasu horretan, aurkezpen finkatuari dagokion sozietate-zerrenda adierazi da. Aurrekoa hala izanik ere, bereiz jasotzen dira dirulaguntzak Estatuaren Aurrekontu Orokorren kontura jasotzen dituzten Estatu merkataritza-sozietateen aurrekontuak.

Hiru. Onetsi egiten dira Estatu sektore publikoko fundazioen aurrekontuak; horien gastuen zenbatespenak eta diru-sarreraren aurreikuspenak X. eranskinean daude jasota.

Lau. Onetsi egiten dira XI. eranskinean zerrendatuta ageri diren nortasun juridikorik gabeko funtsen aurrekontuak, aplikatzekoak diren xedapenetan jasotako kontrol-mekanismoak ezertan eragotzi gabe. Aurrekontu horietan, aipaturiko funtsen gastuen zenbatespenak eta diru-sarreraren aurreikuspenak daude jasota, bai eta finantza-egoerak ere.

Bost. Onetsi egin dira VII. eranskinean zerrendatuta ageri diren partzuergoen eta Estatu-administrazioko sektore publikoko gainerako erakundeen aurrekontuak, aplikatzekoak diren xedapenetan jasotako kontrol-mekanismoei kalterik egin gabe.

Aurrekontu horietan, aipaturiko erakundeen gastuen zenbatespenak eta diru-sarrereren aurreikuspenak daude jasota, bai eta finantza-egoerak ere.

6. artikulua. *Espainiako Bankuaren aurrekontua.*

Espainiako Bankuaren Autonomiari buruzko ekainaren 1eko 13/1994 Legearen 4.2 artikuluan xedatutakoari jarraituz, onetsi egiten da Espainiako Bankuaren funtzionamendugastuen eta inbertsioen aurrekontua, eta lege honekin bat egiten du.

II. KAPITULUA

Aurrekontu-kredituak aldatzeko eta betearazteko arauak

7. artikulua. *Printzipio orokorrak.*

Aurrekontu hauen indarraldian, honako arau hauek bete beharko dira, lege honetan baimendutako aurrekontu-kredituen aldaketak eta kudeaketa gauzatzeko:

Lehen. Aurrekontu-kredituen aldaketek lege honetan xedatutakoa bete beharko dute, bai eta azaroaren 26ko 47/2003 Legeak, Aurrekontuei buruzko Lege Orokorrak, helburu horretarako xedatutakoa, baldin eta lege honek ez baditu xedapen horiek aldatu.

Bigarrena. Aurrekontuei buruzko Lege Orokorraren 43. eta 44. artikuluetan ezarritako lotura-mailak edonolakoak izanda ere, aurrekontua aldatzeko akordio orok espresuki adierazi beharko du zer atal, zerbitzu edo organo publikori eragiten dion, eta, hala egokituz gero, zer programa, artikulua, kontzeptu eta azpi-kontzeptutan duen eragina.

Hirugarrena. Gastuaren sailkapen ekonomikoaren 820.00 azpikontzeptuan («Estatuko sektore publikoari eskatutako epe laburreko maileguak, aurrekontu mugatzailea dutenak»), 821.00 azpikontzeptuan («Estatuko sektore publikoari eskatutako epe luzeko maileguak, aurrekontu mugatzailea dutenak»), 910.00 azpikontzeptuan («Estatuko sektore publikoko erakundeen epe laburreko eta aurrekontu mugatzailearen maileguen amortizazioa») eta 911.00 azpikontzeptuan («Estatuko sektore publikoko erakundeen epe luzeko eta aurrekontu mugatzailearen maileguen amortizazioa»), 40.etik 43.era eta 70.etik 73.era doazen artikuluen artean edo artikulua horien kontura egiten diren kreditu-transferentziak edo ordain-agiriak «Barneko ordain-aginduak eta transferentziak» 000X aurrekontu-programaren bidez egin beharko dira.

Laugarrena. «Ikerketa, garapena, berrikuntza eta digitalizazioa» deituriko 46. zenbakiko politikaren esparruko deialdi publikoen esparruan egin beharreko gastuak, haien hartzaileak organismo autonomoak edo aurrekontu mugatzailearen Estatuko administrazioaren sektore publikoko beste entitate batzuk direnean, kasuan kasuko deialdien ematea ebazten den unetik aurrera «Barneko ordain-agiriak eta transferentziak» 000X aurrekontu-programari egotzi beharko zaizkio, exekuzioaren fase guztietan, bai indarreko aurrekontuari dagozkionean, bai ondorengo ekitaldietako aurrekontuetan eragina dutenean ere.

Ondore horietarako, Ikerketarako Estatu Agentziaren eta Carlos III.a Osasun Institutuaren aurrekontuetan, Ministro Kontseiluak baimentzen dituen zenbait urtetarako gastu-konpromisoak hartzeko mugak, Aurrekontuei buruzko azaroaren 26ko 47/2003 Legearen 47. artikulua betez, 463B eta 000X edo 465A eta 000X programen artean banatuko dira, baldin eta beharrezkoa izango balitz dirulaguntzak emateko deialdien ebazpenetatik eratorzen diren gastuak egozteko.

Bosgarrena. Atal bakoitzaren «Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa» 50. zerbitzuan ematen diren kredituak, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoari lotuta dauden gainerako kredituak (zeinak kontsignatu baitira lege honen 1. artikuluko a) letrako 2., 3., eta 4. apartatuetan aipatzen diren erakundeen gastu-aurrekontuetan) eta Osasun Ministerioak «Kohesiorako eta Europako Lurraldeetarako Suspetzeko Laguntza (React-EU)» 51. zerbitzuan ematen dituenak ezin izango dira exekutatu kreditu horien araubide-esparruaren arabera hauta daitezkeen jarduketak finantzatzeko baino ez.

Aurreko ondorioetarako, Gobernuak plan horri atxikitako kredituak kudeatzeko irizpideak ezarriko ditu, planean ezarritako helburuak betetze aldera.

Kreditu horien bidez finantzatu behar diren gastu-proposamenekin batera, memoria espezifikoa aurkeztu beharko da. Memorian gastuen kalkulua zenbatu eta egiaztatuko beharko da jarduera bakoitzeko. Halaber, memorian azaldu beharko da jardueren zenbateraino laguntzen duten plan estrategiko onartuaren helburuak betetzen. Hori guztia Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa arautzeko araudian ezarritakoaren arabera egin beharko da.

Gobernuak atalen arteko kreditu horien transferentzia baimendu ahalko du, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa ondo erabiltzen dela ziurtatze aldera, 9. artikuluekin bat. Lege honen Bat.2.

Seigarrena. Lege honen 1. artikuluen a) letrako 2., 3. eta 4. paragrafoetan aipatutako entitateetan, Estatuko Administrazioetik jasotako transferentzien diru-sarrerak, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoetik eta REACT-EUtik datozenak, legez lotuta daude Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren barruan sartzen diren proiektu edo ekintza-lerroak estaltzeko aurrekontu-kredituak finantzatzeko. Gastua egin ezean, entitate horiek Altxor Publikoari itzuli beharko dizkiote egin beharrekoa egiteko erabili ez dituzten funts kopuruak.

Jarraipena egin ahal izateko, urteko kontuak egiten direnean, altxorraren geldikin lotuan bereizi beharko da egoera horiek babesteko zati lotua.

Erakunde horietan jasotako ordainketak haien finantza-premietara egokitzeko eta desbideratze metatu positibo gehiegi sor ez dadin, atal bakoitzaren «Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa» 50. zerbitzuan ematen diren transferentzietarako kredituak eta «Barneko ordain-agiriak eta transferentziak» 000X aurrekontu-programaren bidezkoak ordainduko dira erakunde horiek gastu hautagarriak egitearen ondorioz hirugarrenekin hartzen dituzten konpromisoen arabera.

Zazpigarrena. Gutxi gorabeherako aurrekontua duten Estatuko sektore publikoko organismo publikoetan eta gainerako erakundeetan, autonomia-erkidegoetan eta toki-korporazioetan eta haien mendeko erakundeetan,

Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoetik eta REACT-EUtik etorrira, Estatuko Administrazio Orokorretik jasotzen diren transferentziak legez lotuta daude Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planean sartzen diren proiektuen edo ekintza-lerroen finantzaketari, planean zehaztutako xehetasun-mailarekin. Gastua egiten ez bada, edo ezarritako helbururen bat edo batere betetzen ez bada, entitate horiek Altxor Publikoari itzuli beharko dizkiote jasotako funts kopuruak. Ondore horietarako, Ogasuneko ministroaren aginduz aratuko da dirua itzultzeko prozedura.

Bi mekanismo horien bidez, erakunde pribatuek kudeatutako proiektuen finantzaketan kontuan hartu behar da finantzaketa hori lotuta egongo dela planean ezarritako helburuen betetzeari, baita helburuak lortzeko kostuen kalkuluari ere. Gastua egiten ez bada, edo ezarritako helbururen bat edo batere betetzen ez bada, entitate horiek itzuli beharko dituzte jasotako funts kopuruak. Ondore horietarako, Ogasuneko ministroaren aginduz aratuko da dirua itzultzeko prozedura.

8. artikulua. *Kreditu lotesleak.*

Bat. Aurrekontu hauen indarraldian, Estatuaren, organismo autonomoen eta Estatuko administrazioaren sektore publikoko gainerako entitateen aurrekontuetako honako kreditu hauek joko dira lotesletzat:

1. Aurreko ekitaldietako betebeharrei erantzuteko kontsignatutako kredituak, gastuen egoeran duten desagregazio ekonomikoaren mailarekin.

2. 150. kreditua («Produktibitatea»), 151. kreditua («Haborokinak»), 153. kreditua («Arduraldi bereziari dagokion ordainsaria») eta 15. artikuluan «Errendimendurako pizgarriak» sartzen diren gainerako kontzeptuak.

3. 162.00 kredituak («Langileen prestakuntza eta hobekuntza»), 162.01 («Ekonomatuak eta jantokiak») eta 162.04 kredituak («Gizarte Ekintza»).

4. 221.09 kredituak («Diruaren eta Zerga-zigiluaren Fabrika Nazionalaren Lanak») eta 227.06 kredituak («Azterlan eta lan teknikoak»).

5. Atal bakoitzaren «Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa» 50. zerbitzuan ematen diren kredituak, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoari lotuta dauden gainerako kredituak (zeinak kontsignatu baitira lege honen 1. artikuluko a) letrako 2. eta 4. apartatuetan aipatzen diren erakundeen gastu-aurrekontuetan) eta Osasun Ministerioak «Kohesiorako eta Europako Lurraldeetarako Susperraldirako Laguntza (React-EU)» 51. zerbitzuan ematen dituenak ekonomikoki zehaztuko dira zenbateko globalean, langile-gastuak izan ezik, horiek Aurrekontuei buruzko azaroaren 26ko 47/2003 Lege Orokorraren 43. eta 44. artikuluetan zehaztuko baitira, bai eta jasotzailea edo onuraduna identifikatzeko esleipenak ezartzen dituzten kredituak ere, azken horiek izaera mugatzailea eta loteslea izango baitute. Espezifikazio organikoa eta funtzionala zerbitzuaren eta programaren arabera izango dira.

Bi. Aurrekontu hauen indarraldian, honako kreditu hauek joko dira lotesletzat:

1. 13. ataleko «Justizia Ministerioa» aurrekontuan, azpi-kontzeptuen mailan kreditu hauek lotetsiko dira: 13.02.112A.227.11 kreditua, «Delituaren biktimak artatzeko eta kriminaltasunaren aurkako borrokako programetarako, eta Prozedura Kriminalaren Legearen seigarren xedapen gehigarrian ezarritako gainerako xedeetarako»; eta 13.02.112A.227.12 kreditua, «Aktiboak berreskuratu eta kudeatzeko bulegoaren funtzionamenduaren eta kudeaketaren ondorioz sortzen diren gastu mota guztiak».

2. 16. ataleko «Barne Ministerioa» aurrekontuan, 16.03.132A.221.10 kreditua, «Diruaren eta Zerga-zigiluaren Fabrika Nazionalari, NANaren eta pasaportearen tasen eraginez», loteslea izango da azpi-kontzeptuen mailan.

3. 19. ataleko «Laneko eta Gizarte Ekonomiako Ministerioa» aurrekontuan, kontzeptu-mailan lotetsiko dira: 19.01.281M.207 kreditua, «Gizarte-babeseko eraikinen errentamendua»; eta 19.01.281M.628 eta 19.01.281M.638 kredituak «Sindikatu-ondare metatua».

4. 23. ataleko «Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioa» aurrekontuan, kontzeptu-mailan lotesleak izango dira honako hauek: 23.05.452A.615 kreditua, «Ingurumen-jarduketetako inbertsioak eta PIMA ADAPTA. Isurpen-eskubideen enkanteetatik eratorritako diru-sarrerekin finantzatutako jarduketak»; eta 23.06.456D.614 kreditua, «PIMA ADAPTA Kostaldeak. Isurpen-eskubideen enkanteetatik eratorritako diru-sarrerekin finantzatutako jarduketak».

5. 26. ataleko «Osasun Ministerioa» aurrekontuan, azpi-kontzeptuen mailan lotesle izango da 26.18.231A.227.11 kreditua, «Droga-trafikoarekin lotutako delituak prebenitzeko, ikertzeko, jazartzeko eta zigortzeko jardueretarako, eta maiatzaren 29ko 17/2003 Legeak adierazitako gainerako xedeetarako».

6. 23.101 organismoaren aurrekontuan («Parke Nazionalak»), kontzeptu-mailan lotesleak izango da 23.101.456C.603 kreditua, «PIMA ADAPTA Plana. Isurpen-eskubideen enkanteetatik eratorritako diru-sarrerekin finantzatutako jarduketak».

7. 28.107 organismoaren aurrekontuan («Carlos III.a Osasun Institutua»), kapitulu-mailan lotesleak izango dira, hartzailea edo onuraduna identifikatzen duten zuzkidurak salbu, eta gastuen egoeretan kontzeptu gisa duten espezifikazioa gorabehera, 7. kapituluaren («Kapital-transferentziak») 465A programarako («Osasun-ikerketa») kontsignatutako aurrekontu-kredituak.

8. 28.303 organismoaren aurrekontuan («Ikerketarako Estatu Agentzia»), kapitulu-mailan lotesleak izango dira, hartzailea edo onuraduna identifikatzen duten zuzkidurak salbu, eta gastuen egoeretan kontzeptu gisa duten espezifikazioa gorabehera, 7. kapituluaren («Kapital-transferentziak») 463B programarako («Ikerketa zientifikoa eta teknikoa sustatzea eta koordinatzea») kontsignatutako aurrekontu-kredituak.

Hiru. Aurrekontu hauen indarraldian, lotesleak izango dira, sailkapen ekonomikoaren arabera dagokien heinean, Gizarte Segurantzarekin Elkarlanean Diharduten Mutuen aurrekontuetako 130.0 «Goi-kargudunak» kreditua eta 130.1.0 «Goi-zuzendaritzako kontratuak dituzten zuzendariak» kreditua.

9. artikulua. *Aurrekontu-aldaketen alorreko eskumen espezifikoak.*

Bat. Aurrekontu hauen indarraldian, Ogasuneko ministroak proposatuta, Gobernuak honako eskumen espezifiko hauek ditu aurrekontuen aldaketen arloan:

1. Atalen arteko kreditu-transferentziak egitea, ezinbesteko premiei aurre egiteko badira, eta aurrekontuei buruzko azaroaren 26ko 47/2003 Lege Orokorraren 52.2 artikuluan aurreikusitakoez bestelako kasuetan.

2. «Susperetze eta Erresilientzia Mekanismoa» 50. zerbitzuari eta «Kohesiorako eta Europako Lurraldeetarako Susperraldirako Laguntza (React-EU)» 51. zerbitzuari eragiten dizkieten atal ezberdinen arteko kreditu-transferentziak.

Kreditu-transferentzia horiek ez dira egongo azaroaren 26ko 47/2003 Legearen 52.1. artikuluan ezarritako murrizketen mende (47/2003 Lege Orokorra, Aurrekontuei buruzkoa).

Bi. Aurrekontu hauen indarraldian, Ogasuneko ministroak izango ditu aurrekontuak aldatzeko eskumen espezifiko hauek:

1. Baimentzea lege honen 8. artikulua Bat.1, Bat.2, Bat.3, Bat.4, Bi.2, Bi.4 eta Bi.6 apartatuetan jasotako kredituetan eragina duten transferentziak.

2. Baimentzea 13.02.112A.227.11 «Delituaren biktimak artatzeko eta kriminalgasunaren aurkako borrokako programetarako, eta Prozedura Kriminalaren Legearen seigarren xedapen gehigarria ezarritako gainerako xedeetarako» kredituen kargura egiten diren transferentziak, baldin eta beste ministerio-sailetara bideratzen badira.

3. 26.18.231A.227.11 kredituaren kontura («Droga-trafikoarekin lotutako delituak prebenitzeko, ikertzeko, jazartzeko eta zigortzeko jardueretarako, eta maiatzaren 29ko 17/2003 Legeak adierazitako gainerako xedeetarako») egin beharreko transferentziak baimentzea, beste ministerio-sail batzuetara bideratzen direnean.

4. Ministerio-sail ezberdinetako zerbitzu edo organismo autonomoen artean kreditu-transferentziak baimentzea, baldin eta beharrezkoa bada Ikerketa Zientifikorako eta Garapen Teknikorako Funtseko kredituak banatzeko.

5. Ministerio-sailen zerbitzu edo organismo autonomoen artean kreditu-transferentziak baimentzea, baldin eta beharrezkoa bada langileak edo lanpostuak modu eraginkorrean berriro banatzeko, esleitzeko edo haien mugikortasunerako, Estatuko Administrazio Orokorrean jarduten duten langileen sarbiderako, lanpostuen hornikuntzarako eta administrazio bereko funtzionario zibilen lanbide-sustapenerako Erregelamendu Orokorraren (martxoaren 10eko 364/1995 Errege Dekretuak onetsia) III. tituluaren IV. kapituluaren xedatutako kasuetan, bai eta Estatuko Administrazio Orokorreko lan-kontratudun langileen nahitaezko mugikortasuna eraginkorra izan dadin ere, aplikatzekoa zaien araudiaren arabera.

6. Lege honen 1. artikulua a) letrako 1., 2., eta 4. zenbakietan aipatzen diren erakundeen aurrekontuan, kapital-eragiketarako kredituetatik eragiketa arruntetarako kredituetara egiten diren transferentziak edo aldaketak baimentzea.

7. Lege honen 1. artikulua a) letrako 4. zenbakian aipatzen diren erakundeen aurrekontuan aldaketak egitea baimentzea, baldin eta aldaketok 500.000 eurotik gorakoak badira, eta betiere aurrekontuen araudiak kompetentzia hori Ministro Kontseiluari esleitzen ez badio, edo lege-proiektu bat Gorte Nagusietara bidali behar ez bada.

Muga horrek eragiten dio aurrekontu-ekitaldian egiten diren aldaketen multzoari.

8. Lege honen 1. artikulua a) letrako 1., 2. eta 4. apartatuetan aipatzen diren erakundeen aurrekontuan aldaketak egitea baimentzea, baldin eta aldaketok 4. kapituluko kredituei («Transferentzia arruntak»), 7. kapituluko kredituei («Kapitalaren transferentziak») edo 8. kapituluko kredituei («Aktibo finantzarioak») eragiten badiete, salbu eta aurrekontuen araudiak kompetentzia hori Ministro Kontseiluari esleitzen dionean, edo lege-proiektua Gorte Nagusietara bidali behar denean, artikulua honetako Bost paragrafoan aurreikusitakoa izan ezik.

9. Baimentzea 14.03.122B.6 «Inbertsio errealak» kredituari eragiten dizkieten aurrekontu-aldaketak.

Hiru. Aurrekontu hauen indarraldian, Defentsako ministroak izango du Aurrekontuei buruzko azaroaren 26ko 47/2003 Lege Orokorraren 53.2.b) artikuluan jasotako kreditu-sortzeak baimentzeko eskumena, farmaziako produktuen salmentek edo ospitale-zerbitzuak emateak eragindako diru-sarrereren ondorio direnean, eta behar bezala baimendutako elikagaiak zein erregaiak hornitu edo janari-prestazioak edota NATOKo herrialdeetako armadei eginiko zerbitzu-prestazioak egiteak eragindako diru-sarrereren ondorio, Indar Armatueta Zaldi Hazkuntza atalak egindako zerbitzuen eta salmenten prestazioek eragindakoen ondorio direnean.

Lau. Aurrekontu hauen indarraldian, Osasuneko ministroak izango du Aurrekontuei buruzko azaroaren 26ko 47/2003 Lege Orokorraren 53.2.b) artikuluan xedatutako kreditu-sortzeak baimentzeko eskumena, kreditu horiek Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bateginak, urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitakoak, hamargarren xedapen gehigarrian adierazitako diru-sarrereren ondorio direnean.

Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bateginaren hamargarren xedapen gehigarrian aipatutako diru-sarrereren bilketaren ondorioz kreditua sortuz gero Estatuak Gizarte Segurantzari egindako transferentziek Osasun Kudeaketarako Institutu Nazionalaren gastu-aurrekontuan izan ditzaketen ondorioak adieraztearren, Osasuneko ministroak baimena eman ahal izango du entitate horren gastu-aurrekontuan behar diren kreditu-gehikuntzak egiteko.

Aurreko paragrafoan adierazitako aurrekontu-aldaketak, baimendu ondoren, Ogasun Ministerioko Aurrekontuen Zuzendaritza Nagusiari igorriko zaizkio, jakinaren gainean egon dadin.

Bost. Aurrekontu hauek indarrean dauden bitartean, ministerio-sailtako titularrei edo organismo autonomoetako presidenteei edo zuzendariei eta aurrekontu mugatzailea duten Estatuko administrazio-sektore publikoko gainerako erakundeei dagokie beren aurrekontuetan baimentzea

kreditu-transferentziak edo transferentzia arruntei eta kapital-transferentziei eragiten dieten aurrekontu-aldaketak, baldin eta laguntza emateko ebazpen-proposamenean onuradun gisa jasotako eragile hartzaileen izaera juridikoa ez badator bat dirulaguntza edo laguntza publikoen deialdian jasotako hasierako aurreikuspenarekin.

Sei. Aurrekontu hauen indarraldian, 1. artikulua a) letrako 4. zenbakian zehaztutako erakundeen aurrekontuetan kreditu-aldaketak egiteko, Estatuaren Aurrekontuetan aplikatu beharreko prozedura bera ezarri beharko da bi aldatuta-kasuetan, baldin eta erakunde horiek Estatuaren Gastu Aurrekontuaren kontura finantzatzen badira.

Zazpi. Aurrekontu hauek indarrean dauden bitartean, ministerio-sailtako titularrei edo organismo autonomoetako presidenteei edo zuzendariei eta aurrekontu mugatzailea duten Estatuko administrazio-sektore publikoko gainerako erakundeei dagokie beren aurrekontuetan baimentzea «Langileen gastuak» 1. kapituluko kreditu-gehikuntzak, kapitulu bereko kredituen kargura finantzatzen direnak, bai eta «Langileen gastuak» 1. kapituluko kredituen artean egiten diren kreditu-transferentziak ere, hainbat zerbitzu edo programari eragiten dietenak, alde batera utzita langileen errendimendua edo gizarte-gastuak sustatzeko kredituak.

Zortzi. Aurrekontu hauek indarrean dauden bitartean, ministerio-sailtako titularrei edo organismo autonomoetako presidenteei edo zuzendariei eta aurrekontu mugatzailea duten Estatuko administrazio-sektore publikoko gainerako erakundeei dagokie beren aurrekontuetan baimentzea.

Estatu Administraziooko Kontu-hartzailtza Nagusiak, Zerga Administraziooko Estatu Agentziak edota Administrazio Digitaleko Idazkaritza Nagusiak emandako zerbitzu horizontalen eta eraikin partekatuen gastu komunak finantzatzeko helburua duten kreditu-transferentziak eta kreditu-sortzeak, betiere egin beharreko jarduketaren izaera bereko kredituekin finantzatzen badira. Finantzaketa ematen duten organoak eskumena izango du transferentzietan.

Bederatzi. Aurrekontu hauek indarrean dauden bitartean, ministerio-sailtako titularrei dagokie beren aurrekontuetan baimentzea «Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa» 50.

zerbitzuko kredituen eta Osasun Ministerioak «Kohesiorako eta Europako Lurraldeetarako Susperraldirako Laguntza (React-EU)» 51. zerbitzuan ematen dituen kredituen arteko transferentziak. Era berean, ministerio-sailtako titularrei edo organismo autonomoetako presidenteei edo zuzendariari eta aurrekontu mugatzailea duten Estatuko administrazio-sektore publikoko gainerako erakundeei dagokie baimentzea Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoari lotuta eta gastu-aurrekontuetan kontsignatuta dauden kredituen arteko transferentziak.

Hamar. Gobernuak, bere Aurrekontu Bulegoaren bidez, artikulua honetan aipatutako transferentzia guztiei buruzko informazioa igorriko die Gorte Nagusiei hiru hilean behin, eragindako partidak, zenbatekoa eta xedea zehaztuta. Bulegoak diputatuen, senatarien eta parlamentu-batzordeen esku jarriko du dokumentazio hori.

10. artikulua. *Aurrekontu-mugak.*

Bat. Kapital eragiketetatik arruntetara kreditu-transferentziak –Aurrekontuei buruzko azaroaren 26ko 47/2003 Lege Orokorraren 52.1.a) artikuluan aipatzen direnak– egiteko muga ez da aplikatuko transferentziak lege honen 9.bi artikuluan 6. zenbakian jasotako baimenaz baliatuta egiten direnean eta, Osasun Kudeaketarako Institutu Nazionalaren nahiz Adinekoen eta Gizarte Zerbitzuen Institutuaren esparruan, 15. artikuluan 1 apartatuan jasotako baimenaz baliatuta egiten direnean.

Bi. Aurrekontuei buruzko azaroaren 26ko 47/2003 Lege Orokorraren 52.1.b) artikuluan adierazitako mugak ez dira aplikatuko transferentziak lege honen 9.bi artikuluan 2., 3., 4. eta 5. zenbakietan adierazitako baimenaz baliatuz egiten direnean.

Hiru. Aurrekontu hauen indarraldian ez dira aplikatuko Aurrekontuei buruzko azaroaren 26ko 47/2003 Lege Orokorraren 50. artikuluan jasotako mugak, eta aplikagarria izango da lege beraren 59. artikuluan ezarritakoa, honako aurrekontu-aplikazio hauetan egiten diren kreditu-gehikuntzak finantzatzeari dagokionez: 27.04.9230.351 aurrekontu-aplikazioan («Altxorrek emandako abailtan arriskuak estaltzea, aurreko ekitaldietako arriskuak barne»), eta 27.04.9230.355 aurrekontu-aplikazioan («Altxor Publikoaren aurrean abailak betearaztearen ondoriozko konpentsazioak»), baldin eta honako arau hauetan jasotako finantza-neurrien ondorio badira: Sektorre Elektrokoari buruzko azaroaren 27ko 54/1997 Legearen hogeita batgarren xedapen gehigarrian; Bankuak berregituratzeko eta kreditu-erakundeen bitarteko propioak indartzeko ekainaren 26ko 9/2009 Errege Lege Dekretuaren bigarren xedapen gehigarrian; maiatzaren 28ko 9/2010 Errege Lege Dekretuaren artikulua bakarrean, non Estatuko Administrazio Orokorrari baimena ematen baita finantzaketa-eragiketa jakin batzuetarako abailak eman ditzan, finantzak egonkortzeko Europako mekanismoaren esparruan; Estatuaren 2012rako Aurrekontu Orokorrei buruzko ekainaren 29ko 2/2012 Legearen 52. artikuluan Bi.e) apartatuan, eta 2013rako Estatuaren Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 27ko 17/2012 Legearen 54. artikuluko Bi.b) apartatuan; maiatzaren 26ko 19/2020 Errege Lege Dekretuaren (COVID-19ren ondorioak arintzeko nekazaritza, zientzia, ekonomia, enplegu eta gizarte segurantzaren arloan eta zergen arloan neurri osagarriak hartzen dituen) 4. eta 5. artikuluetan; ekainaren 9ko 21/2020 Errege Lege Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarrian (COVID-19k eragindako osasun-krisiari aurre egiteko prebentzio-, euste- eta koordinazio-neurri urgenteei buruzkoa); ekonomia suspertzeko eta enplegua bultzatzeko premiazko neurri buruzko uztailaren 3ko 25/2020 Errege Lege Dekretuaren 1. artikuluan, eta «Europar Batasunarekiko Finantza Harremanak» 34. atalean egiten diren kreditu-handitzeen finantzaketari dagokionez, eta lege honen II. Eranskineko Bigarren. Sei.d) apartatuan jasotzen den aurrekontu-aplikazioan, horiek zorpetzearen bidez finantzatuko dira, eta Estatuko Administrazio Orokorrek baimena izango du eskatutako eragiketak egiteko.

Lau. Aurrekontu hauek indarrean dauden bitartean, higiezin errentamenduetatik eratorritako urte anitzeko gastuak, errentamendu- eta eskuratzeko kontratu mistoak barne, ezin izango dira hamar urtetik gorakoak izan; eta hurrengo ekitaldietako bakoitzari egotzitako gastuak ezin izango du gainditu hasierako kredituari ehuneko 100 aplikatuta ateratzen den zenbatekoa.

Hasierako kreditua ez balego, Gobernuak erabaki ahalko luke aurreko ehuneko hori handitzea, urteko kuota kopurua handitzea edo aurreko ekitaldietako gastuei aurre egiteko konpromisoak hartzeko baimena ematea, aurrekontuei buruzko azaroaren 26ko 47/2003 Lege Orokorraren 47. artikulua 3. apartatuan ezarritako prozedurarekin bat etorrita.

Bost. Aurrekontu hauen indarraldian ezin izango dira sartu aurreko ekitaldian onartutako sorreretatik eratorritako kredituen geldikinak; hortaz, indargabetu egiten da aurrekontuei buruzko azaroaren 26ko 47/2003 Lege Orokorraren 58. artikulua b) letran ezarritakoa.

Sei. Gobernuak, hiru hilean behin, bere Aurrekontu Bulegoaren bidez, epe horretan egindako kreditu-aldaketen berri emango die Gorte Nagusiei, artikulua honetan xedatutakoa betetzen dela jakinarazteko. Bulegoak diputatuen, senatarien eta parlamentu-batzordeen esku jarriko du dokumentazio hori.

11. artikulua. *Kredituak zabaltea eta eranstea.*

Bat. Aurrekontuei buruzko azaroaren 26ko 47/2003 Lege Orokorraren 54. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, lege honen II. eranskinean adierazitako kredituak joko dira zabalgarritzat.

Bi. Aurrekontuei buruzko azaroaren 26ko 47/2003 Lege Orokorraren 58.a) artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, lege honen VII. eranskinean adierazitako geldikinak ekitaldiko kredituei erantsi ahal izango zaizkie.

III. KAPITULUA

Gizarte Segurantzza

12. artikulua. *Gizarte Segurantzza.*

Bat. Osasun-laguntzaren finantzaketa, Osasun Kudeaketarako Institutu Nazionalaren aurrekontuaren bidez, Estatuaren bi xede-ekarpenen bidez egingo da: bata, eragiketa arruntak egiteko, 281.942,48 mila eurokoa; eta bestea, kapital-eragiketarako egiteko, 40.000,18 mila eurokoa; halaber, entitate horri lotutako beste edozein diru-sarreraren bidez, eta 1.097,46 mila euroko zenbatekoa kalkulatu da.

Bi. Adinekoen eta Gizarte Zerbitzuen Institutuaren aurrekontua Estatuaren ekarpenen bidez finantzatu da 2021eko ekitaldian: eragiketa arruntak egiteko, 5.271.854,05 mila euro, eta kapital-eragiketarako egiteko 9.125,00 mila euro, eta entitate horri lotutako beste edozein diru-sarrera, 36.730,68 mila eurokoa izatea kalkulatu dena.

Hiru. Itsasoko Gizarte Institutuaren kotizaziopekoa ez den osasun-laguntza finantzatzeko, Estatuak bi ekarpen egingo ditu; bata, eragiketa arruntetarako, 2.855,00 mila eurokoa, eta bestea, kapital-eragiketarako, 20,00 mila eurokoa. Halaber, Estatuaren ekarpenaren bidez finantzatu dira Institutu horren gizarte-zerbitzuak, 14.262,00 mila euroko transferentzia arrunt baten bidez, eta kapital-eragiketarako 1.240,20 mila euroko transferentzia baten bidez.

Lau. Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bateginaren hogeita hamabigarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren ondorioetarako, honako transferentzia hauek egingo ditu Estatuak Gizarte Segurantzaren aurrekontuetara, Toledoko Itunaren lehen gomendia (2020) betetzeko:

Kontzeptua	Mila euro
Adingabea jaio eta zaintzeko ordaindutakoaren araberako prestazioa finantzatzeko.	2.784.724.51
Gizarte Segurantzako kotizazioaren murrizketak finantzatzeko.	1.779.447.58
Beste kontzeptu batzuk finantzatzea, Toledoko Itunaren lehen gomendia (2020) betez.	9.364.827.91

Bost. Gizarte Segurantzako gainerako erakunde kudeatzaileak eta zerbitzu erkideak finantzatzeko, Estatuak honako ekarpen hauek egingo ditu kontzeptu eta zenbateko hauek direla eta:

Kontzeptua	Mila euro
Urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarrian xedatutakoa betetzeko (Indar Armatuak eta Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoetako langileen ezohiko pentsioak).	249.75
Abenduaren 20ko 26/1990 Legeak eta azaroaren 15eko 35/2007 Legeak ezarritako kotizazio gabeko prestazioak finantzatzeko. Familia babesteko, baita aurreko ekitaldietako betebeharreri erantzuteko ere.	1.414.001.30
Adingabearen jaiotzagatiko eta zaintzagatiko prestazio ekonomiko ez-kontributiboak finantzatzeko.	550.00
Genero-indarkeriaren biktimen aldeko zurratasun-prestazio ez-kontributiboak finantzatzeko.	4.900.00
Gizarte Segurantzaren sistemako gutxieneko pentsioen osagarriak finantzatzeko.	7.075.019,95
Bizitzeko gutxieneko errenta finantzatzeko.	3.016.910.00
Gizarte Segurantzako kuotetarako eta 1977ko urriaren 15eko Amnistia Legetik eratorritako beste betebeharreri batzuetarako, baita aurreko ekitaldietako betebeharreri aurre egiteko ere.	12.02
Kanarietako Ekonomia eta Zerga Araubideari buruzko uztailaren 6ko 19/1994 Legean zehaztutako ontzietako tripulatzaileentzako enpresa-kuoten hobariak finantzatzeko, baita aurreko ekitaldietako betebeharreri aurre egiteko ere.	60.000,00
Sindrome toxikoaren prestazioak finantzatzeko, baita aurreko ekitaldietako betebeharreri aurre egiteko ere.	27.527,47
Gizarte Segurantzaren sistemaren 60 urtetik gorako langileei ohiko erretiroa hartu aurreko laguntzak finantzatzeko.	6.500,00
Zamaren sektorea 2014ko abenduaren 11ko EBJAren epaiaren ondorioz izandako lan-harremanen aldaketetara egokitzeko laguntzak finantzatzeko.	13.000,00
Estatuak Gizarte Segurantzaren aurrekontuari egindako ekarpena, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismitik datorrena.	8.500,00

II. TITULUA

Aurrekontu-kudeaketa

I. KAPITULUA

Irakaskuntzako aurrekontuen kudeaketa

13. artikulua. *Itunpeko ikastetxeei laguntzeko funts publikoak banatzeko modulu ekonomikoa.*

Bat. Eskola-unitateko modulu ekonomikoaren zenbatekoa, ikastetxe itunduak sostengatzeko 2021eko funts publikoen zenbateko globala banatzeko, lege honen IV. eranskinean finkatutakoa da, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 117. artikulua bigarren eta hirugarren zenbakietan eta hogeita zazpigarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera.

116.1 artikuluan xedatutakoa betetzeko, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 15.2 artikuluan adierazitakoarekin lotuta, Haur Hezkuntzako

irakaskuntzetan itundutako unitateak IV. eranskinean zehaztutako modulu ekonomikoen arabera finantzatu dira.

Erdi-mailako eta goi-mailako heziketa-zikloak IV. eranskinean zehaztutako modulu ekonomikoen arabera finantzatu dira. Eskola-unitate bakoitzeko 30 ikasletik beherako ratioa izateko baimena duten lanbide-heziketako unitate itunduen beste gastu batzuetarako partidan, 0,015eko koefiziente murriztailea aplikatuko da dagokion baimenean gehienezko ikasle kopurutik kentzen den ikasle bakoitzeko.

Erdi-mailako eta goi-mailako heziketa-zikloetan, Lantokiko Prestakuntza, enpresek ikasleen praktikan parte hartzeari dagokionez, ikastetxe publikoetarako ezarrita dagoen bezala finantzatu da.

Oinarrizko Lanbide Heziketako zikloak IV. eranskinean ezarritako modulu ekonomikoaren arabera finantzatu dira. Oinarrizko Lanbide Heziketako zikloetako itunek izaera orokorra izango dute, Hezkuntzari buruzko 2/2006 Lege Organikoaren 116.6 artikuluan ezarritakoaren arabera –Hezkuntzaren Kalitatea Hobetzeko abenduaren 9ko 8/2013 Lege Organikoaren hirurogeita hamargarren zenbakiak aldatu egin zuen artikulua hori–.

Halaber, Batxilergoko irakaskuntza ematen duten unitate itunduak lege honen IV. eranskinean zehaztutako modulu ekonomikoaren arabera finantzatu dira.

Autonomia-erkidegoek egokitu egin ahalko dituzte aipaturiko eranskinean ezarritako moduluak, irakaskuntza bakoitzeko ezarritako curriculumaren eskakizunak aintzat hartuta; betiere, hori egitean ez badira murrizten modulu horien zenbatekoak, lege honetan finkatutako kopuru berezietan.

Irakasleen ordainsariek 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera izango dituzte ondorioak, funts publikoekin guztiz edo zati batez sostengatuko Irakaskuntza Pribatuko Enpresen Hitzarmen Kolektiboak, itunpeko ikastetxeetan hezkuntza-maila bakoitzari aplikatu beharrekoak, sinatzen diren egunari kalterik egin gabe. Administrazioak konturako ordainketak onartu ahal izango ditu dagokion hitzarmena sinatzen den arte, betiere enpresaburuen elkarte guztiek berariaz eta batera eskatuta eta aipatutako hitzarmen kolektiboak negoziatzen dituzten antolakunde sindikatuei kontsulta eginda; konturako ordainketa horiek 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera izango dituzte ondorioak. «Beste gastu batzuk» moduluaren osagaiak 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak.

Administrazioak zuzenean ordainduko ditu irakasleen soldatetarako zehaztutako zenbatekoak, gizarte-kargak barne, edozein dela ere irakasleen eta dagokion ikastetxearen titularraren arteko lan-harremana. «Gastu aldakorrek» osatzen dituzten zenbatekoen banaketa egiteko, itunen araubidea erregulatzeko xedapenetan ezarritakoa beteko da.

«Beste gastu batzuk» kontzeptuari dagokion zenbatekoa hileroko ordainduko da, eta ikastetxeek, dagokion ekitaldi ekonomikoa amaitzean, ikastetxeko irakaskuntza itundu guztietarako batera justifikatu ahal izango dute haren aplikazioa. Erdi-mailako eta goi-mailako heziketa-zikloetan, ziklo horiek 1.300 edo 1.400 orduko iraupena baldin badute, hezkuntza-administrazioek erabaki ahal izango dute bigarren mailako beste gastu batzuen partidan, IV. eranskineko moduluan zehaztutakoa, lehenengo mailakoarekin batera ordaintzea, baina zenbateko globala handitu gabe.

Bi. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako maila guztietan unitate itunduak dituzten ikastetxeei finantzaketa emango zaie Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak 22.3 artikuluan adierazitako hezkuntza-orientazioko zerbitzuetarako. Zuzkidura hori kalkulatzeko, eginkizun horiek betetzeko profesional baten lanaldi osoa hartuko da oinarritzat, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 25 unitate itunduko. Horrenbestez, ikastetxe itunduek profesional horri dagokion lanaldia jasotzeko eskubidea izango dute, itunduta duten Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako unitate kopuruaren arabera. Hezkuntza-administrazioek, beren eskumenen eremuan, eta xedagarri duten aurrekontuaren arabera, handitu egin ahal izango dute hezkuntza-orientazioko zerbitzuen finantzaketa.

Hiru. Hezkuntza-administrazioek, beren eskumenen eremuan, irakasle eta unitate itundu arteko erlazio egokiak finkatu ahal izango dituzte, itundutako maila bakoitzean indarrean dagoen ikasketak-plana gauzatzeko. Kalkulu hori egiteko, irakasle bakoitzak astean hogeita bost eskola-ordu ematen dituela joko da.

Administrazioak ez du onartuko ez ordainsarien gehikuntzarik, ez orduen murrizketarik, ez beste inolako egoerarik, halakoen ondorioz IV. eranskineko modulu ekonomikoetan aurreikusitakoa gainditzen bada.

Halaber, Administrazioak ez du onartuko hitzarmen kolektiboan finkatutako ordainsari-gehikuntzarik, irakaskuntza-maila desberdinetako irakaskuntza publikoko irakasleentzat xedatutako portzentajea baino handiagoa izanez gero, non eta Administrazioak ez duen berariaz baiesten eta horretarako aurrekontu-izendapena egiten, Hezkuntzari buruzko 2/2006 Lege Organikoak, maiatzaren 3koak, 117.4 artikuluan adierazitako pixkanakako parekatzearen mesedetan.

Lau. Hezkuntza-administrazioek, beren eskumenen eremuan, handitu egin ahal izango dituzte ikastetxe itunduetako irakasle/unitate erlazioak, lege hau indarrean jarri bitartean hartutako birkokatze-neurriek eragindako irakasleen guztirako kopuruaren arabera, ordainketa eskuordetuko nominan baldin badaude, eta irakasle-taldeen mailaz mailako indartzea helburu hartuta. Hori guztia hala izanik ere, unitate-aldaketak egin ahal izango dira ikastetxe itunduetan, hezkuntza-itunen alorrean indarrean dagoen araudiaren ondorioz.

Bost. Itunpeko ikastetxeei konpentsazio ekonomiko eta profesionalak emango zaizkie, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak (Hezkuntzaren Kalitatea Hobetzeko abenduaren 9ko 8/2013 Lege Organikoaren bidez aldatuta) 117.3 artikuluan adierazitako zuzendaritza-funtzioa bete dezaten.

Sei. Irakaskuntza arautuetan, gehienez ere zenbateko hauek jaso ahal izango dituzte ikastetxeek ikasleengandik, derrigorrezkoak ez diren irakaskuntza-mailetarako sinatutako itun berezien araubiderako esleitutako funts publikoen bidezko finantzaketaren osagarri:

a) Goi-mailako prestakuntza-zikloetan: ikasle bakoitzeko, hilean 18 eta 36 euro artean, hamar hilabetez, 2021eko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean.

b) Batxilergoan: ikasle bakoitzeko, hilean 18 eta 36 euro artean, hamar hilabetez, 2021eko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean.

Ikastetxeek ikasleei zenbateko horiek kobratzearen ondorioz lortutako finantzaketa Administrazioak «Beste gastu batzuk» finantzatzeko zuzenean emandako zenbatekoaren osagarri izango da.

2020an kuota horiek baino handiagoak kobratzeko baimena zuten ikastetxeek 2021ean ere kuota berak kobratzen jarrai dezakete.

Administrazioak emandako zenbatekoa ezin izango da lege honen IV. eranskinean zehaztutako modulu ekonomikoetako «Beste gastu batzuk» osagaiari 3.606,08 euro minoratuta geratzen den kopurua baino txikiagoa izan. Hezkuntza-administrazio eskudunek beharrezkoa den araudia ezarri ahal izango dute, horri dagokionez.

Zazpi. Itunpeko irakaskuntzaren finantzaketa Ceutan eta Melillan: Ceutako eta Melillako lurralde-eremuko eskola-unitate bakoitzeko modulu ekonomikoaren zenbatekoa V. eranskinean zehaztutakoa izango da, ikastetxeek zuzendaritza-taldeak izan ditzaten, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak (Hezkuntzaren Kalitatea Hobetzeko abenduaren 9ko 8/2013 Lege Organikoaren bidez aldatuta) 117.3 artikuluan adierazitakoari jarraikiz, eta lege horren beraren 22.3 artikuluan adierazitako hezkuntza-orientazioko zerbitzuen finantzaketa handitzearen, funtzio horietarako profesional egoki baten lanaldi osoaren baliokidea oinarri hartuta, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako itunpeko 16 unitateko eta Lehen Hezkuntzako 24 unitateko.

14. artikulua. *Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionaleko (UNED) langileen kostuak baimentzea.*

Unibertsitatei buruzko abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoak lehenengo xedapen gehigarrian adierazitakoari jarraituz, haren 81.4 artikuluan ezarritakoarekin bat eta lege honen III. tituluaren ezarritakoari lotuta, baimendu egiten dira Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionaleko (UNED) irakasleen (funtzionarioak eta kontratadunak) eta administrazioko nahiz zerbitzuetako langileen (funtzionarioak eta langile lan-kontratadun finkoak) kostuak 2021erako, lege honen VI. eranskinean kontsignatutako zenbatekoetan.

II. KAPITULUA

Osasunaren eta gizarte-zerbitzuen aurrekontu-kudeaketa

15. artikulua. *Osasun Kudeaketarako Institutu Nazionalaren eta Adinduen eta Gizarte Zerbitzuen Institutuaren aurrekontu-aldaketen arloko eskumen espezifikoak.*

Aurrekontu hauen indarraldian, Ogasuneko ministroak izango du eskumena Osasun Kudeaketarako Institutu Nazionalaren nahiz Adinekoen eta Gizarte Zerbitzuen Institutuaren aurrekontuetan honako aldaketa hauek baimentzeko:

Bat. Langile-gastuetan edo aurrekontuei buruzko azaroaren 26ko 47/2003 Lege Orokorren 44.2 artikuluan aipatzen diren gainerako aurrekontu-kredituetan eragina duten kreditu-transferentziak, bai eta kapital-eragiketarako kredituetatik eragiketa arruntetarako kredituetara egiten diren transferentziak ere.

Hala eta guztiz ere, erakunde bakoitzaren «Langileen gastuak» 1. kapituluko kredituen arteko kreditu-transferentziak direnean, hainbat programari eragiten badieten ere, errendimendua pizteko edo langileen gastu sozialak izan ezik, Osasuneko ministroak edukiko du eskumena, Osasun Kudeaketarako Institutu Nazionalaren aurrekontuari dagokionez; eta Gizarte Eskubideetako eta Agenda 2030eko ministroak, Adinduen eta Gizarte Zerbitzuen Institutuaren aurrekontuari dagokionez.

Bi. Aurrekontuei buruzko azaroaren 26ko 47/2003 Lege Orokorren 58. artikuluan araututako geldikin-eransketak.

16. artikulua. *Diruzaintzako geldikinak Adinduen eta Gizarte Zerbitzuen Institutuaren aurrekontuan aplikatzea.*

Urte bakoitzeko abenduaren 31n Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrean Adinduen eta Gizarte Zerbitzuen Institutuaren alde dauden geldikinak Adinduen eta Gizarte Zerbitzuen Institutuaren gastu-aurrekontua finantzatzera bideratu ahal izango dira. Hurrengo ekitaldian egin daitezkeen kreditu-aldaketak finantzatzeko ere erabili ahal izango dira.

Nolanahi ere, Estatuak 2020ko kotizazio gabeko erretiro- eta baliaezintasun-pentsioak finantzatzean dauden geldikinen ondorioz sor litezkeen diruzaintzako geldikinak, Gizarte Segurantzaren Kontu Hartzailatza Nagusiak ziurtatuak, kotizazio gabeko erretiro- eta baliaezintasun-pentsioei erantzuteko kredituetan gerta litezkeen gabeziak finantzatzeko baino ezin izango dira aplikatu.

III. KAPITULUA

Aurrekontu-kudeaketarako beste arau batzuk

17. artikulua. *Zerga Administrazioko Estatu Agentzia.*

Bat. Zerga-bilketaren likidazio- eta kudeaketa-egintzetatik edota Zerga Administrazioko Estatu Agentziak erabakitako edo emandako beste administrazio-egintza batzuetatik 2021ean lortutako bilketa gordinaren partaidetza-portzentajea 100eko 5ekoa izango da.

Bi. Abenduaren 27ko 31/1990 Legearen 103. artikuluen bost.b) puntuaren laugarren paragrafoan xedatutakoaren ondorioetarako, aipatutako partaidetzaren ondorioz Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren baliabide-aldakuntza Ogasuneko ministroak baimendu beharreko kreditu-sortzearen bidez gauzatuko da. Haren zenbatekoa kalkulatzeko, aurreko puntuan adierazitako portzentajea aplikatuko da.

Hiru. Zerga-bilketaren likidazio- eta kudeaketa-ekintzetatik edota Zerga Administrazioko Estatu Agentziak erabakitako beste administrazio-ekintza batzuetatik sortutako bilketa, 2020ko abenduko Estatu Diru-sarreraren Aurrekontuari aplikatuta, hala dagokionean, kreditua sortu ahal izango du 2021rako Estatuaren Aurrekontuko kontzeptu berean edo baliokide batean, artikulua honen Bat atalean xedatutako portzentajearen, 1993ko

martxoaren 4ko Aginduan xedatutako prozedurari jarraikiz. Agindu horrek 39/1992 Legearen (1993rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren Legea) 97. artikulua garatzen du.

III. TITULUA

Langileen gastuak

I. KAPITULUA

Sektore publikoaren zerbitzurako langileen gastuak

18. artikulua. *Jarduera ekonomikoaren plangintza orokorraren oinarriak eta koordinazioa, sektore publikoaren zerbitzurako langileen gastuen alorrean.*

Bat. Kapitulu honetan xedatutakoaren ondorioetarako, honako hauek osatzen dute sektore publikoa:

- a) Estatuko Administrazio Orokorrak, bere organismo autonomoek, Estatu-agentziek eta haren eskumeneko unibertsitateek.
- b) Autonomia-erkidegoetako administrazioek, beren mendeko erakundeek eta haien eskumeneko unibertsitateek.
- c) Toki-korporazioek eta haien mendeko organismoek.
- d) Gizarte Segurantzako erakunde kudeatzaileek eta zerbitzu erkideek.
- e) Estatuko organo konstituzionalek, non eta Konstituzioaren 72.1 artikuluan ez den besterik xedatzen, eta autonomia-erkidegoetako batzar legegileek.
- f) Merkataritza-sozietate publikoek; hots, artikulua honetan adierazitako administrazioen eta erakundeen aldetik ehuneko 50 baino gehiagoko partaidetza dutenak haien kapital sozialean, zuzenean edo zeharka. Estatuko sektore publikoan, halakotzat joko dira Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 111.1 artikuluan araututakoak.
- g) Enpresa-entitate publikoek eta Estatuko, autonomia-erkidegoko eta tokiko sektore publikoko gainerako erakunde publikoek eta erakundeek.
- h) Sektore publikoko fundazioek eta nagusiki sektore publikoa osatzen duten administrazio nahiz organismoen partaidetza duten partzuergoek.
- i) Espainiako Bankuak, Espainiako Bankuaren Autonomiari buruzko ekainaren 1eko 13/1994 Legeak xedatutako baldintzetan.
- j) Banku Berregituraketa Ordenaturako Funtza (FROB).

Bi. 2021. urtean, sektore publikoaren zerbitzurako langileen ordainsariak ezin izango dute ehuneko 0,9tik gorako gehikuntzarik izan, 2020ko abenduaren 31n indarrean zeudenekin erkatuta, alderatutako bi aldiak homogeneousak izanik, bai langile-kopuruari, bai antzinasunari erreparatuta. Gizarte-ekintzaren arloko gastuak ezin izango dira handitu, termino globaletan, 2020ko gastuekin erkatuta. Horri dagokionez, gizarte-ekintzako gastuak egindako lanaren kontraprestazioez bestelako etekin, osagarri edo hobekuntzak direla irizten zaio, baldin eta haien xedea sektore publikoko langile horien inguruabar pertsonalen ondoriozko beharrian jakin batzuei erantzutea bada.

Hiru. Enpleguko pentsio-planetan edo aseguru kolektiboak hitzartzeko kontratuetan ekarpenak egin ahalko dira sektore publikoan, betiere aurreko apartatutan zehaztutako gehikuntza globala gainditu gabe.

Lau. Langile lan-kontratudunen soldata-masa, zeina artikulua honetako Bi apartatuan aurreikusitako gehieneko portzentajea igo ahalko baita, konparatzen diren bi aldiatarako modu homogeneousan, langile horiek aurreko urtean sorrarazitako soldata guztiek eta soldataz kanpoko ordainsari guztiek osatuko dute.

Nolanahi ere, honako hauek salbuespen izango dira:

- a) Gizarte Segurantzaren prestazioak eta kalte-ordainak.
- b) Enplegatzaileak Gizarte Segurantzako sistemara egindako kotizazioak.

- c) Lekualdatzeei, etendurei edo kaleratzeei dagozkien kalte-ordainak.
d) Langileak egindako gastuengatiko kalte-ordainak edo ordezteak.

Bost. 1. Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren testu bateginaren (urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsia; aurrerantzean, EPOE) 76. artikuluan zehaztutakoaren mende dauden funtzionarioek, Funtzio Publikoa Erreformatzeko Neurrien abuztuaren 2ko 30/1984 Legearen aplikazio-eremuan jasota daudenean, EPOEren azken xedapenetako laugarrenean edo berau garatzeko emandako Funtzio Publikoaren legeetan xedatutako moduan, honako zenbateko hauek jasoko dituzte soldata eta hirurteko gisa, 2021eko urtarriletik abendura arteko nomina arruntetan, hamabi hilabete-saritan:

Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren taldea/ azpitaldea	Soldata (Euroak)	Hirurtekoak (Euroak)
A1	14.572.68	560.88
A2	12.600.72	457.44
B	11.014.68	401.28
C1	9.461.04	346.20
C2	7.874.16	235.68
E (30/1984 Legea) eta profesionalen multzoak (EPOE).	7.206.96	177.36

2. Aurreko puntuan adierazitako funtzionarioek honako zenbateko hauek jasoko dituzte 2021eko ekaineko eta abenduko aparteko ordainsari bakoitzean, soldata eta hirurteko gisa:

Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren taldea/ azpitaldea	Soldata (Euroak)	Hirurtekoak (Euroak)
A1	749.38	28.85
A2	765.83	27.79
B	793.33	28.92
C1	681.43	24.91
C2	650.20	19.44
E (30/1984 Legea) eta profesionalen multzoak (EPOE).	600.58	14.78

Sei. Aurreko zenbakian xedatutakoaren helburuetarako, funtzionario publikoek jaso beharreko ordainsariak, 2007rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko Legea onetsi arte, abuztuaren 2ko 30/1984 Legeak 25. artikuluan xedatutako titulazio-taldeen arabera erabakitzen ziren. Harrezkero, EPOEren 76. artikuluan eta hirugarren xedapen iragankorrean ezarritako lanbide-sailkapeneko talde eta azpitaldeak hartzen dira oinarri, lege honen bidez egindako aldaketekin. Honako hauek dira bi sailkapen-sistema horien arteko baliokidetasunak:

A taldea (30/1984 Legea): A1 azpitaldea (Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutua).
B taldea (30/1984 Legea): A2 azpitaldea (Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutua).
C taldea (30/1984 Legea): C1 azpitaldea (Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutua).
D taldea (30/1984 Legea): C2 azpitaldea (Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutua).
E taldea (30/1984 Legea): Profesionalen multzoak (Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutua).

Zazpi. Aurreko apartatuetan xedatutakoak ez dio kalterik egingo ohiz kanpoko kasuetan ordainsarrietan egokitzapenak egiteari, beharrezko direnean lanpostuen edukiagatik, programa bakoitzari esleitutako langile kopuruen aldaketagatik, edo programarako finkatutako helburuen lortze-mailagatik.

Zortzi. Artikulu honetan ezarritako ordainsari-igoerak baino handiagoak dakartzaten akordio, hitzarmen edo itunak egokitu egin beharko dira, eta artikulu honetan ezarritakoaren kontrakoak diren klausulak ezin izango dira aplikatu.

Bederatzi. Lege honetan ordainsariei aipamena egiten zaien guztietan, ordainsari osoei egiten zaie.

Hamar. Artikulu honetan ezarritako mugak sektore publikoko langileen merkataritza-kontratuen ordainsariei aplikatuko zaizkie.

Hamaika. Artikulu honek oinarritzko izaera du, eta Konstituzioaren 149.1.13 eta 156.1 artikuluen babesean emana dago. Gainera, hiru zenbakia Enplegatu Publikoaren Oinarritzko Estatutuaren 29. artikuluan xedatutakoa aplikatuz ematen da.

19. artikulua. *Enplegu publikoaren eskaintza, kontratuak eta sektore publikoko langileen aldi baterako izendapenak.*

Bat. 1. Sektore publikoan harreman mugagabea duten langile berriak sartzea, aurreko artikulua (Uno.e) apartatuan aipatzen diren organoak alde batera utzita, artikulu honetan jasotzen diren irizpideen arabera arautuko da, eta aktiboen berrezarpen-tasa ehuneko 110ekoa izango da lehentasunezko sektoreetan, eta ehuneko 100ekoa gainerako sektoreetan.

Aurreko ekitaldiko abenduaren 31n finantza-zorra amortizatuta duten toki-erakundeek ehuneko 110eko tasa izango dute sektore guztietan.

2. Merkataritza-sozietate publikoak eta enpresa-erakunde publikoak, sektore publikoko fundazioak eta sektore publikoa osatzen duten administrazio eta erakunde gehiengo partaidetza duten partzuergoak arautuko ditu hogeita batgarren eta hogeita bigarren xedapen gehigarrietan ezarritakoak.

3. Berrezarpen-tasari dagokionez, honako hauek jotzen dira lehentasunezko sektoretzat:

A) Maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoa, Hezkuntzari buruzkoa, garatzeko hezkuntza-eskumenak dituzten Administrazio Publikoak, irakasle funtzionarioen kidegoan sartzeko lanpostu kopurua zehazteari dagokionez.

B) Osasun-eskumenak dauzkaten Administrazio Publikoak, Osasun Sistema Nazionaleko osasun zerbitzuetako estatutupeko langileen eta langile baliokideen lanpostuei dagokienez.

C) Indar Armatuak, karrerako militarren eta militar osagarrien lanpostuei dagokienez, Karrera Militarri buruzko azaroaren 19ko 39/2007 Legean xedatutakoaren arabera.

D) Administrazio Publikoak, zergen, lanaren, dirulaguntza publikoen nahiz Gizarte Segurantzaren arloetako iruzurra kontrolatzeko eta horien aurka borrokatzeko, bai eta baliabide publikoak modu efizientean esleitzen direla kontrolatzeko ere.

E) Administrazio Publikoak, aholkularitza juridikoari eta baliabide publikoen kudeaketari dagokienez.

F) Justizia Administrazioiko Letraduen Kidegoetako eta Justizia Administrazioaren zerbitzuko funtzionarioen lanpostuak.

G) Administrazio Publikoak, suteak prebenitzeko eta itzaltzeko zerbitzuetako lanpostuak betetzeari dagokionez.

H) Administrazio Publikoak, Espainiako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Sistemako agenteen ikertzaile- eta teknikari-lanpostuei dagokienez, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko ekainaren 1eko 14/2011 Legean ezarritako baldintzetan.

Estatuko Administrazioiko Ikerketa Erakunde Publikoetan, gainera, 30 lanpostu baimentzen dira erakunde horietan ikertzaileak lan-kontratuko langile finko gisa kontratatzeko.

Era berean, berrezarpen-tasaren gehieneko muga ehuneko 110 izanik, beste Administrazio Publikoetako ikerketa-organismoek baimena ematen zaie I3 ziurtagiriaren balioidea den ebaluazioa gainditu duten ikertzaile doktoreak organismo horietan lan-kontratadun langile finko gisa kontratatzeko, ikertzaile gailenen modalitatean.

I) Unibertsitateko Katedradunen eta Unibertsitateko Irakasle Titularren Kidegoetako lanpostuak, Unibertsitateko irakasle doktore kontratatuenak, Unibertsitateei buruzko abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoaren 52. artikuluan arautuak; eta administrazio eta zerbitzuetako langile aritzeko lanpostuak, baldin eta dagozkien administrazio publikoek lanpostu horiek eskaintzeko deialdiak baimentzen badituzte.

Unibertsitateko Katedradunen eta Irakasle Titularren Kidegoei eta irakasle doktore kontratatuei dagozkien berrezarpen-tasaren mugaren barruan, aurreko paragrafoan zehaztutako horretan, unibertsitate bakoitzak lanpostuen gutxienez ehuneko 15 eskaini beharko die Ramón y Cajal programaren esparruan I3 ziurtagiria lortu duten ikertzaile doktoreei, egiaztapena daukaten kategorian. Erreserban ezarritako lanpostu guztiak erabiltzen ez baldin badira, bikaintasuneko, Estatuko edo nazioarteko programetako beste ikertzaile batzuei eskaini ahal izango zaizkie, baldin eta I3 ziurtagiria lortu badute. Unibertsitateak Unibertsitateetako Ministerioaren ziurtagiria aurkeztu beharko du, eta bertan adierazi beharko da eskainitako programek atal honetan ezarritako eskakizunak betetzen dituztela.

J) Balore-merkatuak eta horietan parte hartzen dutenak ikuskatzeari eta ikertzeari dagozkien lanpostuak.

K) Aire-segurtasunari dagozkion lanpostuak, aire-segurtasuna, hegaldiak, aireportu-eragiketak eta horiekin lotutako jarduketak ikuskatzen eta gainbegiratzen dituzten langileei dagozkien; eta itsas segurtasunarekin lotutako langileen lanpostuetan, itsas salbamendu eta prebentzioko lana eta itsas kutsaduraren aurkako borroka egiten dutenean, baita trenbide-segurtasunarekin eta trenbide-eragiketekin lotutako langileen lanpostuei dagozkien ere.

L) Espetxe Administrazioa.

M) Segurtasun Nuklearerako Kontseilua, instalazio erradioaktibo eta nuklearrak zuzendu, aztertu eta ebaluatu, ikuskatu eta kontrolatzeko eginkizunak betetzen dituzten Segurtasun Nuklear eta Babes Erradiologikorako Kidegoko goi-eskalako funtzionarioen lanpostuei dagozkien.

N) Estatuaren Atzerri Ekintza.

Ñ) Gizarte-zerbitzuen erabiltzaileei laguntza zuzena ematen dieten langileen lanpostuak.

O) Enpleguaren arloan prestazio eta politika aktiboak kudeatzen dituzten langileen lanpostuak.

P) Segurtasuneko eta larrialdietako lanpostuak.

Q) Garraio publikoaren zerbitzuko erabiltzaileentzako zuzeneko prestazioan aritzen diren langileen lanpostuak.

R) Zerbitzu publikoetan herritarrei arreta egiteko langileak.

S) Informazioaren eta komunikazioaren teknologien alorreko zerbitzuak ematen dituzten langileak.

4. Ehuneko 115eko berrezarpen-tasa ezartzen da.

Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoentzat, Ertzaintzarentzat eta udaltzaintzat.

5. Edonola ere, eskaintzak bete beharko ditu gastu-aurrekontuaren I. kapituluaren zehaztutako aurrekontuaren mugak.

6. Tasaren gehieneko mugaren ondorioetarako, honako hauek ez dira zenbatuko:

a) Aurreko ekitaldietako enplegu publikoaren eskaintzak egiten hasten diren langileak.

b) Barne-sustapenaren bidez deitzen diren lanpostuak.

c) Epai judicial bidez mugagabe ez finkotzat jotako langileei dagozkien plazak.

d) Tropako eta marineltzako militarrentzat baimendutako gehieneko plantillak betetzeko langileak, lege honen hamazazpigarren xedapen gehigarriaren arabera.

e) Iraupen luzeko konpromisoaren azken hamar urteetan dauden tropako eta marineltzako militar profesionaleri eta, deialdiak argitaratu arte, Tropa eta Marinelen apirilaren 24ko 8/2006 Legearen 19.1 artikuluan aurreikusitako prestasunagatik esleipena jasotzen ari diren prestasun bereziko erreserbistei soilik zuzentzen zaizkien langile finkoen lanpostuen deialdiak. Estaltzeko zailak diren arloetan baino ezin izango dira onartu deialdi horiek. Horretarako, deitutako kategoria profesional, kidego edo eskaletan sartzeko txanda bat egon beharko da. Aukera hori aplikagarria izango da sektore publiko osoan.

7. Langileen berrezarpen-tasa kalkulatzeko, baimendutako gehieneko ehunekoa bi hauen arteko aldeari aplikatuko zaio: aurreko aurrekontu-ekitaldian zerbitzuak emateari utzi dioten langile finkoen kopurua, batetik, eta aipatutako ekitaldian sartu diren langile finkoen kopurua, bestetik; lan-eskaintza publikotik datozenak edo lanpostuak erreserbatzea ez dakarten egoeretatik itzuli direnak kontuan hartu gabe, betiere. Ondorio horietarako, honako arrazoi hauek direla eta uztea hartuko da kontuan: erretiroa, heriotza, uko egitea, lanpostua erreserbatu gabeko eszedentzia-egoeran deklaratzeko, karrerako funtzionarioko izaera galtzea edo lan-kontratua azkentzea, edota lanpostua erreserbatzea edo lanpostua uzten den Administrazioaren aldetik ordainsariak jasotzea ez dakarren beste edozer administrazio-egoera. Halaber, kontuan hartuko dira beste administrazio publiko batzuetarako lekualdatze-lehiaketan ondorioz sortutako altak eta bajak. Barne-sustapenaren bidez gertatzen diren uzteak ez dira zenbatuko, sistema horren bidez Unibertsitateko Katedradunen Kidegoan sartzen diren kasuetan izan ezik, abenduaren 21eko 6/20021 Lege Organikoak, Unibertsitatei buruzkoak, 62.2 artikuluan ezartzen dituen baldintzetan.

Unibertsitateko irakasleen kidego batera sartzearen ondorioz hutsik gelditzen diren irakasle doktore kontratatuen lanpostuak hurrengo ekitaldiko berrezarpen-tasan sartu ahalko dira.

8. Eskaintzaren jarraipena egin ahal izateko, autonomia-erkidegoek eta unibertsitate publikoek Ogasun Ministeriora bidali beharko dituzte, Aurrekontuen eta Gastuen Estatu Idazkaritzaren bidez, honako hauek:

a) Ziurtagiri bat, urtarrilean bidaliko dena, berrezarpen-tasa kalkulatzeko kontuan hartu diren bajen eta alten kopurua zehaztuta, aurreko urtean administrazio publikoen arteko borondatezko mugikortasun-prozeduren ondorioz egin diren lekualdatze-lehiaketek eragindakoak ere barne.

b) Jarraipena egiteko eskatzen zaien gainerako informazioa.

Bi. Baimendutako tasaren baliozkotasuna baldintzatuta egongo da, EPOEren 70. artikulua araber. Honela:

a) Lanpostuak lan-eskaintza publiko batean sartu beharko dira. Eskaintza hori administrazio publikoetako gobernu-organismoek onartu beharko dute, eta urte bakoitza amaitu baino lehen argitaratu beharko da probintziako, autonomia-erkidegoko edo, hala badagokio, estatuko aldizkari ofizialean.

b) Lanpostuen deialdia probintziako, autonomia-erkidegoko edo, hala badagokio, estatuko aldizkari ofizialean argitaratu beharko da, hiru urteko epe luzaezinean, lanpostuak jasotzen dituen enplegu publikoaren eskaintza argitaratzen den egunetik zenbatzen hasita.

Aurrekoaren ondorioz, baimendutako eskaintza kontsumituzat joko da dagozkion hautaketa-prozesuak egin ondoren, prozesu horien emaitza edozein izanda ere.

Hiru. 1. Lehen tasaren duten sektore baten edo batzuen berrezarpen-tasa lehen tasarekin beste sektore edo kolektibo batzuetan metatu ahalko da. Era berean, lehen tasaren ez duten sektoreen berrezarpen-tasa lehen tasarekin beste sektoreetan metatu ahalko da. Aurreko ekitaldiko abenduaren 31n finantza-zorra amortizatuta duten tokierakundeek berrezarpen-tasa edozein sektoreetan metatu ahal izango dute.

Era berean, administrazio publikoek beren eskumeneko unibertsitatei laga ahal izango diete tasa, eta unibertsitate publikoek haien artean laga ahal izango dute, administrazio publiko egokien baimenarekin.

2. Ez da baimenik ematen herri-administrazioen berrezarpen-tasa beren merkataritza-sozietate publikoei, enpresa-erakunde publikoei, fundazioei eta partzuergoei lagatzeko

3. Salbuespen gisa, sektore publikoak fundazio publikoei eta atxikitako partzuergoei berrezarpen-tasaren zati bat laga ahalko die, baldin eta fundaziook eta partzuergoak Espainiako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Sistema betearazteko agenteak badira; eta, betiere, berrezarpen-tasa aipatutako proiektuetarako bideratu beharko da.

4. Berrezarpen-tasa metatzen den kasuetan, lagatzen duen eta jasotzen duen erakundearen enplegu publikoaren eskaintza argitaratzean, lanpostu-kopurua jaso beharko da, bai eta metaketa horren xede den sektorea edo kolektiboa ere.

Lau. Ezin izango da aldi baterako langilerik kontratatu, ez eta aldi baterako estatutupeko langilerik edo behin-behineko funtzionarioik izendatu ere, ez bada aparteko kasuetan eta larrialdikoak eta ezin geroratzekoak diren beharriaztarako.

Bost. 1. Estatuko Administrazio Orokorraren enplegu publikoaren eskaintza, bere erakunde publikoen eta Estatuko gainerako erakunde publikoen esku dagoenean, Gobernuak onetsi beharko du, eskumena duten sailek edo organismoek hala eskatzen diotenean, eta Lurralde Politikako eta Funtzio Publikoko Ministerioak proposatuta eta Ogasun Ministerioak aldeko txostena eman ondoren. Indar Armatuen kasuan, onarpena Ogasun Ministerioaren eta Lurralde Politikako eta Funtzio Publikoko Ministerioaren aldeko txostenaren ondoren eta Defentsako ministroak proposatuta egingo da. Kasu guztietan, langileen kostuetan izango duen eraginari buruzko alde zurreko balioespena eta txostena beharko dira.

2. Lurralde Politikako eta Funtzio Publikoko Estatu Idazkaritzari dagokio Estatu Idazkaritza horri atxikitako funtzionarioen kidego eta eskaletara sartzeko hautaketa-prozesuetarako deialdia egiteko eskumena.

3. Ez da baimenik emango Estatuko sektore publikoko erakundeetan lan-kontratudun langileentzako deialdiak egiteko edo hutsik dauden lanpostuak betetzeko, salbuespenezko kasuetan izan ezik, urgentziatzko premia atzerazekin estaltzeko; halako kasuetan, Ogasun Ministerioaren eta Lurralde Politikako eta Funtzio Publikoko Ministerioaren aurretiazko baimen bateratu espresua jaso beharko da, Aurrekontuen eta Gastuen Estatu Idazkaritzaren eta Lurralde Politikako eta Funtzio Publikoko Idazkaritzaren bitartez. Era berean, sektore publikoan erabilgarri dauden baliabideak modurik onenean erabili ahal izateko, Estatuko idazkaritza biek organismo autonomoei, estatu-agentziei eta erakunde publikoei baimena eman ahalko diete honako hauek kontratatzeke; funtzionarioak edo lan-kontratudun langile finkoak, Estatuko sektore publikoko sailtako edo erakunde publikoetako lanpostuak edota betetzeko sailak diren eremuko lanpostuak bete ditzaten; prestasun bereziko erreserbagileak, baldin eta, kontratua sinatu arte, prestasun-ordainsaria 8/2006 Legearen 19.1 artikuluan ezarritako zenbatekoan eta baldintzetan jaso badute (apirilaren 24ko 8/2006 Legea, Tropako Militar eta Marinelena). Lurralde Politikako eta Funtzio Publikoko Ministerioak, Lurralde Politikako eta Funtzio Publikoaren Estatu Idazkaritzaren bitartez, zehaztuko du halako kontratazioetan zein prozedura jarraituko den, publikotasuna eta lehia askea bermatzeko. Apartatu honetan ezarritakoaren babesean egindako kontratuek antzinatasun-osagarria jasotzen jarraitzeko eskubidea sortuko dute, kontratua gauzatzen den datatik aurrera. Jatorrizko ministerio-sailean edo erakunde publikoan jasotzen zenaren zenbateko bera izango du osagarri horrek.

Sei. 1. Estatuko sektore publikoan, honako hauek Ogasun Ministerioaren eta Lurralde Politikako eta Funtzio Publikoko Ministerioaren aurretiazko baterako baimenaren mende daude, Aurrekontuen eta Gastuen Estatu Idazkaritzaren eta Lurralde Politikako eta Funtzio Publikoko Estatu Idazkaritzaren bidez:

a) Aldi baterako lan-kontratuko langileak kontratatzea eta bitarteko funtzionarioak eta estatutupeko aldi baterako langileak izendatzea.

b) Aldi baterako laneko enpresekin egindako lagapen-kontratuak.

c) Atzerrian langile finkoak edo aldi baterakoak tokiko legeriaren arabera edota, hala badagokio, Espainiako legeriaren arabera kontratatzeke.

2. Bitarteko funtzionarioek bete behar dituzten lanpostu hutsak dagozkien enplegu publikoaren eskaintzan sartu beharko dira, izendapen-baimenean jasotzen den terminoetan.

3. Bitarteko funtzionarioek betetzen dituzten lanpostuak hasi berriko karrerako funtzionarioek behin betiko betetzen ez badituzte, eta haien izendapena enplegu publikoaren eskaintzaren emaitzak betearazteko egiten ez bada, lanpostuak betetzeko, mugikortasuna sustatzeko edota zerbitzu aktiboan berriz sartzeko prozeduren bidez bete ahalko dira.

Zazpi. Artikulu honetako batgarren apartatutik laugarren apartatura artekoek oinarritzko izaera dute, eta Konstituzioaren 149.1.13 eta 156.1 artikuluen babesean eman dira.

II. KAPITULUA

Ordainsari-araubideak

20. artikulua. *Estatuko Gobernuko, haren organo aholku-emaileetako eta Estatuko Administrazio Orokorreko goi-kargudunen nahiz zuzendaritzako beste langile batzuen ordainsariak.*

Bat. 2021ean, Estatuko Gobernuko eta haren organo aholku-emaileetako goi-kargudunen ordainsariak honako hauek izango dira, hamabi hilabeteri dagozkienak, baina ez dute izango aparteko ordainsariak jasotzeko eskubiderik, baina bai indarrean dagoen araudiaren arabera dagoen antzinatasun-ordainsaria jasotzekoa:

	Euroak
Gobernuko presidentea.	84.845.16
Gobernuko presidenteordea.	79.746.24
Gobernuko ministroa.	74.858.16
Estatu Kontseiluko presidentea.	85.196.88
Ekonomia eta Gizarte Kontseiluko presidentea.	93.075.48

Bi. 2021ean, estatu idazkarien, idazkariordeen, zuzendari nagusien eta parekoen ordainsariek hamabi hilabeteri dagozkien honako soldata eta destino-osagarri hauek jasoko dituzte, bai eta urteko berariazko osagarria ere, 2008rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren abenduaren 26ko 51/2007 Legearen 26.bi artikuluan xedatutakoari jarraituz.

	Estatu-idazkaria eta parekoak (Euroak)	Idazkariordea eta parekoak (Euroak)	Zuzendari nagusia eta parekoak (Euroak)
Soldata.	14.224.56	14.294.52	14.363.28
Destino-osagarria.	23.121.24	18.702.48	15.126.72
Berariazko osagarria.	36.077.74	32.100.00	26.170.00

Ekaineko eta abenduko aparteko ordainsarietako bakoitzean, aurreko paragrafoaren eta koadroaren arabera jasoko duten hileko destino-osagarriaren zenbatekoaz gain, honako koadro honetan soldata gisa zehaztutako zenbatekoa ere jasoko dute:

	Estatu-idazkaria eta parekoak (Euroak)	Idazkariordea eta parekoak (Euroak)	Zuzendari nagusia eta parekoak (Euroak)
Soldata.	718.15	770.20	822.81

Goi-kargudun horietako bakoitzak saileko titularrak esleitutako produktibitate-osagarria jasoko du, hala badagokio, lege honen 22.Bat.E) artikuluan xedatutakoaren arabera, xede horretarako aurreikusitako kredituen barruan. Goi-kargudunei esleitutako zenbatekoak 18.Bi artikuluan ezarritako gehikuntza jasoko dute, urtean eta kargu kopuruaren eta motaren termino homogeneoetan, 2020ko abenduaren 31n esleituta zeukatenaren aldean; hargatik eragotzi gabe ordainduko diren banakako zenbatekoak desberdinak izan ahal izatea, osagarri hori arautzen duen araudiari jarraikiz.

Hiru. 2021ean, 18.bi artikuluan ezarritako ehunekoan handituko dira, gehienez, honako pertsona hauek jasoko dituzten ordainsariak, 2020ko abenduaren 31n indarrean zeukatenen aldean: estatu-agentzietako presidentee; enpresa-entitate publikoetako eta gainerako erakunde publikoetako presidente eta presidenteordeek; eta, hala badagokio, aipatutako organismoetako zuzendari nagusiek eta zuzendari orokorrek, maila goreneko funtzio betearazleak gauzatzea baldin badagokie. Ogasuneko ministroari dagokio ordainsari horiek finkatzea, eta ezingo dira gainditu martxoaren 5eko 451/2012 Errege Dekretuak –enpresa-sektore publikoko eta beste entitate batzuetako arduradun eta zuzendari nagusien ordainsari-araubidea jasotzen duenak– eta hura aplikatzeko emandako aginduek xedatutako gehieneko mugak. 2020ko abenduaren 31n indarrean dauden zenbateko horien mugak 18.bi artikuluan ezarritako ehunekoan handituko dira.

Ogasun Ministerioari jakinarazi beharko zaizkio, Aurrekontuen eta Gastuen Estatu Idazkaritzaren bidez, aurreko urtean urteko, ordaindutako eta sortutako ordainsariak.

Estatuko sektore publikoko fundazioen eta nagusiki Estatuko Administrazio Orokorraren eta haren organismoen partaidetza duten partzuergoen arduradun gorenaren ordainsariak finkatzeko, martxoaren 5eko 451/2012 Errege Dekretuak eta hori aplikatuz emandako aginduek xedatutakoa hartuko da kontuan, 18.bi artikuluan ordainsarien gehikuntzari ezarritako mugak aintzat hartuta.

Lau. Artikulu honetako bi eta hiru zenbakietan xedatutakoak ez dio eragingo indarrean dagoen araudiaren arabera legokiekeen antzinasun-ordainsaria hamalau hilabete-saritan jasotzeari.

Bost. 1. 2021ean, Estatu Kontseiluko kide iraunkorren eta idazkari nagusiaren ordainsariak hamabi hilabeteri dagokien honako soldata hau eta honako destino-osagarri hauek izango dituzte, eta urteko berariazko osagarria jasoko dute, abenduaren 26ko 51/2007 Legearen 26.lau.1 artikuluan xedatutakoari jarraituz.

	Euroak
Soldata.	14.294.52
Destino-osagarria.	24.984.00
Berariazko osagarria.	38.894.66

Ekaineko eta abenduko aparteko ordainsarietako bakoitzean, aurreko koadroaren arabera jasoko duten hileko destino-osagarriaren zenbatekoaz gain, ondorengo koadroan soldata gisa zehaztutako zenbatekoa ere jasoko dute:

	Euroak
Soldata.	770.20

2. Estatu Kontseiluko presidenteak produktibitate-osagarria esleitu ahal izango die bertako kide iraunkorrei eta idazkari nagusiari, lege honen 22.Bat.E) artikuluan xedatutakoari jarraituz. Kargu horietarako zenbatekoa 18.Bi artikuluan aurreikusitako ehunekoan handituko da, urteko kopuruan eta kargu motan, 2020ko abenduaren 31n esleitutakoarekin alderatuta.

3. Goi-kargudun horiek, gainera, organoak berak antzinasuna egokitzeko onartutako akordioetan finkatutako ordainsariak jasoko dituzte, hala badagokie. Aldez aurretik funtzionario publiko izan badira –funtzionario gisa aktiboan edota erretiratuta egoteari erreparatu gabe–, egoera hartan aitortu zitzaizkien hirurtekoak jasotzen jarraitzeko eskubidea izango dute, kasu bakoitzean aplikatu beharreko araudiari jarraituz; eta araudi horren araberrako zenbatekoa handiagoa izanez gero aipatutako akordioetan onetsitakoa baino, alde hori jasotzeko eskubidea izango dute, hamalau hilabete-saritan.

21. artikulua. *Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko, Konstituzio Auzitegiko eta Kontuen Auzitegiko kideen ordainsariak.*

Bat. 2021ean, honako hauek izango dira Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko, Konstituzio Auzitegiko eta Kontuen Auzitegiko kideen ordainsariak:

1. Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia.

Kargua eskusiboki betetzea:

1.1. Auzitegi Goreneko eta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko presidentea:

	Euroak
Soldata (14 hilabete-saritan jasotzekoa)	28.960.12
Beste ordainsari batzuk (12 hilabete-saritan jasotzekoak)	113.550.84
Guztira.	142.510.96

1.2 Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko kidea:

	Euroak
Soldata (14 hilabete-saritan jasotzekoa)	30.663.78
Beste ordainsari batzuk (12 hilabete-saritan jasotzekoak)	92.244.60
Guztira.	122.908.38

1.3 Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko idazkari nagusia:

	Euroak
Soldata (14 hilabete-saritan jasotzekoa)	29.372.84
Beste ordainsari batzuk (12 hilabete-saritan jasotzekoak)	90.702.12
Guztira.	120.074.96

2. Konstituzio Auzitegia.

2.1 Konstituzio Auzitegiko presidentea:

	Euroak
Soldata (14 hilabete-saritan jasotzekoa)	45.361.82
Beste ordainsari batzuk (14 hilabete-saritan jasotzekoak)	112.214.76
Guztira.	157.576.58

2.2 Konstituzio Auzitegiko presidenteordea:

	Euroak
Soldata (14 hilabete-saritan jasotzekoa)	45.361.82
Beste ordainsari batzuk (14 hilabete-saritan jasotzekoak)	102.754.68
Guztira.	148.116.50

2.3 Konstituzio Auzitegiko atal-presidentea:

	Euroak
Soldata (14 hilabete-saritan jasotzekoa)	45.361.82
Beste ordainsari batzuk (14 hilabete-saritan jasotzekoak)	95.507.72
Guztira.	140.869.54

2.4 Konstituzio Auzitegiko magistratua:

	Euroak
Soldata (14 hilabete-saritan jasotzekoa)	45.361.82
Beste ordainsari batzuk (14 hilabete-saritan jasotzekoak)	88.261.18
Guztira.	133.623.00

2.5 Konstituzio Auzitegiko idazkari nagusia:

	Euroak
Soldata (14 hilabete-saritan jasotzekoa)	40.921.33
Beste ordainsari batzuk (14 hilabete-saritan jasotzekoak)	85.531.09
Guztira.	126.452.42

3. Kontuen Auzitegia.

3.1 Kontuen Auzitegiko presidentea: Urteko ordainsariak (14 hilabete-saritan jasotzekoak): 123.267,62 euro.

3.2 Kontuen Auzitegiko ataleko presidentea: Urteko ordainsariak (14 hilabete-saritan jasotzekoak): 123.267,62 euro.

3.3 Kontuen Auzitegiko kontu-aholkularia: Urteko ordainsariak (14 hilabete-saritan jasotzekoak): 123.267,62 euro.

3.4 Kontuen Auzitegiko idazkari nagusia: Urteko ordainsariak (14 hilabete-saritan jasotzekoak): 106.124,34 euro.

Bi. Kargudun horiek, gainera, organoak berak antzinasuna egokitzeko onartutako akordioetan finkatutako ordainsariak jasoko dituzte, hala badagokie. Aldez aurretik funtzionario publiko izan badira –funtzionario gisa aktiboan edota erretiratuta egoteari erreparatu gabe–, egoera hartan aitortu zitzaizkien hirurtekoak jasotzen jarraitzeko eskubidea izango dute, kasu bakoitzean aplikatu beharreko araudiari jarraiki; eta araudi horren arabera zenbatekoa handiagoa izanez gero aipatutako akordioetan onetsitakoa baino, diferentzia hori jasotzeko eskubidea izango dute, hamalau hilabete-saritan.

22. artikulua. *Funtzio Publikoa Erreformatzeko Neurriei buruzko abuztuaren 2ko 30/1984 Legearen aplikazio-eremuan dauden Estatuko funtzionarioen ordainsariak, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren azken xedapenetako laugarrenean adierazitakoaren arabera.*

Bat. 2021ean, funtzionarioen ordainsariak honako hauek izango dira:

A) Funtzionarioari dagokion kidego edo eskala sailkatuta dagoen taldeari edo azpitaldeari dagozkion soldata eta hirurtekoak, lege honen 18.Bost.1 artikuluan adierazitako zenbatekoetan.

B) Aparteko ordainsariak –urtean bi izango dira: bata ekainean eta bestea abenduan– 1988rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren Legeak (abenduarien 23ko 33/1987 Legeak) 33. artikuluan xedatutakoaren arabera emango dira. Aparteko ordainsari horietako bakoitzak bilduko ditu lege honen 18.Bost.2 artikuluan finkatutako soldataren eta hirurtekoen zenbatekoak, bai eta hileko destino-osagarriarena ere.

Funtzionarioek lanaldi murriztua izan badute ekainaren edo abenduaren aurreko sei hilabeteetan, aparteko ordainsariaren zenbatekoa ere proportzio berean murriztuko da.

C) Betetzen den lanpostuari dagokion lanpostu-osagarria, honako zenbateko hauen arabera, hamabi hilabete-saritan:

Maila	Zenbatekoa – Euroak
30	12.729.24
29	11.417.52
28	10.937.76
27	10.457.16
26	9.174.48
25	8.139.72
24	7.659.48
23	7.179.96
22	6.699.36
21	6.219.96
20	5.777.76
19	5.482.92

Maila	Zenbatekoa – Euroak
18	5.187.84
17	4.892.64
16	4.598.28
15	4.302.72
14	4.008.24
13	3.712.80
12	3.417.60
11	3.122.40
10	2.827.80
9	2.680.56
8	2.532.60
7	2.385.24
6	2.237.64
5	2.090.16
4	1.869.00
3	1.648.20
2	1.427.04
1	1.206.00

Unibertsitate-irakaskuntzaren eremuan, aurreko eskalan finkatutako destino-osagarriaren zenbatekoa aldatu egin ahal izango da, indarrean dagoen araudiaren arabera egokia izanez gero; nolahi ere, horrek ez du aldaketarik eragingo lanpostuari esleitutako destino-osagarriaren mailan.

D) Betetzen den lanpostuari esleitutako berariazko osagarria, halakorik balego. Osagarri horren urteko zenbatekoak 18.Bi artikuluan ezarritako ehunekoan handituko da, 2020ko abenduaren 31n indarrean zegoena erreferentziatzat hartuta, lege honen 18.Zazpi artikuluan xedatutakoaren kalterik gabe.

Urteko berariazko osagarria hamalau ordainsari berdinetan jasoko da; horietako hamabi hilero jasoko dira, eta bi gehigarriak, hilekoaren zenbateko berdinekoak, ekainean eta abenduan.

Funtzionario publikoek destino-osagarriaren eta berariazko osagarriaren kontzeptuan jasotzen dituzten ordainsariak, edozelan ere, indarreko araudian aurreikusitako prozeduren arabera betetzen duten lanpostuari dagozkionak izango dira, eta egiten dituzten zeregin zehatzek ezin dute aurrekoa ez betetzea ekarri, aipatutako araudiak bestelako zenbatekoak onartzen dizkien kasuetan izan ezik; eta, nolahi ere, abuztuaren 2ko 30/1984 Legearen 21.2 artikuluan araututako lanpostu-mailaren bermeari zein dagozkion zenbatekoak jasotzeko eskubideari kalterik egin gabe, 1991rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren abenduaren 27ko 31/1990 Legearen 33.bi artikulua aplikatuta.

E) Produktibitate-osagarria, lanpostuetan jardutean errendimendu berezia, aparteko jarduera eta arduraldia, eta interesa edo ekimena saritzeko.

Ministerio-sail edo organismo publiko bakoitzak zehaztuko ditu eremu organikoen, lurraldeen, funtzioen edo lanpostu motaren arabera esleituko dituen zenbateko partzialak; guztia ere, erabil dezakeen kredituaren barruan, zeinak urtean gehienez ere 18.Bi artikuluan aurreikusitako igoera izango duen 2020ko abenduaren 31koarekiko. Halaber, produktibitate-osagarriaren banakako zenbatekoak banatzeko eta finkatzeko irizpideak ezarriko ditu, arau hauen arabera:

1.^a Produktibitatea balioestean, lanpostu motari eta jardunari lotutako inguruabar objektiboak hartu beharko dira aintzat, eta, egoki izanez gero, dagokion programari esleitutako emaitzak edo helburuak lortzean izandako parte-hartze maila.

2.^a Produktibitate-osagarri gisa aldi baterako esleitutako zenbatekoek ez dute inola ere banakako eskubiderik sortuko ondorengo aldietarako balioespenetan edo balioigoeretan.

F) Ohiz kanpoko zerbitzuengatik haborokinak; ministerio-sailek edo erakunde publikoek emango dituzte halakoak, xede horretarako esleitutako kredituen barruan, eta gehienez ere 18.Bi artikuluan ezarritako gehieneko igoera jasoko dute, 2020ko abenduaren 31n esleitutakoen aldean.

Haborokin horiek ohiz kanpokoak izango dira, eta ohiko lanalditik kanpo emandako aparteko zerbitzuengatik soilik eman ahal izango dira; ezin izango dira finakoak izan, zenbatekoari eta aldizkakotasunari dagokienez, eta ezin izango dute ondorengo aldietarako banakako eskubiderik eragin.

G) Maila pertsonalean, mantendu egiten dira Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuan adierazitako E taldea/profesionalen multzoa delakoari dagozkion ordainsariak, 2010erako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 23ko 26/2009 Legearen 24.bat.B).b) artikuluan xedatutakoari jarraituz; ordainsari horien zenbatekoak 18.bi artikuluan ezarritako ehunekoan handituko dira, 2020ko abenduaren 31n indarrean zeudenen aldean.

Bi. Ogasun Ministerioak aldatu egin ahal izango du produktibitate-osagarriari, ohiz kanpoko zerbitzuen haborokinei eta errendimendurako pizgarriei dagozkien kreditu globalen zenbatekoa, programa bakoitzari esleitutako langile kopuruari eta helburuen lorpen-mailari egokitzeko.

Horretarako, Ogasuneko ministroak onartu egingo ditu ministerio-sailei eta organismo publikoei errendimendurako pizgarrietarako esleitutako zenbatekoak. Horrek inolako aldaketarik eragingo balu Estatuko Aurrekontu Orokorretan kontsignatutako kredituetan, aurrekontu-aldaketaren espedientea onartu beharko da, aldaketa horrek ondore ekonomikoak izateko.

Ministerio-sailek pizgarri horiek esleitzeko irizpideen eta banakako zenbatekoen berri emango diote Ogasun Ministerioari, Aurrekontuen eta Gastuen Estatu Idazkaritzaren bitartez, pizgarriak emateko aplikatutako irizpideak zehaztuta.

Hiru. EPOEren aplikazio-eremuan dauden bitarteko funtzionarioek, bitarteko gisa izendatuta dauden kidegoa edo eskala zein taldetan edo azpitaldetan dagoen sailkatuta, hari dagozkion oinarrizko ordainsariak jasoko dituzte, hirurtekoak barnean hartuta, bai eta betetzen duten lanpostuari dagozkion ordainsari osagarriak ere, karrerako funtzionario izateari lotutakoak izan ezik; edo, bestela, Ogasun Ministerioak eta Lurralde Politikako eta Funtzio Publikoko Ministerioak onetsitakoak, lanposturik betetzen ez duten bitarteko funtzionarioen kasuan. Kolektibo horri artikuluko honen Bat apartatuko B) letran xedatutakoa aplikatuko zaio.

Lau. Behin-behineko langileek, Lurralde Politikako eta Funtzio Publikoko Ministerioak haien funtzioak zer sailkapen-talde edo -azpitalderen funtzioekin parekatzen dituen, talde edo azpitalde hari dagozkion soldadak eta aparteko ordainsariak jasoko dituzte, bai eta behin-behineko langileentzat gordetako lanpostuari dagozkion ordainsari osagarriak ere. Kolektibo horri artikuluko honen Bat apartatuko B) letran xedatutakoa aplikatuko zaio.

Aktiboan edo zerbitzu berezietan dauden karrerako funtzionarioek behin-behineko langileentzat gordetako lanpostuak betetzen badituzte, haien sailkapeneko taldeari edo

azpitaldeari dagozkion oinarrizko ordainsariak jasoko dituzte, hirurtekoak barne hartuta, bai eta betetzen duten lanpostuari dagozkion ordainsari osagarriak ere.

Bost. Produktibitate-osagarria esleitu ahal izango zaie, egoki izanez gero, bitarteko funtzionarioei, denboraldi baterako estatutu-langileei eta aldi baterako langileei, bai eta praktikak egiten ari diren funtzionarioei ere, praktika horiek egitean lanpostu bat betetzen badute, baldin eta baimenduta badago lanpostu berdinak betetzen dituzten karrerako funtzionarioei aplikatzea, osagarri hori karrerako funtzionario izateari lotuta dagoen kasuetan izan ezik.

Sei. Baldin eta praktiketako funtzionario izendatzen direnak sartu nahi den kidego bateko edo talde edo azpitaldeen eskala bateko titulazioa baino txikiagoa duen beste kidego bateko edo talde edo azpitaldeen eskala bateko karrerako funtzionarioak badira, praktikaldiari edo hautatzeko ikastaroari dagokion denboran, betetzen dituzten hirurtekoak jasoko dituzte horiek oraindik, eta aldi hori, hirurtekoak betetzeko eta eskubide pasiboetarako, kidego edo eskala berrian betetakotzat hartuko da, amaieran azken horietan karrerako funtzionario benetan bilakatuz gero.

Zazpi. Lege honetan xedatutakoa atzerrian diharduten funtzionarioen ordainsariei ere aplikatuko zaie –Estatuko lurraldean eurotan jasoko luketenari–, indarrean dagoen araudiaren arabera moduluak aplikatzeari kalterik egin gabe.

23. artikulua. *Estatuko sektore publikoko kontratupeko langileak.*

Bat. Lege honen ondorioetarako, Estatuko sektore publikoko lan-kontratudun langileen soldata-masa 18.Lau artikuluan zehaztutakoa izango da. Soldata-masa horrek Ogasun Ministerioak, Aurrekontu eta Gastuen Estatu Idazkaritzaren bitartez, ezarritako muga errespetatu beharko du.

Bi. Estatuko sektore publikoko lan-kontratudun langileen soldata-masak ezin izango du 18.Bis artikuluan ezarritakotik gorako igoerarik izan; betiere, Estatuko sektore publikoa osatzen duten ministerio-sail, erakunde publiko, gainerako erakunde publiko, Estatuko merkataritza-sozietate, Estatuko sektore publikoko fundazio eta nagusiki Estatuko sektore publikoa osatzen duten administrazioen eta organismoen partaidetza duten partzuergoei esleitutako helburuak lortzeak eragin ditzakeen ondorioei kalterik egin gabe, produktibitatea handitzearen bidez, edo lana antolatzeke nahiz profesionalak sailkatzeko sistemak aldatzearen bitartez, aurreko zenbakian adierazitako txostena egin ostean.

Lan-lotura duten eta hitzarmen bati lotuta ez dauden gainerako langileen ordainsariei ere ez dute 18.Bi artikuluan ezarritakotik gorako igoerarik izango, edozein dela ere haien tipologia, modalitatea edo izaera, eta sektore publikoko zuzendaritza-taldeetako langileak barne direla.

Hiru. Ogasun Ministerioak, Aurrekontuen eta Gastuen Estatu Idazkaritzaren bitartez, modu nahitaezkoan eta loteslean jakinarazi egingo du ministerio-sailen, organismoen, estatu-agentzien, enpresa-entitate publikoen eta gainerako ente publikoen eta Estatuko merkataritza-sozietateen soldata-masa, eta Estatuko sektore publikoko fundazioena, Estatuko sektore publikoa osatzen duten administrazioen eta organismoen partaidetza nagusia duten partzuergoena eta Gizarte Segurantzarekin eta haren zentro mankomunatuekin elkarlanean diharduten mutualitateena.

Soldata-masaren gaineko jakinarazpena kontuan hartuko da eragindako lan-kontratudun langileen ordainsariei dagozkien kredituak homogeneotasunez zehazteko. Soldata-masaren gaineko jakinarazpena ezinbestekoa izango da hitzarmen edo akordio kolektiboak negoziatzen hasteko.

Soldata-masa gordinaren aldaketak urtebeterako eta homogeneotasunez kalkulatu dira alderatutako bi aldietan, bai langileei eta haien antzinasunari dagokienez, bai lanaren, lanaldiaren, aparteko orduen eta beste lan-baldintza batzuen araubide pribatiboari dagokionez; kontzeptu horiek eragindako aldaketen kopuruak bereiz zenbatuko dira. Egiaztapen hori egiteko, erakundeek soldata-taula eguneratuen ziurtagiria bidali beharko dute beti, hitzarmen kolektiboari lotutako langileak direnean.

Ordainsari aldakorren edo produktibitatearen kontzeptuak zehazteko gehieneko muga hauxe izango da, kontzeptu horien izendapen zehatza edozein dela ere: kontzeptu

horietarako 2013ko soldata-masan onartutako zenbatekoa, edo lehen soldata-masa, baldin eta hori handiagoa izango balitz, eta gehienez ere 18.Bi artikuluan ezarritako ehunekoa gehituta, eta Estatuaren Aurrekontu Orokorretako legeetan ezarritako gehikuntza-ehunekoen arabera eguneratuta.

Aurreko paragrafoetan xedatutakoa soldata-masaren gehieneko muga izango da; soldata-masa horren banaketa eta banakako aplikazioa negoziazio kolektiboaren bidez gauzatuko da, hala badagokio.

Ogasuneko ministroari dagokio apartatu honetan araututako baimen-prozeduraren forma, irismena eta ondoreak zehaztea; Aurrekontuen eta Gastuen Estatu Idazkaritzaren proposamenari jarraituz egingo du hori.

Lau. Hitzarmen kolektiboaren mende ez dauden langileak badira, eta haien ordainsariak banakako kontratuen bidez zehaztuta badaude oso-osorik edo neurri batean, Ogasun Ministerioari jakinarazi beharko zaizkio, Aurrekontuen eta Gastuen Estatu Idazkaritzaren bidez, aurreko urtean ordaindutako eta sortutako ordainsariak edo bestelako pertzepzioak, diruzkoak edo gauzazkoak.

Bost. Lan-kontratudun langileen kalte-ordain edo osakinek ezin izango dute Estatuko Administrazio Orokorreko lan-kontratudunak ez diren langileentzat ezarritako gehikuntza baino handiagoa izan. Lan-kontratudun langileen kalte-ordain edo osakinek araudi espezifikoak izango dute.

Sei. Ministerio-sailek, organismoek, estatu-agentziek, enpresa-entitate publikoek eta gainerako erakunde publikoek eta Estatuko merkataritza-sozietateek, baita Estatuko sektore publikoko fundazioek eta nagusiki Estatuko sektore publikoa osatzen duten administrazioen eta organismoen partaidetza duten partzuergoek ere, uztailaren 13ko 20/2012 Errege Lege Dekretuaren 10. artikuluan xedatutakoaren arabera ezar daitezkeen ordu-kredituak eta bestelako sindikatu-eskubideak igorriko dizkiote Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusiari, aurretik baimen ditzan. Aurrez onartutako akordioek aipaturiko baimena jaso beharko dute, aplikatu ahal izateko.

Lurralde Politikako eta Funtzio Publikoko Ministerioak zehaztuko ditu apartatu honetan araututako baimen-prozeduraren forma, irismena eta ondoreak.

24. artikulua. *Indar Armatuetako langileen ordainsariak.*

Bat. 2021ean, Indar Armatuetako langileen ordainsariei eta beste lansari batzuei 18.Bi artikuluan ezarritako ehunekoa gehituko zaie, dagozkien antzinatasun-ordainsariak ezertan galarazi gabe; betiere, langile horien oinarritzko ordainsariak Estatuko eta bere erakunde publikoetako Aurrekontu Orokorretako gastuaren egitura ekonomikoari buruzko 10. artikuluan jasota baldin badaude. Halaber, saileko titularrak esleitzen dizkien osagarriak jasoko dituzte, arduraldi bereziagatik edo produktibitateagatik, horretarako xedatutako kredituetatik. Langile horientzat xedatutako kredituen zenbatekoari 18.Bi artikuluan ezarritako ehunekoa gehituko zaio, 2020ko abenduaren 31n esleituta zegoenaren aldean. Termino homogeneoetan aplikatuko da, karguen kopuruari eta motari dagokienez.

Bi. Karrera Militarrari buruzko azaroaren 19ko 39/2007 Legean jasotako militar profesionalak, aurreko zenbakian sartuta ez daudenek, ordainsari hauek jasoko dituzte 2021ean:

A) Enplegua sailkatuta dagoen taldeari edo azpitaldeari dagozkien soldata eta hirurtekoak –hirurtekoak alde batera utzita, araudiak hala xedatutako kasuetan–, 18.Bost.1 artikuluan ezarritako zenbatekoan.

B) Aparteko ordainsariak; urtean bitan emango dira, eta haietako bakoitzak lege honen 18.Bost.2 artikuluan finkatutako soldata eta hirurtekoak bilduko ditu, enpleguari dagokion taldearen edo azpitaldearen arabera, bai eta hilero jasoko den enplegu-osagarria ere.

Hirurtekoen eta aparteko ordainsarien balioespena eta sortzapena langile horiei aplikatu behar zaien berariazko araudiaren arabera gauzatuko da, eta, ordezeko moduan, abuztuaren 2ko 30/1984 Legea aplikatzeko eremuan dauden funtzionarioen araudiaren arabera, Enplegatu Publikoaren Oinarritzko Estatutuan adierazitakoari jarraituz.

C) Enplegu-osagarriak, berariazko osagarriak eta egoki diren gainerako ordainsariak 18.Bi artikuluan ezarritako ehunekoko gehikuntza jasoko dute, 2020ko abenduaren 31n indarrean zeudenen aldean, lege honen 18.Zazpi artikuluan xedatutakoa ezertan eragotzi gabe.

D) Arduraldi bereziari dagokion osagarria, arreta etengabearen kontzeptua barnean hartuta, eta ohiz kanpoko zerbitzuen haborokina. Zenbateko horiek Defentsako ministroak finkatuko ditu, xede horietarako esleituko diren kredituen barruan. Kreditu horiek 18.Bi artikuluan ezarritako gehieneko gehikuntza jasoko dute, urteko zenbatekoari dagokionez, 2020ko abenduaren 31n esleituta zeudena erreferentziatzat hartuta.

Ogasun Ministerioak aldatu egin ahal izango du arduraldi bereziari eta ohiz kanpoko zerbitzuen haborokinei dagozkien kredituen zenbatekoa, programa bakoitzari esleitutako langile kopuruari eta helburuen lorpen-mailari egokitzeko.

Horretarako, Ogasuneko ministroak onartu egingo ditu errendimendurako pizgarrietarako esleitutako zenbatekoak. Horrek inolako aldaketarik eragingo balu Estatuko Aurrekontu Orokorretan kontsignatutako kredituetan, aurrekontu-aldaketaren espedientea onartu beharko da, aldaketa horrek ondore ekonomikoak izateko.

Arduraldi bereziari dagokion osagarriak edota ohiz kanpoko zerbitzuengatik haborokinak emateko esleitutako zenbatekoek ez dute inolaz ere banakako eskubiderik sortuko ondorengo aldietarako balioespenetan edo balio-igoeretan.

E) Zerbitzuan emandako urteen pizgarria. Defentsako ministroak finkatuko ditu pizgarri horren zenbatekoak eta jasotzeko baldintzak, Ogasun Ministerioak Aurrekontuen eta Gastuen Estatu Idazkaritzaren bidez aldeko txostena egin ostean.

Hiru. Defentsa Ministerioak itunak sinatu baditu unibertsitateekin Saileko osasunerakundeak erabiltzeko, urriaren 11ko 1652/1991 Errege Dekretuan haien araubiderako ezarritako oinarrien arabera, zentro horietan lanpostuak betetzen dituzten mediku militarrek eta osasun-alorreko militarrek dagozkien oinarritzko ordainsariak jasoko dituzte, eta, ordainsari osagarri gisa, destino-osagarriak, berariazko osagarriak eta produktibitate-osagarriak jasoko dituzte, aipatutako errege-dekretuko hamahirugarrena.Zortzi 4., 5. eta 6.a) eta b) oinarria aplikatuz ezarritako zenbatekoetan.

Langile horiek jantziarako laguntza ere jaso ahal izango dute, bai eta arduraldi bereziari dagokion osagarria ere, etengabeko arretagatik, aurreko zenbakiko D) letran ezarritakoari jarraituz. Gainera, sariengatik pentsioak eta dagozkien familia-prestazioak jaso ahal izango dituzte.

Lau. Ministerioaren edo bere organismo autonomoen lanpostu-zerrendetan jasotako lanpostuak betetzen dituzten Indar Armatueta kideek beren enplegu militarri dagozkien oinarritzko ordainsariak eta betetzen duten postuari esleitutako osagarriak jasoko dituzte, lege honetan abuztuaren 2ko 30/1984 Legearen aplikazio-eremuan jasotako Estatuko funtzionarioentzat ezarritako zenbatekoen arabera, eta Enplegatutako Publikoaren Oinarritzko Estatutuaren azken xedapenetako laugarrenean adierazitakoari jarraituz; halere, ordainsari militarren ondoriozko pentsioak eta haborokinak jasotzen jarraituko dute, bai eta jantziarako laguntza ere, Indar Armatueta gainerako langileen zenbateko eta baldintza beretan.

Artikulu honetan xedatutakoak ez du ezertan eragotziko indarrean dagoen araudian Indar Armatueta kontzeptu eta langile zehatz batzuetarako xedatutako araudi espezifikoak.

Bost. Defentsa Ministerioak baimena ematen du honako manu hauetan araututako gehikuntza gehigarria aplikatzeko: Estatuaren 2018ko Aurrekontu Orokorren uztailaren 3ko 6/2018 Legearen 18. artikuluan; abenduaren 21eko 24/2018 Errege Lege Dekretuaren 3. artikuluan; eta urtarrilaren 21eko 2/2020 Errege Lege Dekretuaren 3. artikulua. Manu horien bitartez onartzen dira sektore publikoaren esparruko ordainsarien arloko premiazko neurriak, langile militarren eraginkortasuna hobetzeko planak ezartzeko eta haien ordainsariak agintzen zaizkien eginkizunek eskatzen duten eskakizun, gaikuntza tekniko eta prestasun iraunkorrari egokitzeko.

Gehikuntza gehigarri hori, besteak beste, Tropa eta marineltzako langileen enplegu-osagarria Enplegatutako Publikoaren Oinarritzko Estatutuaren Legearen testu bateginean (urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua) funtzionarioen

lanpostu-mailako osagarriarako ezarritako gutxieneko mailetara egokitzeko erabili ahal izango da, bai eta langile militarren berariazko osagarria berrikusteko ere.

Ondorio horietarako, aldatu egiten da, halaber, indar armatuen ordainsarien erregelamendua onartzen duen azaroaren 4ko 1314/2005 Errege Dekretuaren II. eranskinean jasotako marinela-soldatuaren enplegu-osagarriaren maila, eta 14. mailan finkatzen da, zehazki, 331,04 euroko kopurua ezarrita.

25. artikulua. *Guardia Zibilaren Kidegoko langileen ordainsariak.*

Bat. 2021ean, Guardia Zibileko Kidegoko langileen ordainsariak eta beste ordainketa batzuek, haien oinarrizko ordainsariak Estatuaren Aurrekontu Orokorretako gastuen egitura ekonomikoari buruzko 10. artikuluan jasota baldin badaude, 18.bi artikuluan ezarritako gehikuntza izango dute, 2020ko abenduaren 31n indarrean zeudenen aldean, dagozkien antzintasun-ordainsariei kalterik egin gabe. Halaber, saileko titularrak esleitzen dien produktibitate-osagarria jasoko dute, hala badagokie, xede horretarako aurreikusitako kredituen bidez. Langile horientzat xedatutako kredituen zenbatekoari 18.Bi artikuluan ezarritako ehunekoa gehituko zaio, 2020ko abenduaren 31n esleituta zegoenaren aldean. Termino homogeneoetan aplikatuko da, karguen kopuruari eta motari dagokienez.

Bi. Aurreko zenbakian jasota ez dauden Guardia Zibilaren Kidegoko langileek ordainsari hauek jasoko dituzte 2021ean:

A) Enplegua sailkatuta dagoen taldeari edo azpitaldeari dagozkion soldata eta hirurtekoak, lege honen 18.Bost.1 artikuluan ezarritako zenbatekoetan.

B) Aparteko ordainsariak, urtean bitan emango direnak, haietako bakoitzak barne hartuta lege honen 18.Bost.2 artikuluan finkatutako soldatak eta hirurtekoak, enpleguari dagozkion taldearen edo azpitaldearen arabera, eta hilero jasoko den destino-osagarria.

Hirurtekoen eta aparteko ordainsarien balioespena eta sortzapena langile horiei aplikatu beharreko berariazko araudiaren arabera gauzatuko da, eta, ordezkio moduan, abuztuaren 2ko 30/1984 Legea aplikatzeko eremuan dauden funtzionario publikoen araudiaren arabera, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuan adierazitako moduan.

C) Ordainsari osagarri finko eta aldizkakoak 18.Bi artikuluan ezarritako ehunekoa handituko dira, 2020ko abenduaren 31n indarrean zeudenak erreferentziatzen hartuta, lege honen 18.Zazpi artikuluan xedatutakoaren kalterik gabe.

D) Produktibitate-osagarria eta ohiz kanpoko zerbitzuengatik haborokinak. Ordainsari horiek lege honen 22. artikuluan aplikazio-eremuko Estatuko funtzionarioentzat ezarritako arauen bidez xedatuko dira, eta Barne Ministerioak finkatuko ditu zenbatekoak, xede horietarako esleituko diren kredituen barruan. Kreditu horiek 18.Bi artikuluan ezarritako gehieneko gehikuntza jasoko dute, urteko zenbatekoari dagokionez, 2020ko abenduaren 31n esleituta zeudenak erreferentziatzen hartuta.

26. artikulua. *Polizia Nazionalaren Kidegoko langileen ordainsariak.*

Bat. 2021. urtean, Polizia Nazionalaren Kidegoko langileen ordainsariak eta beste ordainketa batzuek, haien oinarrizko ordainsariak Estatuko eta bere erakunde publikoen Aurrekontu Orokorretako gastuen egitura ekonomikoari buruzko 10. artikuluan jasota baldin badaude, 18.Bi artikuluan ezarritako gehikuntza jasoko dute, 2020ko abenduaren 31n indarrean zeudenen aldean, dagozkien antzintasun-ordainsariei kalterik egin gabe. Halaber, saileko titularrak esleitzen dien produktibitate-osagarria jasoko dute, hala badagokie, horretarako xedatutako kredituen bidez. Langile horientzat xedatutako kredituen zenbatekoari 18.Bi artikuluan ezarritako ehunekoa gehituko zaio, 2020ko abenduaren 31n esleituta zegoenaren aldean. Termino homogeneoetan aplikatuko da, karguen kopuruari eta motari dagokienez.

Bi. Aurreko zenbakian jasota ez dauden Poliziaren Kidego Nazionaleko funtzionarioek ordainsari hauek jasoko dituzte 2021ean:

A) Dagokion kategorian, ondore ekonomikoetarako, sailkatuta dagoen taldeari edo azpitaldeari dagozkion soldata eta hirurtekoak, lege honen 18.Bost.1 artikuluan ezarritako zenbatekoan.

B) Aparteko ordainsariak; urtean bitan emango dira, eta haietako bakoitzak lege honen 18.Bost.2 artikuluan finkatutako soldata eta hirurtekoak bilduko ditu, kategoriari dagokion taldearen edo azpitaldearen arabera, bai eta hilero jasoko den destino-osagarria ere.

Hirurtekoak eta aparteko ordainsariak balioesteari eta sortzeari dagokienez, langile horiei aplikatu beharreko araudia beteko da, eta, ordezeko moduan, Funtzio Publikoa Erreformatzeko Neurriei buruzko abuztuaren 2ko 30/1984 Legea aplikatzeko eremuan dauden funtzionario publikoen araudia, Enplegatutako Publikoaren Oinarrizko Estatutuan adierazitako moduan.

C) 2020ko abenduaren 31n indarrean dauden ordainsari osagarri finko eta aldizkakoak lege honen 18.Bi artikuluan ezarritako ehunekoaren arabera igoko dira, lege honen 18.Zazpi artikuluan ezarritakoari kalterik egin gabe.

D) Produktibitate-osagarria eta ohiz kanpoko zerbitzuengatik haborokinak lege honen 22. artikuluan aplikazio-eremuko Estatuko funtzionarioentzat ezarritako arauen bidez xedatuko dira, eta Barne Ministerioak finkatuko ditu zenbatekoak, xede horietarako esleituko diren kredituen barruan. Kreditu horiek 18.Bi artikuluan ezarritako gehieneko gehikuntza jasoko dute, urteko zenbatekoari dagokionez, 2020ko abenduaren 31n esleitura zeudenak erreferentziatzen hartuta.

27. artikulua. *Karrera Judizialeko eta Fiskaleko kideen, Justizia Administrazioaren Letraduen Kidegoko kideen eta Justizia Administrazioaren zerbitzurako kidegoetako kideen ordainsariak.*

Bat. 2021ean, lege honen 18.Bi artikuluan xedatutakoari jarraituz, honako hauek izango dira karrera judizial eta fiskaleko kideen ordainsariak:

1. Karrera judizialeko eta fiskaleko ordainsari-araubideari buruzko maiatzaren 26ko 15/2003 Legearen I. eta IV. eranskinetan, hurrenez hurren, aipatzen den soldataren zenbatekoa honako hau izango da 2021ean, hamabi hilabete-saritan:

	Euroak
Karrera judiziala	
Auzitegi Nazionaleko presidentea (ez Auzitegi Goreneko magistratua).	26.210,28
Auzitegi Nazionaleko sala-presidentea (ez Auzitegi Goreneko magistratua).	24.830,40
Justizia Auzitegi Nagusiko presidentea.	25.303,20
Magistratua.	22.492,56
Epalea.	19.680,36
Karrera fiskala	
Autonomia-erkidegoko fiskal nagusia.	25.303,20
Fiskala.	22.492,56
Abokatu fiskala.	19.680,36

2. Antzintasunagatik ordainsaria edo hirurtekoak, egoki diren kasuetan.

3. Aparteko ordainsariak abuztuaren 2ko 30/1984 Legearen aplikazio-eremuan jasotako funtzionarioei aplikatu beharreko araudiaren arabera sortuko dira, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren azken xedapenetako laugarrenean adierazitakoari jarraituz. Aparteko ordainsari horiek urtean bi izango dira, eta, kasuan-kasuan, soldataren, antzinasunaren edo hirutekoen hilabete-sari baten zenbatekoa izango du haietako bakoitzak, bai eta 2011rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren abenduaren 22ko 39/2010 Legearen X. eranskinean adierazitako zenbatekoa ere, 2020ko abenduaren 31n indarra zuten balioei erreparaturik, gehienez ere 18.Bi artikuluan ezarritako ehuneko gehituta.

4. Karrera judizial eta fiskaleko kideen ordainsari osagarriak eta ordainsari aldakor zein bereziak; halakoek 18.Bi artikuluan ezarritako ehuneko gehikuntza izango dute 2020ko abenduaren 31n indarrean zeudenen aldean.

Karrera judizial eta fiskaleko kideentzako helburuen arabeko ordainsari aldakorretara zuzendutako kreditu osoa –ordainsari horiek Karrera judizial eta fiskaleko ordainsari-araubidea erregulatzen duen 15/2003 Legearen I. tituluko III. kapituluan eta II. tituluan daude adierazita– ezin izango da karrera judizialeko eta fiskaleko kideen ordainsari finkoen zenbateko osoaren ehuneko 5etik gorakoa izan, hurrenez hurren.

5. Zenbaki honetan xedatutakoak ez du ezertan eragotziko aipaturiko 15/2003 Legearen 9.2 artikuluan zehaztutakoa.

Bi. Fiskaltzaren Estatutu Organikoa Arautzen duen abenduaren 30eko 50/1981 Legea aldatzen duen urriaren 9ko 24/2007 Legea garatuz, eremu-fiskaltza bateko fiskalburu izendatzen diren fiskalek, fiskaltza hori probintziako hiriburua ez den beste egoitza batean badago, Probintzia Auzitegiko atal bat dagoen tokian, Probintzia Fiskaltzaren egoitzako fiskalei dagokien populazio-taldearen irizpidearen arabeko destino-osagarria jasoko dute, bai eta ordezkartzaren kontzeptuko destino-osagarria, berariazko osagarria eta Probintzia Fiskaltzako fiskalburuordeari dagozkion aparteko ordainsarrietan jaso beharreko zenbatekoa ere.

Eremu-fiskaltza bateko gainerako fiskalburuek Probintzia Fiskaltzako fiskalburuordeari dagozkion berariazko osagarria jasoko dute.

Probintzia Fiskaltzako fiskalburuek eta fiskalburuordeek Probintzia Auzitegiko fiskalburuei eta fiskalburuordeei hurrenez hurren dagozkien ordainsari osagarriak eta aparteko ordainsarrietan sartu beharreko zenbatekoak jasoko dituzte.

Estatuko Fiskaltza Nagusiko Idazkaritza Teknikoko fiskalburuordeak Estatuko Fiskaltza Nagusiko fiskalburuorde ikuskatzaileari dagozkion ordainsari osagarriak eta aparteko ordainsarrietan sartu beharreko zenbatekoak jasoko ditu.

Estatuko Fiskaltza Nagusiko sala-fiskalei atxikitako fiskalek eta Estatuko Fiskaltza Nagusiko Laguntza Unitateko fiskalek Estatuko Fiskaltza Nagusiko Idazkaritza Teknikoko fiskalei dagokien zenbatekoa jasoko dute berariazko osagarri gisa.

Probintzia Fiskaltzako lurralde-ataletako fiskal dekanoei fiskal koordinatzaileei dagokien zenbatekoa jasoko dute berariazko osagarri gisa.

Espezializatutako ataletako fiskal dekanoei lurralde-ataletako fiskal dekanoei dagozkien ordainsari osagarriak eta aparteko ordainsariak jasoko dituzte.

Autonomia-erkidegoko Fiskaltzetako bigarren kategoriako fiskalek, koordinatzaileak ez direnek, baita Fiskaltza horietako lurralde-ataletako ere, autonomia-erkidegoko Fiskaltzako fiskalburuordeei dagozkien destino-osagarria eta aparteko ordainsarian jaso beharreko zenbatekoa jasoko dituzte, Fiskaltza organikoki bitan banatuta ez duten autonomia-erkidegoetan izan ezik (Autonomia Erkidegoko Fiskaltza eta egoitza duen probintziako Probintzia Fiskaltza).

Hiru. 2021eko urtean, lege honen 18.Bi artikuluan xedatutakoari jarraituz, honako hauek izango dira Justizia Administrazioari Letraduen Kidegoko eta Justizia Administrazioaren zerbitzurako Kidegoetako kideen ordainsariak:

1. Soldata, behean azaltzen diren xehetasunen arabera, eta antzintasun-ordainsaria eta hirurtekoak, halakorik badagokie.

a) Justizia Administrazioari Letraduen Kidegoko kideen soldatak honako zenbateko hauek izango ditu 2021ean, hamabi hilabete-saritan:

	Euroak
Justizia Administrazioaren letraduak, lehen kategoriakoak.	19.680,36
Justizia Administrazioaren letraduak, bigarren kategoriakoak.	18.705,84
Justizia Administrazioaren letraduak, hirugarren kategoriakoak.	17.379,60

b) Justizia Administrazioaren zerbitzurako kidegoetako funtzionarioen soldataren zenbatekoa honako hau izango da 2021ean, hamabi hilabete-saritan:

	Euroak
Toxikologiaren eta Auzitegi Zientzien Institutu Nazionaleko auzitegi-medikuak eta fakultatiboak.	16.869,36
Kudeaketa Prozesala eta Administratiboa.	14.566,80
Izapidetze Prozesala eta Administratiboa.	11.972,88
Laguntza Judiziala.	10.859,88
Toxikologiaren eta Auzitegi Zientzien Institutu Nazionaleko teknikari espezialistak.	14.566,80
Toxikologiaren eta Auzitegi Zientzien Institutu Nazionaleko laborategiko laguntzaileak.	11.972,88

c) Abenduaren 23ko 19/2003 Lege Organikoak –Botere Judizialaren uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoa aldatzen duenak– irautsi beharrezkotzat jo zituen Justizia Administrazioaren zerbitzura dauden kidegoetan, 2004ko urtarrilaren 1a baino lehen osatutako hirurtekoen zenbatekoak honako hauek izango dira 2021ean, hamabi hilabete-saritan:

	Euroak
Ofizialen kidegoa.	583,44
Laguntzaileen kidegoa.	449,76
Agente judizialen kidegoa.	388,56
Teknikari espezialisten kidegoa.	583,44
Laborategiko laguntzaileen kidegoa.	449,76
Laborategiko agenteen kidegoa (iraungitzear).	388,56
7.000 biztanletik gorako udalerrietako bake-epaitegietako idazkarien kidegoa (iraungitzear).	656,40

Auzitegiko medikuen eta medikuntza-teknikarien kidegoetako langileek 1995eko urtarrilaren 1a baino lehen osatutako hiru tekoak 703,44 eurokoak izango dira urtean, 2021erako, hamabi hilabete-saritan.

2. Aparteko ordainsariak abuztuaren 2ko 30/1984 Legearen aplikazio-eremuan jasotako funtzionarioei aplikatu beharreko araudiaren arabera sortuko dira, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren azken xedapenetako laugarrenean adierazitakoari jarraituz. Aparteko ordainsari horiek urtean bi izango dira, eta, kasuan-kasuan, soldataren, antzinatasunaren edo hiru tekoen hilabete-sari baten zenbatekoa izango du haietako bakoitzak, bai eta 2011rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren abenduaren 22ko 39/2010 Legearen X. eranskinean adierazitako zenbatekoa ere, 2020ko abenduaren 31n indarra zuten balioei erreparaturik, gehienez ere 18.Bi artikuluan ezarritako ehunekoak ghituta.

3.a) Justizia Administrazioako Letraduen Kidegoko funtzionarioei atxikitako lanpostuetarako osagarri orokorra, abenduaren 30eko 2033/2009 Errege Dekretua aplikatu beharreko kasuetan, honako zenbateko hauen arabera izango da 2021ean, hamabi hilabete-saritan adierazita:

	Euroak
I. motako postuak.	17.637,24
II. motako postuak.	15.065,04
III. motako postuak.	14.383,92
IV. motako postuak.	14.275,20
V. motako postuak.	10.322,64

Aurreko paragrafoan azaldutako funtzionarioen ordainsari osagarri finko eta aldizkakoak 18.Bi artikuluan ezarritako ehunekoan handituko dira, 2020ko abenduaren 31n indarrean zeudenak erreferentziatzat hartuta, lege honen 18.Zazpi artikuluan xedatutakoari kalterik egin gabe.

3.a) zenbaki honetako lehenengo paragrafoan adierazitako postuez bestelakoak betetzen dituzten Justizia Administrazioako Letraduen Kidegoko kideek irailaren 5eko 1130/2003 Errege Dekretuan ezarritako ordainsari orokor, aldakor eta bereziak jasoko dituzte, eta 18.Bi artikuluan ezarritako ehunekoak gehituko zaie, 2020ko abenduaren 31n indarrean zeudenak erreferentziatzat hartuta.

3.b) Justizia Administrazioaren zerbitzura ari diren kidegoetako funtzionarioei atxikitako lanpostuetarako osagarri orokorraren zenbatekoa, artikulua honetako hiru.1.b) zenbakian adierazitakoa, uztailaren 20ko 1033/2007 Errege Dekretuan xedatutakoarekin bat, honako hau izango da 2021ean, hamabi hilabete-saritan:

	Mota	Azpimota	Euroak
Kudeaketa Prozesala eta Administrazioa, eta Toxikologiaren eta Auzitegi Zientzien Institutu Nazionalen teknikari espezialistak.	I	A	4.361,52
	I	B	5.209,80
	II	A	4.015,68
	II	B	4.864,32
	III	A	3.843,12
	III	B	4.691,52
	IV	C	3.670,44
	IV	D	3.843,48

	Mota	Azpimota	Euroak
Izapidetze Prozesala eta Administratiboa, eta Toxikologiaren eta Auzitegi Zientzien Institutu Nazionaleko laborategiko laguntzaileak.	I	A	3.785,52
	I	B	4.634,04
	II	A	3.440,16
	II	B	4.288,68
	III	A	3.267,36
	III	B	4.115,76
	IV	C	3.094,80
Laguntza Judiziala.	I	A	2.973,72
	I	B	3.822,24
	II	A	2.627,76
	II	B	3.476,40
	III	A	2.455,08
	III	B	3.303,96
	IV	C	2.282,52
Toxikologiaren eta Auzitegi Zientzien Institutu Nazionaleko auzitegi-medikuak eta fakultatiboak.	I		20.594,64
	II		20.328,96
	III		20.063,04
Prozesu- eta administrazio-kudeaketako eskala, 7.000 biztanletik gorako udalerrietako bake-epaitegietako idazkarien kidegotik datozenak (iraungitzear)			5.569,20

Aurreko paragrafoan adierazitako funtzionarioen gainerako ordainsari osagarri orokor, aldakor eta bereziek 18.Bi artikuluan ezarritako ehunekoko gehikuntza jasoko dute, 2020ko abenduaren 31n indarrean zeudenak erreferentziatzat hartuta, lege honen 18.Zazpi artikuluan xedatutakoaren kalterik gabe.

4. Aurreko 3.a) eta 3.b) letretan aipatutako ordainsari osagarrietan, jasota egongo dira –hala pentsatuko da behintzat– Ministro Kontseiluaren 2009ko maiatzaren 8ko Erabakiaren bigarren apartatuan ordainsari gehigarri osagarri gisa aitortutako kopuruak; erabaki hori maiatzaren 18ko PRE/1230/2009 Aginduaren bidez argitaratu zen.

Lau. Botere Judizialaren uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoaren 624. artikuluan adierazitako funtzionarioei dagozkien oinarriko ordainsariek eta ordainsari osagarriek 18.Bi artikuluan ezarritako ehunekoko gehikuntza izango dute 2021ean, 2020ko abenduaren 31n indarrean zeudenen aldean, lege honen 18.Zazpi artikuluan xedatutakoa ezertan eragotzi gabe.

Bost. 2021ean, honako hauek izango dira Botere Judizialeko eta Fiskaltzako kideen ordainsariak:

1. Auzitegi Goreneko presidenteordea:

	Euroak
Soldata (14 hilabete-saritan jasotzekoa)	32.631,34
Beste ordainsari batzuk (12 hilabete-saritan jasotzekoak)	94.888,20
Guztira.	127.519,54

Auzitegi Goreneko sala-presidenteak eta Auzitegi Nazionaleko presidentea (Auzitegi Goreneko magistratuak):

	Euroak
Soldata (14 hilabete-saritan jasotzekoa)	30.131,50
Beste ordainsari batzuk (12 hilabete-saritan jasotzekoak)	90.072,24
Guztira.	120.203,74

Auzitegi Goreneko magistratuak eta Auzitegi Nazionaleko sala-presidenteak (Auzitegi Goreneko magistratuak):

	Euroak
Soldata (14 hilabete-saritan jasotzekoa)	28.545,72
Beste ordainsari batzuk (12 hilabete-saritan jasotzekoak)	88.530,12
Guztira.	117.075,84

2. Estatuko fiskal nagusia: 124.647,72 euro, hamabi hilabete-saritan jasotzekoak, aparteko ordainsariak jasotzeko eskubiderik gabe.

Auzitegi Goreneko fiskalburuordea:

	Euroak
Soldata (14 hilabete-saritan jasotzekoa)	30.131,50
Beste ordainsari batzuk (12 hilabete-saritan jasotzekoak)	90.072,24
Guztira.	120.203,74

Fiskalburu ikuskatzailea, Konstituzio Auzitegiaren aurreko Fiskaltzako fiskalburua eta Auzitegi Nazionaleko Fiskaltzako fiskalburua:

	Euroak
Soldata (14 hilabete-saritan jasotzekoa)	28.545,72
Beste ordainsari batzuk (12 hilabete-saritan jasotzekoak)	90.072,24
Guztira.	118.617,96

Kontu Auzitegiko Fiskaltzako fiskalburuak, Estatuaren Fiskaltza Nagusiaren Idazkaritza Teknikoko eta Laguntza Unitateko fiskalburuak, fiskaltza berezietako fiskalburuak (drogaren aurkakoa, eta ustelkeriaren eta krimen antolatuaren aurkakoa) eta Auzitegi Goreneko sala-fiskalak:

	Euroak
Soldata (14 hilabete-saritan jasotzekoa)	28.545,72
Beste ordainsari batzuk (12 hilabete-saritan jasotzekoak)	88.530,12
Guztira.	117.075,84

3. Apartatu honetako aurreko puntuetan aipatutako Botere Judizialeko eta Fiskaltzako kideek –Estatuaren fiskal nagusiak izan ezik, hura hurrengo apartatuan arautzen baita– antzinasunagatik edo hirurtekoengatik dagokien ordainsaria jasoko dute, hamalau hilabete-saritan.

Halaber, urtean bi ordainsari jasoko dituzte, ekainean eta abenduan. Hona hemen bakoitzaren zenbatekoa:

Botere Judizialeko eta Fiskaltzako zenbait kide	Zenbatekoa, eurotan
Auzitegi Goreneko presidenteordea.	7.907,35
Auzitegi Goreneko sala-presidenteak eta Auzitegi Nazionaleko presidentea (Auzitegi Goreneko magistratuak).	7.506,02
Auzitegi Goreneko magistratuak eta Auzitegi Nazionaleko sala-presidenteak (Auzitegi Goreneko magistratuak).	7.377,51
Auzitegi Goreneko fiskalburuordea.	7.506,02
Fiskalburu ikuskatzailea, Konstituzio Auzitegiaren aurreko Fiskaltzako fiskalburua eta Auzitegi Nazionaleko Fiskaltzako fiskalburua.	7.506,02
Kontu Auzitegiko Fiskaltzako fiskalburuak, Estatuaren Fiskaltza Nagusiaren Idazkaritza Teknikoko eta Laguntza Unitateko fiskalburuak, Fiskaltza berezietako fiskalburuak (drogaren aurkakoa, eta ustelkeriaren eta krimen antolatuaren aurkakoa) eta Auzitegi Goreneko sala-fiskalak.	7.377,51

Abuztuaren 2ko 30/1984 Legearen aplikazio-eremuan jasotako funtzionarioei aplikatu beharreko aparteko ordainsariei buruzko araudiaren arabekoak izango dira zenbateko horiek.

4. Estatuako fiskal nagusiak, zenbaki honen 2. puntu adierazitako zenbatekoaz gain, antzinasunagatik edo hirurtekoengatik dagozkion ordainsariak jasoko ditu, 14 hilabete-saritan, bai eta 2008rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren abenduaren 26ko 51/2007 Legearen 32.lau artikuluko 3. zenbakiaren bigarren paragrafoan xedatutakotik eratorritako ordainsariak ere, 2020ko abenduaren 31n indarrean zeudenak, 18.Bi artikuluan ezarritako ehunekoa gehituta.

Abuztuaren 2ko 30/1984 Legearen aplikazio-eremuan jasotako funtzionarioei aplikatu beharreko aparteko ordainsariei buruzko araudiaren arabekoak izango dira zenbateko horiek.

5. Zenbaki honetako 1. eta 2. puntuetan adierazitako Botere Judizialeko eta Fiskaltzako kideen soldata eta ordainsari osagarriak puntu horietan bertan eta zenbaki bereko 3. eta 4. puntu, hurrenez hurren, finkatutakoak izango dira; ondore horietarako, ez zaie aplikatuko Karrera Judizialeko eta Fiskaleko Ordainsariak arautzen dituen maiatzaren 26ko 15/2003 Legea, baina eskubidea izango dute dagozkien ordainsari bereziak, 2020ko abenduaren 31n indarrean zeuden zenbatekoekin, jasotzeko, 18.Bi artikuluan ezarritako ehunekoa gehituta.

Sei. Artikulu honetan bildutako langileek hiru tekoak dauzkatenean aitortuta lege honen 18. artikuluan bost zenbakian ezarritakoaren mende dauden Kidego edo Eskalatan, egoki izanez gero hiru tekoen edo antzinasunaren aparteko ordainsariak jasotzeko, kontzeptu horien hilabete-sari arrunt baten zenbatekoan, zenbateko bereko hamalau hilabete-saritan banatu ahal izango da aipatutako Kidego edo Eskalatan aitortutako hiru tekoen (edota antzinasunaren) urteko zenbateko osoa, hamabi hilabete-sariri dagokien hiru tekoek (edota antzinasunak) gehi hiru tekoengatik (edota antzinasunagatik) aparteko ordainsariak osatuta. Kasu horretan, honako hauek izango dira urteko zenbatekoak, hamabi hilabete-sari arruntetan, gehi aparteko bi ordainsaritan:

Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren taldea/ azpitaldea	Hiru tekoak (Euroak)
A1	618,58
A2	513,02
B	459,12
C1	396,02
C2	274,56
E (30/1984 Legea) eta profesionalen multzoak (EPOE).	206,92

28. artikulua. *Estatutupeko langileen eta Gizarte Segurantzako estatutupekoak ez diren langileen ordainsariak.*

Bat. 2021ean, Gizarte Segurantzaren Administrazioari funtzionarioek, Estatuko Administrazio Orokorreko gainerako langileekin jada homologatuta, lege honen 22. artikuluan xedatutako ordainsariak jasoko dituzte.

Bi. 2021ean, Osasunaren Institutu Nazionalaren estatutupeko langileen ordainsariak buruzko irailaren 11ko 3/1987 Errege Lege Dekretuaren aplikazio-eremuan dauden langileek lege honen 22.Bat.A), B) eta C) artikuluan kontzeptu horietarako zehaztutako zenbatekoetan jasoko dituzte oinarrizko ordainsariak eta destino-osagarria, ezertan eragotzi gabe aipaturiko errege lege-dekretuaren bigarren xedapen iragankorreko bi zenbakian ezarritakoa eta aipaturiko 22.Bat artikuluan C) letran finkatutako destino-osagarria hamalau hilabete-saritan jasotzea.

Aipatutako estatutupeko langileei lege honen 22.Bat.B) artikuluan ezarritakoa aplikatzeko, aparteko ordainsari bakoitzari dagokion destino-osagarriaren zenbatekoa ere hamalau hilabete-saritan emango da. Zenbateko hori 22.Bat.C) artikuluan adierazitako mailen arabera kopuruen hamabirena izango da.

Langile horiei dagozkien berriazko nahiz etengabeko arretagatik osagarrien zenbatekoek 18.Bi artikuluan ezarritako gehikuntza jasoko dute, 2020ko abenduaren 31n indarrean zeudenak erreferentziatzat hartuta, lege honen 18.Zazpi artikuluan xedatutakoaren kalterik gabe.

3/1987 Errege Lege Dekretuaren 2.Hiru.c) artikuluan, hirugarren xedapen iragankorrean eta berau garatzeko emandako gainerako arauetan adierazitako irizpideen arabera zehaztuko da produktibitate-osagarriaren zenbateko indibiduala.

Hiru. 2021. urtean, artikulu honen aplikazio-eremuko gainerako funtzionarioen eta estatutupeko langileen ordainsariak 18.Bi artikuluan ezarritako gehikuntza jasoko dute, 2020ko abenduaren 31n indarrean zeudenen aldean.

III. KAPITULUA

Langile aktiboen araubidearen alorreko beste xedapen batzuk

29. artikulua. *Ohiz kanpoko diru-sarrerak jasotzeko debekua.*

Lege honen aplikazio-eremuko enplegatu publikoek, zerga-araubidearen menpe daudenak kenduta, ezin izango dute Administrazioari edo edozer botere publikori dagozkion tributuen, komisioen edo diru-sarreraren partaidetzarik jaso edozer zerbitzu edo jurisdikzioaren ordainetan, ez eta edozer partaidetza edo saririk ere ezarritako isunetan, araudian haiei egotzita egonik ere; hala, dagokien ordainsari-araubidean zehaztutako ordainsariak soilik jasoko dituzte, ezertan eragotzi gabe bateraezintasun-sistema aplikatzeak dakarrena, eta betetako lan edo karguagatik etxebizitza edukitzeari buruzko berariazko araudian xedatutakoa.

30. artikulua. *Sariak, gurutzeak, dominak eta mutilazio-pentsioak.*

Bat. 2021. urtean, sari, gurutze, domina eta elbarri-pentsioengatik jasoko diren zenbatekoek 18.Bi artikuluan ezarritako gehikuntza izango dute, 2020ko abenduaren 31n baietsita zeudenak erreferentziatzat hartuta.

Bi. San Fernandez Gurutze Ohoratua eta Banakako Domina Militarra euren legeria bereziaren bidez eraenduko dira.

Hiru. Zerbitzu Konstantziaren Gurutzea eta San Hermenegildoren Errege Ordena Militarren kategoriari abuztuaren 4ko 725/2020 Errege Dekretuak ezarritakoaren mende egongo dira; errege-dekretu horren bidez, San Hermenegildoren Errege Ordena Militarren Erregelamendua onetsi zen.

31. artikulua. *Beste arau erkide batzuk.*

Bat. Tokiko Osasun Kidegoetako langile administrazio-kontratudunek eta funtzionarioek, bai eta 2020an Sektore publikoaren eremuko ordainsarien arloan presako neurriak onartzen dituen urtarrilaren 21eko 2/2020 Errege Lege Dekretuan oro har ezarritakoekin bat ez datozen ordainsariak izan dituzten langileek, errege lege-dekretu honetan berariaz ezarritakoak aplikatu behar ez bazaizkie, 2021ean ere jasoko dituzte 2020ko abenduaren 31n indarrean zeuden ordainsariak, 18.Bi artikuluan ezarritako igoera aplikatuta.

Bi. Estatuko Administrazio Orokorrean, haren organismo autonomoetan eta estatu-agentzietan, funtzionarioen bat betetzen ari den lanpostuari dagokion ordainsari-araubideaz bestelako batera atxikita egonez gero, funtzionario horrek betetzen ari den lanpostuari dagozkion ordainsariak jasoko ditu; aurrez, oinarritzko ordainsariak parekatuko zaizkio, Ogasun Ministerioak eta Lurralde Politikako eta Funtzio Publikoko Ministerioak Aurrekontuen eta Gastuen eta Lurralde Politikako eta Funtzio Publikoaren estatu-idazkaritzen bitartez batera baimenduta, interesa duten ministerio-sailen proposamenari jarraituz.

Aurreko paragrafoan adierazitako atxikipenaren ondorioetarako, baimena eman ahal izango da antzinatasun-ordainsariaren zenbatekoa funtzionarioaren jatorrizko ordainsari-araubidearen arabera izan dadin.

Hiru. Zerbitzuen ondoriozko kalte-ordainen zenbatekoa 2020an indarrean zegoen berbera izango da.

32. artikulua. *Kontratupeko langileen eta funtzionarioak ez direnen ordainsariak finkatzea edo aldatzea.*

Bat. 1. Lan-kontratudun langileen eta funtzionario ez diren langileen ordainsari-baldintzak zehazteko edo aldatzeko, ezinbestekoa izango da Ordainsarien Ministerioarteko

Batzordearen Batzorde Betearazlearen aldeko txostena, langile horiek honako hauetako batean zerbitzu egiten dutenean:

- a) Estatuko Administrazio Orokorrean eta haren organismo autonomoetan.
- b) Gizarte Segurantzako entitate kudeatzaileetan eta zerbitzu erkideetan.
- c) Estatu-agentzietan, beren berariazko araudiaren arabera.
- d) Enpresa-erakunde publikoetan eta gainerako organismo eta ente publikoetan.

2. Ordainsarien Ministerioarteko Batzordearen Batzorde Betearazleak txostena egin dezan, honako jarduera hauek hartuko dira langile horien ordainsari-baldintzen zehaztapentzat edo aldaketatzat:

- a) Lanpostu berrien ordainsariak zehaztea.
- b) Estatuko Administrazioako lan-kontratuko langileentzako hitzarmen bakarra sinatzea eta aplikatzea, bai eta antzeko akordioak edo tresnak, berrikuspenak, atxikipenak edo luzapenak ere, hitzarmen horren aplikazio-eremuan.

d) Ordainsariak banakako kontratu bidez finkatzea, langile finkoak edo epe jakin baterako kontratatutakoak izan, betiere hitzarmen kolektibo bidez guztiz edo zati batez araututa ez badaude; horretatik kanpo geratzen dira izaera bereziko lan-harremanari lotutako aldi baterako langileak, lan-harreman hori araututa baitago urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Langileen Estatutuari buruzko Legearen testu bateginaren 2. artikuluan 1. zenbakiaren e) letran. Nolanahi ere, Ordainsarien Ministerioarteko Batzordearen Batzorde Betearazleari azken langile horien ordainsariei buruzko informazioa helarazi beharko zaio.

Salbuespena izango da, halaber, martxoaren 5eko 451/2012 Errege Dekretuak, enpresa-sektore publikoko eta beste entitate batzuetako arduradun eta zuzendari nagusien ordainsari-erregimena arautzen duenak, adierazitako ordainsariak finkatzea, horretarako aipaturiko arauan xedatutakoa beteko baita.

d) Alde bakarreko edonolako soldata-hobekuntzak ematea, banaka edo kolektiboki, nahiz eta funtzionario publikoen ordainsari-erregimenaren aplikazioa hedatzearen ondorio izan.

- e) Atzerrian kontratatutako langileei dagozkien ordainsariak finkatzea.

3. Artikulu honetako Bat.1 atalean zehaztutako txostena igortzeko, honako puntu hauetan zehazten diren prozedura eta irismena bete beharko dira:

a) Artikulu honen Bat.2 b) apartatuan azaltzen den kasuan, eraginpeko erakundeek dagokion proiektua igorriko diote Ordainsarien Ministerioarteko Batzordearen Batzorde Betearazleari, adostu edo sinatu aurretik.

Txostena gehienez ere hamabost eguneko epean egingo da, proiektua jasotzen den egunetik zenbatzen hasita, eta hura baloratzeko behar den dokumentazio guztia aurkeztu ondoren. Txostena gastu publikoaren arloan ondorio zuzenak edo zeharkakoak dakartzaten alderdi guztiei buruzkoa izango da, bai uneko urterako, bai etorkizuneko ekitaldietarako; bereziki, dagokion soldata-masa zehazteari eta haren hazkundearen kontrolari dagokienez, lege honen 23. artikuluan xedatutakoari kalterik egin gabe.

b) Bat.2 ataleko gainerako kasuetan, eragindako erakundeek proposatzen dituzten jarduerak eta jardueren alderdi ekonomiko guztien balorazioa igorriko dizkiote Ordainsarien Ministerio arteko Batzordearen Batzorde Betearazleari.

c) Enpresa-erakunde publikoen eta artikulu honetako Bat.1 d) letran aipatzen diren gainerako organismo eta ente publikoen kasuan, txostena Ordainsarien Ministerioarteko Batzordearen Batzorde Betearazleak horretarako ezartzen dituen baldintzen eta prozeduren arabera egingo da, haien ezaugarri espezifikoak kontuan hartuta.

4. Arlo honetan hartutako akordioak erabat deusezak izango dira, txostena izapidetu ez bada edota ezezko txosten baten kontra hartu badira; erabat deusezak izango dira ondorengo ekitaldietarako soldata-gehikuntzak eragiten dituzten itunak ere, etorkizuneko Estatuaren Aurrekontu orokorretako legeek zehaztutakoaren aurkakoak izanez gero.

Artikulu honetan ezarritako baldintzak bete gabe, ezin izango da baimendu ordainsariak aplikatzeak eragindako gasturik.

Bi. Ordainsarien Ministerioarteko Batzordearen Batzorde Betearazleak finkatuko eta, hala badagokio, eguneratuko ditu atzerrian diharduten lan-kontratudun langileen ordainsariak, herrialde bakoitzeko inguruabar espezifikoak aintzat hartuta.

Artikulu honetan ezarritakoa bete gabe, ezin izango da baimendu ordainsariak aplikatzeak eragindako gasturik.

Hiru. Lan-kontratuko langileen eta funtzionario ez diren langileen ordainsari-baldintzak hitzarmen kolektiboaren, itunaren, akordioaren edo antzeko beste edozein tresnaren bidez zehazteko edo aldatzeko, aurretiazko eta aldeko txostena eman beharko du Enpresa Publikoen Negoziazio Kolektiboaren Jarraipen Batzordeak, Aurrekontuen eta Gastuen Estatu Idazkaritzako titularra buru dela, Ekonomia Gaietarako Gobernuaren Ordezko Batzordeak ezartzen duenarekin bat etorriz, honako hauen kasuan: Estatuko merkataritza-sozietateen, enpresa-erakunde publikoen, Estatuko sektore publikoko fundazioen eta partzuergoen kasuan –baldin eta, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 120. artikuluan ezarritakoaren arabera, partzuergo horiek Estatuko sektore publikori atxikita badaude–, Gizarte Segurantzarekin elkarlanean jarduten duten mutualitateen eta horien zentro mankomunatuaren kasuan eta Bat.1 atalean zerrendatutako guztien kasuan, betiere hitzarmen bakarraren aplikazio-eremua ez bada.

Batzorde horrek Ordainsarien Ministerioarteko Batzordearen Batzorde Betearazleari helaraziko dizkio artikulu honetako Bat.1 atalean langileei buruz jasotako txostenak, jakinaren gainean egon dadin.

Arlo honetako hitzarmen kolektiboak, itunak, akordioak edo antzeko edozein tresna erabat deusezak izango dira, txostena izapidetu ez bada edo Enpresa Publikoen Negoziazio Kolektiboaren Jarraipen Batzordearen txostenaren kontra hartu badira.

Espainiako Bankuak honako hauen berri emango dio, aldeztu aurretik, Enpresa Publikoen Negoziazio Kolektiboaren Jarraipen Batzordeari: hitzarmen edo akordio kolektibo baten negoziazioa hasi dela, langileen ordezkariei helaraziko zaien edozein akordio-proposamen, eta adostutako hitzarmen edo akordioak.

33. artikulua. *Lan-kontratudun langileak inbertsio-kredituen kontura kontratatzea.*

Bat. Ministerio-sailek, organismo autonomoek, estatu-agentziek, Gizarte Segurantzako entitate kudeatzaileek eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrak eta Gizarte Segurantzaren Informatika Kudeatzailetzak aldi baterako langileak kontratatu ahal izango dituzte, obrak egiteko edo zerbitzuak emateko, erakunde bakoitzari dagozkion inbertsio-kredituen kontura, betiere 19.Lau artikuluan aipatutako baldintzak eta honako baldintza hauek betez gero:

a) Kontratuaren xedea obrak zuzenean gauzatzea, Estatuaren kontratuen legedia aplikatuz, edota inbertsio-izaera duten zerbitzuak ematea izatea.

b) Obra edo zerbitzu horiek Estatuaren Aurrekontu Orokorretan aurreikusita eta onartuta dauden inbertsioekin lotuta egotea.

c) Obra edo zerbitzu horiek plantillako langile finkoen bidez betearaztea ezinezkoa izatea, eta aurrekontu-kredituan langileak kontratatzeko behar den besteko zuzkidura ez egotea.

Bi. Kontratazioak aurrekontu-ekitaldia gainditu ahal izango du, obra edo zerbitzuek gainditu egin behar dutenean ekitaldi hori, eta urte antzeko inbertsio-proiektuen barruan badaude; horretaz gain, Aurrekontuei buruzko azaroaren 26ko 47/2003 Lege Orokorren 47. artikuluan edota Estatuaren Aurrekontu Orokorren kasuan kasuko legean haientzat ezarritako baldintzak ere bete beharko dituzte.

Hiru. Kontratu horiek formalizatu baino lehen, Estatuko Abokatutzak aztertu egin beharko ditu dagokion sailean, organismoan edo entitatean, edota, hala dagokionean, Gizarte Segurantzaren Administrazioako letraduak aztertuko ditu; bereziki, erabilitako

kontratazio mota egokia den adieraziko du, eta kontratuaren klausulak lan-legeriak zehaztutako baldintzekin eta formaltasunekin bat ote datozen.

Lau. Beharrezkoa den kasuetan, artikulua honetan araututako kontratuak alde aurretik fiskalizatuko dira, Aurrekontuei buruzko azaroaren 26ko 47/2003 Lege Orokorrak 152. artikulutik 156. artikulura bitartean xedatutakoaren arabera. Ondorio horietarako, inbertsio-kredituak egokiak izango dira aldi baterako langileak kontratatzeko, aurrekontu-kontzeptuan xede horretarako berariaz esleitutako nahikoa kreditu ez baldin badago.

Kontu-hartzeko eginkizunik ez duten Estatuko erakunde publikoetan, kontratu horiek egiteko, dagokion ikuskatzaile eskuordetuak aldeko txostena eman beharko du. Txosten horretan, adierazi beharko du dagokion kapituluaren behin-behineko langileak kontratatzena xedatutako aurrekontu-kontzeptuan ez dagoela krediturik. Organismo autonomoa edo enpresa-entitate publikoa ez badago txostenarekin ados, Ogasun Ministeriora bidali ahal izango du espedientea, ebatzi dezan.

34. artikulua. *Ogasun Ministerioak sektore publikoko langileen kostuen arloan duen eskumena, negoziazio kolektiboaren eremuan.*

Ministerio-sailen, organismoen, estatu-agentzien, enpresa-entitate publikoen eta Estatuko sektore publikoko gainerako ente publikoen, Estatuko merkataritza-sozietateen, Estatuko sektore publikoko fundazioen eta nagusiki Estatuko sektore publikoaren partaidetza duten partzuergoen aurrekontuetako langile-gastuen kapituluari egotzi beharreko gastuekin zerikusia duten akordioak, hitzarmenak, itunak edo negoziazio kolektiboko bestelako tresnak, bai eta horiek betetzeko edo garatzeko hartzen diren neurriak ere, guztiz eraginkorrak izan daitezzen, Ogasun Ministerioak aldeko txostena egin beharko du aurrez, Aurrekontuen eta Gastuen Estatu Idazkaritzako titularraren bitartez; hala, erabat deusezak izango dira txosten hori jaso gabe egiten direnak. Adierazitako akordio, hitzarmen, itun, tresna zein neurriek ezin izango dute eragin, zuzenean edo zeharka, langile-kostuen arloko gastu publikoa handitzea eta/edo ordainsariak handitzea errege lege-dekretu honen 18.Bi artikuluan baimendutakoaz gaindi.

IV. TITULUA

Pentsio publikoak

I. KAPITULUA

Pentsioak goratzea

35. artikulua. *Pentsioak handitzea.*

Gizarte Segurantzako sistemak ordaindutako pentsioak eta Estatuko Klase Pasiboan oro har ehuneko 0,9 igoko dira 2021ean, lege honetako dagozkion artikuluetan adierazitako moduan.

II. KAPITULUA

Estatuko Klase Pasiboen Araubideko pentsioen eta gerrako pentsio berezien hasierako zehaztapena egitea

36. artikulua. *Estatuko Klase Pasiboen Araubideko pentsioen hasierako zehaztapena egitea.*

Bat. Artikulu honetan xedatutakoa Estatuko Klase Pasiboen Araubidearen mende dauden langileek euren alde edota familiaren alde sortutako ohiko pentsioei eta ohiz

kanpokoei aplikatuko zaie. Araubidearen mende dauden langileak ondorengo zerrendan ageri dira, dagokien legedi arautzailearen arabera multzokatuta:

1. Honako langile hauei aplikatzen zaie Estatuko Klase Pasiboen Legearen testu bateginak, apirilaren 30eko 670/1987 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsiak, I. tituluan ezarritakoa:

a) Estatuko, justiziako, gorte nagusietako eta legedi arautzaileak horrela xedatzen duen Estatuko edo konstituzioko beste organo batzuen administrazioko karrerako funtzionario zibilei, autonomia erkidegoetara eskualdatutakoei, bai eta karrerako langile militarren, langile militar osagarriei eta erretiro-adinera arte indar armatuetan egoteko eskubidea duten tropako militar eta marinel profesionaleko eskaletakoei, betiere 1984ko abenduaren 31ren ostean administrazio-egoeran badaude edo egun hori baino lehen erretiroa hartu ez badute.

b) 1986ko urtarrilaren 1etik aurrera praktikak egiten aritu diren funtzionarioei, eta 1985eko urtarrilaren 1etik aurrera eskola edo akademia militarren bateko ikasle izan, eta zaldun alferrez kadete, alferrez ikasle, sarjentu ikasle edo itsaszain mailetara igo direnei.

c) 1965eko urtarrilaren 1a baino lehen izendatutako bitarteko funtzionarioei, Estatuaren Aurrekontu Orokorretan zehaztutako soldata jaso badute langileentzako partidatik, eta eskubide pasiboak eragin dituen gertakaria 1985eko abenduaren 31tik aurrera gertatu bada.

2. Honako langile hauei aplikatzen zaie 1984ko abenduaren 31n indarrean zegoen legedia, Estatuko Klase Pasiboen Legearen testu bateginaren II. tituluan adierazitako aldaketekin:

a) Estatuko, justiziako, gorte nagusietako eta legedi arautzaileak horrela xedatzen duen Estatuko edo konstituzioko beste organo batzuen administrazioko karrerako funtzionario zibilei, autonomia erkidegoetara eskualdatutakoei, bai eta karrerako langile militarren, langile militar osagarriei eta erretiro-adinera arte indar armatuetan egoteko eskubidea duten tropako militar eta marinel profesionaleko eskaletakoei, baldin eta 1985eko urtarrilaren 1 baino lehen hil badira, edo erretiroa hartu badute.

b) 1965eko urtarrilaren 1a baino lehen izendatutako bitarteko funtzionarioei, Estatuaren Aurrekontu Orokorretan zehaztutako soldata jaso badute langileentzako partidatik, eta eskubide pasiboak eragin dituen gertakaria 1986ko urtarrilaren 1a baino lehen gertatu bada.

Bi. Artikulu honen Bat.1 apartatuan adierazitako langileek eragindako pentsioen hasierako zehaztapena egiteko, honako hartzeko arautzaile hauek hartuko dira kontuan 2021erako:

a) 1985eko urtarrilaren 1etik aurrera, kidego, eskala, lanpostu, enplegu edo administrazio-kategoriaren batean sartutako langileen hartzeko arautzaileak:

Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren taldea/ azpitaldea	Hartzeko arautzailea Euro urtean
A1	42.563,68
A2	33.498,68
B	29.333,53
C1	25.727,56
C2	20.354,76
E (30/1984 Legea) eta profesionalen multzoak (EPOE).	17.354,06

b) 1985ko urtarrilaren 1a baino lehen sartutako langileen hartzeko arautzaileak:

ESTATUKO ADMINISTRAZIO ZIBIL ETA MILITARRA

Proporzionaltasun-indizea	Hartzeko arautzailea Euro urtean
10	42.563,68
8	33.498,68
6	25.727,56
4	20.354,76
3	17.354,06

JUSTIZIA-ADMINISTRAZIOA

Indize biderkatzailea	Hartzeko arautzailea Euro urtean
4,75	42.563,68
4,50	42.563,68
4,00	42.563,68
3,50	42.563,68
3,25	42.563,68
3,00	42.563,68
2,50	42.563,68
2,25	33.498,68
2,00	29.333,53
1,50	20.354,76
1,25	17.354,06

KONSTITUZIO-AUZITEGIA

Kidegoa	Hartzeko arautzailea Euro urtean
Idazkari nagusia.	42.563,68
Legelariak.	42.563,68
Gerentea.	42.563,68

GORTE NAGUSIAK

Kidegoa	Hartzeko arautzailea Euro urtean
Legelariak.	42.563,68
Artxibozain-liburuzainak.	42.563,68
Goi-mailako aholkulariak.	42.563,68
Erredaktoreak, takigrafoak eta estenotipistak.	42.563,68
Teknikari-administrariak.	42.563,68
Administrariak.	25.727,56
Atezainak.	20.354,76

Hiru. Artikulu honen Bat.2 apartatuan adierazitako langileek eragindako pentsioen hasierako zehaztapena egiteko, 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera ondorio ekonomikoak izan ditzaten, honako arau hauek aplikatzearen ondorioz ateratzen diren oinarri arautzaileak aintzat hartuko dira:

a) Eragileari soldataren eta, hala badagokio, graduaren kontzeptuengatik dagokion zenbatekoa hartuko da, kidegoaren arabera edota hura sartuta dagoen kidego, karrera, eskala, plaza, enplegu edo kategoriak 1984ko abenduaren 31n esleituta duen indize biderkatzaile edo proportzionaltasun-indizearen eta administrazio-karrera mailaren arabera; horiek honakoak dira:

ESTATUKO ADMINISTRAZIO ZIBIL ETA MILITARRA

Proportzionaltasun- indizea	Maila	Maila berezia	Soldata eta graduko kontzeptuagatiko zenbatekoa urtean – Euroak
10 (5,5)	8	–	28.533,62
10 (5,5)	7	–	27.749,43
10 (5,5)	6	–	26.965,26
10 (5,5)	3	–	24.612,66
10	5	–	24.212,26
10	4	–	23.428,11
10	3	–	22.643,93
10	2	–	21.859,67
10	1	–	21.075,49
8	6	–	20.360,62
8	5	–	19.733,41
8	4	–	19.106,13
8	3	–	18.478,88
8	2	–	17.851,65

Proporzionaltasun-indizea	Maila	Maila berezia	Soldata eta graduko kontzeptuagatiko zenbatekoa urtean – Euroak
8	1	–	17.224,39
6	5	–	15.511,06
6	4	–	15.040,76
6	3	–	14.570,55
6	2	–	14.100,21
6	1	(ehuneko 12)	15.209,07
6	1	–	13.629,90
4	3	–	11.477,44
4	2	(ehuneko 24)	13.695,41
4	2	–	11.163,83
4	1	(ehuneko 12)	12.117,15
4	1	–	10.850,20
3	3	–	9.909,97
3	2	–	9.674,80
3	1	–	9.439,66

JUSTIZIA-ADMINISTRAZIOA

Indize biderkatzailea	Soldata kontzeptuaren araberako zenbatekoa, urtean – Euroak
4,75	46.596,23
4,50	44.143,79
4,00	39.238,89
3,50	34.334,03
3,25	31.881,63
3,00	29.429,18
2,50	24.524,31
2,25	22.071,88
2,00	19.619,46
1,50	14.714,59
1,25	12.262,17

KONSTITUZIO-AUZITEGIA

Kidegoa	Soldata kontzeptuaren araberako zenbatekoa, urtean – Euroak
Idazkari nagusia	44.143,79
Legelariak	39.238,89
Gerentea	39.238,89

GORTE NAGUSIAK

Kidegoa	Soldata kontzeptuaren araberako zenbatekoa, urtean – Euroak
Legelariak	25.679,45
Artxibozain-liburuzainak	25.679,45
Goi-mailako aholkulariak	25.679,45
Erredaktoreak, takigrafoak eta estenotipistak	23.581,79
Teknikari-administrariak	23.581,79
Administrariak	14.201,80
Atezainak	11.233,78

b) Aurreko letran xedatutako eragiketarik ateratzen den kopuruari honako biderketa honen emaitza gehitu behar zaio: egiaztatutako hiru urtekoen kopurua bider eragileari zerbitzu emandako kidegoaren, karreraren, eskalaren, lanpostuaren, enpleguaren edo kategoriaren arabera hiru urteko bakoitzeko dagokion balioa. Hala badagokio, honako koadro hauetan esleitutako proportzionaltasun-indizeak edo indize biderkatzaileak hartuko dira kontuan:

ESTATUKO ADMINISTRAZIO ZIBIL ETA MILITARRA

Proportzionaltasun-indizea	Hiru urtekoaren balio unitarioa, urteko zenbatekoan – Euroak
10	921,77
8	737,44
6	553,02
4	368,73
3	276,54

JUSTIZIA-ADMINISTRAZIOA

Indize biderkatzailea	Hirurtekoaren balio unitarioa, urteko zenbatekoan - Euroak
3,50	1.716,70
3,25	1.594,09
3,00	1.471,47
2,50	1.226,19
2,25	1.105,11
2,00	980,99
1,50	735,73
1,25	613,13

KONSTITUZIO-AUZITEGIA

Kidegoa	Hirurtekoaren balio unitarioa, urteko zenbatekoan - Euroak
Idazkari nagusia	1.716,70
Letraduak	1.716,70
Kudeatzailea	1.716,70

GORTE NAGUSIAK

Kidegoa	Hirurtekoaren balio unitarioa, urteko zenbatekoan - Euroak
Legelariak	1.049,99
Artxibozain-liburuzainak	1.049,99
Goi-mailako aholkulariak	1.049,99
Erredaktoreak, takigrafoak eta estenotipistak	1.049,99
Teknikari-administrariak	1.049,99
Administrariak	630,00
Atezainak	419,98

Lau. Artikulu honetan araututako pentsioen hileroko zenbatekoa zehazteko, aurreko zenbakietan xedatutako arauetan eta aplikatzen den legerian oinarrituz kalkulatu den urteko zenbatekoa 14 zatitan banatuko da.

37. artikulua. *Gerrako pentsio berezien hasierako zehaztapena.*

Bat. Gerra Zibilaren ondorioz hildakoen senideen alde pentsioak, laguntza mediko-farmazeutikoa eta gizarte-laguntza aitortzeari buruzko irailaren 18ko 5/1979 Legearen babesean aitortutako pentsioen zenbatekoa ezin izango da, 2021ean, Gizarte Segurantzaren sisteman 65 urtetik gorakoentzako alarguntza-pentsioen gutxieneko zenbatekoa baino txikiagoa izan, alde batera utzita ezinduk ez diren umezurtzen aldeko zurtzasan-pentsioak, funtzionario ez diren langileek eragindakoak, irailaren 18ko 5/1979 Legearen eta ekainaren 26ko 35/1980 Legearen babesean (Errepublikaren eremuko borrokalari ohien mutilazio-pentsioei buruzkoa). Azken pentsio horiek 1.933,65 eurokoak izango dira urtean, hamabi hilabeteri dagozkienak.

Bi. 1. Ekainaren 26ko 35/1980 Legearen babesean aitortutako pentsioak, kausatzaileak Indar eta Institutu Armatuetako militar profesionalak ez baziren, honako hauek izango dira 2021ean:

a) Elbarri-pentsioa kalkulatu da 5.259,55 euroko urteko zenbatekoari ezintasun-maila bakoitzarentzat ezarritako ehunekoak aplikatuta.

b) Oinarrizko ordainsaria, hirurtekoen ordeko ordainsaria, eta jaso ez diren ordainsariak konpentsatzeko ordainsari gehigarriak, guztira, 14.184,88 eurokoak izango dira urtean.

c) Gizarte Segurantzako 65 urtetik gorakoentzako alarguntza-pentsioen gutxieneko zenbateko bera izango dute senideen aldeko pentsioek, ezinduk ez dauden umezurtzen aldeko pentsioen kasuan izan ezik, haien zenbatekoa 1.933,65 eurokoa izango baita urtean.

2. Militar profesional izandako gudari ohien senideen alde 35/1980 Legearen babesean aitortutako pentsioen zenbatekoa ezin izango da, 2021ean, Gizarte Segurantzaren sisteman 65 urtetik gorakoentzako alarguntasun-pentsioen gutxieneko zenbatekoa baino txikiagoa izan.

Hiru. Gerrako mutilatu zibilentzako oinarrizko ordainsariari buruzko martxoaren 29ko 6/1982 Legearen babesean aitortutako pentsioek honako zenbateko hauek izango dituzte 2021ean:

a) Bigarren, hirugarren edo laugarren mailako ezintasuna aitortuta daukatenen oinarrizko ordainsaria urtean 9.929,41 eurokoa izango da.

b) Senideen aldeko pentsioen zenbatekoa Gizarte Segurantzako sisteman 65 urtetik gorakoentzako ezarritako alarguntza-pentsioen gutxieneko zenbateko bera izango da.

Lau. Martxoaren 5eko 670/1976 Dekretuaren babesean gerra-mutilatuen alde aitortutako pentsioak, Aberriaren aldeko gerra-mutilatu zaldunen kidegoan sartu ezin izan zirenen kasuan, urtean 6.301,61 euroko zenbatekoari ezintasun-maila bakoitzerako finkatutako ehunekoak aplikatuta lortzen den zenbatekoa izango du 2021ean.

Bost. Gerra Zibilean Indar Armatuetako, Ordena Publikoko Indarren eta Errepublikako Karabineroen Kidegoko kide izan zirenen eskubideak eta emandako zerbitzuak aitortzen dituen urriaren 22ko 37/1984 Legeak II. tituluan ezarritakoaren babesean aitortutako pentsioek 2021ean izango duten zenbatekoa kalkulatzeko, soldatari eta graduari dagokien zenbatekoa aplikatuko zaio aurreko 36.Hiru.a) artikuluan jasotako edukiri.

Pentsio horien gutxieneko zenbatekoak honako hauek izango dira:

a) Kausatzaileen aldeko pentsioetan, Gizarte Segurantzako sisteman ezkontidea ardurapean daukaten 65 urtetik gorakoentzako ezarritako erretiro-pentsioen gutxieneko zenbatekoa.

b) Alarguntza-pentsioetan, Gizarte Segurantzako sisteman 65 urtetik gorakoentzako ezarritako alarguntza-pentsioen gutxieneko zenbatekoa.

Sei. Artikulu honetan araututako pentsioen hileroko zenbatekoa zehazteko, aurreko zenbakietan xedatutako arauetan eta aplikatzekoa den legerian oinarrituz kalkulatu den urteko zenbatekoa 12 zatitan banatuko da.

Ohiko hamabi hilabete-sariekin batera, aparteko bi hilabete-sari ordainduko dira, zenbateko berdinekoak, ekainaren 26ko 35/1980 Legearen babesean aitortutako mutilazio-pentsioetan izan ezik.

Aurreko paragrafoaren azken tartekian xedatutakoa gorabehera, mutilatuak, aipaturiko legean xedatutakoaren arabera gai gisa sailkatuta dagoenean, adierazitako aparteko ordainsariak jasotzeko eskubidea izango du.

III. KAPITULUA

Pentsio publikoen hasierako zehaztapenerako mugak

38. artikulua. *Pentsio publikoen hasierako zehaztapenerako mugak.*

Bat. 1989rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren abenduaren 28ko 37/1988 Legearen 42. artikuluan adierazitako pentsio publikoen hasierako zehaztapenaren ondorioz 2021ean jaso beharreko zenbatekoa ezin izango da, orotara, hilean 2.707,49 eurotik gorakoa izan; dena den, titularrak dagozkion aparteko ordainsariak jasoko ditu, baina horien zenbatekoak ere muga hori bera izango du.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa gorabehera, pentsiodunak urtean hamalau ordainsari baino gutxiago edo gehiago jasotzeko eskubidea izanez gero –aparteko ordainsariak barne hartuta–, hilabete-muga hori egokitu egin beharko da, urtean 37.904,86 euroko zenbatekora iristeko edo zenbateko hori ez gainditzeko.

Bi. Titular batek aldi berean bi pentsio publiko edo gehiago jasotzeko eskubidea badu, pentsio horien hasierako zehaztapenaren ondorioz guztira jasoko duen zenbatekoak aurreko apartatuan adierazitako muga berdina izango ditu.

Horretarako, lehenik eta behin, pentsio publiko bakoitzaren zenbateko osoa zehaztuko da, eta, guztien batura hilean 2.707,49 eurotik gorakoa izanez gero, proportzionalki murriztuko dira, zenbateko horretara egokituko.

Hala eta guztiz ere, pentsioen bat abenduaren 28ko 37/1988 Legearen 42.1.c) artikuluan adierazitako funtzionarioen mutualitateetako baten funts bereziaren konturakoa izanez gero, murrizketa edo ezabapena pentsio horren zenbateko osoari aplikatuko zaio lehentasunez, eta, ahal izanez gero, aitortzeko garaian. Beharrezkoa izanez gero, ondoren gainerako pentsioak proportzionalki murriztuko dira, guztien baturak gehienezko muga gainditu ez dezan.

Hiru. Pentsio publiko baten hasierako zehaztapena beste pentsio publiko bat edo batzuk jasotzen ari den pertsona baten alde egiten denean, pentsio guztien zenbateko osoen baturak artikuluko honen Bat apartatuan ezarritako mugak gainditzen baditu, aipaturako muga gainditzen duen zenbatekoa murriztuko da, edo pentsio berriaren zenbateko osoari kenduko zaio.

Hala eta guztiz ere, pentsio berriak, honako edo aurreko ekitaldi ekonomikoetan errenta salbuetsiaren izaera badu, pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga arautzen duen legerian xedatutakoaren arabera, interesdunak lehen eragindako pentsio publikoak minoratu edo kendu egingo dira, titularrak hala eskatuz gero. Kasu horietan, erregularizazioaren ondorioek eskaera egindako urteko urtarrilaren 1a arte egingo dute atzera, edota pentsio berriaren lehenengo ordainketaren datara arte, data hori gerokoagoa izanez gero.

Lau. Aurreko zenbakietan adierazitako hasierako zehaztapena egitean, organismo edo erakunde eskudunek ezin badute jakin onuradunari dagozkion beste pentsio batzuen zenbatekoa eta izaera zein diren, hasierako zehaztapena behin-behinekoa izango da, dagozkion egiaztapenak egin bitartean.

Behin-behineko zehaztapenak behin betiko erregularizatzean, pentsioen titularrari, hala badagokio, bidegabeki jasotakoa itzul dezala eskatu beharko zaio. Itzultze hori pentsioen hurrengo hilabete-sarien kontura egin ahal izango da.

Bost. Artikulu honen bi eta hiru zenbakietan adierazitako hasierako zehaztapenaren zenbatekoa minoratu edo kendu ondoren, aldatu egiten badira, edozein inguruabar dela eta, titularrak jasotzen dituen gainerako pentsio publikoen zenbatekoa edo osaera, egindako mugaketak berraztertu egingo dira, ofizios edota interesdunak hala eskatuta. Berrikuspen horrek aldaketa egin den hilabetearen hurrengoaren lehenengo egunetik hasita izango ditu eraginak.

Betiere, pentsio publikoak aldi berean jasotzean egindako hasierako zehaztapenak berraztertu egin beharko dira aldi behin.

Sei. Arau mugatzaileak aplikatzearen ondorioz pentsio publikoen hasierako zehaztapenen zenbatekoa minoratzeak edo ezabatzeak ez ditu kaltetuko pentsioa aitortzearekin batera baietsitako beste eskubideak.

Zazpi. Artikulu honetan xedatutako gehienezko muga ez zaie aplikatuko 2021ean eragindako pentsio hauei:

a) Ekintza terroristen ondorioz sortutako Gizarte Segurantzako sistemako eta Estatuko Klase Pasiboen Araubideko ohiz kanpoko pentsioei.

b) Zerga, Administrazio eta Gizarte Alorreko Neurriek buruzko 62/2003 Legeak, abenduaren 30ekoak, berrogeita hirugarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren babesean aitortutako ohiz kanpoko pentsioei.

c) Atentatu terroristen ondorioz eragindako ohiz kanpoko pentsioei, ekainaren 23ko 6/2006 Errege Lege Dekretuaren babesean aitortutakoei.

Zortzi. Pentsio publikoen hasierako zehaztapena egitean titular batek aurreko apartatuan adierazitako pentsio bat edo batzuk jasotzen dituenean, edota ekintza terroristen ondorioz aitortutakoak, uztailaren 10eko 851/1992 Errege Dekretuak, ekintza terroristen ondorioz sortutako ohiz kanpoko pentsio batzuk arautzen dituenak, II. tituluaren xedatutakoaren arabera Gizarte Segurantzako edozein araubide publikotan pentsioa jasotzeko eskubiderik ez dutenen alde, artikulu honetan adierazitako arau mugatzaileak ekintza terroristen ondorio ez direnei soilik aplikatuko zaizkie.

IV. KAPITULUA

Pentsio publikoen balioak goratzea eta aldatzea

39. artikulua. *Pentsio publikoen balioak goratzea eta aldatzea.*

Bat. Gizarte Segurantzaren modalitate kontributiboan ordaindutako pentsioek, bai eta Estatuko Klase Pasiboen pentsioek ere, ehuneko 0,9ko igoera izango dute 2021ean, lege honen 35. artikuluan xedatutakoari jarraituz; hala ere, horrek ez ditu ezertan eragotziko kapitulu honen hurrengo artikuluetan jasotako salbuespenak, ez eta aurreko 37. artikuluan Gerra Zibileko legeria bereziaren babesean aitortutako pentsioei dagokienez ageri diren berme-zenbatekoei ere.

1984ko abenduaren 31n indarrean zegoen legeriaren babesean 2021ean sortutako Estatuko Klase Pasiboen erretiro- eta alargintza-pentsioen hasierako zenbatekoa, ekitaldi ekonomiko honetan era horretako pentsioetarako ezarritako oinarri arautzaileen arabera kalkulaturik, 2004, 2006, 2007 eta 2008rako ezarritako ehuneko 1eko eta 2ko portzentajea aplikatuz zuzenduko da, dagokionaren arabera; 2004, 2006, 2007 eta 2008rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren abenduaren 30eko 61/2003, abenduaren 29ko 30/2005, abenduaren 28ko 42/2006 eta abenduaren 26ko 51/2007 legeen bosgarren eta seigarren xedapen gehigarrien Lau zenbakian ezarrita dago portzentaje hori, bai eta hamargarren xedapen gehigarrian ere.

Bi. Estatuko Funtzionario Zibilen Gizarte Segurantzaren Legearen testu bateginaren –ekainaren 23ko 4/2000 Legegintzako Errege Dekretuak onartua– seigarren xedapen gehigarriaren Bat puntuan xedatutakoarekin bat, Estatuko Funtzionario Zibilen Mutualitate Orokorren Funts Berezian jasotako pentsioek, baldin eta 2015eko abenduaren 31ren ostean eragin badira, 2021eko urtarrilaren 1ean murrizketa izango dute 2020ko abenduaren

31n jasotako zenbatekoekiko; aipatutako murrizketa 1978ko abenduaren 31ko zenbatekoaren –edo Erakunde Sindikaleko Funtzionarioen Montepioaren kasuan, 1977ko abenduaren 31koaren– eta 1973ko abenduaren 31koaren arteko aldearen ehuneko 20koa izango da.

Hiru. Abenduaren 28ko 37/1988 Legearen 42. artikuluan adierazitako aurreikuspen-erregimen edo sistemen kontura ordaintzen diren pentsioek, artikuluko honetako aurreko apartatueta adierazita ez badaude, dagokien gehikuntza izango dute 2021ean, 2020ko abenduaren 31n jasotako zenbatekoekiko, araudiari jarraituz betiere, eta kapitulu honetako ondorengo artikuluetan jasotako salbuespenak aintzat hartuta.

40. artikulua. *Goratu ezin diren pentsioak.*

Bat. Aurrekontu hauek indarrean egon bitartean, honako pentsio publiko hauek ez dira goratuko:

a) Abenduaren 28ko 37/1988 Legearen 42. artikuluan adierazitako edozein aurreikuspen-araubide edo -sistemaren kontura ordaintzen diren pentsioak, baldin eta haien hileko zenbateko osoa, titularrak jasotzen dituen beste pentsio publiko batzuen hileko zenbateko osoari gehituta, hilean 2.707,49 eurotik gorakoa bada, zenbateko hori aurreko 38. artikuluan azaldutako moduan ulertuta.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa ez zaie aplikatuko ekintza terroristen ondorioz sortutako Estatuko Klase Pasiboen Araubideko eta Gizarte Segurantzako sistemako ohiz kanpoko pentsioei, ez eta atentatu terroristen ondorioz sortutako eta ekainaren 23ko 6/2006 Errege Lege Dekretuaren babesean aitortutako ezohizko pentsioei, ez eta Zerga, Administrazio eta Gizarte Alorreko Neurriei buruzko abenduaren 30eko 62/2003 Legeak berrogeita hirugarren xedapen gehigarrian adierazitakoari jarraiki aitortutako pentsioei ere.

b) Estatuko Bidezainen alde 1985eko urtarrilaren 1a baino lehen aitortutako Klase Pasiboen pentsioak, salbu eta titularrak bidezain gisako pentsio hau bakarrik jasotzen badu.

c) 2020ko abenduaren 31n jada 1973ko abenduaren 31n zegozkion zenbatekoetara iritsitako Estatuko Funtzionario Zibilen Mutualitate Orokorren Funtz Berezian sartuta dauden Mutualitateen pentsioak.

Bi. Estatuaren, autonomia-erkidegoen, toki-korporazioen edo organismo autonomoen partaidetza nagusia duten enpresa edo sozietateetako langileak babesten dituzten mutualitate, montepio edo gizarte-aurreikuspeneko entitateen kasuan, organo edo entitate publiko horien funtsen bidez finantzatzen badira, edota pentsio osagarriak zuzenean ordaintzen badizkiete babes-ekintzan hartutako langileei, edozein kontzeptugatik, aplikatu beharreko araubide orokorreari ordaintzekoez gain, 39. artikuluan adierazitako balio-goratzekak gehieneko mugatzat hartuko dira, eta zilegi izango da pentsio osagarri horiei koefiziente txikiagoak aplikatzea, bai eta unitatea baino txikiagoak ere, bakoitzaren araudiaren edo adostutako itunen arabera.

41. artikulua. *Pentsio publikoen balioa goratzearen muga.*

Bat. 2021 urtean, pentsio publikoen balioa handitzeak ez du urteko 37.904,86 eurotik gorako balio oso bat eragingo.

Bi. Titular batek bi pentsio publiko edo gehiago jasotzen baditu, dagozkien balio-goratzekak egin ondoren haien guztien urteko zenbateko osoen baturak ezin izango du gaintitu adierazitako gehieneko muga. Gaintitzen badu, balio-goratzearen zenbatekoa proportzionalki murriztuko da, adierazitako mugara egokitu arte.

Horretarako, pentsioen balioa goratzeko eskumena duen erakunde edo organismo bakoitzak bere kontura diren pentsioen urteko gehieneko muga zehaztuko du. Muga hori zifra bat izango da, eta zifra horrek 37.904,86 euroko urteko zenbateko osoarekiko duen proportzioak izan behar du, ezinbestean, pentsioen edo pentsioen zenbateko horrek titularrak jasotako pentsio publiko guztien baturarekiko duen proportzioaren berdina.

Aipatutako muga (L) honako formula hau aplikatuz kalkulatuko da:

$$L = P/T \times 37.904,86 \text{ euro urtean.}$$

«P» izanik 2020ko abenduaren 31n erakunde eskudunaren konturako pentsioak edo pentsioek lortutako urteko balio teoriko osoa, eta «T» izanik zifra horri titular berak egun horretan dituen gainerako pentsio guztien urteko balio osoa eranstearen emaitza.

Hala eta guztiz ere, interesdunak jasotzen duen pentsio publikoetako bat abenduaren 28ko 37/1988 Legearen 42.1.c) artikuluan zehaztutako Funtzionarioen Mutualitateetako baten Funts Bereziaren kontura izanez gero, edota lege honen 40.Bi artikuluan adierazitako entitatearen baten konturako pentsioa balitz, balioa handituko ez duena, aurreko lerrokadetan jasotako arauak erregelamendu bidez egokituko dira, jaso daitekeen gehienezko mugara iristeko.

Hiru. Aurreko 38. artikulua lantzeko zortzira bitarteko zenbakietan xedatutakoa, biak barne, aplikatzekoa izango da batera jasotzeko pentsioen balioa goratzen den kasuetan, hala badagokio.

V. KAPITULUA

Gutxienezko osagarriak

42. artikulua. *Klase Pasiboen pentsioetan gutxienezko osagarriak aitortzea.*

Bat. Estatuko Klase Pasiboen Legearen testu bateginaren 27.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, gutxienezko zenbatekora iristeko osagarri ekonomikoak jasotzeko eskubidea izango dute Estatuko Klase Pasiboetako pentsiodunek, baldin eta, 2021ean, lanaren, kapitalaren edo jarduera ekonomikoen etekinek eta ondare-irabaziek eragindako diru-sarrerarik jasotzen ez badute, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan errenta horietarako ezarritako kontzeptuaren arabera: edota, horiek jasota ere, urtean 7.707,00 euroko zenbatekoa gainditzen ez badute.

Pentsioen gutxienezko osagarriak aitortzearen eta berrikustearen ondorioetarako, pentsiodunak lanetik, jarduera ekonomikoetatik eta ondasun higiezinetatik jasotako etekin osoetatik, haiek legeria fiskalean ezarritako moduan zenbatuta, legeria fiskalaren arabera kengarriak diren gastuak kenduko dira.

Errentak eta diru-sarrerak egiaztatzeko, haien aitortzea eta, egoki izanez gero, eragindako zerga-aitortpenak aurkeztu ditzala eskatu ahal izango zaio pentsiodunari.

Hala eta guztiz ere, adierazitako kontzeptuengatik zenbaki honen lehenengo apartatua zehaztutako zenbatekoa baino gehiago jasotzen duten Estatuko Klase Pasiboen pentsiodunek gutxienezko osagarri bat jasotzeko eskubidea izango dute, diru-sarrera horien urteko zenbatekoaren eta balioa goratutako pentsioaren batura txikiagoa izanez gero 7.707,00 euroko zenbatekoari pentsio mota horri xedatutako urteko gutxienezko zenbatekoa erantsita ematen duena baino. Kasu horretan, gutxienezko osagarria bi batura horien arteko aldea izango da; betiere, diferentzia horren ondorioz interesdunak hilean guztira jasotzen dituen pentsioa eta osagarria ez badira hilean dagokion gutxienezko pentsioa baino handiagoak.

Aurreko paragrafoetan ezarritako baldintzak betetzen direla joko da interesdunak 2020an jasotako diru-sarrerak 7.638,00 eurokoak edo gutxiagokoak direnean. Administrazioak eskuratutako frogan ondorioz, presuntzio hori bertan behera utzi ahal izango da.

Gutxienezko osagarriak bermatzeko, gizarte-aurreikuspeneko oinarrizko edozein araubide publikoren kontura ez diren pentsio publikoak lanak eragindako diru-sarrerekin parekatuko dira.

Lege-aurreikuspenei jarraikiz, alarguntza-pentsioaren zati proportzional bat aitortuta dagoen kasuetan, gutxienezko pentsioen osagarria, hala badagokio, pentsioa aitortzeko aintzat hartu zen proportzio berean aplikatuko da.

Osagarriak aitortzearen ondorio ekonomikoak eskaera egindako urteko urtarrilaren 1era arte atzeraeragingo dira, edota pentsioa jasotzen hasitako egunera arte, urtarrilaren 1az gerokoa izanez gero.

Nolanahi ere, hori aitortzeko eskaera aurreko ekitaldiko gertaera eragilea duen pentsio bat kobratzeko eskubidea erabiltzeko unean egiten bada, ondorio ekonomikoak hura hasteko egunekoak izan ahalko dira, eta gehienez urtebeteko atzeraeragina egongo da eskaeratik.

Bi. Interesdunaren adierazpenetan oinarrituz 2021ean aitortutako osagarri ekonomikoak behin-behinekoak izango dira, harik eta adierazitakoaren egiazkoa edo eraginkorra dela frogatzen den arte.

Administrazioak, aldi behin, ofizioz edota interesdunak hala eskatuta, berrikusi egin ahal izango ditu osagarri ekonomikoak aitortzeko ebazpenak. Berrikuspen horien ondorioz, pentsioaren titularrari bidegabeki jasotakoa itzul dezala eskatu ahal izango dio, hala badagokio. Itzultze hori pentsioaren hurrengo hilabete-sarien kontura egin ahal izango da.

Hiru. 2013ko urtarriletik aurrera eragindako pentsioen kasuan, gutxienekoetarako osagarriak jasotzeko eskubidea izateko, beharrezkoa izango da Espainiako lurraldean bizitzea. Adierazitako datatik aurrera eragindako pentsioen kasuan, osagarri horren zenbatekoa ezin izango da handiago izan Estatuaren Aurrekontu Orokorren Legean modalitate ez-kontributiboko erretiro- eta baliaezintasun-pentsioetarako zehaztutako zenbatekoa baino.

Lau. 2021ean, honako hauek izango dira Klase Pasiboen urteko pentsioen gutxieneko zenbatekoak:

Pentsio mota	Zenbatekoa		
	Ezkontidea ardurapean – Euro urtean	Ezkontiderik gabe: pertsona bakarreko unitate ekonomikoa – Euro urtean	Ezkontidearen ardurarik ez – Euro urtean
Erretiro-pentsioa.	11.914,00	9.655,80	9.164,40
Alargun-pentsioa.		9.655,80	
Alargun-pentsioa ez den pentsio familiarra, N pentsioaren edo pentsioen onuradunen kopurua izanik.		9.412,20/N	

Beste senide batzuen aldeko pentsio edo pentsioen kasuan, zenbait onuradunek jasotzen badituzte, emaitzako zenbatekoa hilean gutxienez ere 210,80 eurokoa izango da, onuradun bakoitzari dagokionez. Hala ere, onuradunetako bat 18 urtetik beherako umezurtza bada, eta ehuneko 65eko desgaitasuna edo handiagoa badu, hilean 414,70 eurokoa izango da umezurtz horri aitortu beharreko gutxieneko zenbatekoa, betiere aipatutako diru-sarreren mugaren baldintza betetzen bada.

Alarguntza-pentsioetan, ekainaren 27ko 19/1974 Legearen eta abenduaren 29ko 74/1980 Legearen babespean seme-alabengatik aitortu ahal izan diren gehikuntzak ez dira zenbatuko aurreko taulan ezarritako gutxienekoa aplikatzeko ondorioetarako.

Hauxe hartuko da pentsioaren titularraren ardurapeko ezkontidetzat: pentsiodunarekin bizi dena eta ekonomikoki haren mendean dagoena. Elkarrekin bizi direla joko da baldin eta ezkontza-lotura mantentzen bada; hala ere, Administrazioak kontrakoa egiaztatzen badu, presuntzio hori suntsitu ahal izango da. Ondorio berberetarako, mendekotasun ekonomikoa dagoela ulertuko da ezkontidearen diru-sarrerek, edozein kontzepturengatik, indarrean dagoen lanbide arteko gutxieneko soldata gaitzen ez dutenean.

Bost. Artikulu honen aurreko apartatuetan araututako osagarri ekonomikoak ez zaizkie aplikatuko gerra zibilaren ondorioz sortutako legedi bereziaren babesean aitortutako pentsioei –horien zenbatekoak lege honen 37. artikuluan finkatu dira–; hala ere, salbuespen

gisa, ondoko pentsio hauei aplikatu egingo zaizkie: urriaren 22ko 37/1984 Legearen II. tituluaren babesean aitortutako umezurtz-pentsioei, eta irailaren 18ko 5/1979 Legearen eta ekainaren 26ko 35/1980 Legearen babesean ezinduta ez dauden 21 urtetik gorako umezurtzen alde funtzionarioak ez diren langileek eragindako pentsioei.

43. artikulua. *Gizarte Segurantzako pentsioetan gutxienekorako osagarriak aitortzea.*

Bat. Erregelamendu bidez xedatutakoaren arabera, Gizarte Segurantzako sistemako kotizaziopeko pentsiodunek pentsioen gutxienerako zenbatekora iristeko osagarri ekonomikoak jasotzeko eskubidea izango dute, baldin eta 2021ean ez badute lanak, kapitalak, jarduera ekonomikoak edo ondare-irabaziak eragindako diru-sarrerarik jasotzen, errenta horiei dagokienez pertsona fisikoen errentaren gaineko zergak ezarritako kontzeptuaren arabera, eta urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bateginaren 59. artikuluari jarraituz zenbatuta, edota, haiek jasota ere, urtean 7.707,00 euroko zenbatekoa gaintzen ez badute. Gutxienekorako osagarri horiek ez dira finkagarriak, eta interesdunak jasotzen dituen zenbatekoen edozein gehikuntzaren bidez (balioak goratzeagatik edo aldi behingo prestazio berriak baiesteagatik) xurga daitezke.

Errentak eta diru-sarrerak egiaztatzeko, haien aitortzea eta, egoki izanez gero, egindako zerga-aitorpenak aurkeztu ditzala eskatu ahal izango dio entitate kudeatzaileak pentsiodunari.

Hala eta guztiz ere, adierazitako kontzeptuengatik apartatu honen lehenengo paragrafoan zehaztutako zenbatekoa baino gehiago jasotzen duten Gizarte Segurantzako kotizaziopeko modalitateko pentsiodunek gutxienerako osagarri bat jasotzeko eskubidea izango dute, diru-sarrera horien urteko zenbatekoaren eta balioa handitutako pentsioaren batura txikiagoa izanez gero 7.707,00 euroko zenbatekoari pentsio mota horri xedatutako urteko gutxienerako zenbatekoa erantsita ematen duena baino. Kasu horretan, gutxienerako osagarria bi batura horien arteko aldea izango da; betiere, diferentzia horren ondorioz interesdunak hilean guztira jasotzen dituen pentsioa eta osagarria ez badira hilean dagokion gutxienerako pentsioa baino handiagoak. Gutxienekorako osagarriak bermatzeko, gizarte-aurreikuspeneko oinarritzko edozein araubide publikoren kontura ez diren pentsio publikoak lanak eragindako diru-sarrerekin parekatuko dira.

Gutxienerako ondorioetarako, gizarte-aurreikuspeneko edozein araubide publikoren kargura dauden atzerriko pentsio publikoak Espainiako pentsioekin batera ematen direla joko da.

Espainiak eta Erresuma Batuak 2006ko irailaren 18an egindako hitzarmenaren babesean Espainiar pentsiodunei konpentsazio gisa emandako oroharreko zenbatekoak eta aldi behingo ordainketak ez dira kontuan hartuko pentsioen gutxienerako zenbatekora iristeko osagarriak aitortzeko ondorioetarako.

Bi. Aurreko zenbakian adierazitako baldintzak betetzen direla joko da, baldin eta interesdunak adierazten badu Bat zenbakian jasotako moduan zenbatutako etekinak eskuratuko dituela 2021ean, eta horiek, gehienez, 7.707,00 eurokoak direla.

Gizarte Segurantzako kotizaziopeko pentsiodunek aurreko paragrafoan adierazitako mugatik gorako errenta metatu handiagoak jasotzen badituzte 2021eko ekitaldian, horren berri eman beharko diete entitate kudeatzaileei, gertatzen denetik hilabeteko epean.

Gizarte Segurantzako entitate kudeatzaileek, errentak eta diru-sarrerak egiaztatzeko, haien aitortzea eskatu ahal izango diete gutxienerako osagarrien jasotzaileei, edonoz, bai eta haien ondare-ondasunen gaineko aitortzen bat ere, eta, hala badagokio, egindako zerga-aitorpenak aurkezteko.

Hiru. Artikulu honetan xedatutakoaren ondorioetarako, hauxe izango da pentsioaren titularraren ardurapeko ezkontidea: pentsiodunarekin bizi dena eta ekonomikoki haren mende dagoena.

Honako baldintza hauek betetzen direnean egongo da mendekotasun ekonomikoa:

a) Pentsiodunaren ezkontidea ez izatea gizarte-aurreikuspeneko oinarritzko araubide publiko baten konturako pentsio baten titularra. Kontzeptu horren barruan, honako hauek

egongo dira: beste Estatu batek aitortutako pentsioak, gutxieneko diru-sarrerak bermatzeko sorospenak, hirugarren pertsona baten laguntzagatiko sorospenak –azken biak azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako desgaitasunak dauzkaten pertsonen eskubideei eta haiek gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren testu bateginean xedatuta daude– eta uztailaren 21eko 45/1960 Legean araututako laguntza-pentsioak – lege horren bidez, zergaren eta aurrezkiaren gizarte-aplikaziorako funts nazional zehatz batzuk sortzen dira–.

b) Pentsiodunak edo ezkontideak jasotako edozein errendimendu mota, artikuluhonon Bat apartatuan adierazitako moduan zenbatuta, urtean 8.990,00 eurotik beherakoak izatea.

Aurreko paragrafoan adierazitako urteko errendimenduen eta osatuko den pentsioaren urteko zenbatekoaren arteko batura txikiagoa izanez gero 8.990,00 euroko zenbatekoaren eta ezkontidea ardurapean izanda dagokion gutxieneko pentsioaren urteko zenbatekoaren arteko batura baino, diferentzia horren kopuru bereko osagarria aitortuko zaio, dagozkion hilabete-saritan banatuta.

Lau. 2013ko urtarrilaren 1etik aurrera eragindako pentsioei dagokienez, pentsioen gutxienekora iristeko osagarrirako eskubidea edukitzeko beharrezkoa izango da Espainiako lurraldean bizitzea. Adierazitako datatik aurrera eragindako pentsioetan, aipatutako osagarrien zenbatekoa ezin izango da izan Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bateginak, urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsiak, 59. artikuluko 2. zenbakian zehaztutakoa baino handiagoa.

Bost. Gizarte Segurantzako sistemako kotizaziopeko modalitateko pentsioen urteko gutxieneko zenbatekoak honako hauek izango dira 2021ean, pentsio mota eta titularrak bete beharreko baldintzak kontuan hartuta:

Pentsio mota	Titularrak		
	Ezkontidea ardurapean – Euro urtean	Ezkontiderik gabe: Pertsona bakarreko unitate ekonomikoa – Euro urtean	Ezkontidearen ardurarik ez – Euro urtean
Erretiroa			
Hirurogeita bost urteko titularra	11.914,00	9.655,80	9.164,40
Hirurogeita bost urtetik beherako titularra	11.170,60	9.034,20	8.538,60
Titularrak hirurogeita bost urte eginda; baliaezintasun handia.	17.871,00	14.484,40	13.746,60
Ezintasun iraunkorra			
Baliaezintasun handia	17.871,00	14.484,40	13.746,60
Absolutua	11.914,00	9.655,80	9.164,40
Guztira: 65 urteko edo gehiagoko titularra	11.914,00	9.655,80	9.164,40
Guztira: Hirurogei urtetik hirurogeita lau urtera bitarteko titularra	11.170,60	9.034,20	8.538,60
Guztira: Gaixotasun arrunta duen hirurogei urtetik beherako titularra	7.119,00	7.119,00	7.056,00
Partziala, lan-istripuen araubidekoa: 65 urteko edo gehiagoko titularra	11.914,00	9.655,80	9.164,40

Pentsio mota	Titularrak		
	Ezkontidea ardurapean – Euro urtean	Ezkontiderik gabe: Pertsona bakarreko unitate ekonomikoa – Euro urtean	Ezkontidearen ardurarik ez – Euro urtean
Alarguntza			
Familia-zamak dituen titularra	–	11.170,60	–
65 urteko edo gehiagoko titularra edo 100eko 65eko edo gehiagoko desgaitasuna duena	–	9.655,80	
Hirurogei urtetik hirurogeita lau urtera bitarteko titularra	–	9.034,20	–
Hirurogei urtetik beherako titularra	–	7.315,00	–

Pentsio mota	Euro urtean
Zurztasuna	
Onuradun bakoitzeko	2.951,20
100eko 65eko edo gehiagoko desgaitasuna duen 18 urtetik beherako onuradun bakoitzeko	5.805,80
Zurztasun absolutuan, gutxienekoa urtean 7.315,00 eurokoa izango da, eta onuradunen artean banatuko da, hala badagokio.	
Zurztasun-prestazioa	
Onuradun bat	(1).
Zenbait onuradun: onuradunen artean banatzeko 100.	(1)
Senideen alde	
Onuradun bakoitzeko	2.951,20
Alargun edo umezurtz pentsiodunik ez badago:	
Hirurogeita bost urteko onuradun bakarra	7.131,60
Hirurogeita bost urtetik beherako onuradun bakarra	6.721,40
Hainbat onuradun: Bakoitzari esleitutako gutxienekoa urtean 4.363,80 euroko zenbatekoa onuradunen kopuruaren artean hainbanatuta ateratzen den zenbatekoan handituko da.	

(1) Gutxieneko kotizazio-oinarriaren araberako zenbatekoa.

VI. KAPITULUA

Pentsio publikoen alorreko beste xedapen batzuk

44. artikulua. *Gizarte Segurantzaren pentsio ez-kontributiboak eta beste prestazio batzuk goratzea.*

Bat. 2021. urtean, Gizarte Segurantzaren sistemako erretiro- eta baliaezintasun-pentsioen zenbateko osoa, kotizazio gabeko modalitatean, ehuneko 1,8 goratuko da, 2020ko zenbatekoarekin erkatuta; hortaz, urteko zenbatekoa 5.639,20 eurokoa izango da.

Bi. 2021. urterako, pentsio ez-kontributiboan osagarri bat ezartzen da, urtean 525,00 eurokoa, pentsiodunak egiaztatuz gero etxebizitzaren jabe ez dela, eta etxebizitza bat alokatu duela bere ohiko bizileku izan dadin. Etxebizitza horren jabea ezin da izan pentsiodunaren ahaide (hirugarren maila arte), ez eta ezkontide ere, ez eta pentsiodunarekin harreman egonkorra eta ezkontideen arteko erlazio afektiboaren antzeko bizikidetzaren partekatzen duen pertsona ere. Kotizazio gabeko pentsioak jasotzen dituzten hainbat pentsioduneko familia-unitateen kasuan, alokatze-kontratuaren titularrak soilik jaso ahal izango du osagarria; titularrak bat baino gehiago izanez gero, berriz, haietatik lehenengoak soilik.

Osagarri hori aitortzeko arauak abuztuaren 3ko 1191/2012 Errege Dekretuan ezarritakoak izango dira; errege-dekretu horrek Gizarte Segurantzako kotizaziopekoak ez diren pentsiodunentzat etxebizitza alokatzeko pentsio-osagarriak aitortzen ditu, eta bertan 2012. urteari egiten zaizkion erreferentziak 2021. urteari egiten zaizkiola ulertu beharko da.

Hiru. Emakumeen aurkako indarkeriak sortutako umezurtz-prestazioek –urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bateginaren 224.1 artikulua hiru hirugarren lerrokadan aurreikusita daude–, urte horretarako lanbide arteko gutxieneko soldatarako onartzen den iguera bera izango dute 2021ean.

45. artikulua. *Deuseztatuta dagoen Zahartzaroko eta Baliaezintasuneko Nahitaezko Aseguruko pentsioak.*

Bat. 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera, deuseztatuta dagoen Zahartzaroko eta Baliaezintasuneko Nahitaezko Aseguruko pentsioen zenbatekoa urtean 6.183,80 eurokoa izango da; betiere, titularrak beste pentsio publiko batzuk jasotzen ez baditu.

Xede horietarako, honako hauek ez dira aldi bereko pentsiotzat hartuko: martxoaren 18ko 3/2005 Legearen babesean adingabeak zirela gerra zibilaren ondorioz atzerriratutako herritar espainiarrei aitortutako prestazio ekonomikoa, Espainiako gerra zibilaren ondoriozko mutilatu baliagarriek edo lehen graduko desgaituek jasotako pentsioa –araudi arautzailea edozein dela ere–, azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haiek gizarteratzeari buruzko Lege Orokorren testu bateginean aurreikusitako hirugarren pertsonaren laguntzagatiko sorospenak, eta terrorismo-ekintzen ondoriozko aparteko pentsioak.

Bi. Deuseztatuta dagoen Zahartzaroko eta Baliaezintasuneko Nahitaezko Aseguruko pentsioen zenbatekoa urtean 6.001,80 eurokoa izango da, Gizarte Segurantzaren sistemaren araubideren bateko alarguntza-pentsioekin batera edo horietako pentsio batekin batera jasotzen denean, bai eta, gainera, alarguntzako beste pentsio publiko batekin batera jasotzen denean, horien guztien zenbatekoen baturari Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bateginaren (urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsia) bigarren xedapen iragankorrean ezarritako muga aplikatzea eragotzi gabe, eta, betiere, interesdunek ez badute zenbateko handiagorik aitortuta 2005eko irailaren 1a baino lehenago; azken kasu horretan, balio-goratzeari buruzko arau orokorrak aplikatuko dira, baldin eta, arau horien ondorioz, batera jaso beharreko pentsioen zenbatekoen batura oraindik muga horretatik gorakoa bada.

Hiru. Deuseztatuta dagoen Zahartzaroko eta Baliaezintasuneko Nahitaezko Aseguruari dagozkion pentsioen balioa goratu egingo da 2021ean, aurreko zenbakian adierazi gabeko beste pentsio publiko batzuekin batera jasotzen direnean.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa gorabehera, batera jasotzen diren pentsioen urteko zenbatekoen (balioa goratu ostean) eta aipatutako Zahartzaroko eta Baliaezintasuneko Nahitaezko Aseguruari dagozkion zenbatekoen batura txikiagoa izanez gero aseguru horri dagokion pentsioarentzat artikuluko honen Bat zenbakian ezarritako zenbatekoa baino, Zahartzaroko eta Baliaezintasuneko Nahitaezko Aseguruari dagokion pentsioaren balioa goratuko da, bi kopuruen arteko aldearen berdina izango den zenbatekoan. Diferentzia hori ez da kontsolidagarria, hau da, interesdunak jasotzen dituen zenbatekoei aplikatzen zaien edozein igoyerak (balioak handituta gertatzen denak zein aldian behingo prestazio berriak onartuta gertatzen denak) irentsi ahal izango du.

Lau. Jada iraungita dagoen Zahartzaroko eta Baliaezintasuneko Nahitaezko Aseguruko pentsio bat aitortzeko, Gizarte Segurantzako nazioarteko arau bidez aurreikusitakoaren arabera Espainiari lotutako beste herrialde batzuetan betetako aseguru-aldiak edo egoitza-aldiak hartu badira kontuan, hainbanatutako pentsiotik Espainiari dagokion zenbatekoa ezin izango da txikiagoa izan une bakoitzean dagokion Zahartzaroko eta Baliaezintasuneko Nahitaezko Aseguruko pentsioaren zenbatekoaren 100eko 50 baino.

Berme hori bera deuseztatuta dagoen Zahartzaroko eta Baliaezintasuneko Nahitaezko Aseguruaz bestelako pentsioen titularrei ere aplikatuko zaie, baldin eta pentsio horietako bat jasotzeko eskaera egin badute, eta pentsioa eragin zuen gertaeraren egunean aseguru horrek eskatutako baldintza guztiak betetzen bazituzten.

V. TITULUA

Finantza-eragiketak

I. KAPITULUA

Zor publikoa

46. artikulua. *Zor publikoa.*

Bat. Ekonomia Gaietarako eta Transformazio Digitalerako Ministerioko titularrari baimentzen zaio estatuaren zorraren saldo biziaren urteko gehikuntza egitea, zehazki, 132.047.108,55 mila eurokoa. Aurrekontu-ekitaldiaren hasierako eta amaierako saldoaren arteko konparazioa termino efektiboetan eginez zenbatuko da.

Bi. Muga hori ekitaldiaren amaieran izango da eraginkor; hortaz, ekitaldiak irauten duen bitartean, muga hori gainditu ahal izango da. Honako hauen bitartez, automatikoki berrikusita geratuko da:

- a) I. kapitulutik VIII.era arteko aurrekontu-kredituen aldaketa garbien zenbatekoa.
- b) Lege honetan jasotako diru-sarreraren aurreikuspenen eta diru-sarrera horien benetako bilakaeraren arteko aldea.
- c) I. kapitulutik VIII.era arteko guztirako aurrekontu-kredituen eta ekitaldian aipatutako kapituluetan baietsitako betebeharren zenbateko osoaren arteko aldea.
- d) Legez aurreikusitako aurrekontukoak ez diren eragiketek sortutako aldaketa garbiak eta diruzaintzako aurrerakinak.
- e) Estatuaren eskubide eta betebeharren bariazio garbia, aitortuta daudenean eta ekitaldian ordaintzeke daudenean, baita aurreko ekitaldietan bildutako eskubideak eta ordaindutako betebeharrak ere.
- f) IX. kapituluan bildutako kontzeptuei egotzitako zenbateko garbia, kontzeptu horiek ez direnean Zor Publikoaren jaulkipen eta amortizazioko parte.

Berrikuspen horien ondorioz, aurreko zenbakian adierazitako muga handitu edota txikitu egingo da, Estatuaren finantzaketa-premia areagotzen edota murrizten duten, hurrenez hurren.

47. artikulua. *Estatuko instituzio-sektore publikoko erakundeei eta entitateei baimentzen zaizkien kreditu-eragiketak.*

Bat. Lege honen III. eranskinean adierazitako organismo publikoei baimena ematen zaie 2021ean kreditu-eragiketak ituntzeko, aipatutako eranskinean organismo haietako bakoitzerako adierazitako zenbatekoetan.

Halaber, III. eranskin horretan adierazten diren Estatuko instituzio-sektore publikoko gainerako erakunde eta entitateei baimena ematen zaie 2021. urtean kreditu-eragiketak ituntzeko, aipatutako eranskinean erakunde edo entitate haietako bakoitzerako adierazitako zenbatekoetan. Kasu horretan, baimena urtearen barruan hitzartzen eta kitatzen ez diren kreditu-eragiketarako izango da, Aurrekontuei buruzko Lege Orokorraren 111.2 artikuluan xedatutakoari jarraikiz.

Bi. Estatuko Administrazio Orokorreko ikerketa-erakundeek, transferituta ez dauden unibertsitate publikoek eta Espainiako zientzia-, teknologia- eta berrikuntza-sistemaren agente betearazle diren eta Estatuari atxikita dauden partzuergo, fundazio eta zuzenbide publikoko beste entitate batzuek kreditu-eragiketak egin ahal izango dituzte, itzuli beharreko aurrerakinak ematen zaizkiela-eta, Estatuko Administrazio Orokorren aurrekontuko 8. kapituluaren kargura.

Baimen hori soil-soilik aplikatu ahal izango zaie Eskualde Garapeneko Europako Funtzaren edo Europako Gizarte Funtzaren kontura finantzatzen diren gastuak, justifikatu ostean, ordaintzeko funts erabilgarriak egon daitezzen ematen diren aurrerakinei.

Hiru. Aipatutako III. eranskinean ageri diren Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioaren mendeko organismoek, dagozkien eragiketak itundu aurretik eta zorpetzearen xedea egiaztatzeko, baimena eskatu beharko diote Aurrekontuen eta Gastuen Estatu Idazkaritzari; horretaz gain, eragiketa justifikatzen duen ekonomia- eta finantza-plan bat ere aurkeztu beharko dute, bai eta zorpetzea organismoak Europako funtsekin batera finantzatutako eragiketen ordainketen eta ordainketa horiei dagozkien Erkidegoaren itzulkinen arteko desoreken ondorioz gertatzen diren diruzaintza-defizitak estaltzeko eskatzen denean ere.

48. artikulua. *Estatuaren zorraren bilakaerari buruzko informazioa Ekonomia Gaietako eta Transformazio Digitaleko Ministerioari, Diputatuen Kongresuari eta Senatuari ematea; eta Altxorrek Espainiako Bankuan edo beste finantza-erakunde batzuetan zabalduko kontuei buruzko informazioa Diputatuen Kongresuari eta Senatuari ematea.*

Estatuko edo honek bere gain hartutako zorra, hartutakoa finantza-karga bakarrik bada ere, kudeatzeaz arduratzen diren organismo publikoek honako informazio hau helaraziko diote Ekonomia Gaietako eta Transformazio Digitaleko Ministerioaren Altxor eta Nazioarteko Finantzaren Idazkaritza Nagusiarri: hiru hilean behin, egindako ordainketei buruzkoa eta hiru hilekoko azken egunean zorrak duen egoerari buruzkoa, eta urtearen hasieran, ekitaldirako finantza-gastuen eta amortizazioen aurreikuspenari buruzkoa.

Gobernuak, hiru hilean behin, Estatuak eta organismo autonomoek itundutako finantza-eragiketen saldo zehatza jakinaraziko die Gorte Nagusiei, bere Aurrekontu Bulegoaren bidez, bai eta Altxorrek Espainiako Bankuan edo beste finantza-erakunde batzuetan irekitako kontu kopurua zein saldoen zenbatekoak eta bilakaera ere. Bulegoak diputatuen, senatarien eta parlamentu-batzordeen esku jarriko du dokumentazio hori.

49. artikulua. *Banku Berregituraketa Ordenaturako Funtsekoak ez diren baliabideak.*

Kreditu-erakundeak eta inbertsio-zerbitzuen enpresak berreskuratzeari eta suntsiarazteari buruzko Legearen (zehatz-mehatz, ekainaren 18ko 11/2015 Legearen) 53.5 artikuluan xedatutakoaren arabera, 2021eko aurrekontu-ekitaldian, Banku Berregituraketa Ordenaturako Funtsekoak ez diren baliabideak ez dira 12.451.737 mila eurotik gorakoak izango.

II. KAPITULUA

Abal publikoak eta beste berme batzuk

50. artikulua. *Estatuaren abalen zenbatekoa.*

Bat. Ministroen Kontseiluak eman beharreko abalen gehieneko zenbatekoa, Aurrekontuei buruzko azaroaren 26ko 47/2003 Lege Orokorraren 114.2 eta 115. artikuluetan ezarritakoaren arabera, ezingo da izan 500.000 mila eurotik gorakoa 2021. urteko ekitaldian.

Bi. Altxorraren eta Nazioarteko Finantzaren Idazkaritza Nagusiari baimena ematen zaio Estatuak bermatutako obligazioei dagozkien ordainketak altxortegi-eragiketen bidez egiteko, xede horretarako ezarritako kontzeptuaren kontura, honako abal hauek gauzatzean: 2012rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren ekainaren 29ko 2/2012 Legearen 52. artikuluko Bi.e) zenbakiko abalak, 2013rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren abenduaren 27ko 17/2012 Legearen 54. artikuluko Bi.b) zenbakiko abalak.

Hala egin ondoren, Altxorraren eta Nazioarteko Finantzaren Idazkaritza Nagusiak ekitaldian egindako ordainketak behin betiko sartuko ditu gastuen aurrekontuan, urtero abenduan egindako ordainketak izan ezik, eta abenduko ordainketa horiek hurrengo urteko aurrekontuan sartuko ditu.

51. artikulua. *Enpresa-erakunde publikoen eta Estatuko merkataritza-sozietateen abalak.*

Estatuko Industria Partaidetzarako Sozietateari baimena ematen zaio 2021eko ekitaldian abalak eman ditzan, gehienez ere 1.210.000 mila euroko mugara arte, itundutako kreditu-eragiketei dagokienez, eta aipaturiko ekitaldian kapitalean zuzeneko edo zeharkako partaidetza duten merkataritza-sozietateek esleitze-lehiaketetatik eratorritako obligazioei dagokienez.

52. artikulua. *Emandako abal publikoei buruzko informazioa.*

Gobernuak, hiru hilean behin, emandako abal publikoen saldoa eta ezaugarri nagusiak jakinaraziko dizkie Gorte Nagusiei, bere Aurrekontu Bulegoaren bitartez. Bulegoak diputatuen, senatarien eta parlamentu-batzordeen esku jarriko du dokumentazio hori.

III. KAPITULUA

Estatuaren eta Kreditu Ofizialeko Institutuaren arteko harremanak

53. artikulua. *Garapena Sustatzeko Funtsa (FONPRODE).*

Bat. Aurrekontu hauen indarraldian Garapena Sustatzeko Funtsarako urteko zuzkidura 199.230 mila eurokoa izango da, 12.03.143A.874 «Garapena Sustatzeko Funtsa (FONPRODE)» aurrekontu-aplikazioaren kontura, eta Garapena Sustatzeko Funtsari buruzko urriaren 22ko 36/2010 Legeak 2. artikuluan xedatutako helburuetara bideratuko da.

Bi. Ministro Kontseiluak FONPRODE funtsaren konturako eragiketa itzulgarriak egiteko baimena eman ahal izango du, 375.000,00 mila euroko zenbatekora arte. Garapena Sustatzeko Funtsari buruzko urriaren 22ko 36/2010 Legearen 13.3 artikuluan ezarritakoaren arabera, 375.000 mila euroko muga horren barruan, 7.000 mila eurora arteko laguntza teknikoa baimendu ahal izango da FONPRODEren kontura, itzuli beharrik gabeko laguntza izateagatik defizit publikoa doitzea baldin badakar.

Hiru. Era berean, Ministro Kontseiluak baimendu ahalko du FONPRODEren kargura finantzatzea funtsa bera kudeatzeko beharrezko diren gastuak, bai eta bere kargura finantzatutako mailegu- edo inbertsio-eragiketei lotutako bestelako gastuak ere.

Lau. Baimena eman ahal izango da, halaber, aurrez Funtsaren kontura emandako kredituak birfinantzatzea xede duten eragiketak egiteko, herrialde mailegu-hartzaileen

kanpo-zorra birnegoziatzearen Espainia parte-hartzaile dela adostutako alde biko edo alde anitzeko akordioak betetzeko egiten badira.

Bost. FONPRODE funtsaren aktiboetatik datozen itzulkin guztiak funts horretarako aurreikusitako zuzkiduraren baliabide gehigarri izango dira, itzulkin horiek Kanpo Arazoetako, Europar Batasuneko eta Lankidetzako Ministerioaren ekimenez onetsitako eragiketen ondorio badira. Funtsaren baliabide izango dira, halaber, FONPRODE funtsaren kontu korranteetan gordailutatutako zenbatekoak.

Sei. Kreditu Ofizialeko Institutuari esleitu zaion funtzioa betetzean sortutako gastuak estaltzeko urtero eman beharreko konpentsazioa, Garapena Sustatzeko Funtsari buruzko urriaren 22ko 36/2010 Legearen 14. artikuluan xedatutakoa, FONPRODE funtsaren baliabideen kontura gauzatuko da, Ministro Kontseiluaren akordioaren bidez baimena jaso ostean.

54. artikulua. *Uraren eta Saneamenduaren Lankidetzaren Funtsa (FCAS).*

2008rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren abenduaren 26ko 51/2007 Legearen hirurogeita batgarren xedapen gehigarrian aipatutako Uraren eta Saneamenduaren Lankidetzaren Funtsaren zuzkidura 15.000,00 mila eurokoa izango da 2021ean, eta xedapen gehigarri horren hiru zenbakian aurreikusitako xedeetara bideratuko da.

FCASen programen ordainketetatik datozen itzulketak izango dira FCASerako aurreikusitako zuzkidurarako baliabide gehigarriak. Itzulketa horiek Kanpo Arazoetako, Europar Batasuneko eta Lankidetzako Ministerioaren ekimenez onetsitakoak izango dira. FCAS funtsaren baliabide izango dira, halaber, kontu korranteetan gordailutatutako zenbatekoak.

Ministro Kontseiluak Funtsaren konturako eragiketak egiteko baimena eman ahal izango du 2021ean, 65.000 mila euroko zenbatekora arte, kontuan hartuta aurreko paragrafoan jasotako baliabide gehigarriak.

FCASen kargura soilik eragiketa itzulgarriak baimendu ahalko dira, honako salbuespen hauek kontuan hartuta:

– Funtsaren kudeaketatik eratorritako gastuei aurre egiteko beharrezko diren eragiketak; hau da, ebaluazio-gastuak, jarraipen-gastuak, ikuskapen-gastuak, laguntza teknikorako gastuak eta funtsak formalizatutako eragiketei lotutako bestelako gastuak.

– Eragiketa ez-itzulgarriak, guztiz edo partzialki aurrera eramaterik izan ez diren programen itzulketetatik heldu diren baliabide bereziekin finantzatzen direnak, bai eta jada amaituta dauden programen gaindikinetatik datozenak ere, eragiketa horiek itzulketa egiten den ekitaldi berean egiten badira. 2021ean, salbuespen moduan, 2020an gauzatutako itzuleretatik eratorritako funtsak erabili ahalko dira.

Gobernuak, urtearen lehen seihilekoan, aurreko urtean Ministro Kontseiluak funts horren kontura baimendutako eragiketak jakinaraziko dizkie Gorte Nagusiei, Aurrekontu Bulegoaren bitartez. Bulegoak diputatuen, senatarien eta parlamentu-batzordeen esku jarriko du dokumentazio hori.

55. artikulua. *Enpresa Nazioartekotzeko Funtsa (FIEM).*

Bat. Lege honen indarraldian, Enpresa Nazioartekotzeko Funtsaren zuzkidura 120.087,60 mila eurokoa izango da, 20.06.431A.871 aurrekontu-aplikazioaren kontura («Enpresa Nazioartekotzeko Funtsa [FIEM]»), eta Espainiako enpresa nazioartekotzeko finantza-laguntza sistema eraberritzeari buruzko ekainaren 28ko 11/2010 Legearen 4. artikuluan xedatutako helburuetara bideratuko da.

Bi. FIEMen konturako eragiketak baimen daitezke, 500.000 mila euroko urteko zenbatekoa arte.

Muga horretatik kanpo geratzen dira, espresuki, funtsaren kontura lehendik emandako kredituak birfinantzatzea xede duten eragiketak, herrialde mailegu-hartzaileen kanpo-zorra birnegoziatzearen Espainia parte-hartzaile dela adostutako alde biko edo alde anitzeko akordioak betetzeko egiten badira.

Ministro Kontseiluak nazioartekotzeari begira garrantzi berezia duten banakako proiektuak baimendu ahal izango ditu, haien zenbatekoari erreparatuta, eta, egoki izanez gero, proiektuaren zati bat zenbaki honen lehen apartatuan aurreikusitako mugaren barruan egoztea erabaki ahal izango du, eta proiektuaren ondorengo zenbatekoak hurrengo ekitaldietan egoztea, urteko aurrekontuei buruzko legeetan xedatutako mugak aintzat hartuta.

Itzulgarriak ez diren eragiketak ezin izango dira baimendu FIEMen kontura. Muga horretatik kanpo geldituko dira funtsaren kudeaketak eragindako gastuei aurre egiteko beharrezko eragiketak; edozelan ere, jarduera doitu du finantzaketa-beharrik ez izateko, Nazio Kontuen Sistema Europarraren arabera neurtuta.

Hiru. FIEMerako aurreikusitako horniduraz gain, baliabide gehigarriak izango dira indarreko ekitaldi ekonomikoan gauzatuko diren itzulkinak, FIEMen eragiketen edota Garapenerako Laguntza Funtsaren kontura Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioak onetsitako eragiketen ondorio direnak.

Lau. Kreditu Ofizialeko Institutuari esleitu zaion funtzioa betetzean sortutako gastuak estal ditzan urtero eman beharreko konpentsazioa, ekainaren 28ko 11/2010 Legeak, Espainiako enpresak nazioartekotzeko finantza-laguntzen sistema erreformatzen duenak, 11.3. artikuluan xedatutakoa, FIEM funtsaren baliabideen kontura gauzatuko da, Ministroen Kontseiluaren baimena jaso ostean.

Bost. Gobernuak, urtero, FIEM funtsaren kontura baimendutako eragiketa, proiektu eta jardueren berri emango die Gorte Nagusiei, bere Aurrekontu Bulegoaren bidez, eta Ekonomia eta Gizarte Kontseiluari. Halaber, finantzaketaren helburuen nahiz onuradunen, finantza-baldintzen eta ebaluazioen berri emango die, eta epe horretan abian dauden eragiketen garapenari buruzko xehetasunak emango dizkie. Gorte Nagusietako Aurrekontu Bulegoak diputatuen, senatarien eta parlamentu-batzordeen esku jarriko du dokumentazio hori.

56. artikulua. *Estatuak Kreditu Ofizialeko Institutuari egin beharreko diru-itzulketak.*

Bat. Interesen elkarrekiko doikuntzarako hitzarmena (CARI)

Estatuak honako zenbateko hauek itzuliko dizkio 2021ean Kreditu Ofizialeko Institutuari: institutuak finantza-erakundeei emandako zenbatekoak –Ekintzaileei eta beren nazioartekotzeari laguntzeko irailaren 27ko 14/2013 Legean aurreikusitako interesak doitzeko eragiketak ordaintzeko– eta eragiketa horien kudeaketak Kreditu Ofizialeko Institutuari eragindako kostuak.

Helburu horretarako, CARI (Interesen Elkarrekiko Doikuntzarako Hitzarmena) sistemarako zuzkidura 20.06.431A.444 aurrekontu-aplikazioan adierazitakoa izango da 2021ean.

2021eko abenduaren 31n sisteman Kreditu Ofizialeko Institutuaren aldeko saldo positiboak egonez gero, institutuak izan dituen kudeaketa-gastuak kendu ondoren, saldo horiek Altxorrearantz sartuko dira.

Salbuespen gisa, KOIri konpentsatzeko baimena ematen da, likidatzeko dauden aurreko ekitaldietako saldo negatiboengatik, tresnak 2021erako Estatuaren Aurrekontu Orokorren Legea indarrean jartzen denetik aurrera ematen dituen emaitza positiboaren kargura.

2021eko ekitaldian baietsitako interesak doitzeko eragiketen barruan, maiatzaren 7ko 677/1993 Errege Dekretuaren bidez onetsitako Erregelamenduaren 4.2 artikuluan adierazitako esportazio-kredituen zenbatekoari dagokionez, 480.000 mila euro onetsi ahal izango dira 2021ean.

Kreditu Ofizialeko Institutuak, interesen elkarrekiko doikuntzarako eragiketen finantza-kudeaketa optimizatzearen, interes-tasen bilakaerak Altxorri sor diezaiokkeen arriskua estaltzea helburu duten finantza-trukerako eragiketak itundu ahal izango ditu, bere kabuz edo bitartekaritzako finantza-agenteen bidez, aurreko paragrafoan adierazitako diru-sarrerara eta zuzkiduren kontura, eta institutuaren beraren Estatutuetan eta jarduteko arauetan xedatutakoari jarraituz; aldez aurretik, nolana ere, Altxorren eta Nazioarteko

Finantzaketaren Idazkaritza Nagusiak aldeko txostena egin beharko du, eta Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioko Nazioarteko Merkataritzaren eta Inbertsioen Zuzendaritza Nagusiak baimena eman.

Bi. Estatuak Kreditu Ofizialeko Institutuari beste jarduera batzuen ondorioz egindako diru-itzulketak.

Estatuak diruz lagundutako interesen kasuan, Kreditu Ofizialeko Institutuaren bidez gauzatutako finantza-eragiketetan, Ministroen Kontseiluaren edo Ekonomia Gaietarako Gobernuaren Ordezko Batzordearen akordioek Estatuaren Aurrekontu Orokorretan kredituak erreserbatzeari edo haien ondoriozko gastua finantzatzeko moduari buruzko informazioa ere jasoko dute.

57. artikulua. *Finantza Erakunde Aldeaniztunen akzioak eta partaidetzak eskuratzea.*

Bat. Ezin izango da Finantza Erakunde Aldeaniztunen akzioak eta partaidetzak eskuratzeko eragiketarik egin, ez eta haietan eraturako funtsetarako ekarpenik ere, defizit publikoan eragina badute eta 27.04.923P.895 («Finantza Erakunde Aldeaniztunak») aurrekontu-aplikazioaren kontura finantzatzen badira.

Bi. Aurreko zenbakian aurreikusitakoa betetze aldera,

Altxorren eta Nazioarteko Finantzaketaren Idazkaritza Nagusiak txosten bat aurkeztuko du aurrekontu-aplikazio horren konturako finantzaketa-proposamenekin batera; txosten hori defizit publikoan duen eraginari buruzkoa izango da, eta Estatuako Administrazioiko Kontu-hartzaitza Nagusiak dagokion eskaera egin baino lehen prestatuko da.

VI. TITULUA

Tributu-arauak

I. KAPITULUA

Zuzeneko zergak

1. atala. *Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga*

58. artikulua. *Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren eskala orokorra.*

2021eko urtarrilaren 1etik aurrera ondoreak izanik, eta indarraldi mugagabez, aldatu egiten da Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga arautzen duen eta sozietateen gaineko zerga, ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga eta ondorearen gaineko zerga partzialki aldatzen dituen azaroaren 28ko 35/2006 Legearen 63. artikuluko 1. zenbakia. Honela idatzita geratzen da:

«1. Lege honen 56. artikulua aipatutako minimo pertsonalaren eta familiarraren zenbatekoa gainditzen duen oinarri likidagarri orokorraren zatia honela zergapetuko da:

1.a Honako eskala honetan adierazten diren tipoak aplikatuko zaizkio likidazio-oinarri orokorrari:

Oinarri likidagarria – Euro arte	Kuota osoa – Euroak	Oinarri likidagarriaren gainerakoa – Euro arte	Aplikatu behar den tasa – Ehunekoak
0,00	0,00	12.450,00	9,50

Oinarri likidagarria – Euro arte	Kuota osoa – Euroak	Oinarri likidagarriaren gainerakoa – Euro arte	Aplikatu behar den tasa – Ehunekoa
12.450,00	1.182,75	7.750,00	12,00
20.200,00	2.112,75	15.000,00	15,00
35.200,00	4.362,75	24.800,00	18,50
60.000,00	8.950,75	240.000,00	22,50
300.000,00	62.950,75	Hortik aurrera	24,50

2.a Ateratzen den zenbatekoari honako hau kenduko zaio: minimo pertsonal eta familiarrari dagokion oinarri likidagarri orokorraren zatiari aurreko 1. zenbakian aurreikusitako eskala aplikatzean ateratzen den zenbatekoa.»

59. artikulua. *Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan aplikatzen diren aurrezkiaren karga-tasak.*

2021eko urtarrilaren 1etik aurrera, eta indarraldi mugagabez, honako aldaketa hauek txertatuko dira azaroaren 28ko 35/2006 Legean (Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga arautzen duen eta sozietateen gaineko zerga, ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga eta ondarearen gaineko zerga partzialki aldatzekoa):

Bat. Aldatu egiten da 66. artikulua. Honela idatzita geratzen da:

«66. artikulua. *Aurrezkiaren karga-tasak.*

1. Lege honen 56. artikulua aipatutako minimo pertsonalaren eta familiarraren zenbatekoa gaintzen duen aurrezkiaren oinarri likidagarriaren zatia honela kargatuko da:

1.a Honako eskala honetan adierazten diren tipoak aplikatuko zaizkio aurrezkiaren likidazio-oinarriari:

Aurrezkiaren oinarri likidagarria – Euro arte	Kuota osoa – Euroak	Aurrezkiaren oinarri likidagarriaren gainerakoa – Euro arte	Aplikatu behar den tasa – Ehunekoa
0	0	6.000	9,5
6.000,00	570	44.000	10,5
50.000,00	5.190	150.000	11,5
200.000,00	22.440	Hortik aurrera	13,00

2.a Ateratzen den zenbatekoari honako hau kenduko zaio: minimo pertsonal eta familiarrari dagokion aurrezkiaren oinarri likidagarriaren zatiari aurreko 1. zenbakian aurreikusitako eskala aplikatzean ateratzen den zenbatekoa.

2. Ohiko bizilekua atzerrian duten zergadunei dagokienez, betiere lege honen 8. artikulua 2. apartatua eta 10. artikulua 1. apartatua aipatutako egoeraren batean badaude, lege honen 56. artikulua aipatutako minimo pertsonal eta

familiarraren zenbatekoa gainditzen duen aurrezkiaren oinarri likidagarriaren zatia honela kargatuko da:

1.a Honako eskala honetan adierazten diren tipoak aplikatuko zaizkio aurrezkiaren likidazio-oinarriari:

Aurrezkiaren oinarri likidagarria – Euro arte	Kuota osoa – Euroak	Aurrezkiaren oinarri likidagarriaren gainerakoa – Euro arte	Aplikatu behar den tasa – Ehunekoa
0	0	6.000	19
6.000,00	1.140	44.000	21
50.000,00	10.380	150.000	23
200.000,00	44.880	Hortik aurrera	26

2.a Ateratzen den zenbatekoari honako hau kenduko zaio: minimo pertsonal eta familiarrari dagokion oinarri likidagarri orokorraren zatiari aurreko 1. zenbakian aurreikusitako eskala aplikatzean ateratzen den zenbatekoa.

Bi. Aldatu egiten da 76. artikulua. Honela idatzita geratzen da:

«76. artikulua. *Aurrezkiaren karga-tasak.*

Lege honen 56.3. artikulua aipatutako gehikuntzen edo murrizpenen ondoriozko minimo pertsonalaren eta familiarraren zenbatekoa gainditzen duen aurrezkiaren oinarri likidagarriaren zatia honela kargatuko da:

1.a Honako eskala honetan adierazten diren tipoak aplikatuko zaizkio aurrezkiaren likidazio-oinarriari:

Aurrezkiaren oinarri likidagarria – Euro arte	Kuota osoa – Euroak	Aurrezkiaren oinarri likidagarriaren gainerakoa * – Euro arte	Aplikatu behar den tasa – Ehunekoa
0	0	6.000	9,5
6.000,00	570	44.000	10,5
50.000,00	5.190	150.000	11,5
200.000,00	22.440	Hortik aurrera	13,00

2.a Ateratzen den zenbatekoari honako hau kenduko zaio: lege honen 56.3 artikuluan aipatzen diren gehikuntzen edo gutxitzeen ondoriozko gutxieneko pertsonal eta familiarrari dagokion oinarri likidagarri orokorraren zatiari aurreko 1. zenbakian aurreikusitako eskala aplikatzean ateratzen den zenbatekoa.»

60. artikulua. *Atxikipenen eta konturako sarreraren eskala, lan-errentak jasotzen dituztenei aplikatzeko.*

2021eko urtarrilaren 1etik aurrera ondoreak izanik, eta indarraldi mugagabek, aldatu egiten da Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga arautzen duen eta sozietateen gaineko zerga, ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga eta ondorearen gaineko zerga

partzialki aldatzen dituen azaroaren 28ko 35/2006 Legearen 101. artikuluko 1. zenbakia. Honela geratzen da idatzita:

«1. Erregelamenduz ezarritako prozedurari jarraituko zaio, lan- edo estatutu-harremanen eta pentsioen eta hartzeko pasiboen ondoriozko lan-etekinen gaineko atxikipenaren eta konturako sarreraren ehunekoa zehazteko.

Atxikipenaren edo konturako sarreraren ehunekoa zehazteko orduan, zirkunstantzia pertsonalak eta familiarrak eta, hala badagokio, ezkontidearen errentak eta murriztapenak eta kenkariak zein aurreikus daitezkeen ordainsari aldakorrak hartu ahal izango dira kontuan, erregelamenduz ezarritako moduan, eta honako eskala hau aplikatuko da:

Atxikipen-tasa kalkulatzeako oinarria – Euro arte	Atxikipen-kuota – Euroak	Atxikipen-tasa kalkulatzeako oinarriaren gainerakoa – Euro arte	Aplikatu behar den tasa – Ehunekoa
0,00	0,00	12.450,00	19,00
12.450,00	2.365,50	7.750,00	24,00
20.200,00	4.225,50	15.000,00	30,00
35.200,00	8.725,50	24.800,00	37,00
60.000,00	17.901,50	240.000,00	45,00
300.000,00	125.901,50	Hortik aurrera	47,00

Ondorio horietarako, aurreikus daitezkeen ordainsari aldakorrak, aurreko urtean lortutakoak gutxienez, daudela joko da, betiere zenbateko txikiagoa modu objektiboan egiaztatzea dakarten zirkunstantziak ez badaude.

Aurreko ekitaldiei egotzi behar zaizkien atzerapenak badira, ehuneko 15 izango da atxikipenaren eta konturako sarreraren ehunekoa, betiere artikuluko honen 2. eta 3. apartatuetan aurreikusitako ehunekoak aplikatu behar ez badira.

Apartatu honetan aurreikusitako atxikipenaren eta konturako sarreraren ehunekoaren murrizketa ehuneko 60koa izango da, Ceutan edo Melillan lortutako lan-etekinak direnean, baldin eta lege honen 68.4 artikuluan aurreikusitako kuotaren kenkarirako eskubidea badute.»

61. artikulua. *Espainiako lurraldera lekualdatutako langileei aplikatu behar zaizkien eskalak.*

2021eko urtarrilaren 1etik aurrera eta indarraldi mugagabez, Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari eta sozietateen gaineko zergari, ez-egoiliarren errentaren gaineko zergari eta ondarearen gaineko zergari buruzko azaroaren 28ko 35/2006 Legearen 93. artikuluko 2. zenbakiko e) eta f) letrak aldatzen dira, eta honela geratuko dira idatzita:

«e) Kuota osoa zehazteko:

1.a Likidazio-oinarriari honako eskala honetan adierazten diren tasak aplikatuko zaizkio, salbu eta Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren Legearen testu bategineko 25.1.f) artikuluan aipatzen diren errentei dagokien zatia:

Oinarri likidagarria – Euroak	Aplikatu behar den tasa – Ehunekoa
600.000 eurora arte	24
600.000,01 eurotik aurrera	47

2.a Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren Legearen testu bategineko 25.1.f) artikuluan aipatzen diren errentei dagokien oinarri likidagarriaren zatiari aplikatuko zaizkio honako eskala honetan adierazten diren tasak:

Aurrezkiaren oinarri likidagarria * – Euro arte	Kuota osoa – Euroak	Aurrezkiaren oinarri likidagarriaren gainerakoa – Euro arte	Aplikatu behar den tasa – Ehunekoa
0	0	6.000	19
6.000,00	1.140	44.000	21
50.000,00	10.380	150.000	23
200.000,00	44.880	Hortik aurrera	26

f) Zergaren konturako ordainketen kontzeptuko konturako sarrerak eta atxikipenak, erregelamenduz ezarritako moduan, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren araudiarekin bat etorritik.

Nolanahi ere, ehuneko 24 izango da lan-etekinen gaineko konturako sarreraren edo atxikipenaren ehunekoa. Ordaintzaile berak lan-etekinei dagokienez urte naturalean gauzatutako ordainsariak 600.000 eurokoak baino handiagoak direnean, ehuneko 47 izango da soberakinari aplikatu beharreko atxikipen-ehunekoa.»

62. artikulua. *Gizarte-aurreikuspeneko sistemetarako ekarpenen eta ekarpenen zerga-oinarriaren murrizketa-mugak.*

2021eko urtarrilaren 1etik aurrera, honako aldaketa hauek txertatuko dira azaroaren 28ko 35/2006 Legean (Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga arautzen duen eta sozietateen gaineko zerga, ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga eta ondarearen gaineko zerga partzialki aldatzekoa):

Bat. Aldatu egiten dira 51. artikulua 5. eta 7. zenbakiak, eta honela idatzita geratzen dira:

«51. artikulua. *Gizarte-aurreikuspeneko sistemetarako ekarpenengatiko eta ekarpenengatiko murrizketak.*

[...]

5. Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko Legean xedatutakoaren arabera mendetasun larriaren edo mendetasun handiaren arriskua bakarrik estaltzen duten aseguru pribatuei ordaindutako primak.

Era berean, zergadunarekin lerro zuzeneko ahaidetasun-harremana edo albokoa, hirugarren mailara artekoa (hori barne), duten pertsonak, edo haren ezkontideak, edo zergaduna, harrera- edo tutoretza-erregimenean, beren ardurapean duten pertsonak horrelako aseguru pribatuei ordaindutako primak tributu-oinarriari murriztu ahal izango dituzte, lege honen 52. artikuluan aurreikusitako murriztapen-muga aintzat hartuta.

Zergadun beraren aldeko primak ordaintzen dituzten pertsona guztiek egindako murriztapen guztiak, zergadunarenak berarenak barne, gehienez 2.000 euro izango dira urtean.

Ez dute oinordetzen eta dohaintzen gaineko zerga ordaindu beharko prima horiek.

Aseguru-kontratuak aurreko 3. apartatuaren a) eta c) letretan xedatutakoa bete beharko du nolanahi ere.

Aurreko lerroketan berariaz araututa ez dauden alderdiei dagokienez, aurreko 3. apartatuaren azken lerrokadan xedatutakoa aplikatu beharko da.

Azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Pentsio Planak eta Funtsak Arautzeko Legearen testu bateginaren lehen xedapen gehigarrian aurreikusitakoarekin bat etorritik egindako mendekotasuneko aseguru kolektiboari dagokienez, enpresa baino ez da agertuko aseguruaren hartzaile gisa, eta langilea izango da aseguraturua eta onuraduna. Enpresak aseguru-kontratu horiek direla-eta ordaindutako eta langileari egotzitako primek urteko 5.000 euroko murriztapen-muga propio eta independentea izango dute.

Erregelamendu bidez garatuko da apartatu honetan aurreikusitakoa.»

[...]

«7. Hurrengo artikuluan aurreikusitako mugei jarraituz egindako murriztapenekin batera, lanaren edo jarduera ekonomikoen etekin garbirik lortzen ez duen edo urtean 8.000 eurotik beherako etekin garbiak lortzen dituen ezkontidearen zergadunak tributu-oinarrian murriztu ahal izango ditu ezkontidea mutualista, partaide edo titular den gizarte-aurreikuspeneko sistemetan, artikulua honetan aurreikusitakoetan, egindako ekarpenak, urtean 1.000 euroko mugapean.

Ez dute oinordetzen eta dohaintzen gaineko zerga ordaindu beharko ekarpen horiek.»

Bi. Aldatu egiten da 52. artikulua 1. apartatua, eta honela idatzita geratzen da:

«52. artikulua. *Murrizketa-muga.*

1. Lege honen 51. artikulua 1., 2., 3., 4. eta 5. apartatuetan aurreikusitako murrizketa guztien gehieneko mugatzat hartuko da hurrengo zenbatekoetan txikiena:

- a) Ekitaldian banaka jaso diren lanaren eta jarduera ekonomikoen etekin garbien baturaren 100eko 30a.
- b) 2.000 euro urteko.

Muga hori 8.000 euro handituko da, betiere gehikuntza hori enpresa-ekarpenetatik baldin badator.

Enpresaburu indibidualak enpleguko pentsio-planari edo gizarte-aurreikuspeneko mutualitateei egiten dizkien ekarpenak, baldin eta horien sustatzaile eta partaide edo mutualista bada, bai eta enpresaren gizarte-aurreikuspeneko planari edo mendekotasun-aseguru kolektiboari egiten dizkien ere, baldin eta horien hartzaile eta aseguraturua bada, enpresa-kontribuziotzat hartuko dira muga hori zenbatzearen ondorioetarako.

Gainera, 5.000 euro urtean enpresak ordaindutako mendekotasuneko aseguru kolektiboetarako primentzat.»

Hiru. Aldatu egiten da hamaseigarren xedapen gehigarria, eta hona nola geratzen den idatzita:

«Hamaseigarren xedapen gehigarria. *Gizarte-aurreikuspeneko sistemetara egiten diren ekarpenen finantza-muga.*

Lege honen bederatzigarren xedapen gehigarriaren 51. artikulua 1., 2., 3., 4. eta 5. apartatuetan eta hamaikagarren xedapen gehigarriaren bi apartatuan aurreikusitako gizarte-aurreikuspeneko sistemetarako enpresen ekarpenen baterako gehieneko urteko zenbatekoa 2.000 euro urtean izango da.

Muga hori 8.000 euro handituko da, betiere gehikuntza hori enpresa-ekarpenetatik baldin badator.

Enpresaburu indibidualak enpleguko pentsio-planari edo gizarte-aurreikuspeneko mutualitateei egiten dizkien ekarpenak, baldin eta horien sustatzaile eta partaide edo mutualista bada, bai eta enpresaren gizarte-aurreikuspeneko planari edo

mendekotasun-aseguru kolektiboei egiten dizkienak ere, baldin eta horien hartzaile eta aseguratzaile bada, enpresa-kontribuziotzat hartuko dira muga hori zenbatzearen ondorioetarako.

Gainera, enpresek ordaindutako primei urtean 5.000 euroko muga gehigarria ezartzen zaie pentsioengatiko konpromisoak betetzeko enpresek kontratatutako mendekotasuneko aseguru kolektiboentzat.»

63. artikulua. *Zenbatespen objektiboaren metodoaren muga baztertzaileren luzapena pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan.*

2021eko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin eta indarraldi mugagabearekin, aldatu egiten da Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga arautzen duen eta sozietateen gaineko zerga, ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga eta ondarearen gaineko zerga partzialki aldatzen dituen azaroaren 28ko 35/2006 Legearen hogeita hamabigarren xedapen iragankorra, eta honela geratzen da idatzita:

«Hogeita hamabigarren xedapen iragankorra. *2016tik 2021eko ekitaldira arteko ekitaldietan zenbatespen objektiboaren metodoa aplikatzeko mugak.*

Lege honek 31. artikulua 1. apartatuko 3. arauaren b) letrako a') puntuan arautzen dituen magnitudeak (150.000 eta 75.000 euro) hurrenez hurren 250.000 eta 125.000 euro izango dira 2016ko, 2017ko, 2018ko, 2019ko, 2020ko eta 2021eko ekitaldietan.

Era berean, lege honen 31. artikuluko 1. zenbakiaren 3. arauaren c) letran adierazitako 150.000 euroko magnitudea 250.000 eurotan finkatuta geratzen da ekitaldi horietarako.»

2. atala. *Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zerga*

64. artikulua. *Errenta salbuetsiak.*

Lege hau indarrean jartzen den egunetik aurrera indarraldi mugagabez ondoreak izanik, honako aldaketa hauek sartu dira Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren Legearen testu bategina, martxoaren 5eko 5/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua:

Bat. Aldatu egin dira 14. artikuluko 1. zenbakiaren c) eta h) letrak. Honela idatzita geratuko dira:

«14. artikulua. *Errenta salbuetsiak.*

[...]

c) Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko eta sozietateen gaineko zergaren, ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren eta ondarearen gaineko zergaren gaineko legeen partezko aldaketari buruzko azaroaren 28ko 35/2006 Legearen 25.2 artikuluan aipatutako kapital propioak beste batzuei lagatzean lortutako interesak eta gainerako etekinak, bai eta establezimendu iraunkorrik gabe lortutako ondasun higiezinaren ondoriozko ondare-irabaziak ere, Europar Batasuneko beste estatu kide bateko edo Europako Esparru Ekonomikoko beste estatu bateko egoiliarrek edo Europar Batasuneko beste estatu kide batean edo Europako Esparru Ekonomikoa osatzen duen beste estatu batean kokatutako egoiliar horien establezimendu iraunkorrek lortutakoak.

Europar Batasuneko kide ez diren Europako Esparru Ekonomikoko estatuen kasuan, aurreko paragrafoan xedatutakoa aplikatuko da, baldin eta tributu-informazioa benetan trukutzen bada, iruzur fiskala prebenitzeko neurriei buruzko azaroaren 29ko 36/2006 Legearen lehen xedapen gehigarriaren 4. apartatuan aurreikusitako moduan.

Aurreko paragrafoetan xedatutakoa ez zaie aplikatuko erakunde batean akzioak, partaidetzak edo bestelako eskubideak eskualdatzearen ondorioz lortzen diren ondare-irabaziei honako kasu hauetan:

1. Erakunde horren aktibo nagusia, zuzenean edo zeharka, Espainiako lurraldean kokaturik dauden ondasun higiezinak osatzen badute.

2. Eskualdaketa egin aurreko 12 hilabeteetan, noizbait, zergadunak, pertsona fisikoa denak, zuzenean edo zeharka, erakunde horren kapitalaren edo ondarearen ehuneko 25eko partaidetza gutxienez izan badu.

3. Erakunde ez-egoiliarrei dagokienez, baldin eta eskualdaketak ez baditu betetzen Sozietateen gaineko Zergaren Legearen 21. artikuluan aurreikusitako salbuespena aplikatzeko baldintzak.»

[...]

«h) Espainiako lurraldean egoitza duten mendeko sozietateek Europar Batasuneko beste estatu kide batzuetako sozietate nagusiei edo haiek beste estatu kide batzuetan dituzten establezimendu iraunkorrei banatutako etekinak, baldintza hauek betetzen badira:

1.a Bi sozietateak Europar Batasuneko estatu kideetan entitate juridikoen onurak zergapetzen dituzten tributuren bati lotuta eta ez salbuetsita egotea; zehazki, Kontseiluaren 2011ko ekainaren 30eko 2011/96/EB Zuzentarauaren 2.c) artikuluan aipatzen dira (zuzentarau hori estatu kide ezberdinetako sozietate nagusi eta filialei aplikatu beharreko araubideari buruzkoa da); eta establezimendu iraunkorrak kokatuta dauden estatuan zergapetuta egotea eta zergapetzetik salbuetsita ez egotea.

2.a Irabaziaren banaketa sozietate filialaren likidazioaren ondorio ez izatea.

3.a Bi sozietateek Kontseiluaren 2011ko ekainaren 30eko 2011/96/EB Zuzentarauaren eranskinean aurreikusitako moduren bat izatea. Zuzentarau hori estatu kide ezberdinetako sozietate nagusi eta filialei aplikatu beharreko araubideari buruzkoa da, eta Kontseiluaren 2014ko uztailaren 8ko 2014/86/EB Zuzentaruak aldatu zuen.

Sozietate nagusizat joko da erakunde batek beste sozietatearen kapitalean gutxienez ehuneko 5eko partaidetza zuzena edo zeharkakoa baldin badu. Azken hori mendeko sozietatetzat joko da. Parte-hartze horrek etengabea izan behar du, banatutako irabazia eska daitekeen egunaren aurreko urtebeteko aldiaren, edo bestela, ondoren izan behar du jarraipena, urtebete osatu arte.

Epe hori kalkulatzeko, honako epealdi hau hartu beharko da kontuan: Merkataritza Kodearen 42. artikuluan jasotako egoerak betetzen dituzten beste entitate batzuen etengabeko partaidetza izan duten epealdia, egoitza nonahi dutela eta urtero kontu bateratuak aurkezteko obligazioa eragotzi gabe. Azken kasu horretan, zergari dagokion diru-sarrera itzuliko da epe hori bete ostean.

Egoitza zehaztuko da dagokion estatu kideko legediaren arabera, zerga bikoitza saihesteko hitzarmenetan ezarritakoaren kalterik gabe.

Aurretik aurreikusitakoa gorabehera, Ogasuneko ministroak, elkarrekikotasun-baldintzarekin, xedatu ahal izango du h) letra honetan ezarritakoa Zuzentarauaren eranskinean aurreikusitako ez beste forma juridikoa duten mendeko sozietateei aplikatu ahal izatea, bai eta Espainian egoitza duen mendeko sozietate baten kapitalean gutxienez ehuneko 5eko partaidetza zuzena edo zeharkakoa duen sozietate nagusi bati banatutako dibidenduei, betiere h) letra honetan ezarritako gainerako baldintzak betetzen badira.

Ez da aplikatuko h) letra honetan ezarritakoa, baldin eta sozietate nagusiaren boto-eskubide gehienak, zuzenean edo zeharka, Europar Batasuneko estatu kideetan egoiliar ez diren pertsona fisikoek edo juridikoek badituzte, edota, Iruzur fiskala prebenitzeko neurriei buruzko azaroaren 29ko 36/2006 Legearen lehen xedapen gehigarriaren 4. apartatuan aurreikusitako moduan, tributuarloko

informazio-truke eraginkorra dagoen Europako Esparru Ekonomikoko estatu kideetan egoiliar ez direnek badituzte, betiere sozietate haren eraketak eta eragiketak baliozko arrazoi ekonomikoetara eta funtsezko enpresa-arrazoiei erantzuten ez badiete.

Espainiako lurraldean egoitza duten mendeko sozietateek Europako Esparru Ekonomikoa osatzen duten estatueta egoitza duten sozietate nagusiei edo azken horiek beste estatu kide batzuetan dituzten establezimendu iraunkorrei banatutako etekinei berdin ere aplikatuko zaie h) letra honetan xedatutakoa, baldintza hauek betetzen badira:

1.a Europako Esparru Ekonomikoa osatzen duten estatuak, non sozietate nagusiek egoitza baitute, zerga-arloko informazio-truke eraginkorra izatea, iruzur fiskala prebenitzeko neurri buruzko azaroaren 29ko 36/2006 Legearen lehen xedapen gehigarriaren 4. paragrafoan aurreikusitako baldintzetan.

2.a Sozietateak Kontseiluaren 2011ko ekainaren 30eko 2011/96/EB Zuzentarauaren 2.c) artikuluan aipatzen diren onurak zergapetzen dituzten tributu baliokide bati lotuta egotea eta salbuetsita ez egotea (zuzentaru hori estatu kide ezberdinetako sozietate nagusi eta filialetara aplikatu beharreko araubideari buruzkoa da); eta establezimendu iraunkorrak kokatuta dauden estatuan zergapetuta egotea eta zergapetzetik salbuetsita ez egotea.

3.a Europako Esparru Ekonomikoa osatzen duten estatueta bizi diren sozietate nagusiek Kontseiluaren 2011ko ekainaren 30eko 2011/96/EB Zuzentarauaren eranskinean aurreikusitako formaren bat edukitzea (2011/96/EB Zuzentaru, beste estatu kide batzuetako sozietate nagusi eta filialetara aplikatu beharreko araubideari buruzkoa).

4.a h) letzan ezarri diren gainerako eskakizunak betetzea.»

Bi. Xedapen iragankor bat gehitzen da, bigarren zenbakiduna, eta egungo xedapen iragankor bakarra lehen zenbakira pasatzen da. Honela idatzita geratzen da:

«Bigarren xedapen iragankorra. 14.1.h) artikuluko salbuespenaren araubide iragankorra.

14. artikuluko 1. zenbakiko h) letzan aipatzen den salbuespena 2021., 2022., 2023., 2024. eta 2025. urteetan aplikatuko zaie 2021eko urtarrilaren 1a baino lehen eskuratutako partaidetzei, baldin eta 20 milioi eurotik gorako eskuratze-balioa badute. Ez da beharrezkoa zuzeneko edo zeharkako partaidetza ehuneko 5era iristea kapitalean, betiere aipatu 14.1.h) artikuluan ezarritako gainerako baldintzak betetzen badira.»

3. atala. Sozietateen gaineko zerga

65. artikulua. *Egoitza Espainiako lurraldean duten zein ez duten entitateen funts propioetako balore adierazgarriak eskualdatzearen ondorioz sortutako errenten eta dibidenduen gaineko salbuespena mugatzea.*

Lege hau indarrean jartzen denean amaitu ez diren eta 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera hasi diren zergaldietan eragina dutela, eta indarraldi mugagabez, honako aldaketa hauek sartzen dira Sozietateen gaineko Zergaren Legean (azaroaren 27ko 27/2014):

Bat. Aldatu egiten da 16. artikulua 1. zenbakia, eta honela idatzita geratzen da:

«1. Finantza-gastu garbiak kengarriak izango dira, baina muga bat izango dute: ekitaldiaren mozkin operatiboaren ehuneko 30.

Horretarako, honako hauek hartuko dira finantza-gastu garbitzat: gehiegizko finantza-gastuak zergaldian sortutako kapital propioak hirugarrenei lagatzearen ondoriozko diru-sarreraren gaineratik duten aldea, betiere lege honen 15. artikulua g), h) eta j) letrak aipatzen dituen gastuak alde batera utzita.

Dagokion ekitaldiko galera-irabazien kontuaren ustiapen-emaiztatik abiatuta zehaztuko da mozkin operatiboa, Merkataritza Kodearen eta hura garatzen duen gainerako kontabilitate-araudiaren arabera. Nolanahi ere, ondorengoak ezabatuko dira: ibilgetuaren amortizazioa, ibilgetu ez-finantzarioen dirulaguntzen eta beste batzuen egozpena, ibilgetuaren inorenganatzeen ondoriozko narriadura eta emaitzak; horrez gain, zerrenda horri ondare-tresnetako partizipazioen sarrera finantzarioak gehitu behar zaizkio, betiere sarrera horiek entitateen dibidenduak edo mozkinetako partizipazioak badira, eta entitate horietako partizipazio-ehunekoa, zuzena nahiz zeharkakoa, gutxienez ehuneko 5ekoa bada, salbu eta partizipazio horiek erosteko egindako zorren finantza-gastuak kengarriak ez direnean, lege honetako 15. artikulua 1. apartatuko h) letra aplikatuta.

Nolanahi ere, kengarriak izango dira zergaldiko milioi 1 euroko finantza-gastu garbiak.

Kenkari gisa baliatu ez diren finantza-gastuak hurrengo zergaldietan izango dira kengarriak, dagokion zergaldikoekin batera, eta betiere apartatu honetan aurreikusitako muga kontuan hartuta.»

Bi. Aldatu egiten dira 1. apartatuko a) letrako lehen paragrafoa eta 6. apartatuko a) letra. Horrez gain, 21. artikuluko 10. eta 11. apartatuak, eta honela geratzen dira idatzita:

«21. artikulua. *Egoitza Espainiako lurraldean duten zein ez duten entitateen funts propioetako balore adierazgarriak eskualdatzearen ondorioz sortutako errenten eta dibidenduen gaineko salbuespena.*

1. Entitateen mozkinetako dibidenduak edo partaidetzak salbuespena egongo dira, honako baldintza hauek betetzen direnean:

a) Entitateko kapitalean edo funts propioetan duen zuzeneko nahiz zeharkako partaidetzaren ehunekoa gutxienez ehuneko 5ekoa denean.

[...]

«6. Ez dira zerga-oinarrian txertatuko entitate bateko partaidetza eskualdatzetik sortutako errenta negatiboak, baldin eta hauetako inguruabarren bat ematen bada:

a) Artikulu honen 3. zenbakian aurreikusitako betekizunak betetzea. Hala ere, eskurapen-balioaren ehunekoari dagokion betekizuna betetzat joko da eskualdaketa egin zen egunaren aurreko urteko edozein unetan betetzen bada.

[...]

«10. Erakundeen mozkinetako partaidetzen edo dibidenduen zenbatekoa eta entitate bateko partaidetza eskualdatzean lortutako errenta positiboaren zenbatekoa, bai eta artikulu honetan aurreikusitako salbuespena aplikatu behar zaien aurreko 3. apartatuan aipatutako gainerako kasuetan lortutako errenta positiboaren zenbatekoa ere, ehuneko 5 murriztuko da, salbuespen hori aplikatzearen ondorioetarako, partaidetza horiei dagozkien kudeaketa-gastuen kontzeptuan.

11. Aurreko apartatuan aipatutako dibidenduei edo erakundeen mozkinetako partaidetzei aplikatu behar zaien murrizketa ez da aplikatuko honako egoera hauetan:

a) Dibidenduak edo mozkinetako partaidetzak aurreko zergaldian izandako negozio-zifraren zenbateko garbia gutxienez 40 milioi eurokoa den erakunde batek jasotzen dituztenean.

Negozio-zifraren zenbateko garbia zehazteko, lege honen 101. artikulua 2. apartatuan xedatutakoa aplikatuko da.

Honako baldintza hauek bete beharko ditu letra honetan aipatzen den erakundeak:

i) ondare-entitate ez izatea, lege honetako 5. artikuluko 2. apartutan ezarritako moduan;

ii) b) letran aipatzen den erakundea eratu aurretik, sozietate-talde bateko kide ez izatea, Merkataritza Kodearen 42. artikulua zentzuan, bizilekua eta urteko kontu bateratuak egiteko betebeharra alde batera utzita;

iii) b) letran aipatzen den erakundea eratu aurretik, erakundeak ez izatea beste erakunde baten kapitalean edo funts propioetan ehuneko 5eko edo gehiagoko partaidetza-ehunekorik, zuzenekoa edo zeharkakoa;

b) dibidenduak edo mozkinetako partaidetzak 2021eko urtarrilaren 1aren ondoren eratutako erakunde batenak izatea, eta erakunde horretan kapital osoa edo funts propioak edukitzea zuzenean eta eratzten direnetik aurrera;

c) dibidenduak edo mozkinetako partaidetzak jasotzea dibidendu edo partaidetza horiek banatzen dituen erakundea eratu eta hurrengo hiru urteetan amaitzen diren zergaldietan.»

Hiru. Aldatu egiten dira 32. artikuluko 1. apartatuko a) letra eta 4. apartatua. Honela idatzita geratzen dira:

«32. artikulua. *Nazioarteko zergapetze bikoitz ekonomikoa saihesteko kenkaria: mozkinetako dibidenduak eta partaidetzak.*

[...]

a) Entitate ez-egoiliarren kapitalean edo funts propioetan duen partaidetzaren ehunekoa, zuzenekoa edo zeharkakoa, gutxienez ehuneko 5ekoa izatea.»

[...]

«4. Kenkari hori, aurreko artikuluan dibidenduei edo mozkinetako partaidetzei dagokienez ezarritako kenkariarekin batera, ez da handiagoa izango Espainian errenta horiengatik ordaindu beharko zen kuota osoa baino, baldin eta horiek Espainiako lurraldean lortu bazituen. Kuota oso hori kalkulatzeko, mozkinetako dibidenduak edo partaidetzak ehuneko 5 murriztuko dira partaidetza horiei dagozkien kudeaketa-gastuen kontzeptuan. Murrizketa hori ez da egingo lege honen 21. artikulua 11. apartatuan ezarritako inguruabarrak betetzen dituzten mozkinetako dibidendu edo partaidetzen kasuan.

Muga horren gaineko soberakina ez da fiskalki gastu kengarri gisa hartuko, lege honetako 31. artikuluko 2. apartatuan zehaztutakoari kalterik egin gabe.»

Lau. Aldatu egiten da 64. artikulua, eta honela idatzita geratzen da:

«64. artikulua. *Ezabaketak.*

Ezabaketak irailaren 17ko 1159/2010 Errege Dekretuak onartutako Urteko Kontu Bateratuen Formulazio Arauetan zehaztutako irizpideen arabera gauzatuko dira, betiere horiek banakako zerga-oinarriei eragiten badiete, eta lege honetan aurreikusitako zehaztasunak aintzat hartuta.

Ez da ezabatuko banakako zerga-oinarrietan sartu behar den zenbatekorik, lege honen 21. artikuluko 10. apartatuan ezarritakoa aplikatuta.»

Bost. Aldatu egiten dira 100. artikulua 10. eta 12. zenbakiak, eta honela idatzita geratzen dira:

«100. artikulua. *Entitate ez-egoiliarrek lortutako zenbait errenta positiboren egozpena.*

[...]

10. Ez dira zerga-oinarrian sartuko dibidenduak edo mozkinetako partaidetzak, zerga-oinarrian sartutako errenta positiboaren zatian. Ondorio horietarako, dibidenduen edo mozkinetako partaidetzen zenbatekoa ehuneko 5 murriztuko da partaidetza horiei dagozkien kudeaketa-gastuen kontzeptuan, lege honetako 21. artikuluko 11. apartatuan ezarritako inguruabarrak bete ezean. Tratamendu berbera emango zaie konturako dibidenduei.

Erreserbak banatzen badira, akordio sozialean jasotako izendapenari jarraituko zaio, eta erreserba horietara zuzendutako azken kopuruak banatuko direla ulertu behar da.

Errenta positibo bati egozpena behin bakarrik egin ahal izango zaio, gertatzen deneko modua eta entitatea edozein dela ere.

[...]

«12. Partaidetza eskualdatze zuzen edo zeharkakotik eratorritako errenta kalkulatzeko, erosketa-balioari gehituko zaio erosi eta eskualdatu bitartean akzio edo partaidetzen errenta moduan bazkideei banaketa efektiborik gabe egotzitako mozkin sozialen zenbatekoa. Ondorio horietarako, apartatu honetan aipatzen diren onura sozialen zenbatekoa ehuneko 5 murriztuko da partaidetza horiei dagozkien kudeaketa-gastuen kontzeptuan.

Lege honetako 5. artikuluko 2. apartatuan zehaztutako terminoetan ondare-entitate gisa hartzen diren entitateen kasuan, zenbatu beharreko eskualdatze-balioa itxitako azken balantzetik ateratako eskualdatze-balioei dagokien ondare garbiaren balioa izango da gutxienez, aktiboen kontabilitate-balioa ondarearen gaineko zergaren ondorioetarako edo, baxuagoa balitz, merkatuko balioagatik ordezkatu ostean.

Sei. Berrogeigarren xedapen iragankor berria gehitu da, eta honela idatzita geratzen da:

«Berrogeigarren xedapen iragankorra. *20 milioitik gorako eskuratze-balioa duten partaidetzen tributazio-araubidea.*

2021eko urtarrilaren 1a baino lehen hasitako zergaldietan eskuratutako partaidetza, zeinak 20 milioi eurotik gorako eskuratze-balioa baitute, baina lege honetako 21. artikuluko 1. apartatuko a) letrako lehen paragrafoan edo 32. artikuluko 1. apartatuko a) letran ezarritako ehunekora iritsi gabe, artikuluko horietan ezarritako zerga-araubidea aplikatuko dute, dagokionaren arabera, baldin eta 2021., 2022., 2023., 2024., eta 2025. urteen barruan hasten diren zergaldietan haietan aurreikusitako gainerako baldintzak betetzen badituzte.»

4. atala. Ondarearen gaineko zerga

66. artikulua. *Ondarearen gaineko zergaren karga-tasak.*

Lege hau indarrean jartzen denetik ondoreak izanik, eta indarraldi mugagabez, aldatu egiten da Ondarearen gaineko Zergari buruzko ekainaren 6ko 19/1991 Legearen 30. artikulua. Honela idatzita geratzen da:

«30. artikulua. *Kuota osoa.*

Zergaren likidazio-oinarria honako eskala honetako tasen arabera kargatuko da:

1. Zergaren likidazio-oinarria autonomia-erkidegoek onartutako eskalako tasen arabera izango da.

2. Autonomia-erkidegoak ez badu onartu aurreko apartatuan aipatutako eskala, zergaren likidazio-oinarria honako eskala honetako tasen arabera kargatuko da:

Oinarri likidagarria – Euro arte	Kuota – Euroak	Oinarri likidagarriaren gainerakoa – Euro arte	Aplikatu behar den tasa – Ehunekoa
0,00	0,00	167.129,45	0,2
167.129,45	334,26	167.123,43	0,3
334.252,88	835,63	334.246,87	0,5
668.499,75	2.506,86	668.499,76	0,9
1.336.999,51	8.523,36	1.336.999,50	1,3
2.673.999,01	25.904,35	2.673.999,02	1,7
5.347.998,03	71.362,33	5.347.998,03	2,1
10.695.996,06	183.670,29	Hortik aurrera	3,5

3. Ordaintzeko benetako betebeharraren kasuan, aplikatu beharreko tarifa aurreko paragrafoan ezarritakoa izango da. Tarifa bera aplikatuko zaie subjektu pasibo ez-egoiliarrei, zergak ordaintzeko betebeharrak pertsonalagatik ordaintzen badituzte.»

5. atala. Tokiko zergak

67. artikulua. Ekonomia-jardueren gaineko Zerga.

Lege hau indarrean jarri eta gero hasiko diren zergaldietan ondoreak izanik, eta indarraldi mugagabez, honela aldatzen da Jarduera ekonomikoen gaineko zergaren tarifak eta erregelamendua ezartzeko irailaren 28ko 1175/1990 Legegintzako Errege Dekretuak:

Bat. Tarifen Lehenengo Ataleko 15. multzoaren izenburua aldatzen da, eta honela idatzita geratzen da:

«15. multzoa. Energia elektrikoa, gasa, lurruna eta ur beroa ekoiztea, garraiatzea, banatzea eta merkaturatzea.»

Bi. Aldatu egiten da Tarifen Lehenengo Ataleko 15. multzoaren 151. taldearen izenburua aldatzen da, eta honela geratzen da idatzita:

«151. taldea. Energia elektrikoa ekoiztea, garraiatzea, banatzea eta merkaturatzea.»

Hiru. Tarifen Lehenengo Ataleko 15. multzoaren 151. taldean 151.6 epigrafe berria gehitu da. Honela idatzita geratzen da:

«151.6 epigrafea. Energia elektrikoa merkaturatzea.

Kuota.

Gutxieneko udal-kuota:

1.000 abonatu edo frakzioko: 62,20 euro.

Probintziako kuota:

1.000 abonatu edo frakzioko: 137,48 euro.

Nazioko kuota:

1.000 abonatu edo frakzioko: 137,48 euro.»

Lau. Aldatu egiten da Lehenengo Ataleko 15. multzoaren 152. taldea. Honela idatzita geratzen da:

«152. taldea. Gasa fabrikatzea, banatzea eta merkaturatzea.

152.1 epigrafea. Gasa fabrikatzea eta banatzea.

Kuota:

kW bakoitzeko: 15,86 euro.

Oharra: Epigrafe horretan sartzen da gasa banatzeko sareen instalazioa.

152.2 epigrafea. Gasa merkaturatzea.

Kuota.

Gutxienerako udal-kuota:

1.000 abonatu edo frakzioko: 62,20 euro.

Probintziako kuota:

1.000 abonatu edo frakzioko: 137,48 euro.

Nazioko kuota:

1.000 abonatu edo frakzioko: 137,48 euro.»

Bost. Gehitu egiten da Tarifen Lehenengo Ataleko 661. multzoaren 661.9. epigrafe berria. Honela idatzita geratzen da:

«661.9 epigrafea. Bestelako merkataritza mistoa edo azalera handietan integratua, zehazki, 2.500 metro koadroko azalera edo handiagoa duten establezimenduetan modu espezializatuan egindako merkataritza. Establezimendu horietan saldu edo erakusten dira brikolajearekin eta etxeko ekipamenduarekin lotutako produktuak, etxerako eta bulegorako altzariak, artikulu elektronikoak eta etxetresna elektrikoak, automobilerrako artikuluak, kirolerrako artikuluak eta beste batzuk.

Kuota:

10.000 m² arte: 1,40 euro metro koadro bakoitzeko.

10.001 eta 20.000 metro koadro bitartean: 1,35 euro, metro koadro bakoitzeko.

20.001 eta 30.000 metro bitartean: 1,25 euro, metro koadro bakoitzeko.

30.000 metro koadrotik gora: 1,15 euro, metro koadro bakoitzeko.

Oharra: Erakusketa eta publikoarentzako salmentarako azalera erabilgarritzat joko da zuzenerako salmentarako produktuak erakusten dituen, estalita egon zein ez, balin eta kontsumitzaileak benetan erabili ahal badu.»

Sei. Aldatu egiten da Tarifen Lehenengo Ataleko 661. multzoaren 2. ohar arrunta, eta honela idatzita geratzen da:

«2.a Multzo honetako kuotak kalkulatzeko, establezimenduaren azalera osoa zenbatuko da (biltegi handia, hipermerkatua, herriko biltegia edo beste azalera handi

bat), bai eta bulegoetarako guneak, aparkaleku estalia, biltegiak eta abar. Era berean, hirugarrenek okupatutako guneak ere zenbatuko dira, erabilera-lagapenaren edo beste edozein tituluren ondorioz. Aire zabaleko azalerak, ordea, ez dira zenbatuko, erabilera edozein izanda ere.»

Zazpi. Gehitu egiten da Tarifen Lehenengo Ataleko 664. multzoaren 664.2 epigrafe berria. Honela idatzita geratzen da:

«664.2 epigrafea. Ibilgailu elektrikoak kargatzeko guneak.

Gutxieneko udal-kuota: 13,56 euro, kargatzeko gune bakoitzeko.

Ibilgailua kargatzeko gunea instalatuta duen establezimenduaren edo lokalaren titularrak eskusiboki ordainduko du kuota hori.

Nazioko kuota: 13,56 euro, kargatzeko gune bakoitzeko.

Ibilgailua kargatzeko gunearen jabeak eskusiboki ordainduko du kuota hori.

II. KAPITULUA

Zeharkako zergak

1. atala. Balio erantsiaren gaineko zerga

68. artikulua. *Zerbitzu-prestazio zehatz batzuk egiteko lekua.*

Lege hau indarrean jartzen denetik ondoreak izanik, eta indarraldi mugagabez, aldatu egiten da Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 37/1992 Legearen 70. artikuluko bi apartatua. Honela idatzita geratzen da:

«Bi. Halaber, zergaren aplikazio-lurraldean emandakotzat joko dira jarraian adierazitako zerbitzuak, baldin eta, zerbitzu horiei aplikatu beharreko lokalizazio-arauen arabera, Erkidegoan, Kanariar Uharteetan, Ceuta edo Melilla hirietan egindakotzat jotzen ez badira ere, haien egiazko erabilera edo ustiapena lurralde horretan egiten bada:

1.a Lege honetako 69. artikuluko bigarren paragrafoan aipatutako zerbitzuak, horien hartzaila enpresaburu edo profesional gisa diharduen enpresaburua edo profesionala bada.

2.a Besteren izenean eta kontura emandako bitartekotza-zerbitzuak, horien hartzaila enpresaburu edo profesional gisa diharduen enpresaburu edo profesionala bada.

3.a Garraiobideak alokatzeko zerbitzuak.

4.a Elektronikoki emandako zerbitzuak eta telekomunikazio-, irrati- eta telebista-zerbitzuak.»

69. artikulua. *Zerga-tasa murriztuak.*

Lege hau indarrean jartzen denetik eta indarraldi mugagabez ondoreak izanik, aldatu egin da Balio Erantsiaren gaineko Zergaren abenduaren 28ko 37/1992 Legearen 91. artikuluko 1.bat apartatuko 1. zenbakia. Honela idatzita geratzen da:

«1.a Beren ezaugarriak, aplikazioak, osagaiak, prestaketa eta kontserbazio-egoera direla kausa giza eta animalien elikadurarako erabiltzeko egokiak edo ohikoak diren gaiak edo produktuak, beren jatorria edozein dela ere, betiere Elikadura Kodeak eta hura garatzeko emandako xedapenetan ezarritakoari jarraituz.

Honako hauek aurreko paragrafoan xedatutakotik kanpo geratzen dira:

a) Alkoholdun edariak.

Hauxe jotzen da edari alkoholduntzat: gizakiek edateko modukoa den eta alkohol etilikoa duen likido oro.

b) Azukre edo edulkoratzaile erantsiak dituzten edari freskagarriak, zukuak eta gaseosoak.

Zenbaki honen ondorioetarako, tabakoa ez da elikagaitzat hartuko, ezta ematen diren, erkidego artean eskuratzen diren edo inportatzen diren egoeran gizakiek edo animaliek kontsumitzeko modukoak ez diren gaiak ere.»

70. artikulua. *Araubide erraztua eta nekazaritzako, abeltzaintzako eta arrantzako araubide berezia aplikatzeko mugak 2021eko ekitaldian.*

2021eko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin eta indarraldi mugagabearekin, aldatu egiten da Balio Erantsiaren gaineko Zergaren abenduaren 28ko 37/1992 Legearen hamahirugarren xedapen iragankorra, eta honela geratzen da idatzita:

«Hamahirugarren xedapen iragankorra. 2016tik eta 2021ra doazen ekitaldietan nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren araubide erraztua eta araubide berezia aplikatzeko mugak.

Lege honek 122. artikulua bigarren apartatuko 2. zenbakiaren lehen puntuan eta 3. zenbakian eta 124. artikulua bigarren apartatuko 6. zenbakian arautzen duen magnitudea (150.000 euro) 250.000 euro izango da 2016ko, 2017ko, 2018ko, 2019ko, 2020ko y 2021eko ekitaldietan.»

2. atala. *Ondare-eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga*

71. artikulua. *Handitasunen eta noble-tituluen eskualdaketen eta birgaitzeen eskala.*

Ondare-eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren Legearen testu bateginak, irailaren 24ko 1/1993 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitakoak, 43. artikulua lehenengo paragrafoan aipatzen duen eskala honako hau izango da, eta lege hau indarrean jartzen denetik aurrera izango ditu ondoreak:

Eskala	Zuzeneko eskualdaketak – Euroak	Zeharkako eskualdaketak – Euroak	Atzerriko tituluak birgaitzea eta aitortzea – Euroak
1.) Handitasun-titulu bakoitzeko	2.837	7.110	17.047
2.) Titulurik gabeko handitasun bakoitzeko	2.028	5.083	12.171
3.) Handitasunik gabeko titulu bakoitzeko	809	2.028	4.879

3. atala. *Zerga bereziak*

72. artikulua. *Elektrizitatearen gaineko zerga berezia.*

Lehena. 2015eko uztailaren 1etik aurrera ondoreak izanik, eta indarraldi mugagabez, gehitu egiten da Zerga Bereziei buruzko abenduaren 28ko 38/1992 Legearen 94. artikuluko 8. apartatua. Honela idatzita geratzen da:

«8. Itsasontzietan kontsumitutako energia elektrikoa, ontzian bertan sortu delako.»

Bigarrena. Lege hau indarrean sartzen denetik aurrera, eta indarraldi mugagabez, honako aldaketa hauek egiten dira Zerga Bereziei buruzko abenduaren 28ko 38/1992 Legean:

Bat. 94. artikuluari 9. apartatua gehitzen zaio, eta honela idatzita geratzen da:

«9. Hornitutako energia elektrikoa, soberako ordu-energiarekin konpentsatzen dena, soberakinak dituen autokontsumo modalitatean (kompentsazioan hartuta), Energia elektrikoaren autokontsumoaren apirilaren 5eko 244/2019 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera (errege dekretuak baldintza administratibo, tekniko eta ekonomikoak arautzen ditu).

Bi. 98. artikuluari 3. apartatua gehitzen zaio, eta honela idatzita geratzen da:

«3. Likidazio-oinarria, hala badagokio, zerga-oinarriari ehuneko 100eko murriztapena egitearen emaitza izango da; murriztapen hori aplikatu ahalko zaio, erregelamenduz zehaztutako betekizunak eta baldintzak betetzen badira, trenbidezko garraioan hornitu edo kontsumitutako energia elektrikoaren kantitateari.»

Hiru. Aldatu egiten da 99. artikulua 2. apartatuko a) letra. Honela idatzita geratzen da:

«a) 0,5 euro megawatt eta ordu bakoitzeko (MWh), baldin eta hornitutako edo kontsumitutako elektrizitatea industria-erabileratarako, aisiako ontzi pribatuak ez diren ontzi porturatuaren xedeetarako edo trenbidezko garraioetarako baliatzen bada.»

4. atala. Aseguru-sarien gaineko zerga

73. artikulua. *Aseguru-sarien gaineko zergaren karga-tasa.*

Lege hau indarrean jartzen denetik ondoreak izanik, eta indarraldi mugagabez, Zerga, Administrazio eta Gizarte Arloko Neurriei buruzko abenduaren 30eko 13/1996 Legearen 12. artikulua hamaika apartatuaren 1) zenbakia aldatzen da. Honela idatzita geratzen da:

«1) Ehuneko 8koa izango da zergaren tasa.»

III. KAPITULUA

Beste tributu batzuk

74. artikulua. *Tasak.*

Bat. Lege honek indarra hartzen duenetik aurrera, Estatuko Ogasunaren tasen zenbateko finkoko tasak handitu egingo dira, 2020an galdagarri zen zenbatekoari 1,01 koefizientea aplikatuz lortzen den zenbatekoraino, 2018rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren uztailaren 3ko 6/2018 Legearen 86. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Aurreko paragrafoan aurreikusitakoa ez zaie aplikatuko 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera emandako arauen bidez sortutako tasei, ez eta egun horretatik aurrera emandako arauen bidez berariaz eguneratutakoei ere.

Trafikoko Buruzagitza Nagusiak eska ditzakeen tasak, aurreko koefizientea aplikatu eta gero, hurbilen dagoen goiko edo beheko zentimora egokituko dira, koefizientea aplikatu eta gero sortzen den zenbatekoak hiru hamarren baditu.

Bi. Zenbateko finkoko tasatzat jotzen dira oinarriaren portzentaje baten bidez zehazten ez direnak, edota moneta-unitatetan zenbatesten ez den oinarria dutenak.

Hiru. Lege hau indarrean jarri eta gero, otsailaren 25eko 16/1977 Errege Lege Dekretuaren 3. artikuluko lau apartatua (16/1977 Errege Lege Dekretua, Zorte-, enbido-

edo zori jokoan alderdi zigortzaile, administratibo eta fiskalak arautzen dituen) honela idatzita geratzen da:

«Laugarrena. 2021erako Estatuaren Aurrekontu Orokorren Legeak indarra hartzen duenetik aurrera, honako tasa eta kuota finakoak bete beharko dira:

Zerga-tasak eta kuota finakoak.

Bat. Zerga-tasak.

- a) Zerga-tasa orokorra 100eko 10 izango da.
- b) Honako tarifa hau aplikatuko da joko-kasinoetan:

Honako hauen arteko zerga-tasaren zatia, eurotan	Aplikatu behar den tasa - Ehunekoa
0 eta 1.322.226,63 artean	10,0
1.322.226,64 eta 2.187.684,06 artean	17,5
2.187.684,07 eta 4.363.347,88 artean	22,5
4.363.347,88 baino gehiago	27,555

Bi. Kuota finakoak

Jokoak gauzatzeko erabiltzen diren makina edo gailu automatiko egokiak ustiatzen direnean, kuota jolasteko makinaren eta ausazko jokoetarako makinaren erregelamenduaren arabera zehaztuko da. Erregelamendu hori urriaren 2ko 2110/1998 Errege Dekretu bidez onartu da. Zehazki, honako arau hauek ezarrita daude:

A) «B» motako makinak edo jolasteko makinak, saria ematen dutenak:

- a) Urteko kuota: 1.765,5 euro.
- b) B motako makina edo gailu automatikoak direnean, eta bi jokalarik edo gehiagok aldi berean parte hartu ahal badute, eta jokalaria bakoitzaren joko eta gainerako jokalaria bereizita badago, honako kuota hauek aplikatuko dira:

Bi jokalarientzat prestatutako makinak edo gailuak: Bi kuota, aurreko a) letran ezarritakoaren arabera.

Hiru jokalarientzat edo gehiagorentzat prestatutako makinak edo gailuak: Kuota ehuneko 50 handituko da, gehitzen den jokalaria bakoitzeko, hirugarrenetik aurrera zenbatuta.

B) «C» motako makinak edo ausazko jokoetarako makinak:

- a) Urteko kuota: 2.010,38 euro.»

Lau. Lehenengo apartatuan aurreikusitakotik salbuetsita egongo da katastro-erregularizazioaren tasaren zenbatekoa; tasa hori martxoaren 5eko 1/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Higiezinaren Katastroari buruzko Legearen testu bateginaren hirugarren xedapen gehigarriaren Zortzi zenbakiko d) letran dago aurreikusita.

75. artikulua. *Jabari publiko irrati-elektroa erreserbatzeagatik tasa.*

Bat. Telekomunikazioei buruzko maiatzaren 9ko 9/2014 Lege Orokorraren (aurrerantzean, Telekomunikazioen Lege Orokorra) I. eranskinaren 3. zenbakian jabari publiko irrati-elektroa erreserbatzeagatik ezarritako tasa honako formula honen arabera kalkulatu behar da:

$$T = [N \times V] / 166,386 = [S \text{ (km}^2\text{)} \times B \text{ (kHz)} \times F (C_1, C_2, C_3, C_4, C_5)] / 166,386$$

non:

T = urteko tasaren zenbatekoa, eurotan.

N = irrati-elektroko erreserba-unitate kopurua (URR) S x B-ren emaitza gisa kalkulaturik; hau da, zerbitzu-eremuaren azalera, kilometro koadrotan, bider banda-zabalera erreserbatua, kHz-tan.

V = URR-ren balioa, bost C koefizienteen arabera zehaztuta; koefiziente horiek Telekomunikazioen Lege Orokorrean ezarrita daude, eta kuantifikazioa, aipatutako lege horren arabera, Estatuaren Aurrekontu Orokorren Legean zehaztuko da.

F (C₁, C₂, C₃, C₄, C₅) = funtzio hori aurretik adierazitako bost koefizienteen emaitza da.

Estatuko lurralde osoan eragiten duten jabari publiko irrati-elektroaren erreserbetan, tasa kalkulatzeko kontuan hartu beharreko S azaleraren balioa 505.990 kilometro koadrokoa izango da.

Hala dagokien irrati-komunikazioetako zerbitzuetan, kontuan hartu beharreko S azaleraren barruan Espainiako jurisdikziopeko urak edo aire-esparrua ere jaso ahal izango dira.

Jabari publiko irrati-elektroa erreserbatzeagatik tasa dela eta ordaindu beharreko gutxieneko zenbatekoa 100 eurotan mantentzen da.

Irrati-komunikazioetako zerbitzu bakoitzean C₁ eta C₅ arteko koefizienteen balioa zehazteko, Telekomunikazioen Lege Orokorra eta berau garatzen duten erregelamendu-arauek ematen dieten esanahia hartu da kontuan; hots:

1.) C₁ koefizientea: Banden erabilera- eta pilaketa-maila, eremu geografiko guztietan. Honako kontzeptu hauek balioesten dira:

Emakida edo baimen bakoitzeko maiztasun kopurua.

Hiriko edo landako gunea.

Zerbitzugunea.

2.) C₂ koefizientea: Zerbitzuari emango zaion erabilera mota, eta, bereziki, zerbitzua ematen duena Telekomunikazioen Lege Orokorraren III. tituluaren zerbitzu publikoetarako ezarritako betebeharrak betetzera behartuta dagoen. Honako kontzeptu hauek balioesten dira:

Beste sare batzuetarako euskarria (azpiegitura).

Hirugarrenentzako prestazioa.

Autoprestazioa.

Eskubide eksklusiboak dituzten telefonia-zerbitzuak.

Irrati-difusioko zerbitzuak.

3.) C₃ koefizientea: Espektroaren banda edo azpibanda. Honako kontzeptu hauek balioesten dira:

Bandaren ezaugarri irrati-elektrokoak (eskatutako zerbitzurako banda egokia den).

Bandari emango zaion erabilera.

Azpibandaren erabilera eksklusiboa edota partekatua.

4.) C_4 koefizientea: Erabiltzen diren tresneria eta teknologia. Honako kontzeptu hauek balioesten dira:

Sare konbentzionalak.
Ausaz esleitutako sareak.
Irrati-loturako modulazioa.
Erradiazio-diagrama.

5.) C_5 koefizientea: Erreserbatutako jabari publikoaren erabilerak edo aprobetxamenduak eragindako balio ekonomikoa. Honako kontzeptu hauek balioesten dira:

Esperientzia ez-komertzialak.
Zerbitzuaren errentagarritasun ekonomikoa.
Bandaren gizarte-interesa.
Merkatuko eskariaren ondoriozko erabilerak.
Biztanleriaren dentsitatea.

Tasa zehazteko orduan aintzat hartu beharreko faktore guztiak kontuan harturik, zerbitzu bakoitzerako hainbat modalitate ezarri dira, eta horietako bakoitzari identifikazio-kode bat esleitu zaio.

Ondoren, koefizienteak haztatzeko faktoreak datoz adierazita, bai eta erreferentzia-balioarekiko izan dezaketen balioespen-marjina ere. Erreferentzia-balioa lehenetsita hartzen da, eta, zerbitzuaren edo egindako erreserbaren izaeragatik, dagokion koefizientea aplikatzerik ez dagoen kasuetan ezartzen da.

C_1 koefizientea: Koefiziente honen bidez, zerbitzu jakin baterako maiztasun-banden okupazio-maila hartzen da kontuan. Horretarako, maiztasun-marjinetako tabulazio bat egin da; beheko eta goiko muturretan, dagozkien zerbitzuetan erabili ohi diren bandak daude jasota. Koefiziente honek erabilera-eremu geografikoa ere hartzen du kontuan; oro har bi hauek bereizten ditu: interes eta erabilera handiko eremuak (hirigune handiak); eta interes eta erabilera txikiko eremuak (udalerrri txikiak eta landa-guneak, esaterako). Hasteko, pilaketa txikieneko eta erabilera eskaseko eremu geografikoetarako erreferentzia- edo unitate-balio bat finkatzen da, eta kontzeptu hauengatik kostu erlatiboa gehienez bira igotzen da, gehien eskatutako maiztasun-bandetan eta interes edo erabilera handiko eremuetan.

Kontzeptua	Balio-eskala	Oharrak
Erreferentzia-balioa	1	Zerbitzu bakoitzean, modalitate batean edo batzuetan aplikatu beharrekoa.
Balio-marjina	1 eta 2 artean	–
Erabilera handiko/txikiko eremua	+ % 25	Eragindako modalitate eta kontzeptuetan, zerbitzu eta maiztasun-bandengatik berariazko irizpideen arabera aplikatu beharrekoak.
Bandaren eskaria	Gehienez + % 20	
Emakidak eta erabiltzaileak	Gehienez + % 30	

C_2 koefizientea: Koefiziente honen bidez, bereizketa egiten da autoprestazio-sareen eta hirugarrenei, kontraprestazio ekonomiko baten truke, irrati-komunikazioen zerbitzu bat emateko xedea duten sareen artean. Azken horien barruan, zerbitzu publiko izaera hartu da kontuan; hala, koefiziente honen balioan, aintzat hartu da Telekomunikazioen Lege

Orokorren I. eranskinean zerbitzu publikoetarako ezarritako hobaria, eta parametro honetarako ezarritako balioan jasota gelditu da.

Kontzeptua	Balio-eskala	Oharrak
Erreferentzia-balioa.	1	Zerbitzu bakoitzean, modalitate batean edo batzuetan aplikatu beharrekoa.
Balio-marjina.	1 eta 2 artean	–
Hirugarrenentzako prestazioa edo autoprestazioa.	Gehienez + % 10	Eragindako modalitate eta kontzeptuetan, zerbitzu eta maiztasun-bandengatik berariazko irizpideen arabera aplikatu beharrekoak.

C_3 koefizientea: C_3 koefizientearen bidez, maiztasun jakin baten edo maiztasunen azpibanda jakin baten jabari publiko irrati-eletrikoaren erreserba emateko modalitateak hartzen dira kontuan, bakarrik edo eremu geografiko zehatz batean beste erabiltzaile batzuekin partekatuta. Aukera horiek zerbitzu mugikorrari ere aplikatzen zaizkio. Beste zerbitzu batzuetan, jabari publiko irrati-eletrikoaren erreserbak eskusiboa izan behar du, bere izaera dela eta. Maiztasunak Esleitzeko Koadro Nazionaleko (CNAF) erabilera-joeren eta aurreikuspenen arabera zerbitzurako egokiak ez diren bandetan eskatutako erreserbek tasa handiagoa izango dute, erabilera irrati-eletrikoak harmonizatzeko joera laguntzarren; hori koefiziente honen balioespenean islatzen da.

Kontzeptua	Balio-eskala	Oharrak
Erreferentzia-balioa.	1	Zerbitzu bakoitzean, modalitate batean edo batzuetan aplikatu beharrekoa.
Balio-marjina.	1 eta 2 artean	–
Maiztasun eskusiboa/partekatua.	Gehienez + % 75	Eragindako modalitate eta kontzeptuetan, zerbitzu eta maiztasun-bandengatik berariazko irizpideen arabera aplikatu beharrekoak.
Maiztasun-bandaren egokitasuna.	Gehienez + % 60	

C_4 koefizientea: Koefiziente horren bidez, beste modu batean hazta daitezke erabilitako teknologiak edo sistemak, irrati-maiztasunen espektroa modu efizienteenean erabiltzen dutenak laguntzeko. Esate baterako, sare mugikorretan, kanala ausaz esleitzeko sistemak erabiltzea hobesten da, esleipen finkoko tradizionalak erabili beharrean. Irrati-loturei dagokienez, erabilitako modulazio mota faktore erabakigarria da banda-zabalerako unitate bakoitzak informazioa igortzeko duen gaitasuna balioesteko orduan, eta hori kontuan hartu da, oro har, maiztasun-bandaren arabera erabilgarri dauden teknologiei so eginez. Irrati-difusioan, kontuan hartu dira irrati-difusio soinu-duneko sistema berriak, analogiko klasikoez gain.

Kontzeptua	Balio-eskala	Oharrak
Erreferentzia-balioa.	2	Zerbitzu bakoitzean, modalitate batean edo batzuetan aplikatu beharrekoa.
Balio-marjina.	1 eta 2 artean	–
Erabilitako teknologia / erreferentziako teknologia.	Gehienez + % 50	Eragindako modalitate eta kontzeptuetan, zerbitzu eta maiztasun-bandengatik berariazko irizpideen arabera aplikatu beharrekoak.

C_5 koefizientea: Koefiziente horren bidez, zerbitzu jakin batek ikuspegi irrati-elektrotik antzekoak diren beste zerbitzu batzuen aurrean duen gizarte-garrantzia hartzen da kontuan. Aintzat hartzen du eskainitako zerbitzuaren interes ekonomiko edo errentagarritasun erlatiboa ere; hala, banda-zabalerako unitate bakoitzeko, gehiago kargatzen ditu interes eta errentagarritasun handiko zerbitzuak, ikuspegi irrati-elektrotik antzekoak izanik, oso bestelako errentagarritasuna duten eta hainbesteko gizarte-garrantzirik ez duten beste batzuk baino.

Irrati-difusioan, zerbitzuaren berezitasunak direla kausa, jabari publiko irrati-elektrotik erreserba jakin baten tasa finkatzeko orduan, faktore erabakigarria izan da aipatutako irratia zerbitzugunean dagoen biztanleria-dentsitatea.

Maiztasunak emisio esperimentalak egiteko erreserbatu direnean, titularrarentzat kontraprestazio ekonomikorik gabe, eta xedea denbora mugatu eta zehatz batez teknologia berriak ikertu eta garatzea denean, C_5 koefizientearen balioa balio orokorraren 100eko 15 izango da.

Kontzeptua	Balio-eskala	Oharrak
Erreferentzia-balioa	1	Zerbitzu bakoitzean, modalitate batean edo batzuetan aplikatu beharrekoa.
Balio-marjina	> 0	–
Errentagarritasun ekonomikoa	Gehienez + % 30	Eragindako modalitate eta kontzeptuetan, zerbitzu eta maiztasun-bandengatik berriazko irizpideen arabera aplikatu beharrekoak.
Zerbitzuaren gizarte-interesa	– % 20ra arte	
Biztanleria	Gehienez + % 100	
Esperientzia ez-komertzialak	– % 85	

Jabari publiko irrati-elektrotik erreserbatzeagatik tasaren kalkulua.
Zerbitzu irrati-elektrotik edo kontuan hartutako modalitateak.
Honako talde edo sailkapen hauek jaso dira:

1. Zerbitzu mugikorrak.
 - 1.1 Lurreko zerbitzu mugikorra eta lotutako zerbitzuak.
 - 1.2 Estaldura nazionalako lurreko zerbitzu mugikorra.
 - 1.3 Komunikazio elektronikoen zerbitzuak (hirugarrenentzako prestazioa).
 - 1.4 Itsasoko zerbitzu mugikorra.
 - 1.5 Zerbitzu mugikor aeronautikoa.
 - 1.6 Satelite bidezko zerbitzu mugikorra.
 - 1.7 Banda zabaleko lurreko komunikazio mugikorren sistemak.
 - 1.8 Trenbide bidezko komunikazioen Europako sistema (GSM-R).
2. Zerbitzu finkoa.
 - 2.1 Puntutik punturako zerbitzu finkoa.
 - 2.2 Puntutik puntu anitzerako zerbitzu finkoa.
 - 2.3 Satelite bidezko zerbitzu finkoa.
 - 2.4 Zerbitzu finkoa 57-64 GHz bitarteko maiztasun-bandan.
3. Irrati-difusioaren zerbitzua.
 - 3.1 Soinudun irrati-difusioa.
 - 3.2 Telebista.
 - 3.3 Irrati-difusioaren zerbitzu osagarriak.

4. Beste zerbitzu batzuk.
 - 4.1 Irrati-nabigazioa.
 - 4.2 Irrati-determinazioa.
 - 4.3 Irrati-lokalizazioa.
 - 4.4 Satelite bidezko zerbitzuak, hala nola eragiketa espazialak, lurraren satelite bidezko esplorazioa, eta beste batzuk.
 - 4.5 Aurreko paragrafoetan jaso gabeko zerbitzuak.

Kontuan hartuz gero zerbitzu irrati-elektrokoen talde horiek, zerbitzua eskaintzeko maiztasun-banda posibleak eta bost koefizienteak –zerbitzu jakin bateko jabari publiko irrati-elektrokoaren erreserben tasa kalkulatzeko aintzat hartu beharreko kontzeptuak edo faktoreak barne–, jarraian adierazitako modalitateak lortzen dira.

1. Zerbitzu mugikorak.

- 1.1 Lurreko zerbitzu mugikorra eta lotutako zerbitzuak.

Sailkapen honen barruan, lurreko zerbitzu mugikorraren sareetarako jabari publiko irrati-elektrokoaren erreserbak eta bestelako modalitate batzuk daude jasota, hala nola portuetako eragiketak eta itsasontziak mugitzekoak, eta kanal bakarreko loturak, banda estuko zerbitzu finkokoak.

Telekomunikazioen Lege Orokorraren I. eranskinaren 3.1 zenbakian ezarritako bost koefizienteetan oinarrituta, hainbat modalitate bereizi behar dira lurreko zerbitzu mugikorraren sareetan, eta bereiz ebaluatu behar dira erreserba jakin baten tasa finkatzeko irizpideak.

Modalitate bakoitzean, tasa kalkulatu ahal izateko nahitaez bereizi behar diren maiztasun-marjinak tabulatu dira, maiztasun-banden okupazio erlatiboa aintzat hartzeko, bai eta Telekomunikazioen Lege Orokorrean jasotako beste alderdi batzuk ere; adibidez, maiztasun-banda jakin bat aurreikusitako zerbitzurako egokia den edo ez.

Maiztasun-marjina horien barruan, CNAF koadroan zerbitzuari erreserbatutako maiztasun-bandetan soilik erreserbatu ahal da jabari publiko irrati-elektrokoa.

Zerbitzu mugikorraren sareei dagokienez, tasa kalkulatzeko orduan, erabilera handiko eremu geografikoaren modalitatea erabiltzen da, oro har; betiere, sare-estaldurak 50.000 biztanle baino gehiagoko udalerrriak biltzen baditu, osotasunean edo partzialki. Maiztasunak hainbat bandatan dauzkaten sareen kasuan, bakoitzari modu independentean aplikatuko zaio eremu geografikoaren kontzeptua.

1.1.9 zenbakian epigrafe honetan jasotako modalitateentzat xedatutakoa hala izanik ere, kanalizazioaren balioa eta erabilitako maiztasun kopurua biderkatzearen emaitza da kontuan hartu beharreko B bandaren zabalera.

1.1.1 Zerbitzu mugikorra, esleipen finkoa/maiztasun partekatua/erabilera txikiko eremua/autoprestazioa.

Kontuan hartu beharreko S azalera dagokion jabari publiko irrati-elektrokoaren erreserban ageri dena da. Kalkulua egiteko, 1.000 kilometro koadroko gutxieneko azalera ezarri da.

Maiztasunak	Koefizienteak					Modalitate-kodea
	C1	C2	C3	C4	C5	
f < 100 MHz.	1,2	1,25	1	1,3	0,4707	1111
100-200 MHz.	1,7	1,25	1	1,3	0,5395	1112
200-400 MHz.	1,6	1,25	1,1	1,3	0,4937	1113
400-1.000 MHz.	1,5	1,25	1,2	1,3	0,5049	1114

Maiztasunak	Kofizienteak					Modalitate-kodea
	C1	C2	C3	C4	C5	
1.000-3.000 MHz.	1,1	1,25	1,1	1,3	0,4590	1115
> 3.000 MHz.	1	1,25	1,2	1,3	0,4590	1116

1.1.2 Zerbitzu mugikorra, esleipen finkoa/maiztasun partekatua/erabilera handiko eremua/autoprestazioa.

Kontuan hartu beharreko S azalera dagokion jabari publiko irrati-elektrikoaren erreserban ageri dena da. Kalkulua egiteko, 1.000 kilometro koadroko gutxieneko azalera ezarri da.

Maiztasunak	Kofizienteak					Modalitate-kodea
	C1	C2	C3	C4	C5	
f < 100 MHz.	1,4	1,25	1	1,3	0,4707	1121
100-200 MHz.	2	1,25	1	1,3	0,5395	1122
200-400 MHz.	1,8	1,25	1,1	1,3	0,4937	1123
400-1.000 MHz.	1,7	1,25	1,2	1,3	0,5049	1124
1.000-3.000 MHz.	1,25	1,25	1,1	1,3	0,4590	1125
> 3.000 MHz.	1,15	1,25	1,2	1,3	0,4590	1126

1.1.3 Zerbitzu mugikorra, esleipen finkoa/maiztasun eskusiboa/erabilera txikiko eremua/autoprestazioa.

Kontuan hartu beharreko S azalera dagokion jabari publiko irrati-elektrikoaren erreserban ageri dena da. Kalkulua egiteko, 1.000 kilometro koadroko gutxieneko azalera ezarri da.

Maiztasunak	Kofizienteak					Modalitate-kodea
	C1	C2	C3	C4	C5	
f < 100 MHz.	1,2	1,25	1,5	1,3	0,4707	1131
100-200 MHz.	1,7	1,25	1,5	1,3	0,5395	1132
200-400 MHz.	1,6	1,25	1,65	1,3	0,4937	1133
400-1.000 MHz.	1,5	1,25	1,8	1,3	0,5049	1134
1.000-3.000 MHz.	1,1	1,25	1,65	1,3	0,4590	1135
> 3.000 MHz.	1	1,25	1,8	1,3	0,4590	1136

1.1.4 Zerbitzu mugikorra, esleipen finkoa/maiztasun eskusiboa/erabilera handiko eremua/autoprestazioa.

Kontuan hartu beharreko S azalera dagokion jabari publiko irrati-elektrikoaren erreserban ageri dena da. Kalkulua egiteko, 1.000 kilometro koadroko gutxieneko azalera ezarri da.

Maiztasunak	Kofizienteak					Modalitate-kodea
	C1	C2	C3	C4	C5	
f < 100 MHz.	1,4	1,25	1,5	1,3	0,4707	1141
100-200 MHz.	2	1,25	1,5	1,3	0,5395	1142
200-400 MHz.	1,8	1,25	1,65	1,3	0,4937	1143
400-1.000 MHz.	1,7	1,25	1,8	1,3	0,5049	1144
1.000-3.000 MHz.	1,25	1,25	1,65	1,3	0,4590	1145
> 3.000 MHz.	1,15	1,25	1,8	1,3	0,4590	1146

1.1.5 Zerbitzu mugikorra, esleipen finkoa/maiztasun eskusiboa/edozein eremu/hirugarrentzako prestazioa.

Kontuan hartu beharreko S azalera dagokion jabari publiko irrati-elektrikoaren erreserban ageri dena da. Kalkulua egiteko, 1.000 kilometro koadroko gutxieneko azalera ezarri da.

Maiztasunak	Kofizienteak					Modalitate-kodea
	C1	C2	C3	C4	C5	
f < 100 MHz.	1,4	1,375	1,5	1,3	0,4707	1151
100-200 MHz.	2	1,375	1,5	1,3	0,5395	1152
200-400 MHz.	1,8	1,375	1,65	1,3	0,4937	1153
400-1.000 MHz.	1,7	1,375	1,8	1,3	0,5049	1154
1.000-3.000 MHz.	1,25	1,375	1,65	1,3	0,4590	1155
> 3.000 MHz.	1,15	1,375	1,8	1,3	0,4590	1156

1.1.6 Zerbitzu mugikorra, ausazko esleipena/maiztasun eskusiboa/edozein eremu/autoprestazioa.

Kontuan hartu beharreko S azalera dagokion jabari publiko irrati-elektrikoaren erreserban ageri dena da. Kalkulua egiteko, 1.000 kilometro koadroko gutxieneko azalera ezarri da.

Maiztasunak	Kofizienteak					Modalitate-kodea
	C1	C2	C3	C4	C5	
f < 100 MHz.	1,1	1,25	2	1	0,1491	1161
100-200 MHz.	1,6	1,25	2	1	0,21468	1162
200-400 MHz.	1,7	1,25	2	1	0,1491	1163

Maiztasunak	Kofizienteak					Modalitate-kodea
	C1	C2	C3	C4	C5	
400-1.000 MHz.	1,4	1,25	2	1	0,1640	1164
1.000-3.000 MHz.	1,1	1,25	2	1	0,1491	1165
> 3.000 MHz.	1	1,25	2	1	0,1491	1166

1.1.7 Zerbitzu mugikorra, ausazko esleipena/maiztasun eskusiboa/edozein eremu/hirugarrenentzako prestazioa.

Kontuan hartu beharreko S azalera dagokion jabari publiko irrati-elektikoaren erreserban ageri dena da. Kalkulua egiteko, 1.000 kilometro koadroko gutxieneko azalera ezarri da.

Maiztasunak	Kofizienteak					Modalitate-kodea
	C1	C2	C3	C4	C5	
f < 100 MHz.	1,1	1,375	2	1	0,1491	1171
100-200 MHz.	1,6	1,375	2	1	0,1491	1172
200-400 MHz.	1,7	1,375	2	1	0,1097	1173
400-1.000 MHz.	1,4	1,375	2	1	0,1491	1174
1.000-3.000 MHz.	1,1	1,375	2	1	0,1491	1175
> 3.000 MHz.	1	1,375	2	1	0,1491	1176

1.1.8 Irrati-bilaketa (maiztasun eskusiboa/edozein eremu/hirugarrenentzako prestazioa).

Kontuan hartu beharreko S azalera dagokion jabari publiko irrati-elektikoaren erreserban ageri dena da.

Maiztasunak	Kofizienteak					Modalitate-kodea
	C1	C2	C3	C4	C5	
f < 50 MHz.	1	2	1	2	19,5147	1181
50-174 MHz.	1	2	1	1,5	0,3444	1182
> 174 MHz.	1	2	1,3	1	0,3444	1183

1.1.9 Irismen laburreko gailuak: Teleagintak, alarmak, datuak, etab./edozein eremu.

Multzo honetan, irismen laburreko sistemak sartzen dira; betiere, sarearen zerbitzu-erradioa 3 kilometrotik gorakoa ez bada. Kontuan hartu behar den S azalera zerbitzuguneari dagokiona izango da.

Estaldura handiagoko saretarako, gainerako zerbitzu mugikorren edo zerbitzu finkoen artetik egokia den modalitatea aplikatuko da, zerbitzuaren izaera eta sarearen berezko ezaugarriak aintzat hartuta.

Kontuan hartu beharreko B banda-zabalera hauxe izango da: kanalizazio-balioa erabilitako maiztasun kopuruaz biderkatzearen emaitza. Emisioaren ezaugarri teknikoaren ondorioz, adierazitako kanalizazioetako bat ere aplikatzerik ez badago, emisioaren

izendapenaren banda-zabalera hartuko da, eta, halakorik ez badago, CNAF koadroan aplikazio horietara zuzendutako maiztasun-banda osoa aplikatuko da.

Maiztasunak	Kofizienteak					Modalitate-kodea
	C1	C2	C3	C4	C5	
f < 50 MHz.	1,7	1,25	1,5	1	19,5147	1191
50-174 MHz.	2	1,25	1,5	1	19,5147	1192
406-470 MHz.	2	1,25	1,5	1	19,5147	1193
862-870 MHz.	1,7	1,25	1,5	1	19,5147	1194
> 1.000 MHz.	1,7	1,25	1,5	1	19,5147	1195

1.2 Estaldura nazionaleko lurreko zerbitzu mugikorra.

Kontuan hartu beharreko B banda-zabalera, kanalizazio-balioa erabilitako maiztasun kopuruaz biderkatzearen emaitza da.

1.2.1 Zerbitzu mugikorra, esleipen finkoa/estaldura nazionaleko sareak.

Kontuan hartu beharreko S azalera lurralde nazional osoari dagokiona da.

Maiztasunak	Kofizienteak					Modalitate-kodea
	C1	C2	C3	C4	C5	
f < 100 MHz.	1,4	1,375	2	1,25	$22,704 \cdot 10^{-3}$	1211
100-200 MHz.	1,6	1,375	2	1,25	$22,704 \cdot 10^{-3}$	1212
200-400 MHz.	1,44	1,375	2	1,25	$22,704 \cdot 10^{-3}$	1213
400-1.000 MHz.	1,36	1,375	2	1,25	$22,704 \cdot 10^{-3}$	1214
1.000-3.000 MHz.	1,25	1,375	2	1,25	$22,704 \cdot 10^{-3}$	1215
> 3.000 MHz.	1,15	1,375	2	1,25	$22,704 \cdot 10^{-3}$	1216

1.2.2 Zerbitzu mugikorra, ausazko esleipena/estaldura nazionaleko sareak.

Kontuan hartu beharreko S azalera lurralde nazional osoari dagokiona da.

Maiztasunak	Kofizienteak					Modalitate-kodea
	C1	C2	C3	C4	C5	
f < 100 MHz.	1,1	1,375	2	1	0,164010	1221
100-200 MHz.	1,6	1,375	2	1	0,236148	1222
200-400 MHz.	1,7	1,375	2	1	0,164010	1223
400-1.000 MHz.	1,4	1,375	2	1	0,164010	1224
1.000-3.000 MHz.	1,1	1,375	2	1	0,164010	1225
> 3.000 MHz.	1	1,375	2	1	0,164010	1226

1.3 Komunikazio elektronikoen zerbitzuak (hirugarrenentzako prestazioa).

1.3.1 Komunikazio elektronikoen lurreko sistemak (hirugarrenentzako prestazioa).

Kontuan hartu beharreko *S* azalera eta *B* banda-zabalera jabari publiko irrati-elektrikoaren erreserban ageri direnak izango dira.

Maiztasunak	Koefizienteak					Modalitate-kodea
	C1	C2	C3	C4	C5	
Bandak: 703-733 MHz, 738-753 MHz, 758-788 MHz, 790-821 MHz, 832-862 MHz, 880-915 MHz eta 925-960 MHz.	2	2	1	1,8	$3,543 \cdot 10^{-2}$	1321
Bandak: 1710-1785 MHz eta 1805-1880 MHz.	2	2	1	1,6	$3,190 \cdot 10^{-2}$	1331
Bandak: 1900-1980, 2010-2025 eta 2110-2170 MHz.	2	2	1	1,5	$4,251 \cdot 10^{-2}$	1351
2500-2690 MHz-ko banda.	2	2	1	1,5	$9,182 \cdot 10^{-3} K$	1381
1427-1517 MHz-ko banda.	2	2	1	1,5	$2,041 \cdot 10^{-2}$	1322
3400-3800 MHz-ko banda.	2	2	1	1,5	$1,19 \cdot 10^{-2}$	1323

Biztanle gutxiko autonomia-erkidegoetan lizitazio-prozedura baten bidez esleitutako emakidetan, 2500-2690 MHz-ko bandan, C5 koefizientea biztanleriaren funtzioiko K faktore baten bidez haztatzen da. K koefizientearen balio puntualak eta eragindako autonomia-erkidegoak hauek dira: Gaztela-Mantxa, $K=0,284$; Extremadura, $K=0,286$; Gaztela eta Leon, $K=0,293$; Aragoi, $K=0,304$; Nafarroa, $K=0,66$; eta Errioxa, $K=0,688$.

1.3.2 Aireontzien barruko komunikazio-zerbitzu mugikorak (hirugarrenentzako prestazioa).

Kontuan hartu beharreko *S* azalera 1 kilometro koadrokoa izango da 200 aireontziko edo zatiki bakoitzeko.

Kontuan hartu beharreko *B* banda-zabalera erabilitako teknologiaren arabera erreserbatutako guztia izango da.

Maiztasunak	Koefizienteak					Modalitate-kodea
	C1	C2	C3	C4	C5	
CNAFen aurreikusitako bandetan.	1,4	2	1	1	1,20	1371

1.3.3 Itsasontzien barruko komunikazio-zerbitzu mugikorak (hirugarrenentzako prestazioa).

Kontuan hartu beharreko *S* azalera 1 kilometro koadrokoa izango da 200 itsasontziko edo zatiki bakoitzeko.

Kontuan hartu beharreko *B* banda-zabalera erabilitako teknologiaren arabera erreserbatutako guztia izango da.

Maiztasunak	Koefizienteak					Modalitate-kodea
	C1	C2	C3	C4	C5	
CNAFen aurreikusitako bandetan.	1,4	2	1	1	1,40	1391

1.4 Itsasoko zerbitzu mugikorra.

Kontuan hartu beharreko *S* azalera dagokion jabari publiko irrati-elektrikoaren erreserban ageri dena da.

Kontuan hartu beharreko *B* banda-zabalera, kanalizazio-balioa erabilitako maiztasun kopuruaz biderkatzearen emaitza da.

Maiztasunak	Koefizienteak					Modalitate-kodea
	C1	C2	C3	C4	C5	
$f < 30$ MHz.	1	1,25	1,25	1	0,212355	1411
$f \geq 30$ MHz.	1,3	1,25	1,25	1	0,9730	1412

1.5 Zerbitzu mugikor aeronautikoa.

Kontuan hartu beharreko *S* azalera dagokion jabari publiko irrati-elektrikoaren erreserban ageri dena da.

Kontuan hartu behar den banda-zabalera hauxe da: kanalizazio-balioa erabilitako maiztasun kopuruaz biderkatzearen emaitza.

Maiztasunak	Koefizienteak					Modalitate-kodea
	C1	C2	C3	C4	C5	
$f < 30$ MHz.	1,3	1,25	1,25	1	0,1146	1511
$f \geq 30$ MHz.	1,3	1,25	1,25	1	0,1146	1512

1.6 Satelite bidezko zerbitzu mugikorra.

Kontuan hartu beharreko *S* azalera sistema edo estazio horretan baimendutako zerbitzu-eremuaren areari dagokiona izango da. Kalkulua egiteko, 100.000 kilometro koadroko gutxieneko azalera ezarri da.

Kontuan hartu beharreko *B* banda-zabalera, maiztasun bakoitzean sistemari erreserbatutako banda-zabaleraren batura izango da, goranzko zein beheranzko lotura zenbatuta.

1.6.1 Satelite bidezko lurreko zerbitzu mugikorra.

Maiztasunak	Koefizienteak					Modalitate-kodea
	C1	C2	C3	C4	C5	
CNAFen aurreikusitako bandetan.	1	1,25	1	1	$1,950 \cdot 10^{-3}$	1611

1.6.2 Satelite bidezko zerbitzu mugikor aeronautikoa.

Maiztasunak	Kofizienteak					Modalitate-kodea
	C1	C2	C3	C4	C5	
10-15 GHz-eko banda	1	1	1	1	$0,865 \cdot 10^{-5}$	1621
1500-1700 MHz-ko banda	1	1	1	1	$7,852 \cdot 10^{-5}$	1622

1.6.3. Satelite bidezko itsasoko zerbitzu mugikorra.

Maiztasunak	Kofizienteak					Modalitate-kodea
	C1	C2	C3	C4	C5	
1500-1700 MHz-ko banda	1	1	1	1	$2,453 \cdot 10^{-4}$	1631

1.6.4 Satelite bidezko komunikazio elektronikoen sistemak, hala badagokio, lurreko mendeko osagaia (hirugarrenentzako prestazioa) barne.

Zenbaki honetan xedatutakoa satelite bidezko mugikorren sistema integratuetarako espektrorreserbei aplikatzekoa da; barnean hartzen du, hala dagokionean, satelite bidez eskainitako zerbitzuak indartzeko mendeko lur-sare bat, satelitearekin ikuspegi zuzen jarraitua mantentzerik ez dagoenean, eta satelite-sistemaren maiztasun berak erabiltzen dituen, 2008/626/EE Erabakiarekin bat.

Kontuan hartu beharreko *S* azalera lurralde nazional osoari dagokiona da.

Kontuan hartu beharreko *B* banda-zabalera dagokion jabari publiko irrati-elektikoaren erreserban ageri dena izango da.

Beste estazioetarako, zenbaki honen lehenengo paragrafoan adierazitakoez bestelakoetarako, sistemari ahalmena eransteke baimenduta egonez gero, haietako bakoitzaren zerbitzuguneari dagokion azalera eta baimendutako banda-zabalera hartuko dira kontuan, baita honako taula honetan adierazitako kofizienteak ere:

Maiztasunak	Kofizienteak					Modalitate-kodea
	C1	C2	C3	C4	C5	
1980-2010 eta 2170-2200 MHz-ko bandak (satelite-sistema).	1	1,25	1	1	$0,65 \cdot 10^{-3}$	1641
Lurreko estazioak, satelite-sistemari erantsitako ahalmenetarako.	1	1,25	1	1	$0,98 \cdot 10^{-3}$	1642

1.7 Banda zabaleko lurreko komunikazio mugikorren sistemak.

Zenbaki honetan xedatutakoa komunikazio mugikorren lurreko sistemetarako espektrorreserbei aplikatu behar zaie, baldin eta 1.3.1 epigrafean zehaztutakoez bestelako maiztasun-bandetan funtzionatzen badute, eta 1 MHz baino gehiagoko transmisioko banda-zabalerako kanal irrati-elektikoak erabiltzen badituzte.

Kontuan hartu beharreko *S* azalera dagokion jabari publiko irrati-elektikoaren erreserban ageri dena da. Kalkulua egiteko, 1 kilometro koadroko gutxieneko azalera ezarri da.

Kontuan hartu beharreko B banda-zabalera, kanalizazio-balioa erabilitako maiztasun kopuruaz biderkatzearen emaitza da.

Maiztasunak	Koefizienteak					Modalitate-kodea
	C1	C2	C3	C4	C5	
f < 100 MHz.	1,4	1,375	1,5	1	0,1377	1711
100-200 MHz.	2	1,375	1,5	1	0,1620	1712
200-400 MHz.	1,8	1,375	1,6	1	0,1725	1713
400-1.000 MHz.	1,7	1,375	1,8	1	0,1725	1714
1.000-3.000 MHz.	1,25	1,375	1,6	1	0,1411	1715
> 3.000 MHz.	1,15	1,375	1,6	1	0,1411	1716

1.8 Trenbide bidezko komunikazioen Europako sistema (GSM-R).

Kontuan hartu beharreko S azalera, maiztasunen erreserba egiten den ibilbide guztien luzeraren batura (kilometrotan) hamar kilometroko zabalera biderkatzearen emaitza da.

Kontuan hartu beharreko B banda-zabalera, dagokion jabari publiko irrati-elektikoaren erreserban ageri den banda-zabalera osoa izango da.

Maiztasunak	Koefizienteak					Modalitate-kodea
	C1	C2	C3	C4	C5	
CNAF UN 40.	2	2	1	1,8	0,02812	1361

2. Zerbitzu finkoa.

Zenbaki honetan, zerbitzuaren modalitateetako maiztasunen erreserba zehatzez gain, banda-erreserba deitutakoak ere jasotzen dira; horrelakoetan, erreserbak hartutako espektrio-zatiari esker, hainbat kanal irrati-elektiko batera erabil ditzake operadoreak, eremu geografiko berean.

Operadore batek azpiegitura irrati-elektikoak era masiboan hedatzen dituenean, banda-erreserbak justifikatuta daude hirugarrenentzako zerbitzuak emateko komunikazio elektronikoko sareentzat soilik edota ikus-entzunezko zerbitzuen seinale-garraioentzat, zirkulazio-pilaketaren beharrak direla eta erradioelektrokoki elkarrekin bateragarriak diren kanal taldeak eduki behar diren eremu geografikoetan.

2.1 Puntutik punturako zerbitzu finkoa.

Oro har, erabilera handiko eremu geografikoaren modalitatea banako baoetan edo sare irrati-elektiko zabalaren parte direnetan aplikatuko da, baldin eta baoko muturreko estazioetakoren bat 250.000 biztanle baino gehiagoko udalerriren batean kokaturik badago, edo inguruan, edota baoaren irrati-loturaren sorta nagusiak aipatutako eremuaren bertikala zeharkatzen badu.

Erabilitako maiztasun bakoitzean, haren balio nominala hartuko da kontuan, kanalaren muturrek tabulatutako maiztasun-marjinetako bi barne hartu ala ez; eta balio nominala mutur horietako batekin bat badator, tasaren zenbateko txikiena duen marjina hartuko da.

2.1.1 Zerbitzu finkoa, puntutik puntura/maiztasun eskusiboa/erabilera txikiko eremua/autoprestazioa.

Tasaren zenbateko osoa sareko bao irrati-elektiko bakoitzaren banakako tasen baturaren emaitza izango da, aipatutako baoaren ezaugarrien arabera kalkulaturik.

Bao bakoitzean kontuan hartu beharreko *S* azalera, kilometrotan duen luzera kilometro bateko zabaleraz biderkatzearen emaitza izango da.

Bao bakoitzean kontuan hartu beharreko *B* banda-zabalera, erabilitako kanalizazioaren balioa edo, horren ezean, emisioaren izendapenaren arabera banda-zabalera, transmisioaren bi noranzkoetan erabilitako maiztasun kopuruaz biderkatzearen emaitza izango da. Polarizazio bikoitzeko maiztasunak erreserbatuta dituzten bao irrati-elektrokoetan, tasa kalkulatzeko orduan, maiztasun kopuru bikoitzaren erreserba egingo balitz bezala hartuko da; dena den, banakako tasaren balioari % 25eko murrizketa aplikatuko zaio.

Maiztasunak	Koefizienteak					Modalitate-kodea
	C1	C2	C3	C4	C5	
f < 1.000 MHz.	1,3	1	1,3	1,25	0,4	2111
1.000-3.000 MHz.	1,25	1	1,45	1,2	0,23429	2112
3.000-10.000 MHz.	1,25	1	1,15	1,15	0,21971	2113
10-24 GHz.	1,2	1	1,1	1,15	0,19770	2114
24-39,5 GHz.	1,1	1	1,05	1,1	0,19770	2115
39,5-57 GHz, eta > 64 GHz.	1	1	1	1	0,04483	2116

2.1.2 Zerbitzu finkoa, puntutik puntura/maiztasun eskusiboa/erabilera handiko eremua/autoprestazioa.

Tasaren zenbateko osoa sareko bao irrati-elektroko bakoitzaren banakako tasen baturaren emaitza izango da, aipatutako baoaren ezaugarrien arabera kalkulaturik.

Bao bakoitzean kontuan hartu beharreko *S* azalera, kilometrotan duen luzera kilometro bateko zabaleraz biderkatzearen emaitza izango da.

Bao bakoitzean kontuan hartu beharreko *B* banda-zabalera, erabilitako kanalizazioaren balioa edo, horren ezean, emisioaren izendapenaren arabera banda-zabalera, transmisioaren bi noranzkoetan erabilitako maiztasun kopuruaz biderkatzearen emaitza izango da. Polarizazio bikoitzeko maiztasunak erreserbatuta dituzten bao irrati-elektrokoetan, tasa kalkulatzeko orduan, maiztasun kopuru bikoitzaren erreserba egingo balitz bezala hartuko da; dena den, banakako tasaren balioari % 25eko murrizketa aplikatuko zaio.

Maiztasunak	Koefizienteak					Modalitate-kodea
	C1	C2	C3	C4	C5	
f < 1.000 MHz.	1,6	1	1,3	1,25	0,235	2121
1.000-3.000 MHz.	1,55	1	1,45	1,2	0,235	2122
3.000-10.000 MHz.	1,55	1	1,15	1,15	0,22	2123
10-24 GHz.	1,5	1	1,1	1,15	0,198	2124
24-39,5 GHz.	1,3	1	1,05	1,1	0,198	2125
39,5-57 GHz, eta > 64 GHz.	1,2	1	1	1	0,045	2126

2.1.3 Zerbitzu finkoa, puntutik puntura/maiztasun eskusiboa/hirugarrenentzako prestazioa.

Tasaren zenbateko osoa sareko bao irrati-elektriko bakoitzaren banakako tasen baturaren emaitza izango da, aipatutako baoaren ezaugarrien arabera kalkulaturik.

Bao bakoitzean kontuan hartu beharreko *S* azalera, kilometrotan duen luzera kilometro bateko zabalera biderkatzearen emaitza izango da.

Bao bakoitzean kontuan hartu beharreko *B* banda-zabalera, erabilitako kanalizazioaren balioa edo, horren ezean, emisioaren izendapenaren arabeko banda-zabalera, transmisioaren bi noranzkoetan erabilitako maiztasun kopuruaz biderkatzearen emaitza izango da. Polarizazio bikoitzeko maiztasunak erreserbatuta dituzten bao irrati-elektrikoetan, tasa kalkulatzeko orduan, maiztasun kopuru bikoitzaren erreserba egingo balitz bezala hartuko da; dena den, banakako tasaren balioari % 25eko murrizketa aplikatuko zaio.

Maiztasunak	Kofizienteak					Modalitate-kodea
	C1	C2	C3	C4	C5	
f < 1.000 MHz.	1,3	1,05	1,3	1,25	0,2310365	2151
1.000-3.000 MHz.	1,25	1,05	1,7	1,2	0,22083	2152
3.000-10.000 MHz.	1,25	1,05	1,15	1,15	0,215526	2153
10-24 GHz.	1,2	1,05	1,1	1,15	0,193902	2154
24-39,5 GHz.	1,1	1,05	1,05	1,1	0,193902	2155
39,5-57 GHz, eta > 64 GHz.	1	1,05	1	1	0,044064	2156

2.1.4 Zerbitzu finkoa, puntutik puntura/banda-erreserbak Espainia osoan.

Tasa kalkulatzeko orduan, erreserbatutako banda-zabalera hartuko da kontuan, Espainia osoko azaleraren gainean, esleitutako banda osoa edo zati bat berrerabili den edo ez alde batera utzita.

Maiztasunak	Kofizienteak					Modalitate-kodea
	C1	C2	C3	C4	C5	
f < 1.000 MHz.	1,3	1	1,3	1,25	$2,5515 \cdot 10^{-3}$	2161
1.000-3.000 MHz.	1,25	1	1,2	1,2	$2,5515 \cdot 10^{-3}$	2162
3.000-10.000 MHz.	1,25	1	1,15	1,15	$2,5515 \cdot 10^{-3}$	2163
10-24 GHz.	1,2	1	1,1	1,15	$2,5515 \cdot 10^{-3}$	2164
24-39,5 GHz.	1,1	1	1,05	1,05	$2,5515 \cdot 10^{-3}$	2165
39,5-57 GHz, eta > 64 GHz.	1	1	1	1	$0,6248 \cdot 10^{-3}$	2166

2.1.5 Zerbitzu finkoa, puntutik puntura/probintziako edo probintzia anitzeko banda-erreserbak.

Zenbaki honetan xedatutakoa probintzia baterako edo gehiagorako banda-erreserbei aplikatzekoa da, haien estaldura-eremua gehienez ere 250.000 kilometro koadrokoa den kasuetan.

Dagokion tasa kalkulatzeko orduan, erreserbatutako banda-zabalera hartuko da kontuan, zerbitzugunearen azalaren gainean, esleitutako maiztasun guztiak edo batzuk berrerabili diren edo ez alde batera utzita.

Maiztasunak	Kofizienteak					Modalitate-kodea
	C1	C2	C3	C4	C5	
f < 1.000 MHz.	1,3	1	1,3	1,25	4,858 10 ⁻³	2181
1.000-3.000 MHz.	1,25	1	1,2	1,2	4,858 10 ⁻³	2182
3-10 GHz.	1,25	1	1,15	1,15	4,858 10 ⁻³	2183
10-24 GHz.	1,2	1	1,1	1,15	4,858 10 ⁻³	2184
24-39,5 GHz.	1,1	1	1,05	1,05	4,858 10 ⁻³	2185
39,5-57 GHz, eta > 64 GHz.	1	1	1	1	1,215 10 ⁻³	2186

2.2 Puntutik puntu anitzerako zerbitzu finkoa.

Erabilitako maiztasun bakoitzean, haren balio nominala hartuko da kontuan, kanalaren muturrek tabulatutako maiztasun-marjinetako bi barne hartu ala ez; eta balio nominala mutur horietako batekin bat badator, tasaren zenbateko txikiena duen marjina hartuko da.

2.2.1 Zerbitzu finkoa, puntutik puntu anitzera/maiztasun eskusiboa/edozein eremu/autoprestazioa.

Kontuan hartu beharreko S azalera dagokion jabari publiko irrati-elektrikoaren erreserban adierazitako zerbitzu-eremua izango da.

Kontuan hartu beharreko B banda-zabalera emisioaren ezaugarri teknikoetatik aterako da.

Maiztasunak	Kofizienteak					Modalitate-kodea
	C1	C2	C3	C4	C5	
f < 1.000 MHz.	1,5	1	1,3	1,25	0,1	2211
1.000-3.000 MHz.	1,35	1	1,25	1,2	0,04038	2212
3.000-10.000 MHz.	1,25	1	1,15	1,15	0,0238	2213
10-24 GHz.	1,2	1	1,1	1,15	0,03569	2214
24-39,5 GHz.	1,1	1	1,05	1,1	0,04406	2215
39,5-57 GHz, eta > 64 GHz.	1	1	1	1	0,0042	2216

2.2.2 Zerbitzu finkoa, puntutik puntu anitzera/maiztasun eskusiboa/edozein eremu/hirugarrenentzako prestazioa.

Kontuan hartu beharreko S azalera dagokion jabari publiko irrati-elektrikoaren erreserban adierazitako zerbitzu-eremua izango da; salbuespen gisa, hala ere, 2235 modalitateko kode-erreserben kasuan, kalkulua egiteko, 80 kilometro koadroko gutxieneko azalera ezarri da.

Kontuan hartu beharreko *B* banda-zabalera emisioaren ezaugarri teknikoetatik aterako da.

Maiztasunak	Koefizienteak					Modalitate-kodea
	C1	C2	C3	C4	C5	
f < 1.000 MHz.	1,5	1	1,3	1,25	0,0505	2231
1.000-3.000 MHz.	1,35	1	1,25	1,2	0,0428	2232
3.000-10.000 MHz.	1,25	1	1,15	1,15	0,0253	2233
10-24 GHz.	1,2	1	1,1	1,15	0,0377	2234
24-39,5 GHz.	1,38	1	1,05	1,1	0,0377	2235
39,5-57 GHz, eta > 64 GHz.	1	1	1	1	0,0062	2236

2.2.3 Zerbitzu finkoa, puntutik puntu anitzera/banda-erreserbak Espainia osoan.

Kontuan hartu beharreko *B* banda-zabalera dagokion jabari publiko irrati-elektikoaren erreserban adierazitakoa izango da, Espainia osoari dagokion *S* azaleraren gainean, esleitutako banda osoa edo zati bat berrerabili den edo ez alde batera utzita.

Maiztasunak	Koefizienteak					Modalitate-kodea
	C1	C2	C3	C4	C5	
f < 1.000 MHz.	1,3	1	1,3	1,25	$2,86722 \cdot 10^{-3}$	2241
1.000-3.000 MHz.	1,35	1	1,25	1,2	$2,86722 \cdot 10^{-3}$	2242
3.000-10.000 MHz; 3400-3800 MHz bazterturik	1,25	1	1,15	1,15	$2,86722 \cdot 10^{-3}$	2243
10-24 GHz.	1,2	1	1,1	1,15	$2,86722 \cdot 10^{-3}$	2244
24-39,5 GHz.	1,1	1	1,05	1,05	$2,86722 \cdot 10^{-3}$	2245
39,5-57 GHz, eta > 64 GHz.	1	1	1	1	$0,70278 \cdot 10^{-3}$	2246

2.2.4 Zerbitzu finkoa, puntutik puntu anitzera/probintziako edo probintzia anitzeko banda-erreserbak.

Zenbaki honetan xedatutakoa probintzia baterako edo gehiagorako espektro-erreserbei aplikatzekoa da, haien zerbitzu-eremua gehienez ere 250.000 kilometro koadrokoa den kasuetan.

Kontuan hartu beharreko *B* banda-zabalera dagokion jabari publiko irrati-elektikoaren erreserban adierazitakoa izango da, estalitako azaleraren gainean, esleitutako banda osoa edo zati bat berrerabili den edo ez alde batera utzita.

Maiztasunak	Koefizienteak					Modalitate-kodea
	C1	C2	C3	C4	C5	
f < 1.000 MHz.	1,3	1	1,3	1,25	0,27243	2251
1.000-3.000 MHz.	1,35	1	1,25	1,2	0,27243	2252
3.000-10.000 MHz.	1,25	1	1,15	1,15	0,27243	2253

Maiztasunak	Kofizienteak					Modalitate-kodea
	C1	C2	C3	C4	C5	
10-24 GHz.	1,2	1	1,1	1,15	0,27243	2254
24-39,5 GHz.	1,1	1	1,05	1,05	0,27243	2255
39,5-57 GHz, eta > 64 GHz.	1	1	1	1	0,06809	2256

2.3 Satelite bidezko zerbitzu finkoa.

Kontuan hartu beharreko S azalera zerbitzu-eremuari dagokiona izango da; oro har, eta bestelakorik zehaztu ezean, eremu hori Espainia osoko azalera dagokiona izango da. Nolanahi ere, kalkulua egiteko, epigrafeetarako ondoren zehaztutako gutxieneko azalera aplikatuko dira.

Maiztasun bakoitzerako kontuan hartu behar den banda-zabalera emisioaren izendapenean zehaztutakoa izango da, eta goranzko zein beheranzko loturen banda-zabalerak hartuko dira kontuan, dagokien azalera barne. Horretatik kanpo gelditzen dira irradi-difusioko konexio-loturak; horrelakoetan banda-zabalera bakarrik hartuko da kontuan, goranzko lotura bakarrik baita.

2.3.1 Satelite bidezko puntutik punturako zerbitzu finkoa, satelite bidezko zerbitzu mugikorren konexio-loturak barne hartuta, bai eta satelite bidezko irradi-difusioko kontribuzio-loturak ere (puntutik puntu anitzera).

Puntutik punturako loturetan, goranzko loturan zein beheranzkoan, 31.416 kilometro koadroko S azalera hartuko da kontuan. Kategoria honetan, puntutik punturako irradi-difusioko kontribuzio-loturak ere jasoko dira. Puntutik puntu anitzetako kontribuzio-loturetan, 31.416 kilometro koadroko S azalera hartuko da kontuan goranzko loturarako; beheranzkoan, berriz, zerbitzu-eremuaren azalera, zeina, oro har, Espainia osoaren azalera izango den; dena den, kalkulua egiteko, 100.000 kilometro koadroko gutxieneko azalera ezarri da.

Maiztasunak	Kofizienteak					Modalitate-kodea
	C1	C2	C3	C4	C5	
f < 3.000 MHz.	1,50	1,25	1,50	1,20	$1,950 \cdot 10^{-4}$	2311
3-17 GHz.	1,25	1,25	1,15	1,15	$1,950 \cdot 10^{-4}$	2312
> 17 GHz.	1,0	1,25	1,0	1,20	$0,360 \cdot 10^{-4}$	2315

2.3.2 Satelite bidezko irradi-difusioko (soinuduna eta telebista) zerbitzuaren konexio-loturak.

Satelite bidezko irradi-difusio (soinuduna eta telebista) zerbitzuaren konexio-loturei dagokienez (goranzko lotura), kalkulua egiteko, 31.416 kilometro koadroko S azalera hartuko da kontuan.

Maiztasunak	Kofizienteak					Modalitate-kodea
	C1	C2	C3	C4	C5	
f < 3.000 MHz.	1,50	1,25	1,50	1,20	$1,7207 \cdot 10^{-4}$	2321
3-30 GHz.	1,25	1,25	1,50	1,20	$1,7207 \cdot 10^{-4}$	2322
> 30 GHz.	1,0	1,25	1,0	1,20	$1,7207 \cdot 10^{-4}$	2324

2.3.3 VSAT (satelite bidezko datu-sareak) eta SNG (satelite bidezko erreportajeen lotura garraiagarriak) erako zerbitzuak.

Zerbitzugunearen azalera hartuko da kontuan, eta, kalkulua egiteko, 12.500 kilometro koadroko gutxieneko azalera ezarri da. SNG loturei dagokienez, 20.000 kilometro koadroko azalera hartuko da kontuan. Aurreko kasu guztietan, azalera igorpenean zein harreran hartuko da, igortzeko eta hartzeko estazioen kopurua edozein dela ere.

Zenbaki honetan xedatutakoa aplikatu egingo zaie itsasontzi eta aireontzietan dauden estazio mugikorretako satelite bidezko zerbitzu finkoen maiztasunak erabiltzeko kasuei ere, Espainiaren jurisdikziopean dauden espazioetan. Ondore horietarako, 120.000 kilometro koadroko gehieneko azalera hartuko da kontuan, eta dagokion C_5 koefizientea 0,35ekin biderkatuko da.

Maiztasunak	Koefizienteak					Modalitate-kodea
	C1	C2	C3	C4	C5	
f < 3.000 MHz.	1,50	1,25	1,50	1,20	$1,7207 \cdot 10^{-4}$	2331
3-17 GHz.	1,25	1,25	1,50	1,20	$1,7207 \cdot 10^{-4}$	2332
> 17 GHz.	1,0	1,25	1,0	1,20	$4,21 \cdot 10^{-5}$	2334

2.4 Zerbitzu finkoa 57-64 GHz bitarteko maiztasun-bandan.

Zerbitzu-eremuaren azalera hartuko da kontuan; kalkulua egiteko 1 kilometro koadroko gutxieneko azalera ezarri da.

Kontuan hartu beharreko B banda-zabalera dagokion jabari publiko irrati-elektikoaren erreserban adierazitakoa izango da, estalitako azaleraren gainean, esleitutako espektra osoa edo zati bat berrerabili den edo ez alde batera utzita; kalkulua egiteko, 150 MHz-ko gutxieneko banda-zabalera ezartzen da.

Maiztasunak	Koefizienteak					Modalitate-kodea
	C1	C2	C3	C4	C5	
57-64 GHz (UN-126)	1	1	1	1	4,69	2341

3. Irrati-difusioko zerbitzua.

Honako alderdi hauek irrati-difusioko zerbitzuari aplikatzekoak dira, soinudunaren zein telebistaren modalitateetan.

Kontuan hartu beharreko S azalera zerbitzu-eremuari dagokiona izango da. Espainia osoa estaltzen duten irrati-difusio zerbitzuetan, zerbitzu-eremuaren azalera Espainia osoaren azalera izango da, eta tasa ez da estaldura hori lortzeko beharrezko den estazio bakoitzeko banan-banan ebaluatuko. Autonomia-erkidegoa estaltzen duten irrati-difusio zerbitzuetan (soinuduna eta telebista), zerbitzu-eremuaren azalera dagokion autonomia-erkidegoarena izango da, eta tasa ez da estaldura hori lortzeko beharrezko den estazio bakoitzeko banan-banan ebaluatuko.

Espainia osoa edota edozein autonomia-erkidego estaltzen duten irrati-difusio zerbitzuetan, aplikatu beharreko B banda-zabalera zerbitzu motari dagokiona izango da, eta banaka hartutako zerbitzu-estazio bati aplikatuko litzaiokeen berbera.

Eremu geografikoa kalifikatzen den zerbitzu-modalitateetan, eremua interes eta errentagarritasun handikoa izango da zerbitzu-eremuaren barruan probintziaren edo autonomia-erkidegoaren hiriburua dagoenean, edota 50.000 biztanle baino gehiagoko udalerriren bat.

Irrati-difusioko zerbitzuan, C_s koefizientea k faktore batekin haztatzen da; faktore hori biztanle-dentsitatearen funtzioa da, eta zerbitzu-eremuan indarrean dagoen biztanle-errodaren bidez lortzen da, honako taula honi jarraiki:

Biztanle-dentsitatea	k faktorea
Gehienez 100 biztanle/km ²	0,015
100 bizt/km ² baino gehiago eta gehienez 250 bizt/km ²	0,05
250 bizt/km ² baino gehiago eta gehienez 500 bizt/km ² .	0,085
500 bizt/km ² baino gehiago eta gehienez 1.000 bizt/km ² .	0,12
1.000 bizt/km ² baino gehiago eta gehienez 2.000 bizt/km ² .	0,155
2.000 bizt/km ² baino gehiago eta gehienez 4.000 bizt/km ² .	0,19
4.000 bizt/km ² baino gehiago eta gehienez 6.000 bizt/km ² .	0,225
6.000 bizt/km ² baino gehiago eta gehienez 8.000 bizt/km ² .	0,45
8.000 bizt/km ² baino gehiago eta gehienez 10.000 bizt/km ² .	0,675
10.000 bizt/km ² baino gehiago eta gehienez 12.000 bizt/km ² .	0,9
12.000 bizt/km ² baino gehiago	1,125

CNAF koadroan zehaztutakoak izango dira irradi-difusioko zerbitzuak eskaintzeko maiztasun-bandak; dena den, Telekomunikazioetako eta Azpiegitura Digitaletako estatu-idazkariak koadro horietan jaso gabeko aldi baterako edo esperimenezko erabilera baimendu ahalko ditu, legez baimendutako estazio irradi-elektrikoei eragozpenik sortzen ez badiete. Aldi baterako edota esperimenezkoak diren erabilera horiek ere tasa bat ordaindu beharko dute jabari publiko irradi-elektrikoa erreserbatzeagatik; tasaren zenbatekoa zehazteko orduan, antz handiena duen zerbitzuaren irizpide orokorrak aplikatuko dira, edota, hala badagokio, erreserbatutako maiztasun-bandari dagozkion irizpideak.

Satelite bidezko irradi-difusio zerbitzuan, lurralde nazionalako goranzko loturak baino ez dira kontuan hartuko; lotura horiek konexio-lotura gisa tipifikatuta daude, satelite bidezko zerbitzu finakoaren 2.3.2 zenbakian.

Satelite bidezko irradi-difusioko kontribuzio-loturak ere hala tipifikatuta daude, satelite bidezko zerbitzu finakoaren 2.3.1 zenbakiaren barruan.

3.1 Soinudun irradi-difusioa.

3.1.1 Uhin luzeko eta uhin ertaineko soinudun irradi-difusioa.

S azalera zerbitzu-eremuari dagokiona izango da.

Kontuan hartu beharreko B banda-zabalera 9 kHz-koa izango da alboko banda bikoitzeko modulazio-sistemetan, eta 4,5 kHz-koa alboko banda bakarrek modulazio-sistemetan.

Maiztasunak	Koefizienteak					Modalitate-kodea
	C1	C2	C3	C4	C5	
148,5 eta 283,5 kHz bitartean	1	1	1	1,25	650,912 k	3111
526,5 eta 1.606,5 kHz bitartean	1	1	1,5	1,25	650,912 k	3112

3.1.2 Uhin laburreko soinudun irrati-difusioa.

Espainiaren azalera dagokion *S* azalera eta Espainiako biztanle-dentsitateari dagokion biztanle-dentsitatea hartuko dira kontuan.

Kontuan hartu beharreko *B* banda-zabalera 9 kHz-koa izango da alboko banda bikoitzeko modulazio-sistemetan, eta 4,5 kHz-koa alboko banda bakarrek modulazio-sistemetan.

Maiztasunak	Koefizienteak					Modalitate-kodea
	C1	C2	C3	C4	C5	
3 eta 30 MHz bitartean CNAFen arabera.	1	1	1	1,25	325,453 k	3121

3.1.3 Maiztasun-modulazioa duen soinudun irrati-difusioa, interes eta errentagarritasun handiko eremuetan.

S azalera zerbitzu-eremuari dagokiona izango da.

Kontuan hartu behar den *B* banda-zabalera 180 kHz-koa izango da sistema monofonikoetan, 256 kHz-koa sistema estereofonikoetan, eta 300 kHz-koa azpigarraiatazaille osagarriak dituzten sistemetan.

Maiztasunak	Koefizienteak					Modalitate-kodea
	C1	C2	C3	C4	C5	
87,5 eta 108 MHz bitartean	1,25	1	1,5	1,25	13,066 k	3131

3.1.4 Soinudun irrati-difusioa, beste eremu batzuetan maiztasun-modulazioa duena.

S azalera zerbitzu-eremuari dagokiona izango da.

Kontuan hartu beharreko *B* banda-zabalera 180 kHz-koa izango da sistema monofonikoetan, 256 kHz-koa sistema estereofonikoetan, eta 300 kHz-koa azpigarraiatazaille osagarriak dituzten sistemetan.

Maiztasunak	Koefizienteak					Modalitate-kodea
	C1	C2	C3	C4	C5	
87,5 eta 108 MHz bitartean	1	1	1,5	1,25	13,066 k	3141

3.1.5 Lurreko soinudun irrati-difusioa digitala, interes eta errentagarritasun handiko eremuetan.

S azalera zerbitzu-eremuari dagokiona izango da.

Kontuan hartu beharreko *B* banda-zabalera 1.536 kHz-koa izango da UNE ETS 300 401 araua duten sistemetan.

Maiztasunak	Koefizienteak					Modalitate-kodea
	C1	C2	C3	C4	C5	
195 eta 223 MHz bitartean	1,25	1	1,5	1	0,3756 k	3151

3.1.6 Lurreko soinudun irrati-difusioa digitala, beste eremu batzuetan.

S azalera zerbitzu-eremuari dagokiona izango da.

Kontuan hartu beharreko *B* banda-zabalera 1.536 kHz-koa izango da UNE ETS 300 401 araua duten sistemetan.

Maiztasunak	Koefizienteak					Modalitate-kodea
	C1	C2	C3	C4	C5	
195 eta 223 MHz bitartean	1	1	1,5	1	0,3756 k	3161

3.2 Telebista.

S azalera zerbitzu-eremuari dagokiona izango da beti.

3.2.1 Lurreko telebista digitala, interes eta errentagarritasun handiko eremuetan.

Zenbaki honetan xedatutakoa Espainia osoaren eta autonomia-erkidegoaren eremura zabaltzen diren espektrorreserbei aplikatzekoa da.

Kontuan hartu beharreko *B* banda-zabalera 8.000 kHz-koa izango da UNE ETS 300 744 araua duten sistemetan.

Maiztasunak	Koefizienteak					Modalitate-kodea
	C1	C2	C3	C4	C5	
470 eta 694 MHz bitartean	1,25	1	1,3	1	0,7023 k	3231

3.2.2 Lurreko telebista digitala, beste eremu batzuetan.

Zenbaki honetan xedatutakoa Espainia osoaren eta autonomia-erkidegoaren eremura zabaltzen diren espektrorreserbei aplikatzekoa da.

Kontuan hartu beharreko *B* banda-zabalera 8.000 kHz-koa izango da UNE ETS 300 744 araua duten sistemetan.

Maiztasunak	Koefizienteak					Modalitate-kodea
	C1	C2	C3	C4	C5	
470 eta 694 MHz bitartean.	1	1	1,3	1	0,7023 k	3241

3.2.3 Tokiko eremuko lurreko telebista digitala, interes eta errentagarritasun handiko eremuetan.

Apartatu honetan xedatutakoa tokiko eremuko espektrorreserbei aplikatzekoa da.

Kontuan hartu beharreko *B* banda-zabalera 8.000 kHz-koa izango da UNE ETS 300 744 araua duten sistemetan.

Maiztasunak	Koefizienteak					Modalitate-kodea
	C1	C2	C3	C4	C5	
470 eta 694 MHz bitartean	1,25	1	1,3	1	0,3512 k	3251

3.2.4 Tokiko eremuko lurreko telebista digitala, beste eremu batzuetan.

Apartatu honetan xedatutakoa tokiko eremuko espektrorreserbei aplikatzekoa da.

Kontuan hartu beharreko *B* banda-zabalera 8.000 kHz-koa izango da UNE ETS 300 744 araua duten sistemetan.

Maiztasunak	Koefizienteak					Modalitate-kodea
	C1	C2	C3	C4	C5	
470 eta 694 MHz bitartean	1	1	1,3	1	0,3512 k	3261

3.3 Irrati-difusioaren zerbitzu osagarriak.

3.3.1 Foniako lotura mugikorak, irrati bidezko erreportaje eta saioetarako.

Kontuan hartu beharreko *S* azalera dagokion jabari publiko irrati-elektrikoaren erreserban ageri dena izango da; 100 kilometro koadroko gutxieneko azalera ezarri da.

Kontuan hartu behar den *B* banda-zabalera erabilitako kanalari dagokiona da.

Maiztasunak	Koefizienteak					Modalitate-kodea
	C1	C2	C3	C4	C5	
CNAFen aurreikusitako bandetan.	1	1	1	2	0,8017	3311

3.3.2 Estudioen eta irratiaren arteko soinudun irrati-difusio saioak garraiatzeko loturak.

Kontuan hartu beharreko *S* azalera, bao guztien luzeren batura kilometro bateko zabaleraz biderkatzearen emaitza izango da; 10 kilometro koadroko gutxieneko azalera ezarri da.

B banda-zabalera erabilitako kanalari dagokiona da.

	C1	C2	C3	C4	C5	
CNAF UN 111.	1,25	1	1,25	2	5,72	3321
CNAF UN 47.	1,15	1	1,10	1,90	5,72	3322
CNAF UN 88.	1,05	1	0,75	1,60	5,72	3323
CNAF UN 105 eta 106	1,5	1	1,3	2	5,72	3324

3.3.3 Telebistako lotura mugikorak (ENG).

Kalkulua egiteko, 10 kilometro koadroko azalera ezartzen da maiztasun-erreserba bakoitzeko, edozein dela ere Espainiako edozein tokitan maiztasun eta erabilera berean funtzionatzen duten ekipoen kopurua.

Kontuan hartu beharreko *B* banda-zabalera erabilitako kanalari dagokiona izango da.

Maiztasunak	Koefizienteak					Modalitate-kodea
	C1	C2	C3	C4	C5	
CNAFen aurreikusitako bandetan.	1,25	1	1,25	2	0,7177	3331

4. Beste zerbitzu batzuk.

4.1 Irrati-nabigazio zerbitzua.

Kontuan hartu beharreko *S* azalera, baimendutako zerbitzuak erradiotzat duen zirkuluarena izango da.

B banda-zabalera emisioaren izendapenetik lortuko da zuzenean.

Maiztasunak	Koefizienteak					Modalitate-kodea
	C1	C2	C3	C4	C5	
CNAFen aurreikusitako bandetan.	1	1	1	1	0,0100	4111

4.2 Irrati-determinazio zerbitzua.

Kontuan hartu beharreko *S* azalera, baimendutako zerbitzuak erradiotzat duen zirkuluarena izango da.

B banda-zabalera emisioaren izendapenetik lortuko da zuzenean.

Maiztasunak	Koefizienteak					Modalitate-kodea
	C1	C2	C3	C4	C5	
CNAFen aurreikusitako bandetan.	1	1	1	1	0,0602	4211

4.3 Irrati-lokalizazio zerbitzua.

Kontuan hartu beharreko *S* azalera, baimendutako zerbitzuak erradiotzat duen zirkuluarena izango da.

B banda-zabalera emisioaren izendapenetik lortuko da zuzenean.

Maiztasunak	Koefizienteak					Modalitate-kodea
	C1	C2	C3	C4	C5	
CNAFen aurreikusitako bandetan.	1	1	1	1	0,03090	4311

4.4 Satelite bidezko zerbitzuak, hala nola eragiketa espazialak, lurraren satelite bidezko esplorazioa, eta beste batzuk.

Kontuan hartu beharreko *S* azalera zerbitzu-eremuari dagokiona izango da; kalkulua egiteko, 31.416 kilometro koadroko gutxieneko azalera ezarri da, hala igorpenean, nola harreran.

Kontuan hartu beharreko *B* banda-zabalera, igorpenean zein harreran, sistemak kasuan kasu eskatzen duena izango da.

Maiztasunak	Koefizienteak					Modalitate-kodea
	C1	C2	C3	C4	C5	
Eragiketa espazialak (teleagintea, teleneurria eta jarraipena).	1	1	1	1	$1,977 \cdot 10^{-4}$	4412
Lurraren satelite bidezko esplorazioa	1	1	1	1	$0,7973 \cdot 10^{-4}$	4413
Beste zerbitzu espazial batzuk.	1	1	1	1	$3,904 \cdot 10^{-3}$	4411

5. Aurreko zenbakietan jaso gabeko zerbitzuak.

Aurreko zenbakietan jaso gabeko zerbitzu eta sistemetan, edo aurreko arauak aplikatzerik ez dagoenetan, honako irizpide hauen arabera finkatuko da tasa, kasuan-kasuan:

- Aipatutako zerbitzuren baten antzeko ezaugarri teknikoak izatea.
- Teknikoki beharrezkoa den jabari irrati-elektikoaren kopurua.

- Egindako erreserbak estalitako azalera.
- Bestelako teknologien bidez antzeko zerbitzuak eskaintzen dituzten sistemek sorrarazitako tasaren zenbatekoa.

Bi. Jabari publiko irrati-elektroa erreserbatzeagatik tasa arautzen duten erregelamendu-xedapenak indarrean egongo dira, artikulua honetan adierazitakoaren kontra ez doan guztian.

76. artikulua. *Tren-enpresen lizentziari dagokion tasa.*

Tren-enpresen lizentziaren tasan, trenbide-sektoreari buruzko irailaren 29ko 38/2015 Legearen 76. artikuluan ezarritakoan, honako zenbateko hauek finkatu dira:

Lizentzia emateko tasa.	6.000 euro
Lizentzia aldatzeko tasa.	3.000 euro
Lizentzia berritzeko tasa.	6.000 euro

77. artikulua. *Segurtasun-baimena eta segurtasun-ziurtagiria emateko tasa*

Segurtasun-baimena eta segurtasun-ziurtagiria emateko tasetan, trenbide-sektoreari buruzko irailaren 29ko 38/2015 Legearen 80. artikuluan ezarritakoetan, honako zenbateko hauek finkatu dira:

1. Segurtasun-baimenak emateko tasa:
 - Baimena emateko edo berritzeko: 50.000 euro.
 - Aldaketak edo berrikuspenak egiteko tasa: 25.000 euro.
2. Segurtasun-ziurtagiria:
 - Baimena emateko edo berritzeko: 30.000 euro.
 - Handitzeko edo berrikuspenak egiteko tasa: 15.000 euro.

78. artikulua. *Zentroen homologazioari, erakundeen eta material ibiltariaren ziurtagiriari, tituluak emateari eta horiek zerbitzuan jartzeko baimenei dagozkien tasak.*

Zentroen homologazioari, erakundeen eta material ibiltariaren ziurtagiriari, tituluak emateari eta horiek zerbitzuan jartzeko baimenei dagozkien tasan, trenbide-sektoreari buruzko irailaren 29ko 38/2015 Legearen 84. artikuluan ezarritakoan, honako zenbateko hauek finkatu dira:

1. Osasun-azterketetarako eta trenbide-langileen prestakuntzarako zentroak homologatzea, eta horiek berritzea edo handitzea, instalazio gehiago baimenduz edo prestakuntza-diziplina gehiago eskainiz.
 - Homologazio berria egiteko: 6.000 euro.
 - Handitzeko (instalazio berriak bisitatzeko eskatzen duten aldaketak direnean): 2.600 euro.
 - Berritzeko edo aldatzeko (diziplinak aldatzeagatik edo langileak aldatzeagatik): 1.500 euro.
2. Gidabaimenak eta tituluak ematea eta segurtasunaren arloko kontseilarien tituluak ematea, salgai arriskutsuen garraioari dagokionez.
 - Lehenaldiz emateko: 116 euro.
 - Kopia egiteko, titulu edo lizentziak berritzeko edo haiek aldatzeko. 80 euro.

3. Gidabaimenak, tituluak eta segurtasun-kontseilarien tituluak eman aurretik trenbide-langileentzako azterketa-deialdiak antolatzeari dagozkion tasak.

- Deialdi bakoitzeko: 2.000 euro.
- Deialdira aurkeztutako izangai bakoitzeko. 35 euro.
- Auzitegiko aztertzaile bakoitzeko. 45 euro, bertaratze bakoitzeko.
- Auzitegiko kide bakoitzeko, joan-etorriei dagozkien gastuak direla-eta, betiere azterketak Madriletik kanpo egiten badira: 300 euro.

Segurtasunaren arloko kontseilari izateko tituluak lortzeko azterketak direnean, deialdian aurkeztu den izangai bakoitzeko tasa soilik izango da aplikagarria.

Tasa ordaintzearen ondorioetarako, gidabaimenak eta tituluak emateko azterketa-deialdietan ezarriko dira auzitegiko aztertzaile kopurua, bertaratze-kopurua, Madriletik kanpora joan behar duten epaimahaiko kideak eta irailaren 29ko 38/2015 Legearen 84.4.c) artikulua azken apartatua jasotako kasuetan ezarritako banaketa.

4. Trenbideko material ibiltaria mantentzeko zentroak homologatzea.

- Homologazio berria egiteko: 6.000 euro.
- Handitzeko, aldatzeko edo berritzeko: 1.500 euro.

5. Trenbideko ibilgailuak mantentzeaz edo eskuordetu daitezkeen mantentze-funtzioak egiteaz arduratzen diren erakundearen egiaztapena.

- Mantentzeaz arduratzen den erakundearen ziurtagiri berria emateko: 7.540 euro.
- Mantentzeaz arduratzen den erakundearen ziurtagiria berritzeko: 4.680 euro.

Mantentzeaz arduratzen den erakundearen ziurtagiria handiagotu edo aldatzeko: 1.300 euro.

- Eskuordetu daitezkeen mantentze-funtzioaren ziurtagiri berria emateko: 5.200 euro.
- Eskuordetu daitezkeen mantentze-funtzioaren ziurtagiria berritzeko: 2.600 euro.
- Eskuordetu daitezkeen mantentze-funtzioaren ziurtagiria handiagotu edo aldatzeko: 1.300 euro.

6. Trenbideko ibilgailuak baimentzeko:

- Lokomozio-ibilgailuak:

Ibilgailu mota baimentzea (lehen baimentzea): 9.180 euro.

Ibilgailu mota edo ibilgailua aldatzea (baimen berria): 4.590 euro.

Mota baten araberrako baimena (seriearen jarraipenak): 918 euro.

Erabilera-eremua handitzeko baimena (aldaketarik egin gabe): 2.295 euro.

Aurretiazko konpromisoaren erreferentzia iritzi teknikoa (baimenaren arduradun gisa emana): 1.836 euro.

Aurretiazko konpromisoaren erreferentzia iritzi teknikoa (erabilera-eremuko ANS gisa soilik emana): 918 euro.

- Unitate autopropulsatuak:

Ibilgailu mota baimentzea (lehen baimentzea): 12.240 euro.

Ibilgailu mota edo ibilgailua aldatzea (baimen berria): 6.120 euro.

Mota baten araberrako baimena (seriearen jarraipenak): 1.224 euro.

Erabilera-eremua handitzeko baimena (aldaketarik egin gabe): 3.060 euro.

Aurretiazko konpromisoaren erreferentzia iritzi teknikoa (baimenaren arduradun gisa emana): 2.448 euro.

Aurretiazko konpromisoaren erreferentzia iritzi teknikoa (erabilera-eremuko ANS gisa soilik emana): 1.224 euro.

- Automobilak:

Ibilgailu mota baimentzea (lehen baimentzea): 2.040 euro.

Ibilgailu mota edo ibilgailua aldatzea (baimen berria): 1.020 euro.
Mota baten arabera baimena (seriearen jarraipenak): 204 euro.
Erabilera-eremua handitzeko baimena (aldaketarik egin gabe): 510 euro.
Aurretiazko konpromisoaren erreferentziazko iritzi teknikoa (baimenaren arduradun gisa emana): 408 euro.
Aurretiazko konpromisoaren erreferentziazko iritzi teknikoa (erabilera-eremuko ANS gisa soilik emana): 204 euro.

– Bagoiak:

Ibilgailu mota baimentzea (lehen baimentzea): 2.040 euro.
Ibilgailu mota edo ibilgailua aldatzea (baimen berria): 1.020 euro.
Mota baten arabera baimena (seriearen jarraipenak): 204 euro.
Erabilera-eremua handitzeko baimena (aldaketarik egin gabe): 510 euro.
Aurretiazko konpromisoaren erreferentziazko iritzi teknikoa (baimenaren arduradun gisa emana): 408 euro.
Aurretiazko konpromisoaren erreferentziazko iritzi teknikoa (erabilera-eremuko ANS gisa soilik emana): 204 euro.

– Material osagarria:

Ibilgailu mota baimentzea (lehen baimentzea): 2.040 euro.
Ibilgailu mota edo ibilgailua aldatzea (baimen berria): 1.020 euro.
Mota baten arabera baimena (seriearen jarraipenak): 204 euro.
Erabilera-eremua handitzeko baimena (aldaketarik egin gabe): 510 euro.
Aurretiazko konpromisoaren erreferentziazko iritzi teknikoa (baimenaren arduradun gisa emana): 408 euro.
Aurretiazko konpromisoaren erreferentziazko iritzi teknikoa (erabilera-eremuko ANS gisa soilik emana): 204 euro.

79. artikulua. *Trenbide-segurtasunaren esparruko jarduerak bete eta zerbitzuak emateagatiko tasa*

Bat. Trenbide-segurtasunaren arloko zerbitzuak emateagatiko eta jarduerak egiteagatiko tasa, trenbide-sektoreari buruzko irailaren 29ko 38/2015 Legearen 88. artikuluan ezarritakoa, koefiziente hauen arabera kalkulatu behar da:

1. Azpiegituren administratzaileentzat:

Kudeatzen duen sarean zehar zirkulatzen duten trafikoaren zenbatekoa, tren bakoitzeko eta egindako km guztietarako: 0,015143 euro.

2. Tren-enpresentzat:

Tren eta km bakoitzeko zenbatekoa, VL1 kategorian sailkatutako distantzia luzeko zerbitzuetan (irailaren 29ko 3/2015 Legearen 97. artikulua 7. apartatua zehaztutakoari jarraituta): 0,018692 euro.

Tren eta km bakoitzeko zenbatekoa, distantzia luzeko bidaiariak garraiatzeko gainerako zerbitzu guztietan. 0,015731 euro.

Tren eta km bakoitzeko zenbatekoa, bidaiariak garraiatzeko hiri barneko, hiri inguruko eta hiriarteko zerbitzuetan. 0,017663 euro.

Tren eta km bakoitzeko zenbatekoa, salgaien garraio-zerbitzuetan. 0,001262 euro.

Bi. Tasa dagokion jarduera edo zerbitzua egiten den unean sortuko da, eta subjektu pasiboak hilerik likidatuko du, sortzapena gertatu eta hurrengo hilaren barruan.

Dagokion hileko likidazioarekin, subjektu pasiboek Trenbide Segurtasuneko Estatu Agentziari bidaliko diote sartutako zenbatekoaren ziurtagiria, egindako trafikoak eta emandako zerbitzu motak behar bezala banakatuta adierazita.

Tasa hori kudeatzeko eta kontrolatzeko, azpiegituren administratzaileek hilerok jakinarazi beharko diote AESFri zer trafiko gertatzen diren beren sarean, tren-enpresen eta zerbitzu-moten arabera banakatuta.

Tren-enpresek eta administratzaileek emandako datuen artean desadostasunak badaude, tren-azpiegiturak erabiltzeagatik kanonak kalkulatzeko administratzaileek erabilitako datuak hartuko dira erreferentziatzat tasa hori kalkulatzeko.

80. artikulua. *Trenbide-kanonak.*

BOEn argitaratu eta hurrengo hilaren lehen egunetik aurrera, eta indarraldi mugagabez, honako zenbateko unitario hauek aplikatuko dira trenbide-kanonetarako:

Bat. Interes Orokorreko Trenbide Sarea osatzen duten trenbide-lineak erabiltzeagatik kanona.

1. Modalitateak eta eskatu ahal diren zenbatekoak.

1.1 Kapazitatea esleitzeagatik kanona (A modalitatea). Sareari buruzko deklarazioan zehaztutako ordutegi-tarteak kasuan kasuko izangaiei esleitzeko zerbitzuarengatik, tren batek bi punturen artean zirkulatu ahal dezan aldi jakin batez.

Zenbatekoa zehaztuko da honako eragiketa hau eginez: tarifa bakarra bider esleitutako tren-kilometro bakoitzaz. Betiere, ukitutako linea mota eta zerbitzu mota bereiziko dira.

Bi tarifa mota ezartzen dira: bata, A motako lineetan egiten diren zerbitzuetarako; eta bestea, gainerako lineetan egiten direnetarako.

Tren eta km bakoitzeko euroak

A modalitatea	Zerbitzu mota					
	VL1	VL2	VL3	VCM	VOT	M
A motako lineak.	1,6767	1,4873	1,7350	1,6069	1,7776	0,5091
A motakoak ez diren lineak.	0,7273	0,8482	0,7138	1,3645	0,6017	0,0959

1.2 Trenbide-lineak erabiltzeagatik kanona (B modalitatea). Trenbide-linea bat erabiltzeagatik eta erabilera horren ondorioengatik.

Zenbatekoa zehaztuko da honako eragiketa hau eginez: tarifa bakarra bider zirkulatutako tren-kilometro bakoitzaz. Betiere, linea mota eta zerbitzu mota bereiziko dira.

Bi tarifa mota ezartzen dira: bata, A motako lineetan egiten diren zerbitzuetarako; eta bestea, gainerako lineetan egiten direnetarako.

Tren eta km bakoitzeko euroak

B modalitatea	Zerbitzu mota					
	VL1	VL2	VL3	VCM	VOT	M
A motako lineak.	3,6414	3,0043	3,7855	2,3316	0,9797	1,3512
A motakoak ez diren lineak.	1,0030	1,1633	0,9846	2,0251	0,5443	0,1451

1.3 Trakzioko energia elektrikoa eraldatzeko eta banatzeko instalazioak erabiltzeagatik kanona (C modalitatea). Trenbide-linea baten elektrifikazio-instalazioak erabiltzeagatik eta erabilera horren ondorioengatik.

Zenbatekoa zehaztuko da honako eragiketa hau eginez: tarifa bakarra bider elektrifikatutako trenbide-lineetatik zirkulatutako tren-kilometro bakoitzaz. Betiere, linea-mota eta zerbitzu-mota bereiziko dira.

Bi tarifa mota ezartzen dira: bata, A motako lineetan egiten diren zerbitzuetarako; eta bestea, gainerako lineetan egiten direnetarako.

Tren eta km bakoitzeko euroak

B modalitatea	Zerbitzu mota					
	VL1	VL2	VL3	VCM	VOT	M
A motako lineak.	0,4865	0,4315	0,5044	0,4665	0,5292	0,1982
A motakoak ez diren lineak.	0,2617	0,3168	0,2606	0,5188	0,2274	0,0371

1.4 Ahalmena esleitzeagatik kanonaren (A modalitatea) gehikuntza, haren erabilera ez-efizienteagatik.

Trenbide-sarearen erabilera eraginkorra sustatzen jarrai dezaten, esleitutako eta erabilitako ahalmenaren arteko gutxieneko aldeen ehunekoak, gehikuntza hau aplikatzeko oinarri gisa balio dutenak, ehuneko 2 izango dira 2021ean, bidaiari-zerbitzuentzat eta ehuneko 15 merkantzia-zerbitzuentzat.

Gehikuntzaren zenbatekoa zehaztuko da honako eragiketa hau eginez: tarifa bakarra bider esleitutako tren-kilometroen kopuruaren eta egindako tren-kilometroen kopuruaren artean dagoen aldeaz, balio absolutuan; betiere, linea motaren eta zerbitzu motaren arabera:

– Bidaiarien zerbitzuetarako, esleitutako ahalmenaren eta hilabete batean erabilitakoaren artean dagoen aldeaz kilometro-tren bakoitzeko, balio absolutuan, linea motaren eta zerbitzu motaren arabera, alde hori esleitutako ahalmenaren ehuneko 2tik gorakoa denean eta ehuneko hori gainditzen duen heinean.

– Salgaien zerbitzuetarako, esleitutako ahalmenaren eta hilabete batean linea motaren arabera erabilitakoaren artean dagoen aldeaz kilometro-tren bakoitzeko, balio absolutuan, alde hori esleitutako ahalmenaren ehuneko 15etik gorakoa denean eta ehuneko hori gainditzen duen heinean.

Gainetik edo azpitik zirkulatutako km-trenei dagozkien euroak

Linea mota	VL1	VL2	VL3	VCM	VOT	M
A lineak.	10,0439	3,4314	5,7856	3,7779	1,5138	1,5476
A ez diren lineak.	1,2724	1,4898	1,2527	4,9728	0,7801	0,1830

1.5 Trenbide-lineak erabiltzeagatik kanonari egindako gehikuntza (B modalitatea) prestazio handiko sareak erabiltzeagatik edo zabalera aldagarriko zerbitzua ustiatzeagatik edo ordutegi-tarte jakin batzuetan gertatzen diren trafiko-intentsitate handiko bestelako egoera batzuentzat.

Zenbatekoa izango da honako eragiketa honetatik ateratzen dena: tarifa bakarra bider kilometro-plaza bakoitzaz, azken hori kalkulatu erabilerako kilometro-trenaren oinarri hartuta, bider trenak ibilbide bakoitzean dauzkan plaza guztiez, A motako linea bakoitza eta zerbitzu bakoitzeko bereizita.

Euroak/eskaintako 100 km-plaza

A motako lineak	Zerbitzu mota					
	VL1	VL2	VL3	VCM	VOT	M
Madril-Bartzelona-Muga linea.	2,2014	0,0000	0,3779	0,6199	0,0000	0,0000
Madril-Toledo-Sevilla-Málaga linea.	1,0809	0,0000	0,2453	0,4023	0,0000	0,0000
Gainerako A lineak.	0,5404	0,0000	0,1226	0,2011	0,0000	0,0000

Tren eta km bakoitzeko euroak

A motakoak ez diren lineak	Zerbitzu mota					
	VL1	VL2	VL3	VCM	VOT	M
B modalitatearen gehikuntza.	0,0000	0,0000	0,0000	2,4187	0,0000	0,0000

1.6 Trenbideko garraioaren hazkundera sustatzeko hobaria.

Trenbide-sarearen ustiatze eraginkorra pizteko xedearekin eta 38/2015 Legearen 97.6 artikuluan ezarritakoaren arabera trenbideko garraioko zerbitzu berriak sustatzeko, hobari bat aplikatuko da Interes Orokorreko Trenbide Sarea osatzen duten lineak, A eta B modalitateetakoak, erabiltzeko kanonean, urteko trafiko-handitzeetarako, honako irizpide hauei jarraituz:

- A lineetan, banakako linearen eta zerbitzu motaren konbinazio bakoitzerako aplikatuko da.
- B, C, D eta E motatako gainerako lineetan, linea motaren eta zerbitzu motaren konbinazio bakoitzerako aplikatuko da. Konbinazio bakoitzean operatzen duten subjektu pasiboen multzoari aplikatuko zaio.

Hobari hori aplikatzeko, trenbide-azpiegituren administratzaileak urtero honako hauek ezarriko ditu sareari buruzko deklarazioan:

- a) Erreferentziako trafikoa, Tref deitutakoa, km-trenetan neurtua, trenbide-azpiegituren administratzaileak normalizat jotzen duena da, aurrez zegoen egoeraren edo hura dela-eta aurreikusten den bilakaeraren arabera.
- b) Trafiko objektiboa, Tobj deitutakoa, km-trenetan neurtua, trenbide-azpiegituren administratzaileak merkatua dela-eta dauzkan itxaropenen arabera eta azpiegitura horiek erabiltzen dituzten zerbitzuen arabera zehaztutako trafikoa da.
- c) Trafiko inkrementaletarako hobari objektiboaren ehunekoa, Bobj deitutakoa, trafiko inkrementalei aplikatzekoa zaiena, trafiko hazkundera dela-eta dauden aurreikuspenen arabera finkatutako trafiko objektibora iristen denean. Trafikoaren handitzea erreferentziako trafikoaren eta trafiko objektiboaren arteko balio bati dagokionean, xedeko hobariari barne hobari bat aplikatuko zaio, sistema progresibo bat aplikatuta.

Hobaria kalkulatu da 38/2015 Legeak 97.6 artikuluan horretarako jasotako formula aplikatuz.

Bi. Trenbide-azpiegituren administratzaile nagusien titulartasunekoak diren zerbitzu-instalazioak erabiltzeagatiko kanona.

1. Modalitateak eta eskatu ahal diren zenbatekoak.

1.1 Bidaiari-garraiorako geltokien erabilerarengatiko kanona (A modalitatea).

Kanon-modalitate horren zenbatekoa honela kalkulatu da:

1. 1., 2., 3., 4. edo 5. kategorietako geltokietan, honako eragiketa hau eginez: tarifa unitarioa bider geltoki kopuruaz, geltokiaren kategorია, geldialdi mota eta tren mota aintzat hartuta.

Bidaiarien geltokiak erabiltzeagatik kanona-A1

Tren geldialdi bakoitzeko euroak

Geltokiaren kategoría	Geldialdi mota	Distantzia luzea	Hiriartekoa	Hirigintza
1	Helmuga.	164,0000	33,7842	8,1082
1	Tartekoa.	63,7800	13,1383	3,1532
1	Irteera.	182,2200	37,5380	9,0091
2	Helmuga.	78,1100	16,0904	3,8617
2	Tartekoa.	30,3800	6,2574	1,5018
2	Irteera.	86,7900	17,8782	4,2908
3	Helmuga.	75,2111	15,0422	3,6101
3	Tartekoa.	29,2487	5,8497	1,4039
3	Irteera.	83,5678	16,7136	4,0113
4	Helmuga.	33,4830	6,6966	1,6072
4	Tartekoa.	13,0212	2,6042	0,6250
4	Irteera.	37,2034	7,4407	1,7858
5	Helmuga.	13,4793	2,6959	0,6470
5	Tartekoa.	5,2419	1,0484	0,2516
5	Irteera.	14,9770	2,9954	0,7189

2. 6. kategoriako geltokietan, aldirietako gune bakoitzari honako hau aplikatuz: kategoría horretako geltokien multzoak dauzkan ustiatze-kostuetatik aldirietako gune bakoitzeko ateratako tarifa-zenbatekoak, haien ordainketa 12 hilekotan zatituta.

Gunea	Hileko zenbatekoa - Euroak
Asturias.	6.817
Bartzelona.	152.411
Bilbo.	16.368
Cádiz.	451
Madril.	214.246
Malaga.	16.232
Murtzia.	202

Gunea	Hileko zenbatekoa - Euroak
Donostia.	13.135
Santander.	1.226
Sevilla.	1.527
Valentzia.	8.904
Asturias (ADAR).	12.981
Murtzia (ADAR).	1.047
Kantabria (ADAR).	6.247
Bizkaia (ADAR).	1.709
León (ADAR).	2.967
Hilean, guztira	456.470

3. Geltokien irekitzeko ordutegiaz kanpoko zerbitzuengatik, honako eragiketa hau aplikatuz: tarifa bakarra bider geltokien irekitze bereziaren orduak edo zatikia, geltoki kategoria bakoitzeko.

Geltokien irekitze berezia-A 3

	Euroak ordu bakoitzeko
1. kategoriako geltokiak.	632
2. kategoriako geltokiak.	108
3. kategoriako geltokiak.	51
4. kategoriako geltokiak.	23
5. kategoriako geltokiak.	10
6. kategoriako geltokiak.	7

1.2 Bidaiarien geltokietako instalazioen erabilera-intentsitateagatiko gehikuntza.

Gehikuntza hori 1. eta 5. kategorien artekoei aplikatuko zaie, eta honako eragiketa hau aplikatuz kalkulatzen da: tarifa bakarra bider geltokiko geldialdi bakoitzean egiazki igotako edo jaitsitako bidaiarien kopurua, bidaiari mota berezita.

Geltokietako instalazioen erabilera-intentsitateagatiko gehikuntza.

	Distantzia luzea	Hiriartekoa	Hiri barnekoa eta hiri ingurukoa.
Euroak igotako eta jaitsitako bidaiari bakoitzeko	0,4674	0,0935	0,0224

1.3 Zabalera-aldagailuetatik igarotzeagatik ezartzen den kanona (B modalitatea).

Modalitate horretako zenbatekoa izango da honako eragiketa hau aplikatetik ateratzen dena: tarifa bakarra bider trena edozein norabidetan zabalera-aldagailutik igarotzen den aldi kopuruaz.

B zabalera-aldagailuetatik igarotzea

Euroak aldagailutik igarotzen den bakoitzean.	141,5622
---	----------

1.4 Geltokietan nasa duten trenbideak erabiltzeagatik kanona, bidaiarien merkataritza-zerbitzuetarako trenak aparkatuta edukitzeko edo beste eragiketa batzuetarako (C modalitatea).

C.1 Bidaiarien merkataritza-zerbitzuetarako trenak aparkatuta edukitzeagatik, bestelako eragiketarik gabe.

Oro har, 15 minutuko denbora-tartea ezartzen da, eta denbora-tarte horretan ez da kanona aplikatu beharrik izango.

Nasetan trenak aparkatzeko denbora zenbatzearen ondorioetarako, ez dira aintzat hartuko merkataritza-ibilbide bateko tarteko geldialdiak, ez eta trenbide-azpiegituretako administratzaileak trena aparkatze-bidean edukitzea erabakitzen duen kasuak ere.

Bi ordu-tegi-aldi bereizten dira, geltokien saturazioaren arabera: goizeko 05:00etik 23:59ra bitartekoa, saturazio arruntekoa; eta 0:00etatik 4:59etara, saturazio txikikoa. Azken horri tarifa murriztua ezartzen zaio.

Kanonaren zenbatekoa izango da tren bakoitzari aparkatze-denborarengatik tarifa unitarioa aplikatetik ateratzen dena, ordu-tegiaren eta geltokiaren kategoriaren arabera.

	Saturazio arrunta. 05:00etatik 23:59etara. Aparkatze mota – Euro/Trena			Saturazio txikia. 00:00etatik 04:59etara. Aparkatze mota – Euro/Trena		
	A	B	C	A	B	C
	1. kategoriako geltokiak	2,2458	3,3688	4,4917	1,1229	1,6844
2. kategoriako geltokiak	1,1229	1,6998	2,2458	0,5615	0,8499	1,1229

Aparkatze mota:

- A. 5 minutu gehigarri bakoitzeko, 15 eta 45 minutu bitarte.
- B. 5 minutu gehigarri bakoitzeko, 45 eta 120 minutu bitarte.
- C. 5 minutu gehigarri bakoitzeko, 120 minututik aurrera.

C.2 Trenak aparkatzeagatik, beste eragiketa batzuetarako.

Kanonaren zenbatekoa izango da tarifa unitarioa –tarifa hori zehaztuta geltokiaren kategoriaren arabera eta trenean egin beharreko eragiketaren arabera– geratze-denboran zehar egindako mota bakoitzeko eragiketa kopuruari aplikatetik ateratzen dena.

Trenak geratzea beste eragiketa batzuetarako-C2

	Euroak eragiketa bakoitzeko
Geltokietan trena garbitzea, 1-2 kategoria.	0,7158

	Euroak eragiketa bakoitzeko
Trena garbitzea gainerako geltokietan.	0,5965
Trena geltokian dagoela zamalanak egitea, 1-2 kategoria.	0,7058
Treanean zamalanak egitea gainerako geltokietan.	0,5881
Beste eragiketa batzuk.	0,4144

1.5 Trenbideak erabiltzeagatiko kanona, zerbitzuko beste instalazio batzuetan: trenak apartatzea eta garbitzea, erregaia hornitzea (D modalitatea).

Instalazioko zerbitzuko bidea erabiltzeko denboraren arabera ezartzen da, bideak oinarritzko osagaiak dituela: bidea bera, katenaria, desbideratzeak eta ekipamendu gehigarria.

Modalitate horren zenbatekoa izango da honako hauek zenbatetik ateratzen dena: baimendutako bide osoa erabiltzeagatiko kopurua, bide hori zuzkituta dagoen ekipamenduari lotutako kopurua eta eskatutako ekipamendu gehigarriaren kopurua, kontzeptu bakoitzaren kopuru unitarioa bider kasuko unitateak aplikatuta, eskatutako aldirako hainbanatuz eta 38/2015 Legearen 98.4.D) artikuluan ezarritako errendimendu koefizientearen arabera.

Apartatuetarako bideak erabiltzeagatiko eta bestelakoengatiko kanona-D

Oinarritzko osagaiak.		
C trenbidea.	5,6721	Euroak/trenbidearen ml-urtean.
C Katenaria:	1,9173	Euroak/katenariaren m-urtean.
C I. motako desbideratzea (eskuzkoa).	592,9928	Euroak/unitate-urtean.
II. motako desbideratzea (urrutiko aginte bidezkoa).	2.274,2517	Euroak/unitate-urtean.
Bideari lotutako ekipamendu-osagaiak.		
C Bideen arteko korridorea.	1,2506	Euroak/trenbidearen ml-urtean.
C Trenbidearen argiztapena.	1,4364	Euroak/trenbidearen ml-urtean.
C Trenbide-lautadako argiztapena.	2,1273	Euroak/trenbidearen ml-urtean.
C Suteen aurkako babes-sarea.	6,2507	Euroak/trenbidearen ml-urtean.
C Kargatzeko/deskargatzeko nasa.	55,1145	Euroak/trenbidearen ml-urtean.
Ekipamendurako aukerako osagaiak.		
C Koipeak jasotzeko bandeja.	547,5918	Euroak/unitate-urtean.
C Erregaia jasotzeko bandeja.	861,0515	Euroak/unitate-urtean.
C Kabinara sartzeko eskailerak.	21,9923	Euroak/unitate-urtean.
C Deskargatzeko isurbide-zuloa.	123,9525	Euroak/unitate-urtean.
C Mantentze-zuloa (hartunerik gabe).	197,8074	Euroak/unitate-urtean.
C Kargatzeko/deskargatzeko arrapala.	632,7437	Euroak/unitate-urtean.
C Uraren, elektrizitatearen edo aire konprimatuaren hornidurarako hargunea.	45,9375	Euroak/unitate-urtean.

Halaber, 98.4.D) artikulua aplikatuta, honako gutxienerako zenbateko hauek ezartzen dira:

– Erregaia hartzeko zerbitzuaren instalazioak erabiltzeagatiko gutxienerako zenbatekoa, ADIFen erregai-hornidurako gune finko zein mugikor guztietarako, 3,9375 eurokoa izango da.

– Modalitate honi lotutako gainerako zerbitzu-instalazioak erabiltzeagatiko gutxienerako zenbatekoa zerbitzu-instalazio bakoitza lau orduz erabiltzeko gutxienerako aldiaren baliokidea izango da.

1.6 Salgaiak kargatzeko tokiak erabiltzeagatiko kanona (E modalitatea).

Modalitate horren zenbatekoa izango da honako hauek zenbatetik ateratzen dena: baimendutako bide osoa erabiltzeagatiko kopurua, bidearen paraleloan dagoen azalerako zerrenda (bazterra) erabiltzeari lotutako osagaia, bide hori zuzkituta dagoen ekipamenduari lotutako kopurua eta eskatuta ekipamendu gehigarriaren kopurua, kontzeptu bakoitzaren kopuru unitarioa bider kasuko unitateak aplikatuta, eskatutako aldirako hainbanatuz eta 38/2015 Legearen 98.4.E) artikuluan ezarritako errendimendu koefizientearen arabera.

Salgaien kargatze-lanetarako guneak erabiltzeagatiko kanona-E

Oinarrizko osagaiak.		
C trenbidea.	5,6721	Euroak/trenbidearen ml-urtean.
C Katenaria:	1,9173	Euroak/katenariaren m-urtean.
C I. motako desbideratzea (eskuzkoa).	592,9928	Euroak/unitate-urtean.
II. motako desbideratzea (urrutiko aginte bidezkoa).	2.274,2517	Euroak/unitate-urtean.
I. motako lautada (hormigoia/galtzada-harria).	20,3070	Euro urtean.
II. motako lautada (aglomerazioa).	11,7936	Euro urtean.
III. motako lautada (zabor-legarrak).	5,4506	Euro urtean.
Bideari lotutako ekipamendu-osagaiak.		
C Bideen arteko korridorea.	1,2506	Euroak/trenbidearen ml-urtean.
C Trenbidearen argiztapena.	1,4364	Euroak/trenbidearen ml-urtean.
C Trenbide-lautadako argiztapena.	2,1273	Euroak/trenbidearen ml-urtean.
C Suteen aurkako babes-sarea.	6,2507	Euroak/trenbidearen ml-urtean.
C Kargatzeko/deskargatzeko nasa.	55,1145	Euroak/trenbidearen ml-urtean.
Ekipamendurako aukerako osagaiak.		
C Koipeak jasotzeko bandeja.	547,5918	Euroak/unitate-urtean.
C Erregaia jasotzeko bandeja.	861,0515	Euroak/unitate-urtean.
C Kabinara sartzeko eskailerak.	21,9923	Euroak/unitate-urtean.
C Deskargatzeko isurbide-zuloa.	123,9525	Euroak/unitate-urtean.
C Mantentze-zuloa (hartunerik gabe).	197,8074	Euroak/unitate-urtean.
C Kargatzeko/deskargatzeko arrapala.	632,7437	Euroak/unitate-urtean.
C Uraren, elektrizitatearen edo aire konprimatuaren hornidurarako hargunea.	45,9375	Euroak/unitate-urtean.

81. artikulua. *Interes orokorreko portuetan okupazioaren, ontzien, bidaiarien eta salgaien tasei aplikatzeko hobariak.*

Estatuko Portuei eta Merkataritzako Ontzidiari buruzko Legearen testu bateginak, irailaren 5eko 2/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsiak, 182. eta 245. artikuluetan aurreikusitako hobariak, portu-agintaritzek okupazio-tasei eta ontzien, salgaien eta bidaiarien tasei aplikatzekoak, eta, hala badagokio, aplikazio-baldintzak, lege honen XII. eranskinean zehaztutakoak izango dira.

82. artikulua. *Interes orokorreko portuetan ontzien, bidaiarien eta salgaien tasei aplikatzeko koefiziente zuzentzaileak.*

Estatuko Portuei eta Merkataritzako Ontzidiari buruzko Legearen testu bateginak, irailaren 5eko 2/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsiak, 166. artikuluan aurreikusitako koefiziente zuzentzaileak, portu-agintaritzek ontzien, salgaien eta bidaiarien tasei aplikatu beharrekoak, taula honetan ageri direnak izango dira:

Portuko Agintaritza	Ontzien tasa	Bidaiarien tasa	Salgaien tasa
A Coruña.	1,30	1,00	1,30
Alacant.	1,20	1,10	1,25
Almería	1,26	1,26	1,24
Avilés herria.	1,18	1,00	1,05
Algecirasko badia.	0,90	0,90	0,90
Cádizko badia.	1,18	1,10	1,15
Balear Uharteak.	0,90	0,70	0,90
Bartzelona.	0,90	0,70	0,95
Bilbo.	1,05	1,05	1,05
Cartagena.	0,94	0,70	0,95
Castelló.	1,00	0,90	1,00
Ceuta.	1,30	1,30	1,30
Ferrol-San Cibrao.	1,06	0,80	1,01
Gijón.	1,25	1,10	1,20
Huelva.	1,00	0,70	0,90
Las Palmas.	1,00	1,00	1,00
Malaga.	1,15	1,05	1,15
Marín eta Pontevedrako itsasadarra.	1,09	1,00	1,12
Melilla.	1,30	1,30	1,30
Motril.	1,30	1,15	1,30
Pasaia.	1,25	0,95	1,15
Tenerifeko Santa Cruz.	1,05	1,30	1,05
Santander.	1,05	1,05	1,05
Sevilla.	1,18	1,10	1,15
Tarragona.	1,00	0,70	1,00
Valentzia.	0,90	1,00	1,20
Vigo.	1,10	1,00	1,20
Vilagarcía.	1,25	1,00	1,15

83. artikulua. *Ontziek sortutako hondakinak hartzeko tarifa finkoari aplikatzeko koefiziente zuzentzaileak.*

Estatuko Portuei eta Merkataritzako Nabigazioari buruzko Legearen testu bateginak, irailaren 5eko 2/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsiak, 132.8. artikuluan aurreikusitako koefiziente zuzentzaileak, portu-agintaritzek ontzien hondakinak hartzeko tarifa finkoari aplikatzekoak, honako koadro honetan ageri direnak izango dira:

Portuko Agintaritza	MARPOL koefiziente zuzentzailea
A Coruña.	1,00
Alacant.	1,00
Almería.	1,30
Avilés herria.	1,17
Algecirasko badia.	1,00
Cádizko badia.	1,00
Balear Uharteak.	1,30
Bartzelona.	1,00
Bilbo.	1,03
Cartagena.	1,00
Castelló.	1,00
Ceuta.	1,30
Ferrol-San Cibrao.	1,28
Gijón.	1,00
Huelva.	1,00
Las Palmas.	1,30
Malaga.	1,00
Marín eta Pontevedrako itsasadarra.	1,00
Melilla.	1,00
Motril.	1,30
Pasaia.	1,30
Tenerifeko Santa Cruz.	1,00
Santander.	1,00
Sevilla.	1,00
Tarragona.	1,10
Valentzia.	1,00
Vigo.	1,00
Vilagarcía.	1,00

84. artikulua. *Interes orokorreko portu-sistemari aplikatzeko tasak berrikustea.*

Estatuko Portuei eta Merkataritzako Nabigazioari buruzko Legearen testu bateginak, irailaren 5eko 2/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitakoak, hogeita bigarren xedapen gehigarrian aurreikusitakoari jarraituz, ez dira berrikusiko arau horretan xedatutako honako zenbateko hauek: itsasontziena, bidaiariena, salgaiena, kirol-ontziena, aisiako ontziena, iraganbidea erabiltzeagatiko tasarena, ontziek sortutako hondakinak hartzeko tarifa finkoarena.

Honako hauek ere ez dira aldatuko: portuetako lursailen eta uren balioak, okupazio-tasaren kuota osoak, jarduera-tasaren karga-tasak eta nabigazioari zuzendutako laguntzen tasaren oinarriko zenbatekoak; hurrenez hurren, aipatutako arauaren 177., 178., 190. eta 240. artikuluetan ezarritakoarekin bat.

VII. TITULUA

Lurralde-erakundeak

I. KAPITULUA

Toki-erakundeak

1. atala. *Finantzaketa-ereduen aplikazio-eremu subjektiboa lau urtean behin berrikustea*

85. artikulua. *Arau orokorra.*

Bat. Martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateginaren 126. artikuluan xedatutakoaren arabera, 2020ko urtarrilaren 1ean berrikusi egin behar dira arau horren 111. eta 122. artikulua aplikatzeko eremu subjektiboetan sartuko diren udalerriak, 2020ko urtarrilaren 1ean indarrean zegoen eta Gobernuak ofizialki onartu du en udal-eroldaren arabera zuzenbidezko biztanleria kontuan hartuta.

Bi. Toki Ogasunak Arautzen dituen Legearen testu bateginaren (martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsia) 122., 125., eta 126. artikuluetan xedatutakoaren arabera, 2020ko urtarrilaren 1ean berrikusi egin behar da udalerririk turistikoek izatera izango duten udalerrien multzoa, zuzenbidezko biztanleria aurreko zenbakian aipatutako moduan aintzat hartuta.

Aipaturiko testu bateginaren 125.4 artikulua aplikatzearen ondorioetarako, 2020a izango da erreferentziako hasierako ekitaldia, aipaturiko manuaren 1. zenbakiko baldintzak 2020ko urtarrilaren 1ean aurrenekoz betetzen dituzten udalerrietarako.

86. artikulua. *2004. oinarri-urteko Finantzaketarako Funts Osagarria zehaztea, Estatuaren zergen bidez bildutakoa lagatzeko eredian aurrenekoz bilduko diren udalerriei dagokienez.*

Bat. Manu honetan adierazitako udalerrietako bakoitzerako, honela kalkulatu da 2020rako Finantzaketarako Funts Osagarrian parte hartzea: 89., 90., 91. eta 92. artikuluetan ezarritakoaren arabera zehaztutako Estatuaren zergen bidez bildutakoaren lagapenari dagokion zenbatekoa kenduz Estatuaren 2019ko tributuetan parte hartzea erantsiz lortzen den partaidetzari, Toki Ogasunak Arautzen dituen Legearen testu bateginaren (martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsia) 121. artikuluan xedatutakoaren arabera ezarritako bilakaera-indizean:

$$PIE2020m = PIE2019m \times IE2020/2019$$

$$PFC2020m = PIE2020m - PIRPF2020m - PIVA2020m - \Sigma PIIIE(h)2020m$$

Non:

PIE2019m eta PIE2020m, m udalerriri Estatuaren diru-sarreretan 2019an dagokion partaidetza, aipaturiko testu bateginaren 122-124. artikulua bitartean definitutako eredia aplikatu den azkena, eta 2020an, Estatuaren zergen bidez bildutakoaren lagapen-eredua aplikatuko zaion lehena, hurrenez hurren, ekonomia-jardueren gaineko zergaren erreformatik eratorritako konpentsazioak jaso gabe.

IE2020/2019, Estatuaren tributuen bidez bildutakoak 2019. eta 2020. urteen artean izandako bilakaera-indizea.

PFC2020m, m udalerriri 2020an Finantzaketarako Funts Osagarrian duen partaidetza, ekonomia-jardueren gaineko zergaren erreformatik eratorritako konpentsazioak jaso gabe.

PIRPF2020m, PIVA2020m PIIEE(h)2020m m udalerriri lagatako bilketa-etekinen zenbatekoak, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari, balio erantsiaren gaineko zergari eta alkoholaren eta edari alkoholodunen gaineko zerga berezien multzoari, tabakolanen gaineko zergari eta hidrokarburoen gaineko 2020. urteko zergari dagokienez, martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateginaren 115., 116. eta 117. artikuluetan xedatutakoaren arabera zehaztu direnak.

Agindu honetan aipatzen diren udalen 2021. urteko Finantzaketarako Funts Osagarriaren konturako ekarpenak kalkulatzeko, aurreko irizpideak aplikatuko dira, baina 2020. urtearen ordeztu, 2021. urtea hartuko da aintzat.

Bi. 2004. oinarri-urteari dagokion Finantzaketarako Funts Osagarrian parte hartzea 2020ko Finantzaketarako Funts Osagarriko partaidetzan oinarrituz kalkulatu da, honako formula hau aplikatuz:

$$PFC2004m = PFC2020m / IE2020/2004$$

non:

PFC2004m eta PFC2020m, m udalerriri hurrenez hurren 2004an eta 2020an Finantzaketarako Funts Osagarrian izandako partaidetza, ekonomia-jardueren gaineko zergaren erreformatik eratorritako konpentsazioak jaso gabe.

IE2020/2004, Estatuaren tributuen bidez bildutakoak 2004. oinarri-urtearen eta 2020. urtearen artean izandako bilakaera-indizea.

87. artikulua. *2020ko urtarrilaren 1ean Estatuaren zergen bidez bildutakoaren lagapen-ereduan bilduta ez dauden udalerriri guztiek 2004. oinarri-urteko Estatuaren tributuetan izan beharreko partaidetza zehaztea.*

Bat. 2020ko urtarrilaren 1ean Estatuaren zergen bidez bildutakoaren lagapen-ereduan bilduta ez dauden udalerriri Estatuaren tributuetan parte hartzeko eredia aplikatzearen ondorioetarako, 2004. oinarri-urteko partaidetza, udalerriri horiei guztiei dagokiena, hurrengo zenbakietan xedatutakoaren arabera zehaztuko da.

Bi. Ekitaldi horretan, Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateginaren 122. artikulua eremu subjektiboan (martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onesten da testu bategina), 2016rako Estatuko Aurrekontu Orokorren urriaren 29ko 48/2015 Legearen 83. artikuluan xedatutakoa kontuan hartuta, sartutako udalerririk 2004. oinarri-urteko Estatuko tributuetan duten partaidetza osoa dagokien zatian murriztuko zaie lege honen 85. artikuluan ezarritako berrikuspenaren ondorioz 2020ko urtarrilaren 1etik aurrera Estatuaren zergak biltzeko etekinen lagapen-ereduan sartzen diren udalerriri.

Ondorio horietarako, 2019ko behin betiko likidazioaren ondorioz dagokien guztizko partaidetza hartuko da kontuan, Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateginaren –Martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua– 122.etik 124. era bitarteko artikuluetan zehaztutako finantzaketa-eredua aplikatuta, jaso gabe Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren erreformaren ondoriozko konpentsazioak. Zenbateko hori

2004. oinarri-urteko balioetara aldatuko da, martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateginaren 123. artikuluan arabera dagokion bilakaera-indizea aplikatuz.

Hiru. Era berean, ekitaldi horretan, Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateginaren 122. artikuluan eremu subjektiboan (martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onesten da testu bategina), 2016rako Estatu Aurrekontu Orokorren urriaren 29ko 48/2015 Legearen 83. artikuluan xedatutakoa kontuan hartuta, sartutako udalerriek 2004. oinarri-urteko Estatu tributuetan duten partaidetza osoa dagokien zatian handituko zaie lege honen 85. artikuluan ezarritako berrikuspenaren ondorioz Estatuaren zergak biltzeko lagapen-ereduan sartuta egotetik Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateginako 122.etik 124.era bitarteko artikuluetan araututa egotera igarotzen diren udalerriei. Horretarako, udalerririk 2019an lortutako finantzaketa osoa kalkulatu da, udalerririk horietako bakoitzari dagokionaren batura eginez, honako formula honen arabera:

$$PIE2019m = PFC2019m + PIRPF2019m + PIVA2019m + \Sigma PIIIE(h)2019m$$

Non:

PIE2019m, m udalerririk Estatuaren tributuetan zuen partaidetza osoa, aurreko eredia aplikatzen zen azken urtean, 2019an, ekonomia-jardueren gaineko zergaren erreformatik eratorritako konpentsazioak jaso gabe.

PFC2019m, m udalerririk Finantzaketarako Funts Osagarrian 2019an zeukan partaidetza, ekonomia-jardueren gaineko zergaren erreformatik eratorritako konpentsazioak jaso gabe.

PIRPF2019m, PIVA2019m eta PIIIE(h)2019m m udalerririk lagatutako etekinen zenbatekoak, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari, balio erantsiaren gaineko zergari eta alkoholaren eta edari alkoholodunen gaineko zerga berezien multzoari, tabakolanen gaineko zergari eta hidrokarburoen gaineko 2019. urteko zergari dagokienez, martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateginaren 115., 116. eta 117. artikuluetan xedatutakoaren arabera zehaztutakoak, bai eta 2019ko Estatu zergaren lagapenaren behin betiko likidazioa erregulatzen duen araudian eta 2012rako Estatu Aurrekontu Orokorrei buruzko ekainaren 29ko 2/2012 Legearen azken xedapenetako seigarrenean ere.

Formula hori aplikatu ostean, 2004. oinarri-urtean Toki Ogasunak Arautzen dituen Legearen testu bateginaren 122. artikulutik 124.era bitartean araututako eredura igarotzen diren udalerririk partaidetza osoa kalkulatu da, erlazio hau aplikatuta:

$$PIE2004m = PIE2019m / IE2019/2004$$

Non:

PIE2004m eta PIE2019m, m udalerririk 2004. oinarri-urtean Estatuaren diru-sarreretan izandako partaidetza osoa, eredia aplikatuz, eta 2019an izandakoa, hurrenez hurren, ekonomia-jardueren gaineko zergaren erreformatik eratorritako konpentsazioak jaso gabe.

IE2019/2004, Estatuaren tributuen bidez bildutakoak 2004. eta 2019. urteen artean izandako bilakaera-indizea.

2. atala. Estatuaren tributuetan parte hartzeari dagokion 2019ko behin betiko likidazioa

88. artikulua. *Araubide juridikoa eta saldo zordunak.*

Bat. Behin Estatuaren zerga bidezko diru-sarrerek 2004. urtetik 2019ra izandako bariazioa ezagututa, baita beharrezko bestelako datuak ere, Estatuaren tributuetan parte hartzeari dagokion behin betiko likidazioa kalkulatu da, 2019ko ekitaldiari dagokiona. Horretarako, Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateginako 111.etik 124.era

artikuluetan eta 135.etik 146.era artikuluetan jasotako baldintzak beteko dira (martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuz onesten da testu bategina), eta kontuan hartuko dira uztailaren 3ko 6/2018 Legeak, 2018rako Estatuaren Aurrekontu Orokorrenak, artikulu hauetan jasotako arauak: 100.etik 103.era, 105. eta 106. artikuluetan, 108.etik 111. era, 113. eta 115. artikuluetan. Eta 2019ko denbora-erreferentziak eguneratuko dira. Era berean, lege horren 106.Hiru artikuluaren b.2 atalean 2016. urteari buruz jasotako erreferentziak, udalaren zerga-ahaleginari buruzkoak, 2017. urtera eguneratuta daudela joko da

Aurreko zenbakian aipatutako likidaziotik sor daitezkeen saldo zordunak, estatu-zergen bidez lortutako diru-sarrereren etekinen lagapenari dagozkion finantzaketarenak, konpentsazio bidez itzuliko dituzte ukitutako toki-erakundeek likidazio horren ostean Estatuko tributuetan parte hartzeari dagokionez jasotzen dituzten konturako ekarpenen kontura, gehienez hiru urteko epean, hileko entrega baten ehuneko 25eko hiruhilekoko atxikipenen bidez, salbu eta, irizpide hori aplikatuta, adierazitako epea gainditzen bada; horrelakoetan, dagozkien atxikipenen maiztasuna eta zenbatekoa egokituko dira egoera hori saihesteko. Parte-hartze hori kapitulu honetako 4. ataleko eta 6. ataleko 1. azpiatalean dago araututa.

Bi. Aurreko Bat zenbakian aipatutako likidaziotik sor daitezkeen saldo zordunak, estatu-zergen bidez lortutako diru-sarrereren etekinen lagapenari dagozkion finantzaketarenak, konpentsazio bidez itzuliko dituzte ukitutako toki-erakundeek, Estatuko tributuetan parte hartzeari dagokion likidazioa egin ondoren sor daitezkeen saldo hartzekodunen kontura. Parte-hartze hori kapitulu honetako 4. atalean eta 6. ataleko 1. azpiatalean dago araututa. Aipatutako konpentsazioa egin ondoren egon litezkeen gainerako saldo zordunak konpentsazio bidez itzuliko dituzte toki-erakundeek, lagapen hartan bildutako estatu-zerga bakoitzeko jasotzen dituzten konturako ekarpenetan; nolana ere, ez zaizkie aplikatuko aurreko zenbakian ehunekoei eta epeei dagokienez adierazitako mugak.

Hiru. Artikulu honen Bi zenbakian aipatutako behin betiko likidazioen zenbatekoa Estatuaren aldekoa bada, eskubide gisa adieraziko da Estatuaren Diru-sarrereren Aurrekontuko IV. kapituluaren.

Lau. Ekonomia-jardueren gaineko zergaren erreformaren ondorioz probintzia bakarreko autonomia-erkidegoen alde (Kantabria, Madril eta Errioxa) egin beharreko konpentsazioen behin betiko likidazioaren zenbatekoa aurrekontu-kredituetan sartu ahalko da, bidezkoak diren aldaketak eta doikuntzak eginez, eta araubide erkideko autonomia-erkidegoen eta autonomia-estatutua duten hirien finantzaketa-sistema aplikatuz dagokien kopuruaren arabera. Halaber, alde aurretik Toki Administrazioaren Batzorde Nazionalako Ekonomia, Finantza eta Zerga Araubidearen Azpibatzerdeak txosten bat igorri beharko du, eta ondoren Batzorde Mistoak onartu.

Bost. Artikulu honetan aipatutako atxikipenak eta 113. artikuluan araututakoak batera gertatzen direnean, lehenengoek izango dute lehentasuna eta ez dira aintzat hartuko aipatu artikuluaren Bi paragrafoan zehaztutako ehunekoak kalkulatzeko.

3. atala. 2021ean Estatuaren zergen bidez bildutakoa udalerriei lagatzea.

89. artikulua. *Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren bidez bildutakoaren etekinak lagatzea: Konturako ekarpenak eta behin betiko likidazioa zehaztea.*

Bat. Martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuak onesten duen Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateginaren 111. artikuluan ezarritako eremu subjektiboan bildutako udalerriek 2021ean lortutako diru-bilketa likidoan parte hartuko dute; horretarako, behin betiko likidazioaren konturako ekarpen bat egingo dute hilero, hamabi guztira. Konturako ekarpen horien zenbateko osoa eragiketa honen bidez kalkulatu da:

$$ECIRPF_m = 0,021336 \times CL_{2018m} \times IA_{2021/2018} \times 0,95$$

non:

- $ECIRPF_m$: Konturako ekarpenen urteko zenbatekoa, m udalerriko pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren bidez bildutakoaren etekinen lagapena dela eta.
- CL_{2018m} : m udalerrian pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren bidez Estatuak lortutako kuota likidoa, 2018. urteari dagokiona (ezagutzen den azkena).
- $IA_{2021/2018}$: Estatuaren kuota likidoa eguneratzeko indizea, 2018tik –ezagutzen den azkena– 2021era. Honela kalkulatzen da: atxikipenen, konturako ekarpenen eta zatikako ordainketen bidez 2021erako aurreikusitako aurrekontuaren zenbatekoa zati kontzeptu horien bidez 2018an likidatutako eskubideen zenbatekoa –urte horretakoak dira udalerrien kuota likidoari dagokionez ezagutzen diren azken datuak–.

Udalerri bakoitzari eman beharreko zenbatekoa, formula horren arabera zehaztutakoa, diru-sarreraren itzulketa moduan izapidetuko da, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren kontzeptuan.

Bi. Behin betiko likidazioa honela kalkulatuko da: jasotako konturako ekarpenen eta udalerrri bakoitzari dagokion kuota likidoaren lagapenaren behin betiko balioaren arteko aldea zehaztuz. Kuota likidoaren lagapena Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateginaren 115. artikuluan dago xedatuta (martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onesten da testu bategina). Ondore horietarako, aurreko zenbakian adierazitako lagapen-ehunekoa aplikatuko da, 2012rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren ekainaren 29ko 2/2012 Legearen azken xedapenetako seigarrenean zehaztutakoarekin bat.

90. artikulua. *Balio erantsiaren gaineko zergaren bidez bildutako zenbateko likidoa lagatzea: Konturako ekarpenak eta behin betiko likidazioa zehaztea.*

Bat. Aurreko artikuluan aipatzen diren udalerriek balio erantsiaren gaineko zergaren bidez lortzen den diru-bilketa likidoan parte hartuko dute; horretarako, behin betiko likidazioaren konturako ekarpen bat egingo dute hiler, hamabi guztira.

Udalerri bakoitzari dagokion konturako ekarpenaren zenbatekoa honako eragiketa honen bidez kalkulatuko da:

$$ECIVA_m = PCIVA^* \times RPIVA \times ICP_i \times (P_m / P_i) \times 0,95$$

Non:

– $PCIVA^*$: Balio erantsiaren gaineko zergaren bidez bildutakoaren etekinen lagapenaren ehunekoa, udalerrien aldekoa. Konturako ekarpen hauen kasuan, ehuneko 2,3266 izango da.

– $ECIVA_m$: m udalerrriaren konturako ekarpenen urteko zenbatekoa, balio erantsiaren gaineko zergari dagokionez 2021erako aurreikusitako bilketaren lagapena dela eta.

– $RPIVA$: Estatuari balio erantsiaren gaineko zergaren bidez 2021erako dagokion diru-bilketa likidoaren aurrekontu-aurreikuspenaren zenbatekoa.

– ICP_i : i autonomia-erkidegoaren kontsumoaren behin-behineko indizea 2021. urterako. Horretarako, eskuragarri dagoen azken datua kontuan hartuko da; 2018. urteko behin betiko likidazioa kalkulatzeko erabilitakoa, hain zuzen ere.

– P_m eta P_i : m udalerriko biztanleria eta dagokion i autonomia-erkidegoko biztanleria. Horretarako, 2021eko urtarrilaren 1ean indarrean zegoen biztanleen udal-errolda hartuko da kontuan zuzenbideko biztanleak zehazteko, Gobernuak ofizialki onartutakoa.

Udalerri bakoitzari eman beharreko zenbatekoa, formula horren arabera zehaztutakoa, diru-sarreraren itzulketa moduan izapidetuko da, balio erantsiaren gaineko zergaren kontzeptuan.

Bi. Behin betiko likidazioa honela kalkulatuko da: jasotako konturako ekarpenen eta BEZaren bidez bildutako zenbateko likidoaren lagapenaren behin betiko balioaren arteko aldea zehaztuz. Zenbateko likidoaren lagapena Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen

testu bateginaren 116. artikuluan dago xedatuta (martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onesten da testu bategina). Ondorio horietarako, aurreko paragrafoan adierazitako lagapen-ehunekoa aplikatuko da, 2012rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren ekainaren 29ko 2/2012 Legearen azken xedapenetako seigarrenean zehaztutakoarekin bat.

91. artikulua. *Alkoholaren eta edari alkoholduen gaineko zerga berezien bidez bildutako zenbateko likidoa lagatzea: Konturako ekarpenak eta behin betiko likidazioa zehaztea.*

Bat. 89. artikuluan aipatzen diren udalerriek honako zerga hauen bidez lortutako diru-bilketa likidoan parte hartuko dute: Garagardoaren, Ardoaren eta Hartzitutako Edarien gaineko zergak, Tarteko Produktuen gainekoak eta Alkoholaren eta Edari Eratorrien gaineko Zergak. Horretarako, behin betiko likidazioaren konturako ekarpen bat egingo dute hilero, hamabi guztira.

Udalerrri bakoitzari dagokion konturako ekarpenaren zenbatekoa honako eragiketa honen bidez kalkulatu da:

$$ECIIIEE(h)_m = PCIIIEE^* \times RPIIEE(h) \times ICP_i(h) \times (P_m / P_i) \times 0,95$$

non:

– PCIIIEE*: Alkoholaren eta edari eratorrien gaineko zerga berezien bidez bildutakoaren etekinen lagapenaren ehunekoa. Konturako ekarpen hauen kasuan, ehuneko 2,9220 izango da.

– ECIIIEE(h)_m: m udalerrriaren konturako ekarpenen urteko zenbatekoa, zenbaki honen lehenengo paragrafoan zehaztutako produktuen gaineko h zerga bereziaren bidez 2021erako aurreikusitako bilketaren lagapena dela eta.

– RPIIEE(h): Estatuari zenbaki honen lehenengo paragrafoan zehaztutako produktuen gaineko h zerga bereziaren bidez 2021erako dagokion diru-bilketa likidoaren aurreikuspenaren zenbatekoa.

– ICP_i(h): m udalerrria dagoen i autonomia-erkidegoko kontsumoari dagokion 2021erako behin-behineko indizea, zenbaki honen lehenengo paragrafoan zehaztutako produktuen gaineko h zerga berezia dela eta. Horretarako, eskuragarri dauden azken datuak hartuko dira kontuan; hain zuzen ere, 2018. urteko behin betiko likidazioa kalkulatzeko erabili zirenak.

– P_m eta P_i: m udalerrriko biztanleria eta dagokion i autonomia-erkidegoko biztanleria. Horretarako, 2021eko urtarrilaren 1ean indarrean zegoen biztanleen udal-errolda hartuko da kontuan zuzenbideko biztanleak zehazteko, Gobernuak ofizialki onartutakoa.

Udalerrri bakoitzari konturako ekarpen gisa eman beharreko zenbatekoa, formula horren arabera zehaztutakoa, diru-sarreren itzulketa moduan izapidetuko da, zenbaki honen lehenengo paragrafoan zehaztutako zerga berezi bakoitzaren kontzeptuan.

Bi. Behin betiko likidazioa honela kalkulatu da: jasotako konturako ekarpenen eta aurreko zenbakiaren lehenengo paragrafoan zehaztutako zerga berezien bidez bildutako zenbateko likidoaren lagapenaren behin betiko balioaren arteko aldea zehaztuz. Zenbateko likidoaren lagapena Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateginaren 117. artikuluan 1. eta 2. zenbakietan dago xedatuta (martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onesten da testu bategina). Ondore horietarako, aurreko zenbakian adierazitako lagapen-ehunekoa aplikatuko da, 2012rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren ekainaren 29ko 2/2012 Legearen azken xedapenetako seigarrenean zehaztutakoarekin bat.

92. artikulua. *Hidrokarburoen eta tabako-laboreen gaineko zerga berezien bidez bildutako zenbateko likidoa lagatzea: Konturako ekarpenak eta behin betiko likidazioa zehaztea.*

Bat. 89. artikuluan aipatutako udalerriek parte hartuko dute hidrokarburoen eta tabako-lanen gaineko zergen bidez bildutako zenbateko likidoan. Horretarako, hamabi hilabetez jaso beharreko ekarpenak zehaztuko dira, behin betiko likidazioaren kontura.

Udallerri bakoitzari dagokion konturako ekarpenaren zenbateko osoa honako eragiketa honen bidez kalkulatu da:

$$ECIIIEE(k)_m = PCIIIEE^* \times RPIIEE(k) \times IP_m(k) \times 0,95$$

non:

– PCIIIEE*: Hidrokarburoen eta tabako-lanen zerga berezien bidez bildutakoaren etekinen lagapenaren ehunekoa. Konturako ekarpen hauen kasuan, ehuneko 2,9220 izango da.

– ECIIIEE(k)_m: m udalerriaren konturako ekarpenen urteko zenbatekoa, zenbaki honen lehenengo paragrafoan zehaztutako produktuen gaineko k zerga bereziaren bidez 2021erako aurreikusitako bilketaren lagapena dela eta.

– RPIIEE(k): Estatuari zenbaki honen lehenengo paragrafoan zehaztutako produktuen gaineko k zerga bereziaren bidez 2021erako dagokion diru-bilketa likidoaren aurrekontu-aurreikuspenaren zenbatekoa.

– IP_m(k): m udalerriaren 2021erako behin-behineko indizea, gasolina, gasolio eta fuel-olio entregei dagokiena, bai eta tabako-saltokiei saldutakoari ere. Entrega eta salmenta horiek dagozkien zerga-tasen arabera haztatuko dira. Ondore horietarako, eskuragarri dauden indizeen artean, azken urteari dagokiona izango da behin-behineko indizea.

Udallerri bakoitzari konturako ekarpen gisa eman beharreko zenbatekoa, formula horren arabera zehaztutakoa, diru-sarreraren itzulketa moduan izapidetuko da, zenbaki honen lehenengo paragrafoan zehaztutako zerga berezi bakoitzaren kontzeptuan.

Bi. Behin betiko likidazioa honela kalkulatu da: jasotako konturako ekarpenen eta aurreko zenbakiaren lehenengo paragrafoan zehaztutako zerga berezien bidez bildutako zenbateko likidoaren lagapenaren behin betiko balioaren arteko aldea zehaztuz. Zenbateko likidoaren lagapena Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateginaren 117. artikuluan dago xedatuta (martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onesten da testu bategina). Ondore horietarako, aurreko zenbakian adierazitako lagapen-ehunekoa aplikatu da, 2012rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren ekainaren 29ko 2/2012 Legearen azken xedapenetako seigarrenean zehaztutakoarekin bat.

4. atala. *Udalerriek Estatuaren tributuetan parte hartzea*

1. azpiatala. Udalerriek Finantzaketarako Funtz Osagarrian duten partaidetza.

93. artikulua. *Konturako ekarpenak zehaztea.*

Bat. Martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onesten den Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateginaren 111. artikuluan adierazitako eremu subjektiboan bildutako udallerri bakoitzak 2021eko Finantzaketarako Funtz Osagarrian duen partaidetza dela eta konturako ekarpenen zenbateko osoa ondoko kontzeptu honetan kontsignatutako berariazko kredituaren kontura egingo da: 38. atala, 21. Zerbitzua, Autonomia Erkidegoen eta Toki Erakundearen Finantzaketarako Idazkaritza Nagusia. Toki-erakundeak, 942 M programa, Toki-erakundeei egindako transferentziak, Estatuaren diru-sarreretan duten partaidetzagatik.

Bi. Zenbateko hori honela kalkulatu da: 2004. oinarri-urteko Finantzaketarako Funtz Osagarriaren ehuneko 95 bider Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateginaren, martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez

onetsitakoaren, 121. artikuluan zehaztutakoaren arabera dagokion bilakaera-indizea; guztia ere, arau honen ehun eta bosgarren xedapen gehigarrian zehaztutakoa aintzat hartuta. Era berean, errege lege-dekretu honen 86. artikuluan xedatzen dena aplikatuko da.

Hiru. Aurreko paragrafoko kalkuluaren arabera udalerrri bakoitzari dagokion kopuruari ehuneko 95 gehituko zaio, Ekonomia Jardueren gaineko Zergaren erreformaren ondorioz izandako diru-sarrereren murrizketak direla-eta.

a. Behin betiko konpentsazioa, Toki Ogasunak arautzen dituen Legea erreformatzen duen abenduaren 27ko 51/2002 Legearen hamargarren xedapen gehigarrian zehaztutakoa, Estatuak 2021ean, 2004. urtearekin alderatuta, tributuen bidez lortutako diru-sarrereren arabera eguneratua.

b. Erreforma gehigarria, azaroaren 18ko 22/2005 Legearen bigarren xedapen gehigarrian araututakoa, Estatuak 2021ean, 2006arekin alderatuta tributuen bidez, lortutako diru-sarrereren arabera eguneratua.

Lau. Finantzaketarako Funts Osagarrian parte hartzearen ondorioz egin beharreko konturako ekarpenak, 2021eko ekitaldian, hileru ordainduko dira; aurreko zenbakietan jasotako arauen arabera kalkulaturako zenbateko osoaren hamabirena hil bakoitzean, hain zuzen ere.

94. artikulua. *Behin betiko likidazioa.*

Bat. Finantzaketarako Funts Osagarriari dagokionez, 2021ean udalerrrien alde egin behar den behin betiko likidazioa honako kontzeptu honetako kredituaren kontura egingo da: 38. Atala, 21. Zerbitzua, Autonomia Erkidegoen eta Toki Erakundearen Finantzaketarako Idazkaritza Nagusia. Toki Erakundeak, 942M Programa, Toki Erakundeek egiteko transferentziak, Estatuaren diru-sarreretan duten partaidetzagatik, 468 Kontzeptua, aurreko urteetako behin betiko likidazioari eta finantzaketa-sistema berritik eratorritako konpentsazioei buruzkoa; guztia ere, Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateginaren, martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitakoaren, 119. eta 121. artikuluetan xedatutakoarekin bat. Era berean, errege lege-dekretu honen 86. artikuluan xedatzen dena aplikatuko da.

Bi. Aurreko zenbakian adierazitakoaren arabera udalerrri bakoitzari dagokion zenbatekoari diru-sarreretan izandako murrizketen konpentsazioak gehituko zaizkio, ekonomia-jardueren gaineko zergaren erreformaren ondorioz; zehazki, honako hauek:

a. Behin betiko konpentsazioa, Toki Ogasunak arautzen dituen Legea erreformatzen duen abenduaren 27ko 51/2002 Legearen hamargarren xedapen gehigarrian zehaztutakoa, Estatuak 2021ean, 2004. urtearekin alderatuta, tributuen bidez lortutako diru-sarrereren arabera eguneratua.

b. Erreforma gehigarria, azaroaren 18ko 22/2005 Legearen bigarren xedapen gehigarrian araututakoa, Estatuak 2021ean, 2006arekin alderatuta tributuen bidez, lortutako diru-sarrereren arabera eguneratua.

Hiru. Behin betiko likidazioa honela kalkulaturako da: aurreko artikuluan xedatutakoaren arabera finkaturako konturako ekarpenen zenbatekoen eta aurreko zenbakietan xedatutako moduan kalkulaturako behin betiko partaidetzaren arteko aldea zehaztuz.

2. azpiatala. Gainerako udalerrrien partaidetza

95. artikulua. *Udalerriek 2021eko ekitaldian Estatuaren tributuetan izango duten partaidetza.*

Bat. Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateginaren, martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitakoaren, 122. artikuluan adierazitako eremu subjektiboan bildutako udalerrri bakoitzari konturako ekarpenak

ordaintzeko zenbateko osoa hauxe izango da: 2004. oinarri-urtean Estatuaren tributuetan duten partaidetza osoaren ehuneko 95 bider bilakaera-indizea, Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateginaren, martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitakoaren, 123. artikulua araberakoa; betiere, arau honen ehun eta bosgarren xedapen gehigarria aintzat hartuta. Honako kontzeptu honetan kontsignatutako berariazko kredituaren kontura egingo da ordainketa: 38. atala, 21. zerbitzua, Autonomia Erkidegoen eta Toki Erakundearen Finantzaketarako Idazkaritza Nagusia. Tokiko Erakundeak, 942M Programa, Tokiko Erakundeei egiteko transferentziak, Estatuaren diru-sarreretan duten partaidetzagatik. Horri dagokionez, errege lege-dekretu honen 87. artikuluan xedatzen dena aplikatuko da.

Bi. Arestian aipatutako udalerrien alde 2021. urteari dagokion behin betiko likidazioa egiteko, Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateginaren, martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitakoaren, 123. eta 124. artikuluetan jasotako arauak beteko dira, eta likidazioa 468 kontzeptuan zehaztutako kredituaren kontura egingo da; kontzeptu hori aurreko urteetako behin betiko likidazioari eta finantzaketa-sistema berritik eratorritako konpentsazioei buruzkoa da, eta aurreko zenbakian adierazitako atal, zerbitzu eta programan sartuta dago.

Hiru. Aurreko zenbakietan xedatutako arauak aplikatuz lortzen den zenbateko osoa honako irizpide hauei jarraituz banatuko da:

a. Arau orokor gisa, udal bakoitzak 2003an Estatuaren tributuetan izandako partaidetzaren behin betiko likidazioaren ondorioz lortutako kopuru bera jasoko du. Zenbateko hori 2003rako Estatuaren Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 30eko 52/2002 Legearen 65. artikuluko bigarren, hirugarren, laugarren eta bosgarren paragrafoetan xedatutakoaren arabera kalkulatu da.

b. Gainerakoa proportzionalki banatuko da, jarraian adieraziko diren aldagaien eta ehunekoen arabera udal bakoitzak lortuko lukeen kopuruaren eta aurreko lerrokadan aurreikusitako zenbatekoen arteko diferentzia positiboari erreparatuta. Ondorio horietarako, aldagai eta ehuneko hauek aplikatuko dira:

1. Ehuneko 75 udalerrri bakoitzean dauden zuzenbidezko biztanleen arabera (horretarako, 2021eko abenduaren 31n indarrean zegoen biztanleen udal-errola hartuko da kontuan, Gobernuak ofizialki onartuta), eta honako koefiziente hauen arabera neurtuta, biztanle-geruzen arabera:

Geruza	Biztanle kopurua	Koefizienteak
1	50.000tik gora	1,40
2	20.001 eta 50.000 artean	1,30
3	5.001 eta 20.000 artean	1,17
4	5.000 arte	1,00

2. Ehuneko 12,5 udalerrri bakoitzak 2019ko ekitaldian izandako batez besteko ahalegin fiskalari erreparatuz, zuzenbidezko biztanleen arabera haztatuta, betiere 2021eko abenduaren 31n indarrean dagoen biztanleen udal-eroldaren arabera, Gobernuak ofizialki onartuta.

Ondore horietarako, udalerrien 2019ko ahalegin fiskaltzat jotzen da honako formula hau aplikatuz lortzen dena:

$$E_{fm} = [\sum a(RcO/RPm)] \times P_i$$

Formula horretan, honako irizpide hauek hartuko dira kontuan:

A. a faktoreak tributu bakoitzari dagokion batez besteko pisua adierazten du, 2019ko ekitaldi ekonomikoan lortutako diru-bilketa likido osoari dagokionez, borondatezko epean egina eta honako zerga hauetatik lortua: ondasun higiezin, ekonomia-jardueren eta trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergetatik. Finantzaketa-forma horretan biltzen diren udalerrri guztiei aplikatuko zaie, eta zerga-bilketa horretatik kanpo geratuko dira ekonomia-jardueren gaineko zergaren kuota nazional eta probintzialen banaketaren ondorioz lortutako etekinak eta probintziako diputazioei egotz dakizkiokkeen kuotak.

B. Aurreko lerrokadan aipatutako tributu bakoitzerako, udalerrri bakoitzari dagokion Rco/RPm erlazioa honela kalkulatu da:

i. Landa- eta hiri-ondasun higiezin gaineko zergaren kasuan, a faktorea udaleko osoko bilkurak erreferentziazko eperako finkatutako zerga-tasa errealarekin biderkatuz; gero, kasu bakoitzean gutxieneko tasa galdagarria adierazten duten balioekin zatituz, 0,4 edo 0,3rekin hurrenez hurren, eta, era berean, udalerrri bakoitzeko gehieneko tasa galdagarriarekin zatituz. Ondorio horietarako, zergapetze-tasa erreal eta maximoa aplikatuko dira, Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateginaren, martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitakoaren, 72. artikuluan 1. eta 3. paragrafoetan xedatutakoa betez.

Hiri-ondasun higiezin gaineko zergaren zehaztutako emaitza haztatzeko, kontuan hartuko dira udalerrri bakoitzeko biztanle bakoitzeko zerga-oinarria eta dagokion geruzaren biztanle bakoitzeko batez besteko zerga-oinarria; hala dagokionean, ezaugarri bereziko ondasun higieziari dagokiena ere barne hartuko da. Ondorio horietarako, kontuan hartu behar da Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateginaren, martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitakoaren, bederatzigarren xedapen gehigarrian adierazitakoa. Halaber, populazio-tarteak populazioaren aldagaiari esleitutako ehuneko 75 banatzeko erabili diren berberak izango dira.

ii. Ekonomia-jardueren gaineko zergari dagokionez, a faktorea udal-eroldaren zergaren zenbatekoarekin biderkatuz, Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateginaren, martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitakoaren, 87. artikuluan aipatzen den egoera-koefizientea aplikatzearen intzidentzia barne, 2019ko zergaldian indarrean zegoena; eta, gero, zergaren tarifetan zehaztutako gutxieneko kuoten baturarekin zatituz, berez dagokion zergarekin alderatuta, eta aipatutako legearen 86. artikuluan jasotako koefizienteekin haztatuta.

iii. Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren kasuan, a faktorea 1ekin biderkatuz.

iv. $\sum a(Rco/RPm)$ batura P_i faktorearekin biderkatuko da, P_i faktorea izanik zuzenbidezko biztanleria, betiere 2021eko abenduaren 31n indarrean dagoen udal-eroldaren arabera, eta Gobernuak ofizialki onartuta.

C. Biztanle bakoitzaren batez besteko ahalegin fiskalaren koefizientea, udalerrri bakoitzari dagokiona, ezin izango da 50.000 biztanletik gorako populazio-geruzan bildutako udaletako biztanle bakoitzaren batez besteko ahalegin fiskalaren koefizientearen balio txikiaren boskoitza baino handiagoa izan.

3. Ehuneko 12,5 tributu-gaitasunaren alderantzizkoaren arabera. Tributu-gaitasuntzat joko da udal bakoitzeko biztanle bakoitzak Hiriko Ondasun Higiezin gaineko Zerga dela-eta ordaindu beharreko tributu-oinarriaren eta dagokion geruzaren artean lortzen den kopurua. Kopuru hori udalerrri bakoitzeko zuzenbidezko biztanleekin eta partaidetza-mota honetan parte hartzen duen biztanleria osoarekin haztatuta; hartarako, 2021eko abenduaren 31n indarrean zegoen udal-errola kontuan hartuta, Gobernuak ofizialki onartuta. Ondorio horietarako, populazio-tarteak bat etorriko dira populazio-aldagaiari egokitutako ehuneko 75 banatzeko erabilitakoekin.

Aldagai hori kalkulatzeko, toki-erakundeetako hiriko eta ezaugarri bereziko ondasun higiezinaren gaineko zergaren zerga-oinarriei dagozkien datuak hartuko dira kontuan, 2019ko ekitaldiari dagozkionak.

Lau. Aurreko zenbakiko arauak aplikatuta lortzen den zenbatekoari diru-sarreretan izandako murrizketen konpentsazioak gehituko zaizkio, ekonomia-jardueren gaineko zergaren erreformaren ondorioz:

a. Behin betiko konpentsazioa, Toki Ogasunak arautzen dituen Legea erreformatzen duen abenduaren 27ko 51/2002 Legearen hamargarren xedapen gehigarrian zehaztutakoa, Estatuak 2021ean, 2004. urtearekin alderatuta, tributuen bidez lortutako diru-sarreraren arabera eguneratua.

b. Erreforma gehigarria, azaroaren 18ko 22/2005 Legearen bigarren xedapen gehigarrian araututakoa, Estatuak 2021ean, 2006arekin alderatuta tributuen bidez, lortutako diru-sarreraren arabera eguneratua.

Bost. Udalerrri turistikoaren partaidetza Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateginaren, martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuz onetsitakoaren, 125. artikuluko 4. zenbakian adierazitakoaren arabera zehaztuko da, eta aurreko Hiru eta Lau zenbakietan xedatutakoa betez. Ondore horietarako, arau honen 92. artikuluan jasotako lagapen-ehunekoak hartuko dira kontuan. Horren arabera kalkulaturako lagapenaren zenbatekoak ezin izango du, inolaz ere, artikuluko honen Hiru eta Lau zenbakietan xedatutakoa betez lortzen den partaidetza minoratu. Udalerrri turistikotzat joko dira 2020ko urtarrilaren 1ean aipatutako 125. artikuluko 1 paragrafoan jasotako baldintzak betetzen dituztenak.

Sei. 2020ko urtarrilaren 1ean egindako berrikuspenaren ondorioz gaur egun udalerrri turistiko gisa aitortuta dauden udalerrrien kasuan, hidrokarburoen eta tabako-lanen gaineko zergen bidez bildutako zenbatekoaren lagapena, 2004. oinarri-urteari dagokionez, honela kalkulatu da: udalerrri bakoitzak 2021eko ekitaldian hidrokarburoen eta tabako-lanen gaineko zergaren bidez bildutako zenbatekoaren likidoaren lagapena zati udalerrri horretan 2004arekiko Estatuaren tributuen bidez bildutako zenbatekoaren bilakaera. Zerga horien bidez bildutako zenbatekoaren lagapena xedapen honetan aipatzen da: Toki Ogasunak Arautzen dituen Legearen testu bateginaren, martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitakoaren, 125.4 artikuluan.

96. artikulua. *Konturako ekarpenak.*

Bat. Udalei hileroko ordainduko zaizkie aurreko artikulua arabera Estatuaren tributuetan parte hartzearen ondorioz 2021eko ekitaldian egin beharreko konturako ekarpenak; dagokien kredituaren hamabirena jasoko dute hil bakoitzean. Guztizko zenbatekoa kalkulatu aldera, errege lege-dekretu honen 87. artikuluan xedatzen dena aplikatuko da.

Bi. Udalerrri bakoitzaren partaidetza behin betiko likidazioa banatzeko ezarritako irizpideen arabera kalkulatu da, aldaketa hauek kontuan hartuz:

a. 2021eko urtarrilaren 1ean indarrean dagoen udal-eroldaren arabeko populazioa hartuko da kontuan, berau Gobernuak ofizialki onartuta. Ahalegin fiskalaren aldagaia eta tributuen ahalmenaren alderantzizkoaren egindako behin betiko likidazioetan azkenari dagozkion datuetan oinarrituko dira. Udal bakoitzari Estatuaren tributuetan duen partaidetza dela-eta eman beharreko gutxieneko zenbatekoa 2003ari dagokion behin betiko partaidetza osoaren ehuneko 95 izango da. Kopuru hori 2003rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren abenduaren 30eko 52/2002 Legearen 65. artikulua Bi, Hiru, Lau eta bost zenbakietan xedatutakoaren arabera zehaztuko da.

b. Aurreko lerrokadako kalkuluen arabera udalerrri bakoitzari dagokion kopuruari ehuneko 95 gehituko zaio, Ekonomia Jardueren gaineko Zergaren erreformaren ondorioz izandako diru-sarrerren murrizketak direla-eta:

1. Behin betiko konpentsazioa, Toki Ogasunak arautzen dituen Legea Erreformatzen duen abenduaren 27ko 51/2002 Legearen hamargarren xedapen gehigarrian zehaztutakoa, Estatuak 2021ean 2004arekin alderatuta tributuen bidez lortutako diru-sarrerren arabera eguneratua.

2. Konpentsazio gehigarria, azaroaren 18ko 22/2005 Legearen bigarren xedapen gehigarrian araututakoa, Estatuak 2021ean, 2006arekin alderatuta, tributuen bidez lortutako diru-sarrerren arabera eguneratua.

Hiru. Udalerrri turistiko bakoitzaren banakako partaidetza aurreko zenbakian xedatutakoaren arabera zehaztuko da. Ateratzen den zenbatekoari dagokionez, eragiketa hauek egingo dira: 2004. oinarri-urtean kalkulaturik, hidrokarburoen eta tabako-laboreen gaineko zergen bidez bildutakoaren lagapenaren neurriko zenbatekoa kenduko zaio, 2021ean 2004arekin alderatuta Estatuaren tributuen bidezko diru-sarrerren igoera-aurreikuspenaren neurri berean handituta, eta aurreko emaitza horri 2021ean konturako ekarpenengatik zerga horietan legokiokeen zenbatekoa gehituko zaio –betiere, lege honen 92. artikulua Bat zenbakiko arauak aplikatuta–; nolahi ere, transferitu beharreko zenbatekoa ez da txikiagoa izango aurreko zenbakian xedatutakoaren arabera kalkulaturik baina.

5. atala. *Estatuaren zergen bidez bildutakoa probintzietan, probintzia bakarreko autonomia-erkidegoei, eta uharteetako kabildo nahiz kontseiluei lagatzea*

97. artikulua. *Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren bidez bildutakoaren etekinak lagatzea: Konturako ekarpenak eta behin betiko likidazioa zehaztea.*

Bat. Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateginaren, martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitakoaren, 135. artikulua eremu subjektiboan bildutako probintzietan eta pareko erakundeek 2021ean lortzen den diru-bilketa likidoan parte hartuko dute, hileroko ekarpen bat, hamabi guztira, eginez behin betiko likidazioaren kontura.

Konturako ekarpen horien zenbateko osoa honako eragiketa honen bidez kalkulatu da:

$$ECIRPF_p = 0,012561 \times CL_{2018p} \times IA_{2021/2018} \times 0,95$$

non:

– ECIRPF_p: Konturako ekarpenen urteko zenbatekoa, p probintziako edo pareko erakundeko pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren bidez bildutakoaren etekinaren lagapena dela eta.

– CL_{2018p}: Estatuaren kuota likidoa, probintziako edo antzeko erakundearen esparruko pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren bidez lortutakoa 2018an (ezagutzen den azkenean).

– IA_{2021/2018}: Estatuaren kuota likidoa eguneratzeko indizea, 2018tik –ezagutzen den azkena– 2021era. Indize hori honela kalkulatu da: atxikipenen, konturako ekarpenen eta zatikako ordainketen bidez 2021erako aurreikusitako aurrekontuaren zenbatekoa zati kontzeptu horien bidez 2018an likidatutako eskubideen zenbatekoa –urte horretakoak dira probintziako edo pareko entitatearen esparruko kuota likidoari dagokionez ezagutzen diren azken datuak–.

Probintzia edo pareko erakunde bakoitzari konturako ekarpen gisa eman beharreko zenbatekoa, aurreko formularen arabera zehaztutakoa, transferentzia bidez ordainduko da,

hilaro hamabirena emanez, eta diru-sarrerren itzulketa moduan izapidetuko da, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren kontzeptuan.

Bi. Behin betiko likidazioa honela kalkulatu da: jasotako konturako ekarpenen eta probintzia edo antzeko erakunde bakoitzari dagokion kuota likidoaren lagapenaren behin betiko balioaren arteko aldea zehaztuz. Kuota likidoaren lagapena Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateginaren, martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitakoaren, 137. artikuluan dago xedatuta. Ondorio horietarako, aurreko paragrafoan adierazitako lagapen-ehunekoa aplikatu da, 2012rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren ekainaren 29ko 2/2012 Legearen azken xedapenetako seigarrenean zehaztutakoarekin bat.

98. artikulua. *Balio erantsiaren gaineko zergaren bidez bildutako zenbateko likidoa lagatzea: Konturako ekarpenak eta behin betiko likidazioa zehaztea.*

Bat. Aurreko artikuluan aipatzen diren probintziek eta pareko erakundeek parte hartuko dute balio erantsiaren gaineko zergaren bidez lortzen den diru-bilketa likidoan, behin betiko likidazioaren kontura hamabi hileko ekarpenak zehaztuz.

Erakunde horietako bakoitzari eman beharreko konturako ekarpenen zenbatekoa honako eragiketa honen bidez kalkulatu da:

$$ECIVA_p = PCIVA^{**} \times RPIVA \times ICP_i \times (P_p/P_i) \times 0,95$$

Non:

– PCIVA^{**}: Balio erantsiaren gaineko zergaren bidez bildutakoaren etekinaren lagapenaren ehunekoa, probintzien eta pareko erakundearen aldekoa. Konturako ekarpen hauen kasuan, ehuneko 1,3699 izango da.

– ECIVA_p: p probintziaren edo pareko erakundearen konturako ekarpenen urteko zenbatekoa, balio erantsiaren gaineko zergari dagokionez 2021erako aurreikusitako bilketaren lagapena dela eta.

– RPIVA: Estuari 2021erako balio erantsiaren gaineko zergaren bidez dagokion diru-bilketa likidoaren aurrekontu-aurreikuspenaren zenbatekoa.

– ICP_i: i autonomia-erkidegoaren kontsumoaren behin-behineko indizea 2021. urterako. Horretarako, eskuragarri dauden azken datuak hartuko dira kontuan; hain zuzen ere, 2018. urteko behin betiko likidazioa kalkulatzeko erabili zirenak.

– P_p eta P_i: p probintziako edo pareko erakunde bakoitzaren biztanleria eta dagokion i autonomia-erkidegoko biztanleria. Horretarako, 2021eko urtarrilaren 1ean indarrean zegoen biztanleen udal-errolda hartuko da kontuan zuzenbideko biztanleak zehazteko, Gobernuak ofizialki onartutakoa.

Probintzia edo pareko erakunde bakoitzari konturako ekarpen gisa eman beharreko zenbatekoa, aurreko formularen arabera zehaztutakoa, diru-sarrerren itzulketa moduan izapidetuko da, balio erantsiaren gaineko zergaren kontzeptuan.

Bi. Behin betiko likidazioa honela kalkulatu da: jasotako konturako ekarpenen eta balio erantsiaren gaineko zergaren bidez bildutako zenbateko likidoaren lagapenaren behin betiko balioaren arteko aldea zehaztuz. Zenbateko likidoaren lagapena Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateginaren, martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitakoaren, 138. artikuluan dago xedatuta. Ondorio horietarako, aurreko paragrafoan adierazitako lagapen-ehunekoa aplikatu da, 2012rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren ekainaren 29ko 2/2012 Legearen azken xedapenetako seigarrenean zehaztutakoarekin bat.

99. artikulua. *Alkoholaren eta edari alkoholduen gaineko zerga berezien bidez bildutako zenbateko likidoa lagatzea: Konturako ekarpenak eta behin betiko likidazioa zehaztea.*

Bat. Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateginaren, martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitakoaren, 135. artikuluen eremu

subjektiboan bildutako erakundeek parte hartuko dute honako zerga hauen bidez bildutako zenbateko likidoan: garagardoaren, ardoaren eta edari hartzituen gaineko zergak, tarteko produktuen gaineko zergak, eta alkoholaren eta edari deribatuen gaineko zergak. Horretarako, hamabi hilabetez jaso beharreko ekarpenak zehaztuko dira, behin betiko likidazioaren kontura.

Probintzia edo pareko erakunde bakoitzari eman beharreko konturako ekarpenen zenbateko osoa honako eragiketa honen bidez kalkulatu da:

$$ECIIIEE(h)_p = PCIIIEE^{**} \times RPIIEE(h) \times ICP_i(h) \times (P_p / P_i) \times 0,95$$

non:

– PCIIIEE^{**}: Alkoholaren eta edari eratorrien gaineko zerga berezien bidez bildutakoaren etekinen lagapenaren ehuneko, probintzien eta antzeko erakundeen aldekoa. Konturako ekarpen hauen kasuan, ehuneko 1,7206 izango da.

– ECIIIEE(h)_p: p probintziaren edo pareko erakundearen konturako ekarpenen urteko zenbatekoa, zenbaki honen lehenengo paragrafoan zehaztutako produktuen gaineko h zerga bereziaren bidez 2021erako aurreikusitako bilketaren lagapena dela eta.

– RPIIEE(h): Estatuari zenbaki honen lehenengo paragrafoan zehaztutako produktuen gaineko h zerga bereziaren bidez 2021erako dagokion diru-bilketa likidoaren aurrekontu-aurreikuspenaren zenbatekoa.

– ICP_i(h): p probintzia edo pareko erakundea dagoen i autonomia-erkidegoko kontsumoari dagokion 2021erako behin-behineko indizea, zenbaki honen lehenengo paragrafoan zehaztutako produktuen gaineko h zerga berezia dela eta. Horretarako, eskuragarri dauden azken datuak hartuko dira kontuan; hain zuzen ere, 2018. urteko behin betiko likidazioa kalkulatzeko erabili zirenak.

– P_p eta P_i: p probintziako edo pareko erakundeko biztanleria eta dagokion i autonomia-erkidegoko biztanleria. Horretarako, 2021eko urtarrilaren 1ean indarrean zegoen biztanleen udal-errola hartuko da kontuan zuzenbideko biztanleak zehazteko, Gobernuak ofizialki onartutakoa.

Probintzia edo pareko erakunde bakoitzari konturako ekarpen gisa eman beharreko zenbatekoa, aurreko formularen arabera zehaztutakoa, diru-sarreraren itzulketa moduan izapidetuko da, zenbaki honen lehenengo paragrafoan zehaztutako zerga berezi bakoitzaren kontzeptuan.

Bi. Behin betiko likidazioa honela kalkulatu da: jasotako konturako ekarpenen eta aurreko paragrafoaren lehenengo lerrokadan zehaztutako zerga berezien bidez bildutako zenbateko likidoaren lagapenaren behin betiko balioaren arteko aldea zehaztuz. Zenbateko likidoaren lagapena Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateginaren, martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitakoaren, 139. artikuluan dago xedatuta. Ondorio horietarako, aurreko paragrafoan adierazitako lagapen-ehuneko aplikatu da, 2012rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren ekainaren 29ko 2/2012 Legearen azken xedapenetako seigarrenean zehaztutakoarekin bat.

100. artikulua. *Hidrokarburoen eta tabako-laboreen gaineko zerga berezien bidez bildutako zenbateko likidoa lagatzea: Konturako ekarpenak eta behin betiko likidazioa zehaztea.*

Bat. Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateginaren, martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitakoaren, 135. artikuluan adierazitako eremu subjektiboan bildutako probintziek eta antzeko erakundeek parte hartuko dute hidrokarburoen eta tabako-lanen zergen bidez bilduko den zenbateko likidoan, behin betiko likidazioaren kontura hamabi hilabetez ekarpenak jasoz.

Probintzia edo pareko erakunde bakoitzari eman beharreko konturako ekarpenen zenbateko osoa honako eragiketa honen bidez kalkulatu da:

$$ECIIIEE(k)_p = PCIIIEE^{**} \times RPIIEE(k) \times IPP(k) \times 0,95$$

non:

– PCIIIEE^{**}: Hidrokarburoen eta tabako-lanen zerga berezien bidez bildutakoaren etekinen lagapenaren ehunekoa, probintzien eta antzeko erakundeen aldekoa. Konturako entrega hauen kasuan, ehuneko 1,7206 izango da.

– ECIIIEE(k)_p: p probintziaren edo pareko erakundearen konturako ekarpenen urteko zenbatekoa, zenbaki honen lehenengo paragrafoan zehaztutako produktuen gaineko k zerga bereziaren bidez 2021erako aurreikusitako bilketaren lagapena dela eta.

– RPIIEE(k): Estatuari zenbaki honen lehenengo paragrafoan zehaztutako produktuen gaineko k zerga bereziaren bidez 2021erako dagokion diru-bilketa likidoaren aurrekontu-aurreikuspenaren zenbatekoa.

– IPP(k): p probintziaren edo pareko erakundearen 2021erako behin-behineko indizea, gasolina, gasolio eta fuel-olio entreegi dagokiena, bai eta tabako-saltokiei saldutakoari ere. Entrega eta salmenta horiek dagozkien zerga-tasen arabera haztatuko dira. Ondore horietarako, eskuragarri dagoen azken urteko datuak hartuko dira kontuan.

Udalerrri bakoitzari konturako ekarpen gisa eman beharreko zenbatekoa, formula horren arabera zehaztutakoa, diru-sarrerren itzulketa moduan izapidetuko da, zenbaki honen lehenengo paragrafoan zehaztutako zerga berezi bakoitzaren kontzeptuan.

Bi. Behin betiko likidazioa honela kalkulatu da: jasotako konturako ekarpenen eta aurreko artikuluan zehaztutako zerga berezien bidez bildutako zenbateko likidoaren lagapenaren behin betiko balioaren arteko aldea zehaztuz. Zenbateko likidoaren lagapena Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateginaren, martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitakoaren, 139. artikuluan dago xedatuta. Ondore horietarako, aurreko zenbakian adierazitako lagapen-ehunekoa aplikatu da, 2012rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren ekainaren 29ko 2/2012 Legearen azken xedapenetako seigarrenean zehaztutakoarekin bat.

6. atala. *Probintziek, probintzia bakarreko autonomia-erkidegoek eta uharteetako kabildo nahiz kontseiluek Estatuaren tributuetan parte hartzea*

1. azpiatala. Finantzaketarako Funts Osagarrian parte hartzea.

101. artikulua. *Konturako ekarpenak zehaztea.*

Bat. Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateginaren, martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitakoaren, 135. artikuluan adierazitako eremu subjektiboan bildutako probintzia edo pareko erakunde bakoitzari 2021eko ekitaldiari dagokion Finantzaketarako Funts Osagarrian duen partaidetza dela-eta eman beharreko konturako ekarpenen zenbateko osoa, arau honen laurogeita hamahirugarren xedapen gehigarria kontuan izanda, Diputazio eta Uharteetako Kabildoei egin beharreko transferentzien kredituaren kargura egingo da. Diputazioen eta Uharteetako Kabildoen konturako ekarpenak, Estatuaren Aurrekontuko I. eta II. kapituluetakoko diru-sarreretan duten partaidetzagatik, autonomia-erkidegoei laga ezin zaizkien baliabideengatik; honako kontzeptu honetan kontsignatuta: 38. atala, 21. zerbitzua, Autonomia Erkidegoen eta Toki Erakundearen Finantzaketarako Idazkaritza Nagusia. Tokiko Erakundeak, 942M Programa, Tokiko Erakundeak egiteko transferentziak, Estatuaren diru-sarreretan duten partaidetzagatik.

Bi. Zenbateko hori honela kalkulatu da: 2004ko Finantzaketarako Funts Osagarriaren ehuneko 95, Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateginaren,

martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitakoaren, 121. artikuluan zehaztutakoaren arabera bilakaera-indizea aplikatuta.

Hiru. Aurreko paragrafoko kalkuluaren arabera lortutako kopuruari ehuneko 95 gehituko zaio, Ekonomia Jardueren gaineko Zergaren honako erreforma hauen ondorioz izandako diru-sarrereren murrizketak direla-eta:

a. Behin betiko konpentsazioa, Toki Ogasunak arautzen dituen Legea erreformatzen duen abenduaren 27ko 51/2002 Legearen hamargarren xedapen gehigarrian zehaztutakoa, Estatuak 2021ean 2004arekin alderatuta tributuen bidez lortutako diru-sarrereren hein berean handitua.

b. Erreforma gehigarria, azaroaren 18ko 22/2005 Legearen bigarren xedapen gehigarrian araututakoa, Estatuak 2021ean 2006arekin alderatuta tributuen bidez lortutako diru-sarrereren arabera handitua.

Lau. Finantzaketarako Funts Osagarrian parte hartzea dela eta egin beharreko konturako ekarpenak, 2021eko ekitaldian, hilero ordainduko zaizkie artikulua honetan aipatutako toki-erakundeei; aurreko zenbakietan jasotako arauen arabera kalkulaturako zenbateko osoaren hamabirena hil bakoitzean, hain zuzen ere.

102. artikulua. *Behin betiko likidazioa.*

Bat. Finantzaketarako Funts Osagarriari dagokionez 2021ean probintzien eta pareko erakundeen alde egin beharreko behin betiko likidazioa honako kontzeptu honetako kredituaren kontura egingo da: 38. atala, 21 zerbitzua, Autonomia Erkidegoen eta Toki Erakundeen Finantzaketarako Idazkaritza Nagusia. Toki Erakundeak, 942M Programa, Toki Erakundeei egiteko transferentziak, Estatuaren diru-sarreretan duten partaidetzagatik, 468 Kontzeptua, aurreko urteetako behin betiko likidazioari eta finantzaketa-sistema berritik eratorritako konpentsazioei buruzkoa; guztia ere, Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateginaren, martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitakoaren, 141. eta 143. artikuluetan xedatutakoarekin bat.

Bi. Aurreko zenbatekoari, hala badagokio, konpentsazio hauen zenbatekoa gehituko zaio, ekonomia-jardueren gaineko zergaren erreformaren ondorioz diru-sarreretan izandako murrizketengatik:

a. Behin betiko konpentsazioa, Toki Ogasunak arautzen dituen Legea erreformatzen duen abenduaren 27ko 51/2002 Legearen hamargarren xedapen gehigarrian zehaztutakoa, Estatuak 2021ean, 2004. urtearekin alderatuta, tributuen bidez lortutako diru-sarrereren arabera eguneratua.

b. Erreforma gehigarria, azaroaren 18ko 22/2005 Legearen bigarren xedapen gehigarrian araututakoa, Estatuak 2021ean, 2006arekin alderatuta tributuen bidez, lortutako diru-sarrereren arabera eguneratua.

Probintzia bakarreko autonomia-erkidegoen alde (Kantabria, Madril eta Errioxa) egin beharreko konpentsazioen behin betiko likidazioaren zenbatekoa aurrekontu-kredituetan sartu ahalko da, bidezkoak diren aldaketak eta doikuntzak eginez, eta araubide erkideko autonomia-erkidegoen eta autonomia-estatutua duten hirien finantzaketa-sistema aplikatuz dagokien kopuruaren arabera. Erabaki hori Batzorde Mistoak hartuko du, Toki Administrazioiko Batzorde Nazionaleko Ekonomia, Finantza eta Zerga Araubidearen Azpibatzordearen txostena jaso ondoren.

Hiru. Behin betiko likidazioa honela kalkulaturako da: aurreko artikuluan xedatutakoaren arabera finkatutako konturako ekarpenen zenbatekoaren baturaren eta aurreko paragrafoetan adierazitako moduan finkatutako behin betiko partaidetzaren arteko aldea zehaztuz.

2. azpiatala. Osasun Laguntzarako Ekarpen Funtsean parte hartzea

103. artikulua. *Konturako ekarpenak zehaztea.*

Bat. Diputazioen, uharte ez diren probintzia bakarreko autonomia-erkidegoen eta uharteetako kontseilu eta kabildeen osasun-zentro ez-psikiatrikoak mantentzeko, «Uharteetako diputazio eta kabildeen transferentziak» kredituaren kontura egiten da esleipena. Diputazioen eta Uharteetako Kabildeen konturako ekarpenak, Estatuaren Aurrekontuko I. eta II. kapituluetakoko diru-sarreretan duten partaidetzagatik, autonomia-erkidegoei laga ezin zaizkien baliabideengatik; honako kontzeptu honetan kontsignatuta: 38. atala, 21. zerbitzua, Autonomia Erkidegoen eta Toki Erakundearen Finantzaketarako Idazkaritza Nagusia. Tokiko Erakundeak, 942M programa, Tokiko Erakundeei egiteko transferentziak, Estatuaren diru-sarreretan duten partaidetzagatik, 764 milioi euroko zenbatekoa, konturako ekarpenen kontzeptuan. Probintziako diputazioek, uharte ez diren probintzia bakarreko autonomia-erkidegoek, eta uharteetako kabildeo nahiz kontseiluek hileroko jasoko dituzte funts horretan duten partaidetza dela eta 2021eko ekitaldian dagozkien konturako ekarpenak; zehazki, kredituaren hamabirena jasoko dute hilabete bakoitzean. Osasun-zentroak mantentzera xedatutako kopurua proportzionalki banatuko da, kontuan hartuz 2004an Estatuaren tributuetan izandako partaidetzaren behin betiko likidazioaren kontzeptu horrengatik jasotako zenbatekoa. Kopuru hori Finantzaketarako Funtsean Osagarrian duten partaidetzagatik dagozkien konturako ekarpenekin batera jasoko dute –ekarpen hori aurreko azpiatalean dago araututa–.

Bi. Ospitaleen kudeaketa ekonomiko eta finantzarioa, Osasunari buruzko apirilaren 25eko 14/1986 Lege Orokorrean xedatutako moduan, dagozkien autonomia-erkidegoei eskualdatzen zaienean, zerbitzua eskualdatzen duen erakundearen partaidetzaren konturako ekarpenak esleituko zaizkie erakunde horiei, eta Estatuaren tributuetan duten partaidetzan sartu ahal izango dira, dagokion batzorde mistoaren erabakiz, aurrekontu-kredituetan beharrezko aldaketak eta doikuntzak eginda. Hala ere, Toki Administrazioaren Batzorde Nazionalerako Ekonomia, Finantza eta Zerga Araubidearen Azpibatzenordeak txostena egin beharko du aurretik.

104. artikulua. *Behin betiko likidazioa.*

Bat. Osasun Laguntzarako Ekarpen Funtsean 2021eko zuzkiduraren behin betiko likidazioa, probintzietan, uharte ez diren probintzia bakarreko autonomia-erkidegoei eta uharteetako dagokien, honako kontzeptu honetako kredituaren kontura egingo da: 38. atala, 21. zerbitzua, Autonomia Erkidegoen eta Toki Erakundearen Finantzaketarako Idazkaritza Nagusia. Tokiko Erakundeak, 942M programa, Tokiko Erakundeei egiteko transferentziak, Estatuaren diru-sarreretan duten partaidetzagatik, 468 kontzeptua, aurreko urteetako behin betiko likidazioari eta finantzaketa-sistema berritik eratorritako konpentsazioei buruzkoa; guztia ere, Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateginaren, martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitakoaren, 143. eta 144. artikuluetan xedatutakoarekin bat. Kalkulua egiteko oinarri gisa, 2004an Estatuaren tributuetan parte hartzeagatik egindako behin betiko likidazioaren zenbatekoak hartu dira.

Bi. Ospitale-zentroen kudeaketa ekonomikoa eta finantzarioa (apirilaren 25eko 14/1986 Osasun Lege Orokorrean xedatutakoa betez) dagozkien Autonomia Erkidegoen esku utziz gero, erakunde horiei esleituko zaizkie zerbitzua transferitu duen erakundearen partaidetzari dagozkien konturako ordainketak, aurretik aipatutako funts berean.

7. atala. Araubide bereziak

105. artikulua. *Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde historikoek eta Nafarroak Estatuaren tributuetan parte hartzea.*

Bat. Euskadiko eta Nafarroako udalerriek Estatuaren tributuetan izango duten partaidetza kapitulu honen 4. ataleko 2. azpiatalean jasotako arauen arabera zehaztuko da; Ekonomia Itunaren eta Hitzarmen Ekonomikoaren esparruan, hurrenez hurren.

Bi. Euskadiko foru-aldundiak eta Nafarroako Foru Komunitateak Estatuaren tributuetan izango duten partaidetza Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateginaren, martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitakoaren, 146. artikuluan xedatutakoaren arabera zehaztuko da; Ekonomia Itunaren eta Hitzarmen Ekonomikoaren esparruan, hurrenez hurren.

106. artikulua. *Kanarietako toki-erakundeek Estatuaren tributuetan parte hartzea.*

Bat. Estatu-zergen bidez bildutakoaren etekinak Kanarietako udalerriei lagatzeko – zehazki, Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateginaren, martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitakoaren, 111. artikuluan xedatutako eremu subjektiboan bildutakoei–, bai eta uharteetako kabildoei ere, aipatutako arauaren 158. artikuluan xedatutakoa beteko da.

Bi. Aurreko zenbakian aipatutako toki-erakundeek Finantzaketarako Funts Osagarrian izango duten partaidetza zehazteko, kapitulu honen 4. ataleko 1. azpiatalean eta 5. 6. ataleko 1. azpiatalean xedatutakoa beteko da, arestian aipatutako arauaren 158. artikuluan adierazitakoa aintzat hartuta.

Hiru. Kanarietako gainerako udalerriek Estatuaren tributuetan izango duten partaidetza zehazteko, kapitulu honen 4. ataleko 2. azpiatalean jasotako arauak beteko dira, eta araubide erkideko udalerrien proportzio berari helduko zaio.

107. artikulua. *Ceuta eta Melilla hiriek Estatuaren tributuetan parte hartzea.*

Bat. Ceuta eta Melilla hiriek, udalerriei parekatutako erakunde gisa, kapitulu honetan bildutako arau orokorren arabera hartuko dute parte Estatuaren tributuetan.

Bi. Ceuta eta Melilla hiriek, probintziei parekatutako erakunde gisa, Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateginaren, martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitakoaren, 146. artikuluan adierazitakoaren arabera hartuko dute parte Estatuaren tributuetan.

8. atala. *Konpentsazioak, dirulaguntzak eta laguntzak*

108. artikulua. *Pertsona fisiko edo juridikoei toki-tributuetan aitortutako zerga-onurengatik udalei eman beharreko konpentsazioa.*

Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateginaren, martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitakoaren, 9. artikuluan xedatutako betetzeko, kreditu bat ezartzen da indarrean dagoen Estatuaren Gastuen Aurrekontuan; zehazki, kontzeptu honetan: 38. atala, 21. zerbitzua, Autonomia Erkidegoen eta Toki Erakundeen Finantzaketarako Idazkaritza Nagusia. Toki-erakundeak, 942N programa, 466 kontzeptua. Kreditu horren helburua nahitaez ordaindu beharreko toki-tributuetako zerga-onurak konpentsatzea da; Estatuak lege bidez aitor ditzake halako onurak, aipatutako 9. artikulua bi zenbakian xedatutako moduan.

Ordainketa egin baino lehen, konpentsazio-eskaerak egiaztatu egingo dira: ekonomia-jardueren gaineko zergaren kasuan, zerga horren matrikularen datu-baseetan dagoen informazioan oinarrituz; ondasun higiezinaren gaineko zergaren kasuan, berriz, higiezinaren katastroko datu-baseetan dagoenean oinarrituz.

Horretarako, Ogasun Ministerioko Zerga Administrazioako Estatu Agentziak eta Katastroaren Zuzendaritza Nagusiak erraztasunak emango dituzte, Autonomia Erkidegoen

eta Toki Erakundeen Finantzaketarako Idazkaritza Nagusiarekin informatikaren bidez komunikatzeko.

Ogasun Ministerioari baimena ematen zaio barkatutako tributu-zorrak eta legez aitortutako salbuespenak direla eta udalerriak konpentsatzearen kasu bakoitzean jarraitu beharreko prozedura ezartzeko behar diren arauak onets ditzan.

109. artikulua. *Toki-erakundeentzako beste konpentsazio eta dirulaguntza batzuk.*

Bat. 1988ko abenduaren 1ean sinatutako eta indarreko Ameriketako Estatu Batuekiko Defentsarako Lankidetzeta Hitzarmenean ezarritako zerga-onurak aplikatzearen ondorioz 2020an barkatzekoak diren kuotak konpentsatu egingo dira, trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergan, honako kreditu hauen kontura: 37. atala, 02. zerbitzua, Autonomia Erkidegoen eta Toki Erakundeen Finantzaketarako Idazkaritza Nagusia. Toki-erakundeak, 942N programa, 461 kontzeptua.

Kompentsatu beharreko zenbatekoa kalkulatzeko, Autonomia Erkidegoen eta Toki Erakundeen Finantzaketarako Idazkaritza Nagusiak horretarako emandako Ebazpenean xedatutakoa beteko da.

Bi. Ceuta eta Melilla hiriei 8 milioi euroko laguntza ematen zaie, ur-hornikuntzarako itsasoko ura gezatzeko instalazioen funtzionamendu-kostuei aurre egiteko. Laguntza hori honako kontzeptu honetako kredituen kontura emango da: 37. atala, 02. zerbitzua, Autonomia Erkidegoen eta Toki Erakundeen Finantzaketarako Idazkaritza Nagusia. Toki-erakundeak, 942N programa, Toki-erakundeentzako beste ekarpen batzuk, 464 kontzeptua.

Aurreko lerrokadan adierazitako dirulaguntzak ordaintzeko, dagokion tresna arautzaileak xedatutakoari jarraituko zaio. Dirulaguntza izendunen kasuan, kontuan hartuko dira, batetik, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 28. artikuluan zehaztutakoa, eta, bestetik, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, aipaturiko legea garatzen duen Erregelamendua onartzen duena.

Aipatutako zenbatekoa Ceuta eta Melilla hirien artean banatzeko, udalerrri bakoitzeko zuzenbidezko biztanleria hartuko da kontuan; zehazki, aurreko ekitaldiko urtarrilaren 1ean indarrean zegoen udal-eroldan jasotakoa. Ceuta hiriarri 3,97 milioi euro dagozkio, eta Melilla hiriarri 4,03 milioi euro.

Hiru. Ceuta eta Melilla hiriei konpentsazioa emango zaie, ekoizpenaren, zerbitzuen eta inportazioaren gaineko zergaren bilketan izandako galerengatik, tabako-lanen inportazioei eta zerga osagarriari dagokienez; konpentsazio hori Zerga, Administrazio eta Gizarte Arloko Neurriei buruzko abenduaren 30eko 53/2002 Legearen 11. artikuluan dago araututa. Galera horiek honako kontzeptu honetako kredituaren kontura konpentsatuko dira: 38. atala, 21 zerbitzua, Autonomia Erkidegoen eta Toki Erakundeen Finantzaketarako Idazkaritza Nagusia. Toki-erakundeak, 942N programa, 464 Kontzeptua.

Hiri horietako bakoitzari ordainketa egingo zaio hilerio, aurreko ekitaldian aitortutako behin betiko konpentsazioaren hamabirenaren zenbatekoa aintzat hartuta, 2021eko ekitaldian ordaindu beharreko zenbatekoaren konturako aurrerakinaren kontzeptuan.

Aurretik aipatutako 53/2002 Legearen 11. artikuluan ezarritako kalkuluak egiteko beharrezko dokumentazioa aurkeztutakoan, dagokion likidazioa egingo da, eta ordaindu egingo da dagokion behin betiko konpentsazioaren zenbatekoaren eta egindako konturako ekarpenen zenbatekoaren artean dagoen aldea.

Lau. Ceuta eta Melilla hiriei konpentsazioa emango zaie karburanteen eta petrolio-erregaien gaineko karga osagarriari dagokion ekoizpenaren, zerbitzuen eta inportazioaren gaineko zergaren diru-bilketan izandako galerengatik, oinarri gisa 2010eko ekitaldian bildutakoa hartuta. Honako kontzeptu honetako kredituaren kontura emango zaie konpentsazioa: 38. atala, 21 zerbitzua, Autonomia Erkidegoen eta Toki Erakundeen Finantzaketarako Idazkaritza Nagusia. Toki-erakundeak, 942N programa, 464 kontzeptua.

Kompentsazioaren zenbatekoa hauxe izango da: 2020ko ekitaldian eta 2010ekoan kontzeptu horri dagokionez lortutako diru-bilketa likidoaren arteko aldea; betiere, alde hori negatiboa bada. Horretarako, dagokion autonomia-erkidegoko kontu-hartzailearen ziurtagiria aurkeztu beharko da; ziurtagiri horretan, ekitaldi horietan izandako diru-bilketa

likidua zehaztuko da. Behar den dokumentazioa aurkeztu ostean, dagokion likidazioa egingo da, ordainketa egiteko.

110. artikulua. *Udalen aldeko aurrerakinak, toki-tributuak biltzeko kudeaketan izandako desorekak direla eta.*

Bat. Errolden jaulkipenarekin lotutako inguruabarrak direla eta, ondasun higiezin gaineko zerga 2021eko abuztuaren 1a baino lehen likidatzerik ez dagoenean, ukitutako udalerriek aipatutako zergaren konturako aurrerakinak jaso ahal izango dituzte Altxor Publikoaren eskutik, diruzaintzaren arloan dauzkaten gutxieneko beharrak babesteko. Horretarako, dagokion korporazioko osoko bilkurak baimena eman beharko du alde zurretik.

Aurrerakin horiek jaso ahal izateko, udalerriek eskaera egin beharko dute, eta Katastroaren Zuzendaritza Nagusiak txostena eman beharko du horren inguruan. Eskaera horiek Autonomia Erkidegoen eta Toki Erakundeen Finantzaketarako Idazkaritza Nagusiak izapidetuko eta ebatziko ditu.

Espedienteak izapidetzean, honako baldintza hauek hartuko dira kontuan:

a. Aurrerakinak ezin izango dira errolda bakoitzari aurreikuspenaren arabera egotz dakioken zerga-bilketaren zenbatekoaren ehuneko 75etik gorakoak izan.

b. Formula horren bidez korporazio bakoitzari aurreratuko zaion urteko zenbatekoa ez da izango Estatuaren tributuetan izandako partaidetza dela-eta udal horrek azken urtean jasotakoaren bikoitza baino handiagoa.

c. Ezin izango da eskatu tributu berari dagozkion segidako bi zergaldi baino gehiagoren aurrerakinak.

d. Diputazio probintziales, uharteetako kabildo eta kontseiluek, probintzia bakarreko autonomia-erkidegoek eta zergak biltzen dituzten beste erakunde publikoek, erreferentzia-udalei aurrerakinak eman dizkietenean, Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateginak, martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuz onetsitakoak, 149.2 artikuluan aurreikusitako moduan, aurrerakinari dagokion kopurua jaso ahal izango dute –gehienez ere, aurreratu duten zenbateko bera–, diruzaintzako eragiketak osotasunean edota partzialki kitatu ahal izateko, eta, betiere, alde zurretik justifikatuta.

e. Behin betiko ebazpena eman ostean, aurreko d letran aipatutako udalek edo erakundeek aurrerakinaren zenbateko garbia jasoko dute. Urte bakoitzeko irailaren 1etik aurrera, zenbatekoaren laurdena jasoko dute hilero, eta paragrafo honen lehenengo lerrokadan adierazitako hutsuneak konpondu eta hurrengo hilabetean utziko zaio ordainketak egiteari.

Apartatu honetan xedatutakoaren arabera emandako aurrerakinei, egoki bada, Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateginaren, martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitakoaren, laugarren xedapen gehigarrian aurreikusitako atxikipen berberak egingo zaizkie. Aipatutako errolden zuzenketa jakinarazten duen Katastroaren Zuzendaritza Nagusiaren txostena jasotakoan itzuliko dituzte aurrerakinak toki-erakundeek.

Bi. Diruzaintzan premiazko eta ezohiko beharrak dauden kasuetan, ekitaldian bertan itzuli beharreko aurrerakinak eman ahal izango zaizkie udalei, Estatuako tributuetan duten partaidetzaren kontura. Halako aurrerakinak emateko, Autonomia Erkidegoen eta Toki Erakundeen Finantzaketarako Idazkaritza Nagusiaren ebazpena beharko da. Aurrerakin horiek emateko, baldintza hauek bete beharko dira:

a. Udaleko osoko bilkuraren akordioa, bertako presidenteari aurrerakina eskatzeko baimena ematen diona eta eskaeraren baldintzak zehazten dituen.

b. Udal kontu-hartzailetzaren txostena, toki-erakundearen egoera ekonomiko-finantzarioa zehazten duena eta aurrerakinaren behararen ezohiko zergatia zehaztasunez arazoitzen duena.

c. Udal Diruzaintzaren txostena, dena delako ekitaldiko diru-sarreraren eta gastuen aurreikuspenari buruzkoa.

9. atala. *Kapitulu honetan jasotako xedapenekin lotuta dauden arau instrumentalak*

111. artikulua. *Toki-erakundeen aldeko kreditu zehatz batzuen aurrekontu-kudeaketarako arauak.*

Bat. Ogasun Ministerioari baimena ematen zaio gastuak 2022ko ekitaldiaren kargura egiteko. Gastu horiek ezin izango dute 2021erako Aurrekontuan jasotako kredituen hamabirena gainditu, eta udalei eta probintzietako diputazioei edo pareko erakundeei Estatuaren tributuetan duten partaidetzaren 2022ko urtarrileko konturako ekarpenak ordaintzeko erabiliko dira. Aipatutako ekitaldiari egoztekoak diren behin betiko konturako entregak zehaztearekin lotuta sor daitezkeen aldeak doituko dira aipatutako ekitaldiaren otsaileko konturako entregetan.

Bi. Kapitulu honetako aurreko artikuluetan zehaztutako konpromisoak betetzeko xedea duten gastu-espeditentak eta ordainketa-aginduak aldi berean izapidetuko dira ukitutako toki-korporazioen alde, eta, funtsen xedagarritasuna aintzat hartuta, aurrekontutik kanpoko hartzekodunen kontuen kargura bete ahal izango dira, kontu horiek Diruzaintzaren eta Nazioarteko Finantzaren Idazkaritza Nagusian xede horietarako gaituta badaude; hala, jasotzaile guztiei batera eta aldi berean ordainduko zaizkie obligazioak, ebazpenen data aintzat hartuta, eta baldintza berdinetan.

Honako hauek presaz izapidetu beharko dira:

Kreditua aldatzeko espeditentak, aipatutako konpromisoei dagokienez.

1995eko abenduaren 27ko Aginduak adierazitako erreferentziazko konpromisoei lotutako gastu-espeditentak.

Ondorio horietarako, aurrekontu-kudeaketaren prozeduraren faseak metatu egin beharko dira, eta, era berean, dagozkien eragiketen kontabilitate-erregistroaren prozedura bereziak gauzatu.

Hiru. Aurreko paragrafoan aurreikusitako kasuetan, kreditua areagotzeko espeditentak izapidetu behar direnean, kreditua areagotzeko eskaerak ukitutako toki-erakundeek egindako eskaera osagarrien arabera arrazoituko dira, Aurrekontuei buruzko azaroaren 26ko 47/2003 Lege Orokorraren 54. artikuluan xedatutakoari jarraiki.

Lau. Gastuen Aurrekontuan aurreko Bat paragrafoan adierazitako helburuetarako xedatutako kredituak beharrezko periodikotasunarekin transferitu ahal izango dira Diruzaintzaren eta Nazioarteko Finantzaren Idazkaritza Nagusian horretarako gaitutako aurrekontuz kanpoko kontura. Prozedura hori toki-erakundeek Estatuaren tributuetan duten partaidetzatik eratorritako obligazioak aldi berean ordaintzeko aplikatu ahal izango da, konturako ekarpen gisa nahiz behin betiko likidazio modura, bai eta toki-korporazioek egindako eskaeretatik eratorritako obligazioak aldi berean ordaintzeko ere, Estatuak obligazio horiek aintzatesteko dagozkion ebazpenak eman ostean.

112. artikulua. *Toki-korporazioek eman beharreko informazioa.*

Bat. Udalek Estatuaren tributuetan duten partaidetzari dagokionez 2021eko behin betiko likidazioa egiteko, toki-korporazioek honako dokumentazio hau aurkeztu beharko dute, 2021eko ekainaren 30a baino lehen, Ogasun Ministerioko organo eskudunek zehaztutako moduan:

1. 2019an honako zerga hauen bidez eskuratutako zenbateko likidoaren ziurtagiria: ondasun higiezinaren gaineko zerga, ekonomia-jardueren gaineko zerga eta trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga. Ondasun higiezinaren gaineko zergaren kasuan, ezaugarri bereziko ondasun higiezinengatik bildutakoa zehaztu beharko da.

2. 2019ko erroldetatik ondorioztatutako zerga-oinarriak jasotzen dituen ziurtagiria, eta errolda horietan izandako alden gainekoa, hiri-ondasun higiezinaren gaineko zergari dagokionez; horrez gain, aurreko paragrafoan aipatutako zergetan udalerrian galdagarri diren tasen ziurtagiria. Ondasun higiezinaren gaineko zergari dagokionez, ezaugarri bereziko ondasun higiezinari dagokien tributuzko informazioa zehaztu beharko da. Gainera, 2019an

aplikatutako murrizketak zehaztu beharko dira, aplikatu badira; zehazki, Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateginak, martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitakoak, bederatzigarren xedapen gehigarrian adierazten dituenak.

3. Ekonomia-jardueren gaineko zergan 2019an galdagarri ziren kuoten ziurtagiria, zergaldi hartan indarrean zeudenena; barne hartu beharko da Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateginak, martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitakoak, 86. artikuluan aipatutako koefizientea aplikatzearen eragina.

Bi. Dokumentazioa elektronikoki bidaliko da horretarako prestatutako eruedetan, kontu-hartzailearen edo, hala badagokio, kontabilitate-eginkizuna esleituta duen toki-korporazioko organoaren titularraren sinadura elektronikoen bidez.

Toki-erakundeak igorritako datuei dagokienez, sinadura elektronikoen, abenduaren 19ko 59/2003 Legeak xedatutako moduan ulertuta, eskuz egindako sinaduraren balio berbera izango du; hortaz, informazioa modu elektronikoa igorri gero, ez du aipatutako dokumentazioa paperean bidaltzeko betebeharririk izango.

Hiru. Autonomia Erkidegoen eta Toki Erakundeen Finantzaketarako Idazkaritza Nagusiak dagokion ebazpena emango du, behar den informazioaren xehetasunak biltzen dituzten ereduak ezartzeko, dokumentazioa telematikoki aurkezteko prozedura arautzeko, eta sinadura elektronikoa xedatzeko.

Lau. Kapitulu honen 4. atalaren 2. azpiatalaren aplikazio-esparruan egon arren, aurrez adierazitako dokumentazioa aurkezten ez duten udalerriei haztapen-modulu bat aplikatuko zaie, hala badagokie; zehazki, dagokion biztanleria-gunearen barruan koefiziente txikiena duen udalerriri aplikatzekoa zaion batez besteko ahalegin fiskalaren ehuneko 60ri dagokiona. Hori guztia, Estatuko tributuetan duten partaidetzagatik 2021erako behin betiko likidazioa egiteko.

113. artikulua. *Toki-erakundeei egin beharreko atxikpenak, Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateginak, martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuz onetsitakoak, laugarren xedapen gehigarrian zehaztutakoaren arabera.*

Bat. Zerga-bilketa kudeatzeko eginkizuna lege esleituta duen organo eskudunak hala eskatuz gero, Autonomia Erkidegoen eta Toki Erakundeen Finantzaketarako Idazkaritza Nagusiak dagozkion atxikpenak aplikatuko ditu udalerriek eta probintziek Estatuaren tributuetan duten partaidetzan, aplikatzekoa den berariazko araudiaren arabera.

Atxikipenean Estatuaren tributuetatik eratorritako zorrak, Gizarte Segurantzaren kuotetatik eratorritako zorrak, eta horien baterako zerga-bilketatik eratorritako zorrak badaude, eta horien guztien baturak atxikitako zenbatekoa gainditzen badu, atxikitako zenbatekoa zor bakoitzaren zenbatekoaren arabera hainbanatuko da.

Bi. Atxikipenaren zenbatekoa dagokion toki-erakundeari esleitutako zenbatekoaren ehuneko 50 izango da, bai konturako ekarpen bakoitzean, bai Estatuaren tributuetan duen partaidetzari dagokion urteko behin betiko likidazioan, zorra atxikitako zenbatekoa baino txikiagoa denean izan ezik.

Zorrak lege egotzitako Estatuaren tributuen ondorio direnean, gauzak ordaindu diren konturako diru-sartzeen ondorio, edozein zergarengatik atxikitako edo atxiki beharreko zenbatekoen ondorio, edota Gizarte Segurantzaren atxikitako edo atxiki beharreko kotizazioen ondorio, atxikipena toki-erakundeari esleitutako zenbatekoaren ehuneko 100ekoa izango da, bai konturako ekarpen bakoitzean, bai Estatuaren tributuetan duen partaidetzari dagokion urteko behin betiko likidazioan, zorra atxikitako zenbatekoa baino txikiagoa denean izan ezik.

Hiru. Ekitaldi osoan atxiki beharreko zenbatekoa murriztu egin ahal izango da, honako betebeharrak betetzearen ondorioz diruzaintzan desoreka larriak daudela justifikatzen denean:

- a. Langileekin lotutako obligazioak erregulartasunez betetzea;
- b. Udalerriko biztanle-kopuruaren arabera nahitaezkoak diren zerbitzu publikoak ematea;

c. Gizarte-zerbitzuak eta babes zibila ematea, eta suteak itzaltzea, baldin eta zerbitzu horien truke kontraprestaziorik eskatzen ez bada prezio publiko bidez edo emandako zerbitzuaren kostuari dagokion antzeko tasa baten bidez.

Atxikipenaren ehunekoa ezin izango da konturako ekarpenaren ehuneko 25 baino txikiagoa izan.

Finantzak saneatzeko partzuergoetan sartu diren toki-erakundeei ez zaizkie atxikipenak murriztuko, partzuergo horietan beste herri-administrazio batzuetako erakundeak ere egonez gero.

Atxikipenaren ehunekoa murrizteko prozeduretan, Autonomia Erkidegoen eta Toki Erakundeen Finantzaketarako Idazkaritza Nagusiak dagokion ebazpena emango du, erakundearen finantza-egoera eta nahitaezko zerbitzu publikoak bermatzeko beharra aintzat hartuz. Horretarako, toki-erakundeak besteak beste honako dokumentu hauek aurkeztu beharko ditu, nahitaez:

- Erakunde hartzekodunetako organo biltzaileek igorritako ziurtagiria, ziurtagiria eskatu aurreko hilabetearen aurreko hamabi hilabeteetako zergen ordainketak egunean daudela egiaztatzen duena;

- Uneko finantza-egoerari buruzko txostena, tokiko kontu-hartzaileak sinatua. Bertan, alderdi hauek jaso beharko dira: atxikipenaren ehunekoa murrizteko eskaera egindako egunean diruzaintzan zeuden geldikinen kalkulua, eta egoera horrek zer-nolako eragina duen zenbaki honen lehenengo paragrafoan zehaztutako obligazioak betetzerakoan;

- Udalbatzak onartutako Saneamendu Plana, indarreko ekitaldia barnean duena. Ondore horietarako, saneamendu-planaren baliokidetzat joko da doikuntza-plana, Ogasun Ministerioak horren aldeko balioespena egin duenean likideziako ezohiko neurrien esparruan; neurri horiei Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren lehenengo xedapen gehigarrian egiten zaie aipamena.

Ebazpenean, atxikipenaren ehunekoa murriztuta izango den epealdia zehaztu beharko da; epealdi hori ezin izango da ekitaldi ekonomikoaren amaieratik aurrera luzatu. Nolanahi ere, murrizketa hori aplikatu ahal izateko, behar-beharrezkoa izango da toki-erakundeak saneamendu-plan bat onartzea edota indarrean den beste bat betetzen duela egiaztatzea.

Lau. Zorra Altxor Publikoaren kargura egindako finantza-aurrerakinak itzultzearen ondorioz sortu denean, atxikipena dagokion aurrerakina emateko ebazpenean zehaztutako baldintzetara egokitu beharko da, zor osoa ordainketa bakarrean kitatuz, edota ondoz ondoko atxikipenen bidez kitatuz, behin betiko iraungi arte.

Bost. Zerga-bilketa kudeatzeko eskumena legez esleituta duen organoari dagokio zorrak atxikitako zenbatekoen kontura iraungi direla adierazten duten ebazpenak ematea, aplikatzekoa den berariazko araudiaren arabera; ebazpen horiek atxikipena egin zen unetik aurrera sortuko dituzte ondoreak, zorrari dagokion zatian.

Sei. Artikulu honetan jasotako arauak aplikatzekoak izango dira toki-erakundeek Kreditu Ofizialeko Institutuarekiko dauzkaten zor irmoen kasuan, institutuak bideratutako kreditu-lerroagatik. Zor horiek uztailaren 1eko 8/2011 Errege Lege Dekretuaren II. kapituluaren bigarren atalean daude jasota. Manu honetako arauak aplikatzekoak izango dira, halaber, Toki Erakundeak Finantzatzeko Funtseko edozein konpartimentutan hartutako zor irmoen kasuan; funts hori Autonomia-erkidegoen eta toki-erakundeen finantza-iraunkortasunerako neurriei eta bestelako neurri ekonomikoei buruzko abenduaren 26ko 17/2014 Errege Lege Dekretuaren 7. artikulua sortu zuen.

Zazpi. Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren 18.5 artikuluan jasotako neurria aplikatzekoa den kasuetan, aplikatu beharreko atxikipen-ehunekoa, gehienez ere, artikulu honen Bi zenbakiaren lehenengo paragrafoan finkatutakoa izango da; betiere, arau hartan aipatutako hornitzaileekiko zorrak ez badira pilatzen toki-erakundeek hartzekodun publikoekin dauzkaten beste zor batzuekin, manu honen mende egonez gero.

Aipatutako zor-pilaketa dagoen kasuetan, aplikatu beharreko atxikipena, gehienez ere, eta oro har, ehuneko 70 izango da, eta ezin izango da murriztu Hiru zenbakian xedatutakoa betez; ehuneko horretatik, ehuneko 50, gehienez ere, hartzekodun publikoei egokituko zaie, eta ehuneko 20, gehienez ere, toki-erakundeen hornitzaileei, 2/2012 Lege Organikoaren 18.5 artikulua mende dauden kasuan. Aipatutako lehenengo tarte artikulua honen Bat eta Bi zenbakietan jasotako irizpidearen arabera esleituko zaie hartzekodun publikoei.

Pilaketa egonez gero hornitzaileekiko zorren eta legez jasandako Estatuaren tributuetatik eratorritako zorren artean, edo gauzako ordainsariei dagozkien konturako diru-sarreretatik, atxikitako zenbatekoetatik edota edozein zergaren kontura atxiki behar zirenetatik, edota atxikitako edo atxiki beharreko gizarte-kotizazioetatik eratorritako zorren artean, aplikatu beharreko atxikipena dagokion toki-erakundeari esleitutako zenbatekoaren ehuneko 100 izango da, aurreko Hiru zenbakiaren bigarren paragrafoan xedatutakoarekin bat; nolahi ere, toki-erakundeen hornitzaileei ordaintzeko esleitzen den zenbatekoa ezin izango da izan Estatuaren tributuetan duen partaidetza osatzen duen kontzeptu guztiengatik dagokien zenbateko gordinaren ehuneko 20tik gorakoa.

II. KAPITULUA

Autonomia-erkidegoak

114. artikulua. *Nahikotasun Globalaren Funtsaren konturako ekarpenak.*

Nahikotasun Globalaren Funtsaren konturako ekarpenak gauzatzeko aurrekontu-kredituak honako kontzeptu honetan jasotakoak izango dira autonomia-erkidego bakoitzerako eta autonomia-estatutua duen hiri bakoitzerako, aplikatzekoak zaizkien atxikipenak, zuzenketak eta gainerako manuak kontuan hartuta: 38. atala «Lurralde-erakundeak finantzatzeko sistemak», 941M programa «Autonomia-erkidegoei egin beharreko transferentziak, Estatuaren diru-sarreretan duten partaidetzagatik», 451 kontzeptua «Nahikotasun Globalaren Funtsa». Konturako ekarpen horiek abenduaren 18ko 22/2009 Legearen 20. artikuluan daude xedatuta; hots, Araubide erkideko autonomia-erkidegoen eta autonomia-estatutua duten hirien finantzaketa-sistema arautzen duen eta zerga-arau batzuk aldatzen dituen legean.

115. artikulua. *Autonomia-erkidegoen eta autonomia-estatutua duten hirien finantzaketa-sistemako baliabideen behin betiko likidazioa eta Konbergentzia Funtsarako partaidetza.*

Bat. Abenduaren 18ko 22/2009 Legearen 11. artikulua 2. zenbakiak xedatutakoaren arabera, 2021ean lege horretako I. tituluan araututako baliabide guztien 2019ko behin betiko balioak ezagutzen direnean, ekitaldi horretako likidazioa egingo da. Aipaturiko 11. artikulua 3. zenbakian xedatutakoari jarraituz, une horretan zehaztuko da autonomia-erkidego bakoitzak edo autonomia-estatutua duen hiri bakoitzak 2019ko konbergentzia autonomikorako funtsetan izango duen partaidetza, abenduaren 18ko 22/2009 Legearen 23. eta 24. artikuluetan, lehenengo xedapen iragankorren Zazpi zenbakiaren hirugarren paragrafoan eta lehenengo xedapen gehigarrian adierazitakoaren arabera. Konbergentzia autonomikorako funtsak lege horren beraren II. tituluan daude araututa.

Bi. 2019. urteari dagokion likidazioaren saldo globala autonomia-erkidegoaren edo autonomia-estatutua duen hiriaren aldekoa izanez gero, likidazio positiboen ordainketak egitean, likidazioen zenbatekoa Estatuaren alde deskontatuko dira, konpentsazio bidez.

Hiru. Likidazioaren saldo globala Estatuaren aldekoa izanez gero, erkidegoaren aldeko likidazioen ordainketak egitean honako hauek deskontatuko dira, abenduaren 18ko 22/2009 Legearen 11.3 artikuluan ezarritakoaren arabera, ordena honetan: Berme Funtsaren Transferentziako Estatuaren aldeko saldoa, lagatuko tributuen saldoa eta Nahikotasun Globalaren Funtsaren saldoa.

Konpentsatu gabe geratu diren gainerako likidazio-saldoak abenduaren 18ko 22/2009 Legearen 11.3 artikuluan xedatutakoaren arabera konpentsatuko dira.

Lau. Abenduaren 18ko 22/2009 Legearen hirugarren xedapen gehigarrian ezarritakoari jarraituz, Estatuak, legez aurreikusitako kasuan, konpentsatu egingo ditu autonomia-erkidegoak, hala Oinarrizko Zerbitzu Publikoen Berme Funttsaren nola Nahikotasun Globalaren Funttsaren 2019ko transferentzien zenbatekoak negatiboak direnean; Estatuak Bost zenbakian adierazitako aurrekontu-kredituaren bidez egingo du konpentsazio hori. Konpentsazio horrek ikur positiboa izango du, eta zenbateko hauxe, autonomia-erkidego jasotzaile bakoitzerako: Lehiakortasun Funtseko baliabide guztiak banatu ostean, abenduaren 18ko 22/2009 Legearen 23. artikuluan 5 paragrafoan deskribatutako finantzaketa-indizea unitatea izan dadin aukera ematen duena; muga, betiere, Nahikotasun Globalaren Funtts negatiboaren behin betiko balioaren zenbatekoa izango da.

Artikulu honen aurreko zenbakietan ezarritakoaren ondorioetarako, konpentsazioaren zenbatekoa autonomia-erkidegoak Lehiakortasun Funtsean duen partaidetzaren behin betiko likidazioan sartuko da.

Bost. Honako zenbateko hauek erantsiko zaizkie 38. ataleko 20. zerbitzuko «Autonomia Erkidegoen eta Toki Erakundeen Finantzaketarako Idazkaritza Nagusia. Hainbat autonomia-erkidego» 941M Programako «Autonomia-erkidegoei egin beharreko transferentziak, Estatuaren diru-sarreretan duten partaidetzagatik» 452 Kontzeptuko «Autonomia-estatutua daukaten autonomia-erkidegoen eta hirien finantzaketaren aurreko ekitaldietako behin betiko likidazioa» kredituei:

1) Abenduaren 18ko 22/2009 Legearen 20. artikuluan araututako Nahikotasun Globalaren Funttsaren 2019ko behin betiko likidazioen zenbatekoa, bai eta Estatuak Oinarrizko Zerbitzu Publikoen Berme Funttsari egindako ekarpenaren zenbatekoa ere, autonomia-erkidegoen eta autonomia-estatutua duten hirien aldekoak badira.

Aurreko paragrafoan aipaturiko behin betiko likidazioen zenbatekoa Estatuaren aldekoa izanez gero, eskubide gisa adieraziko da Estatuaren Diru Sarreraren Aurrekontuko IV. kapituluan.

2) Autonomia-erkidegoek eta autonomia-estatutua duten hiriek abenduaren 18ko 22/2009 Legearen 23. eta 24. artikuluetan, lehenengo xedapen iragankorraren Zazpi zenbakiaren hirugarren paragrafoan eta lehenengo xedapen gehigarrian araututako konbergentzia autonomikorako funtsetan 2019an izandako partaidetzen behin betiko likidazioen zenbatekoa, artikulu honen bat zenbakian adierazitakoaren arabera zehaztuta.

3) Abenduaren 18ko 22/2009 Legearen hirugarren xedapen gehigarrian xedatutako konpentsazioa, aplikatzekoa izanez gero, artikulu honetako lau zenbakian adierazitakoaren arabera zehaztuta.

116. artikulua. *Autonomia-erkidegoei egindako transferentziak, eskualdatutako zerbitzu berrien kostua dela kausa.*

2021eko urtarrilaren 1etik aurrera autonomia-erkidegoei zerbitzuen transferentzia berriak egiten bazaizkie, Aurrekontuen Zuzendaritza Nagusiak zehazten dituen 38. ataleko kontzeptu espezifikoetan beharrezko diren kredituak hornituko dira, autonomia-erkidegoei beren gain hartutako zerbitzuen benetako kostua transferitzeko.

Ondore horietarako, zerbitzu-transferentzia berriak onesten dituzten errege-dekretuek alderdi hauek zehaztuko dituzte, gutxienez:

a) Autonomia-erkidegoak zein egunetan hartu behar duen bere gain transferitu zaion zerbitzuaren kudeaketa.

b) 2021eko ekitaldiaren urteko finantzaketa, eurotan, horren barruko gastu-kapituluetan zehaztuta.

c) 2007 oinarri-urteari dagokion balioespena, urte horretako benetako kostuari dagokionez, dagokion autonomia-erkidegoaren Nahikotasun Globalaren Funtseko balioa berrikusteko, 22/2009 Legearen 21.1 artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

117. artikulua. *Autonomia-erkidegoei eta Ceuta eta Melilla hiriei baliabide gehigarriak ematea.*

Bat. 2021ean sartu egiten da 13.486.000.000 euroko aurrekontu-zuzkidura osoa, autonomia-erkidegoei eta Ceuta eta Melilla hiriei finantzaketa handiagoa emateko, zehazki, honako kontzeptu hauek baliatuta: Estatuaren Aurrekontu Orokorren 37. atala, «Autonomia eta Toki Finantzaketarako Idazkaritza Nagusia. Autonomia-erkidegoak» 01 Zerbitzua, «Autonomia erkidegoei egin beharreko beste transferentzia batzuk» 941O programa, «Transferentzia arruntak» 4. kapituluan, «Autonomia erkidegoei» 45. artikulua, «Autonomia-erkidegoei egin beharreko beste transferentzia batzuk» 459 kontzeptua, «Autonomia-erkidegoei eta Ceuta eta Melilla hiri autonomoei eman beharreko baliabide gehigarriak» 01 azpikontzeptua.

Bi. Aurreko apartatuan aipatzen den kredituaren lurralde-banaketa Errege Dekretu bidez onartzen diren banaketa-irizpideetan oinarrituta egingo da, Zerga eta Finantza Politikako Kontseiluari jakinarazi ondoren, eta bertan jasoko dira erkidego eta hiri bakoitzari esleitutako zenbatekoak zehazteko behar diren zehaztapenak eta ordainketa egin ahal izateko beharrezko alderdien arauketa.

118. artikulua. *Lurraldearteko konpentsazio-funtsak.*

Bat. Estatuaren Aurrekontu Orokorren 36. atalean lurraldearteko bi konpentsazio-funts ezartzen dira, Lurraldearteko konpentsazio-funtsak arautzen dituen abenduaren 27ko 22/2001 Legeak xedatutakoari jarraituz, zeina abenduaren 18ko 23/2009 Legeak aldatu zuen. Aipatutako bi funtsen batura 432.430,00 mila eurokoa da.

Bi. Konpentsazio Funtsa, 324.330,61 mila eurokoa, 22/2001 Legearen 2. artikuluan aurreikusitako inbertsio-gastuak finantzatzeko erabiliko da.

Hiru. Funts Osagarria, 108.099,39 mila eurokoa, Estatuaren Aurrekontu Orokorren 36. atalaren kontura egindako inbertsioak abiarazteko edo horien funtzionamendurako gastuak finantzatzeko erabili ahal izango dute autonomia-erkidegoek eta autonomia-estatutua daukaten hiriek, 22/2001 Legearen 6.2 artikulua aurreikusitako baldintzetan.

Lau. Lurralde arteko Konpentsazio Funtsaren kalkulu-oinarria, zeina abenduaren 18ko 23/2009 Legeak aldatzen duen Lurralde arteko Konpentsazio Funtsak arautzen dituen abenduaren 27ko 22/2001 Legearen 3. artikuluan definitu baita, inbertsio zibil publiko berrizat hartuko da 60. eta 62. artikuluetan jasotakoa. Autonomia-erkidegoei bideratutako Konpentsazio Funtsaren ehunekoa, inbertsio publikoaren kalkulu-oinarriarekiko, ehuneko 27,98 izango da, aipatutako legearen 2.1.a) artikulua arabera. Gainera, 22/2001 Legearen xedapen gehigarri bakarra betez, autonomia-erkidegoei bideratutako Konpentsazio Funtsaren eta Funts Osagarriaren batura den portzentajea ehuneko 37,30 izango da; autonomia-estatutua duten Ceuta eta Melilla hiriak barne hartuz gero, ehuneko 37,89; eta 22/2001 Legea aldatzen duen 23/2009 Legean zehaztutako «eskualde ultraperiferikoa» aldagaia aintzat hartuta, ehuneko 38,26.

Bost. Aipatutako funtsen kontura finantza daitezkeen inbertsio-proiektuak 36. atalaren eranskinean zehaztutakoak dira.

Sei. 2021eko ekitaldian, honako autonomia-erkidego hauek izango dira funtsen onuradun: Galizia, Andaluzia, Asturias, Kantabria, Murtziako Eskualdea, Valentziako Erkidegoa, Gaztela-Mantxa, Kanariak, Extremadura, Gaztela eta Leon, eta Ceuta eta Melilla hiriak, abenduaren 27ko 22/2001 Legearen xedapen gehigarri bakarra betez.

Zazpi. Aurreko ekitaldietako lurralde arteko konpentsazio-funtsetako kreditu-geldikinak 2021eko Aurrekontuan sartuko dira automatikoki, eta 2020ko abenduaren 31n proiektuak gauzatzeko ardura zeukan Administrazio beraren esku egongo dira.

Zortzi. Aurreko ekitaldietako aurrekontu-kredituetako geldikinak indarreko ekitaldian sartzean, Altxor Publikoak diruzaintza-aurrerakinak eman ahal izango dizkie autonomia-erkidegoei, haiek eskatutako funtsen zenbateko berekoak, sarrera hori egitean jaso beharreko baliabideen «kontura».

VIII. TITULUA

Gizarte-kotizazioak

119. artikulua. *Gizarte Segurantzari, langabeziari, jarduera amaitzeagatiko babesari, Soldata Bermatzeko Funtsari eta Lanbide Heziketari 2021ean dagozkien kotizazio-oinarriak eta -tasak.*

2021eko urtarrilaren 1etik aurrera, honako hauek izango dira Gizarte Segurantzari, langabeziari, jarduera amaitzeagatiko babesari, Soldata Bermatzeko Funtsari eta Lanbide Heziketari dagozkien kotizazio-oinarriak eta -tasak:

Bat. Gizarte Segurantzari kotizatzeke oinarrien gehieneko eta gutxieneko mugak.

1. 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera, Gizarte Segurantzako kotizazio-oinarriaren gehieneko muga hilean 4.070,10 eurokoa izango da, gehieneko muga ezarrita duten erregimenetan.

2. Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bateginak, urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitakoak, 19.2. artikuluan ezarritakoari jarraituz, eta artikulua honetan zehaztutako gertakariei dagokienez, Gizarte Segurantzako Araubideetako kotizazio-oinarrien gutxieneko muga, 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera, une bakoitzean indarrean dagoen lanbide arteko gutxieneko soldataren zenbatekoa seiren batean areagotuta izango da, kontrakoa adierazten duen xedapen espresik dagoenean salbu.

Bi. Gizarte Segurantzako Araubide Orokorreko kotizazio-oinarriak eta -tasak.

1. Gizarte Segurantzako Araubide Orokorrek babestutako gertakari eta egoera guztietarako –laneko arriskuak eta gaixotasun profesionalak izan ezik– hileko kotizazio-oinarriek gutxieneko eta gehieneko oinarri hauek izango dituzte, lanbide-kategoria bakoitzean:

a) Gutxieneko kotizazio-oinarriak, lanbide-kategorien eta kotizazio taldeen arabera, lanbide arteko gutxieneko soldata handitzen den ehuneko berean handituko dira 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera, 2020ko abenduaren 31n indarrean zeudenekiko.

Lanaldi partzialeko kontratua duten langileei aplikatzekoak diren gutxieneko kotizazio-oinarriak doitu egingo dira, kontratazio-aldiera horretako kotizazioa denbora-unitate bera eta antzeko ordainsaria duen arduraldi osoko kotizazioarekin parekatzeko.

b) 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera, gehieneko oinarriak hilean 4.070,10 eurokoak eta egunean 135,67 eurokoak izango dira, lanbide-kategoria eta kotizazio-taldea gorabehera.

2. 2021ean, honako hauek izango dira Gizarte Segurantzaren Araubide Orokorreko kotizazio-tasak:

a) Gertakari arrunten kasuan, ehuneko 28,30. Ehuneko horretatik, ehuneko 23,60 enpresaren kontura izango da, eta ehuneko 4,70 langilearen kontura.

b) Lan-istripuen eta lanbide-gaixotasunen kasuan, 2007rako Estatuaren Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 28ko 42/2006 Legearen laugarren xedapen gehigarrian jasotako primen tarifaren ehunekoak aplikatuko dira. Prima horiek enpresak ordaindu beharko ditu, oso-osorik.

3. Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bateginaren 149. artikuluan ezarritako aparteko orduen kotizazio osagarriko, kotizazio-tasa hauek aplikatuko dira 2021ean:

a) Ezinbesteko aparteko orduen kasuan, ehuneko 14,00. Ehuneko horretatik ehuneko 12,00 enpresaren kontura izango da, eta ehuneko 2,00 langilearen kontura.

b) Aurreko paragrafoan jasota ez dauden aparteko orduen kasuan, ehuneko 28,30. Ehuneko horretatik ehuneko 23,60 enpresaren kontura izango da, eta ehuneko 4,70 langilearen kontura.

4. 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera, merkataritza-ordezkariei aplikatzeko gertakari arruntengatiko gehieneko kotizazio-oinarria Bi.1.b) paragrafoan kasu orokorretarako xedatutakoa izango da.

5. 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera, artisten gertakari arruntengatiko gehieneko kotizazio-oinarria eta jarduerarik gabeko aldietako kotizazio-oinarria eta -tasa zehazteko, hauxe aplikatuko da:

a) Lanbide-kategoria ezberdinetako talde guztientzako gehieneko kotizazio-oinarria hilean 4.070,10 eurokoa izango da. Nolanahi ere, artista batek enpresa batentzat edo gehiagorentzat egindako jarduerengatik izango dituen kotizazio-oinarrien gehieneko muga urtekoa izango da, eta adierazitako hileko gehieneko oinarriaren urteko kopuruaz zehaztuko da.

Inklusioko, Gizarte Segurantzako eta Migrazioetako Ministerioak, aurreko paragrafoan ezarritako gehieneko oinarria eta mugak aintzat hartuta, artisten behin-behineko likidazioak zehazteko kotizazio-oinarriak ezarriko ditu. Likidazio horiek abenduaren 22ko 2064/1995 Errege Dekretuaren bidez onetsitako Gizarte Segurantzaren beste eskubide batzuen kotizazioari eta likidazioari buruzko Erregelamendu Orokorraren 32.5.b) artikuluan daude jasota.

b) Jarduerarik gabeko aldietan Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorrean beren borondatez alta emanda dauden artistei une bakoitzean indarrean dagoen gutxieneko oinarria aplikatuko zaie, zehazki, gertakari arruntengatiko tasa, araubide horretako kotizazio-taldeen eskalako 7. taldeari dagokiona.

Aplikatzekoa den kotizazio-tasa ehuneko 11,50 izango da.

6. 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera, zezenketako profesionalen gertakari arruntengatiko gehieneko kotizazio-oinarria zehazteko, honako hau aplikatuko da:

a) Lanbide-kategoria ezberdinetako talde guztientzako gehieneko kotizazio-oinarria hilean 4.070,10 eurokoa izango da. Nolanahi ere, zezenketako profesionalen kotizazio-oinarrien gehieneko muga urtekoa izango da, eta adierazitako hileko gehieneko oinarriaren urteko kopuruaz zehaztuko da.

b) Inklusioko, Gizarte Segurantzako eta Migrazioetako Ministerioak, aurreko apartatuan ezarritako gehieneko oinarria eta mugak aintzat hartuta, zezenketako profesionalen behin-behineko likidazioak zehazteko kotizazio-oinarriak ezarriko ditu. Likidazio horiek Gizarte Segurantzaren beste eskubide batzuen kotizazioari eta likidazioari buruzko Erregelamendu Orokorraren 33.5.b) artikuluan daude jasota.

Hiru. Gizarte Segurantzako Araubide Orokorrean zehaztutako Besteren Konturako Nekazaritzako Langileentzako Sistema Berezian kotizatzea.

1. Sistema Berezi honen barruan dauden eta zerbitzua hilabete osoan ematen duten langileen gertakari arrunt zein profesionalengatiko hileko kotizazio-oinarrien zenbatekoak Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bateginaren 147. artikulua xedatutakoaren arabera zehaztuko dira, eta gutxieneko eta gehieneko oinarri hauek aplikatuko zaizkie:

a) Gutxieneko kotizazio-oinarriak, lanbide-kategorien eta kotizazio taldeen arabera, lanbide arteko gutxieneko soldata handitzen den ehuneko berean handituko dira 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera, 2020ko abenduaren 31n indarrean zeudenekiko.

b) 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera hileko gehieneko oinarria 4.070,10 euro izango da, lanbide-kategoria eta kotizazio-taldea gorabehera.

Langileek hilabete naturalaren hasierarekin edo amaierarekin bat ez datorren egun batean hasten edo amaitzen badute jarduera, eta jarduera horren iraupena elkarren

segidako gutxienez 30 egun naturalekoa bada, kotizazio-modalitate hori Sistema Berezi honetan hilabetean zehar altan egondako egunekiko proportzionala izango da.

2. Lanegun errealen gertakari arrunten zein profesionalengatiko eguneko kotizazio-oinarrien zenbatekoak, nekazaritza-lanak besteren kontura egiten dituzten langileen talde bakoitzari dagozkionak, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bateginaren 147. artikulua xedatutakoaren arabera zehaztuko dira, aurreko zenbakian adierazitako kotizazio-modalitatea hautatu ez badute. Horretarako, Hiru.1 zenbakian ezarritako gehieneko eta gutxieneko oinarrien zenbatekoak 23rekin zatituko dira.

Lanegun bakoitzean lanean emandako orduen kopurua edozein dela ere, kotizazio-oinarriaren zenbatekoa ezin izango da 10. kotizazio taldearen eguneko gutxieneko oinarria baino txikiagoa izan.

Hilabete naturalean 22 lanegun erreal edo gehiago egiten badira, horien kotizazio-oinarria Hiru.1 paragrafoan ezarritakoa izango da.

3. 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera, Sistema Berezi horren barruan dauden besteren konturako nekazaritzako langileen hileko kotizazio-oinarriaren zenbatekoa hauxe izango da, hilabete naturalaren barruan jarduerarik gabe izandako aldietan: Gizarte Segurantzako Araubide Orokorreko kotizazio-taldeen eskalako 7. taldearentzat gertakari arruntengatiko gutxieneko oinarriko ezarritakoa.

Hori dela eta, honako kasu honetan gertatzen da hil natural batean jarduerarik gabeko aldia: langilea hil horretan sistema berezian alta emanda egon den egun naturalen kopurua hileko lanegun errealak 1,3636z biderkatzearen emaitzako kopurua baino gehiago bada.

Hileko jarduerarik gabeko egunen kopurua kalkulatzeko, kenketa hau egin behar da: alta emanda egon den egunen kopurutik hileko lanegun errealen kopurua 1,3636z biderkatzearen emaitzako kopurua kendu.

Hilean jarduerarik egin ez den egunei dagokien kotizazioa honela kalkulatu behar da: hileko jarduerarik gabeko egunen kopurua eguneko kotizazio-oinarriaz eta aplikatzekoa den kotizazio-tasaz biderkatuz.

4. Sistema Berezi horretan dauden eta besteren kontura lan egiten duten langileen kotizazioari tasa hauek aplikatuko zaizkio 2021ean:

a) Jardunean egondako aldietan:

Kontingentzia arruntei dagokien kotizazioa: 1. kotizazio-taldeko langileek ehuneko 28,30 kotizatuko dute; ehuneko 23,60 enpresaren kontura izango da, eta ehuneko 4,70, langilearen kontura.

2-11 bitarteko kotizazio-taldeetako langileek ehuneko 24,70 kotizatuko dute; ehuneko 20,00 enpresaren kontura izango da, eta ehuneko 4,70, langilearen kontura.

Lan-istripuengatiko eta gaixotasun profesionalengatiko gertakariak kotizatzeari dagokionez, 2007rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren abenduaren 28ko 42/2006 Legearen laugarren xedapen gehigarrian ezarritako primen tarifa-tasak aplikatuko dira. Prima horiek enpresak ordaindu beharko ditu, oso-osorik.

b) Jarduerarik gabeko aldietan kotizazio-tasa ehuneko 11,50 izango da; kotizazio osoa langilearen kargura izango da.

5. 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera, honako murrizketa hauek aplikatuko zaizkie zerbitzuak egiten diren aldietan enpresek sistema berezi honetako kotizaziorako egiten dituzten ekarpenei:

a) 1. kotizazio-taldeko langileen kotizazioa: kotizazio-oinarriari ehuneko 8,10 puntuko murrizketa aplikatuko zaio, eta, ondorioz, kontingentzia arruntei dagokien kotizazio-tasa ehuneko 15,50 izango da. Nolanahi ere, enpresak ordaindu beharreko kuota ezin izango da izan hilean 279,00 euro baino gehiago, ez lanegun erreal bakoitzeko 12,68 euro baino gehiago.

b) 2. kotizazio taldetik 11.era bitartean dauden langileen kotizazioari dagokionez, honako murrizketak arau hauek bete beharko ditu:

Hileko kotizazio-oinarrietarako, formula hau aplikatuko da:

$$\% \text{ reducción mes} = 7,36\% \times \left(1 + \frac{\text{Base mes} - 986,70}{\text{Base mes}} \times 2,52 \times \frac{6,15\%}{7,36\%} \right)$$

Lanean emandako egunen kotizazio-oinarrietarako, formula hau aplikatuko da:

$$\% \text{ reducción jornada} = 7,36\% \times \left(1 + \frac{\text{Base jornada} - 42,90}{\text{Base jornada}} \right) \times 2,52 \times \frac{6,15\%}{7,36\%}$$

Nolanahi ere, enpresak ordaindu beharreko kuota ezin izango da hilean 101,47 eurokoa edo lanean emandako egun bakoitzeko 4,61 eurokoa baino txikiagoa izan.

6. 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera, 2020. urtean kotizatutako 55 lanaldi baino gehiago egin ez dituzten langileei ehuneko 19,11ko murrizketa aplikatuko zaie 2021eko lanik gabeko aldietako kuotetan.

7. Jarduneko aldiko aldi baterako ezintasun, amatasun, aitatasun, haurdunaldiko arrisku nahiz edoskialdi naturaleko arrisku-egoeretan, adingabearen jaiotza- eta zaintza-egoeretan, eta bularreko haurraren zaintzako erantzunkidetasun-egoeretan, kotizazioa langileen kontratazio-modalitatearen araberkoa izango da:

a) Kontratu mugagabea duten nekazaritzako langileen kasuan, aipatutako egoeretako kotizazioa Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorreko arau orokorrek zehazten dutena izango da. Honako tasa hauek aplikatu beharko dira:

1. 1. kotizazio-taldeko langileen kasuan, kontingentzia arruntei dagokien kotizazio-oinarriari ehuneko 15,50eko tasa aplikatuko zaio.
2. 2-11 bitarteko kotizazio-taldeetako langileen kasuan, kontingentzia arruntei dagokien kotizazio-oinarriari ehuneko 2,75eko tasa aplikatuko zaio.

Langile guztien kasuan, kotizazio-taldea gorabehera, langabezia-kotizazioari kotizazio-oinarriaren ehuneko 2,75 puntuko murrizketa aplikatuko zaio.

b) Aldi baterako kontratua eta kontratu finko etena duten nekazaritzako langileen kasuan a) letran ezarritakoa aplikatuko da kontratatutako egunetan zerbitzua ematerik izan ez dutenean, lehen adierazitako egoeretako batean egotearen ondorioz.

Zerbitzu ematea aurreikusi gabeko egunei dagokienez, langileek jarduerarik gabeko aldiei dagokien kotizazioa ordaindu beharko dute, adingabearen jaiotza eta zaintzagatiko laguntzak eta bularreko haurraren zaintzako erantzunkidetasunarengatiko laguntzak izan ezik, horiek kotizazio-epeak izango baitira honako prestazio hauei dagokienez: erretiroari, ezintasun iraunkorrari, heriotzari eta bizirik irauteari.

8. Kotizaziopeko langabezia-prestazioa jasotzen den aldian, sistema berezi honetan kotizatu behar izanez gero, kotizazio-tasa ehuneko 11,50 izango da.

9. Sistema berezi honetako langileei ez zaie aplikatuko Bi.3 zenbakian adierazitako aparteko orduengatiko kotizazio gehigarria.

10. Inklusioko, Gizarte Segurantzako eta Migrazioetako Ministerioari baimena ematen zaio jarduneko aldien eta jarduerarik gabekoen kotizazioa harmonizatzeko behar diren prozedurak arautzeko eta egokitzapenak egiteko, aurreikusitako murrizketak aplikatzeko baldintzak betetzen direla egiaztatzeko, eta horietatik eratorritako kotizazioak erregularizatzeko.

Lau. Gizarte Segurantzako Araubide Orokorrean zehaztutako Etxeko Langileentzako Sistema Berezian kotizatzea.

2021eko urtarrilaren 1etik aurrera, ondorengo kotizazio-oinarri eta -tasa hauek aplikatuko dira sistema berezi honetan:

1. Gertakari arruntengatiko eta profesionalengatiko kotizazio-oinarriak honela zehaztuko dira: 2020an indarrean dagoen kotizazio-oinarriari eta hileko ordainsarien eskalari aplikatuz 2021ean lanbide arteko gutxieneko soldatan izandako igoera.

Gizarte Segurantzaren Lege Orokorrean testu bateginak 147.1 artikuluan ezartzen duenarekin bat etorriz, etxeko langileen hileko ordainsaria zehazteko, hilean jasotzen den zenbatekoari langileak jaso ditzakeen aparteko ordainsarien zati proportzionala gehitu behar zaio.

2. Gertakari arruntengatiko kotizazio-tasa ehuneko 28,30 izango da, aurreko zenbakian adierazitakoaren arabera dagokion kotizazio-oinarriaren gainean kalkulatuta. Ehuneko horretatik, ehuneko 23,60 enplegatzaileak ordaindu beharko du, eta ehuneko 4,70 enplegatzaileak.

3. Lan-istripuengatiko eta gaixotasun profesionalengatiko gertakariak kotizatzeari dagokionez, Lau.1 zenbakian adierazitakoaren arabera dagokion kotizazio-oinarriaren gainean, abenduaren 28ko 42/2006 Legearen laugarren xedapen gehigarrian ezarritako primen tarifa zehaztutako kotizazio-tasa aplikatuko da. Zenbateko hori enplegatzaileak ordaindu beharko du, oso-osorik.

4. 2021ean, 100eko 20ko murrizketa aplikatuko zaio enpresak sistema berezi honetan Gizarte Segurantzari gertakari arruntengatik egin beharreko ekarpenari.

Murrizketa horren onuradunak izango dira 2012ko urtarrilaren 1etik aurrera etxeko langile bat edozein modalitatetan kontratatu eta Gizarte Segurantzaren Araubide Orokorrean alta eman dioten enplegatzaileak, baldin eta enplegatua ez bada egon Etxeko Langileen Araubide Berezian lanaldi osorako alta emanda 2011ko abuztuaren 2tik abenduaren 31ra arteko aldiaren enplegatzaile berarentzat.

Familia ugarien kasuan, kuoten murrizketa ehuneko 45era iritsi arte zabalduko da, hoberi baten bidez, Familia Ugariak Babesteari buruzko azaroaren 18ko 40/2003 Legeak 9. artikuluan ezartzen duen bezala.

Enplegatzaileen alde onartutako kotizazio-onura hauek ezin dira aplikatu honako kasu honetan: etxeko langileak hilean 60 ordutik beherako zerbitzuak egiten badizkio enplegatzaile bati eta bere kargu hartzen baditu sistema horretan sailkatzeko, kotizatzeo eta biltzeko ezarritako betebeharrak, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorrean testu bateginako hogeita laugarren xedapen gehigarriak ezartzen duenarekin bat etorriz.

Bost. Gizarte Segurantzako Norberaren Konturako Langileen edo Langile Autonomoen Araubide Berezia kotizatzea.

2021eko urtarrilaren 1etik aurrera honako hauek izango dira Norberaren Konturako Langileen edo Langile Autonomoen Gizarte Segurantzaren Araubide Bereziko gehieneko eta gutxieneko oinarriak eta kotizazio-tasak:

1. Gehieneko kotizazio-oinarria hilean 4.070,10 eurokoa izango da. Gutxieneko kotizazio-oinarria hilean 944,40 eurokoa izango da.

2. 2021eko urtarrilaren 1ean 47 urte baino gutxiago dauzkaten langile autonomoen kasuan, haiek hautatuko dute kotizazio-oinarria, aurreko apartatuan zehaztutako gehieneko eta gutxieneko oinarrien barruan. Gauza bera egin ahal izango dute egun horretan 47 urte dituzten autonomoek, baldin eta beren kotizazio-oinarria 2020ko abenduan hilean 2.052,00 euro edo gehiago izan bada edo araubide berezian egun horretatik aurrera sartu badira.

Bestela, haien kotizazio-oinarria hilean 2.077,80 euro izango da gehienez.

2021eko urtarrilaren 1ean 47 urte dauzkaten langile autonomoek ezin izango dute hilean 2.077,80 euro baino gehiagoko oinarria aukeratu, haien kotizazio-oinarria hilean 2.052,00 eurokoa baino txikiagoa bada. Nolanahi ere, muga horretatik salbuetsita egongo dira, batetik, halako aukera 2021eko ekainaren 30a baino lehen egiten dutenak –aukera

horrek urte horretako uztailearen 1etik aurrera sortuko ditu ondorioak—, eta, bestetik, negozioaren titularraren ezkontide alarguna, titularraren heriotzaren ondorioz negozioaren buru jarri behar izan denean, eta Erregimen Berezia alta 47 urterekin egin behar izan duenean.

3. 2021eko urtarrilaren 1ean 48 urte edo gehiago dauzkaten langile autonomoen kotizazio-oinarria hilean 1.018,50 eta 2.077,80 euro artekoa izango da. Salbuespen gisa, negozioaren titularraren ezkontide alargunaren kasuan, titularraren heriotzaren ondorioz negozioaren buru jarri behar izan denean, eta Erregimen Berezia alta 45 urterekin edo gehiagorekin egin behar izan duenean, kotizazio-oinarria hilean 944,40 eta 2.077,80 euro artekoa izango da.

Hala ere, 50 urte bete aurretik Gizarte Segurantzako sistemaren erregimenetako batean bost urtez edo gehiagoz kotizatu duten autonomoek arau hauek bete beharko dituzte:

a) Egiaztatutako azken kotizazio-oinarria hilean 2.052,00 eurokoa edo gutxiagokoa izan bada, haien kotizazio-oinarria hilean 944,40 eta 2.077,80 euro artekoa izango da.

b) Egiaztatutako azken kotizazio-oinarria hilean 2.052,00 eurotik gorakoa izan bada, haien kotizazio-oinarria hilean 944,40 euroren eta egiaztatutako azkenaren zenbatekoaren artekoa izango da, gehieneko kotizazio-oinarriaren mugarekin.

Bost.3.b) zenbakian aurreikusitakoa aplikatu egingo zaie 48 edo 49 urterekin 2011rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren abenduaren 22ko 39/2010 Legearen 132. artikulua eta Lau.2 zenbakiaren bigarren apartatuan jasotako aukera baliatu duten langile autonomoiei ere.

4. Salgaiak kalean edo etxez etxe saltzen dituzten langile autonomoek (EJSN 4781 Elikagaien, edarien eta tabako-produktuen txikizkako merkataritza salmenta-postuetan eta azoka txikietan; 4782 Ehun-produktuen, janzkien eta oinetakoen txikizkako merkataritza salmenta-postuetan eta azoka txikietan; 4789 Beste produktu batzuen txikizkako merkataritza salmenta-postuetan eta azoka txikietan eta 4799 Establezimenduetan, salmenta-postuetan edota azoka txikietan egiten ez diren txikizkako beste salerosketa batzuk) honako gutxienerako hileko bi oinarri hauen artean hautatu ahal izango dute 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera: 944,40 euro edo 869,40 euro.

Salgaiak etxez etxe saltzen dituzten langile autonomoek (EJSN 4799), 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera, hileko gutxienerako kotizazio-oinarria hautatu ahal izango dute: 944,40 euro edo 519,30 euro.

5. 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera, honako hauek izango dira Gizarte Segurantzaren Araubide Berezi honetako kotizazio-tasak:

a) Kontingentzia arruntei dagozkien kotizazioak: ehuneko 28,30. Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bategineko 315. artikuluan xedatutakoaren arabera, aldi baterako ezintasuna Gizarte Segurantzaren beste araubide batean estalita dagoenean, murrizketa aplikatuko da Gizarte Segurantzako kotizazioari, langabeziari, jarduera uzteagatik babesari, soldatak bermatzeko funtsari eta lanbide-heziketari buruzko lege-arauak garatzen dituen Aginduak urtero ezarri beharreko koefiziente murriztaile baten arabera sartu beharko litzatekeen kuotan.

b) Kontingentzia profesionali dagozkien kotizazioak: ehuneko 1,30; ehuneko 0,66 aldi baterako ezintasunari dagokio eta ehuneko 0,64 ezintasun iraunkorrari, heriotzari eta bizirik irauteari.

c) Kontingentzia profesionalengatik kotizatzen salbuetsita dauden langile autonomoek % 0,10eko tasa batean kotizatu beharko dute Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bateginaren II. tituluko VIII. eta IX. kapituluetan aurreikusitako prestazioak finantzatzeko.

6. Langile autonomoek, aldi berean besteren konturako lana egiten badute eta jarduera-aniztasuneko araubidean 2021ean kotizatzen badute, kontuan hartuta bai araubide berezi horretako kotizazioak, bai enpresak eta langileak besteren konturako

jardueraren arabera dagokien Gizarte Segurantzaren araubidean egin beharreko kotizazioak, eskubidea edukiko dute honako itzulketak jasotzeko: kontingentzia arruntei dagozkien kotizazioengatik ordaindutako zenbatekoaren eta 12.917,37 euroko zenbatekoaren arteko soberakinaren ehuneko 50. Nolanahi ere, itzulketak muga hau edukiko du: araubide berezian kontingentzia arruntei dagozkien kotizazioengatik ordaindutako kuoten ehuneko 50.

Halako kasuetan, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak hurrengo ekitaldiko maiatzaren 1a baino lehen ordainduko ditu itzuli beharreko kopuruak, salbu eta, kotizazioaren berezitasunengatik, ezinezkoa bada epe horren barruan ordainketa egitea edo interesdunak zenbait datu eman behar baditu; halakoetan, esandako eguna baino beranduago egingo da itzulketak.

7. Salgaiak kalean saltzen dituzten lan elkartuko kooperatibetako bazkide langileei, erosleengandik zuzenean jasotzen dituztenei, Bost.4 apartatuko lehenengo lerrokan xedatutakoa aplikatuko zaie, kotizazio-ondorioetarako.

Egiaztatzen baldin bada salgaiak merkatu tradizionaletan edo azoka txikietan saltzen dituztela, eta eguneko salmenta-ordutegia zortzi ordu baino gutxiagokoa bada, hileko kotizazio-oinarria 944,40 euro edo 519,30 euro izatea hautatu ahal izango dute.

8. Salmenta ibiltarian aritzen diren lan elkartuko kooperatibetako bazkide langileek, Norberaren Konturako Langileen edo Langile Autonomoen Araubide Berezia sartuta geratu direnean, ordaindu beharreko kuota ehuneko 50eko murrizketa izateko eskubidea izango dute 2021ean, 2009rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 23ko 2/2008 Legearen 120.Lau.8 artikuluan xedatutakoa betez.

Halaber, murrizketa horretarako eskubidea edukiko dute honako hauek ere: salgaiak kalean saltzen dituzten lan elkartuko kooperatibetako bazkide langileetan, jarduera horretan 2009ko urtarrilaren 1etik aurrera hasi eta aipatutako araubide berezian sartu direnak.

Bost.7 zenbakian xedatutakoaren arabera aukeratutako gutxieneko oinarriari Norberaren Konturako Langileen edo Langile Autonomoen Araubide Berezia indarrean dagoen kotizazio-tasa aplikatuz lortzen den kuotari aplikatuko zaio murrizketa.

9. Bost.7 apartatuko bigarren paragrafoan xedatutakoa honako hauei aplikatuko zaie: salgaiak merkatu tradizionaletan edo azoka txikietan indibidualki saltzen direnei, eguneko zortzi ordu baino gutxiagoan, establezimendu finko propioa ez badute, eta saltzen dituzten artikulua edo produktuak ekoizten ez badituzte.

10. 2020ko uneren batean beren zerbitzuan besteren konturako 10 langile edo gehiago aldi berean kontratatuta eduki dituzten langile autonomoen kasuan, hileko gutxieneko kotizazio-oinarria 1.214,10 euro izango da, 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera.

Gutxieneko kotizazio-oinarri hori aplikatzekoa izango da, 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera, araubide berezi honetan bilduta dauden langile autonomoentzat ere, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bateginaren 305.2.b) eta e) artikuluan xedatutakoaren babesean. Salbuespen izango dira beren jardueraren hasierako 12 hilabeteetan araubidean alta hartzen duten autonomoak, altaren hasiera-datatik zenbatuta.

Sei. Gizarte Segurantzako Norberaren Konturako Langileen edo Langile Autonomoen Araubide Berezia ezarritako Nekazaritzako Norberaren Konturako Langileen Sistema Berezia kotizatzea.

1. 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera, honako hauek izango dira Norberaren Konturako Langileen edo Autonomoen Erregimen Berezia zehaztutako Nekazaritzako Norberaren Konturako Langileentzako Sistema Bereziko langileen kontingentzia edo gertakari arruntengatiko kotizazio-tasak:

a) Nahitaez estali beharreko kontingentziei dagokienez, langileak aukeratutako kotizazio-oinarria hilean 944,40 eta 1.133,40 euro artekoa denean, aplikatu beharreko kotizazio-tasa ehuneko 18,75 izango da.

Langileak aukeratutako kotizazio-oinarria hilean 1.133,40 eurotik gorakoa denean, zenbateko horretatik gorako kopuruari ehuneko 26,50eko kotizazio-tasa aplikatuko zaio.

b) Kontingentzia arruntengatiko aldi baterako ezintasunaren borondatezko hobekuntzari dagokionez, interesdunaren kotizazio-oinarriaren zenbateko osoari aplikatu beharreko kotizazio-tasa ehuneko 3,30ekoa izango da; interesduna lanbide-kontingentzien babes-sistemari atxikita egonez gero edo jarduera uzten badu, berriz, ehuneko 2,80koa izango da.

2. Lan-istripuen eta gaixotasun profesionalen kontingentziei dagokienez, abenduaren 28ko 42/2006 Legearen laugarren xedapen gehigarrian ezarritako primen tarifa-tasak aplikatuko dira.

Interesdunek, ez badute hautatu kontingentzia profesional guztiak estaltzea, hautatutako kotizazio-oinarriari ehuneko 1,00eko tasa aplikatzearen ondoriozko kuota ordaintzen jarraituko dute ezintasun iraunkorra, heriotza eta bizirik irautea deritzen kontingentziak estaltzeko.

3. Sistema berezi honetan dauden langileek, laneko istripuen eta laneko gaixotasunen kontingentzia guztiak ez estaltzea hautatzen badute ematen den babesaren esparruan, hautatutako kotizazio-oinarriaren ehuneko 0,10 gehiago kotizatu beharko dute, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bateginak II. tituluko VIII. eta IX. kapituluetan arautzen dituen prestazioak finantzatzeko.

Zazpi. Gizarte Segurantzako Itsasoko Langileen Araubide Berezian kotizatzea.

1. Bat eta Bi apartatuetan ezarritakoa Gizarte Segurantzako Itsasoko Langileen Araubide Berezian onartutako langileei eta beste batzuen kontura lan egiten duten langileei aplikatuko zaie; hargatik eragotzi gabe Itsas- eta Arrantza-sektoreko Langileen Gizarte-babesa arautzen duen urriaren 21eko 47/2015 Legearen 11. artikuluan ezarritakoa betetzea, kontingentzia arruntei dagokionez, eta hurrengo 2. apartatuan ezarritakoa betetzea.

2. Urriaren 21eko 47/2015 Legearen 10 artikulua aipatzen dituen bigarren eta hirugarren taldeetako langileei, norberaren zein besteren kontura lan egiten dutenei, dagozkien erregimen berezi honetan babestutako gertakari eta egoera guztien kotizazioak Inklusioko, Gizarte Segurantzako eta Migrazioetako Ministerioaren agindu bidez urtero zehaztutako ordainsarien gainean gauzatuko dira. Itsasoko Gizarte Institutuak egingo du aginduaren proposamena, sektoreko erakunde adierazgarriak entzun ostean. Zehaztapen hori probintzia, arrantza-modalitate eta lanbide-kategoria bakoitzeko egingo da, aurreko urtean jasotako ordainsariaren batez besteko balioetan oinarrituta.

Zehazturiko oinarriak bakarrak izango dira, eta ezin izango dira Bi paragrafoaren 1. lerrokadan xedatutakoaren arabera kategoría profesional bakoitzerako ezarritakoa baino txikiagoak edo handiagoak izan.

3. 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera, norberaren konturako langileen kotizazio-tasak honako hauek izango dira:

a) Kontingentzia arruntei dagozkien kotizazioak: ehuneko 28,30.

b) Kontingentzia profesionali dagozkien kotizazioak: ehuneko 1,30; ehuneko 0,66 aldi baterako ezintasunari dagokio eta ehuneko 0,64 ezintasun iraunkorrari, heriotzari eta bizirik irauteari.

4. Urriaren 21eko 47/2015 Legearen 10. artikuluan aipaturiko lehenengo taldean bildutako langileen babestutako kontingentzia eta egoera guztien kotizazioak arau honetan xedatutakoaren mende egongo dira: Norberaren Konturako Langileen edo Langile Autonomoen Gizarte Segurantzaren Araubide Berezian araudi erregulatuzailearen mende.

Zortzi. Ikatz Meatzaritzako Gizarte Segurantzaren Araubide Berezian kotizatzea.

1. Ikatz Meatzaritzako Gizarte Segurantzaren Araubide Berezian dagokion kotizazioa zehazteko, Bi zenbakian aurreikusitakoa aplikatuko da; gertakari arrunten kasuan, hala ere, kotizazio-oinarriak honako arau hauen arabera normalizatuko dira:

Lehena. Langileek 2020ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra artean, biak barne, jaso dituzten edota eskubidez jaso zitzaizkien ordainsarien zenbatekoa hartuko da kontuan. Zenbateko horiek konputagarriak izango dira lan-istripuengatik eta lanbide-gaixotasunengatik kotizazioari dagokionez.

Bigarrena. Ordainsari horiek kategoriatan, talde profesional, espezialitate profesional nahiz meatzaritzako eremuen arabera taldekatuko dira; betiere, Gizarte Segurantzaren Beste Eskubide Batzuen Kotizazioari eta Likidazioari buruzko Erregelamendu Orokorren 57. artikuluan xedatutakoa aintzat hartuta. Modu horretara lorturiko zenbatekoak dagozkien egunen baturaz zatituko dira.

Hirugarrena. Eraitza hori gertakari arruntengatik eguneko kotizazio-oinarri normalizatuak izango dira. Oinarri horren zenbatekoa ezin izango da aurreko ekitaldian lanbide-kategoria horretarako finkatutakoa baino txikiagoa izan, indarreko ekitaldian izandako ehuneko berean handituta, Bat.1 zenbakian aipatzen den gehieneko kotizazioa gehitu ostean. Era berean, ezin izango da aipaturiko gehienekoa urteko zenbateko bihurtu, eta indarreko ekitaldiko egun naturalen artean zatitu ostean lortzen den kopurua baino handiagoa izan.

2. Inklusioa, Gizarte Segurantzako eta Migrazioetako Ministerioak finkatuko du oinarri normalizatuaren zenbatekoa, aurreko zenbakian ezarritako arauak aplikatuz.

Bederatzi. Gizarte Segurantzako kotizazio-oinarria, langile autonomoek maila kontributiboko langabezia-prestazioa jaso bitartean eta jarduera uzteagatik prestazioa jaso bitartean.

1. Lan-harremana azkentzearen ondorioz langabezia-prestazioa jaso bitartean, Gizarte Segurantzari kotizatzeke betebeharrak daukaten langileen kotizazio-oinarria langabezia-prestazioaren oinarri arautzailea izango da, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bateginaren 270.1. artikuluan xedatutakoa, lanbide-kategoria bakoitzerako aurreikusitako kontingentzia arruntengatik gutxienezko oinarriaren zenbatekoa aintzat hartuta. Gizarte Segurantzaren prestazioei dagokionez, kontingentzia arruntengatik kotizazio-oinarritzat joko da oinarri hori.

Lan-harremana aldi baterako etetearen edota lanaldia aldi baterako murriztearen ondorioz langabezia-prestazioa jaso bitartean, dela enpresaburuak hala erabaki duelako, urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onartzen duen Langileen Estatutuaren Legearen testu bateginaren 47. artikuluan ezarritakoaren arabera, dela konkurtso-prozedura batean emandako ebazpen judizial batek hala agindu duelako, kotizatzeke legezko betebeharrak duten langileek Gizarte Segurantzari kotizatu beharrekoaren oinarria lanean egon bitartean hala gertakari arruntengatik nola lan-istripuengatik zein lanbide-gaixotasunengatik gertakariengatik kotizaturiko azken sei hilabeteetako oinarrien batez bestekoa izango da; zehazki, langabezia-egoera baino lehenagoko edota kotizatzeke legezko betebeharrak bukatu baino lehenagoko oinarriena.

Langabezia-prestazioa jasotzeko eskubidea etenda izan ostean berreskuratzen duenak kotizatzeke ekin beharko dio berriz ere, eskubidea berreskuratzeke uneari dagokion kotizazio-oinarriaren arabera, aurreko lerrokatetan adierazitakoa aintzat hartuta.

Langabezia-prestazioa jasotzeko eskubidea iraungita badago, eta, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bateginaren 269.3. artikuluan xedatutakoan oinarrituz, langileak hasierako eskubidea berreskuratzea erabakitzen badu, Gizarte Segurantzari egin beharreko kotizazioaren oinarria eskubidea jaino den uneari dagokion langabezia-prestazioaren oinarri arautzailea izango da.

Prestazioa jaso bitartean, honako kasu honetan soilik eguneratuko da aurreko paragrafoetan adierazitako kotizazio-oinarria: oinarri hori txikiagoa denean langilea legez

langabezian gelditzean haren kotizazio taldeari dagokion gutxieneko kotizazio-oinarria baino, aipatutako mugarekin.

2. Maila kontributiboko langabezia-prestazioa jaso bitartean, Gizarte Segurantzako Araubide Orokorrean zehaztutako Nekazaritzako Besteren Konturako Langileentzako Araubide Berezian kotizatu behar dutenen kotizazio-oinarria apartatu honetako 1. apartatuan adierazitakoa izango da.

3. Langabezia-prestazioa jaso bitartean, Ikatz Meatzaritzako Gizarte Segurantzaren Araubide Berezian kotizatu behar dutenen kotizazio-oinarria hauxe izango da: langilea legez langabezian gelditzean, haren kategoriari edo espezialitate profesionalari dagokion indarreko kotizazio normalizatua.

Kotizazio-oinarria une bakoitzean indarrean dagoen oinarriaren arabera eguneratuko da, langilea legez langabezian gelditzean haren kotizazio taldeari edota kategorია edo espezialitate profesionalari dagokiona aintzat hartuta.

4. Langile autonomoek jarduera uzteagatiko prestazio ekonomikoa jaso bitartean, dagokion kotizazio-oinarria prestazio horren oinarri arautzailea izango da, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bateginaren 339. artikuluan xedatutako moduan zehaztuta; betiere, aintzat hartuko da dagokion araubidean aurreikusitako gutxieneko kotizazio-oinarriaren edo kotizazio-oinarri bakarraren zenbatekoa.

Gizarte Segurantzako kotizazioak arautzen dituen araubidearekin bat etorritz, jarduerak dirauen bitartean norberaren konturako langileentzako edo langile autonomoentzako gutxieneko kotizazio-oinarri arrunta baino gutxiago kotizatzen duten kolektiboek kotizazio-oinarri murriztuan kotizatuko dute jarduera uzteagatiko prestazioak jaso bitartean.

Hamar. Langile autonomoen langabeziagatiko, Soldatak Bermatzeko Funtsagatiko, lanbide-heziketagatiko eta jarduera uzteagatiko kotizazioa.

2021eko urtarrilaren 1etik aurrera, ondoren adierazitakoarekin bat etorritz gauzatuko da langabeziagatiko, Soldatak Bermatzeko Funtsagatiko, lanbide-heziketagatiko eta jarduera uzteagatiko kontingentzien kotizazioa:

1. Langabeziagatiko, Soldatak bermatzeko funtsagatiko eta lanbide-heziketagatiko kotizazio-oinarria, horiek estaltzen dituzten Gizarte Segurantzako araubide guztietan, lan-istripuen eta gaixotasun profesionalen gertakariei dagokiena izango da.

Itsasoko Langileen Gizarte Segurantzaren Araubide Bereziko langabeziagatiko kotizazio-oinarriari urriaren 21eko 47/2015 Legearen 11. artikuluan xedatutakoa ere aplikatuko zaie, zazpi apartatuan adierazitakoari kalterik egin gabe.

Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorrean zehaztutako Besteren Konturako Nekazaritzako Langileentzako Sistema Berezian dauden langileen langabeziagatiko, Soldatak Bermatzeko Funtsagatiko eta lanbide-heziketagatiko kotizazio-oinarriak Hiru.1 eta Hiru.2 paragrafoetan finkatutakoak izango dira, langile bakoitzari kontingentzia profesionalengatik dagokion kotizazio-aldaeraren arabera.

Prestakuntzarako eta ikaskuntzarako kontratuen langabeziagatiko kotizazio-oinarria lan-istripuen eta gaixotasun profesionalen kontingentzietan dagokien gutxieneko oinarria izango da.

Norberaren Konturako Langileen edo Langile Autonomoen Gizarte Segurantzaren Araubide Bereziko langileen jarduera uzteagatiko babesari dagokion kotizazio-oinarria araubide horretan dauden langileek hautatu dutena izango da, bai eta adierazitako Araubide Berezian zehaztutako Norberaren Konturako Nekazaritzako Langileen Sistema Bereziko langileena ere.

Gizarte Segurantzako Itsasoko Langileen Araubide Berezian, lehen taldean sartuta dauden langile autonomoei jarduera bertan behera uzteagatik ezartzen zaien kotizazio-oinarria ere haiek aukeratutakoa izango da. Bigarren eta hirugarren taldeetan sartuta dauden langile autonomoei Inklusioa, Gizarte Segurantzako eta Migrazioetako Ministerioaren agindu bidez ezarriko zaie kotizazio-oinarria, eta urriaren 21eko 47/2015 Legearen 11. artikuluan zehaztuta dauden koefiziente zuzentzaileak ere aplikatu ahalko zaizkie.

2. 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera, kotizazio-tasak honako hauek izango dira:

A) Langabezia-gertakariari dagokionez:

a) Kontratazio mugagabea, lanaldi partzialeko kontratu mugagabeak eta aldizkako lan-kontratu finkoak barne; era berean, iraupen mugatuko kontratazioa, honako modalitate hauetan: praktikaldikoak, prestakuntzakoak eta ikaskuntzakoak, txandakakoak eta bitarteko kontratuak. Azkenik, kontratu-modalitatea edozein izanda ere, desgaitasunen bat duten langileekin egindako kontratuak: ehuneko 7,05. Ehuneko horretatik, ehuneko 5,50 enpresaburuaren kontura izango da, eta ehuneko 1,55 langilearen kontura.

b) Iraupen mugatuko kontratazioari dagokionez:

1.a Lanaldi osoko iraupen mugatuko kontratazioaren kasuan: ehuneko 8,30; hortik ehuneko 6,70 enpresaburuaren kontura izango da, eta ehuneko 1,60 langilearen kontura.

2.a Lanaldi partzialeko iraupen mugatuko kontratazioaren kasuan: ehuneko 8,30; hortik ehuneko 6,70 enpresaburuaren kontura izango da, eta ehuneko 1,60 langilearen kontura.

Gizarte Segurantzako Araubide Orokorrean zehaztutako Besteren Konturako Nekazaritzako Langileentzako Sistema Berezian bilduta dauden besteren konturako behin-behineko langileen kotizazio-tasa aurreko b) letraren 1. tartekian finkatutakoa izango da lanaldi osoko iraupen mugatuko kontratazioaren kasuan. Iraupen mugatuko kontratu zehatzei edota desgaitasunen bat duten langileei, berriz, aurreko a) letran aurreikusitakoa aplikatuko zaie.

B) Soldatak Bermatzeko Funtzari kotizatzeari dagokionez, ehuneko 0,20 enpresaren kontura.

Gizarte Segurantzako Araubide Orokorrean zehaztutako Besteren Konturako Nekazaritzako Langileentzako Sistema Berezian, Soldatak Bermatzeko Funtzari kotizazio-tasa ehuneko 0,10 izango da, eta enpresaren kontura izango da oso-osorik.

C) Lanbide Heziketagariko kotizazioari dagokionez, ehuneko 0,70. Ehuneko horretatik, ehuneko 0,60 enpresaren kontura izango da, eta ehuneko 0,10 langilearen kontura.

Gizarte Segurantzako Araubide Orokorrean zehaztutako Besteren Konturako Nekazaritzako Langileentzako Sistema Berezian, Lanbide Heziketarako kotizazio-tasa ehuneko 0,18 izango da. Ehuneko horretatik, ehuneko 0,15 enpresaren kontura izango da, eta ehuneko 0,03 langilearen kontura.

Gizarte Segurantzako Norberaren Konturako Langileen edo Langile Autonomoen Araubide Bereziko eta Gizarte Segurantzako Itsasoko Langileen Araubide Bereziko langileei dagokienez, ehuneko 0,10eko tasa aplikatuko zaie.

D) Jarduera uzteagariko babesari dagokionez, honako tasa hauek aplikatuko dira:

a) Gizarte Segurantzako Norberaren Konturako Langileen edo Langile Autonomoen Araubide Berezia eta Gizarte Segurantzako Itsasoko Langileen Araubide Berezian, ehuneko 0,90.

b) Gizarte Segurantzako Norberaren Konturako Langileen edo Langile Autonomoen Araubide Berezian ezarritako Nekazaritzako Norberaren Konturako Langileen Sistema Berezian, ehuneko 2,2 aplikatuko zaie babes hori beren borondatez eskatzen duten langileei.

Hamaika. Prestakuntza- eta ikaskuntza-kontratuetan kotizatzea.

2021eko urtarrilaren 1etik aurrera, prestakuntza- eta ikaskuntza-kontratuetan enpresaburuak eta langileak ordaindu beharreko kuotak (kontingentzia arruntengatik, gertakari profesionalengatik, langabeziagatik eta Soldatak Bermatzeko Funtzari) Gizarte

Segurantzaren Erregimen Orokorreko gutxieneko oinarria handitzen den ehuneko berean handituko dira, 2020ko abenduaren 31n indarrean zeudenen aldean.

Hamabi. Kotizazioak suhiltzaileen erretiro-adina aurreratzearekin lotuta dituen berezitasunak.

Martxoaren 14ko 383/2008 Errege Dekretuak herri-administrazio eta -erakundeen zerbitzura lan egiten duten suhiltzaileen erretiro-adina murrizteko koefizientea ezartzen du; suhiltzaile horien gertakari arruntengatiko kotizazio-oinarriari kotizazio-tasa gehigarria aplikatuko zaio, hala enpresaren, nola langilearen kasuan.

2021eko urtarrilaren 1etik aurrera, aurreko paragrafoan aipatzen den kotizazio-tasa gehigarria ehuneko 10,60 izango da; ehuneko 8,84 enpresaren kargura izango da, eta ehuneko 1,76, langilearen kargura.

Hamahiru. Kotizazioak ertzainen erretiro-adina aurreratzearekin lotuta dituen berezitasunak.

Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bategineko hogeigarren xedapen gehigarrian aipatzen diren ertzainei dagokienez, kontingentzia arruntei dagozkien kotizazioen oinarriari kotizazio-tasa gehigarria aplikatuko zaio, bai enpresaren kotizazioetan, bai langilearen kotizazioetan.

2021eko urtarrilaren 1etik aurrera, aurreko paragrafoan aipatzen den kotizazio-tasa gehigarria ehuneko 10,60 izango da; ehuneko 8,84 enpresaren kargura izango da, eta ehuneko 1,76, langilearen kargura.

Hamalau. Tokiko erakundeen zerbitzura dauden tokiko polizien kidegoetako kideei erretiro-adina aurreratzeari lotutako kotizazioen arloko berezitasunak.

Abenduaren 14ko 1449/2018 Errege Dekretuak aipatzen dituen toki-erakundeetako udaltzainei dagokienez –arau horrek toki-administrazioa osatzen duten erakundeen zerbitzura dauden udaltzainen aldeko erretiro-adinaren koefiziente murriztailea ezartzen du–, kontingentzia arruntengatiko kotizazio-oinarriari kotizazio-tasa gehigarria aplikatuko zaio, hala enpresaren, nola langilearen kasuan.

2021eko urtarrilaren 1etik aurrera, aurreko paragrafoan aipatzen den kotizazio-tasa gehigarria ehuneko 10,60 izango da; ehuneko 8,84 enpresaren kargura izango da, eta ehuneko 1,76, langilearen kargura.

Hamabost. Aurreko zenbakietan xedatutakoa salbu, Gizarte Segurantzaren sistema osatzen duten araubideetako gutxieneko oinarriak edo oinarri bakarrak ezin izango dira Gizarte Segurantzaren Araubide Orokorreko gutxieneko oinarria baino txikiagoak izan, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bateginaren 19. artikulua aplikatzearen ondorioz.

Hamasei. 2021. urtean, Gizarte Segurantzako Araubide Orokorrean bilduta dauden enplegatu publikoen gertakari guztiengatiko kotizazio-oinarria 2010eko abenduan zegoen bera izango da; betiere, enplegatu publiko horiei maiatzaren 20ko 8/2010 Errege Lege Dekretuaren zazpigarren xedapen gehigarrian ezarritakoa aplikatu bazaie, eta haien lan-edota zerbitzu-harremanak indarrean badirau. Nolanahi ere, jasotako ordainsariak direla eta, zenbateko horrek handiagoa beharko lukeenean, azken hori hartuko da hileko kotizazioa egiteko oinarri gisa.

Aurreko lerrokadan adierazitakoaren ondorioetarako, 2010eko abenduko kotizazio-oinarriari hilabetetik gorako sortzapen-aldia duten ordainsarien zenbatekoak kenduko zaizkio, hala badagokio, edota, aldian behingoak ez izanik, oinarri hori hainbanaketara jo gabe aplikatu duten zenbatekoak.

Hamazazpi. Inklusioko, Gizarte Segurantzako eta Migrazioetako ministroari eta Laneko eta Gizarte Ekonomiako ministroari ahalmena ematen zaie artikulua honetan aurreikusitakoa aplikatzeko eta garatzeko behar diren arauak emateko.

120. artikulua. *Funtzionarioen eskubide pasibo eta mutualitate orokorretarako 2021erako kotizazioak.*

Bat. Lege hau indarrean jarri eta hurrengo hilabetetik aurrerako ondoreekin, honako hauek izango dira Estatuak Estatuako Funtzionario Zibilen Gizarte Segurantzako Araubide Bereziari egingo dizkion kotizazio- eta ekarpen-tasak –araubide berezi hori Administrazio Zibileko Funtzionarioen Mutualitateak (MUFACE) kudeatzen du, ekainaren 23ko 4/2000 Legegintzako Errege Dekretuak onartzen duen Estatuako Funtzionario Zibilen Gizarte Segurantzari buruzko Legearen testu bateginak aipatzen duenak–, arau horretako 12. artikuluan adierazitako prestazioak finantzatzeko, xedapen horretako h) letran jasotakoa izan ezik:

1. MUFACEn sartuta dauden funtzionario aktiboen eta antzekoen kotizazio-ehunekoa eskubide pasiboak kotizatzeko 2020rako ezarritako hartzeko arautzaileen gaineko ehuneko 1,69 izango da, ehuneko 0,9 handituta.

2. Estatuak egin beharreko ekarpenaren zenbatekoa, Funtzionario Zibilen Gizarte Segurantzari buruzko Lege Orokorraren testu bateginaren (ekainaren 23ko 4/2000 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsia) 35. artikuluan araututakoa, eskubide pasiboak kotizatzeko 2020rako ezarritako hartzeko arautzaileen gaineko ehuneko 6,83 izango da, ehuneko 0,9 goratuta. 6,83ko tasa horretatik, 4,10 Estatuak aktiboagatik egindako ekarpenari dagokio, eta 2,73 kotizatzeko betebeharretik salbuetsita dagoen pentsiodunak egindako ekarpenari.

Bi. Lege hau indarrean jarri eta hurrengo hilabetetik aurrerako ondoreekin, honako hauek izango dira Estatuak Indar Armatuaren Gizarte Segurantzako Araubide Bereziari egingo dizkion kotizazio- eta ekarpen-tasak –araubide berezi hori Indar Armatuaren Gizarte Institutuak (ISFASek) kudeatzen du, ekainaren 9ko 1/2000 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Indar Armatuaren Gizarte Segurantzari buruzko Legearen testu bateginak aipatzen duenak–, arau horretako 9. artikuluan adierazitako prestazioak finantzatzeko, xedapen horretako h) letran jasotakoa izan ezik:

1. ISFASen sartuta dauden militar aktiboen eta antzekoen kotizazioaren eta ekarpenaren ehunekoa eskubide pasiboak kotizatzeko 2020rako ezarritako hartzeko arautzaileen gaineko ehuneko 1,69 izango da, ehuneko 0,9 handituta.

2. Estatuak egin beharreko ekarpenaren zenbatekoa, Indar Armatuaren Gizarte Segurantzari buruzko Legearen testu bateginaren (ekainaren 9ko 1/2000 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsia) 30. artikuluan araututakoa, eskubide pasiboak kotizatzeko 2020rako ezarritako hartzeko arautzaileen gaineko ehuneko 10,74 izango da, ehuneko 0,9 goratuta. 10,74ko tasa horretatik, 4,10 Estatuak aktiboagatik egindako ekarpenari dagokio, eta 6,64 kotizatzeko betebeharretik salbuetsita dagoen pentsiodunak egindako ekarpenari.

Hiru. Lege hau indarrean jarri eta hurrengo hilabetetik aurrerako ondoreekin, honako hauek izango dira Estatuak Estatuako Justizia Administrazioako Funtzionarioen Gizarte Segurantzako Araubide Bereziari egingo dizkion kotizazio- eta ekarpen-tasak –araubide berezi hori Mutualitate Orokor Judizialak (MUGEJUK) kudeatzen du, ekainaren 23ko 3/2000 Legegintzako Errege Dekretuak onartzen duen Justizia Administrazioaren zerbitzuko langileen Gizarte Segurantzako Araubide Bereziari buruz indarrean dauden lege-xedapenen testu bateginak aipatzen duenak–, arau horretako 12. artikuluan adierazitako prestazioak finantzatzeko, xedapen horretako f) letran jasotakoa izan ezik:

1. MUGEJUn sartuta dauden Justizia Administrazioako langile aktiboen eta parekoen kotizazio-portzentajea eskubide pasiboak kotizatzeko 2020an indarrean dauden hartzeko arautzaileen gaineko ehuneko 1,69 izango da, ehuneko 0,9 handituta.

2. Estatuak egin beharreko ekarpena, 3/2000 Legegintzako Errege Dekretuaren 23. artikuluan araututa dagoena, eskubide pasiboak kotizatzeko 2020an indarrean dauden hartzeko arautzaileen gaineko ehuneko 5,20 izango da, ehuneko 0,9 handituta. 5,20ko

tasa horretatik, 4,10 Estatuak aktiboagatik egindako ekarpenari dagokio, eta 1,10 kotizatzeke betebeharretik salbuetsita dagoen pentsiodunak egindako ekarpenari.

Lau. 2021ean, aurreko apartatueta ezarritakoari jarraituz, Estatu Klase Pasiboen Araubidearen eta Funtzionarioen Araubide Berezien eremuan dauden langileen eskubide pasiboen kuotaren zenbatekoa eta funtzionarioen mutualitateei dagokiena zehazteko, ehuneko 3,86ko eta ehuneko 1,69ko tasa aplikatuko da, hurrenez hurren, eskubide pasiboak kotizatzeke 2020rako ezarritako hartzeko arautzaileen gainean, ehuneko 0,9 handituta. Hona hemen xehetasunak:

Estatuko funtzionario zibilen, Indar Armatueta kideen, karrera judizialeko eta fiskaleko kideen, Justizia Administrazioiko letraduen kidegoko kideen eta Justizia Administrazioaren zerbitzura dauden kidegoetako kideen eskubide pasiboen hileko kuotak.

Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatuaren taldea/ azpitaldea	Hileko kuota, eurotan
A1.	112,91
A2.	88,86
B.	77,81
C1.	68,25
C2.	53,99
E (30/1984 Legea) eta profesionalen multzoak (EPOE).	46,03

Estatuko Administrazio Zibileko Funtzionarioen Mutualitate Orokorrari, Indar Armatueta Gizarte Institutuari eta Mutualitate Judizial Orokorrari kotizatzeke hileko kuotak

Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatuaren taldea/ azpitaldea	Hileko kuota, eurotan
A1.	49,43
A2.	38,91
B.	34,06
C1.	29,88
C2.	23,64
E (30/1984 Legea) eta profesionalen multzoak (EPOE).	20,16

Adierazitako hileko zenbateko horiek bikoiztuta ordainduko dira ekainean eta abenduan.

Estatuko Klase Pasiboen Legearen testu bateginaren 23.1 artikulua lehenengo paragrafoaren azken tartekian aipatutako salbuespena kontuan hartuta, eta bertan xedatutakoarekin bat etorritik, karrerakoak ez diren militar profesionalak eta Osagarrien nahiz Itsas Erreserben eskaletako militarrek ehuneko berrogeita hamarreen minoratuta ordainduko dituzte eskubide pasiboak dagozkien hileko kuotak.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

I

Lehenengo xedapen gehigarria. *Dirulaguntzak ematea edo hitzarmenak sinatzea autonomia-erkidegoekin.*

Bat. Lege hau indarrean jartzen denetik aurrera, Administrazio zentralako azpisektorea edo Gizarte Segurantzako Administrazioen azpisektorea osatzen duen edozein subjektuk –Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren 2.1 artikuluan aipatutakoak– dirulaguntzak ematea edo aipatutako artikuluan zehaztutakoaren arabera autonomia-erkidegoko administrazioarekin hitzarmenak sinatzea baimendu aurretik, Administrazio zentralako edo Gizarte Segurantzako administrazioetako azpisektoreetatik esku hartzen duen autonomia-erkidegoari baliabideak transferitzea dakartenean edota azken horren gastuak egiteko konpromisoa dakartenean, Ogasun Ministerioaren txosten loteslea beharko dute, aldekoa.

Bi. Sinatuta dauden eta betearazten ari diren hitzarmenak ezin izango dira luzatu edo aldatu, Ogasun Ministerioaren aurretiko eta aldeko txostena jaso ezean.

Halaber, dirulaguntzak ematea aldatzeko, araudian hala aurreikusita egonez gero, ezinbestekoa izango da Ogasun Ministerioaren aurretiko eta aldeko txostena.

Hiru. Aurrekontuen eta Gastuen Estatu Idazkaritzak igorriko du aurreko zenbakietan aipatzen den Ogasun Ministerioaren txostena. Txostena prestatzean, besteak beste, honako irizpide hauek hartuko ditu kontuan:

- a) Dirulaguntzak edo hitzarmenak defizitean edo zor publikoan izandako eragina eta helburua.
- b) Gastua finantzatzeko proposatutako modua.
- c) Dirulaguntzak emateko prozedura, dirulaguntzak izapidetzean edo gauzatzean administrazioen arteko lankidetzari bide emateko sinatzen diren hitzarmenak barne.

Lau. Konferentzia Sektorialak kredituen banaketari buruzko akordioa onartu baino lehen –Aurrekontuei buruzko azaroaren 26ko 47/2003 Lege Orokorraren 86.2 artikuluan dago araututa–, Aurrekontuen eta Gastuen Estatu Idazkaritzak txosten bat igorriko du, nahitaezkoa eta loteslea; txosten horretan, xedapen honetako lau zenbakian aurreikusitako irizpideak balioetsiko ditu.

Bost. Aurreko apartatuetan ezarritakoa ez zaie aplikatuko dirulaguntzei, hitzarmenei edo autonomia-erkidegoen arteko kredituen banaketari, Aurrekontuei buruzko azaroaren 26ko 47/2003 Lege Orokorraren 86.2 artikuluen arabera, baldin eta «Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa» 50. zerbitzuko atal bakoitzean ematen diren kredituak badira, lege honetako 1. artikuluko a) letrako 2., 3. eta 4. apartatuetan aipatutako erakundeen gastu-aurrekontuetan jasotako Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoari lotutako gainerako kredituak badira, eta «Kohesiorako eta Europako Lurraldeetarako Susperraldirako Laguntza (React-EU)» 51. zerbitzuan emandako kredituak badira.

Xedapen gehigarri honen aurreko zenbakietan aipatzen den Ogasun Ministerioaren aurretiazko txostena ordeztuko du Ogasun Ministerioari, nahitaez eta alde aurretik, Aurrekontuen eta Gastuen Estatu Idazkaritzaren bidez bidalitako jakinarazpenak, eta bertan jasoko da egin beharreko jarduketari buruzko informazioa.

Bigarren xedapen gehigarria. *Estatuaren Aurrekontu Orokorren kontura finantzaturiko mailegu eta aurrerakinak.*

Aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren helburuak betetze aldera, zuzenean edo zeharka Estatuaren Aurrekontu Orokorren 8. kapituluaren kontura finantzaturiko mailegu eta aurrerakinak emateko, honako arau hauek bete beharko dira:

a) Ogasuneko ministroak berariazko baimena ematean salbu, maileguak eta aurrerakinak ezin izango dira eman antzeko epemuga duten tresnetan Estatuak igorritako Zorrrak duen interes-tasa baino txikiagoan.

Norgehiagoka-prozeduren bidez eman beharreko mailegu eta aurrerakinen kasuan, aipaturiko baldintza deialdia onartu aurretik bete beharko da.

Espedientean, dagokion organo kudeatzaileak justifikatu egin beharko du interes-tasaren zehaztapena. Adierazitako erreferentziarekin zuzeneko loturarik egiterik ez bada, Altxorraren eta Nazioarteko Finantzaren Idazkaritza Nagusiaren txostena ere aurkeztu beharko da.

Arau hori ez da aplikatuko honako kasu hauetan:

- Langileei emandako aurrerakinak.
- Erkidegoko funtsez osaturik dauden eta itzuli beharrekoak diren aurrerakinak.
- Interes-tasa lege-lerruneko arauen bidez araututa daukaten mailegu edo aurrerakinak.

b) Maileguen edo aurrerakinen onuradunek egiaztatu beharko dute egunean daukatela aurrez Estatuaren Aurrekontu Orokorren kontura eskuratutako beste edozein mailegu edo aurrerakin itzultzeko betebeharraren ordainketa. Gastua kudeatzen duen zentroari dagokio, ordainketa egin aurretik, baldintza horiek betetzen direla egiaztatzea. Beste modu batera egiaztatu ezin duenean, onuradunaren erantzukizunpeko adierazpena eskatuko du, edota organo eskudunaren ziurtagiria, Administrazio Publiko bat baldin bada.

Hirugarren xedapen gehigarria. *Aurrekontu luzatuaren gastu-eragiketak 2021erako Estatuaren Aurrekontu Orokorrei egozte.*

Bat. Aurrekontu luzatuaren kargura egindako gastu-eragiketak lege honen bidez baimendutako kredituei egotziko zaizkie. 2021erako Estatuaren Aurrekontu Orokorretan ez dagoenean aurrekontu luzatuan dagoen kreditu bera edo, halakorik izanda, haren zuzkidura behar adinakoa ez denean kasuan kasuko gastu-eragiketak ministerio-sailaren edo Estatuko administrazioeko sektore publikoko organismoaren kredituei egotzeko, xedapen honen hurrengo zenbakietan adierazitako prozedurari jarraituko zaio.

Prozedura hori aplikatzekoa izango zaie, halaber, indarreko araudiaren arabera 2021erako aurrekontu luzatuan erregistratu beharrekoak ziren eta 2020ko aurrekontu luzatuari egotzi zaizkion gastu-konpromisoei eta bestelako eragiketei, baldin eta egozpen hori egin ez bada.

Bi. Kontabilitate-bulegoak 2021eko aurrekontuetako aurrekontu-kredituei egozterik izan ez diren eragiketen zerrenda bat eskuratuko du, zeinean ukitutako espedienteak zehaztuko baitira. Zerrenda hori dagokion zerbitzu kudeatzaileari igorriko zaio, adieraziz hogeita hamar eguneko epean bulego horri komunikatu beharko dizkiola zerrendan ageri diren eta kontabilitate-erregistroa egin gabe dauden eragiketak direla-eta egin beharreko jarduketak.

Hiru. Jarduketa horiek eragiketak deuseztatzea edo urtekoak doitzea eskatzen baldin badute, zerbitzu kudeatzaileak haiek egiaztatzen dituzten ziurtagiriak eta kontabilitate-dokumentuak igorri beharko ditu.

Lau. Baldin eta jarduketa horiek berekin badakarte aurrekontu-aldaketen espedienteak izapidetzea, eta horiek ez baldin badira egiaztatu aurrez aipatutako hogeita hamar eguneko epea amaitu baino lehen, zerbitzu kudeatzaileak kontabilitate bulegoari komunikatu beharko dizkio –kreditu transferentzien espedienteen hasiera egiaztatu denean izan ezik– aurrekontuaren beste kreditu batzuetan erregistratu behar diren kreditu-

atxikipenak, erregistratzeko dauden eragiketen zenbateko berarekin. Zerbitzu kudeatzaileak kreditu-atxikipen horiek aplikatuko dizkie zerbitzu publikorako nahaste txikiena sortzen duen minorazioa dakarten kredituei. Behin aurrekontu-aldaketak onetsita eta erregistratzeko dauden eragiketak egotzita, aurreko kreditu-atxikipenak ezeztatuko dira.

Bost. Hogeita hamar eguneko aipatutako epea iraganik, zerbitzu kudeatzaileak ez badizkio kontabilitate-bulegoari komunikatu kontabilitate-erregistroa egin gabe dauden eragiketak direla-eta egin beharreko jarduketak, kontabilitate-bulego horrek ofizioz erregistratuko ditu kreditu-eragiketak, eragiketa horiek egiten duten zenbateko berarekin. Aipatutako kreditu-atxikipenak kontabilitate-bulegoak zehaztutako kredituei aplikatuko zaizkie; lehentasunez, atxikipenei dagokien aurrekontuko kapitulu eta programa beraren barruan. Kontabilitate-bulegoak zerbitzu kudeatzaileari komunikatuko dizkio ofizioz egin dituen kreditu-atxikipenak.

Sei. Erregistratzeko dauden eragiketei buruzko behin betiko jarduketak zehazten diren unera arte, zerbitzu kudeatzaileak kontabilitate-bulegoari eskatu ahalko dio ezezta ditzan aurreko zenbakietan adierazitako kreditu-atxikipenak, baldin eta, aldi berean, bulego horrek kreditu-atxikipen berriak erregistratzen baditu, zerbitzu kudeatzaileak jasotako komunikazioaren arabera, ezeztatu beharreko kredituaren atxikipenei dagokien zenbateko berarekin, kredituak atxikita gera daitezen minorazioak zerbitzu publikorako nahaste txikienak sortzen dituen zuzkiduretan.

Zazpi. Kreditu-atxikipenei eta kreditu-atxikipenen ezeztatzei buruzko kontabilitate-informazioaren sistemaren erregistroa, aurreko lau, bost eta sei zenbakietan aipatutakoa, kontabilitate-bulegoek egingo dute, erregistratzeko dauden eragiketa guztien behin betiko egozpenaren gaineko kontrol eraginkorra egin ahal izateko.

Zortzi. Ogasun Ministerioak zehazten dituen aurrekontu-aldaketak, lege honek indarra hartu arte egindakoak, eraginkorrek izango dira 2021erako Estatuaren Aurrekontu Orokorretan. Aldaketak lege horren diru-sarreraren eta gastuen egoera-orrietan txertatutako aurrekontu-egituraren arabera aplikatuko dira.

Laugarren xedapen gehigarria. *Ikerketa-, garapen- eta berrikuntza-politikaren mailegu eta aurrerakinak.*

Aurrekontu hauen indarraldian, 46. politikako («Ikerketa, garapena, berrikuntza eta digitalizazioa») kredituen konturako maileguak eta aurrerakinak emateko, ez da beharrezkoa izango lege honen bigarren xedapen gehigarriaren Bat apartatuko a) letran xedatutako baimena («Estatuaren Aurrekontu Orokorren kontura finantzatutako maileguak eta aurrerakinak»); betiere, maileguei eta aurrerakinei aplikatu beharreko interes-tasa deialdia onartu aurreko edo, hala badagokio, eman aurreko hilabeteari dagokionez Espainiako Bankuak argitaratutako urtebeterako euriborraren interes-tasaren berdina edo handiago bada.

Bosgarren xedapen gehigarria. *Estatuak Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiari emandako maileguak.*

Aurrekontu hauen indarraldian, urtean Gizarte Segurantzaren betebeharrei estaldura emate aldera eta haren aurrekontu-oreka bideratu ahal izateko, Gobernuak, Altxoraren eta Nazioarteko Finantzaren Idazkaritza Nagusiaren eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren txostenarekin, baimena eman ahalko du Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiari maileguak emateko, 13.830.090,00 mila euroko urteko gehieneko zenbateko batera arte.

Mailegu horiek ez dute interesik sortuko eta gehienez ere hamar urteko epean ezeztuko dira, eman eta hurrengo urteko urtarrilaren 1etik aurrera.

Seigarren xedapen gehigarria. *EGEF funtsak xurgatzea.*

Eskualde Garapeneko Europako Funtsa (EGEF) behar bezala xurgatzen dela ziurtatzeko, 2014-2020 aldirako, 28. ataleko («Zientzia eta Berrikuntza Ministerioa») 7.

kapituluan («Kapital-transferentziak») kontsignatutako aurrekontu-kredituen kontura finantzaturiko dirulaguntzak eta laguntzak emateko aurreikusita zenbateko osoari dagokionez, honako entitate eta programa hauetarako: «Ikerketarako Estatu Agentzia» izeneko 303 Entitatea, «Ikerketa zientifiko eta teknikoa sustatu eta koordinatzea» izeneko 463B programan, 85.000,00 mila euro erreserbatuko dira 2021eko ekitaldian Eskualde Garapeneko Europako Funtsa (EGEF) funtsarekin batera finantzatutako jarduketak finantzatzeko. Xede bera betetzeko, 85.000,00 euro gehiago erreserbatuko dira 28. ataleko («Zientzia eta Berrikuntza Ministerioa») 7. kapituluan («Kapital-transferentziak») Eskualde Garapeneko Europako Funtseko organo kudeatzaileei programa honetara bideratutako EGEF funtsen xurgapena optimizatzea ahalbidetuko duten zenbatekoak emateko.

Zenbateko horietatik, gutxienez % 40 erabiliko dira

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1303/2013 Erregelamenduaren (EGEF, EGF, Kohesio Funtsa, LGENF eta FEMPi buruzko xedapen komunak ezartzen dituen) 120. artikuluan b) eta c) letretan jasotako eskualdeetako jarduketak finantzatzeko.

Deialdi edo jarduketa berri horietatik eta aurreko ekitaldietan egindako deialdietatik edo jarduketatik eratorritako gastuaren aurrekontua betearaztean, eskualdez eskualde sailkatu beharko da gastua, kontabilitate-kudeaketa arautzen duen araudian aurreikusitako dokumentazio osagarria betez; guztia ere, Ordezko Kontu-hartzailetzak artikulua honetan aurreikusitakoaren jarraipena egiteko aukera izan dezan.

Era berean, helburu horretara bideratuko da 30.000,00 mila euroko zuzkidura, 28.08.467C.749.07 aplikazioan kontsignatua («CDTI zentroari, EGEF funtsarekin batera finantzatutako I+G+b proiektuak gauzatzeko»); bertako kreditua ordainduko da Garapen Teknologiko Industrialerako Zentroak (CDTI) EGEF funtsarekin batera finantzatutako proiektuetan egindako gastua justifikatzen duen heinean.

Horretarako, kreditu horiek aplikatzen zaizkien deialdi edo jarduketetan, erakunde arduradunak eskualdeetako eragiketak finantzatzera bideratutako zenbatekoaren berri emango du.

Zazpigarren xedapen gehigarria. *Pertsona behartsuenak laguntzeko funtsa (FEAD).*

Salbuespenez, eta 2022ra arteko indarraldiarekin, haren xede berezia dela eta, Behartsuenei laguntzeko programatik eratorritako eta Behartsuenak laguntzeko Funtsak (FEAD) finantzatutako eragiketek, Altxorraren aurrerakinei dagokienez, Aurrekontuei buruzko 2003ko azaroaren 26ko 47/2003 Lege Orokorren 82. artikuluan FEAGA eta FEADER funtsak finantzatutako eragiketetarako ezarritako araubide berbera izango dute.

Aurreratu beharreko gehieneko zenbatekoa urtean 100 milioi eurokoa izango da. Erabilitako zenbatekoak sei hilabete baino gutxiagoko epean itzuli beharko dira, benetan erabiltzen direnetik zenbatzen hasita.

Zortzigarren xedapen gehigarria. *Diruzaintzaren geldikina Herri Administrazioaren Institutu Nazionala organismo autonomoaren erabilera askeko geldikinera intsuldatzea.*

Lurralde Politikako eta Funtzio Publikoko Ministerioaren mende dagoen Herri Administrazioaren Institutu Nazionala (HAIN) organismo autonomoari baimena ematen zaio diruzaintza-geldikinaren atxikitako zatia aldatzeko atxiki gabeko bere osagaiari, 2020ko ekitaldiaren amaieran erabili gabe zeuden zenbatekoetan; gehienez ere, 500.140,00 euro. Zenbateko horiek HAINi Enplegurako Prestakuntza Planak gauzatzeko sustatzaile gisa emandako funtsetakoak eta Administrazio publikoetan enplegurako trebakuntza-programarekin zerikusia duten jarduera osagarrietara zuzendutakoak izango dira.

Bederatzigarren xedapen gehigarria. *Moneta metalikoa egiteko, kentzeko eta desmonetizatzeako gastuei erantzuteko kreditua sortzea, moneta metalikoa jaulki eta zirkulazioan jartzetik datozen diru-sarreren bidez finantzatuta.*

Lege hau indarrean sartzeko denetik eta indarraldi mugagabez ondoreak izanik, moneta metalikoa jaulkitzearen eta zirkulazioan jartzearen ondoriozko diru-sarrerek kreditua sortu

ahalko dute 27.04.923O.227.08 aurrekontu-aplikazioan, moneta metalikoa egin, kendu eta desmonetizatzeko jarduerak finantzatzeko, harik eta jarduera horiengatik egindako gastuen zenbatekoraino, aplikatzeke dauden aurreko ekitaldietakoak ere barne. Ogasun Ministerioiko titularrak kreditu-sorrera hori onartzeko eskumena dauka.

Hamargarren xedapen gehigarria. *Unibertsitateko irakasleak prestatzeko laguntzak itzultzea.*

Ministro-sailek egindako deialdietan –irailaren 4ko ECD/1619/2013 Aginduan (talentua eta haren enplegarritasuna sustatzeko Estatuko Programaren prestakuntza- eta mugikortasun-azpiprogramen esparruetan dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileak ezartzen dituena, 2013-2016 aldirako Ikerketa Zientifiko eta Teknikorako eta Berrikuntzarako Estatuko Planaren barruan) edo ekainaren 20ko CNU/692/2019 Aginduan (Ikerketa Zientifiko eta Teknikoko eta Berrikuntzako 2017-2020 Estatuko Planaren I+G+b arloan Talentua eta haren enplegarritasuna Sustatzeko Estatuko Programaren esparruan laguntza publikoak emateko oinarri arautzaileak onartzen dituena, pertsona fisikoentzat eta ikerketa-erakundeentzat eta ezagutzak zabaltzeko erakundeentzat) xedatutakoaren arabera–, antolatutako irakasleen prestakuntzarako, hobekuntzarako eta mugikortasunerako beken eta laguntzen itzulketek aurrekontu-ekitaldian eragindako diru-sarrerek, Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako Ministerioak, Zientzia eta Berrikuntza Ministerioak edo Unibertsitateetako Ministerioak onartutako ordaindutako onuradunen aseguru-primen ordainketak barne, kreditua sortu ahalko dute Gastuen egoeraren 33.03.463A.788 aurrekontu-aplikazioan edo hori ordeztzen duen beste aurrekontu-aplikazio batean.

Hamaikagarren xedapen gehigarria. *Bekak eta ikasketetarako laguntza pertsonalizatuak itzultzea.*

Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako Ministerioak, beken eta ikasketetarako laguntza pertsonalizatuen araubidea ezartzen duen abenduaren 21eko 1721/2007 Errege Dekretuan xedatutakoaren arabera emandako beka eta ikasketetarako laguntza pertsonalizatuak itzultzearen ondoriozko diru-sarrerek, aurrekontu-ekitaldian sortutakoek, kreditua sortu ahal izango dute gastuen egoeraren 18.08.323M.482.00 aplikazioan ministroaren ebazpen baten bitartez.

Hamabigarren xedapen gehigarria. *«Ikerketa, garapena, berrikuntza eta digitalizazioa» 46. politikari lotutako kredituen bidez finantzatutako dirulaguntzak itzultzea.*

Ikerketa Zientifiko eta Teknikoko eta Berrikuntzako Estatuko Plana gauzatzeko «Ikerketa, garapena, berrikuntza eta digitalizazioa» 46. politikari lotutako kredituen bidez osotasunean edo zati batean finantzatutako dirulaguntzen itzulketen ondorioz aurrekontu-ekitaldian osatzen diren diru-sarrerek kreditua sortu ahalko dute 4. eta 7. kapituluetako aurrekontu-aplikazioetan, aurrekontu mugatzailea duten erakunde eta entitateen aurrekontuan, Ikerketa, Garapen eta Berrikuntzarako Estatuko Sistemaren finantzaketa-eragileak badira, eta dirulaguntzen deialdi publikokoak badira. Kreditu-sorrera onartzeko eskumena Ogasun Ministerioiko titularrak edukiko du.

Hamahirugarren xedapen gehigarria. *Jokoaren kudeaketa administratiboagatiko tasaren ondoriozko diru-sarreraren araberako kreditua sortzea.*

Lege hau indarrean sartzen denetik eta epe mugagabez ondoreak izanik, jokoaren kudeaketa administratiboagatiko tasaren zenbatekoa, zeinaren zergapeko egitatea eta zenbatekoa ezartzen baitira, hurrenez hurren, Jokoa arautzeko maiatzaren 27ko 13/2011 Legearen 49. artikuluko 2. apartatuko f) letra eta 5. apartatuko f) lettran, oinarria izan ahalko da, diru-sarreraren egiaztatu ondoren, manu horietan ezarritako helburuak betetzeko dagokion kreditua sortzeko.

Hamalagarren xedapen gehigarria. *Alderdi politikoen funtzionamendu-gastuetarako eta segurtasun-gastuetarako Estatuaren urteko dirulaguntzak, 2021erako.*

Alderdi Politikoen Finantzaketari buruzko Lege Organikoaren (uztailaren 4ko 8/2007) seigarren xedapen gehigarrian adierazitakoan oinarrituta, 2021ean, alderdi politikoen funtzionamendu-gastuetarako Estatuaren dirulaguntza (16.01.924M.485.01 aurrekontu-aplikazioa, «Alderdi politikoak finantzatzea») 52.704,14 mila eurokoa izango da, eta alderdi politikoen segurtasun-gastuetarako urteko diru-esleipena (16.01.924M.484 aurrekontu-aplikazioa, «Alderdi politikoentzako urteko esleipena, segurtasun-gastuak ordaintzeko»), berriz, 2.706,20 mila eurokoa.

Hamabosgarren xedapen gehigarria. *Parke zientifiko eta teknologikoetako jarduerari finantza-laguntza ematea.*

Parke zientifiko eta teknologikoei, frogatzen badute beren finantzen egoerak ordainketa-betebeharrei aurre egitea eragozten diela, eskatu ahal izango dute 2021ean edo aurreko urteetan epemuga duten kuotak, Zientzia eta Berrikuntza Ministerioak (edo aurreko urteetan ikerketa, garapena eta berrikuntzaren arloko ministerio eskudunak) 2000. urtetik aurrera kudeatutako deialdien arabera emandako maileguen ondoriozkoak, berriz finantzatzeko.

Era berean, segidan aipatzen diren manuekin bat onartu diren geroratzeen edo birfinantzatzearen ondoriozko kuotak ere barne hartzen dira. Manuak honako hauek dira: 2011rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 22ko 39/2010 Legearen berrogeita zortzigarren xedapen gehigarria, Estatuaren 2012rako Aurrekontu Orokorrei buruzko ekainaren 29ko 2/2012 Legearen hogeita hamabosgarren xedapen gehigarria, 2013rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 27ko 17/2012 Legearen berrogeita hirugarren xedapen gehigarria, 2014rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 23ko 22/2013 Legearen hogeita hamabosgarren xedapen gehigarria, 2015erako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 26ko 36/2014 Legearen berrogeita batgarren xedapen gehigarria, Estatuaren 2017rako Aurrekontu Orokorren ekainaren 27ko 3/2017 Legearen ehun eta hogeita batgarren xedapen gehigarria, Zientzia, Teknologia, Berrikuntza eta Unibertsitatearen arloko premiazko neurri buruzko otsailaren 8ko 3/2019 Errege Lege Dekretuaren xedapen gehigarri bakarra eta Ekonomia eta enplegua babesteko premiazko neurri osagarri buruzko apirilaren 21eko 15/2020 Errege Lege Dekretuaren hamabigarren xedapen gehigarria.

Zientzia eta Berrikuntza Ministerioak baimendu ahal izango du birfinantzatzea, Ogasun Ministerioak aurretik aldeko txostena egin ondoren, honako baldintza hauek betetzen baldin badira:

1. Jatorrizko maileguen estatu-laguntzen arloko laguntzaren intentsitate-mugak errespetatuko dira.

2. Mailegu berri bat eratuko da, eta haren printzipala birfinantzatu behar diren kuoten batura izango da (kuota horiek kapitalizatuko dira kuota bakoitzaren jatorrizko mailegua ematean aplikatu zen interes-tasaren arabera). Mailegu berriak hogeita bost urteko amortizazio-epea izango du, bost urteko gabealdiarekin eta urteko kuota konstanteekin.

Eratzen den mailegu berriaren zenbatekoa Estatuko Administrazio Orokorren kontabilitatean aitortutako eskubideak kitatzeko erabili beharko da, birfinantzatzen diren kuota mugaeguneratuei dagokienez, bai eta birfinantzatzen den gainerako zorra kitatzeko ere.

Ordainketaren aldi exekutiboan dauden kuotak birfinantzatzea erabakitzen bada, Zerga Administrazioiko Estatu Agentziak kudeatuta, Zientzia eta Berrikuntza Ministerioak kargua ezerezteko agindua emango du, haien gaineko prozedura betearazleak jarrai ez dezan.

3. Nolanahi ere, amortizazio-kuotak birfinantzatzeko, erakunde sustatzaileak honako hauek beharko ditu: bideragarritasun-plana, parkeak garatu dituen jarduera zientifiko-teknikoei eta jarduera berritzaileari buruzko txosten bat, bai eta hobekuntza-plan batzuk

ere; zehazki, erakundeak Zientzia eta Berrikuntza Ministerioari aurkeztuko dizkio, birfinantzaketa eman aurretik.

4. Birfinantzatzen diren kuotek interesak sortuko dituzte, kuota horiei Estatuak antzeko epemuga duten tresnetan jaulkitako zorraren interes-tasa aplikatuz. Zor horren interes-tasa negatiboa bada, mailegu berriak zero interes-tasa izango du, eta ez du interesik sortuko, ez Estatuaren, ezta moratoriaren eskatzaileen alde ere.

5. Kasu bakoitzean zehazten diren berme osagarriak eman beharko dira.

6. Sektore publikoko erakundeen kasuan, erakundea zer administraziori dagokion, administrazio horrek era subsidiarioan bere gain hartu beharko du birfinantzatzeko eskatzen den zorraren ordainketa. Era berean, Estatuak administrazio horri egin beharreko edozein ordainketarekin konpentsatu ahal izango dira kuota birfinantzatuak eta erantzun gabeak.

Zientzia eta Berrikuntza Ministerioaren agindu baten bidez, xedapen hau betetzeko beharrezkoak diren jarraibideak eman ahal izango dira.

Hamaseigarren xedapen gehigarria. *Aktiboak Berreskuratu eta Kudeatzeko Bulegoak lortutako baliabideen xedeekiko atxikipen-ehunekoa.*

Aurrekontu hauen indarraldian, ezarri egiten da Prozedura Kriminalaren Legearen seigarren xedapen gehigarriaren 3. zenbakian aipatutako eta Aktiboak Berreskuratu eta Kudeatzeko Bulegoa arautzen duen urriaren 23ko 948/2015 Errege Dekretuaren 2. artikuluan garatutako xedeekiko atxikipenaren urteko ehunekoa Aktiboak Berreskuratu eta Kudeatzeko Bulegoak lortutako baliabideen ehuneko 50ekoa izango dela.

II

Hamazazpigarren xedapen gehigarria. *Tropako militar eta marinel profesionalak.*

Ekitaldi bakoitzeko abenduaren 31n, tropako militar eta marinel profesionalak 79.000 izango dira gehienez.

Defentsa Ministerioari baimena ematen zaio lege hau onesten denetik aurrera kideak hautatzeko eta errekrutatuzko prozesuak abiaraz ditzan.

Hemezortzigarren xedapen gehigarria. *Enplegu Publikoaren Eskaintza, Karrera judizialean eta fiskalean sartzeko.*

2021ean, karrera judizialean eta fiskalean sartzeko enplegu publikoaren eskaintzak ezin izango du gainditu 240 lanpostuko gehieneko muga; lanpostu horiek Justiziaren zerbitzu publikoa hobetzeko eta Justizia Administrazioaren beharrei erantzuteko erabiliko dira.

Lanpostu horiek berekin ekartzen dute Botere Judizialari buruzko uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoaren 306.1 artikulua aipatzen dituen aurrekontuaren baliabideak zehaztea.

Hemeretzigarren xedapen gehigarria. *Defentsako eta Guardia Zibileko unibertsitate-zentroetako irakasleak.*

Defentsako eta Guardia Zibileko unibertsitate-zentroek, betiere Ogasun Ministerioak eta Lurralde Politikako eta Funtzio Publikokoak aldeztu aurretik baimena emanda, Aurrekontuen eta Gastuen Estatu Idazkaritzaren eta Lurralde Politikako eta Funtzio Publikoko Estatu Idazkaritzaren bidez, aldi baterako irakasleak kontratatu ahal izango dituzte, gradu-titulua irakasteko, Unibertsitateei buruzko abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoaren 49., 50., 53. eta 54. artikuluetan ezarritako modalitateekin bat etorruta. Halaber, lege honetan eta Estatuaren aurrekontu Orokorren hurrengo legeetan aldi baterako kontratazioari buruzko ezarritakoa ere bete beharko dute.

Hogeigarren xedapen gehigarria. *Merkataritza-sozietate publikoetako eta enpresa-entitate publikoetako langileak kontratatzea.*

Bat. 1. Lege honen 18. artikulua Bat zenbakian aipatutako merkataritza-sozietate publikoek eta enpresa-entitate publikoek langile berriak kontratatu ahal izango dituzte; betiere, xedapen honetan ezarritako mugak eta baldintzak betez.

2. Muga horiek ezin izango dira aplikatu, funtzionarioak edo langile lan-kontratudunak kontratatu behar direnean, zeinek aurrez Estatuko, autonomiako edo tokiko sektore publikoarekiko harreman finko eta mugagabea baitzeukaten, eta enpresa-erakunde publikoa edo merkataritzako sozietatea sektore horretan sartuta bazegoen. Era berean, muga horiek ezin izango zaizkie aplikatu betetzeko zailak diren eremuei, ezta prestasun bereziko erreserbagileei ere, baldin eta, erreserbagileek, kontratua egin arte, prestasun-ordainsaria jasotzen bazuten, apirilaren 24ko 8/2006 Legearen 19.1 artikuluan ezarritako zenbatekoari eta baldintzei jarraikiz (8/2006 Legea, Tropako Militarren eta Marinelena). Zenbaki honetan ezarritakoaren babesean egindako kontratuek antzinasun-osagarria jasotzen jarraitzeko eskubidea sortuko dute, kontratua gauzatzen den datatik aurrera, jatorrizko Ministerio-sail, organismo publiko, sozietate, fundazio edo partzuergoan jasotzen zen zenbateko berean.

3. Ezin izango da aldi bateko kontrataziorik egin, honako kasu hauetan izan ezik: salbuespen kasuetan, presakoak eta geroraezinak diren beharrei erantzun behar zaienean edo azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 32. artikuluan ezarritako baldintzen arabera egiten direnean (Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen bitartez, Espainiako ordenamendu juridikora ekartzen dira Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauak).

4. Lege honen 19.Bat.3 artikuluan zerrendatutako zerbitzu publikoak edota jarduerak gauzatzen dituzten merkataritza-sozietate publikoek eta enpresa-entitate publikoek ehuneko 110eko berrezarpen-tasa izango dute, manu horretan ezarritako baldintza beretan, tasa horren beharra justifikatuta dagoenean zerbitzua egoki emateko edo jarduera aurrera eramateko. Gainerako kasuetan ehuneko 100 izango da. Berrezarpen-tasa 19. artikuluan ezarritako arauari jarraituz zehaztuko da.

Bi. 1. Merkataritzako sozietateetan eta estatuko enpresa-erakunde publikoetan, langileak behin betiko edo aldi baterako kontratatzeke, Ogasun Ministerioaren eta Lurralde Politikako eta Funtzio Publikoko Ministerioaren aurretiazko baterako baimena beharko da, Aurrekontuen eta Gastuen Estatu Idazkaritzaren eta Lurralde Politikako eta Funtzio Publikoko Estatu Idazkaritzaren bidez. Kontratu mugagabeak egiteko, gainera, akziodun nagusiaren aurretiko aldeko txostena beharko da.

2. Aldi baterako kontratua egiteko baimena lortze aldera, urteko lehen seihilekoan, enpresa-sozietate eta -erakunde publikoek, akziodun maioritarioaren edo haiek barne hartzen dituen ministerioaren edo organismo autonomoaren bitartez, ministerio horiei bidali beharko diete ekitaldirako aurreikusi dituzten beharren zerrenda; hargatik eragotzi gabe ekitaldian geroago sortzen diren premiei erantzun ahal izateko kontratazioak egiteko baimena ere eskatu ahal izatea.

3. Lurralde Politikako eta Funtzio Publikoko Estatu Idazkaritzak jarduketa-oinarri edo -irizpide komunak ezarri ahalko ditu hautapen prozesuetan, lehia librearen, berdintasunaren, publikotasunaren, merezimenduaren eta gaitasun printzipioen aplikazioa gauzatzeko, bai eta prozedura elektronikoa ezartzeko ere.

4. Estatuko merkataritza-sozietateek eta enpresa-entitate publikoek aurreko ekitaldian zerbitzuak eman dituzten aldi baterako langile guztiei buruzko informazioa igorri beharko diote Ogasun Ministerioari, urteko lanegun kopurua eta horien kostua zehaztuz; informazio horrekin batera, soldata-masari buruzko txostenaren eskaera ere igorri beharko diote.

Hiru. Aparteko kasuetan, Ogasun Ministerioak eta Lurralde Politikako eta Funtzio Publikoko Ministerioak, Aurrekontuen eta Gastuen Idazkaritzaren eta Funtzio Publikoko Estatu Idazkaritzaren bitartez, baimena eman ahalko dute, aurrez aipatutako muga gainetik, kontratazioak egiteko; hain zuzen ere, akziodun maioritarioak onetsi dituen eta

Ekonomia Gaietarako Gobernuaren Ordezko Batzordearen aldeko txostena duten plangintza tresna estrategikoak betetzeko behar diren kontratazioak.

Lau. Xedapen gehigarri honen Bat paragrafoan ezarritakoak oinarritzko izaera du, eta Konstituzioaren 149.1.13 eta 156.1 artikuluen babesean ematen da.

Hogeita batgarren xedapen gehigarria. *Sektore publikoko fundazioetako langileak kontratatzea.*

Bat. 1. Sektore publikoko fundazioek langile berriak kontratatu ahal izango dituzte; betiere, xedapen honetan ezarritako mugak eta baldintzak betez.

2. Muga horiek ezin izango dira aplikatu, funtzionarioak edo langile lan-kontratudunak kontratatu behar direnean, zeinek aurrez Estatuko, autonomiako edo tokiko sektore publikoarekiko harreman finko eta mugagabea baitzeukaten, eta enpresa-erakunde publikoa edo merkataritzako sozietatea sektore horretan sartuta bazegoen. Era berean, muga horiek ezin izango zaizkie aplikatu betetzeko zailak diren eremuei, ezta prestasun bereziko erreserbagileei ere, baldin eta, erreserbagileek, kontratua egin arte, prestasun-ordainsaria jasotzen bazuten, apirilaren 24ko 8/2006 Legearen 19.1 artikuluan ezarritako zenbatekoari eta baldintzei jarraikiz (8/2006 Legea, Tropako Militarren eta Marinelena). Zenbaki honetan ezarritakoaren babesean egindako kontratuek antzinasun-osagarria jasotzen jarraitzeko eskubidea sortuko dute, kontratua gauzatzen den datatik aurrera, jatorrizko ministerio-sail, erakunde publiko, sozietate, fundazio edo partzuergoan jasotzen zen zenbateko berean.

3. Ezin izango da aldi baterako langilerik kontratatu, ez bada aparteko kasuetan eta larrialdikoak eta ezin geroratzekoak diren beharriaztarako.

4. Lege honen 19.Bat.3 artikuluan zerrendatutako zerbitzu publikoak edo jarduerak gauzatzen dituzten fundazioek ehuneko 110eko berrezarpen-tasa izango dute, manu horretan ezarritako baldintza beretan, tasa horren beharra justifikatuta dagoenean zerbitzua egoki emateko edo jarduera aurrera eramateko. Gainerako kasuetan ehuneko 100 izango da. Berrezarpen-tasa 19. artikuluan ezarritako arauetara jarraituz zehaztuko da.

Bi. 1. Estatuko sektore publikoko fundazioetan langileak behin betiko edo aldi baterako kontratatzeko, Ogasun Ministerioaren eta Lurralde Politikako eta Funtzio Publikoko Ministerioaren aurretiazko baterako baimena beharko da, Aurrekontuen eta Gastuen Estatu Idazkaritzaren eta Lurralde Politikako eta Funtzio Publikoko Estatu Idazkaritzaren bidez.

2. Aldi baterako kontratua egiteko baimena lortze aldera, urteko lehen seihilekoan, saileko organo eskudunak edo fundazioari atxikita dagoen entitateak bidali beharko du ekitaldirako aurreikusi dituzten beharren zerrenda; hargatik eragotzi gabe ekitaldian geroago sortzen diren premiei erantzun ahal izateko kontratazioak egiteko baimena ere eskatu ahal izatea.

3. Lurralde Politikako eta Funtzio Publikoko Estatu Idazkaritzak jarduketa-oinarri edo -irizpide komunak ezarri ahalko ditu hautapen prozesuetan, lehia librearen, berdintasunaren, publikotasunaren, merezimenduaren eta gaitasun printzipioen aplikazioa gauzatzeko, bai eta prozedura elektronikoa ezartzeko ere.

4. Estatuko sektore publikoko fundazioek aurreko ekitaldian zerbitzuak eman dituzten aldi baterako langile guztiei buruzko informazioa igorri beharko diote Ogasun Ministerioari, urteko lanegun kopurua eta horien kostua zehaztuz; informazio horrekin batera, soldata-masari buruzko txostenaren eskaera ere igorri beharko diote.

Hiru. Xedapen gehigarri honen Bat paragrafoan ezarritakoak oinarritzko izaera du, eta Konstituzioaren 149.1.13 eta 156.1 artikuluen babesean ematen da.

Hogeita bigarren xedapen gehigarria. *Sektore publikoko partzuergoetako langileak kontratatzea.*

Bat. 1. Sektore publikoa –lege honen 18. artikuluan Bat zenbakian definitua–osatzen duten administrazioen eta organismoen partaidetza duten partzuergoek, baldin eta aplikatzeko den legediaren arabera langile propioak kontratatu ahal badituzte, eta

19.Bat.3 artikuluan zerrendatutako zerbitzu publikoak edo jarduerak gauzatzen badituzte, ehuneko 110eko berrezarpen-tasa izango dute, manu horretan ezarritako baldintza beretan, tasa horren beharra justifikatuta dagoenean zerbitzua egoki emateko edo jarduera aurrera eramateko. Langile propioak kontratatu ahal dituzten gainerako partzuergoetan tasa hori ehuneko 100 izango da. Berrezarpen-tasa 19. artikuluan ezarritako arauel jarraituz zehaztuko da.

2. Muga horiek ezin izango dira aplikatu, funtzionarioak edo langile lan-kontratudunak kontratatu behar direnean, zeinek aurrez Estatuko, autonomiako edo tokiko sektore publikoarekiko harreman finko eta mugagabea baitzeukaten, eta partzuergoa sektore horretan sartuta bazegoen. Era berean, muga horiek ezin izango zaizkie aplikatu betetzeko zailak diren eremuei, ezta prestasun bereziko erreserbagileei ere, baldin eta, erreserbagileek, kontratua egin arte, prestasun-ordainsaria jasotzen bazuten, apirilaren 24ko 8/2006 Legearen 19.1 artikuluan ezarritako zenbatekoari eta baldintzei jarraikiz (8/2006 Legea, Tropako Militarren eta Marinelena). Zenbaki honetan ezarritakoaren babesean egindako kontratuek antzintasun-osagarria jasotzen jarraitzeko eskubidea sortuko dute, kontratua gauzatzen den datatik aurrera, jatorrizko Ministerio-sail, organismo publiko, sozietate, fundazio edo partzuergoan jasotzen zen zenbateko berean.

3. Ezin izango da aldi baterako langilerik kontratatu, ez bada aparteko kasuetan eta larrialdikoak eta ezin geroratzekoak diren beharriaztarako.

Bi. 1. Estatuko sektore publikoaren partaidetza nagusia duten partzuergoetan langileak behin betiko edo aldi baterako kontratatzeko, Ogasun Ministerioaren eta Lurralde Politikako eta Funtzio Publikoko Ministerioaren aurretiazko baterako baimena beharko da, Aurrekontuen eta Gastuen Estatu Idazkaritzaren eta Lurralde Politikako eta Funtzio Publikoko Estatu Idazkaritzaren bidez.

2. Aldi baterako kontratua egiteko baimena lortze aldera, urteko lehen seihilekoan, saileko organo eskudunak edo partzuergoari atxikita dagoen entitateak bidali beharko du ekitaldirako aurreikusitako dituzten beharren zerrenda; hargatik eragotzi gabe ekitaldian geroago sortzen diren premiei erantzun ahal izateko kontratazioak egiteko baimena ere eskatu ahal izatea.

3. Lurralde Politikako eta Funtzio Publikoko Estatu Idazkaritzak jarduketara-oinarri edo -irizpide komunak ezarri ahalko ditu hautapen prozesuetan, lehia librearen, berdintasunaren, publikotasunaren, merezimenduaren eta gaitasun printzipioen aplikazioa gauzatzeko, bai eta prozedura elektronikoa ezartzeko ere.

4. Partzuergoek aurreko ekitaldian zerbitzuak eman dituzten aldi baterako langile guztiei buruzko informazioa igorri beharko diote Ogasun Ministerioari, urteko lanegun kopurua eta horien kostua zehaztuz; informazio horrekin batera, soldata-masari buruzko txostenaren eskaera ere igorri beharko diote.

Hiru. Xedapen gehigarri honen Bat paragrafoan ezarritakoak oinarritzko izaera du, eta Konstituzioaren 149.1.13 eta 156.1 artikuluen babesean ematen da.

Hogeita hirugarren xedapen gehigarria. *Egonkortze-prozesuak, Estatuaren 2017rako Aurrekontu Orokorren ekainaren 27ko 3/2017 Legearen 19.bat.6 artikulua babesean.*

Estatuaren 2017rako Aurrekontu Orokorren ekainaren 27ko 3/2017 Legearen 19.bat.6 artikuluetan erregulatzen duen aldi baterako enplegua egonkortzeko tasak, artikulua horretan ezarritako termino eta baldintzetan, barne hartuko du, aurrekontuko zuzkidura izanik, aldi baterako eta etenik gabe 2016ko abenduaren 31ren aurreko hiru urteetan gutxienez beteta egon diren plazen % 100.

Hogeita laugarren xedapen gehigarria. *Estatuko Administrazio Orokorren mendeko organismoetako osasun-zentro eta -zerbitzuetako estatutupeko langileen plantillak aldatzea.*

Estatuko Administrazio Orokorren mendeko organismoetako osasun-zentro eta -zerbitzuetako estatutupeko langileen plantillak aldatzeko, aurrez Ogasun Ministerioak,

Aurrekontuen eta Gastuen Estatu Idazkaritzaren bidez, aldeko txostena beharko du, baldin eta, aldaketa horien ondorioz, handitzen badira lanpostuen kopurua edo lanpostu horien kostua, edota osasun-langileen lanpostuak kudeaketa-langileen lanpostu bihurtzen badira, edo alderantziz.

Hogeita bosgarren xedapen gehigarria. *Estatuko Sektore Publikoko zuzendaritzako langileak.*

Estatuko sektore publikoaren eremuan dauden zuzendaritzako lanpostuen kopurua, zehazki ministerio-sail, organismo autonomo, estatu-agentzia, erakunde publiko, enpresa-entitate publiko, Estatuko merkataritza-sozietate, fundazio eta, nagusiki, Estatuko sektore publikoa osatzen duten administrazioen eta organismoen partaidetza duten partzuergoetakoak, ezin izango da izan aurreko urtean zegoena baino handiagoa.

Artikulu honen ondorioetarako, zuzendaritzako langiletzat hartuko dira martxoaren 5eko 451/2012 Errege Dekretuak zehaztutakoak.

Hogeita seigarren xedapen gehigarria. *Estatuaren 2018ko Aurrekontu Orokorrei buruzko uztailaren 3ko 6/2018 Legearen hogeita bederatzigarren eta hogeita hamabigarren xedapen gehigarriak Sociedad Estatal de Infraestructuras del Transporte Terrestre SME SAri aplikatzea.*

Sociedad Estatal de Infraestructuras del Transporte Terrestre SME SAren antolaketa eta plantilla Estatuak agindutako autobideen kudeaketak sortutako beharretara egokitzen laguntzeko, Estatuko Administrazio Orokorraren eta «Sociedad Estatal de Infraestructuras del Transporte Terrestre SME SA»ren arteko hitzarmenaren arabera –hitzarmenak Estatuaren titulartasuneko autobideen ustiapenaren kudeaketa eta lizitazioaren prestaketa arautzen ditu, 2017ko abuztuaren 16an sinatu zen, eta 2018ko abenduaren 22ko gehigarriaren bidez aldatu zen–, 2021eko ekitaldian, salbuespen moduan, eta aurreko hiru ekitaldietan lortutako etekinak alde batera utzita, sozietateak kontratu mugagabeak egin ahal izango ditu, berrezarpen-tasaren % 100eko muga ezarrita (eta 19.bat.7 artikuluan ezarritako arauen arabera kalkulatu da), eta zuzendari-kideak gehitu ahalko ditu, baina ezin izango du inola ere gainditu martxoaren 5eko 451/2012 Errege Dekretuan eta hura garatzeko ministerio-aginduetan ezarritako gehieneko zuzendari kopurua (dekretu horrek enpresa-sektore publikoko eta beste erakunde batzuetako arduradun eta zuzendari nagusien ordainsari-araubidea arautzen du).

Artikulu honen ondorioetarako, zuzendaritzako langiletzat hartuko dira martxoaren 5eko 451/2012 Errege Dekretuak zehaztutakoak.

Hogeita zazpigarren xedapen gehigarria. *Cuenca Hiriaren Partzuergoa.*

Baimena ematen zaio Cuenca Hiriaren Partzuergoari langile bat kontratatzeko, bere jardura garatzeko funtsezkotzat jotzen den lanpostu bat bete dezan. Ondore horietarako ez dira aplikagarriak izango berrezarpen-tasari edo soldata-masa handitzeari buruzko mugak. Muga horiek era orokorrean ezarrita daude lege honen 23. artikuluan eta «Sektore publikoko partzuergoetako langileak kontratatzeari» buruzko hogeita bigarren xedapen gehigarrian, bai eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 121. artikuluan ere.

Hogeita zortzigarren xedapen gehigarria. *Bake-epaitegietak bake-epaileen eta idazkarien jardueragatiko konpentsazio ekonomikorako moduluak.*

Bat. Botere Judizialaren uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoaren 101. artikuluan xedatutakoari jarraituz izendatutako bake-epaileek ordainsari hauek jasoko dituzte urtean, udalerriko zuzenbidezko biztanle kopuruaren arabera:

	Euroak urte bakoitzeko
1 eta 1.999 biztanle artean.	1.174,88
2.000 eta 4.999 biztanle artean.	1.762,09
5.000 eta 6.999 biztanle artean.	2.349,38
7.000 eta 14.999 biztanle artean.	3.523,83
15.000 biztanle edo gehiago.	4.698,38

Bi. Bake-epaitegi batean idazkari-lanak egiten dituzten langileek, Justizia Administrazioaren zerbitzura ari diren kidegoetakoek izan ezik, ordainsari hauek jasoko dituzte urtean, udalerriko zuzenbidezko biztanle kopuruaren arabera:

	Euroak urte bakoitzeko
1 eta 499 biztanle artean.	581,86
500 eta 999 biztanle artean.	864,23
1.000 eta 1.999 biztanle artean.	1.035,41
2.000 eta 2.999 biztanle artean.	1.206,37
3.000 eta 4.999 biztanle artean.	1.548,47
5.000 eta 6.999 biztanle artean.	1.890,65

Hiru. Ordainsari horiek dagozkien aurrekontu-aplikazioen kontura finantzatuko dira, eta hiru hilean behin ordainduko dira; zehazki, martxoan, ekainean, irailean eta abenduan.

Hogeita bederatzigarren xedapen gehigarria. *Toki-korporazioetako kideen ordainsari-araubidea.*

Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 75.bis artikuluan ezarritakoari jarraituz, eta kontuan hartuta lege honen 20. artikuluan xedatutakoa, ordainsari- eta bertaratze-konzeptu guztiengatik toki-korporazioetako kideek guztira jaso dezaketen gehieneko kopuruaren muga segidan jasotakoa izango da, betiere biztanle-kopuruari erreparatuta, alde batera utzita zerbitzu berezietako egoeran dauden karrerako funtzionarioek –horretarako eskubidea dutelako– jasotzeko dituzten hiru urtekoak. Hona hemen muga:

Biztanleak	Erreferentzia – Euroak
500.000 baino gehiago.	109.494,57

Biztanleak	Erreferentzia – Euroak
300.001 eta 500.000 bitartean.	98.545,10
150.001 eta 300.000 bitartean.	87.595,64
75.001 eta 150.000 bitartean.	82.121,45
50.001 eta 75.000 bitartean.	71.172,02
20.001 eta 50.000 bitartean.	60.222,56
10.001 eta 20.000 bitartean.	54.747,30
5.001 eta 10.000 bitartean.	49.273,11
1.000 eta 5.000 bitartean.	43.797,83

1.000 biztanletik beherako toki-korporazioen kasuan, honako eskala hau aplikatuko da, arduraldiari begiratuta:

Arduraldia	Erreferentzia – Euroak
Arduraldi partziala, % 75ekoa	32.848,41
Arduraldi partziala, % 50ekoa	24.088,65
Arduraldi partziala, % 25ekoa	16.424,78

Hogeita hamargarren xedapen gehigarria. *Gizarte Segurantzarekin elkarlanean jarduten duten mutualitateetako eta horien zentro mankomunatuetoako langileen ordainsariak.*

Bat. Gizarte Segurantzaren mutualitate laguntzaileetan eta horien zentro mankomunatuetoan zuzendari kudeatzaileek eta betearazpen-eginkizunetan diharduten langileek edozein kontzepturengatik jasotzen dituzten ordainsariak Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bateginaren 88. artikuluan ezarritakoaren mende egongo dira (urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartu zen testu bategin hori), eta 18.Bi artikuluan ezarritako igoera-ehunekoa izango dute 2020an jasotako zenbatekoekiko.

Bi. Aipaturiko 88. artikuluan ezarritakoa ezertan eragotzi gabe, mutualitateetako eta horien zentro mankomunatuetoako gainerako langileen ordainsariak Estatuko sektore publikoko lan-kontratudun langileei dagokienez xedatutakoaren mende geratuko dira, eta, zehazki, lege honen 23. artikuluan ezarritakoaren eta ekainaren 10eko HAP/1057/2013 Aginduan ezarritakoaren mende; agindu horren bidez, 2013rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren abenduaren 27ko 17/2012 Legearen 27.hiru artikuluan soldata-masa baimentzeko araututako prozeduraren forma, irismena eta ondoreak zehazten dira, Estatuko merkataritza-sozietateetarako, Estatuko sektore publikoko fundazioetarako eta nagusiki Estatuko sektore publikoa osatzen duten administrazioen eta organismoen partaidetza duten partzuergoetarako.

Aurreko paragrafoan ezarritakoaren ondorioetarako, osasun-arloko langileei dagokien soldata-masari buruzko txostenean, aintzat hartuko dira kolektibo horren ordainsarien berezitasunak, zerbitzuak ematen dituzteneko eremu geografikoetako lan-merkatuko inguruabarretatik eratortzen direnak eta osasun-arloko profesionalen kategoria jakin batzuen ordainsarrietan zuzeneko eragina izan dezaketenak.

Hiru. Aurreko apartatueta aurreikusitako mugak aplikatzearen ondorioetarako, konputagarriak izango dira, orobat, mutualitateen ondare historikotik edo ondare horri lotutako entitateetatik datozen ordainsariak.

Hogeita hamaikagarren xedapen gehigarria. *Karrera Judizialeko eta Karrera Fiskaleko kideen aparteko ordainsaria.*

2011rako Estatuko Aurrekontu Orokorren 39/2010 Legearen X. eranskinean zehaztutako Karrera Judizialeko eta Karrera Fiskaleko kideen aparteko ordainsarian sartu beharreko zenbatekoari dagokionez, «5. taldeko epaileen» eta «hirugarren fiskalkategoriari dagozkion gainerako destinoen» destinoei, gainera, 57,20 euroko gehikuntza aplikatuko zaie 2018ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, 2018rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko uztailaren 3ko 6/2018 Legearen 18.Bi artikuluan aurreikusitako ehuneko 0,20ko gehikuntza gehigarria aplikatzearen ondorioz.

Hogeita hamabigarren xedapen gehigarria. *Estatu-agentzietako errendimendurako pizgarriak.*

Estatu-agentzien kudeaketa-kontratuak betearaztearen ondorio diren errendimendurako pizgarrien zenbateko globalen gehieneko muga hauxe izango da: Ogasun Ministerioak, Aurrekontuen eta Gastuen Estatu Idazkaritzaren bitartez, aurreko urtean kontzeptu horiengatik baimendu dizkien zenbatekoak, 18.bi artikuluan ezarritako gehieneko handitzearekin.

Hogeita hamahirugarren xedapen gehigarria. *Atzerrian destinatuta dauden langileen zerbitzuen ondoriozko kalte-ordainak.*

Zerbitzuen ondoriozko kalte-ordainei buruzko maiatzaren 24ko 462/2002 Errege Dekretuaren 26.3 artikuluan eraginkortasunak etenda jarraituko du.

Hogeita hamalagarren xedapen gehigarria. *Estatuko Administrazio Orokorren gastua mugatzea.*

Bat. Ministerio-sailek proposatzen duten ezein jarduera berrik ezingo du berekin ekarri langile-gastu garbien igoera, hargatik eragotzi gabe 18.Bi artikulua xedatzen duena.

Bi. Lege honetan jasotako mugetatik salbuetsita daude

Zerga Administrazioako Estatu Agentziako Lehendakariak hartutako neurriak, ekainaren 27ko 13/2017 Errege Lege Dekretuaren 1. artikuluan ordainsariak lanpostuetan betetzen diren funtzioetara egokitze aurreikusitakoa aplikatuta. Era berean, hartu egingo da Estatuko Aurrekontu Orokorren legeekin bateragarriak direla agentzia horrek, xedapen bera aplikatuta, 2018ko uztailaren 24ko eta irailaren 26ko ebazpen bidez emandakoak.

Hogeita hamabosgarren xedapen gehigarria. *2012ko abenduko aparteko ordainsaria eta ordainsari gehigarria berreskuratzea.*

Bat. Aurrekontu Egonkortasuna Bermatzeko eta Lehiakortasuna Bultzatzeko Neurriei buruzko uztailaren 13ko 20/2012 Errege Lege Dekretua betetzearen ondorioz, aparteko ordainsaria eta berariazko osagarriaren ordainsari gehigarria edo ordainsari gehigarri baliokideak, 2012ko abenduari dagozkionak, kentzeagatik egiazki jaso ez diren zenbatekoak osorik ordaindu ez dituzten administrazioek eta sektore publikoa osatzen duten gainerako entitateek itzulketa hori onetsi ahaliko dute, xedapen honetan zehaztutako irismenarekin eta mugekin, itzulketa hori onets dezaten, beren egoera ekonomiko-finantzarioa kontuan hartuta.

Bi. Itzulketa egingo da honako hauetan jasotako modu berean eta adierazitako baldintzak betez: 2015erako Estatuaren Aurrekontu Orokorren abenduaren 26ko 36/2014 Legearen hamabigarren xedapen gehigarria; irailaren 11ko 10/2015 Errege Lege Dekretuaren 1. artikulua –errege lege-dekretu horren bidez Estatuaren Aurrekontuan

kreditu bereziak eta kreditu-gehigarriak eman eta enplegu publikoaren arloko eta ekonomia pizteko beste neurri batzuk hartzen dira–; eta 2016rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren urriaren 29ko 48/2015 Legearen hamabigarren xedapen gehigarria.

Hiru. Xedapen honek oinarrizko izaera du, eta Konstituzioaren 149.1.18, 149.1.13 eta 156.1 artikuluen babesean ematen da.

Hogeita hamaseigarren xedapen gehigarria. *Estatuko oinarrizko arauetan aurreikusitako gabeko zenbatekoetan minoratu diren ordainsariak berrezartzea.*

Bat. Administrazioek eta sektore publikoa osatzen duten gainerako erakundeek, baldin eta aurreko ekitaldietan beren langileen ordainsariak minoratu badituzte Estatuaren oinarrizko arauetan eskatu ez diren zenbatekoetan edo Estatuaren Aurrekontu Orokorren legeetan aurreikusitako gehieneko ordainsari-igoerak aplikatu ez badituzte, minorazioa baino lehen indarrean zeuden zenbatekoak edo aurrekontuei buruzko legeetan baimendutako igoerara iritsi arte bidezkoak direnak berrezarri ahalko dituzte.

Bi. Neurri horren aplikazioan sortzen diren kopuruak ez dira hartuko Estatuaren Aurrekontu Orokorren Legearen araututa dauden ordainsari-gehikuntzat.

Hiru. Soilik defizitaren eta zorraren helburuak, bai eta gastu-araua ere, betetzen dituzten administrazioek eta erakundeek onetsi ahalko dute neurri hori, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren 12., 15. eta 16. artikuluetan jasotako moduan, eta, hala dagokionean, arau horren 17. artikuluko 3. eta 4. apartatuetan aipatzen diren txostenak kontuan hartuko dira. Horri dagokionez, toki-entitateetako bakoitzari ezarri behar zaion zorraren muga Estatuaren Aurrekontu Orokorrei buruzko legeek edo toki-ogasunak arautzen dituen legeriak zorpetze-eragiketarako baimentzearen arloan finkatzen dutena izango da.

Lau. Xedapen honek oinarrizko izaera du, eta Espainiako Konstituzioaren 149.1.13 eta 156.1 artikuluen babesean emana dago.

Hogeita hamazazpigarren xedapen gehigarria. *Erantzukizun zibileko aseguruak kontratatzea.*

Aseguruak hitzartu ahalko dira, Estatuaren Administrazio Orokorren, haren organismo autonomoen, entitate kudeatzaileen eta Gizarte Segurantzaren zerbitzu komunak zerbitzura lan egiten duten langileen erantzukizun zibil profesionala estaltzeko, baldin eta babes hori eduki beharra sortzen duten inguruabarrak biltzen badira, eta, betiere soldata masa, lege honetan ezarritako terminoetan, inola ere gainditzen ez badute.

Saileko, erakundeko, entitateko edo zerbitzuko titular egokiari dagokio aurreko paragrafoaren eremuan sartutako funtzio eta kontingentzia egokiak zehaztea.

Hogeita hemezortzigarren xedapen gehigarria. *IV. Hitzarmen Bakarreko soldata-masaren aurrekontu-lotura, Estatuaren Administrazio Orokorreko lan-kontratuko langileentzat.*

Estatuaren Administrazio Orokorreko lan-kontratuko langileentzako IV. Hitzarmen Bakarrean jasotako lanbide-sailkapeneko sistema berria aplikatzearen ondoriozko soldata-masaren gehikuntza lege honetako zenbakiko eranskinetan horretarako ezarri diren aurreikuspenekin onartuko da.

Hogeita hemeretzigarren xedapen gehigarria. *Administrazio publikoetako enplegurako prestakuntzaren eremu subjektiboa.*

Lege hau indarrean sartzen denetik eta indarraldi mugagabez ondoreak izanik, konstituzio- eta estatutu-organoen eta justizia-administrazioaren zerbitzura dauden enplegatu publikoak honako programa hauetan sartuko dira: Lan-arloan Enplegurako Lanbide Heziketaren Sistema arautzen duen Legearen 6.7 artikuluan aipatzen diren administrazio publikoen esparruan sinatzen diren prestakuntza-akordioetan ezarritakoaren arabera sustatzen diren programetan (30/2015 Legea, irailaren 9koa).

Berrogeigarren xedapen gehigarria. *Enplegurako pentsio publikoen funtsak sustatzea.*

Gehienez ere hamabi hilabeteko epean, Gobernuak enpleguaren pentsio-funts publikoen gaineko lege-proiektua aurkeztuko du, eta proiektu horretan Estatuko Administrazio Orokorrari proiektua sustatzeko lege-ahalmena emango dio. Enplegurako pentsio-funts publikoak irekiak izango dira, garatutako inbertsio-prozesuei dagokienez. Honako ezaugarri hauek izango dituzte:

a) Sustapen publikoko pentsio-funts horiei atxiki ahal izango zaizkie erretirorako ekarpen definituko enplegu-sistemako pentsio-planak, baldin eta beren zehaztapenetan hala ezartzen badute; eta, modu lehenetsian, berariazko pentsio-funts zehatzik zehazten ez duten enplegu-modalitateko pentsio-planak. Era berean, pentsio-funts publiko horiek hala erabakitzen duten beste enplegu-funts batzuetako inbertsioak bideratu ahal izango dituzte, sektorean lehia sustatzeko moduko gastu-mailarekin.

b) Funtsaren erakunde kudeatzaile eta gordailuzainak hautatzeko prozesua lehiaketa ireki bidez egingo da.

c) Enplegurako pentsio publikoen funtsak kontrol-batzorde batek arautuko ditu. Kontrol-batzordeak onartzen duen pentsio-funtsaren inbertsio-politika eskritura publikoan jasoko da, eta ezin izango da aldatu, salbu eta Inklusioko, Gizarte Segurantzako eta Migrazioetako Ministerioak berariazko baimena ematen badu.

d) Inklusioko, Gizarte Segurantzako eta Migrazioetako Ministerioak beto-eskubidea izango du funtsaren kontrol-batzordeak inbertsio-estrategiari eragiten dioten erabakiei dagokienez, bai eta erakunde kudeatzaile eta gordailuzainen ordezkapenari dagokionez ere.

e) Prozedura sinplifikatuak arautuko dira, enpleguko pentsio-planak enpleguko pentsio publikoen funtsetan txertatzeko.

f) Langile autonomoen pentsio-plan elkartuak integratzea aurreikusi ahal izango da.

III

Berrogeita batgarren xedapen gehigarria. *Gizarte Segurantzako familia-prestazioak.*

2021eko urtarrilaren 1etik aurrera ondoreak izanik, honako hauek izango dira Gizarte Segurantzaren familia-prestazioen zenbatekoa, modalitate ez-kontributiboan, eta, hala dagokionean, haietara sartzeko diru-sarrerren mugako zenbatekoa, urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bateginaren VI. tituluaren I. kapituluan araututakoari jarraituz:

Bat. 353.1 artikuluan ezarritako esleipen ekonomikoaren zenbatekoa, hemezortzi urte baino gutxiagoko seme edo alabaren kasuan edo gutxienez ehuneko 33ko desgaitasuna duen ardurapeko adingabearen kasuan, urteko zenbaketan 1.000,00 eurokoa izango da.

353.1 artikuluan ezarritako esleipen ekonomikoaren zenbatekoa, hemezortzi urte baino gehiagoko seme edo alabaren kasuan edo gutxienez ehuneko 65eko desgaitasuna duen ardurapeko adinez nagusiaren kasuan, urteko zenbaketan 4.790,40 eurokoa izango da.

Bi. 353.2 artikuluan ezarritako esleipen ekonomikoaren zenbatekoa, ardurapeko seme-alabak hemezortzi urte baino gehiago dituenean, gutxienez ehuneko 75eko desgaitasun-gradua duenean, eta, galera anatomiko edo funtzionalen ondorioz beste pertsona baten laguntza behar duenean eguneroko ekintzarik funtsezkoenak gauzatzeko, hala nola janzteko, lekualdatzeko, jateko edo antzekoetarako, urteko zenbaketan 7.185,60 eurokoa izango da.

Hiru. Seme edo alaba jaio edota adoptatzeagatik 358.1 artikuluan ezartzen duen prestazioaren zenbatekoa 1.000,00 eurokoa izango da familia ugarien kasuan, guraso bakarreko familien kasuan eta desgaitasuna duten gurasoen kasuan.

Prestazio hori jasotzeko eskubidea izateko diru-sarrerren mugak, 357.3 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, 12.536,00 eurokoak izango dira, eta familia ugarien kasuan,

18.867,00 eurokoak. Ardurapeko seme-alaba bakoitzeko urtean 3.056,00 euro gehiago izango dira laugarrenetik aurrera (laugarrena barne).

Prestazioa ez da aitortuko, 358.2 artikuluko lehen paragrafoan aipatzen den aldea 10 eurotik beherakoa denean.

Lau. Bizitzeko gutxienerako diru-sarrera ezartzen duen maiatzaren 29ko 20/2020 Errege Lege Dekretuaren zazpigarren xedapen iragankorraren arabera, esleipen ekonomikoaren zenbatekoa eta urteko diru-sarreraren muga urteko zenbaketan hauxe izango da esleipen ekonomikorako eskubidea mantentzen edo berreskuratzen duten onuradunentzat, hemezortzi urtetik beherako seme-alaba bakoitzeko, desgaitasunik gabeko ardurapeko adingabe bakoitzeko edo gutxienez ehuneko 33ko desgaitasuna duen seme-alaba bakoitzeko:

- Esleipen ekonomikoaren zenbatekoa: 341,00 euro urtean.
- Esleipen ekonomikoa jasotzeko diru-sarreraren muga urteko 12.536,00 eurokoa izango da, eta 18.867,00 eurokoa, familia ugarien kasuan; zenbateko horri urtean 3.056,00 euro gehituko zaizkio laugarrenetik aurrerako seme edo alaba bakoitzeko, laugarren hori barne.

Dena den, esleipen ekonomikoaren urteko zenbatekoa 588,00 eurokoa izango da, familiaren diru-sarrerak honako eskala honetan azaltzen diren zenbatekoak baino txikiagoak izanez gero:

Etxeko kideak		Diru-sarreraren tarteak	Urteko esleipen garbia
14 urte edo hortik gorako pertsonak (M)	14 urtetik beherako pertsonak (N)		
1	1	4.766 edo gutxiago	588 x H
1	2	5.865 edo gutxiago	588 x H
1	3	6.965 edo gutxiago	588 x H
2	1	6.598 edo gutxiago	588 x H
2	2	7.698 edo gutxiago	588 x H
2	3	8.797 edo gutxiago	588 x H
3	1	8.431 edo gutxiago	588 x H
3	2	9.531 edo gutxiago	588 x H
3	3	10.629 edo gutxiago	588 x H
M	N	$3.666 + [(3.666 \times 0,5 \times (M-1)) + (3.666 \times 0,3 \times N)]$ edo gutxiago	588 x H

H = Onuradunek zaintzapean dituzten 18 urtetik beherako seme-alabak.

N = Etxeko 14 urtetik beherako adingabeak.

M = Etxeko 14 urte edo hortik gorako pertsonak.

Berrogeita bigarren xedapen gehigarria. *Azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren testu bateginean jasotako sorospen ekonomikoak eta laguntza-pentsioak.*

Bat. 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera, azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien

gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren testu bateginean jasotako sorospen ekonomikoek honako zenbateko hauek izango dituzte, sorospen motaren arabera:

	Euroak, hilabeteko
Gutxieneko diru-sarrerak bermatzeko sorospena	149,86
Beste pertsona baten laguntzarako sorospena	58,45
Mugikortasunerako eta garraio-gastuak konpentsatzeko sorospena.	68,80

Bi. 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera, uztailaren 21eko 45/1960 Legean eta uztailaren 24ko 2620/1981 Errege Dekretuan xedatutakoaren arabera aitortutako pentsio asistentzialak hilean 149,86 eurokoak izango dira. Ekainean eta abenduan, zenbateko bereko aparteko bi ordainsari ere ordainduko dira.

Hiru. Laguntza-pentsioak berrikusi egingo dira aldiari aldiari, onuradunek laguntzak jaso ahal izateko baldintzak betetzen jarraitzen dutela egiaztatzeko, eta, baldintza horiek jada betetzen ez badituzte, eskubidea iraungituz jotzeko eta bidegabeki jasotako zenbatekoak itzularazteko. Inklusioa, Gizarte Segurantzako eta Migrazioetako Ministerioak berrikuspen-prozedurak abiarazi ahaliko ditu, eragindako gastuaren doikuntza ekonomikoa eta aurrekontu-doikuntza egiteko. Prozedura horien emaitzak aipatutako ministerio-sailari komunikatuko zaizkio.

Berrogeita hirugarren xedapen gehigarria. *Indar Armatuetao Gizarte Segurantzako Araubide Bereziko baliaezintasun handiagatiko prestazioak handitzea.*

Indar Armatuetao Gizarte Segurantzako Araubide Bereziko baliaezintasun handiagatiko prestazioak, 2020ko abenduaren 31ra arte sortutakoak, ehuneko 0,9 handituko dira 2021ean.

Berrogeita laugarren xedapen gehigarria. *Martxoaren 18ko 3/2005 Legeak ezarritako prestazio ekonomikoaren zenbatekoa eguneratzea.*

2021eko urtarrilaren 1etik aurrera, honako hau izango da martxoaren 18ko 3/2005 Legearen babesean aitortutako prestazio ekonomikoaren urteko zenbatekoa, Gerra Zibilaren ondorioz adingabeak zirenean atzerrira joan ziren espainiar jatorriko herritarrentzat, bizitzako urte gehienak Espainiatik kanpo eman bazituzten: 7.575,39 euroren eta onuradun bakoitzak 3/2005 Legearen 2. artikulua a), b) eta c) letrek aipatutako pentsioengatik jasotzen duen urteko zenbatekoaren arteko aldea, edota 7.575,39 euroren eta 3/2005 Legearen 2. artikulua d) letrak aipatutako onuradunek urtean jasotzen dituzten errenta edo diru-sarreraren arteko aldea.

Berrogeita bosgarren xedapen gehigarria. *Giza immunoeskasiaren birusa (GIB) daukatentzako gizarte-laguntzak.*

2021ean, giza immunoeskasiaren birusa (GIB) daukatenei aitortutako hileko zenbatekoa zehazteko –zenbateko horiek Osasun-sistema publikoan egindako jarduketan ondorioz giza immunoeskasiaren birusa (GIB) daukatenei laguntzak emateko maiatzaren 28ko 9/1993 Errege Lege Dekretuaren 2.1 artikulua b), c) eta d) letretan daude ezarrita–, aipaturiko letretan araututako proportzioak aplikatuko dira, 645,08 euroko zenbatekoa oinarri hartuta.

Berrogeita seigarren xedapen gehigarria. *Pentsioen eta beste prestazio publiko batzuen erosteko ahalmenari eustea 2021. urtean.*

Bat. Gizarte Segurantzako eta Klase Pasiboetako sistemako pentsiodunek –pentsioak 2021eko urtarrilaren 1a baino lehen sortu badira, eta ekitaldi horretan handitu

badira– 2022ko apirilaren 1a baino lehen, ordainketa bakarrean jasoko dute honako kopuru hau: 2021ean jaso zuten pentsioaren eta 2020ko abenduaren 31ko indarreko pentsioaren zenbatekoei 2020ko abendutik 2021eko azarora arteko kontsumo prezioaren indizearen urte arteko portzentaje-igoeren batez besteko balioa aplikatuta legokiekeenaren arteko aldearen balioidea den zenbatekoa, betiere ateratzen den batez besteko balioa ehuneko 0,9 baino handiagoa bada.

Ondorio horietarako, 2021. urteko pentsio publikoaren muga honako hau izango da: 2020ko abenduaren 31n muga horren zenbatekoa aurreko paragrafoan adierazitako ehunekoan handitzearen balioidea.

Aurreko paragrafoan ezartzen dena Gizarte Segurantzako sistemaren eta Klase Pasiboen pentsiodunei ere aplikatuko zaie, 2021ean sortutako pentsioak jaso dituztenei, baldin eta urte horretarako finkatutako pentsio publikoen gehieneko zenbatekoa jaso badute. Era berean, giza immunoeskasiaren birusa (GIB) duten pertsonei onartutako laguntzak eta martxoaren 18ko 3/2005 Legean ezartzen denaren itzalpean onartzen diren laguntzak jasotzen dituztenei ere aplikatuko zaie.

Aurreko arauak Klase Pasiboen pentsio hauei ere aplikatuko zaizkie: lehenengoz 2021ean ordaindu direnei, baldin eta zenbatekoa zehazteko ekitaldi horretan eguneratu beharreko baliabide arautzaileak hartu baziren kontuan.

Bi. 2021ean jarraian zehaztu diren pentsioetako bat jaso dutenek ordainketa bakarrean jasoko dute 2021ean jasotako pentsioaren eta 2020ko zenbatekoei 2020ko abendutik 2021eko azarora arteko KPIren urte arteko portzentaje-igoeren batez besteko balioa aplikatuta legokiekeenaren arteko aldearen pareko zenbatekoa, baldin eta ateratzen den batez besteko balioa ehuneko 0,9 baino handiagoa bada. Hona pentsioak: Gizarte Segurantzaren ordaindutakoaren araberrako gutxieneko pentsioak; Zahartzaroko eta Baliaezintasuneko Nahitaezko Aseguruaren pentsioak, batera gertatzen ez direnean; Zahartzaroko eta Baliaezintasuneko Nahitaezko Aseguruaren pentsioak eta Gizarte Segurantzako sistemaren araubide bateko alargun-pentsioak, batera gertatzen direnean; Gizarte Segurantzak nor bere kargura gutxienez hemezortzi urte eta gutxienez ehuneko 65eko desgaitasuna dituen semea edo alaba edukitzeagatik ematen dituen prestazioak; mugikortasun-sorospena eta garraio-gastuen konpentsazioa.

Hiru. 2020ko abenduko eta 2021eko azaroko KPIren urte arteko ehuneko igoeren batez besteko balioa ehuneko 0,9 baino handiagoa baldin bada, 2021eko ondorio ekonomikoko data duten Klase Pasiboen pentsioen hasierako zehaztapena egiteko, urtarilaren 14ko 1/2020 Errege Lege Dekretuan jasotako balioei ehuneko hori gehituko zaie.

Lau. Gobernuari ahalmena ematen zaio xedapen honetan jasotako aurreikuspenak aplikatzeko behar diren arauak emateko, lege honetako IV. tituluan eta bat datozen xedapenetan jasotako balioak eguneratzeko, eta zenbatekoak egokitzeko, hala dagokionean, 2020ko abendutik 2021eko azarora KPIk izandako igoera errealera.

Berrogeita zazpigarren xedapen gehigarria. *Gizarte Segurantzako Sistema Eguneratzeari, Egokitzeari eta Modernizatzeari buruzko abuztuaren 1eko 27/2011 Legearen hogeita zortzigarren xedapen gehigarriaren aplikazioa geroratzea.*

Geroratu egiten da Gizarte Segurantzako Sistema Eguneratzeari, Egokitzeari eta Modernizatzeari buruzko abuztuaren 1eko 27/2011 Legearen hogeita zortzigarren xedapen gehigarrian jasotakoaren aplikazioa.

Berrogeita zortzigarren xedapen gehigarria. *Eten egiten da urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bateginaren 58. artikulua eta apirilaren 30eko 670/1987 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Estatuko Klase Pasiboen Legearen testu bateginaren 27. artikulua.*

2021ean pentsioak lege honetako IV. tituluan eta bat datozen xedapenetan ezartzen den bezala handituko dira, eta ez da aplikatuko Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren

testu bategineko 58. artikuluan, ez eta Estatuko Klase Pasiboen Legearen testu bategineko 27. artikuluan ezartzen dena ere.

IV

Berrogeita bederatzigarren xedapen gehigarria. *Diruaren legezko interesa.*

Bat. Diruaren legezko interes-tasaren aldaketari buruzko ekainaren 29ko 24/1984 Legearen 1. artikulua ezarritakoaren arabera, diruaren legezko interes-tasa ehuneko 3,00 izango da 2021eko abenduaren 31ra arte.

Bi. Epe horretan, Tributuei buruzko abenduaren 17ko 58/2003 Lege Orokorraren 26.6 artikulua adierazitako berandutze-interesa ehuneko 3,75 izango da.

Hiru. Epe horretan, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 38.2 artikulua adierazitako berandutze-interesa ehuneko 3,75 izango da.

Berrogeita hamargarren xedapen gehigarria. *ADIF-Alta Velocidad enpresa-entitate publikoa zorpetzea.*

ADIF-Alta Velocidad entitate publikoak Ogasun Ministerioaren baimena beharko du zorpetze-eragiketak egiteko, eragiketa horiek formalizatzeko modua edozein izanda ere, lege honetan aurreikusitako entitatearen gehieneko zorpetze-mugaren barruan; hori guztia, Kontu Nazionalen Europako Sistema arautzen duen araudi berrira egokitzeko, bai eta aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren arloan hartutako konpromiso eta helburuak betetzeko ere.

Baimenak emateko, honako arau hauek bete beharko dira, eragiketa mota aintzat hartuta:

1. Eragiketek entitatearen jarduketa- edota inbertsio-plan eta -programetan ezarrita egon beharko dute.
2. Epe laburreko zorraren saldo bizia ezin izango da aldatu 2021eko urtarrilaren 1etik abenduaren 31 arte, Ogasun Ministerioak zehaztutako zenbatekoan baino handiagoan.
3. Urtebetetik gorako epemuga duen zorpetze-eragiketa bakoitzak Ogasun Ministerioaren baimena beharko du.
4. Baimen-espeditzea Ogasun Ministerioari igorriko dio ADIF-Alta Velocidad enpresak, egin beharreko eragiketak deskribatzen dituzten agiri guztiekin, eta zehaztu du zein ondorio izan ditzaketen eragiketa horiek entitatearen jardun- eta/edo inbertsio-plan nahiz -programetan, Europako Erkidegoaren funtsak xurgatzeko orduan, edota ADIF-Alta Velocidad enpresak bere gain hartutako beste finantza-betebehar batzuen betetzean.

Berrogeita hamaikagarren xedapen gehigarria. *Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionalari (UNEDi) zorpetze-errekurtsoa baimentzea.*

Urrutiko Hezkuntzako Unibertsitate Nazionalari zorpetzera jotzeko baimena ematen zaio, Unibertsitatei buruzko abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoaren bigarren xedapen gehigarriko laugarren apartatuan xedatutakoaren arabera. Zorpetzeko baliabidea gehienez 10 milioi eurokoa izango da, eta UNEDeko Zientzien Fakultatea hartuko duen eraikina eraikitze lanak prestatu eta egin ahal izateko justifikatu beharko da.

Berrogeita hamabigarren xedapen gehigarria. *Estatuaren bermea, kultura-intereseko artelanetarako.*

Bat. Kultura eta Kirol Ministerioaren eta atxikitako organismo publikoen eskumen eskusiboko erakundeetan erakusteko aldi baterako lagatako artelanei edo artelan-multzoiei dagokienez Estatuak emandako konpromisoen zenbateko oso metatua, une oro, 2.250.000 mila eurokoa izango da gehienez 2021eko ekitaldian, Espainiako Ondare Historikoari buruzko ekainaren 25eko 16/1985 Legearen bederatzigarren xedapen gehigarriaren 3.

zenbakian ezarritakoaren arabera. Gehieneko zenbateko horretatik kanpo geratuko da xedapen gehigarri honetako 2. apartatuan jasotako zenbatekoa.

Erakusketa berean jarriko diren artelanetarako edo artelan-multzoetarako 2021ean lehen aldiz emandako konpromiso espezifikoaren gehieneko muga 231.000 mila eurokoa izango da. Artelanak lagatzaileei itzuli ondoren, eta erakusketen arduradunek emandako bermea gorabeherarik gabe bukatu dela egiaztatutakoan, konprometitutako zenbatekoek utzi egingo diote konprometituta egoteari, eta beste erakusketa bati eman ahal izango zaizkio.

Salbuespen gisa, 231.000 mila eurotik gorakoa izan ahal izango da muga hori, Ministroen Kontseiluak hala erabakita, Gobernuko hiru garren presidenteorde eta Ekonomia Gaietako eta Transformazio Digitaleko ministroaren proposamenez, Kultura eta Kirol Ministerioaren ekimenez.

Artelan batean gehieneko konprometitutako zenbatekoa 100.000 mila eurokoa izango da Estatuaren Bermeak estaltzeko ondorioetarako.

Bi. Thyssen-Bornemisza Bilduma Fundazioak Espainian dituen egoitzetan erakutsi beharreko artelanei dagokien ezarritako konpromiso espezifikoaren gehieneko muga 500.000 mila eurokoa izango da 2021ean. Konpromiso horiek kontratu honen barruan emango dira: «Artelanak mailegatzeko kontratua; alde batetik, Thyssen-Bornemisza Bilduma Fundazioaren, eta, bestetik, Omicron Collections Limited, Nautilus Trustees Limited, Coraldale Navigation Incorporated, Imiberia Anstalt-en, eta Carmen Thyssen-Bornemisza baroisaren artekoa».

Hiru. 2021ean, Estatuaren Bermea aplikatzeko izango da Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak, Ondare Nazionalako Administrazio Kontseiluak eta «Sociedad Estatal de Acción Cultural SA (AC/E)» sozietateak antolatutako erakusketetan ere, Estatuako Administrazio Orokorra titularra den erakundeetan egiten badira. Orobat, Lázaro Galdiano Fundazioak bere museoaren egoitzan antolatutako erakusketei aplikatuko zaie Estatuaren Bermea.

Berrogeita hamahirugarren xedapen gehigarria. *Bermeak eratzeko baimena.*

Aurrekontuei buruzko azaroaren 26ko 47/2003 Lege Orokorraren IV. tituluko V. kapituluaren xedatutakoaren arabera, honako babesletza-gutun hauek baimentzen dira

1. Estatuako Portuak erakundeak 2015eko urriaren 13an emandako babesletza-gutuna, Madrilgo Puerto Seco partaidetzako sozietateak banku-finantzaketa (BBVA) lor dezan. Bermatutako zenbatekoa: 450.000 euro.

2. Estatuako Portuak erakundeak 2015eko abenduaren 17an emandako babesletza-gutuna,

Portuko Lurreko Irisgarritasunerako Finantza Funtsak banku-finantzaketa (Europako Inbertsio Bankua) lor dezan. Bermatutako zenbatekoa: 105.000.000 euro.

3. Bartzelonako Portuko Agintaritzak Sociedad Estatal Centro Intermodal de Logística SA sozietatearen alde emandako babesletza-gutuna, 2005eko abenduaren 18an formalizatua, 25.000.000 euroko zenbatekoa ezarrita.

4. Bartzelonako Portuko Agintaritzak Sociedad Estatal Centro Intermodal de Logística SA sozietatearen alde emandako babesletza-gutuna, 2006ko urtarrilaren 20an formalizatua, 25.000.000 euroko zenbatekoa ezarrita.

5. Bartzelonako Portuko Agintaritzak Sociedad Estatal Centro Intermodal de Logística SA sozietatearen alde emandako babesletza-gutuna, 2008ko azaroaren 7an formalizatua, 50.000.000 euroko zenbatekoa ezarrita.

Berrogeita hamalagarren xedapen gehigarria. *EPE Renfe Operadoreari eta bere enpresa-taldeko sozietateei bermeak formalizatze baimena ematea.*

Lege hau indarrean sartzetik aurrera eta indarraldi mugagabez ondoreak izanik, Gobernuari ahalmena ematen zaio, errege-dekretu bidez, Ekonomia Gaietarako Gobernuaren Ordezko Batzordeak txostena egin ondoren, RENFE-EPE operadoreari eta

zuzenean eta gehiengoz bere enpresa-taldean parte hartzen duten sozietateei bermeak formalizatzeko baimena eman diezaien, finantza-erakundeek eskatutako adostasun- edo babesletza-gutunak sinatuz, zuzeneko eta zeharkako partaidetza duten sozietateei dagokienez, baldin eta, lehendik emandakoekin batera, ekitaldi bakoitzeko abenduaren 31n gehienez 200 milioi euroko gehieneko arrisku bizia eragiten ez badute.

Berrogeita hamabosgarren xedapen gehigarria. *Espainiako ekonomia nazioartekotzearen arriskuak Estatuaren kontura estaltzea.*

Lege honen indarraldian zehar, Espainiako ekonomia nazioartekotzearen arriskuak —epe laburreko poliza irekiak salbu— Estatuaren kontura estaltzeko kontratazio berrietarako muga gehienez ere 9.000.000 mila eurokoa izango da; salbuespen izango dira dokumentu-kredituei dagozkienak, horiek Compañía Española de Seguros de Crédito a la Exportación, Sociedad Anónima (CESCE) sozietateak jaulki ahal izango baititu.

Berrogeita hamaseigarren xedapen gehigarria. *Atzerrian inbertsio espainiarra sustatzeko espainiar interesa duten funtsak zuzkitzea.*

Bat. Aurrekontu hauen indarraldian, Kanpo Inbertsioetarako Funtsaren zuzkidura urtean 100.000 mila eurokoa izango da indarreko ekitaldian. Kanpo Inbertsioetarako Funtsaren Batzorde Betearazleak gehienez ere 350.000,00 mila euroko eragiketak onartu ahal izango ditu ekitaldi horretan.

Bi. Aurrekontu hauen indarraldian Enpresa Txiki eta Ertainaren Kanpo Inbertsioetarako Eragiketen Funtsaren zuzkidura 10.000 mila eurokoa izango da indarreko ekitaldian. Enpresa Txiki eta Ertainaren Kanpo Inbertsioetarako Eragiketen Funtsaren Batzorde Betearazleak gehienez ere 35.000,00 mila euroko eragiketak onartu ahal izango ditu ekitaldi horretan.

Berrogeita hamazazpigarren xedapen gehigarria. *Industria Inbertsio Produktiboari Laguntzeko Funtsa.*

Bat. Industriako Inbertsio Produktiboa sustatzeko Funtsa (FAIP) FCPJ sortzen da. Funts horren bitartez, industriako inbertsioak egiteko finantza-laguntza emango da, baldin eta inbertsioak industriaren garapena bultzatzeko, industriaren lehiakortasuna indartzeko eta lurraldeko industria-indarrei eusteko baliogarriak badira.

Nortasun juridikorik gabeko funtsen berezko izaera juridikoa du FAIIPek, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 84., 137., 138. eta 139. artikuluetan xedatutakoaren arabera, eta industria-inbertsioari finantza-laguntza emateko eragiketak egotziko zaizkio.

FAIP funtsa Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioari atxikita egongo da, Industriaren eta Enpresa Txiki eta Ertainen Idazkaritza Nagusiaren bidez. Aurrekontuei buruzko azaroaren 26ko 47/2003 Lege Orokorrean nortasun juridikorik gabeko funtsetarako ezartzen den aurrekontu-, ekonomia-, finantza- eta kontabilitate-araubidea eta kontrol-araubidea aplikatuko zaizkio. Zuzkidura xedapen gehigarri honen bigarren apartatuan ezarritakoaren arabera egingo da.

Bi. Funtsak 600 m euroko hasierako zuzkidura izango du, eta Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioak emango ditu. Zuzkidura hori ordaindu eta Sociedad Estatal SEPI Desarrollo Empresarial SME SA (SEPIDES) erakundeari transferituko zaio.

Funtsa urtero handituko da, Estatuako Aurrekontu Orokorren Legean urte bakoitzerako eta modu metagarrian esleitzen zaizkion zuzkidurekin eta funtsari emandako kopuruek sor ditzaketen etekinetatik datozen baliabideekin. Funtsak emandako finantzaketaren itzulketetatik datozen baliabideak berriro inbertitu ahal izango ditu, bai eta hari emandako zenbatekoek sor ditzaketen etekinak ere.

Era berean, Estatuaren Aurrekontu Orokorrei buruzko hurrengo legeetan, Funtsaren Ebaluazio, Jarraipen eta Kontrol Batzordeak urte horretan onar ditzakeen eragiketen gehieneko zenbatekoa adieraziko da.

Hiru. SEPI Desarrollo Empresarial SME SA (SEPIDES) estatu-sozietateak kudeatuko du FAIIP, eta sozietate horrek kontu-emaila gisa jardungo du.

Kudeatzaileak agintzen zaion eginkizuna garatu eta gauzatu ahal izateko, funtsaren kontura ordainduko zaio, hitzarmenean ezartzen den zenbatekoan. Hitzarmenean irizpideak ezarriko dira ordainsarrietan funtsaren kudeaketaren eraginkortasuna lehenesteko.

Era berean, kudeatzaileak agintzen zaion eginkizuna garatzean eta gauzatzean egiten dituen gastuak funtsari egotziko zaizkio, hitzarmenean ezartzen den zenbatekoan.

Funtsaren kudeatzaileak egingo ditu maileguak aztertzeke, prestatzeko, negoziatzeko, formalizatzeko eta horien jarraipena egiteko jarduera nagusiak, eta industria-inbertsioari laguntzeko edozein tresna erabiliko du, funtsaren kudeaketa eraginkorrerako egokitzat jotzen badira.

Lau. MINCOTUREn kontrola, jarraipena eta parte hartzea erakunde kudeatzaileak egiten duen kudeaketan dagozkio Ebaluazio, Jarraipen eta Kontrol Batzordeari. Modu berean jokatu da emango den finantzaketa hautatzeko, emateko eta kontrolatzeko irizpideak ezartzeko, eta Industriako Idazkaritza Nagusiaren eta ETEen eta SEPIDES erakundearen artean funtsaren kudeaketan sor daitezkeen interpretazio- eta betetze-arazoak konpontzeko.

Bost. Industriako Idazkaritza Nagusiaren eta ETEen eta SEPIDES erakundearen arteko hitzarmenean funtsaren kudeaketari aplikatu behar zaizkion prozedura eta baldintzak ezarri beharko dira, baita erakunde kudeatzaileak garatu behar dituen eskubideak, betebeharrak eta zereginak ere.

Ebaluazio, Jarraipen eta Kontrol Batzordeak, hitzarmen horri dagokionez, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 49.f) artikuluan ezarritako jarraipen-, zaintza- eta kontrol-eginkizunak beteko ditu.

Sei. FAIIP Europar Batasunaren finantza-laguntzako edozein tresnaren bidez finantzatu ahal izango da.

Zazpi. Funtsaren iraupena lege hau indarrean jarri eta hogeitun urtera gauzatuko da, eta, horren amaieran, SEPIDES erakundeak likidazio-plan bat ezarriko du, Estatuko Aurrekontu Orokorren kontura jasotako zuzkidurak Altxor Publikora itzultzeko, kobraezinezko eragiketei dagokien zenbatekoa kenduta, halakorik balego, Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioak emandako kopuruek sor ditzaketen etekinak gehituta eta hitzarmenean zehaztutako kudeaketa-gastuak eta aplikatu daitezkeen beste batzuk kenduta. Likidazio plan hori Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioak onartu beharko du.

Likidazio-plan horretan ezarriko da zenbatekoak itzultzeko egutegia. Emandako finantzaketa-eragiketen itzulketa-egutegira egokituko da, eta likidazio-aldian bertan funtsak bere gain hartu beharreko kudeaketa-gastuak hartuko ditu kontuan. Edonola ere, egutegi horrek ezingo ditu 11 urte gainditu, funtsa azkentzen denetik zenbatuta.

Zortzi. Funts honek ez du nortasun juridikorik. Funtsaren erantzukizunak entitate kudeatzaileak haren kontura hartu dituenak baino ez dira izango. Era berean, Funtsaren balizko hartzekodunek ezin izango dituzte euren kredituak diru bihurtu, entitate kudeatzailearen ondarearen kontura.

Berrogeita hemezortzigarren xedapen gehigarria. *Finantza-laguntza, arrantza-enpresak finantzatzen laguntzeko.*

Bat. Arrantza-, erauzketa-, akuikultura- eta transformazio-sektoreko pertsona fisiko eta juridikoei kredituak finantzatzen laguntzeko finantzaketa-ildo bat sortu da, abalabirfidantzatzuz, kreditua eskuratzeko aukera hobek izan ditzaten.

Bi. Ildoa aplikatzeko, Nekazaritza Laguntzako Estatuko Sozietate Anonimoak, aurrerantzean SAECAK, Arrantza eta Akuikulturako Zuzendaritza Nagusiaren bidez, epe luzeko mailegu bat jasoko du 2021eko ekitaldian Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministeriotik, gehienez 10.000 mila euroko interesik gabe; 5.000 mila euro, 21.11.415B.821.01 aplikazioaren kargura; eta 5.000 mila euro, berriz, 21.50.410F.829.00 aplikazioaren kargura. Estatuko Aurrekontu Orokorren Legeak urtero finkatuko du, hala

badagokio, Estatuak artikulu honen bidez sortutako finantzaketa-ildoari egin beharreko ekarpenaren zenbatekoa.

Hiru. Maileguaren zenbatekoaren helburu bakarra arrantza- eta akuikultura-sektoreari finantza-laguntza ematea izango da, mailegu-erakundeen aurrean emandako abalak birfidantzatzuz.

Lau. Maileguak 20 urteko indarraldia izango du, eta gutxienez lehenengo 5 urteetan formalizatzen diren eragiketak babestuko ditu. Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioaren eta SAECAREN arteko lankidetzeta-hitzarmenaren bidez ezarriko dira mailegua emateko, benetan ordaintzeko eta itzultzeko baldintzak. Ildo hori aplikatzearen ondorioz sortzen diren berankortasun eta kobraezintasunek murriztu egingo dute, hitzarmenean ezarritako ehunekoetan eta baldintzetan, SAECAK indarraldiaren amaieran itzuli behar duen zenbatekoa.

Bost. Hitzarmeneko klausuletan jaso beharko dira SAECAK hirugarrenekin egiten dituen eragiketetan bete beharreko baldintzak, eta ildo horrek mailegu bakoitzerako bere gain hartzen duen arriskua ezin izango dela izan eragiketa bakoitzaren zenbatekoaren % 50 baino handiagoa, hitzarmenaren Jarraipen Batzordeak berariaz bestelakorik erabaki ezean, salbuespenezko egoeretan partaidetza-ehunekoa handitu ahal izango baita. Gainerako arriskua SAECAK hartuko du bere gain, osorik edo dagokion zatian, Espainiako Birfidantzamendu Konpainia (CERSA) birfidantzatzen bada. Azken kasu horretan, SAECAK bere gain hartu ahal duen arriskua ezin izango da izan eragiketaren zenbatekoaren % 25 baino txikiagoa.

Berrogeita hemeretzigarren xedapen gehigarria. *Oinarri teknologikoa duten enpresei finantza-laguntza ematea. Partaidetza-maileguak.*

Familien aurrezpena eta enpresa txiki eta ertainak suspertzeko presako zerga-neurriak onartzen dituen abenduaren 13ko 6/2000 Legearen bigarren xedapen gehigarriaren 2. zenbakian sortutako finantzaketa-ildorako Estatuaren ekarpenaren zenbatekoa 20.500,00 mila eurokoa izango da. Zenbateko hori 20.09.433M.821.11 aurrekontu-aplikazioaren kargura finantzatuko da.

Aurreko paragrafoan aurreikusitako kredituaz xedatzeko egin beharreko edozein egintza edo negozio juridiko onartu baino lehen, Aurrekontuen eta Gastuen Estatu Idazkaritzaren aldeko txostena beharko da; txosten horrek adieraziko du egintza edo negozio juridiko horrek beharrezko diren eskakizunak betetzen dituela, Europako egitura-funtsen bidez finantzatu ahal izateko.

Hirurogeigarren xedapen gehigarria. *Gazte ekintzaileei finantza-laguntza ematea.*

Estatuak 2011rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren abenduaren 22ko 39/2010 Legearen hogeita hirugarren xedapen gehigarrian sortutako finantzaketa-ildoari egindako ekarpena 20.500,00 mila eurokoa izango da, eta zenbateko hori 20.09.433M.821.12 aurrekontu-aplikazioaren kargura finantzatuko da.

Aurreko paragrafoan aurreikusitako kredituaz xedatzeko egin beharreko edozein egintza edo negozio juridiko onartu baino lehen, Aurrekontuen eta Gastuen Estatu Idazkaritzaren aldeko txostena beharko da; txosten horrek adieraziko du egintza edo negozio juridiko horrek beharrezko diren eskakizunak betetzen dituela, Europako egitura-funtsen bidez finantzatu ahal izateko.

Hirurogeita batgarren xedapen gehigarria. *Enpresa txiki eta ertainei finantza-laguntza ematea.*

Estatuak 2005erako Estatuaren Aurrekontu Orokorren abenduaren 27ko 2/2004 Legearen hogeita bosgarren xedapen gehigarrian sortutako finantzaketa-ildoari egindako ekarpena 57.500,00 mila eurokoa izango da, eta zenbateko hori 20.09.433M.821.10 aurrekontu-aplikazioaren kargura finantzatuko da.

Aurreko paragrafoan aurreikusitako kredituaz xedatzeko egin beharreko edozein egintza edo negozio juridiko onartu baino lehen, Aurrekontuen eta Gastuen Estatu Idazkaritzaren aldeko txostena beharko da; txosten horrek adieraziko du egintza edo negozio juridiko horrek beharrezko diren eskakizunak betetzen dituela, Europako egitura-funtsen bidez finantzatu ahal izateko.

Hirurogeita bigarren xedapen gehigarria. *Nekazaritzako elikagaien sektoreko enpresa txiki eta ertainei finantza-laguntza ematea.*

Bat. Finantzaketa-ildo bat sortu da nekazaritzako elikagaien sektoreko enpresa txiki eta ertainek sustatutako oinarri teknologikoko enpresen enpresa-proiektuak finantzatzeko. Helburua sektore horretan lehiakortasuna hobetzea eta enplegua sortzen eta iraunkortasun ekonomikoa, soziala eta ingurumenekoa indartzen laguntzea da, transformazio digitala sustatuz, Nekazaritzako Elikagaien eta Basoen Sektorea eta Landa Ingurunea Digitalizatzeko Estrategiaren helburuekin bat etorriz.

Enpresa-proiektu horiek partaidetza-maileguen bidez lagunduko dira; finantza-tresna hori ekainaren 7ko 7/1996 Errege Lege Dekretuaren 20. artikuluan dago araututa, eta abenduaren 18ko 10/1996 Legearen bigarren xedapen gehigarriak aldatu zuen.

Bi. Ildo hori aplikatzeko, Empresa Nacional de Innovación SME SA (ENISA) enpresak Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministeriotik finantzaketa-ildo horretarako ezarritako maileguak jasoko ditu. Mailegu horiek % Oko interesa izango dute, eta amortizazio-epaia gehienez ere 10 urtekoa izango da. Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioak ENISArekin egindako hitzarmen baten bidez arautuko ditu ENISAk mailegu parte-hartzaileak emateko ezarri beharko dituen baldintzak, irizpideak eta kontrol-prozedurak. ENISAk nekazaritzako elikagaien enpresa txiki eta ertainei ematen dizkien partaidetza-maileguk bederatzi urteko gehieneko amortizazio-aldia izango dute, bermerik gabe eta bi interes-tasa bereizirekin. Tarte finkoa Euriborra +% 3,75 izango da; eta tarte aldakorra % 3 eta % 8 artekoa. Tarte aldakorra enpresa txiki edo ertainaren berezko aldagai batzuek zehaztuko dute (arrisku-maila, rating-a eta enpresaren mozkinak): beraz, enpresaren mozkinak zenbat eta handiagoak izan, orduan eta handiagoa izango da aplikatu behar den interesa.

Ildo hori aplikatzeagatik sortzen diren kobraezinek murriztu egingo dute ENISAk emakida-epaiekin amaieran Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioari itzuli beharko dion maileguaren zenbatekoa. Era berean, hitzarmen horretan zehaztuko da ildo hori aplikatzearen ondorioz sor daitezkeen errendimendu aldakorren ehunekoak, eta errendimendu horiek ENISAk itzuli beharreko maileguaren balioa handituko dute.

Estatuko Aurrekontu Orokorren Legeak urtero finkatuko du, hala badagokio, Estatuak artikulatu honen bidez sortutako finantzaketa-ildoari egin beharreko ekarpenaren zenbatekoa.

Hiru. 2021eko ekitaldian, aurreko apartatuetan ezarritako ildoak honako aurrekontu-aplikazio hauen kontura finantzatuko da: 21.08.414B.821.01 aplikazioan, gehienez ere 3.000,00 mila euro; eta 21.50.410B.829.00 aplikazioan, gehienez ere 10.000,00 mila euro; eta hurrengo ekitaldietan aurrekontu-aplikazio baliokideen kontura finantzatuko dira.

Hirurogeita hirugarren xedapen gehigarria. *Ekintzaile digitalei eta gorabidean dauden enpresei finantza-laguntza ematea – Agenda Digitala 2025.*

Bat. Ekintzaile digitalek eta gorabidean dauden enpresek sustatutako enpresa-proiektuak martxan jartzen laguntzeko, finantzaketa-ildo bat sortzen da, enpresa berrien sorrera eta produktu nahiz zerbitzu berrien merkaturatzea bultzatzeko, eta, era berean, datozen urteetan potentzial handia eta etorkizun oparoa izango dituen sektore batean enplegua sortzeko. Finantza-laguntza, nagusiki, eduki teknologiko handiko enpresa-proiektu berritzaileak, emakumeek zuzenduta, garatzeko ematen da.

Enpresa-proiektu horiek partaidetza-maileguen bidez lagunduko dira; finantza-tresna hori ekainaren 7ko 7/1996 Errege Lege Dekretuaren 20. artikuluan dago araututa, eta abenduaren 18ko 10/1996 Legearen bigarren xedapen gehigarriak eta uztailaren 4ko 16/2007 Legearen hirugarren xedapen gehigarriak aldaketak egin zizkioten.

Bi. Ildo hori aplikatzeko, Empresa Nacional de Innovación SME SAK (ENISA) finantzaketa-ildo horretarako aurreikusitako maileguak jasoko ditu Ekonomia Gaietako eta Transformazio Digitaleko Ministerioaren eskutik; mailegu horiek gehienez hamar urteko amortizazio-aldia izango dute, bermearen beharrik gabe.

Ekonomia Gaietako eta Transformazio Digitaleko Ministerioak ENISArekin egindako hitzarmen baten bidez arautuko ditu ENISAK mailegu parte-hartzaileak emateko ezarri beharko dituen baldintzak, irizpideak eta kontrol-prozedurak.

Estatuko Aurrekontu Orokorren Legeak urtero finkatuko du, hala badagokio, Estatuak xedapen honen bidez sortutako finantzaketa-ildoari egin beharreko ekarpenaren zenbatekoa.

Hiru. Aurreko artikuluetan ezarritako ildoaren gehieneko zuzkidura 17.000,00 mila eurokoa izango da 2021eko ekitaldian, eta honako aurrekontu-aplikazioen kontura finantzatuko da: «ENISARI, emakume ekintzaileek gidatutako enpresa-proiektu berriak martxan jartzen laguntzeko» 27.08.4671.822. aplikazioan, 5.000,00 mila euro; eta «ENISARI, emakume ekintzaileek gidatutako enpresa-proiektu berriak martxan jartzen laguntzeko. Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa» 27.50.460C.829.00 aplikazioan 12.000,00 mila euro.

Hirurogeita laugarren xedapen gehigarria. *Administrazio Publikoen edo irabazi-asmorik gabeko erakundeen titulartasuneko osasun-erakundeek Gizarte Segurantzarekin dituzten zorrak ordaintzea.*

Administrazio publikoen edo irabazi-asmorik gabeko erakunde publiko nahiz pribatuen titulartasunaren mende dauden osasun-erakundeek, 1995erako Estatuaren Aurrekontu Orokorren abenduaren 30eko 41/1994 Legearen hogeita hamargarren xedapen gehigarrian aurreikusitako luzamenduaren babesean daudenek, hogeita zazpi urterako eskainitako gabetasuna luzatzea eskatu ahalko diote Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrari, baita gehienez hamar urterako eskainitako luzamendua –urteroko amortizazioekin– zabaltzea ere.

Aurreko paragrafoan aipatzen diren osasun erakundeak hartzekodunen lehiaketako egoeran daudela deklaritzen denean, lege honek indarra hartzen duenetik aurrera luzamendua iraungita geratuko da deklarazio horren egunetik.

Hirurogeita bosgarren xedapen gehigarria. *Etorkizuneko errenta bat edukitzeari lotuta dauden eta urriaren 14ko CIN/2940/2008 eta azaroaren 17ko EDU/3108/2009 aginduen bidez baimendutako graduondoko ikasketak egiteko diren zenbait maileguren barkatzea.*

Aurrekontuei buruzko azaroaren 26ko 47/2003 Lege Orokorraren 7.2 artikuluan xedatutakoari jarraituz, baimena ematen da ondoren aipatzen diren maileguetako amortizatu gabeko zenbatekoak barkatzeko, gaixotasun larria edo beste inguruabar bereziren bat gertatzeagatik, Unibertsitate masterreko ikasketak egiteko etorkizuneko errenta bati lotutako maileguak arautzen dituen urriaren 14ko CIN/2940/2008 Aginduaren 8.8 artikuluan eta Unibertsitate masterreko edo doktoletzako graduondoko ikasketak egiteko etorkizuneko errenta bati lotutako maileguak arautzen dituen azaroaren 17ko EDU/3108/2009 Aginduaren 8.8 artikuluan ezarritakoari jarraituz.

Urriaren 14ko CIN/2940/2008 Aginduaren arabera baimendutako maileguak:

Espediente zenbakia	Mailegu-hartzailearen NANA	Barkatutako zenbatekoa – Euroak
413	44814612D	7.865,00
496	40934837N	8.633,87
557	44030585Y	4.120,58

Espediente zenbakia	Mailegu-hartzailearen NANA	Barkatutako zenbatekoa – Euroak
936	46463357E	5.616,00
1510	44052800A	14.100,00
1988	22631712B	14.000,00
2287	53541426W	9.986,40
2567	48905693B	8.486,40
2656	44045969A	3.388,09
2676	34792898Q	7.564,48
2810	75812619L	9.792,00
3062	20166764L	13.760,00
3485	18930245A	10.578,12
5355	77586172L	4.203,20

Azaroaren 17ko EDU/3108/2009 Aginduaren arabera baimendutako maileguak

Espediente zenbakia	Mailegu-hartzailearen NANA	Barkatutako zenbatekoa – Euroak
13842	48516074N	6.580,00
14309	28604759G	7.801,10
15326	22563430Q	3.960,00
15415	74675891C	12.000,00
15720	42208473T	6.192,00
17074	73392623Z	3.174,40
17178	46765705N	7.920,00
17818	71021611A	2.541,12
19322	75767402C	2.772,00
19367	34960029Y	18.360,00
19629	38105814N	2.652,00

V

Hirurogeita seigarren xedapen gehigarria. *Lehentasuneko mezenasgo-jarduerak.*

Bat. Irabazi-asmorik gabeko entitateen zerga-araubideari eta mezenasgoaren zerga-pizgarrii buruzko abenduaren 23ko 49/2002 Legearen 22. artikuluan ezarritakoarekin bat, aurrekontu hauen indarraldian honako mezenasgo-jarduera hauek izango dute lehentasuna:

1.a Cervantes Institutuak sare telematikoen, teknologia berrien eta bestelako bitartekoen bidez espainiar hizkuntza eta kultura sustatu eta zabaltzeko egindakoak.

2.a Garapenerako Nazioarteko Lankidetzako Espainiako Agentziak pobrezia-aren aurka borrokatzeko eta garatzeko bidean dauden herrialdeetan giza garapen iraunkorra lortzeko egindakoak.

3.a Garapenerako Nazioarteko Lankidetzako Espainiako Agentziak beste herrialdeekin kultura- eta zientzia-harremanak sustatu eta garatzeko egindakoak, baita Espainiako kultura kanpoan sustatzeko egindakoak ere.

4.a Ekainaren 25eko 1027/1993 Errege Dekretuan jasota dauden hezkuntza kanpoan sustatzeko jarduerak (1027/1993 Errege Dekretua, Kanpoko Hezkuntza Jarduera arautzen duena).

5.a Pradoko Museo Nazionalak egindakoak, Pradoko Museo Nazionala arautzen duen azaroaren 25eko 46/2003 Legeak eta Pradoko Museo Nazionalaren Estatutua onesten duen martxoaren 12ko 433/2004 Errege Dekretuak ezarritako xedeak lortzeko.

6.a Reina Sofía Arte Zentroa Museo Nazionalak egindakoak, Reina Sofía Arte Zentroa Museo Nazionala arautzen duen urriaren 4ko 34/2011 Legeak eta Reina Sofía Arte Zentroa Museo Nazionalaren Estatutua onesten duen martxoaren 15eko 188/2013 Errege Dekretuak ezarritako xedeak lortzeko.

7.a Espainiako Liburutegi Nazionalak kulturaren eta zientzia-ikerketaren arloko xedeak eta eginkizunak betetzeko egindakoak; xede eta eginkizun horiek honako arau hauetan daude ezarrita: Espainiako Liburutegi Nazionala arautzen duen martxoaren 24ko 1/2015 Legean eta Espainiako Liburutegi Nazionalaren Estatutua onartzen duen abenduaren 9ko 640/2016 Errege Dekretuan.

8.a Deporte Joven Fundazioak, Kirol Kontseilu Gorenarekin elkarlanean, «Espainiak lehiatzen du: enpresan zein kirolean» proiektuaren esparruan egindakoak, Espainiako ETEen bultzada eta proiektzioa laguntzeko Estatuan zein nazioartean, kirola bultzatzeko, eta enpresaburua sustatzeko kirolaren balioei lotutako hazkunde-motor gisa.

Aurreko paragrafoan adierazitako jardueretara zuzendutako dohaintza, emate eta ekarpenek urtean 50.000 euroko muga izango dute emaile bakoitzeko; betiere, dohaintza, donazio eta ekarpen horiek, xedapen gehigarri honen Bi zenbakiari jarraituz, aipatutako 49/2002 Legearen 19., 20. eta 21. artikuluetan ezarritako kenkarien ehunekoak eta mugak ehuneko bost puntu igotzeko onura jaso dezaketenean.

9.a Lege honen XIII. eranskinean ageri diren Espainiako Ondare Historikoko ondasunak kontserbatzea, zaharberritzea edo birgaitzea.

10.a Arte eszenikoak eta musikalak sustatzeko, bultzatzeko eta zabaltzeko, Administrazio publikoek egindako edo lagundutako jarduerak.

11.a Zinematografiaren eta Ikus-entzunezko Arteen Institutuak egindako jarduerak, jarduera zinematografikoa eta ikus-entzunezkoa sustatzeko, bultzatzeko, hedatzeko eta erakusteko, bai eta ondare zinematografikoa eta ikus-entzunezkoa berreskuratzeko, zaharberritzeko, kontserbatzeko eta zabaltzeko neurri guztiak ere. Hori guztia identitateen eta kulturaren aniztasuna bultzatzeko ikuspegitik egingo da.

12.a Aparteko Azpiegitura Zientifiko eta Teknikoen (ICTS) Mapa nazionalako azpiegituretan ikertu, garatu eta berritzea; azpiegiturak lege honen XIV. eranskinean daude zerrendatuta.

13.a Zientzia eta Berrikuntza Ministerioaren proposamenari jarraituz, Ogasun Ministerioak aitortutako erakundeek Zientzia eta Teknologiararen eta Berrikuntzaren Espainiako indarreko Estrategian gizartearen erronkak konpontzeko finantzatzeko edo egindako ikerketa, garapena eta berrikuntza.

14.a Zientzia eta Teknologiarako Espainiako Fundazioak zientziaren eta berrikuntzaren kultura zabaltzeko, komunikatu eta sustatzeko egindakoak.

15.a Estatu Administrazio Orokorren I+G politiketatik heldutako jarduketak sustatu eta finantzatzeko Ikerketarako Estatu Agentziak egindakoak.

16.a Osasun Ekintza Estrategikoaren Biomedikuntza eta Osasun Zientzietako ikerketa, garapena eta berrikuntza (I+G+b), CÍBER eta CIBERNED erakundeen eskutik.

17.a Administrazio publikoek boluntarioei prestakuntza eta sustapena emateko diruz lagundutako programak.

18.a Fundación ONCE del Perro Guía fundazioak egindako jarduerak, «Avances para la movilidad de las personas ciegas asistidas por perros guía/Itsuen mugikortasuna itsu-txakurren bidez sustatzeko aurrerapenak» 2021-2022 proiektuaren esparruan.

19.a ONCE fundazioak «Talentuari aukerak ematea/Oportunidad al Talento» beka-programen esparruan egindako jarduerak, baita erakunde horrek Arte Garaikidearen Biurtekoaren esparruan, «Cambio de Sentido» kultura-espazioan eta «El Mundo Fluye» erakusketa ibiltarian gauzatutako kultura-jarduerak ere.

20.a ONCE fundazioak «World Blindness Summit Madrid 2021» antolaketaren esparruan egiten dituen jarduerak. Gailur hori 2021eko maiatzaren 21etik 26ra egingo da.

21.a Genero-indarkeria errotik kentzeko, Administrazio publikoek diruz lagundutako edo elkarlanean egindako programak.

22.a Genero-indarkeriaren umezurtzentzako Soledad Cazorla Beketarako Funtsak (Mujeres Fundazioa) aurrera eramandakoak.

23.a Generoaren ziozko diskriminazioa desagerrarazteko eta bi sexuen arteko berdintasun erreala eta eraginkorra ahalbidetuko duten baldintzak lortzeko programak, baita emakumeek politika-, ekonomia-, kultura- eta gizarte-bizitzaren esparru guztietan parte har dezaten sustatzeko programak ere, baldin eta administrazio publikoek diruz lagundu badituzte edo administrazio horiekin lankidetzan egiten badira.

Bi. Abenduaren 23ko 49/2002 lege horrek 19., 20. eta 21. artikuluetan ezartzen dituen kenkarien ehunekoak eta mugak ehuneko bost puntu igoko dira aurreko apartatuan jasotako jardueri dagokienez.

Hirurogeita zazpigarren xedapen gehigarria. *«Iberoamerikako Errepubliken Independentziaren Berrehungarren Urteurren»etan aplika daitezkeen zerga-onurak.*

Bat. «Iberoamerikako Errepubliken Independentziaren Berrehungarren Urteurren»en ospakizunak aparteko interes publikoa duen gertakarizat hartuko da irabazi-asmorik gabeko erakundeen zerga-araubideari eta mezenasgoaren zerga-pizgarriei buruzko abenduaren 23ko 49/2002 Legearen 27. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako.

Bi. Gertaera horri laguntzeko programak lege hau indarrean jartzen denetik 2023ko abenduaren 31 arte iraungo du.

Hiru. Egindako gastuak programaren helburuekin eta planekin bat etortzea ziurtatzeko, 49/2002 Legean xedatutakoari jarraituko zaio.

Lau. Gertakaria behar bezala garatzea ziurtatzen duten jarduketak gauzatu beharko dira. Organo eskuduna arduratuko da planak eta jarduera espezifikoak plan eta programetan garatzeaz eta zehazteaz, aipatu 49/2002 Legean ezarritakoari jarraituz.

Bost. Programa honen zerga-onurak aipatutako 49/2002 Legearen 27.3 artikuluan xedatutako gehienekoak izango dira.

Hirurogeita zortzigarren xedapen gehigarria. *«La Academia de España en Roma sortzearen 150. urteurren»ean aplika daitezkeen zerga-onurak.*

Bat. «La Academia de España en Roma sortzearen 150. urteurren»ren ospakizuna aparteko interes publikoa duen gertakarizat hartuko da irabazi-asmorik gabeko erakundeen zerga-araubideari eta mezenasgorako pizgarri fiskalei buruzko Legearen (abenduaren 23ko 49/2002) 27. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako.

Bi. Gertaera horri laguntzeko programak lege hau indarrean jartzen denetik 2023ko abenduaren 31 arte iraungo du.

Hiru. Egindako gastuak programaren helburuekin eta planekin bat etortzea ziurtatzeko, 49/2002 Legean xedatutakoari jarraituko zaio.

Lau. Gertakaria behar bezala garatzea ziurtatzen duten jarduketak gauzatu beharko dira. Organo eskuduna arduratuko da planak eta jarduera espezifikoak plan eta programetan garatzeaz eta zehazteaz, aipatu 49/2002 Legean ezarritakoari jarraituz.

Bost. Programa honen zerga-onurak aipatutako 49/2002 Legearen 27.3 artikuluan xedatutako gehienekoak izango dira.

Hirurogeita bederatzigarren xedapen gehigarria. *«APM Madrilgo Prensa Elkartearen 125. urteurren»ean aplikatzen daitezkeen zerga-onurak.*

Bat. «APM Madrilgo Prensa Elkartearen 125. urteurren»aren ospakizuna aparteko interes publikoa duen gertakaritzat hartuko da irabazi-asmorik gabeko erakundeen zerga-araubideari eta mezenasgoaren zerga-pizgarriei buruzko abenduaren 23ko 49/2002 Legearen 27. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako.

Bi. Laguntza-programak lege hau indarrean jartzen denetik 2021eko abenduaren 31 arte iraungo du.».

Hiru. Egindako gastuak programaren helburuekin eta planekin bat datozela egiaztatzeko, aipatutako 49/2002 Legean xedatutakoari jarraituko zaio.

Lau. Gertakaria behar bezala garatzea ziurtatzen duten jarduketak gauzatu beharko dira. Organo eskuduna arduratuko da jarduketa espezifikokoak plan eta programetan garatzeaz eta zehazteaz, 49/2002 Legean xedatutakoari jarraituz.

Bost. Programa honen zerga-onurak 49/2002 Legearen 27.3 artikuluan xedatutako gehienekoak izango dira.

Hirurogeita hamargarren xedapen gehigarria. *Summit «MADBLUE» antolaketan aplikatzen daitezkeen zerga-onurak.*

Bat. «MADBLUE» proiektua aparteko interes publikoa duen gertakaritzat hartuko da irabazi-asmorik gabeko erakundeen zerga-araubideari eta mezenasgorako pizgarri fiskalei buruzko Legearen (abenduaren 23ko 49/2002) 27. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako.

Bi. Gertaera horri laguntzeko programak lege hau indarrean jartzen denetik 2023ko abenduaren 31 arte iraungo du.

Hiru. Egindako gastuak programaren helburuekin eta planekin bat datozela egiaztatzeko, aipatutako abenduaren 23ko 49/2002 Legeak xedatzen duena egingo da.

Lau. Gertakaria behar bezala garatzea ziurtatzen duten jarduketak gauzatu beharko dira. Organo eskuduna arduratuko da planak eta jarduera zehatzen programak garatzeaz eta gauzatzeaz, aipatutako abenduaren 23ko 49/2002 Legeak ezarritakoari jarraituz.

Bost. Programa horren zerga-onurak abenduaren 23ko 49/2002 Legearen 27.3 artikuluan ezartzen diren gehienekoak izango dira.

Hirurogeita hamaikagarren xedapen gehigarria. *«Reina Sofia Goi Mailako Musika Eskolaren 30. Urteurrena» ospatzeko ekitaldian aplikatzen daitezkeen zerga-onurak.*

Bat. «Reina Sofia Goi Mailako Musika Eskolaren 30. Urteurrena» deritzon ospakizun-ekitaldia aparteko interes publikoko gertakaritzat hartuko da, irabazi-asmorik gabeko erakundeen zerga-araubideari eta mezenasgoaren zerga-pizgarriei buruzko abenduaren 23ko 49/2002 Legearen 27. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako.

Bi. Gertaera horri laguntzeko programak lege hau indarrean jartzen denetik 2023ko abenduaren 31 arte iraungo du.

Hiru. Egindako gastuak programaren helburuekin eta planekin bat etortzea ziurtatzeko, 49/2002 Legean xedatutakoari jarraituko zaio.

Lau. Gertakaria behar bezala garatzea ziurtatzen duten jarduketak gauzatu beharko dira. Organo eskuduna arduratuko da planak eta jarduera espezifikoen programak garatzeaz eta gauzatzeaz, aipatu 49/2002 Legean ezarritakoaren arabera.

Bost. Programa honen zerga-onurak 49/2002 Legearen 27.3 artikuluan xedatutako gehienekoak izango dira.

Hirurogeita hamabigarren xedapen gehigarria. *«Guadalupeko Jubileu Urtea 2021» ekitaldiari aplikatu ahal zaizkion zerga-onurak.*

Bat. «Guadalupeko Jubileu Urtea 2021» ospakizuna aparteko interes publikoa duen gertakaritzat hartuko da irabazi-asmorik gabeko erakundeen zerga-araubideari eta

mezenasgoaren zerga-pizgarriei buruzko abenduaren 23ko 49/2002 Legearen 27. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako.

Bi. Gertaera horri laguntzeko programak lege hau indarrean jartzen denetik 2022ko abenduaren 31 arte iraungo du.

Hiru. Egindako gastuak programaren helburuekin eta planekin bat etortzea ziurtatzeko, 49/2002 Legean xedatutakoari jarraituko zaio.

Lau. Gertakaria behar bezala garatzea ziurtatzen duten jarduketak gauzatu beharko dira. Organo eskuduna arduratuko da planak eta jarduera espezifikoen programak garatzeaz eta gauzatzeaz, aipatu 49/2002 Legean ezarritakoaren arabera.

Bost. Programa honen zerga-onurak 49/2002 Legearen 27.3 artikuluan xedatutako gehienekoak izango dira.

Hirurogeita hamahirugarren xedapen gehigarria. *«Andalucía Valderrama Masters 2022/2024» programan aplikatu daitezkeen zerga-onurak.*

Bat. «Andalucía Valderrama Masters 2022/2024» ekitaldia aparteko interes publikoa duen gertakari hartuko da irabazi-asmorik gabeko erakundeen zerga-araubideari eta mezenasgoaren zerga-pizgarriei buruzko abenduaren 23ko 49/2002 Legearen 27. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako.

Bi. Gertaera horri laguntzeko programak 2022ko urtarrilaren 1etik 2024ko abenduaren 31 arte iraungo du.

Hiru. Egindako gastuak programaren helburuekin eta planekin bat datozela egiaztatuz, aipatutako 49/2002 Legean xedatutakoari jarraituko zaio.

Lau. Gertakaria behar bezala garatzea ziurtatzen duten jarduketak gauzatu beharko dira. Organo eskuduna arduratuko da planak eta jarduera espezifikoen programak garatzeaz eta gauzatzeaz, aipatu 49/2002 Legean ezarritakoaren arabera.

Bost. Programa honen zerga-onurak 49/2002 Legearen 27.3 artikuluan xedatutako gehienekoak izango dira.

Hirurogeita hamalagarren xedapen gehigarria. *«Torneo Davis Cup Madrid» txapelketan aplikatu daitezkeen zerga-onurak.*

Bat. «Torneo Davis Cup Madrid» txapelketa interes publiko handiko ekitalditzat hartuko da abenduaren 23ko 49/2002 Legeak, irabazi asmorik gabeko erakundeen zerga-araubideari eta mezenasgoaren zerga-pizgarriei buruzkoak, 27. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako.

Bi. Laguntza-programak lege hau indarrean jartzen denetik 2021eko abenduaren 31 arte iraungo du.

Hiru. Egindako gastuak programaren helburuekin eta planekin bat datozela egiaztatuz, aipatutako 49/2002 Legean xedatutakoari jarraituko zaio.

Lau. Gertakaria behar bezala garatzea ziurtatzen duten jarduketak gauzatu beharko dira. Organo eskuduna arduratuko da jarduketa espezifikoak plan eta programetan garatzeaz eta zehazteaz, 49/2002 Legean xedatutakoari jarraituz.

Bost. Programa honen zerga-onurak 49/2002 Legearen 27.3 artikuluan xedatutako gehienekoak izango dira.

Hirurogeita hamabosgarren xedapen gehigarria. *«MADRID HORSE WEEK 21/23» izeneko ekitaldian aplikatu daitezkeen zerga-onurak.*

Bat. «Madrid Horse Week 21/23» izeneko ekitaldia interes publiko handiko ekitalditzat hartuko da abenduaren 23ko 49/2002 Legearen, irabazi asmorik gabeko erakundeen zerga-araubideari eta mezenasgoaren zerga-pizgarriei buruzkoaren, 27. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako.

Bi. Gertaera horri laguntzeko programak lege hau indarrean jartzen denetik 2023ko abenduaren 31 arte iraungo du.

Hiru. Egindako gastuak programaren helburuekin eta planekin bat datozela egiaztatzeko, aipatutako 49/2002 Legean xedatutakoari jarraituko zaio.

Lau. Gertakaria behar bezala garatzea ziurtatzen duten jarduketak gauzatu beharko dira. Organo eskuduna arduratuko da planak eta jarduera espezifikoen programak garatzeaz eta gauzatzeaz, aipatu 49/2002 Legean ezarritakoaren arabera.

Bost. Programa honen zerga-onurak 49/2002 Legearen 27.3 artikuluan xedatutako gehienekoak izango dira.

Hirurogeita hamaseigarren xedapen gehigarria. *«Espainiako Errugbiaren eta Unio Esportiva Santboiana klubaren mendeurrena»ren ospakizunean aplikatzea zerga-onurak.*

Bat. «Espainiako Errugbiaren eta Unio Esportiva Santboiana klubaren mendeurrena» ospatzea aparteko interes publikoa duen gertakaritzat hartuko da irabazi-asmorik gabeko entitateen zerga-araubideari eta mezenasgoaren zerga-pizgarriei buruzko abenduaren 23ko 49/2002 Legearen 27. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako.

Bi. Gertaera horri laguntzeko programak lege hau indarrean jartzen denetik 2023ko abenduaren 31 arte iraungo du.

Hiru. Egindako gastuak programaren helburuekin eta planekin bat datozela egiaztatzeko, aipatutako 49/2002 Legean xedatutakoari jarraituko zaio.

Lau. Gertakaria behar bezala garatzea ziurtatzen duten jarduketak gauzatu beharko dira. Organo eskuduna arduratuko da planak eta jarduera espezifikoen programak garatzeaz eta gauzatzeaz, aipatu 49/2002 Legean ezarritakoaren arabera.

Bost. Programa honen zerga-onurak 49/2002 Legearen 27.3 artikuluan xedatutako gehienekoak izango dira.

Hirurogeita hamazazpigarren xedapen gehigarria. *«Solheim Cup 2023» ekitaldian aplikatzea zerga-onurak.*

Bat. «Solheim Cup 2023» ekitaldia aparteko interes publikoko gertakaritzat hartuko da, irabazi asmorik gabeko erakundeen zerga-araubideari eta mezenasgoaren zerga-pizgarriei buruzko abenduaren 23ko 49/2002 Legearen 27. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako.

Bi. Laguntza-programak lege hau indarrean jartzen denetik 2023ko abenduaren 31 arte iraungo du.

Hiru. Egindako gastuak programaren helburuekin eta planekin bat datozela egiaztatzeko, aipatutako 49/2002 Legean xedatutakoari jarraituko zaio.

Lau. Gertakaria behar bezala garatzea ziurtatzen duten jarduketak gauzatu beharko dira. Organo eskuduna arduratuko da jarduketa espezifikoak plan eta programetan garatzeaz eta zehazteaz, 49/2002 Legean xedatutakoari jarraituz.

Bost. Programa honen zerga-onurak 49/2002 Legearen 27.3 artikuluan xedatutako gehienekoak izango dira.

Hirurogeita hemezortzigarren xedapen gehigarria. *«Sigüenzako Errekonkistaren IX. mendeurrena»ren ospakizunean aplikatzea zerga-onurak.*

Bat. «Sigüenzako Errekonkistaren IX. mendeurrena»ren ospakizuna aparteko interes publikoa duen gertakaritzat hartuko da irabazi-asmorik gabeko erakundeen zerga-araubideari eta mezenasgoaren zerga-pizgarriei buruzko abenduaren 23ko 49/2002 Legearen 27. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako.

Bi. Gertaera horri laguntzeko programak 2021eko uztailaren 1etik 2024ko ekainaren 30 arte iraungo du.

Hiru. Egindako gastuak programaren helburuekin eta planekin bat etortzea ziurtatzeko, 49/2002 Legean xedatutakoari jarraituko zaio.

Lau. Gertakaria behar bezala garatzea ziurtatzen duten jarduketak gauzatu beharko dira. Organo eskuduna, zehazki, Fundación Impulsa CLM fundazioa, arduratuko da planak

eta jarduera zehatzen programak garatzeaz eta gauzatzeaz, aipatutako 49/2002 Legeak ezarritakoari jarraikiz.

Bost. Programa honen zerga-onurak 49/2002 Legearen 27.3 artikuluan xedatutako gehienekoak izango dira.

Hirurogeita hemeretzigarren xedapen gehigarria. *«Barcelona Mobile World Capital» programari aplikatzeko zerga-onurak.*

Bat. «Barcelona Mobile World Capital» programa interes publiko handiko ekitalditzat hartuko da abenduaren 23ko 49/2002 Legeak, irabazi asmorik gabeko erakundeen zerga-araubideari eta mezenasgoaren zerga-pizgarriei buruzkoak, 27. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako.

Bi. Laguntza-programak lege hau indarrean jartzen denetik 2023ko abenduaren 31 arte iraungo du.

Hiru. Egindako gastuak programaren helburuekin eta planekin bat datozela egiaztatzeko, aipatutako abenduaren 23ko 49/2002 Legeak xedatzen duena egingo da.

Lau. Gertakaria behar bezala garatzea ziurtatzen duten jarduketak gauzatu beharko dira. Organo eskudunak edukiko du planak eta jarduera zehatzen programak prestatzeko eta gauzatzeko ardura, abenduaren 23ko 49/2002 Legean ezartzen denari jarraikiz.

Bost. Programa honen zerga-onurak abenduaren 23ko 49/2002 Legearen 27.3 artikuluan ezartzen diren gehienekoak izango dira.

Laurogeigarren xedapen gehigarria. *«Valentzia, Diseinuaren Munduko Hiriburua 2022 / Valencia World Design Capital 2022» ekitaldian aplika daitezkeen zerga-onurak.*

Bat. «Valentzia, Diseinuaren Munduko Hiriburua 2022 / Valencia World Design Capital 2022» ekitaldia aparteko interes publikoa duen gertakaritzat hartuko da, irabazi-asmorik gabeko erakundeen zerga-araubideari eta mezenasgoaren zerga-pizgarriei buruzko abenduaren 23ko 49/2002 Legearen 27. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako.

Bi. Gertaera horri laguntzeko programak lege hau indarrean jartzen denetik 2023ko abuztuaren 31 arte iraungo du.

Hiru. Egindako gastuak programaren helburuekin eta planekin bat datozela egiaztatzeko, aipatutako abenduaren 23ko 49/2002 Legeak xedatzen duena egingo da.

Lau. Gertakaria behar bezala garatzea ziurtatzen duten jarduketak gauzatu beharko dira. Organo eskudunak edukiko du planak eta jarduera zehatzen programak prestatzeko eta gauzatzeko ardura, abenduaren 23ko 49/2002 Legean ezartzen denaren arabera.

Bost. Programa horren zerga-onurak abenduaren 23ko 49/2002 Legearen 27.3 artikuluan ezartzen diren gehienekoak izango dira.

Laurogeita batgarren xedapen gehigarria. *«Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionalaren (UNEDen) berrogeita hamargarren urteurrena»ren ospakizunean aplika daitezkeen zerga-onurak.*

Bat. «Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionalaren (UNEDen) berrogeita hamargarren urteurrena» ospatzeko programa interes publiko handiko ekitalditzat hartuko da abenduaren 23ko 49/2002 Legeak, irabazi asmorik gabeko erakundeen zerga-araubideari eta mezenasgoaren zerga-pizgarriei buruzkoak, 27. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako.

Bi. Laguntza-programak lege hau indarrean jartzen denetik 2022ko abenduaren 31 arte iraungo du.

Hiru. Egindako gastuak programaren helburuekin eta planekin bat datozela egiaztatzeko, aipatutako 49/2002 Legean xedatutakoari jarraituko zaio.

Lau. Gertakaria behar bezala garatzea ziurtatzen duten jarduketak gauzatu beharko dira. Organo eskuduna arduratuko da jarduketa espezifikokoak plan eta programetan garatzeaz eta zehazteaz, 49/2002 Legean xedatutakoari jarraituz.

Bost. Programa honen zerga-onurak 49/2002 Legearen 27.3 artikuluan xedatutako gehienekoak izango dira.

Laurogeita bigarren xedapen gehigarria. *«Occidente aldizkariaren mendeurrena» ospatzeko ekitaldietan aplikatu daitezkeen zerga-onurak.*

Bat. «Occidente aldizkariaren mendeurrena»ren ospakizuna aparteko interes publikoa duen gertakiritzat hartuko da irabazi-asmorik gabeko erakundeen zerga-araubideari eta mezenasgoaren zerga-pizgarriei buruzko abenduaren 23ko 49/2002 Legearen 27. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako.

Bi. Gertakari horri laguntzeko programak lege hau indarrean jartzen denetik 2023ko abenduaren 31 arte iraungo du.

Hiru. Egindako gastuak programaren helburuekin eta planekin bat etortzea egiaztatzeko, aipatutako 49/2002 Legean xedatutakoari jarraituko zaio.

Lau. Gertakaria behar bezala garatzea ziurtatzen duten jarduketak gauzatu beharko dira. Organo eskuduna arduratuko da planak eta jarduera espezifikoen programak garatzeaz eta gauzatzeaz, aipatu 49/2002 Legean ezarritakoaren arabera.

Bost. Programa honen zerga-onurak aipatutako 49/2002 Legearen 27.3 artikuluan xedatutako gehienekoak izango dira.

Laurogeita hirugarren xedapen gehigarria. *«Clara Campoamor-en heriotzaren 50. urteurrena. 90 urte, demokrazia osoaren hasieratik» ospakizunari aplikatzeko zerga-onurak.*

Bat. «Clara Campoamor-en heriotzaren 50. urteurrena. 90 urte, demokrazia osoaren hasieratik» izeneko ospakizuna interes publiko handiko ekitalditzat hartuko da abenduaren 23ko 49/2002 Legearen, irabazi asmorik gabeko erakundeen zerga-araubideari eta mezenasgoaren zerga-pizgarriei buruzkoaren, 27. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako.

Bi. Laguntzeko programak 2021eko martxoaren 1etik 2024ko otsailaren 29a arte iraungo du.

Hiru. Egindako gastuak programaren helburuekin eta planekin bat etortzea ziurtatzeko, 49/2002 Legean xedatutakoari jarraituko zaio.

Lau. Gertakaria behar bezala garatzea ziurtatzen duten jarduketak gauzatu beharko dira. Organo eskuduna arduratuko da jarduketa espezifikoak plan eta programetan garatu eta zehazteaz, aipatutako 49/2002 Legean xedatutakoari jarraikiz.

Bost. Programa honen zerga-onurak 49/2002 Legearen 27.3 artikuluan ezarritako gehienekoak izango dira.

Laurogeita laugarren xedapen gehigarria. *«Elio Antonio de Nebrija-ren heriotzaren V. mendeurrena» ospatzeko ekitaldian aplikatu daitezkeen zerga-onurak.*

Bat. «Elio Antonio de Nebrija-ren heriotzaren V. mendeurrena»ren ospakizuna aparteko interes publikoa duen gertakiritzat hartuko da irabazi-asmorik gabeko erakundeen zerga-araubideari eta mezenasgoaren zerga-pizgarriei buruzko abenduaren 23ko 49/2002 Legearen 27. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako.

Bi. Gertakari horri laguntzeko programak lege hau indarrean jartzen denetik 2023ko abenduaren 30era arte iraungo du.

Hiru. Egindako gastuak programaren helburuekin eta planekin bat etortzea ziurtatzeko, 49/2002 Legean xedatutakoari jarraituko zaio.

Lau. Gertakaria behar bezala garatzea ziurtatzen duten jarduketak gauzatu beharko dira. Organo eskuduna arduratuko da berariazko jarduerak plan eta programetan garatu eta zehazteaz, aipatutako 49/2002 Legean xedatutakoari jarraiki.

Bost. Programa honen zerga-onurak 49/2002 Legearen 27.3 artikuluan ezarritako gehienekoak izango dira.

Laurogeita bosgarren xedapen gehigarria. *«Nuevas Metas II» programari aplikatu ahal zaizkion zerga-onurak.*

Bat. «Nuevas Metas II» programa interes publiko handiko ekitalditzat hartuko da abenduaren 23ko 49/2002 Legeak, irabazi asmorik gabeko erakundeen zerga-araubideari eta mezenasgoaren zerga-pizgarriei buruzkoak, 27. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako.

Bi. Gertakari horri laguntzeko programak 2021eko uztailaren 1etik 2024ko ekainaren 30a arte iraungo du.

Hiru. Egindako gastuak programaren helburuekin eta planekin bat datozela egiaztatzeko, aipatutako 49/2002 Legean xedatutakoari jarraituko zaio.

Lau. Gertakaria behar bezala garatzea ziurtatzen duten jarduketak gauzatu beharko dira. Organo eskuduna arduratuko da planak eta jarduera espezifikoen programak garatzeaz eta gauzatzeaz, aipatu 49/2002 Legean ezarritakoaren arabera.

Bost. Programa honen zerga-onurak 49/2002 Legearen 27.3 artikuluan ezarritako gehienekoak izango dira.

Laurogeita seigarren xedapen gehigarria. *«CSIC-MNCN Natur Zientzien Museo Nazionalaren 250. urteurren»aren ospakizunean aplikatu daitezkeen zerga-onurak.*

Bat. «CSIC-MNCN Natur Zientzien Museo Nazionalaren 250. urteurren»aren ospakizuna aparteko interes publikoko gertakaritzat hartuko da, irabazi-asmorik gabeko erakundeen zerga-araubideari eta mezenasgoaren zerga-pizgarriei buruzko abenduaren 23ko 49/2002 Legeak 27. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako.

Bi. Gertakari horri laguntzeko programak lege hau indarrean jartzen denetik 2021eko abenduaren 31 arte iraungo du.

Hiru. Egindako gastuak programaren helburuekin eta planekin bat datozela egiaztatzeko, aipatutako 49/2002 Legean xedatutakoari jarraituko zaio.

Lau. Gertakaria behar bezala garatzea ziurtatzen duten jarduketak gauzatu beharko dira. Organo eskuduna arduratuko da jarduketa espezifikoak plan eta programetan garatu eta zehazteaz, aipatutako 49/2002 Legean xedatutakoari jarraikiz.

Bost. Programa honen zerga-onurak 49/2002 Legearen 27.3 artikuluan ezarritako gehienekoak izango dira.

Laurogeita zazpigarren xedapen gehigarria. *«Andaluzia Kirolaren Europako Eskualdea 2021» programan aplikatu daitezkeen zerga-onurak.*

Bat. «Andaluzia Kirolaren Europako Eskualdea 2021» programa aparteko interes publikoa duen gertakaritzat hartuko da irabazi-asmorik gabeko entitateen zerga-araubideari eta mezenasgoaren zerga-pizgarriei buruzko abenduaren 23ko 49/2002 Legearen 27. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako.

Bi. Gertakari horri laguntzeko programak lege hau indarrean jartzen denetik 2023ko abenduaren 31 arte iraungo du.

Hiru. Egindako gastuak programaren helburuekin eta planekin bat datozela egiaztatzeko, aipatutako 49/2002 Legean xedatutakoari jarraituko zaio.

Lau. Gertakaria behar bezala garatzea ziurtatzen duten jarduketak gauzatu beharko dira. Organo eskuduna arduratuko da planak eta jarduera espezifikoen programak garatzeaz eta gauzatzeaz, aipatu 49/2002 Legean ezarritakoaren arabera.

Bost. Programa horren zerga-onurak 49/2002 Legearen 27.3 artikuluan xedatutako gehienekoak izango dira.»

Laurogeita zortzigarren xedapen gehigarria. *«Operaren 75. urteurren Oviedon» ospakizunean aplikatu daitezkeen zerga-onurak.*

Bat. «Operaren 75. urteurren Oviedon» programa interes publiko handiko ekitalditzat hartuko da abenduaren 23ko 49/2002 Legeak, irabazi asmorik gabeko erakundeen zerga-

araubideari eta mezenasgoaren zerga-pizgarriei buruzkoak, 27. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako.

Bi. Gertakari horri laguntzeko programak 2021eko uztailaren 1etik 2023ko abenduaren 31 arte iraungo du.

Hiru. Egindako gastuak programaren helburuekin eta planekin bat datozela egiaztatzeko, aipatutako 49/2002 Legean xedatutakoari jarraituko zaio.

Lau. Gertakaria behar bezala garatzea ziurtatzen duten jarduketak gauzatu beharko dira. Organo eskuduna arduratuko da planak eta jarduera espezifikoek programak garatzeaz eta gauzatzeaz, aipatu 49/2002 Legean ezarritakoaren arabera.

Bost. Programa horren zerga-onurak 49/2002 Legearen 27.3 artikuluan xedatutako gehienekoak izango dira.»

Laurogeita bederatzigarren xedapen gehigarria. «*Arrisku Kardiobaskularra kontrolatzeko ohitura osasungarriak. Geure burua zaintzen ikastea/Hábitos Saludables para el control del riesgo Cardiovascular Aprender a cuidarnos*» proiektuan aplikatu daitezkeen zerga-onurak.

Bat. «Arrisku Kardiobaskularra kontrolatzeko ohitura osasungarriak. Geure burua zaintzen ikastea» programa aparteko interes publikoko gertakaritzat hartuko da irabazi asmorik gabeko erakundeek zerga-araubideari eta mezenasgoaren zerga-pizgarriei buruzko abenduaren 23ko 49/2002 Legeak 27. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako.

Bi. Gertakari horri laguntzeko programak lege hau indarrean jartzen denetik 2023ko abenduaren 31 arte iraungo du.

Hiru. Egindako gastuak programaren helburuekin eta planekin bat datozela egiaztatzeko, aipatutako abenduaren 23ko 49/2002 Legeak xedatzen duena egingo da.

Lau. Gertakaria behar bezala garatzea ziurtatzen duten jarduketak gauzatu beharko dira. Organo eskudunak edukiko du planak eta jarduera zehatzen programak prestatzeko eta gauzatzeko ardura, abenduaren 23ko 49/2002 Legearen 27.2 artikuluan ezartzen denaren arabera.

Bost. Programa honen zerga-onurak abenduaren 23ko 49/2002 Legearen 27.3 artikuluan ezartzen diren gehienekoak izango dira.

Laurogeita hamargarren xedapen gehigarria. «*Badminton Espainiako Mundu Txapelketak*» ekitaldian aplikatu daitezkeen zerga-onurak.

Bat. «Badminton Espainiako Mundu Txapelketak» ekitaldia aparteko interes publikoa duen gertakaritzat hartuko da irabazi-asmorik gabeko erakundeek zerga-araubideari eta mezenasgoaren zerga-pizgarriei buruzko abenduaren 23ko 49/2002 Legearen 27. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako.

Bi. Laguntzeko programak 2021eko ekainaren 1etik 2023ko abenduaren 31 arte iraungo du.

Hiru. Egindako gastuak programaren helburuekin eta planekin bat datozela egiaztatzeko, aipatutako 49/2002 Legean xedatutakoari jarraituko zaio.

Lau. Gertakaria behar bezala garatzea ziurtatzen duten jarduketak gauzatu beharko dira. Organo eskuduna arduratuko da planak eta jarduera espezifikoek programak garatzeaz eta gauzatzeaz, aipatu 49/2002 Legean ezarritakoaren arabera.

Bost. Programa honen zerga-onurak 49/2002 Legearen 27.3 artikuluan ezarritako gehienekoak izango dira.

Laurogeita hamaikagarren xedapen gehigarria. «*Covadonga-Kuadongako guduaren mendeurrena*» ospatzeko ekitaldietan aplikatu daitezkeen zerga-onurak.

Bat. «Covadonga-Kuadongako guduaren mendeurrena» programa interes publiko handiko ekitalditzat hartuko da abenduaren 23ko 49/2002 Legeak, irabazi asmorik gabeko erakundeek zerga-araubideari eta mezenasgoaren zerga-pizgarriei buruzkoak, 27. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako.

Bi. Gertakari horri laguntzeko programak lege hau indarrean jartzen denetik 2023ko abenduaren 31 arte iraungo du.

Hiru. Egindako gastuak programaren helburuekin eta planekin bat datozela egiaztatzeko, aipatutako 49/2002 Legean xedatutakoari jarraituko zaio.

Lau. Gertakaria behar bezala garatzea ziurtatzen duten jarduketak gauzatu beharko dira. Organo eskuduna arduratuko da planak eta jarduera espezifikoen programak garatzeaz eta gauzatzeaz, aipatu 49/2002 Legean ezarritakoaren arabera.

Bost. Programa honen zerga-onurak 49/2002 Legearen 27.3 artikuluan ezarritako gehienekoak izango dira.

Laurogeita hamabigarren xedapen gehigarria. «*Burgosko Katedralaren VII. mendeurrena 2021-2022*» programan aplikatu daitezkeen zerga-onurak.

Bat. «Burgosko Katedralaren VII. mendeurrena 2021-2022» programa interes publiko handiko ekitalditzat hartuko da abenduaren 23ko 49/2002 Legeak, irabazi asmorik gabeko erakundeen zerga-araubideari eta mezenasgoaren zerga-pizgarriei buruzkoak, 27. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako.

Bi. Laguntzeko programak lege hau indarrean jartzen denetik 2023ko abenduaren 31 arte iraungo du.

Hiru. Egindako gastuak programaren helburuekin eta planekin bat datozela egiaztatzeko, aipatutako 49/2002 Legean xedatutakoari jarraituko zaio.

Lau. Gertakaria behar bezala garatzea ziurtatzen duten jarduketak gauzatu beharko dira. Organo eskuduna arduratuko da jarduketa espezifikoak plan eta programetan garatu eta zehazteaz, aipatutako 49/2002 Legean xedatutakoari jarraituz.

Bost. Programa honen zerga-onurak 49/2002 Legearen 27.3 artikuluan ezarritako gehienekoak izango dira.

Laurogeita hamahirugarren xedapen gehigarria. «*FITUR berezia: turismoaren susperraldia*» deritzon ekimenean aplikatu daitezkeen zerga-onurak.

Bat. «FITUR berezia: turismoaren susperraldia» deritzon ekimena aparteko interes publikoa duen gertakaritzat hartuko da irabazi-asmorik gabeko erakundeen zerga-araubideari eta mezenasgoaren zerga-pizgarriei buruzko abenduaren 23ko 49/2002 Legearen 27. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako.

Bi. Ekitaldi horri laguntzeko programak lege hau indarrean jartzen denetik 2023ko abenduaren 31 arte iraungo du.

Hiru. Egindako gastuak programaren helburuekin eta planekin bat etortzea ziurtatzeko, 49/2002 Legean xedatutakoari jarraituko zaio.

Lau. Gertakaria behar bezala garatzea ziurtatzen duten jarduketak gauzatu beharko dira. Organo eskuduna arduratuko da planak eta jarduera espezifikoen programak garatzeaz eta gauzatzeaz, aipatu 49/2002 Legean ezarritakoaren arabera.

Bost. Programa honen zerga-onurak 49/2002 Legearen 27.3 artikuluan ezarritako gehienekoak izango dira.

Laurogeita hamalagarren xedapen gehigarria. «*Kirol Inklusiboa sustatzeko II. Programa*»n aplikatu daitezkeen zerga-onurak.

Bat. «Kirol Inklusiboa sustatzeko II. Programa» interes publiko handiko ekitalditzat hartuko da abenduaren 23ko 49/2002 Legeak, irabazi asmorik gabeko erakundeen zerga-araubideari eta mezenasgoaren zerga-pizgarriei buruzkoak, 27. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako.

Bi. Gertakari horri laguntzeko programak 2021eko uztailaren 1etik 2024ko ekainaren 30a arte iraungo du.

Hiru. Egindako gastuak programaren helburuekin eta planekin bat datozela egiaztatzeko, aipatutako 49/2002 Legean xedatutakoari jarraituko zaio.

Lau. Gertakaria behar bezala garatzea ziurtatzen duten jarduketak gauzatu beharko dira. Organo eskuduna arduratuko da planak eta jarduera espezifikoen programak garatzeaz eta gauzatzeaz, aipatu 49/2002 Legean ezarritakoaren arabera.

Bost. Programa honen zerga-onurak 49/2002 Legearen 27.3 artikuluan ezarritako gehienekoak izango dira.

Laurogeita hamabosgarren xedapen gehigarria. *«Valentzia 2020-2021. Jubileu Urtea. Kaliz Santuaren bidea» ekitaldian aplikatu daitezkeen zerga-onurak.*

Bat. «Valentzia 2020-2021. Jubileu Urtea. Kaliz Santuaren bidea» aparteko interes publikoa duen gertakaritzat hartuko da irabazi-asmorik gabeko erakundeen zerga-araubideari eta mezenasgoaren zerga-pizgarriei buruzko abenduaren 23ko 49/2002 Legearen 27. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako.

Bi. Gertakari horri laguntzeko programak lege hau indarrean jartzen denetik 2022ko abenduaren 31 arte iraungo du.

Hiru. Egindako gastuak programaren helburuekin eta planekin bat datozela egiaztatzeko, aipatutako abenduaren 23ko 49/2002 Legeak xedatzen duena egingo da.

Lau. Gertakaria behar bezala garatzea ziurtatzen duten jarduketak gauzatu beharko dira. Organo eskuduna arduratuko da planak eta jarduera zehatzen programak garatzeaz eta gauzatzeaz, aipatutako abenduaren 23ko 49/2002 Legeak ezarritakoari jarraikiz.

Bost. Programa honen zerga-onurak abenduaren 23ko 49/2002 Legearen 27.3 artikuluan ezartzen diren gehienekoak izango dira.

Laurogeita hamaseigarren xedapen gehigarria. *«Gaixotasun Neurodegeneratiboak. Ikerketa eta Berrikuntzaren Nazioarteko Urtea. 2021-2022 aldia» programan aplikatu daitezkeen zerga-onurak.*

Bat. «Gaixotasun Neurodegeneratiboak. Ikerketa eta Berrikuntzaren Nazioarteko Urtea. 2021-2022 aldia» proiektua aparteko interes publikoa duen gertakaritzat hartuko da irabazi-asmorik gabeko erakundeen zerga-araubideari eta mezenasgorako pizgarri fiskalei buruzko Legearen (abenduaren 23ko 49/2002) 27. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako.

Bi. Gertakari horri laguntzeko programak lege hau indarrean jartzen denetik 2022ko abenduaren 31ra arte iraungo du.

Hiru. Egindako gastuak programaren helburuekin eta programekin bat etortzea ziurtatzeko, aipatutako 49/2002 Legean xedatutakoari jarraituko zaio.

Lau. Gertakaria behar bezala garatzea ziurtatzen duten jarduketak gauzatu beharko dira. Organo eskuduna arduratuko da planak eta jarduera espezifikoen programak garatzeaz eta gauzatzeaz, aipatu 49/2002 Legean ezarritakoaren arabera.

Bost. Programa honen zerga-onurak aipatutako 49/2002 Legearen 27.3 artikuluan xedatutako gehienekoak izango dira.

Laurogeita hamazazpigarren xedapen gehigarria. *«Sant Joan de Deu ospitalaren 50. urteurrena» ospatzeko gertakarian aplikatu daitezkeen zerga-onurak.*

Bat. «Sant Joan de Deu ospitalaren 50. urteurrena» ospakizuna aparteko interes publikoa duen gertakaritzat hartuko da irabazi-asmorik gabeko erakundeen zerga-araubideari eta mezenasgorako pizgarri fiskalei buruzko Legearen (abenduaren 23ko 49/2002) 27. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako.

Bi. Gertaera horri laguntzeko programak lege hau indarrean jartzen denetik 2023ko abenduaren 31 arte iraungo du.»

Hiru. Egindako gastuak programaren helburuekin eta planekin bat datozela egiaztatzeko, aipatutako abenduaren 23ko 49/2002 Legeak xedatzen duena egingo da.

Lau. Gertakaria behar bezala garatzea ziurtatzen duten jarduketak gauzatu beharko dira. Organo eskudunak edukiko du ondorengo planak eta jarduera zehatzen programak

prestatzeko eta gauatzeko ardura, abenduaren 23ko 49/2002 Legearen 27.2 artikuluan ezartzen denaren arabera.

Bost. Programa honen zerga-onurak abenduaren 23ko 49/2002 Legearen 27.3 artikuluan ezartzen diren gehienekoak izango dira.

Laurogeita hemezortzigarren xedapen gehigarria. *Zerga-politikaren ikuskapen, azterketa, aholkularitza eta jarraipeneko tasa.*

Zerga-politikaren ikuskapen, azterketa, aholkularitza eta jarraipeneko tasaren kargatasa, azaroaren 14ko 6/2013 Lege Organikoaren bigarren xedapen gehigarriaren g) letran aipatua, ehuneko 0,00144 izango da (6/2013 Lege Organikoa, Erantzukizun Fiskaleko Agintaritza Independentea sortzekoa).

Laurogeita hemeretzigarren xedapen gehigarria. *Isurpenen kontrolerako kanonaren oinarritzko prezioen eguneratzea.*

2021eko urtarrilaren 1etik aurrera eta indarraldi mugagabez ondorioak edukita, metro kubikoko oinarritzko prezioa 0,01751 euro da hiriko hondakin-urarentzat eta 0,04377 euro industriako hondakin-urarentzat, Uraren Legearen testu bateginaren, uztailaren 20ko 1/2001 Legegintzako Errege Dekretuak onetsiaren, 113. artikulua 3 paragrafoko bigarren lerrokadan xedatutakoaren arabera.

VI

Ehungarren xedapen gehigarria. *Osasun Kohesiorako Funtza eta Laguntza Bermatzeko Funtza.*

Bat. Osasun-kohesiorako funtsaren kudeaketa arautzen duen urriaren 20ko 1207/2006 Errege Dekretuaren 2.1.a), b) eta d) apartatuen aplikazioa eten egiten da, eta apartatu horiek aurrekontuez kanpo uzten dira.

Bi. 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera, autonomia-erkidegoen eta Osasun Kudeaketarako Institutu Nazionalaren artean bideratutako Espainian bizi diren pazienteei eta aldi baterako egonaldian Espainiara lekualdatutako asegurdunei osasun-laguntza ematearen ondoriozko gastuak, baldin eta beste estatu baten kargura laguntza jasotzeko eskubidea badute, urriaren 20ko 1207/2006 Errege Dekretuaren 2.1 artikuluko a), b) eta d) letretan jasotako arlo horretako nazioarteko araudiaren babesean ematen den laguntza denean, eta Laguntza Bermatzeko Funtsean jasotako osasun-laguntzaren ondoriozko gastuak ere, Osasun Ministerioak eta Inklusio, Gizarte Segurantzako eta Migrazioetako Ministerioak egindako likidazioen ondoriozko saldo positibo eta negatiboetan oinarrituta konpentsatuko dira, Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalaren bidez. Erreferentzia-alditzat hartuko da autonomia-erkidego bakoitzak eta Osasun Kudeaketarako Institutu Nazionalak aurreko urtean egindako jardura.

Osasun Ministerioak ekitaldiko bigarren seihilekoan jakinaraziko dizkio Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalari autonomia-erkidegoen artean eta Laguntza Bermatzeko Funtsetik bideratutako Espainiako paziente egoiliarrei emandako osasun-laguntzak eragindako saldo negatiboak, urriaren 20ko 1207/2006 Errege Dekretuaren 2.1 artikuluko a), b) eta d) letretan jasotako kasuak direnean.

Hiru. Likidazio horien ondoriozko saldo positiboaren zenbatekoa autonomia-erkidegoei eta Osasun Kudeaketarako Institutu Nazionalari ordainduko zaie, honako prozedura honen bidez:

a) Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak, lehenik eta behin, fakturazioaren ondoriozko saldo negatiboak kenduko ditu, autonomia-erkidegoei edota Osasun Kudeaketarako Institutu Nazionalari egin beharreko ordainketen gastu errealagatik, urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bateginaren hamabigarren xedapen gehigarrian aipatzen den

osasun-laguntzaren estalduragatiko kuota global garbiaren saldo positibo gisako kontzeptuan.

b) Segidan, Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak gastu erreagatiko eta kuota globalagatiko saldo garbi positiboetatik kenduko ditu Espainiako egoiliarren diren eta autonomia-erkidegoen artean bideratu diren pazienteei emandako osasun-laguntzagatiko likidazioaren ondoriozko saldo negatiboak, baldin eta kasu horiek urriaren 20ko 1207/2006 Errege Dekretuaren 2.1 artikuluko a), b) eta d) letretan jasotzen badira.

c) Kenkari horiek egin ondoren, Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak saldo garbi positibo horien zenbatekoa transferituko die autonomia-erkidegoei edo Osasun Kudeaketarako Institutu Nazionalari, bai gastu erreag gisa, bai kuota global gisa. Transferentzia hori Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak egingo du, Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak proposatuta, ekitaldi bakoitzeko hirugarren hiruilekoan.

d) Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak eragiketa horien berri emango dio Osasun Ministerioari, ekitaldi bakoitzeko hirugarren hiruilekoan. Kuota globalagatiko saldo garbi positiboetatik kendu ezin izan diren gastu erreagatiko saldo garbi negatiboak ere jakinaraziko dizkio Osasun Ministerioari.

e) Autonomia-erkidegoen artean eta Laguntza Bermatzeko Funtsetik bideratutako Espainiako paziente egoiliarrei emandako osasun-laguntzaren gastu erreagaren kontzeptuan autonomia-erkidegoei edo Osasun Kudeaketarako Institutu Nazionalari kendutako zenbatekoa Altxorraren eta Nazioarteko Finantzaren Idazkaritza Nagusian sartuko da, aurrekontuz kanpoko kontu bati aplikatuta; aipatutako kontua Osasun Ministerioak kudeatuko du, autonomia-erkidegoen artean eta Osasun Kudeaketarako Institutu Nazionalen konpentsazioa egiteko.

f) Osasun Ministerioak autonomia-erkidegoen artean eta Laguntza Bermatzeko Funtsetik bideratutako Espainiako paziente egoiliarrei emandako osasun-laguntzaren ondoriozko saldo garbi positiboetatik kenduko ditu Gastu erreagatiko fakturazioaren ondoriozko saldo negatiboak, Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak kuota globaleko saldo positiboetatik kendu ezin izan dituen. Zenbateko hori Osasun Ministerioak banatuko du autonomia-erkidegoen eta Osasun Kudeaketarako Institutu Nazionalaren artean, gastu erreagaren fakturazio-saldo positiboekin, saldo positibo horien proportzioan, betiere Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak kendu ezin izan dituen autonomia-erkidegoen artean eta Laguntza Bermatzeko Funtsetik bideratutako Espainiako paziente egoiliarrei emandako osasun-laguntzaren ondoriozko saldo negatiboak kendu ondoren.

g) Autonomia-erkidegoei eta Osasun Kudeaketarako Institutu Nazionalari kendutako zenbatekoaren gainerakoa Osasun Ministerioak banatuko du autonomia-erkidegoen eta Osasun Kudeaketarako Institutu Nazionalaren artean, baldin eta saldo positibo konpentsagarriak aurkezten badituzte, autonomia-erkidegoen artean eta Laguntza Bermatzeko Funtsetik bideratutako Espainiako paziente egoiliarrei emandako osasun-laguntzaren ondorioz, eta saldo garbi positiboen proportzioan banatuko da.

h) Azkenik, autonomia-erkidegoen artean eta Laguntza Bermatzeko Funtsetik bideratutako Espainiako paziente egoiliarrei emandako osasun-laguntzaren ondorioz eta gastu erreagatiko geratzen diren saldo negatiboak, konpentsatu, kendu edo atxiki egingo dira, dagokionaren arabera, Ogasun Ministerioak finantza-sistemaren baliabideetatik egin beharreko ordainketetatik, hartarako aurreikusitako baldintzak betetzen direnean.

Ehun eta batgarren xedapen gehigarria. *Lemoizko zentral nuklearrak okupatutako lurra Euskal Autonomia Erkidegoari transferitzea.*

Erabaki egin da Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatzea 69.784 metro koadro inguruko azaleraren jabetza osoa. 2018ko urriaren 15eko Ministro Aginduaren bidez deklaratu zen azalera hori ez zela beharrezkoa itsas-lehorreko jabari publikoa babesteko eta erabiltzeko, eta 2019ko uztailaren 4ko Ministro Aginduaren bidez desafektatu zen (agindu hori 2000ko martxoaren 16ko Ministro Aginduaren bidez onartu zen Bizkaiko Lemoizko udal-mugaketaren eraginpeko Lemoizko zentral nuklearrak okupatutako lursailei buruzkoa da).

Lege hau indarrean jarri ondoren, ondorioz gabe geratuko da Ogasuneko ministroaren Agindua, 2019ko abuztuaren 6koa, zeinaren bidez Lemoizko zentral nuklearrak Lemonizen (Bizkaia) okupatzen dituen lursailak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari doan lagatzen baitzaizkio, itsaso eta lehorraren arteko jabari publikoa babestu eta erabiltzeko beharrezkoak ez direla deklaraturik, akuikulturako ikerketa eta ekoizpeneko polo baterako.

Ehun eta bigarren xedapen gehigarria. *Ondasun higiezinak eskualdatzea.*

Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren jabetzakoa zen «Bermeoko Itsas Etxea» (Bizkaia) izeneko ondasun higiezinak Bermeoko Arrantzaleen Kofradiari emango zaio.

Lagapen hori egiteko, honako baldintza hau ezartzen da: kofradia horrek Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiari, segregazioa egin ondoren, eraikin horretako lokal bat eman beharko dio. Kofradia lokal horren jabea da, eta, zehazki, Bermeoko Fraile Leku kaleko 1. zenbakian dago.

Ehun eta hirugarren xedapen gehigarria. *Gizarte-interesekotzat jotzen diren interes orokorreko jarduerari dirua esleitzea.*

Bat. Estatuak, erregelamenduz zehaztutako moduan, gizarte-interesekotzat jotzen diren interes orokorreko jarduerak diruz laguntzera bideratuko du 2021eko ekitaldiko pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren kuota osoaren ehuneko 0,7; betiere, horretarako asmoa espresuki azaldu duten zergadunei dagokienez.

Ondore horietarako, zergaren kuota osotzat hartuko da Estatuako kuota osoaren eta kuota autonomiko osoaren arteko batura, Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga arautzen duen Legean xedatutakoari jarraituz.

2021eko ekitaldiari dagokion diru kopuruaren behin betiko likidazioa 2023ko apirilaren 30a baino lehen egingo da; 2022ko azaroaren 30ean, berriz, behin-behineko likidazioa egingo da, dirulaguntzak emateko prozedurari alde aurretik ekin ahal izateko.

2021eko aurrekontuetan gizarte-interesekotzat jotzen diren interes orokorreko jarduerari esleitutako zenbateko osoa honako ehuneko hauek aplikatuta banatuko da: 100eko 77,72 Gizarte Eskubideetako eta 2030 Agendako Ministerioa; 100eko 19,43 Kanpo Arazoetako, Europar Batasuneko eta Lankidetzako Ministerioari; eta 100eko 2,85 Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioari. Ehuneko horiek 2021eko ekitaldian bertan egindako behin betiko likidazioaren gainean aplikatuko dira.

Dirulaguntza horietara bideratutako zenbatekoak administrazio eskudunek kudeatu eta emango dituzte, erregelamendu bidez ezartzen den prozeduraren arabera.

Bi. Lege hau indarrean jarri eta gero zergaldia amaitu duten zergadunek sozietateen gaineko zergaren arabera ordaindu duten kuota osoaren % 0,7 erabiliko du Estatuak, gizarte-interesekotzat hartutako interes-orokorreko jarduerak diruz laguntzeko, baldin eta zergadunek hori egiteko borondatea adierazten badute.

Ondore horietarako, zergaren kuota osotzat hartuko da aitortu den guztizko kuota osoa, sozietateen gaineko zerga arautzen duen legean ezarritako terminoen arabera.

2021eko ekitaldiari dagokion diru kopuruaren behin betiko likidazioa 2023ko apirilaren 30a baino lehen egingo da; 2022ko irailaren 30ean, berriz, behin-behineko likidazioa egingo da, dirulaguntzak emateko prozedurari alde aurretik ekin ahal izateko.

Dirulaguntza horietarako bideratzen diren zenbatekoak –Estatuaren eremuko erakundeen proiektuak finantzatzeko erabiliko dira beti– kudeatzeko eta emateko, erregelamenduz ezarritako prozedurari jarraituko zaio.

2021eko aurrekontuetan gizarte-interesekotzat jotzen diren interes orokorreko jarduerari esleitutako zenbateko osoa honako ehuneko hauek aplikatuta banatuko da: 100eko 77,72 Gizarte Eskubideetako eta 2030 Agendako Ministerioa; 100eko 19,43 Kanpo Arazoetako, Europar Batasuneko eta Lankidetzako Ministerioari; eta 100eko 2,85 Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioari. Ehuneko horiek 2021eko ekitaldian bertan egindako behin betiko likidazioaren gainean aplikatuko dira.

Ehun eta laugarren xedapen gehigarria. *Kataluniako Generalitateari eskualdatutako aldirietako eta eskualdeko zerbitzuengatik konturako ordainketak baimentzea.*

Bat. Aurrekontu hauen indarraldian, 2014rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren abenduaren 23ko 22/2013 Legearen hirurogeita hamabigarren xedapen gehigarriaren Bat zenbakian ezarritakoa aplikatzekoa izango da bidaiariak aldiriko nahiz eskualdeko trenbidez garraiatzeko zerbitzuen kostu garbian, zerbitzu horien eginkizunak Kataluniako Generalitateari eskualdatu bazitzaizkion eta aurreko ekitaldian Renfe Viajeros SME SAK eman bazituen.

Bi. Ordain-agindua emango dira Renfe-Operadorak egindako likidazio-proposamenen gainean Estatuako Administrazio Esku Hartzailtza Nagusiak dagokion finantza-kontrolako txostena eman ostean; bertan, bereziki egiaztatuko du diru-sarrerak eta gastuak egozteko irizpideak Estatuako Administrazio Orokorren eta Renfe-Viajeros SME SAreren artean une bakoitzean indarrean dagoen kontratuaren arabekoak direla. Kontratu hori Estatuako Administrazio Orokorren eskumeneko «aldirietako», «distantzia erdiko» eta «zabalera metrikoko» bidaiarien trenbide bidezko garraio-zerbitzu publikoak emateko egiten da. Txosten hori ekitaldi bakoitzeko azaroaren 30a baino lehen eman beharko da.

Horretarako, Renfe-Viajeros SME SA Estatuako Administrazio Orokorreko Kontu-hartzailetzaren eskura jarri beharko ditu, gutxienez ere hiru hilabete lehenagotik, bai likidazio-proposamena, bai hura egiaztatzeko behar zen informazio eta dokumentazio guztia ere, horren barne direla Generalitatek onetsitako tarifa-neurriak ustiatzetik heldutako defizitaren gaineko eraginak balioestea eta zenbatzea bideratzen duten azterlanak.

Kataluniako Generalitateak bere eskumenez baliatuz hartutako erabakien ondorioz Renfe Viajeros SME SAri sortzen zaion ustiapen-defizit handiagoa ez da konpentsatuko; arestian aipatutako kontratuaren ondorioetarako kontuan hartutakoak ez diren tarifa-politika edo kalitate-estandar, konpromiso eta baldintzei dagokienez.

2020an emandako zerbitzuen likidaziorako, ondoriozko zenbatekotik kenduko da Kataluniako Generalitateak Renfe Viajeros SME SAri eman dion zenbatekoa, Estatuako Administrazio Orokorrek Kataluniako Generalitateari eman dizkion transferentzien ondoriozkoa, ekainaren 16ko 22/2020 Errege Lege Dekretuaren 2.2.d) 2) c) artikuluan xedatutakoaren arabera (dekretu horrek COVID-19 Funtsaren sorrera arautzen du, eta haren banaketari eta libramenduari buruzko arauak ezartzen ditu).

Hiru. Ordain-agindua emango da bigarren apartatuan aipatzen den finantza-kontrolako txostena eman ostean, eta «Renfe Viajeros SAri, Kataluniako Autonomia Erkidegoari eskualdatutako aldirietako eta eskualdeko garraio-zerbitzuak, likidatu gabe daudenak, aurreko ekitaldiari dagozkionak, konpentsatzeko» 17.39.441M.447 aplikazioaren kontura, eta zenbatekoa 232.638,00 mila eurokoa da.

Lau. Aurreko zenbakian aipatutako transferentzia honako akordio hauen bidez onartutako metodologiaren esparruan erabakitzen diren behin betiko likidazioen konturako zenbatekotzat hartuko da: Ekonomia eta Zerga Gaietarako Estatuaren eta Kataluniako Generalitatearen arteko Batzorde Mistoaren 2009ko abenduaren 22ko akordioa, Renfe-Operadorak Bartzelonan emandako bidaiarien trenbidezko aldirietako garraio-zerbitzuak balioestekoa, eta Estatu-Kataluniako Gobernua Ekonomia eta Zerga Gaietarako Batzorde Mistoaren 2010eko azaroaren 17ko akordioa, eskualde-zerbitzuen balioespenari buruzkoa.

Bost. Behin betiko likidazioa egin ostean, aurreko zenbakian xedatutakoa betez ordaindutako konturako zenbatekoari dagokionez ateratzen den alde positiboa edo negatiboa hurrengo ekitaldietan emandako zerbitzuengatik egin beharreko transferentziak handitzera edo txikiagotzera bideratu ahal izango ditu Estatuako Administrazio Orokorrek.

Ehun eta bosgarren xedapen gehigarria. *Lege honen VII. tituluko I. kapituluan aipatutako Estatuaren tributu-sarreraren bilakaera-indizea kalkulatzeko irizpideak, Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateginaren, martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitakoaren, 121. artikuluan ezarritakoarekin bat.*

Toki-erakundeek Estatuaren tributuetan –zehazki, martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Toki Ogasunak Arautzen dituen

Legearen testu bateginaren 121. artikuluan xedatutakoetan– duten partaidetzaren konturako ordainketak kalkulatzeko, 2004tik 2021era arteko Estatuko tributu-sarreraren bilakaeraren behin-behineko indizea abenduaren 18ko 22/2009 Legearen 20. artikuluan ezarritako irizpideen arabera zehaztuko da. Irizpide horiek honako hauek dira:

1. Estatuaren 2021eko tributu-sarrerak Estatuak ekitaldi horretan bildutako diru-kopuruaz osaturik daude, pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga, balio erantsiaren gaineko zerga eta zerga bereziengatik autonomia-erkidegoei lagatako tributu-baliabideak salbuetsita, 22/2009 Legearen 20. artikuluan ezarritako moduan.

2. Estatuaren 2004ko tributu-sarrerak kalkulatzeari dagokionez, 22/2009 Legearen 20. artikuluan ezarritako homogeneousotasun-irizpideak erabiliko dira. Hau da, autonomia-erkidegoen 2004. urteko konturako ekarpenaren simulazioa egingo da, 2021. urteari dagozkion lagapen-baldintzetan. 2002. urtearen likidazioa kalkulatzeko, autonomia-erkidegoek 2021. urteko lagapen-baldintzetan izandako behin betiko errendimenduaren eta lagapen-baldintza horien arabera egindako ekarpenen arteko aldea erabiliko da.

Lege honen VII. tituluko I. kapituluaren arautzen diren eta aurrekoarekiko desberdinak diren gainerako bilakaera-indizeak zehazteko, abenduaren 18ko 22/2009 Legearen 20. artikuluan xedatutakoa aplikatuko da, eta, hala badagokio, 2007. oinarri-urtea dagokion urtearekin ordezkaturiko da.

Ehun eta seigarren xedapen gehigarria. *Estatuaren tributu-sarreraren bilakaera-indizea kalkulatzeko irizpideak, toki-erakundeek 2019an Estatuko tributuetan izandako partaidetzaren likidazioa egiteko.*

Toki-erakundeek Estatuaren tributuetan duten partaidetzaren 2019. urteari dagokion behin betiko likidazioa egiteko, eta Toki Ogasunak Arautzen dituen Legearen testu bateginaren, martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitakoaren, 121. artikuluan ezarritakoa aplikatzeko, 2004tik 2019era arteko Estatuko tributu-sarreraren bilakaera-indizea abenduaren 18ko 22/2009 Legearen 20. artikuluan ezarritako irizpideen arabera zehaztuko da –Lege horrek araubide erkideko autonomia-erkidegoen eta autonomia-estatutua duten hirien finantzaketa-sistema arautzen du eta zerga-arau batzuk aldatzen ditu–. Irizpide horiek honako hauek dira:

1. Estatuaren 2019ko tributu-sarrerak Estatuak ekitaldi horretan bildutako diru-kopuruaz osaturik daude, pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga, balio erantsiaren gaineko zerga eta zerga bereziengatik autonomia-erkidegoei lagatako tributu-baliabideak salbuetsita, 22/2009 Legearen 20. artikuluan ezarritako moduan.

2. 2004ko edo 2006ko Estatuaren zerga-sarreraren kalkuluari dagokionez, 22/2009 Legearen laugarren xedapen iragankorreko e) letran ezarritako irizpideak erabiliko dira, eta 2004a edo 2006a –zein dagokion– hartuko da oinarri-urte gisa.

Ehun eta zazpigarren xedapen gehigarria. *Toki Erakundeak Finantzatzeko Funtseko Antolamendu Funtsearen konpartimentuaren eremu objektiboa aldatzea.*

Bat. 2021eko ekitaldirako, Autonomia-erkidegoen eta toki-erakundeen finantza-iraunkortasunerako neurriei eta bestelako neurri ekonomikoei buruzko abenduaren 26ko 17/2014 Errege Lege Dekretuaren 40.1 artikulua araututako eremu objektiboa, arau beraren 39.1 artikuluan aipatzen diren udalek amortizatzeko dauzkaten zenbatekoak sartu ahalko dituzte, toki-erakundeek enprekin eta autonomoekin hartutako zorrak kitatzeko linearen esparruan egin ziren eragiketei dagozkienak –linea hori uztailaren 1eko 8/2011 Errege Lege Dekretuaren (hipoteka-zordunak laguntzeko, gastu publikoa kontrolatzeko eta toki-erakundeek enprekin eta autonomoekin dituzten zorrak bertan behera uzteko, enpresa-jarduera sustatzeko eta administrazioa eraberritzea indartu eta soiltzeko neurriena) II. kapituluaren bigarren atalean araututa dago– baldin eta zor horiengatik atxikipenak aplikatzen ari badira toki-erakunde horiek Estatuko tributuetan duten partaidetzan.

Bi. 2021ean Toki Erakundeak Finantzatzeko Funtseko Antolamendu Funtsaren konpartimentuari atxiki zaizkion edo atxikitzen zaizkion udalek aparteko izaeraz eskatu ahalko dute, 2021eko apirilaren 30a baino lehen, konpartimentu horren kargurako maileguak egitea, Zerga Administrazioako Estatu Agentziarekin eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiarekin dauzkaten zorrak kitatzeko, baldin eta Lege hau argitaratzen den eguna baino lehen hartzekodunekin sinatutako zatikatze- edo geroratze-akordioen bidez ezeztatzen bada, edo konpentsazioak egiten ari badira toki-erakunde horiek Estatuako tributuetan duten partaidetzan atxikipenak aplikatzearen bitartez; hori guztia, abenduaren 26ko 17/2014 Errege Lege Dekretuan ezarritako baldintzen arabera eta arau horretako 39.1 artikuluan udal eskatzaileen berariazko egoera dela-eta ezarritakoak beteta.

Ehun eta zortzigarren xedapen gehigarria. *Toki-erakundeek Hornitzaileen ordainketak finantzatzeko Funtsarekin sinatutako mailegu-eragiketak kitatzea.*

Bat. 2013rako Estatuaren Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 27ko 17/2012 Legearen azken xedapenetako hogeita hamaikagarrenean xedatutakoaren salbuespen gisa, 2021. urtean toki-erakundeek zorpetze-eragiketa berriak hitzartu ahal izango dituzte Hornitzaileen ordainketak finantzatzeko likidazioko Funtsarekin duten zorra erabat edo partzialki kitatzeko, betiere honako baldintza hauek guztiak betetzen badira:

a) Sinatuko den zorpetze-eragiketa berriaren amortizazio-aldia, gehienez, toki-erakundeak Funts horrekin hitzartutako dituen kreditu-eragiketak erabat kitatzeko geratzen den amortizazio-aldiaren adinakoa izango da. Kitatu diren eragiketak formalizatzea ahalbidetu zuten eta onartu ziren doikuntza-planak indarrean egongo dira zorpetze-eragiketa berria erabat amortizatzen den arte, xedapen honen 4. eta 5. apartatueta xedatzen dena alde batera utzi gabe.

b) Zorpetze-eragiketa berriarekin finantza-karga gutxitu egingo da; beraz, finantza-aurrezkoa lortu behar da.

c) Zorpetze-eragiketa horrek ezin izango du txertatu Estatuaren tributuetan parte hartzearen bermea, eta eragiketa berri horiek hitzartzen dituzten kreditu-erakundeak ezin izango dira subrogatu Hornitzaileen ordainketak finantzatzeko Funtsari dagozkion eskubideetan.

d) Eragiketa hori Hornitzaileen ordainketak finantzatzeko Funtsarekin formalizatutako maileguak garaiz aurretik erabat edo partzialki amortizatzen bideratu behar da oso-osorik, betiere toki-erakundeek Funts horrekin sinatutako kontratuetan ezarritako baldintza eta eskakizunak beteta.

Bi. Goian aipatu ditugun zorpetze-eragiketa berriak formalizatzeko, Ogasun Ministerioari baimena eskatu beharko zaio.

Horretarako, eskabideekin batera honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dira:

a) Toki-korporazioko organoak eskudunaren erabakia, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legean xedatutako quorum- eta bozketa-baldintzak betez.

b) Toki-erakundeko kontu-hartzailearen txostena, zorpetze-eragiketa berria sinatzearen ondorioz urtean zenbateko finantza-aurrezkoa lortuko den egiaztatzen duena.

Hiru. Toki-erakundeak hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epea –Administrazio Publikoen hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epea kalkulatzeko metodologia eta finantzaketa-araubideetako baliabideak atxikitzeko baldintzak eta prozedura garatzen dituen uztailaren 25eko 635/2014 Errege Dekretuaren arabera kalkulatuta (Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoan daude aurreikusita)– berankortasunari buruzko araudian finkatutakoa baino handiagoa baldin bada, baimendutako zorpetze-eragiketa berria sinatzeak eragindako finantza-aurrezkoa merkataritza-zorra eta, horrenbestez, hornitzaileei ordaintzeko batez besteko aldia murrizteko erabili beharko da. Besteak beste, neurri hori txertatu beharko da,

hala badagokio, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoan aipatzen den diruzaintza-planean.

Lau. Toki-erakundeak martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateginaren 51. eta 53. artikuluetan xedatutako zorraren muga bete baldin badu 2020ko ekitaldian, bai eta aurrekontu-egonkortasunaren helburua eta gastu-araua ere, eta hornitzaileei ordaintzeko batez besteko aldia –uztailaren 25eko 635/2014 Errege Dekretuaren arabera kalkulatu behar du aldi hori toki-erakundeak– ez bada berankortasunari buruzko araudian finkatutakoa baino handiagoa, eta 2019ko ekitaldia ixtean, aurrekontu-egonkortasunaren helburua eta gastu-araua bete ditu, toki-erakundeak eragiketa berria formalizatu ahal izango du. Toki-erakundeak Hornitzaileen ordainketak finantzatzeko Funtzarekin dituen maileguak erabat kitatzen baditu, mailegu horiek sinatzea ahalbidetu zuen eta onartu zen doikuntza-plana indarrrik gabe geratuko da. Mailegu hori ez badira erabat kitatzen, doikuntza-planak indarrean egongo dira oraindik, bai eta horiek nola gauzatzen ari diren aztertze jarraipen-prozedura ere.

Bost. Toki-erakundeak ez badu bete goragoko 4. paragrafoan aipatutako muga edo araurer bat, zorpetze-eragiketa berria formalizatu ahal izango du baina onartutako doikuntza-plana indarrean egongo da nahiz eta Hornitzaileen ordainketak finantzatzeko Funtzarekin formalizatutako maileguak erabat kitatu.

Sei. Goragoko 4. eta 5. paragrafoetan xedatutakoa alde batera utzi gabe, toki-erakundeak 2020ko ekitaldian likidatutako diru-sarrera arrunten ehuneko 75etik gorako aurrezki garbi negatiboa edo zorpetzea badu, 2013rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren abenduaren 27ko 17/2012 Legearen azken xedapenetako hogeita hamaikagarrenean zehaztutakoaren arabera, toki-erakundeak, osoko bilkuraren erabaki baten bidez, finantza-saneamendurako edo zorra murrizteko plan bat onartu beharko du, gehienez bost urteko epean aurrezki garbiaren joera edo zorpetze-bolumena zuzentzeko, hurrenez hurren. Azken horri dagokionez, aurrez aipatutako mugaraino zuzendu beharko da, baldin eta bolumen hori ehuneko haren eta Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateginaren, martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitakoaren, 53. artikuluan finkatutakoaren artean badago. Gehiegizko zorpetzearen gainerako kasuetan, zorra murrizteko planak zor-maila zuzendu beharko du; gehienez ere, aipatutako azken manuan finkatutako ehunekoraino.

Plan horiek Ogasun Ministerioan jakinarazi behar dira, artikulua honen 2. paragrafoan aipatzen den baimen-eskabidearekin batera.

Toki-erakundeko kontu-hartzaileak plan horien betetze-mailari buruzko urteko txosten bat egin beharko du, eta toki-korporazioko osoko bilkuraren aurrean aurkeztu, haren berri izan dezan; horretaz gain, Ogasun Ministeriora ere helarazi beharko du.

Aipatutako planei dagokionez ez-betetzereen bat gertatuz gero, toki-erakundeak ezin izango du edozein inbertsio-modalitate finantzatzeko epe luzeko zorpetze-eragiketarik itundu. Bestalde, Ogasun Ministerioak ezohiko neurriak proposatu ahal izango ditu eta eraginpeko toki-erakundeek ezarri egin beharko dituzte. Toki-erakundeek ez badituzte neurriok ezartzen, Aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren 25. eta 26. artikuluetan ezarritako neurri hertsigarriak eta nahitaez bete beharrekoak aplikatu ahal izango dira.

Zazpi. Aurreko paragrafoetan aurreikusitakoari jarraiki, Ogasun Ministerioan eman beharko da hitzartzen den zorpetze-eragiketa berriaren berri, sinatzen den egunetik kontaktzen hasi eta hogeita hamar eguneko epean, betiere martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateginaren 55. artikuluan, eta Aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoan aurreikusitako informazioa emateko betebeharrak garatzen dituen urriaren 1eko HAP/2105/2012 Aginduaren 17. artikuluan xedatutakoari jarraituz.

Zortzi. Hazkuntza, lehiakortasuna eta efizientzia sustatzeko premia neurriak onartzen dituen urriaren 15eko 18/2014 Legearen 3. artikulua aplikatuz baimendu ziren birfinantzaketa-eragiketak formalizatu zituzten toki-erakundeek, manu horren 5. apartatua

aplikatuz indarreko doikuntza-planak badituzte, indarraldiaren amaiera deklaratu ahal izango dute, baldin eta aurreko 4. apartatuan aipatutako zerga-arauak bete badituzte 2017-2019 aldiko urte bakoitzean eta guztietan. Indarraldiaren amaiera hori Ogasun Ministerioari jakinaraziko zaio Lege hau argitaratu eta hurrengo hiru hilabetez dagokion doikuntza-planaren jarraipenean. 18/2014 Legearen 3.6 artikuluan aipatutako saneamendu- edo zorra murrizteko planen bat indarrean badute, indarrean jarraituko dute aurreikusitako amaierara arte.

Ehun eta bederatzigarren xedapen gehigarria. *Toki-erakundeek epe laburreko zorra epe luzeko zor gisa bateratzea.*

Bat. Toki Ogasunak Arautzen dituen Legearen testu bateginean (martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onesten da) xedatutakoaren salbuespen gisa, bakar-bakarrik 2021ean baimena ematen da 2019an edo 2020an gastu orokorretarako diruzaintza-geldikin negatiboa –behin «Aurrekontuari aplikatzeko dauden eragiketengatiko hartzekodunak» 4131 kontuaren saldoa, edo, sail-kontu hori ez badago, haren baliokidea den «Sortutako eragiketengatiko hartzekodunak» 413 zenbakiko saldoaren zatia, edo aplikatzekoa den kontabilitate- eta aurrekontu-araudian ezarritako baldintzetan baliokideak diren kontu-saldoak, ordainduta– izan duten edo ekitaldi horietako batean aurrezki garbi negatiboa izan duten toki-erakundeek indarrean dagoen epe laburreko zorra epe luzeko zor bilakatzeko eragiketak egin ditzaten.

Aipatutako birfinantzaketa-eragiketa horiek formalizatzeko, toki-korporazioko organo eskudunak akordio bat hartu beharko du, Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen xedatutako quorum- eta bozketak baldintzak betez.

Gainera, toki-erakundeek gastu orokorretarako diruzaintza-geldikin negatiboa badute, aurrez aipatutako baldintzetan, edo aurreko ekitaldian likidatutako sarrera arrunten ehuneko 75etik gorako aurrezki garbi negatiboa edo zorpetzea badute, 2013rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 27ko 17/2012 Legearen azken xedapenetako hogeita hamaikagarrenean zehaztutakoaren arabera, toki-korporazioek, osoko bilkuren erabaki baten bidez, finantza-saneamendurako edo zorra murrizteko plan bat onartu beharko dute, gehienez bost urteko epean aurrez zehaztutako gastu orokorretarako diruzaintza-geldikinaren zeinua edo aurrezki garbiaren joera edo zorpetze-bolumena zuzentzeko, hurrenez hurren. Azken horri dagokionez, aurrez aipatutako mugaraino zuzendu beharko da, baldin eta bolumen hori ehuneko haren eta Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateginaren, martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitakoaren, 53. artikuluan finkatutakoaren artean badago. Gehiegizko zorpetzearen gainerako kasuetan, zorra murrizteko planak zor-maila zuzendu beharko du; gehienez ere, aipatutako azken manuan finkatutako ehunekoraino.

Toki-erakundeek Ogasun Ministerioako organo eskudunari jakinarazi beharko dizkiote plan horiek, onespina jaso dezaten; nolahi ere, erakunde horien finantza-babesa dagokion autonomia-erkidegoak badu Autonomia Estatutuan esleituta, autonomia-erkidegoari jakinaraziko dizkiote.

Aurreko onespina horrek adieraziko du, ondorio guztietarako, toki-ogasuna betetzen ari dela toki-erakundeak arautzen dituen legeriak zorpetze-eragiketak baimentzeari dagokionez finkatzen dituen mugak. Ondore hori bera izango dute toki-erakundeen finantza-babesa esleituta duen organo eskudunak onartzen dituen finantza-saneamendurako edo zorra murrizteko planek, honako hauetan ezarritakoa aplikatuz betetzen ari direnek: 2013rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 27ko 17/2012 Legearen hirurogeita hamahirugarren xedapen gehigarria; 2014rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 23ko 22/2013 Legearen hirurogeita hamalagarren xedapen gehigarria, eta 2015erako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 26ko 36/2014 Legearen hirurogeita hamazazpigarren xedapen gehigarria.

Aipatutako erakundeek Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren lehenengo xedapen gehigarrian oinarritutako laguntza finantzarioko neurriak aplikatzearen ondoriozko doikuntza-plan bat bete behar badute, plan hori aldatu egin beharko dute, eta xedapen gehigarri honek

aipatzen duen eragiketa hartan sartu beharko dute, doikuntza-plan horren jarraipenari buruz informatzen dutenean; kasu horietan, ulertuko da bete egin dela arestian aipatu dugun saneamendu-planaren errekerimendua.

Toki-erakundeko kontu-hartzaileak saneamendu planaren betetze-mailari buruzko urteko txosten bat egin beharko du, eta toki-korporazioaren osoko bilkuraren aurrean aurkeztu, haren berri izan dezan. Plan horietako azken urteari dagokion txostena, gainera, toki-erakundeen finantza-babesa esleituta duen Administrazio publikoko organo eskudunari ere igorri beharko dio.

Aipatutako planei dagokienez ez-betetzereen bat gertatuz gero, toki-erakundeak ezin izango du edozein inbertsio-modalitate finantzatzeko epe luzeko zorpetze-eragiketarik itundu. Halaber, toki-erakundeen finantza-babesa esleituta duen Administrazio publikoko organo eskudunak aparteko neurriak proposatu ahal izango ditu, eta ukitutako toki-erakundeek ezarri egin beharko dituzte. Toki-erakundeek ez badituzte neurriok ezartzen, Aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren 25. eta 26. artikuluetan ezarritako neurri hertsigarriak eta nahitaez bete beharrekoak aplikatu ahal izango dira.

Bi. Aurreko 1. zenbakian araututako esparruaz kanpo, jo behar da debekatuta dagoela epe laburreko zorraren ondoz ondoko berritze-eragiketak egitea.

Ehun eta hamargarren xedapen gehigarria. *Campo de Gibraltar eskualdeko udalerrri jakin batzuei jarduketa zehatzak eta salbuespenezkoak finantzatzeko dirulaguntza izendunak emateko arauketa.*

Bat. 2021. ekitaldirako, dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 22.2.a) eta 28. artikuluetan xedatutakoaren babesean, Estatuko Aurrekontu Orokorraren 37. atalaren 942N programan 7,3 milioi euroko kreditua ezarri da Campo de Gibraltar eskualdeko Toki Erakundeentzako dirulaguntza izendunak emateko, zehazki, Ministro Kontseiluaren 2018ko azaroaren 16ko Erabakia (Campo de Gibraltar eskualdeko Plan Integrala onartzen duena) gauzatzeko jarduera zehatzak eta salbuespenezkoak (inbertsioak) finantzatzeko.

Bi. Campo de Gibraltar eskualdean egin behar diren jarduketak udalerrien arabera kuantifikatu beharko dira, Campo de Gibraltar eskualdeko Udalerrien Mankomunitateak proposatuta, eta eragindako udal bakoitzak hitzarmena sinatu beharko du.

Hiru. Aurreko paragrafoan adierazitako dirulaguntzak dagokion tresna arautzaileak xedatutako moduan emango dira. Dirulaguntza zuzenen kasuan, kontuan hartuko dira, batetik, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 28. artikuluan zehaztutakoa, eta, bestetik, horren garapen-erregelamendua onesten duen Errege Dekretua (uztailaren 21eko 887/2006).

Lau. Estatuko Administrazio Orokorrak emandako dirulaguntza horiek bateragarriak dira helburu bera duten beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideekin, horrelakoak edozein Administraziok edo erakunde publiko zein pribatuk emanda ere, izan Estatukoak, Europar Batasunekoak edo nazioarteko organismoenak.

Bost. Autonomia Erkidegoen eta Toki Erakundeen Finantzaketarako Idazkaritza Nagusiak neurri egokiak hartuko ditu, xedapen honetan dirulaguntza hauei dagozkien kredituen kudeaketari buruz adierazitakoa betetzeko.

Ehun eta hamaikagarren xedapen gehigarria. *Autonomia-erkidegoen eta autonomia-estatutua duten hirien finantzaketa-araubideetako baliabideetan kenkariak edo atxikipenak aplikatzeko irizpideak.*

Bat. Autonomia-erkidegoen eta autonomia-estatutua duten hirien finantzaketa-araubideetako baliabideetan kenkarian edo atxikipenean hainbat zor pilatzen direnean, eta zor horiek autonomia-erkidego bati edo autonomia-estatutua duen hiri bati eragiten diotenean, Autonomia Erkidegoen eta Toki Erakundeen Finantzaketarako Idazkaritza Nagusiak zor likidoen, epez kanpokoen eta galdagarrien ondoriozko kenkariak edo atxikipenak aplikatuko ditu aurrena, autonomia-erkidegoek edo autonomia-estatutua duten

hiriek nahiz horien mendeko zuzenbide publikoko entitateek Estatuko Ogasun Publikoaren aurrean dauzkatenak, Estatuari dagozkion tributuengatik eta Gizarte Segurantzari egin beharreko kotizazioengatik.

Bi. Aurreko zenbakian aurreikusitako akordioak aplikatu ostean, ordena honetan aplikatuko dira gainerako kenkariak edo atxikipenak:

1.a Estatuko sektore publikoarekiko zor likidoei, epez kanpokoei eta galdagarriei dagozkienak.

2.a Gainerako kenkariak edo atxikipenak, baldin eta horien gaineko akordioak Autonomia Erkidegoen eta Toki Erakundeen Finantzaketarako Idazkaritza Nagusian jaso badira.

Hiru. 1. zenbakian aurreikusitako murrizketak edo atxikipenak hainbanatu egingo dira tributuek eragindako zorren zenbatekoan eta Gizarte Segurantzari egin beharreko kotizazioen zorren zenbatekoan, murrizketan edo atxikipenean eragina badute. Bi kategoria horietako bakoitzean, bai eta xedapen honen 2. apartatuan aurreikusitakoetan ere, Maila Autonomikoa eta Tokikoa Koordinatzeko Idazkaritza Nagusian sartu diren dataren arabera egingo dira murrizketak edo atxikipenak; hala, aplikatzen aurrenekoak data goiztiarrena dutenak izango dira, legez ezarritako mugak betetzea ezertan eragotzi gabe.

Lau. Aurreko zenbakietan ezarritakoaren ondorioetarako, aintzat hartuko dira kudeaketa-organismoek kenkaria edo atxikipena egiteari begira onartutako akordioak; betiere, akordio horiek ordainketak egin beharreko hilaren aurrekoaren hamabosgarren eguna baino lehen sartu badira Autonomia Erkidegoen eta Toki Erakundeen Finantzaketarako Idazkaritza Nagusian.

Bost. Baldin eta, xedapen hau aplikatzearen ondorioz, ezin badira kendu edo atxiki kontuan hartu beharreko atxikipen-akordio guztiak betetzeko behar adina baliabide, ordaindu gabe gelditzen den zenbatekoa murriztu edo atxiki egingo da autonomia-erkidegoari edo autonomia-estatutua duen hiriarri egiten zaion hurrengo ordainketan, finantzaketa-araubideak aplikatuz, xedapen honetan adierazitako arauen arabera.

Sei. Herri-administrazioen hornitzaileei ordaintzeko batez besteko aldia kalkulatzeko metodologia, bai eta apirilaren 27ko Aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren 2/2012 Lege Organikoan aurreikusitako finantzaketa-araubideen baliabideak atxikitze baldintzak eta prozedurak ere garatzen dituen uztailaren 25eko 635/2014 Errege Dekretuaren 10.1 artikuluan adierazitako atxikipenaren xede den zenbatekoa hauxe izango da: aipatutako errege-dekretuaren 8.2 artikuluan aipatutako atxikipenaren xede den zenbatekoari xedapen honetan jasotako irizpideak aplikatzearen ondorioz lortutakoa.

Ehun eta hamabigarren xedapen gehigarria. *Zorpetze autonomikoaren arloko 2021eko salbuespeneko araubidea.*

Bat. Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren 20.1 artikuluan aurreikusitako baimenen araubideari dagokionez, bai eta autonomia-erkidegoak finantzatzeko funtsa banatzeko ondorioetarako ere (hala nahi izanez gero, autonomia-erkidegoak funtsari atxiki ahal zaizkio), 2021ean, salbuespen moduan, apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren 17. artikuluko azken txostenaren ondorioei eutsiko zaie, zehazki, aurrekontu-egonkortasunari, zor publikoari eta gastu-arauari buruzko 2019ko ekitaldiko helburuen betetze-mailari buruz argitaratzen den azken txostenaren ondorioei, harik eta helburu berriak ezarri eta betetzen direla egiaztatzen den arte.

Bi. Estatuaren zorpetze-baimenak eta Ogasun Ministerioak ezarritako defizit publikoaren erreferentzia finantzatzeko beharrak estaltzeko finantzaketa-mekanismo gehigarrien kargura ezartzen diren esleipenak koherenteak izango dira horrekin, eta kontuan hartuko dira aurreko urtean osatutako aldeak, horrekin erkatuta.

Hiru. 2021ean, salbuespen moduan, COVID-19aren ondoriozko osasun-krisiak eragin dituen diren ezohiko inguruabar ekonomikoak direla-eta, urtebetetik gorako kreditu-

eragiketak hitzartu ahal izango dira, eta ez dira aplikatuko Autonomia Erkidegoak Finantzatzeko irailaren 22ko 8/1980 Lege Organikoaren 14. artikuluaen bigarren paragrafoan aurreikusitako murrizketak. Salbuespen horren mende hitzartzen diren eragiketak Estatuak baimendu beharko ditu, eta Estatuak erabakiko du xedapen honetan aurreikusitako inguruabarrak betetzen diren ala ez. Baimen hori atalka eta mailaka eman ahal izango da.

Lau. 2021ean, salbuespen moduan, autonomia-erkidegoei zorpetze garbia handitzeko baimena eman ahal izango zaie ekitaldia ixtean, Kohesiorako eta Europako Lurraldeetarako Susperraldirako Laguntza (REACT-UE) azkar hedatzeko eta gauzatzeko beharrezkoak diren baliabideen denbora-desfaseak estaltzeko. Kasu horietan REACT-UE laguntza antolatzen duen eskualdeko programa operatiboari dagozkion gastuen ziurtagiriaren bidez lortutako baliabideak zorra amortizatzeko erabili beharko dituzte autonomia-erkidegoek, helburu horretarako zorpetzearen baliokidea den zenbatekoan. REACT-UE baliabide gehigarriak artikulatzen dituzten Programa Operatiboak ixtean, zorpetze garbiaren maila murriztu beharko da, xede horretarako zor-eragiketen gainerako zenbatekoarekiko.

Bost. Beraren foru-araubidearen arabera, xedapen honetan adierazitakoa Euskal Autonomia Erkidegoan aplikatzeak ez dio kalterik egingo Ekonomia Itunari buruzko Legean xedatutakoari, eta Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoan horri buruz hartutako erabakiekin bat etorritik.

Ehun eta hamahirugarren xedapen gehigarria. *Kataluniako polizia autonomikoaren finantzaketa berrikusia behin betiko integratzea Kataluniako Autonomia Erkidegoko Finantzaketa Sistema Autonomikoaren Nahikotasun Funtsean.*

Bat. 2021eko ekitaldian, Ekonomia eta Zerga Gaietarako Estatuaren eta Kataluniako Generalitatearen arteko Batzorde Mistoaren 2009ko abenduaren 22ko Akordioan xedatutakoaren esparruan, Ogasun Ministerioak, ekitaldi horretan egin beharreko finantzaketa autonomikoaren sistema likidatu ondoren, Mossos d'Esquadra kidegoaren finantzaketaren berrikuspenaren zenbatekoa likidatuko du, Kataluniako Segurtasun Batzordeak ziurtatutako langile kopuruaren arabera, honako arau hauen arabera:

1.a Mossos d'Esquadra kidegoaren 2010., 2011., 2012. eta 2013. urteetarako berrikusitako behin betiko finantzaketari dagokion zenbatekoa zehazteko, Kataluniako Segurtasun Batzordeak 2017ko uztailaren 10ean ziurtatutako langile kopuruari buruz 2009ko abenduaren 22ko Akordioaren C) letran xedatutakoa aplikatuko da.

Mossos d'Esquadra kidegoaren finantzaketaren behin betiko balorazio berrikusia, urte horietako bakoitzerako horrela zehaztuta, 2007. oinarriko urtearen baldintzetan, balio horiei 2007. urtearen eta dagokion urtearen arteko behin betiko ITE indizea (Estatuaren diru-sarreraren indizea) aplikatzearen emaitza izango da.

2.a 2014., 2015., 2016., 2017. eta 2018. ekitaldietarako, Mossos d'Esquadra kidegoaren behin betiko finantzaketa berrikusiaren zenbatekoa honela kalkulatu da: 2007. oinarri-urtearen eta aipatutako ekitaldi horien arteko ITE indizea aplikatu behar zaio Mossos d'Esquadra kidegoaren finantzaketaren behin betiko balio berrikusiarri, 2007. urtearen baldintzetan, 2013. ekitaldiari buruzkoa, eta aurreko 1. arauari jarraituz.

3.a 2019., 2020. eta 2021. ekitaldietarako, Mossos d'Esquadra kidegoaren behin behineko finantzaketa berrikusiaren zenbatekoa honela kalkulatu da: 2007. oinarri-urtearen eta aipatutako ekitaldi horien arteko behin behineko ITE indizea aplikatu behar zaio Mossos d'Esquadra kidegoaren finantzaketaren behin betiko balio berrikusiarri, 2007. urtearen baldintzetan, 2013. ekitaldiari buruzkoa, eta aurreko 1. arauari jarraituz.

Bi. Mossos d'Esquadra kidegoaren finantzaketaren berrikuspenetik eratorritako aurreko ekitaldietako erregularizazioaren zenbateko osoa, 2010-2020 ekitaldiei dagokienez, eta eskumen ez-homogeneo gisa, honako zenbateko hauen arteko diferentzia da: batetik, aurreko Bat. ataleko 1. eta 2. erregelak aplikatzearen ondorioz berrikusitako zenbatekoak

eta 3. arauko 2019ko eta 2020ko ekitaldiei dagozkienak, eta, bestetik, Kataluniako Generalitateak Mossos d'Esquadra kidegoaren finantzaketaren kontzeptuan benetan jasotako balioak, Kataluniako Autonomia Erkidegoari 2010etik 2020ra bitarteko ekitaldietan aplikatu beharreko finantzaketa-sistemaren likidaziopeko baliabideen bidez.

Zenbateko horren erregularizazioa «Kataluniako Autonomia Erkidegoari, Mossos d'Esquadra kidegoaren finantzaketa berrikusia erregularizatzeko, aurreko ekitaldiak barne» 38.02.941M.452 aurrekontu-kredituaren kontura egingo da. Lehenengo urtekoa, 2021eko ekitaldiari egotz dakiokena, 336.332,10 mila eurokoa izango da, eta geratzen den saldoa bi urteko berdinetan banatuko da hurrengo bi ekitaldietan.

Hiru. Mossos d'Esquadra kidegoaren finantzaketa berrikusitik eratorritako 2021eko ekitaldiko behin-behineko erregularizazioaren zenbatekoa, eskumen ez-homogeneo gisa, ekitaldi horri buruzkoa, honako zenbateko hauen arteko diferentzia da: aurreko Bat atalaren 3. araua aplikatzearen ondorioz lortzen den 2021 ekitaldiko behin-behineko zenbateko berrikusiaren eta Kataluniako Generalitateak urte horretako Mossos d'Esquadra kidegoaren finantzaketagatiko Nahikotasun Funtsean konturako ekarpen gisa jaso beharreko zenbatekoaren arteko aldea, hargatik eragotzi gabe hurrengo Lau apartatuan xedatutakoa.

Zenbateko horren erregularizazioa «Kataluniako Autonomia Erkidegoari, Mossos d'Esquadra kidegoaren finantzaketa berrikusia erregularizatzeko, aurreko ekitaldiak barne» 38.02.941M.452 aurrekontu-kredituaren kontura egingo da, eta zenbateko osoa, 115.773,97 mila eurokoa, 2021ean ordainduko da.

Lau. Mossos d'Esquadra kidegoaren finantzaketa berrikusitik eratorritako behin betiko erregularizazioa, eskumen ez homogeneo gisa, 2019., 2020. eta 2021. ekitaldietakoa, honela kalkulatu da:

1.a 2019., 2020. eta 2021. ekitaldietarako, Mossos d'Esquadra kidegoaren behin betiko finantzaketa berrikusiaren zenbatekoa honela kalkulatu da: 2007. oinarri-urtearen eta aipatutako ekitaldi horien arteko ITE indizea aplikatu behar zaio Mossos d'Esquadra kidegoaren finantzaketaren behin betiko balio berrikusiarri, 2007. urtearen baldintzetan, 2013. ekitaldiari buruzkoa, eta Bat. apartatuko 1. arauari jarraituz.

2.a 2019., 2020. eta 2021. ekitaldietarako, Mossos d'Esquadra kidegoaren finantzaketaren likidazio berrikusiaren zenbatekoa hauxe izango da: apartatu honetako 1. arauaren arabera kalkulatu den ekitaldi horietako behin betiko finantzaketa berrikusiaren zenbatekoaren eta Bat.apartatuaren 3. arauaren arabera kalkulatu den behin-behineko finantzaketaren zenbatekoaren artekoa.

3.a Behin 2019., 2020. eta 2021. urteetako finantzaketa autonomikoko sistemaren behin betiko likidazioa eginda, 2021., 2022. eta 2023. urteetan, hurrenez hurren, Mossos d'Esquadra kidegoaren finantzaketaren likidazio-balioak behin betiko erregularizatu dira. Ekitaldi bakoitzean, erregularizazioaren zenbatekoa honako hauen arteko diferentzia izango da: apartatu honetako 2. arauaren arabera kalkulatu den likidazio berrikusiaren zenbatekoaren eta Mossos d'Esquadra kidegoaren finantzaketaren kontzeptuan ekitaldi bakoitzari dagokion finantzaketa-sistema autonomikoaren behin betiko likidazioaren zenbatekoaren artekoa.

Hala dagokionean, behin betiko erregularizazioetatik eratorritako Estatuaren aldeko saldoak egotziko zaizkio Ogasun Ministerioak zehazten duen Estatuaren Aurrekontu Orokorraren diru-sarreraren kontzeptuari, eta dagokion deskontua aplikatu da Estatuak Kataluniako Generalitateari egin beharreko ordainketetan, xedapen gehigarri honen Bi apartatuan xedatutakoaren arabera, edo erkidegoan aplikatu beharreko finantzaketa-sistemako beste edozein baliabideren bidez.

Bost. 2022. ekitaldirako eta hurrengoetarako, Mossos d'Esquadra kidegoaren finantzaketaren balio berrikusia Kataluniako Nahikotasun Funtsean erabat integratuta egongo da, eta Mossos d'Esquadra kidegoaren 2007. oinarriko urteko finantzaketaren behin betiko balio berrikusitzat hartuko da Mossos d'Esquadra kidegoaren 2013ko ekitaldiko baina 2007. oinarriko urtearen baldintzen arabera finantzaketaren behin betiko balio berrikusia. Hori kuantifikatzeko eta kontuan eman duen eta behin betiko likidatu

den kontzeptu gisan ordaintzeko, abenduaren 18ko 22/2009 Legean Nahikotasun Funtserako ezarri diren arauei jarraituko zaie (22/2009 Legeak araubide erkideko autonomia-erkidegoen eta autonomia-estatutua duten hirien finantzaketa-sistema arautzen du, eta zerga-arau batzuk aldatzen ditu).

Sei. Artikulu honen ondorioetarako, n ekitaldiko ITE indizea hauxe izango da: araubide erkideko autonomia-erkidegoen finantzaketa-sistemaren dagokion ekitaldiko Nahikotasun Funtseraren konturako emateak edo behin betiko likidazioa zehazterakoan aplikatutako ITE indizearen balioa, abenduaren 18ko 22/2009 Legearen 20. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Zazpi. Ehun eta hamahirugarren xedapen gehigarri honetan xedatutakoa betearazteko, Estatuaren Aurreko Orokorretako 38. atalean «Kataluniako Autonomia Erkidegoari, Mossos d'Esquadra kidegoaren finantzaketa berrikusia erregularizatzeko, aurreko ekitaldiak barne» 38.02.941M.452 aurrekontu-kreditua ezartzen da. Kreditu zabalgarritzat hartuko da Aurrekontuen Lege Orokorrean xedatutakoaren ondorioetarako.

Ehun eta hamalagarren xedapen gehigarria. *Madrilgo, Bartzelonako, Valentziako eta Kanarietako bidaiarien garraio publiko erregularra finantzatzera zuzendutako dirulaguntza izendunak emateko modua arautzea.*

Bat. 2021eko ekitaldirako, Madrilgo Garraioen Eskualde Partzuergoari, Barcelona-Autoritat del Transport Metropolità/Bartzelonako Garraio Metropolitanoaren Agintaritzari, Autoritat de Transport Metropolità de València/Valentziako Garraio Metropolitanoaren Agintaritzari eta Kanarietako Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoari zuzendutako dirulaguntza izendunak, Estatuko Administrazio Orokorrek eman beharrekoak, Garraioetako, Mugikortasuneko eta Hiri Agendako eta Hiri Agendaren Estatu Idazkaritzaren bidez emango dira; guztia ere, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 22.2.a) eta 28. artikuluetan xedatutakoaren babesean.

Bi. Estatuko Administrazio Orokorrek bidaiarien lurreko garraio publiko erregularren sistemaren beharrak finantzatzera bideratuko ditu dirulaguntza horiek, honako jardun-eremu hauetan:

- Madril: Madrilgo Garraio Publiko Erregularren Eskualde Partzuergoa sortzeko maiatzaren 16ko 5/1985 Legean zehaztutako esparrua.
- Bartzelona: Barcelona-Autoritat del Transport Metropolità/Bartzelonako Garraio Metropolitanoaren Agintaritzako estatutuetako 1. artikuluan zehaztutako eremua.
- Kanariak: Kanarietako Autonomia Erkidegoaren eremua.
- Valentzia: Valencia-Autoritat de Transport Metropolità/Valentziako Garraio Metropolitanoaren Agintaritzaren jardun-eremua, araudi arautzailearekin bat etorrira.

Hiru. Ordain-aginduak honako aurrekontu-aplikazio hauen kontura egingo dira, eta honako zenbateko hauetan:

- Madril: 17.39.441M.454 «Madrilgo Garraioen Eskualde Partzuergoari, bidaiarien garraio erregularra finantzatzeko», 126.894,00 mila euro.
- Bartzelona: 17.39.441M.451 «Bartzelonako Garraio Metropolitanoaren Agintaritzari, bidaiarien garraio erregularra finantzatzeko», 149.301,52 mila euro.
- Valentzia: 17.39.441M.458 «Bartzelonako Garraio Metropolitarren Agintaritzari, bidaiarien garraio erregularra finantzatzeko», 38.000,00 mila euro.
- Kanariak: 17.39.441M.453 «Kanarietako Autonomia Erkidegoari, Kanarietako uharteetako bidaiarien garraio erregularrari dagozkion beharrak finantzatzeko», 47.500,00 mila euro.

Lau. Dirulaguntza, 2021eko urtarriletik ekainera arte, hileroko ordainketa aurreraturen bidez emango da (martxoan eta ekainean egingo dira); hiruhileko ordainketa horiek aurrekontu-konfirmazioaren laurdenaren baliokideko zenbatekoa izango dute.

2021eko uztailetik aurrera, egiteko dagoen dirulaguntzaren ordainketa egin aurretik honako hauek hartuko dira kontuan: Bost zenbakian adierazitako likidazioa eta 2021eko

lehen seihilekoari dagozkion ordainketa aurreratuen moduan emandako zenbatekoak, hiruileko ondoz ondoko bi ordain-aginduren bidez (irailean eta abenduan egingo dira, zenbateko bera ezarrita).

Bost. 2021eko uztailaren 15a baino lehen, Hiru apartatuan adierazitako hartzaileek honako ziurtagiri hauek igorriko dizkiote Lurreko Garraioaren Zuzendaritza Nagusiari:

– Madril:

A) Madrilgo Autonomia Erkidegoaren ziurtagiria, 2021eko ekainaren 30a arte Madrilgo Garraio Publiko Erregularren Eskualde Partzuergoari 2020ko ekitaldiko aurrekontuen kontura aitortutako betebeharren eta egindako ordainketa materialen gainekoa.

B) Madrilgo Udalaren ziurtagiria, 2021eko ekainaren 30a arte Madrilgo Garraio Publiko Erregularren Eskualde Partzuergoari 2020ko ekitaldiko aurrekontuen kontura aitortutako betebeharren eta egindako ordainketa materialen gainekoa.

Bi administrazioek egindako ordainketen batura aitortutako betebeharren zenbateko berekoa izanez gero, 2021eko ekitaldiko Estatuaren Aurrekontu Orokorretan kontsignatutako ekarpena behin betiko bihurtuko da, eta ordain-agindua emango da, Lau zenbakiaren bigarren apartatuan adierazitakoaren arabera.

Bi administrazioek egindako ordainketen batura aitortutako betebeharren zenbatekoa baino txikiagoa izanez gero, Estatu Administrazio Orokorren behin betiko ekarpena eragiketa honen bidez kalkulatu da: 2021eko ekitaldiko Estatuaren Aurrekontu Orokorretan kontsignatua zati aitortutako betebeharrak egitean ateratako emaitzaz (biak 2020ko aurrekontuen kontura), eta horren ordain-agindua egingo da lau zenbakiaren bigarren paragrafoan adierazitakoaren arabera; betiere, ateratzen den zenbatekoa egindako ordainketa aurreratuen batura baino handiagoa bada. Bestela, zenbatekoa zehaztu, eta itzultzeko eskatuko da.

– Bartzelona:

A) Generalitat de Catalunya-Kataluniako Generalitatearen ziurtagiria, 2021eko ekainaren 30a arte Autoritat del Transport Metropolità-Bartzelonako Garraio Metropolitanoaren Agintaritzari 2020ko ekitaldiko aurrekontuen kontura aitortutako betebeharren eta egindako ordainketa materialen gainekoa.

B) Bartzelonako Udalaren ziurtagiria, 2021eko ekainaren 30a arte Autoritat del Transport Metropolità-Bartzelonako Garraio Metropolitanoaren Agintaritzari 2020ko ekitaldiko aurrekontuen kontura aitortutako betebeharren eta egindako ordainketa materialen gainekoa.

Bi administrazioek egindako ordainketen batura aitortutako betebeharren zenbateko berekoa izanez gero, 2021eko ekitaldiko Estatuaren Aurrekontu Orokorretan kontsignatutako ekarpena behin betiko bihurtuko da, eta ordain-agindua emango da, Lau zenbakiaren bigarren apartatuan adierazitakoaren arabera.

Bi administrazioek egindako ordainketen batura aitortutako betebeharren zenbatekoa baino txikiagoa izanez gero, Estatu Administrazio Orokorren behin betiko ekarpena eragiketa honen bidez kalkulatu da: 2021eko ekitaldiko Estatuaren Aurrekontu Orokorretan kontsignatua zati aitortutako betebeharrak egitean ateratako emaitzaz (biak 2020ko aurrekontuen kontura), eta horren ordain-agindua egingo da lau zenbakiaren bigarren paragrafoan adierazitakoaren arabera; betiere, ateratzen den zenbatekoa egindako ordainketa aurreratuen batura baino handiagoa bada. Bestela, zenbatekoa zehaztu, eta itzultzeko eskatuko da.

– Kanariak:

Kanarietako Autonomia Erkidegoko Kontu-hartzailetza Nagusiaren ziurtagiria, 2021eko ekainaren 30a arte 2020ko ekitaldiko aurrekontuen kontura uharteetako kabildoei

lehenengo oinarrian aurreikusitako xedeari erantzuteko aitortutako obligazioen eta egindako ordainketa materialen gainekoa.

Egindako ordainketen zenbatekoa aitortutako betebeharren zenbateko berekoa izanez gero, 2021erako Estatuaren Aurrekontu Orokorretan kontsignatutako ekarpena behin betiko bihurtuko da, eta ordain-agindua emango da, Lau apartatuaren bigarren paragrafoan adierazitakoaren arabera.

Egindako ordainketen batura txikiagoa izanez gero aitortutako betebeharren zenbatekoa baino, Estatu Administrazio Orokorren behin betiko ekarpena eragiketa honen bidez kalkulatu da: 2021erako Estatuaren Aurrekontu Orokorretan kontsignatua zati aitortutako betebeharrak egitean ateratako emaitzaz (biak 2020ko aurrekontuen kontura), eta horren ordain-agindua egingo da lau zenbakiaren bigarren paragrafoan adierazitakoaren arabera; betiere, ateratzen den zenbatekoa egindako ordainketa aurreratuena baino handiagoa bada. Bestela, zenbatekoa zehaztu, eta itzultzeko eskatuko da.

– Valentzia:

A) Generalitat Valenciana-Valentziako Generalitatearen ziurtagiria, 2021eko ekainaren 30a arte Autoritat del Transport Metropolità-Bartzelonako Garraio Metropolitanoaren Agintaritzari 2020ko ekitaldiko aurrekontuen kontura aitortutako betebeharren eta egindako ordainketa materialen gainekoa.

B) Valentziako Udalaren ziurtagiria, 2021eko ekainaren 30a arte Autoritat del Transport Metropolità-Valentziako Garraio Metropolitanoaren Agintaritzari 2020ko ekitaldiko aurrekontuen kontura aitortutako betebeharren eta egindako ordainketa materialen gainekoa.

Bi administrazioek egindako ordainketen batura aitortutako betebeharren zenbateko berekoa izanez gero, 2021eko ekitaldiko Estatuaren Aurrekontu Orokorretan kontsignatutako ekarpena behin betiko bihurtuko da, eta ordain-agindua emango da, Lau zenbakiaren bigarren apartatuan adierazitakoaren arabera.

Bi administrazioek egindako ordainketen batura aitortutako betebeharren zenbatekoa baino txikiagoa izanez gero, Estatu Administrazio Orokorren behin betiko ekarpena eragiketa honen bidez kalkulatu da: 2021eko ekitaldiko Estatuaren Aurrekontu Orokorretan kontsignatua zati aitortutako betebeharrak egitean ateratako emaitzaz (biak 2020ko aurrekontuen kontura), eta horren ordain-agindua egingo da lau zenbakiaren bigarren paragrafoan adierazitakoaren arabera; betiere, ateratzen den zenbatekoa egindako ordainketa aurreratuena baino handiagoa bada. Bestela, zenbatekoa zehaztu, eta itzultzeko eskatuko da.

Sei. Estatu Administrazio Orokorrek emandako dirulaguntza horiek bateragarriak dira helburu bera duten beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideekin, horrelakoak edozein Administrazio edo erakunde publiko zein pribatuk emanda ere, izan Estatuak, Europar Batasunekoak edo nazioarteko organismoenak.

Zazpi. Estatu Administrazio Orokorrek egin beharreko ordainketa aurreratuak aseguratzeko, ez da berme, abal edo kuziorik aurkeztu beharrik izango.

Zortzi. Aurreko zenbakietan aurreikusi gabeko guztian, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean eta garatzeko araudian xedatutakoa aplikatuko da.

Bederatzi. Lurreko Garraioaren Zuzendaritza Nagusiko titularrak neurri egokiak hartuko ditu xedapen honetan dirulaguntza hauei dagozkien kredituen kudeaketari dagokionez adierazitakoa betetzeko. Era berean, Lurreko Garraioaren Zuzendaritza Nagusiko titularrak eskumena du Lau apartatuan ezarritakoa betetzearen ondoriozko baimenak, konpromisoak, betebeharren aitopenak eta ordainketa-proposamenak ebazteko, bai eta bidezkoak diren itzulketak eskatu eta ebazteko ere.

Ehun eta hamabosgarren xedapen gehigarria. *Hiri-garraio kolektiboaren zerbitzua dela eta, toki-erakundeei eman behar zaizkien dirulaguntzak.*

Bat. Martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateginaren bosgarren xedapen gehigarrian betetze aldera, 51.054,74 mila euroko kreditu bat jasota dago: «Garraioetako, Mugikortasuneko eta Hiri Agendako Ministerioa» 17. atalean, «Lurreko Garraioaren Zuzendaritza Nagusia» 39. zerbitzuan, «Lurreko garraioari dirulaguntzak eta laguntza» 441M programa, 462 kontzeptuan. Kredituaren xedea toki-erakundeek ematen dituzten hiri-garraio kolektiboaren zerbitzua diruz laguntzea da, baldin eta hurrengo apartatuan ezarritako betekizunak betetzen badira.

Bi. Kredituaren banaketan, hiri barruko garraio kolektibo publikoaren zerbitzua duten udalek hartu ahal izango dute parte, zerbitzu hori kudeatzeko modua edozein izanik ere, baldin eta honako baldintza hauek betetzen badituzte:

a) Mugikortasun Jasangarriko Plan bat edukitzea, Mugikortasun Jasangarriko Espainiako Estrategiarekin koherentea dena, bat etorritzat Ekonomia Jasangarriari buruzko martxoaren 4ko 2/2011 Legearen 102. artikuluan xedatutakoarekin («Mugikortasun jasangarriko planak sustatzea»), 2012rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren ekainaren 29ko 2/2012 Legearen azken xedapenetako hogeita hamaikagarrenak emandako idazketan.

b) Zuzenbidezko 50.000 biztanletik gora izatea; horretarako, 2020ko urtarrilaren 1ean indarrean zegoen udal-errola hartuko da kontuan, Gobernuak ofizialki onartutakoa.

c) Zuzenbidezko 20.000 biztanletik gora izatea, horretarako, 2020ko urtarrilaren 1ean indarrean zegoen udal-errola hartuko da kontuan, Gobernuak ofizialki onartutakoa, eta aldi berean aipatutako data horretan hiri-ondasun higiezinaren katastroan erroldatutako hiri-unitateak 36.000 baino gehiago izatea.

d) Aurreko b) eta c) letretan jasotako baldintzetakoren bat bete ez arren, probintziako hiriburu izatea.

e) Salbuespen izango dira, aurreko baldintzak bete arren, barne hiri-garraio publikoaren zerbitzua finantzatzeko beste sistema batean parte hartzen duten udalerrak, baldin eta, sistema horretan, Estatuko Administrazio Orokorrek finantzaketa ematen badu. Salbuespen hori aplikatzekoa izango da Kanarietako, Madrilgo Garraioen Eskualde Partzurgoko eta Bartzelonako Garraio Metropolitanoaren Agintaritzako eta Valentziako Garraio Metropolitanoaren Agintaritzako lurralde-esparruetan.

Hiru. Kontzeptu beraren epai judizial irmoei dagozkien ordainketa-betebeharrak ordaindu ostean, aurrekontu-zuzkidura honako irizpide hauen arabera banatuko da – irizpide horiek artikuluko honen Sei zenbakian aipatzen den eredutik ondorioztatzen diren kudeaketa ekonomiko eta finantzarioko datuak aintzat hartuta aplikatuko dira–:

A. Kredituaren ehuneko 5, udal-sareko joaneko bidearen luzeraren arabera, eta kilometrotan adierazita. Joan-etorriko ibilbiderik ez duten linea zirkularren kasuan, erdia hartuko da kontuan.

B. Kredituaren ehuneko 5, udalerrri bakoitzeko bidaiarien eta zuzenbidezko biztanle kopuruaren arabera, kopuru hori zati 50.000 eginez lortutakoaren arabera haztatuta. Zuzenbidezko biztanle horien kopurua 2020ko urtarrilaren 1ean indarrean dagoen eta Gobernuak ofizialki onartu duen biztanleen udal-errolan jasotako biztanleena izango da.

C. Kredituaren ehuneko 5 ingurumen-irizpideen arabera, Klima Aldaketaren eta Energia Garbiaren Espainiako Estrategia aplikatzeko Presazko Neurrien Planak aurreikusten duena betetzeko; planaren arabera, hiri-garraio publikoari dirulaguntzak emateko, efizientzia energetikoaren irizpideak hartuko dira kontuan. Neurri hori Energia, Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioak IDAEn bidez gauzatutako Energia Aurrezteko eta Eraginkortasunerako Ekintza Planean zehaztuta dago, eta garraio publikoaren sistemei aplikatutako energia-efizientzia balioesteko mekanismo

bat ezartzean datza, aurrerapausoak homogeneousunez ebaluatzeko, eta laguntzak banatzeko orduan aintzat hartzeko.

Aurretik aipatutako ehunekoa ingurumen-irizpideak betetzeko orduan lortutako puntuazioaren arabera banatuko da –2020ko ekitaldiari dagokionez–; honako koadro honetan jasotakoak izango dira horiek:

Biztanle-kopuru handiko udalerriak		Gainerako udalerriak		Gehieneko puntuazioa
Irizpideak	Betetze-maila	Irizpideak	Betetze-maila	
GNC/GLP/BIOERREGAIA duten hiri-autobusen ehunekoa.	> % 20	GNC/GLP/BIOERREGAIA duten hiri-autobusen ehunekoa.	> % 5	20
Guztira izandako bidaiari kopuruaren igoera, aurreko urtearekin alderatuta.	> % 1	Guztira izandako bidaiari kopuruaren igoera, aurreko urtearekin alderatuta.	BAI/EZ	15
Garraio publikoan eskainitako lekuak-km: aurreko hiru urteetako batez bestekoarekiko izandako gehikuntza.	> % 1	Garraio publikoan eskainitako lekuak-km: aurreko urtearekiko izandako gehikuntza.	BAI/EZ	15
Autobus-flotan ibilgailu elektrikoak edo hibridoak daude.	BAI/EZ	Autobus-flotan ibilgailu elektrikoak edo hibridoak daude.	BAI/EZ	10
Mugikortasun urriko pertsonentzat prestatutako autobusen ehunekoa	> % 50	Mugikortasun urriko pertsonentzat prestatutako autobusen ehunekoa	> % 20	10
Hiriko autobus-lineen dentsitatea (km/1.000 bizit)	> 2	Hiriko autobus-lineen dentsitatea (km/1.000 bizit)	> 1	10
Garraio publikoan egindako bidaien kopuruaren hazkundea, aurreko hiru urteetako batez bestekoarekiko izandako hazkundea.	> % 1	Garraio publikoan egindako bidaien kopuruak aurreko urtearekiko izandako gehikuntza.	BAI/EZ	5
Bidegorri-sarea: bidegorri km bakoitzeko biztanleen kopurua.	< 8.000	Bidegorri-sarea: bidegorri km bakoitzeko biztanleen kopurua.	< 6.000	3
Autobus-erreiaren luzera (sarearen luzera osoarekiko ehunekoa).	> % 2	Autobus-erreiak daude.	BAI/EZ	3
Modu efizientean gidatzeko prestakuntza jaso duten hiri-autobusetako gidarien ehunekoa (%).	> % 20	Modu efizientean gidatzeko prestakuntza jaso duten hiri-autobusetako gidarien ehunekoa (%).	> % 15	3
Autobusen etorrera denbora errealean adierazten duten geltokiak (geltoki guztien gaineko ehunekoa).	> % 3	Autobusen etorrera denbora errealean adierazten duten geltokiak (geltoki guztien gaineko ehunekoa).	> % 3	3
Flotak efizientzia energetikoko irizpideekin kudeatzeko gaikuntza duten pertsonak (trebatutako pertsonen kopurua/100 ibilgailu).	> 1	Flotak efizientzia energetikoko irizpideekin kudeatzeko gaikuntza duten pertsonak (trebatutako pertsonen kopurua/100 ibilgailu).	BAI/EZ	3
Guztira				100

D. Kredituaren ehuneko 85, emandako garraio-tituluaren batez besteko defizitaren arabera, honako prozedura hau betez:

a) Udallerri bakoitzari eman beharreko dirulaguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko, garraio-tituluen kopurua titulu horietako bakoitzari dagokion dirulaguntzarekin biderkatuko da.

b) Titulu bakoitzari dagokion dirulaguntza kalkulatzeko, tituluaren batez besteko defizitari honako eskala honetan zehaztutako zenbatekoak eta ehunekoak aplikatuko zaizkio:

1. tartea: garraio-titulu bakoitzeko batez besteko defizitaren zenbatekoa, udalerrri bakoitzari dagokiona, batez besteko defizit osoaren ehuneko 12,5 baino handiagoa ez bada, ehuneko 100ean ordainduko da.

2. tartea: garraio-titulu bakoitzeko batez besteko defizitaren zenbatekoa, udalerrri bakoitzari dagokiona, aurreko tartea baino handiagoa bada eta batez besteko defizit osoaren ehuneko 25 gainditzen ez badu, ehuneko 55ean ordainduko da.

3. tartea: garraio-titulu bakoitzeko batez besteko defizitaren zenbatekoa, udalerrri bakoitzari dagokiona, aurreko tartea baino handiagoa bada eta batez besteko defizit osoaren ehuneko 50 gainditzen ez badu, ehuneko 27an ordainduko da.

4. tartea: garraio-titulu bakoitzeko batez besteko defizitaren zenbatekoa, udalerrri bakoitzari dagokiona, aurreko tartea baino handiagoa bada eta batez besteko defizit osoaren ehuneko 100 gainditzen ez badu, honako eragiketa hau eginez zehaztuko den ehunekoan lagunduko da diruz: aurreko tarteei esleitu ez zaien kredituaren gainerakoa zati tarte honetako defizitaren zenbatekoa, dirulaguntza jasotzeko eskubidea duten udalerrri guztiak aintzat hartuz.

5. tartea: garraio-titulu bakoitzeko batez besteko defizitaren zenbatekoa, udalerrri bakoitzari dagokiona, batez besteko defizit osoa baino handiagoa bada, ez da diruz lagunduko.

Eskalako 4. tarteko finantzaketaren ehunekoa ez da 27 baino handiagoa izango. Murrizketa horren ondorioz kreditu-soberakin egonez gero, aplikatzeak soberakin hori udalerrri bakoitzak 2. eta 3. tarteen arabera eskuratutako finantzaketaren proportzio berean banatuko da.

Arau horietan zehaztutakoa betez ematen den dirulaguntza ezin izango da, oro har, xedagarri dagoen kredituaren ehuneko 85etik gorakoa izan. Egoera hori sortuko balitz, 3. eta 2. tarteen ehunekoa beharrezkoa den proportzioan doitu beharko da, eta, hala dagokionean, baita 1. tartekoa ere, 4. tartean xedatutakoa betez; hori guztia, kreditua agortu arte.

c) Udalerrri bakoitzaren batez besteko defizita kalkulatzeko, ustiapen-defizita garraio-tituluen kopuruarekin zatituko da. Batez besteko defizit osoa, berriz, honela kalkulatu da: dirulaguntza jasotzeko eskubidea duten udalerrri guztien defizitaren batura zati udalerrri horietan guztira dauden garraio-tituluak.

d) Titulu bakoitzeko jaso beharreko dirulaguntzaren zenbatekoa tarte bakoitzean diruz lagundu beharreko zenbatekoaren batura izango da. Tarte bakoitzari dagokion zenbatekoa honela kalkulatu da: batez besteko defizitari dagokion tarte bakoitzean dagoen zatia bider tarte horri dagokion finantzaketaren ehunekoaz.

Ustiapen-defizita garraio publikoaren zerbitzua ematen duten enpresa edo erakundeen galera eta irabazien kontuetan oinarritzen diren ustiapen-galeren zenbatekoaren arabera izango da. Kontu horiek Kontabilitate Planaren arabera egingo dira, kasu bakoitzean aplikatu beharreko kontabilitate-arau eta -printzipioen arabera, honako doikuntza hauek eginez:

a') Ustiapen-gastuen kasuan, tributuei dagozkienak baztertu egingo dira, tributuerlazio juridikoaren subjektu aktiboa edozein dela ere.

b') Ustiapeneko gastuei eta diru-sarrerei dagokienez, baztertu egingo dira jatorria dirulaguntzaren xede den hiriko garraio publikoaz bestelako zerbitzuetan edo jardueretan dutenak. Baztertu egingo dira, halaber, hiri-garraio publikoaren zerbitzua ematen duen enpresa edo erakundeari bertako udalak emandako dirulaguntzak eta ekarpenak.

c') Letra honi dagokion finantzaketa kalkulatzeko, defizitari kendu egingo zaizkio errepede-sarearen luzera, bidaiariak/zuzenbidezko biztanleria erlazioa eta ingurumen-irizpideak aintzat hartuta dirulaguntza gisa emandako zenbatekoak.

Lau. Dirulaguntzak zerbitzu hau ematea finantzatzera bideratu beharko dira.

Bost. Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako udalei dagokien dirulaguntza zuzendu egingo da, Estatuaren tributuetan duten partaidetzaren proportzio berean.

Sei. Hiri barruko garraio kolektibo publikoaren zerbitzuak diruz laguntzeko kreditua banatu ahal izateko, toki-erakundeek honako dokumentazio hau aurkeztu beharko dute 2021eko maiatzaren 1etik ekainaren 30era bitartean, Garraioetako, Mugikortasuneko eta Hiri Agendako Ministerioko organo eskudunek xedatutako moduan:

1. Kasu guztietan, joaneko bideko errepide-sarearen kilometro kopurua, urteko bidaiari kopurua, urtean eskainitako leku kopurua, eta 2020ko ekitaldian bildutako dirua eta batez besteko prezioak. Hori guztia Lurreko Garraioaren Zuzendaritza Nagusiak prestatutako ereduaren arabera aurkeztu beharko da.

2. Zerbitzua erakundeak berak edo mendeko organismo autonomoak zuzeneko kudeaketaren bidez ematen badu, garraio-zerbitzuaren 2020ko ekitaldiko diru-sarreraren eta gastuen partiden dokumentu xehatua, bai eta defizitarena edo emaitza errealarena ere. Hori guztia «Lurreko Garraioaren Zuzendaritza Nagusiak prestatutako ereduaren arabera aurkeztu beharko da.

3. Zerbitzua udaleko merkataritza-sozietate batek ematen badu, zuzeneko kudeaketaren bidez, edota enpresa edo partikular batek, emakida bidez edo zeharkako kudeaketako beste edozein aldaeraren bidez, urteko kontuak eta kontu-ikuskaritzaren txostena erantsiko zaizkio.

Halaber, administratzaileek dokumentu bat prestatu beharko dute, alderdi hauek zehazten dituenak: garraio-zerbitzuak 2020ko ekitaldian izandako diru-sarreraren eta gastuen partidak, defizitaren edo emaitza errealaren partidak, eta aipatutako diru-sarrerak eta gastuak egozteko irizpideak. Hori guztia «Lurreko Garraioaren Zuzendaritza Nagusiak prestatutako ereduaren arabera aurkeztu beharko da.

Auditore batek aztertu beharko du aipatutako dokumentua (garraio-zerbitzuak 2020ko ekitaldian izandako diru-sarreraren eta gastuen partidak, defizitaren edo emaitza errealaren partidak, eta aipatutako diru-sarrerak eta gastuak egozteko irizpideak jasotzen dituenak). Dokumentua auditoretza eginda dagoela ulertuko da bertan jasotako informazioa Urteko Kontuen Memorian bilduta badago, eta kontu horien auditoretza jada egin bada.

4. Kasu guztietan, jardueraren finantza-baldintzak arautzen dituzten akordio eguneratuak biltzen dituen dokumentu ofiziala.

5. Kasu guztietan, bai dirulaguntza eskatu duen udalak, bai zerbitzua ematen duen enpresa, organismo edo erakundeak tributu-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituztela frogatzen duen egiaztagiria.

6. Kontu-hartzailearen ziurtagiria, aurreko ekitaldian hiri-garraio kolektiborako dirulaguntza gisa jasotako zenbatekoa 2018rako Estatuaren Aurrekontu Orokorrei buruzko uztailaren 3ko 6/2018 Legeak 119. artikulua Lau apartatuan xedatutako helburuari egokitzen zaiola adierazten duena. Aurrekontu horiek 2020a arte luzatu ziren.

7. Udal-idazkariaren ziurtagiria, ingurumen-irizpideak betetzeari buruzkoa.

8. Udal-idazkariaren ziurtagiria, adierazten duena udalerriak Mugikortasun Jasangarrirako Plan bat daukala, eta plan hori Mugikortasun Jasangarrirako Espainiako Estrategiarekin koherentea dela. Ziurtagiri horretan, espresuki zehaztu beharko du noiz jaso zuen udal-planak behin betiko onespena; data horrek eskaera aurkezteko epea amaitu baino lehenagokoa beharko du izan.

Dokumentazioa artikulua honetan xedatutako moduan igortzen ez duten udalei ez zaie aitortuko bidaiarien garraio kolektibo publikoaren zerbitzua finantzatzeko laguntza jasotzeko eskubidea; batetik, interes orokorragatik, eta, bestetik, gainerako hartzaileei finantza-kalterik ez eragitearren.

Ehun eta hamaseigarren xedapen gehigarria. *Toki-erakundeentzako konpentsazioak.*

1988ko abenduaren 1ean sinatutako eta indarreko Ameriketako Estatu Batuekiko Defentsarako Lankidetzaren Hitzarmenean ezarritako zerga-onurak aplikatzearen ondorioz

2021ean barkatzekoak diren kuoten konpentsazio gehigarria egingo da, trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergan, honako kreditu hauen kontura: 37. atala, 02. zerbitzua, Autonomia Erkidegoen eta Toki Erakundeen Finantzaketarako Idazkaritza Nagusia. Toki-erakundeak, 942N programa, 461 kontzeptua. Konpentsazio hori emango zaie 5.000 biztanle baino gehiago eta 50 000 biztanle baino gutxiago dituzten udalerriei, neurri hori aplikagarria denean. Horrez gain, xedapen honetan araututako konpentsazioa honako udalerrri hauek ere hartuko dute: udalerrri horien mugakideak izanik, zuzenbidezko biztanleria 20.000 biztanletik gorakoa eta 50.000 biztanletik beherakoa badute, eta udalerrian indar eta base militarrek edo instalazio militarrek badituzte, 1988. urtearen ondoren sinatutako hitzarmena zuzentzeko protokoloak aplikatuta.

Kompentsazio horren zenbatekoa, guztira, bi milioi eurokoa da. Aurreko paragrafoan jasotako baldintzak betetzen dituzten udalerrien artean banatuko da, Ogasuneko Estatu Idazkaritzaren ebazpen bidez ezartzen den irizpidearen arabera. Ordainketa bakarrean transferituko da 2021ean, Autonomia Erkidegoen eta Toki Erakundeen Finantzaketarako Idazkaritza Nagusiak egingo ditu ordainketak, eta udalerrri bakoitzari esleituko dio konpentsazioa, irizpide horren arabera.

Ehun eta hamazazpigarren xedapen gehigarria. *Estatuko Administrazio Orokorrak bere gain hartzea 2007 Valentzia Partzuergoaren zorraren zati bat.*

Bat. Lege hau indarrean sartzen denetik aurrera, Estatuko Administrazio Orokorrak bere gain hartzen du Valencia 2007 Partzuergoak Kreditu Ofizialeko Institutuaren aurrean duen zorra, Kreditu Ofizialeko Institutuaren (KOI) eta Valentzia 2007 Partzuergoaren arteko 2005eko irailaren 6ko eskritura publikoaren arabera, 2007. urtean 32. Amerika Kopa egiteko azpiegituretan egindako inbertsioak finantzatzeko. Estatuko Administrazio Orokorra subrogatuta geratzen da eskritura publiko horren ondorioz Valentzia 2007 Partzuergoari dagozkion eskubide eta betebeharrak guztietan.

Halaber, barkatuta geratzen da Valencia 2007 Partzuergoak Altxor Publikoaren aurrean duen zorra, aurreko paragrafoan deskribatutako betebeharrak bermatzen duen abala gauzatzearen ondorioz. Barkamena eskatzen da abal hori betearaztearen ondorioz premiamendu-errekarguagatik, berandutza-interesengatik edo beste edozein izaerarengatik sortutako betebeharrak nagusi edo erantsietara, eta ondorio guztietarako azkenduko dira betebeharrak horiek.

Estatuko Administrazio Orokorrak –finantza gastuei dagokienez– Lege honek indarra hartu osteko edozein ordainketa-egunera arte sortutako interesen zenbateko osoa hartuko du bere gain, interes horietako zati bat egun hori baino lehen sortutakoa izan daitekeen arren.

Estatuko Administrazio Orokorrak bere gain hartutako finantza-zorraren kudeaketa Altxoraren eta Nazioarteko Finantzaketaren Idazkaritza Nagusiari dagokio, Estatuaren zorrerako orokorrean ezarritako prozeduren arabera.

Bi. Gobernuak dagozkion negoziazioak egingo ditu Valentziako Generalitatearekin eta Valentziako Udalarekin, gaur egun Valentzia 2007 Partzuergoak kudeatzen duen espazioaren kudeaketa egokia bermatzeko, honako kontsiderazio hauek kontuan hartuta:

1. Estatuko Administrazio Orokorrak bere estatutuetan eta sektore publikoaren araubide juridikoaren arloan indarrean dagoen araudian ezarritako moduan baliatuko du Valencia 2007 Partzuergotik bereizteko eskubidea.

2. Guneak ustiatzeko orduan, erabat errespetatu beharko dira gaur egun Estatuko Portuen eta Administrazio Publikoen ondarearen arloan indarrean dauden xedapenak.

3. Valencia 2007 Partzuergoak Valentziako Portuko Agintaritzarekin dituen zorren ordainketa bermatu behar da, zerga-araudian eta aplikatu beharreko gainerako arauetan xedatutakoaren arabera, haren izaeraren arabera.

4. Berrezartze-kostuei dagokien zorraren kasuan, Estatuak Valentzia 2007 Partzuergoari transferituko dio hark Valentziako Portu Agintaritzari 2021eko eta 2022ko ekitaldietan zor dizkion zenbatekoen zati bat.

2021eko ordaintze-agindua honako aurrekontu-aplikazio honetan zordunduko dira, 2021erako Estatuaren 2021eko Aurrekontu Orokorren zenbateko honekin: «Valentziako 2007 Partzuergoari, Valentziako Portuko Agintaritzari zor zaizkion berrezartze-kostuak ordaintzeko» 17.20.451N.748, eta 16.911.670,50 euroko zenbatekoa. 2022ko ordainketa-agindua horretarako onartzen den aurrekontu-aplikazio baliokidearen kontura egingo dira.

2021eko ekitaldiko lehen ordainketa-agindua lehen hiruhileko naturalean egingo da, hasierako kredituaren laurdena gainditzen ez duen zenbatekoan. Hurrengo ordainketa-agindua hiruhileko natural bakoitzaren lehen hamabostaldian egingo dira, hasierako kredituaren laurdena gehi, hala badagokio, aurreko hiruhilekoetan xedatu gabeko gerakina gainditzen ez duen zenbatekoan. Lehenengo ordainketa-agindua egiteko, dagokion ebazpena onartzea baino ez da beharko, eta transferentzia-izaera izango du. 2021. eta 2022. ekitaldietako bakoitzaren hurrengo ordainketa-agindua egiteko, aurrez Valentziako 2007 Partzuergoak justifikatu beharko du hark Valentziako Portu Agintaritzari behintzat alde zuzenetik jasotako transferentzien zenbatekoa ordaindu diola, apartatu honetan xedatutakoaren arabera.

Ehun eta hemezortzigarren xedapen gehigarria. *Andaluziako Enplegu Plana.*

2021. urtean, Estatu Enplegu Zerbitzu Publikoak 50 milioi euro jartzea Andaluziako Enplegu Plana finantzatzeko, enplegua areagotzeko neurriak hartze aldera. Finantza-ekarpen horrek dirulaguntza izendun izaera du; izan ere, Estatu Enplegu Zerbitzu Publikoaren aurrekontu-gastuen egoeran jasota dago.

Garatu behar diren neurri zehatzak eta plana gauzatzeko epea –2022ra ere luzatu ahal izango da –, bai eta Andaluziako Enplegu Planerako aipatutako 2021eko ekarpena ere, Estatu Enplegu Zerbitzu Publikoaren eta Andaluziako Autonomia Erkidegoaren arteko hitzarmen baten bidez bideratuko dira.

Ehun eta hemeretzigarren xedapen gehigarria. *Extremadurako Enplegu Plana*

2021. urtean, Estatu Enplegu Zerbitzu Publikoak 15 milioi euro jartzea Extremadurako Enplegu Plana finantzatzeko, enplegua areagotzeko neurriak hartze aldera. Finantza-ekarpen horrek dirulaguntza izendun izaera du; izan ere, Estatu Enplegu Zerbitzu Publikoaren aurrekontu-gastuen egoeran jasota dago.

Garatu behar diren neurri zehatzak eta plana gauzatzeko epea –2022ra ere luzatu ahal izango da–, bai eta Extremadurako Enplegu Planerako aipatutako 2021eko ekarpena ere, Estatu Administrazio Orokorren, Estatu Enplegu Zerbitzu Publikoaren eta Extremadurako Autonomia Erkidegoaren arteko hitzarmen baten bidez bideratuko dira.

Ehun eta hogeigarren xedapen gehigarria. *Estatu Enplegu Zerbitzu Publikoak Kanarietako Enplegu Plan Integralean finantza-ekarpena egitea, urriaren 23ko 3/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Enpleguari buruzko Legearen testu bateginaren hirugarren xedapen gehigarrian xedatutakoa aplikatuta.*

Urriaren 23ko 3/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Enpleguari buruzko Legearen testu bateginaren hirugarren xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera, Estatu Enplegu Zerbitzu Publikoak 2021. urtean, 42 milioi euro jarriko ditu Kanarietan Enplegu Plan Integrala finantzatzeko, enplegua areagotzeko neurriak hartze aldera. Finantza-ekarpen horrek dirulaguntza izendun izaera du; izan ere, Estatu Enplegu Zerbitzu Publikoaren aurrekontu-gastuen egoeran jasota dago.

Garatu behar diren neurri zehatzak eta plana gauzatzeko epea –2022ra ere luzatu ahal izango da–, bai eta Kanarietako Enplegu Plan Integralerako aipatutako 2021eko ekarpena ere, Estatu Enplegu Zerbitzu Publikoaren eta Kanarietako Autonomia Erkidegoaren arteko hitzarmen baten bidez bideratuko dira.

VII

Ehun eta hogeita batgarren xedapen gehigarria. *Askotariko ondorioak dituen adierazle publikoa (IPREM) 2021erako zehaztea.*

Lanbide arteko gutxieneko soldataren erregulazioa arrazionalizatzeko eta haren zenbatekoa areagotzeko ekainaren 25eko 3/2004 Errege Lege Dekretuaren 2.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, askotariko ondorioak dituen errentaren adierazle publikoak (IPREM) zenbateko hauek izango ditu 2021ean:

a) Eguneko IPREMak, 18,83 eurokoa.
b) Hileko IPREMak, 564,90 euro.
c) Urteko IPREMak, 6.778,80 euro.
d) Ekainaren 25eko 3/2004 Errege Lege Dekretuan ezarritakoari jarraikiz, lanbide arteko gutxieneko soldataren ordezkari IPREM erreferentzia ezarri den kasuetan, urteko IPREMaren zenbatekoa 7.908,60 eurokoa izango da arauak urte osoan lanbide arteko gutxieneko soldatari egiten diotenean erreferentzia, eta aparteko ordainsariak berariaz kanpo uzten ez badituzte; azken horiek berariaz kanpo utziz gero, zenbatekoa 6.778,80 eurokoa izango da.

Ehun eta hogeita bigarren xedapen gehigarria. *Aldizkako kontratu finkoak dauzkaten langileen jarduera-aldia luzatzen laguntzeko neurriak, turismo-sektorean eta turismo-jarduerari lotutako merkataritza- eta ostalaritza-sektoreetan.*

2021eko urtarrilaren 1etik aurrera eta indarraldi mugagabez ondoreak izanik, turismo-sektorean bildutako jardueretan aritzen diren enpresek, bai eta turismo-sektore horri lotutako merkataritza- eta ostalaritza-sektoreetakoek ere –sektore publikoko enpresak alde batera utzita– urte bakoitzeko otsailean, martxoan eta azaroan ekoizpen-jarduerarik sortzen badute, eta hilabete horietan altan hasi edota mantentzen badute aldizkako kontratu finkoak dituzten langileen okupazioa, ehuneko 50eko hobaria aplikatu ahal izango dute hilabete horietan langile horien gertakari arruntan Gizarte Segurantzako enpresa-kuotetan, bai eta langabezia, FOGASA eta lanbide-heziketaren baterako bilketaren kontzeptuen kuotetan ere.

Ehun eta hogeita hirugarren xedapen gehigarria. *Gizarte Segurantzako kotizazioko hoberiak, haurdunaldiko arriskua edo edoskialdi naturaleko arriskua izateagatik lanpostua aldatzean eta gaixotasun profesionala izatean.*

Lege hau indarrean jartzen denetik aurrera eta indarraldi mugagabez ondoreak izanik, Lan Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legearen 26. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, haurdunaldiko arriskua edota edoskialdi naturaleko arriskua dagoela eta, langilea bere egoerarekin bateragarria den lanpostu edota funtzio batera lekualdatuz gero, lanpostu edo funtzio berri horretan dirauen bitartean sortutako kuotei dagokienez, enpresak Gizarte Segurantzaren kotizazioan gertakari arruntengatik egin behar duen ekarpenean ehuneko 50eko hobaria aplikatuko da.

Hobari hori bera aplikatuko da, lanbide-gaixotasuna dela-eta, enpresa berean lanpostuz aldatzen denean edo langilearen egoerarekin bateragarria den lanpostu bat beste batean betetzen denean, araz aurreikusitako moduan eta baldintzetan.

Ehun eta hogeita laugarren xedapen gehigarria. *Enplegurako lanbide-heziketa finantzatzea.*

Bat. Beste finantzaketa-iturri batzuk ezertan eragotzi gabe, lanbide-heziketako kuotatik datozen funtsak indarrean dagoen araudiak araututako enplegurako lanbide-heziketako sistemaren gastuak finantzatzeko erabiliko dira, enplegu- eta prestakuntza-programa publikoei dagozkienak eta erregelamenduz ezar daitezkeen beste batzuk barne. Hori guztia enpresen eta langile landun eta langabeen artean lan-merkatuko premiei

erantzungo dien eta ezagutzan oinarritutako ekonomia garatzen lagunduko duen prestakuntza sustatzeko eta zabaltzeko.

Bi. Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak kudeatuko ditu arauz dagozkion enplegurako lanbide-heziketako programak, gastuen aurrekontuan dauden kredituen kargura, apirilaren 28ko 499/2020 Errege Dekretuaren –Laneko eta Gizarte Ekonomiako Ministerioaren oinarritzko egitura organikoa garatzen duena eta azaroaren 20ko 1052/2015 Errege Dekretua aldatzen duena. Azken errege-dekretu horrek Enplegu eta Gizarte Segurantzaren Sailen kanpoko egitura ezartzen du eta horien antolamendua, eginkizunak eta lanpostuen hornidura arautzen ditu– azken xedapenetako lehenengoan ezarritakoarekin bat etorritik; eta Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako Ministerioi eta Laneko eta Gizarte Ekonomiako Ministerioi idazkariordetzek batera emandako ebazpenean jasotako zenbatekoaren arabera, apirilaren 28ko 499/2020 Errege Dekretuaren laugarren xedapen iragankorrean eta Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako Ministerioaren oinarritzko egitura organikoa garatzen duen apirilaren 28ko 498/2020 Errege Dekretuaren bigarren xedapen iragankorrean aurreikusia.

Hiru. Aurreko Bi apartatuan aurreikusitako funtsen ehuneko 50, gutxienez, hasiera batean honako hauek egiteko behar diren gastuak finantzatzera bideratuko da: lana duten langileei, lehenetsunez zuzendutako prestakuntza-ekimenak egiteko behar diren gastuak; irailaren 9ko 30/2015 Legearen 6.8 artikuluan aurreikusitako negoziazio kolektiboarekin eta elkarrizketa sozialarekin lotutako eginkizunak garatzeko gaitzeko prestakuntza-ekintzak, eta Enpleguan Prestatzeko Estatuko Fundazioaren funtzionamendu- eta inbertsio-gastuak ere bai.

Zenbaki honetan honako hauek sartzen dira berariaz: enpresen prestakuntza programetako ekimenak; prestakuntzarako banakako baimenak; lanean ari diren langileentzako prestakuntza-eskaintza, eta administrazio publikoetako prestakuntza.

Herri-administrazioetan lanbide-heziketa finantzatzeko, 100eko 6,165 bideratuko da, xedapen gehigarri honen Bat apartatuan lanbide-heziketako kuota datozen funtsei dagokienez adierazitako zenbatekoaren 100eko 50 oinarri hartuta, eta Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren aurrekontuan zordunduta. Negoziazio kolektiboari eta gizarte-elkarrizketari lotutako eginkizunak administrazio publikoetan garatzeko prestakuntza finantzatzera bideratutako zenbatekoak ere sartzen dira zifra horretan.

Zenbateko horri, aldezturik, maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen arabera kupoa kalkulatzeko erabilitako egozpen-indizeari dagokion ehunekoa minoratuko zaio, eta zuzkidura bereizi gisa sartuko da Estatuaren Enplegu Zerbitzu Publikoaren gastu-aurrekontuan, Lurralde Politikako eta Funtzio Publikoko Ministerioari atxikita dagoen Herri Administrazioaren Institutu Nazionalari diruzko ekarpena egiteko hiru ordainketaren bidez; hurrenez hurren, otsailean, apirilean eta ekainean. Herri Administrazioaren Institutu Nazionalaren aurrekontuan, lurraldez lurralde banatuta azalduko dira autonomia-erkidegoei eta Ceuta eta Melilla hiriei euren enplegatutako publikoen etengabeko prestakuntza finantzatzeko dagozkien funtsak. Funtz horiek Herri Administrazioaren Institutu Nazionalak ordainduko ditu, autonomia-erkidego eta hiri autonomo bakoitzari transferentzia izenduna eginez, Euskal Autonomia Erkidegoari izan ezik.

Estatuaren Enplegu Zerbitzu Publikoak funtzionamendu- eta inbertsio-gastuak finantzatzeko funtsak ordainduko dizkio Enpleguan Prestatzeko Estatuko Fundazioari. Ordainketa hori laurdenka egingo da, hiruhileko bakoitzeko bigarren hamabostaldi naturalean. Fundazioak, urtero, eta hurrengo ekitaldiko apirilaren 30a baino lehen, bere funtzionamendurako esleitu zaizkion funtsen kontura egindako gastuen kontabilitate-justifikazioa aurkeztu beharko dio Estatuaren Enplegu Zerbitzu Publikoari, eta justifikatu gabeko kopuruen itzulketa uztailearen 31 baino lehen egin beharko du.

Gainerako ehuneko 50a honako hauek finantzatzera bideratuko da, hasiera batean: nagusiki langabezian dauden langileei zuzendutako prestakuntza-ekimenak betetzeko behar diren gastuak, enplegu-prestakuntzako programa publikoak, eta prestakuntza-zentroen sare publikoaren bidez emandako ezohiko prestakuntza; guztia ere, lanean nahiz langabezian dauden langileei zuzendutako kalitatezko prestakuntza-eskaintza bermatzearen, irailaren 9ko 30/2015 Legearen 6.5.e) artikuluan ezarritakoarekin bat.

Prestakuntza- eta ikaskuntza-kontratuari datxekion prestakuntza-jarduera finantzatzean, langileek jasotzen duten prestakuntza eta haren ezaugarriak arautzen dituen erregelamendu-araudian ezarritakoa beteko da.

Lau. Estatuaren bidez enplegu-politika aktiboan arloan eskumenak bereganatuta dauzkaten autonomia-erkidegoek funtsen transferentziak jasoko dituzte Estatuaren Enplegu Zerbitzu Publikoarengandik, betiere Enplegurako lanbide-heziketaren arloan dituen eskumenen arabera, erkidego horiek enplegurako lanbide-heziketaren arloan kudeatzen dituzten dirulaguntzak finantzatzeko, aplikagarri den araudian ezarritakoaren arabera dagokion zenbatekoan.

Bost. Lanbide-heziketaren gertakariagatik kotizatzen duten enpresek kreditu bat izango dute beren langileen prestakuntzarako, irailaren 9ko 30/2015 Legearen 9. artikuluan xedatutakoaren arabera. Kreditu horren zenbatekoa enpresak lanbide-heziketaren kontzeptuan 2020an ordaindutako diru kopuruari hobari-portzentaje bat aplikatzearen ondorioz lortzen den kopurua izango da. Enpresaren tamainaren arabera, hauek izango dira aipatutako hobari-portzentajeak:

- a) 6 eta 9 langile artean dituzten enpresak: ehuneko 100.
- b) 10 eta 49 langile artean dituztenak: ehuneko 75.
- c) 50 eta 249 langile artean dituztenak: ehuneko 60.
- d) 250 langile edo gehiago dituztenak: ehuneko 50.

1 eta 5 langile artean dituzten enpresek, portzentaje baten ordean, 420 euroko hobari-kreditua izango dute enpresa bakoitzeko. Era berean, aipatu arauak ezarritakoaren arabera, 2021. urtean lantoki berriak irekitzen dituzten enpresek eta enpresa sortu berriek prestakuntza-kreditua jaso ahal izango dute, baldin eta beren plantillan langile berriak hartzen badituzte. Aurreko kasu horietan, enpresek izango duten hobari-kreditua langile berri bakoitzeko 65 eurokoa izango da.

2021ean beren langileei prestakuntzarako banakako baimenak ematen dizkieten enpresek prestakuntzarako hobari-kreditu gehigarri bat izango dute, zenbaki honen lehen paragrafoan ezarrita dagoenaren arabera legokiekeen urteko kredituaz gain. Kreditu gehigarriaren zenbatekoa araudi aplikagarriaren araberrako irizpideak aplikatuz ateratzen den kopurua izango da. Aipatutako baimenak ematen dituzten enpresen multzoari emandako kreditu gehigarriak ezin izango du enplegurako lanbide-heziketarik Gizarte Segurantzako kotizazioetan egindako hobariak finantzatzeko Estatuaren Enplegu Zerbitzu Publikoak daukan aurrekontuan ezarrita dagoen kredituaren ehuneko 5 baino handiagoa izan.

Sei. Ministerioetako sailak berregituratzen dituen urtarrilaren 12ko 2/2020 Errege Dekretuak Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako Ministerioari esleitzen dizkio enplegurako lanbide-heziketaren arloko eskumenak. Finantzatzeko, Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako Ministerioak eta Laneko eta Gizarte Ekonomiako Ministerioak batera erabakitako lanbide-heziketako kuotaren zatia Altxor Publikoan sartuko da, eta lotuta jarraituko du Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako Ministerioak enplegurako lanbide-heziketaren arloko gastuei.

Ehun eta hogeita bosgarren xedapen gehigarria. *Enpleguari buruzko Legearen testu bateginaren (urriaren 23ko 3/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsi zen) 18. artikulua h) letran ezarritako zerbitzu eta programen kudeaketa.*

Estatuaren Enplegu Zerbitzu Publikoak, urriaren 23ko 3/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bitartez onetsitako Enpleguari buruzko Legearen testu bateginaren 18.h) artikuluan xedatutakoarekin bat, bere gastu-aurrekontuaren kreditu-erreserbaren kontura finantzaturiko zerbitzu eta programak kudeatuko ditu, barnean 19.101.000-X.400, 19.101.000-X.401, 19.101.000-X.403, 19.101.000-X.410, 19.101.000-X.411, 19.101.000-X.431, 19.101.241-A.441, 19.101.241-B.445, 19.101.241-A.482, 19.101.241-B.482 eta 19.101.240-A.482, aplikazioak hartuta, eta hainbat azpi-kontzepturen bitartez bereizita,

enplegu-politika aktiboen eremu funtzionalen arabera, honako jarduketa hauek finantzatzeko:

a) Autonomia-erkidegoa baino eremu geografiko handiago bati eragiten dioten zerbitzu eta programak, horietan parte hartzen duten langabeei edo langileei beste autonomia-erkidego edo herrialde batera lekualdatzea behartzen badiete, eta koordinazio bateratua gauzatu behar badute.

b) Autonomia-erkidego batena baino eremu geografiko handiagoko exekuzio-eremua duten programak, haietan parte hartzen duten langabetu eta langileen mugigarritasun geografikoa eskatzen ez dutenak, koordinazio bateratua behar dutenean; betiere, Estatuaren Enplegu Zerbitzu Publikoaren eta programa horiek exekutatu diren autonomia-erkidegoen artean akordioa eginda.

c) Enplegu-eskatzzaileen zein lanean ari diren pertsonen lanbidea hobetzera zuzendutako zerbitzu eta programak, Estatuaren Enplegu Zerbitzu Publikoaren eta Estatu Administrazio Orokorraren edo haren organismo autonomoen arteko lankidetzaren bitartez; kalitateko enplegua sortzen eta langileen aukerak hobetzen dituzten prestakuntza-jarduerak burutzea izango dute helburutzat, batik bat Estatuaren planen, estrategien edo programen esparruan, eta interes orokorreko eta gizarte-intereseko obrak eta zerbitzuak egikaritzea, Estatuaren eskumen eksklusiboekin lotuta.

d) Bitartekaritza-zerbitzu eta -programak eta enplegu-politika aktiboak: langile etorkinen laneratzea xede baldin badute, haien jatorrizko herrialdeetan gauzaturik, eta migrazio-fluxuen antolamendua erraztuz.

e) Epe jakin baterako ezartzen diren ezohiko programak, Estatuaren lurralde osoari eragiten diotenean; halakoetan, nahitaezkoa izango da modu zentralizatuan kudeatzea, bai programen eraginkortasuna bermatzeko, bai onuradun guztiek horiek eskuratzeko nahiz aprobetxatzeko aukera berdinak izan ditzaten.

Adierazitako kasuetan, aurrekontu-erreserba horrek enplegu-politika aktiboen kudeaketa-erreserba gisa jarduten du, Estatuaren Enplegu Zerbitzu Publikoaren alde, nahiz eta autonomia-erkidegoek lanaren, enpleguaren eta prestakuntzaren arloetan eskumenak bereganatuta izan.

Enpleguari buruzko Legearen testu bateginaren 21.4 artikuluan xedatutakoarekin bat, kreditu-erreserba osatzen duten funtsak ez dira banatuko kudeaketa-eskumenak esleituta dituzten autonomia-erkidegoen artean.

Ehun eta hogeita seigarren xedapen gehigarria. *Lan Autonomoaren Estatuaren uztailaren 11ko 20/2007 Legearen manu batzuen aplikazioa geroratzea.*

Geroratu egiten da Lan Autonomoaren Estatuaren uztailaren 11ko 20/2007 Legeak 1.1 artikuluko lehen paragrafoan, 24. artikuluko bigarren paragrafoan eta 25.4 artikuluan ezartzen duena indarrean jartzea; norberaren kontura lanaldi partzialean jarduten duten langileei dagokien gutzia, hain zuzen ere.

Ehun eta hogeita zazpigarren xedapen gehigarria. *Kontingentzia profesionalei dagozkien kotizazioak murrizteko sistema etetea laneko istripuen tasa jaisteagatik.*

Eten egiten zaie kontingentzia profesionalen kotizazioak murrizteko sistema (martxoaren 10eko 231/2017 Errege Dekretuak arautzen duena) laneko istripuen tasa nabarmen jaitsi duten enpresei, 2021ean sortzen diren kotizazioetarako. Etenaldi horrek Gobernuak errege-dekretu hori erreformatu arte iraungo du. Erreforma 2021. urtean egin behar da.

Ehun eta hogeita zortzigarren xedapen gehigarria. *Gizarte Segurantzaren babes-ekintza finantzatzea.*

Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bateginaren hogeita hamabigarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren ondorioetarako, Estatuaren 2021erako Aurrekontu

Orokorretan, hiru transferentzia egingo dira Estatutik Gizarte Segurantzaren aurrekontuetara, Toledo 2020ko Itunaren lehen gomendioa betetzeko, Lege honen 12. artikuluan zehaztutako zenbatekoen arabera.

Ehun eta hogeita bederatzigarren xedapen gehigarria. *Estatuko Administrazio Orokorrak Autonomiaren Aldeko eta Mendetasunari Arreta Eskaintzeko Sistemaren onuradun bakoitzarentzat bermatutako gutxieneko babes-mailaren zenbatekoak.*

Bat. Eguneratu egiten dira Estatuko Administrazio Orokorrak Autonomiaren aldeko eta Mendetasunari Arreta Eskaintzeko Sistemaren onuradun bakoitzarentzat bermatutako gutxieneko babes-mailaren zenbatekoak (III. maila, mendetasun handia; II. maila, mendetasun larria; eta I. maila, mendetasun moderatua). Honako taula honetan zehaztu dira:

Mendetasun-gradua	Gutxieneko babes bermatua – Euroak, hilabeteko
III. gradua, mendetasun oso larria.	235,00
II. gradua, mendetasun larria.	94,00
I. gradua, mendetasun arina.	60,00

Bi. Estatuko Administrazio Orokorraren eta Autonomiaren aldeko eta Mendetasunari Arreta Eskaintzeko Sistema finantzatzeko autonomia-erkidegoen artean adostutako maila ezartzen da. Maila horrek 566.394.840 euroko zuzkidura izango du, eta autonomia-erkidego bakoitzari banatuko zaio, mendeak izan daitezkeen biztanleen lurralde-banaketaen arabera.

VIII.

Ehun eta hogeita hamargarren xedapen gehigarria. *Pertsona fisikoei ofiziozko txandako zerbitzua ematetik dagozkien zerbitzu-sarien baremoaren araberako finantzaketa, aldez aurretik epaileak izendatuta.*

Bat. 2021eko ekitaldirako eta hurrengoetarako, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 22.2 artikuluko a) idatz-zatian eta 28. artikuluan xedatutakoaren babesean, Justiziako estatu-idazkariaren ebazpen bidez emango da Espainiako Abokatzaren Kontseilu Nagusira bideratutako dirulaguntza izenduna, Estatuko Administrazio Orokorrak eman beharreko zigor-arloko prozesu batean atxilotuak, presoak, ikertuak edo akusatatuak defendatzeko epaileak izendatuta jarduten duten ofiziozko txandako profesionalen eskubideak eta zerbitzu-sariak ordaintzen ez direnean finantzatzeko.

Bi. Ofiziozko txandaren bidez izendapen judizialaren ondorioz defentsa-zerbitzua eman duten profesionalak jaso ez dituzten ordainsariak konpentsatzeko erabiliko da dirulaguntza, uztailearen 25eko 996/2003 Errege Dekretuaren bidez onartutako doako laguntza juridikoaren Erregelamenduaren II. eranskinean aurreikusitako baremoaren arabera, doako laguntza juridikoaren espedientean onura hori lortu ez denean, dokumentazio nahikorik ez izateagatik, eta eskubide eta ordainsari profesionalak ordaindu ez direnean.

Hiru. Laguntza horiek kudeatzeko, Espainiako Abokatuen Kontseilu Nagusia eta Abokatuen Elkargoak erakunde laguntzaile izendatzen dira, eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean erakunde horientzat ezarritako betebeharrak bete beharko dituzte. Justiziako estatu-idazkariak emandako ebazpenaren bidez arautuko dira erakunde laguntzaileen baldintzak eta betebeharrak.

Lau. Aurreko zenbakietan xedatutakoa aplikatuko zaie defentsa-zerbitzua eman duten profesionalak jaso ez dituzten eskubide eta zerbitzu-sariei, izendapen judizialek

eratorritakoei, xedapen honen Bat eta Bi apartatuetan ezarritako modu eta baldintzetan, 2019ko ekitaldiko azken hiru hilekoan eta 2020ko ekitaldian zehar.

Bost. Berretsi egiten dira Espainiako Abokatutzaren Kontseilu Nagusiari doako laguntza juridikoa finantzatzeko bideratutako dirulaguntza izendunaren kargura 2019ko ekitaldiko azken hiru hilekoa baino lehen egindako ordainketak, betiere ofiziozko txandaren bidez izendapen judizialaren ondorioz defentsa-zerbitzua eman duten profesionalek jaso ez dituzten eskubideak eta ordainsariak baremoaren arabera eta hitzarmenetatik kanpo finantzatzera bideratu badira.

Ehun eta hogeita hamaikagarren xedapen gehigarria. *Sektore elektrikoa 2021eko ekitaldian finantzatzeko ekarpenak, tributuen eta kanonen arloan.*

Bat. Aurrekontu hauen indarraldian, Energia Iraunkortasunerako Zerga Neurriei buruzko Legean jasotako tributuen diru-sarreraren diru-bilketa efektiboak –horri buruzkoa da 2013rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren abenduaren 27ko 17/2012 Legearen bosgarren xedapen gehigarriaren 1.a) zenbakia– 23.03.000X.738 aplikazioaren («Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalari, sektore elektrikoaren kostuak finantzatzeko, Energia Iraunkortasunerako Zerga Neurriei buruzko abenduaren 27ko 15/2012 Legearen bigarren xedapen gehigarriaren a) letraren arabera») hasierako kredituan ezarritako zenbatekoa gainditzen duenean, kreditu bat sortu ahalko da, hasierako kreditu horrekiko dagoen aldearen zenbatekoarekin.

Bi. Ogasuneko ministroaren erabakiaren bidez emango da baimena Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalaren Aurrekontuan aurreko apartatuan aipatutako kreditua eta dagozkion kreditu-gehigarriak sortzeko.

Ehun eta hogeita hamabigarren xedapen gehigarria. *Berotegi-efektuko gasak isurtzeko eskubideen enkanteen bidezko diru-sarrerak.*

Bat. Indarraldia 2021. ekitaldian soilik izanik, honako xede hauetarako erabiliko dira berotegi-efektuko gasak isurtzeko eskubideen enkanteen bidezko diru-sarrerak, 2013rako Estatuaren Aurrekontu Orokorrei buruzko Legearen bosgarren xedapen gehigarrian ezarritakoarekin bat etorrita (17/2012 Legea, abenduaren 27koa):

a) Sektore Elektrikoari buruzko Legean energia berriztagarriak sustatzeari buruz aurreikusitako sistema elektrikoaren kostuak finantzatzeko, berotegi-efektuko gasak isurtzeko eskubideen enkantearen diru-sarrera zenbatetsiaren ehuneko 90, betiere 1.100.000,00 mila euro arte.

b) Klima-aldaketaren aurka borrokatzeko eta bidezko trantsizio politikaren jarduketetarako, berotegi-efektuko gasak isurtzeko eskubideen enkantearen diru-sarrera zenbatetsiaren ehuneko 10, betiere 100.000,00 mila euro arte.

Bi. Aurreko apartatuan aipatzen diren ekarpenak Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioaren aurrekontuko kredituen bidez gauzatuko dira, hileko ordain-aginduak emanez. Eta gehieneko zenbatekoa hau izango da: aurreko hilabetean isurtze-eskubideen enkanteen bidez benetan bildu ziren diru-sarreraren zenbatekoa, Ogasun Ministerioako organo eskudunek egindako ziurtagirien arabera, eta betiere xedapen honetako 1.a) eta 1.b) adierazitako zenbatekoak gainditu gabe. Abenduan bildutakoaren arabera egin behar den ekarpena hurrengo ekitaldian egingo da.

Hiru. Isurketa-eskubideen enkanteengatik benetan bildutako diru-sarrerak Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioaren indarreko aurrekontuaren aurrekontu-aplikazioetan esleitutako hasierako kredituak gainditzen dituztenean, kreditua sortu ahal izango da, xedapen honetako 1.a) eta 1.b) idatz-zatietan ezarritako mugetaraino. Ondorio horietarako, aurreko ekitaldiko azken hiru hilekoan egindako diru-sarrerak konputatu ahal izango dira, uneko ekitaldian egindakoez gain.

Lau. Ogasuneko ministroaren erabakiaren bidez emango da baimena Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalaren Aurrekontuan aurreko apartatuan aipatutako kreditua eta dagozkion kreditu-gehigarriak sortzeko.

Ehun eta hogeita hamahirugarren xedapen gehigarria. *Penintsulaz kanpoko lurraldeetan sortzeak dakarren gainkostua likidatzea.*

Bat. 23.03.000X.739 partidan («Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalari, Sektore Elektroari buruzkoa den abenduaren 26ko 24/2013 Legearen hamabosgarren xedapen gehigarrian aipatzen den elektrizitatea sortzeak dakartzan gainkostuari aurre egiteko») 489.806,22 mila euroko zuzkidura dago, abuztuaren 1eko 680/2014 Errege Dekretuan ezarritakoarekin bat etorrira (680/2014 Errege Dekretua, penintsulatik kanpoko lurraldeetako sistema elektriko isolatuetan energia elektrikoa ekoizteko jardueraren aparteko kostuen –Estatuaren Aurrekontu Orokorren kontura finantzatuak– aurrekontu, aitorpen, likidazio eta kontrola egiteko prozedura arautzen duena). Honako kontzeptu hauek sartzen dira partida horretan:

a) Penintsulatik kanpoko lurraldeetako sistema elektrikoetan elektrizitatea sortzeko jardueraren gainkostuaren kalkularen ehuneko berrogeita hamarra 811.204.825,95 eurokoa da, 2021eko ekitaldian.

b) 2015eko ekitaldian benetan eragin zen gainkostuaren ehuneko berrogeita hamarraren eta ekitaldi horretan kontura entregatu zen konpentsazio-oinarri gisa erabili zen kalkularen arteko desbideratzea: 321.398.603,54 eurokoa, behin betiko kuantifikazioa, Energia Politikako eta Meatzeetako Zuzendaritza Nagusiaren ebazpenaren bidez zehaztuta.

Bi. Likidazioak egiteko ardura duen erakundeak penintsulatik kanpoko lurraldeetako sistema elektrikoetan elektrizitatea sortzeak 2021eko ekitaldian dakarren gainkostua ordaintzeko, baliabide hauek erabiliko ditu: batetik, aipatutako 489.806.222,41 euroko zenbatekoa erabiliko du (2021eko aurrekontu-partidakoa); eta, bestetik, 321.398.603,54 euroko zenbatekoa. Azken hori abuztuaren 1eko 680/2014 Errege Dekretuan ezarritakoarekin bat sortutako kontu berezitik ateratzen da (680/2014 Errege Dekretua, penintsulatik kanpoko lurraldeetako sistema elektriko isolatuetan energia elektrikoa ekoizteko jardueraren aparteko kostuen –Estatuaren Aurrekontu Orokorren kontura finantzatuak– aurrekontu, aitorpen, likidazio eta kontrola egiteko prozedura arautzen duena).

Ehun eta hogeita hamalaugarren xedapen gehigarria. *Navantia SA Estatu-enpresari luzamendua ematea.*

Baimena ematen da 2015eko Estatu Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 26ko 36/2014 Legearen 47. xedapen gehigarrian aurreikusitako luzapenari atxikitako urtekoak S-80 Programaren finantzaketaren barruan sartzeko.

Industria, Energia eta Turismo Ministerioak eta Navantia, SA SME enpresak sinatutako S-80 itsaspekoen programaren garapen teknologikorako lankidetzaren hitzarmenaren gehigarri baten bidez sartuko dira. Gehigarri horrek hitzarmena egokituko du Ministro Kontseiluak 2018ko uztailaren 27an onartutako etorkizuneko ordainketa-konpromisoen akordioan ezarritako egutegira.

Ehun eta hogeita hamabosgarren xedapen gehigarria. *Autobideen arloko balio justuaren eta hirigintza-aprobetxamenduen gainean egiteke dauden egoerak likidatzea.*

Bat. Xedapen gehigarri hau 2019ko apirilaren 26ko Ministro Kontseiluaren Akordioan jasotako emakidei aplikatuko zaie (akordio hori autobideen emakida-kontratu jakin batzuk interpretatzeari buruzkoa da), «Administrazioaren ondare-erantzukizuna» kalkulatzeko metodoari dagokionez. Akordioa 2019ko maiatzaren 7ko Ebazpenaren bidez argitaratu zen, Gobernuak ordainketako autobide nazionalen emakida-sozietateetan duen ordekaritzan.

Bi. Gastu publikoaren aurreikuspenak autobide horien ondare-erantzukizuna likidatzeko eta ordaintzeko epeetara doitzeko, emakidadunen eta desjabetuen arteko

hitzarmenen araubide hau aplikatuko da (hitzarmen horien arabera, desjabetze-espeditentea eten egiten zen, autobiderako lursailen hirigintza-aprobetxamenduen truke):

a) Lege hau indarrean jarri eta gehienez ere sei hilabete epean, desjabetuak Gobernu Ordezkaritzari jakinarazi beharko dio desjabetze-espeditentari berrekitea edo hitzarmenari eustea erabaki duen, ordainpeko autobide nazionalen sozietate kontzesionarioetan. Gobernuak ordainpeko autobide nazionalen sozietate emakidadunetan duen ordezkaritzak ebatziko du eskaera, eta hark onartu eta argitaratuko du zein eredurri egokitu behar zaion.

b) Epe horretan ez bada egindako aukeraren gaineko eskaerarik jasotzen, hartu egingo da desjabetuak behin betiko kalte-ordaina jaso duela, hala badagokio eta hitzarmenaren arabera aitortzen zaizkion hirigintza-aprobetxamenduekin.

c) Desjabetuak desjabetze-espeditentari berrekiteko eskatzen badu, honako hauek agiri bidez egiaztatu beharko ditu: hitzarmenaren indarraldia, finkaren titulartasuna eta kokapena, finkari dagozkion hirigintza-aprobetxamenduen egoera eta, Konpentsazio Batzordeak edo dagokion Udalak emandako ziurtagiriaren bidez, hitzarmenaren xede diren hirigintza-aprobetxamenduak ez dituela gauzatu edo laga, eta, hartara, Estatuak gauzatu ahal izango dituela. Eskaera baiestean, desjabetze-espeditentea ofizioz hasiko da, eta presako gisa izapidetuko da.

d) Desjabetuak hitzarmenari eustea eskatzen badu edo eskaerak aurreko zenbakian ezarritako baldintzak betetzen ez baditu, eskaera ebatziko da, eta behin betiko kalte-ordaina ordaindutzat joko da, hitzarmenaren arabera aitortzen zaizkion hirigintza-aprobetxamenduak emanda, hala badagokio.

e) Prozedurari publikitate handiagoa emate aldera, eta a) letran xedatutakoari kalterik egin gabe, eskabideak aurkezteko epea interesdunei jakinaraziko zaie, gutxienez hiru iragarki argitaratuz BOEn, Lege hau indarrean jarri eta lehenengo, bigarren eta hirugarren hilabeteetan. Iragarkietan, epearen irekierari buruzko informazioa emango da, eta, ahal denean, hitzarmenaren xede izan zitezkeen finkak dauden guneei buruzkoa. Era berean, sozietate emakidadun bakoitzeko konkurtso-administratzaileari jakinaraziko zaio, desjabetzeen ondorioz hartzekodunei helaraz diezaien, egokitzen jotzen duen moduan. Gobernuak ordainpeko autobide nazionalen sozietate emakidadunetan duen ordezkaritzak publikitate hori osatu ahal izango du, egokitzen jotzen dituen bitartekoak erabilita.

Ehun eta hogeita hamaseigarren xedapen gehigarria. *Genero Ikuspegidun Aurrekontuak sustatzeko Ministerioen arteko Batzordea*

Sortu egin da Genero Ikuspegidun Aurrekontuak sustatzeko Ministerioen arteko Batzordea.

Gobernuak batzorde horren egitura, osaera eta araubide juridikoa onartuko ditu, Lege hau indarrean jarri ondoren.

Ehun eta hogeita hamazazpigarren xedapen gehigarria. *«Análisi Genomikoko Zentro Nazionala» partzuergoa sortzeko baimena.*

Bat. Baimena ematen da Estatuko Administrazio Orokorrari atxikitako partzuergo bat sortzeko. Partzuergoak Análisi Genomikoko Zentro Nazionala (Centro Nacional de Análisis Genómico) ustiatuko du.

Bi. Estatuko Administrazio Orokorrak (Zientzia eta Berrikuntza Ministerioak) eta Kataluniako Generalitateak parte hartuko dute partzuergoan, eta bakoitzak baliabideen % 50 jarriko du, partzuergoari eusteko. Partzuergoa Estatuko Administrazio Orokorrari atxikiko zaio.

Hiru. Partzuergoaren indarraldia mugagabea izango da.

Ehun eta hogeita hemezortzigarren xedapen gehigarria. *Azpiegituren arloko hitzarmenak.*

Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 49. h) artikulua ondoietarako, lurreko, aireko eta itsasoko garraio-azpiegiturek gauzatzea

xede duten hitzarmenek azpiegitura horiek egikaritzeko edo finantzatzeko programari dagokion iraupena izango dute. Programa hori hitzarmenaren justifikazio-memoriaren eranskin gisa erantsi beharko da, eta hasierako epea ezin izango da hamar urtetik gorakoa izan. Ezarritako indarraldia amaitu aurretik, alderdiek hitzartu ahal izango dute hura luzatzea, gehienez ere zazpi urte gehiago.

Ehun eta hogeita hemeretzigarren xedapen gehigarria. *Ondare Nazionala arautzen duen ekainaren 16ko 23/1982 Legearen 5. artikuluan araututako errege-patronatuen administrazioa.*

Bat. 2021eko ekitalditik, Ondare Nazionalaren Administrazio Kontseiluaren aurrekontuek modu berezian integratuko dituzte ondare nazionala arautzen duen ekainaren 16ko 23/1982 Legearen 5. artikuluan aipatzen diren errege patronatuen diru-sarrerak, beren jardueratik, jabetzetatik edo haien titulartasuneko beste eskubide batzuetatik datozenak, eta dagokien aurrekontu-programan sartutako erakunde horiei dagozkien gastuei aplikatuko zaizkie.

Bi. Ondare Nazionalaren Administrazio Kontseiluaren aurrekontuan jasotako sarrerak eta gastuak erakunde horren gainerako jarduera ekonomikoen arau eta betekizun berberen arabera gauzatuko dira. Adierazitako ondorioetarako, eta irismen eta salbuespen berarekin, Ondare Nazionalaren Administrazio Kontseiluaren diruzaintzan sartuko dira, halaber, errege patronatuetako gerakinak, haietako bakoitzean 2020ko abenduaren 31n izandako aktibo finantzarioen likidaziotik datozenak ere barne.

Hiru. 2020ko abenduaren 31n, errege patronatuen titulartasuneko ondasun eta eskubideak Ondare Nazionalaren Administrazio Kontseiluaren inbentarioetan sartuko dira, 2021eko urtarrilaren 1etik aurrerako ondoreak izanik, eta, egun horretatik aurrera, Ondare Nazionala osatzen duten ondasun eta eskubideak babesteko araubide bereziaren mende egongo dira. Inbentarioetan oharpen espezifikokoak eginez adieraziko dira ondasun horien jatorria eta ondasun horiek errege patronatu bakoitzarekin duten lotura ere bai.

Lau. Errege Patronatuei egotzitako eskubideak eta betebeharrak aitortzeko eragiketak, zehazki, 2021eko urtarrilaren 1etik Lege hau Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu arte (data hori geroagokoa bada) egin direnak erregularizatu egingo dira, Ondare Nazionalaren Administrazio Kontseiluak Errege Patronatu bakoitzeko diru-sarreraren eta gastuen zerrenda ziurtatuak onetsiz. Diru-sarreraren kasuan, ordainketa-gutuna eta kontabilitate-oharpena egingo dira, eta, gastuen kasuan, 337D aurrekontu-programan kontabilizatuko dira.

Bost. Xedapen gehigarri hau aplikatzeak ez du eragotziko errege patronatu bakoitzaren izaera fundazionalari eta nortasun juridikoari eustea, ez eta xedapen honetan aurreikusten ez den guztian, haren araubide juridiko bereziari ere.

Ehun eta berrogeigarren xedapen gehigarria. *Fundación de la Santa Cruz del Valle de los Caídos fundazioaren administrazioa.*

Bat. 2021eko ekitalditik aurrera, Fundación de la Santa Cruz del Valle de los Caídos fundazioaren titulartasuneko ondasunen eta eskubideen jardueratik, etekinetatik eta ustiapenetik datozen diru-sarrerak Ondare Nazionalaren Administrazio Kontseiluaren sarrera gisa kontabilizatzeari utziko zaio, eta fundazio horren diru-sarrera gisa erregistratu eta kontabilizatuko dira, fundazio horri aplikatu behar zaion araubide juridikoaren arabera.

Bi. Era berean, 2021eko ekitalditik aurrera, Ondare Nazionalaren Administrazio Kontseiluak Erorien Haranaren esparruan egiten dituen gastuak, Fundación de la Santa Cruz del Valle de los Caídos fundazioaren patronatuaren jardunean, fundazio horren gastu gisa erregistratu eta kontabilizatuko dira, xedapen honen aurreko zenbakian aipatutako sarrerek jasandakoak, eta hark onartzen duen aurrekontuaren arabera. Apartatu honetako aurreikuspenetik kanpo geratzen dira ondare nazionalaren administrazio-kontseiluaren aurrekontuko I. kapituluko gastuak, zehazki, Erorien Haraneko esparruan zerbitzuak ematen dituzten erakunde horretako langileei dagozkienak.

Hiru. 2021eko ekitaldian Ondare Nazionalaren Administrazio Kontseiluak Fundación de la Santa Cruz del Valle de los Caídos fundazioaren ondasun eta eskubideen inbentarioa eratu eta onartuko du, ondare nazionalaren inbentariotik bereizitako inbentario gisa.

Lau. Xedapen honetako aurreikuspenak 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatuko dira, eta indarrean jarraituko dute Fundación de la Santa Cruz del Valle de los Caídos fundazioaren araubide juridikoa aldatzen ez den bitartean. Fundazioei buruzko abenduaren 26ko 50/2002 Legean eta Estatuaren eskumeneko fundazioen erregelamendua onartzen duen azaroaren 11ko 1337/2005 Errege Dekretuan aurreikusitakoa aplikatuko da fundazioaren araubide juridikoan ezarritakoa ez den guztia ebazteko.

Bost. Ondare Nazionalaren Administrazio Kontseiluaren aurrekontuaren kargura 2021eko urtarrilaren 1etik Lege hau Estatu Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunera arte (data hori ondorengoa bada) egindako sarrera- eta gastu-eragiketak erregularizatu egingo dira, Ondare Nazionalaren Administrazio Kontseiluak sarrera eta gastu horiek onetsiz, zeinak, sarreraren kasuan, Fundación de la Santa Cruz del Valle de los Caídos fundazioari transferituko zaizkie; eta, gastuen kasuan, gastuei baja emango zaie Ondare Nazionalaren Administrazio Kontseiluaren kontabilitatean, eta fundazio horren kontabilitateari eta ordainketa-sistemari egotziko zaizkie.

Sei. Lege hau argitaratzen den egunean Erorien Haraneko esparruan dagozkion betebeharrak badaude, eta betebeharrak horiek Ondare Nazionalaren Administrazio Kontseiluak bere gain hartu baditu, kontratu, gomendio, hitzarmen edo beste edozein negozio juridikoren ondorioz, eta betebeharrak horien aplikazio-eremua aipatutako esparruari dagokiona baino handiagoa izateagatik, aurreko zenbakia aplikatzea ezinezkoa bada, 2021eko urtarrilaren batetik, indarraldia amaitu arte, Erorien Haranari dagokion zati proportzionala zehaztuko da, eta Fundación de la Santa Cruz fundazioak Ondare Nazionalaren Administrazio Kontseiluari transferituko dio zati hori.

Ehun eta berrogeita batgarren xedapen gehigarria. *Ondare Nazionalaren betebeharrak Sociedad Estatal Hipódromo de la Zarzuela SASME sozietatearekin.*

Ondare Nazionalaren Administrazio Kontseilua organismo publikoari baimena ematen zaio, bere gastu-aurrekontuaren kontura, Zarzuela Hipodromoko Estatu Sozietatearekiko betebeharrak aitortzeko, baldin eta obligazio horiek Estatu Sozietate horrek aurreko ekitaldietan obra batzuk egin behar izateagatik sortu badira, eta obrak Zarzuela Hipodromoa lagatzeko kontratuaren babesean, esparruaren eta haren instalazioen ustiapen integralerako egin badira.

Betebeharrak horien existentzia eta zenbatekoa zehazteko, batzorde misto paritario bat eratuko da aipatutako erakundearen artean. Batzorde horretako kideak Lehendakartzako, Gorteekiko Harremanetarako eta Memoria Demokratikoko eta Ogasuneko idazkariordeek izendatuko dituzte, eta ondorioak bi erakundearen gobernu-organoei aterako dituzte. Desadostasunak sortzen badira, lehen aipatutako idazkariordeen ebazpen bateratuaren bidez ebaztuko dira.

Zorra dagoela erabakitzen bada eta zor hori Ondare Nazionalaren Administrazio Kontseiluaren aurrekontuan esleitutako kreditua baino handiagoa bada, dagozkion aurrekontu-aldaketak izapidetuko dira edo hurrengo aurrekontu-ekitaldietan banatuko dira.

Ehun eta berrogeita bigarren xedapen gehigarria. *1812ko Konstituzioaren II. Mendeurrena oroitzeko Partzuergoari dagozkion zorren likidazioa.*

Presidentetzako, Gorteekiko Harremanetarako eta Memoria Demokratikoko Ministerioari baimena ematen zaio, bere gastu-aurrekontuaren kontura, 1812ko Konstituzioaren II. mendeurrena oroitzeko Partzuergoari transferitu diezazkion Partzuergoaren jardura-aldian egindako jarduketengatik Sociedad Comercial Estatal Acción Cultural Española SAREkiko betebeharrak aurre egiteko beharrezko zenbatekoak, gehienez ere 456.347,89 euro. Aldez aurretik, partzuergoko administrazio bakoitzeko organo eskudunak berariazko erabakia hartu beharko du betebeharrak bere gain hartzeko, partzuergoaren jardura-aldian administrazio horiek egindako ekarpenen

proportzio berean. Obligazio hori kitatu ondoren, Presidentetzako, Gorteekiko Harremanetarako eta Memoria Demokratikoko Ministerioari transferituko dizkiote zenbateko horiek.

Era berean, sail horrek kudeaketa egokiak egingo ditu Explotaciones Acuíferas Internacionales SA erakundeak Partzuergoaren alde dituen betebeharrak kobratzeko. Lortutako zenbatekoak partzuergoko administrazioei transferituko zaizkie, partzuergoaren jarduera-aldian administrazio horiek egindako ekarpenen proportzioan.

Xedapen honek indarraldi mugagabea dauka.

Ehun eta berrogeita hirugarren xedapen gehigarria. *Konturako ekarpenak, Estatuaren titulartasuneko berrien zerbitzu publikoa emateagatik.*

Estatuko Administrazio Orokorrak, hil bakoitzaren amaieran, hamabirenetan transferituko dio EFE SME SAU (aurrerantzean, EFE) Agentziari ekitaldi bakoitzean zerbitzu publikoko eginkizunak eta betebeharrak betetzeagatik behin betiko likidazioa kontura emateko berariaz emandako aurrekontu-kredituaren zenbatekoa, EFE SME SAU Agentziaren esku utzitako Estatuaren titulartasuneko albisteen zerbitzu publikoaren betebeharrak eta horien konpentsazio ekonomikoa garatzen dituen abenduaren 21eko 1463/2018 Errege Dekretuaren 4.3 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Arau horrek indarraldi mugagabea dauka.

Ehun eta berrogeita laugarren xedapen gehigarria. *Aldatzea 302/2019 Errege Dekretua, apirilaren 26koa, Erretiro-pentsio kontributiboaren eta arte-sorkuntzako jardueraren bateragarritasuna arautzen duena abenduaren 28ko 26/2018 Errege Lege Dekretuaren azken xedapenetako bigarrena garatzeko; errege lege-dekretu horren bidez, presako neurriak onartzen dira arte-sorkuntzari eta zinematografiari buruz.*

Lege hau indarrean jarri eta gehienez ere sei hilabeteko epean, Gobernuak aldatuko du 302/2019 Errege Dekretua, apirilaren 26koa, Erretiro-pentsio kontributiboaren eta arte-sorkuntzako jardueraren bateragarritasuna arautzen duena abenduaren 28ko 26/2018 Errege Lege Dekretuaren azken xedapenetako bigarrena garatzeko; errege lege-dekretu horren bidez, presako neurriak onartzen dira arte-sorkuntzari eta zinematografiari buruz.

Ehun eta berrogeita bosgarren xedapen gehigarria. *Ureztatzera bideratutako azpiegitura hidraulikoetarako lan jakin batzuk interes orokorrekoztat jotzea.*

Bat. Honako obra hauek interes orokorrekoztat hartzen dira:

a) Leoneko Alija del Infantadoko ureztaketak modernizatzeko eta sendotzeko lanak.
b) Soriako San Esteban de Gormaz, Miño de San Esteban eta Langa de Duero herrietako Inés, Eza, Salcedo eta Valdanzo ubideetan eta Soriako Langa de Duero eta Burgosko Vid eta Barrios herrietako Zuzones ubidean dauden ureztatze-sistemak modernizatzeko eta finkatzeko lanak.

a) Añamaza ureztaketak modernizatzeko eta finkatzeko lanak. Añavieja herrian, Dévanos herrian, Castilruiz herriko Añaviejako San Salvador de Ágreda ubidean, Dévanos-en eta Ágreda-n (Sorian) urezta daitezkeen esparruak.

b) Urezta-sistemak modernizatzeko eta finkatzeko lanak honako esparru hauetako eremu ureztagarriak: Leoneko probintziako Villamañan-eko Eslako ubideko eremu ureztagarrian (Villamañan eta Benamariel ledanietan); Valencia de Don Juan, San Millán de los Caballeros, Villademor de la Vega, Toral de los Guzmanes, Algadefe, Villamandos (Villamandos eta Villarrabines ledanietan), Villaquejida, Cimanos de la Vega (Cimanos de la Vega eta Bariones de la Vega ledanietan) esparruetako eremu ureztagarrietan; eta Zamorako probintziako Matilla de Arzón, San Cristobal de Entreviñas (San Cristobal de Entreviñas eta Santa Colomba de Carabias ledanietan), Benavente, Castrogonzalo eta Villanueva de Azoague esparruetako eremu ureztagarrietan.

e) Birsortutako uretatik datozen ur-baliabideen optimizazio jasangarriko obrak, Balear Uharteetako Autonomia Erkidegoko (Mallorca, Menorca, Eivissa eta Formentera uharteetako) ureztapen sozialak modernizatzeko eta finkatzeko.

Bi. Artikulu honetan jasotako obrek berekin ekarriko dituzte deklarazio hauek:

a) Onura publikoarena, Nahitaezko Desjabetzeari buruzko 1954ko abenduaren 16ko Legearen 9., 10. eta 11. artikuluetan xedatutako ondorioetarako.

b) Presako okupazioarena, Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen 52. artikulua aipatutako ukitutako ondasunen okupazioaren ondorioetarako.

Hiru. Interes orokorrekotzat jo eta gero, lanak egiteko gauzatu behar diren nahitaezko desjabetzeak egin ahalko dira, eta ukitutako ondasunak presaz okupatu ahalko dira.

Ehun eta berrogeita seigarren xedapen gehigarria. *Lur ureztatu bihurtzeko jarduketak interes orokorreko jarduketa gisa deklaratzeari.*

Bat. Tierra de Barros lur ureztatu bihurtzeko jarduketa interes orokortzat hartzea.

Bi. Dauden lur ureztatuen hobekuntza finkatzea. (Álava-Arabako Moreda-ko Barriobusto Labraza-ko lur ureztatua eraldatzea).

Hiru. Artikulu honetan jasotako jarduketek berekin ekarriko dituzte deklarazio hauek:

a) Onura publikoarena, Nahitaezko Desjabetzeari buruzko 1954ko abenduaren 16ko Legearen 9., 10. eta 11. artikuluetan xedatutako ondorioetarako.

b) Presako okupazioarena, Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen 52. artikulua aipatutako ukitutako ondasunen okupazioaren ondorioetarako.

Ehun eta berrogeita zazpigarren xedapen gehigarria. *Landa-azpiegituretan bide naturalak egiteko lanak interes orokortzat hartzea.*

Honako landa-azpiegitura hauek (bide naturalak egitekoak) interes orokorrekotzat hartzen dira:

a) Montfalcó eremutik Congost de Mont-rebei eremura doan bide naturala (Aragoin eta Katalunian).

b) Laciana eremutik Asturiasera doan bide naturala (Gaztela eta Leonen eta Asturiasko Printzerrian).

c) Paris-Madrid-Lisboa bide naturala, Espainiatik igarotzen den zatian (Extremaduran, Gaztela-Mantxan, Madrilen eta Aragoian).

d) Segura ibaiko bide naturala (Andaluzian, Gaztela-Mantxan, Murtziako Eskualdean eta Valentziako Erkidegoan).

e) Miño-Sil esparruko bide naturala (Galizian eta Gaztela-Leonen).

f) Carcaixent- Dénia esparruko bide naturala, eta Júcar ibaiko bide naturalekiko lotura. (Gaztela-Mantxan eta Valentziako Erkidegoan).

g) Tajo ibaitik Guadiana ibaira doan bide naturala (Gaztela-Mantxan eta Extremaduran).

h) Lezamako Trenbide Zaharreko bidea bide berde bihurtzea. Lezaman (Bizkaian).

Ehun eta berrogeita zortzigarren xedapen gehigarria. *Osasun Sistema Nazionaleko Osasun Txartel Bakarra.*

Osasun Ministerioak, Osasun Sistema Nazionaleko nodoaren informazioa trukatzeko eta koordinatzeko elkarreragingarritasun-zerbitzuak garatu, ezarri, mantendu eta kudeatzearen esparruan, behar diren neurriak hartuko ditu Osasun Txartel Elkarreragingarriak eta haren mekanismo osagarriek pazienteen eta gainerako autonomia-erkidegoetako osasun-zerbitzuen arteko interakzio automatikoa eta normalizatua ahalbidetzeko, haien bizileku-erkidegoa edozein dela ere. Helburua da osasun-txartel bakar baten funtzionaltasunak ematea Osasun Sistema Nazional osorako, edozein

autonomia-erkidegotan osasun-laguntza jasotzeko, bertan bizi diren pertsonen baldintza berberetan, Osasun Sistema Nazionaleko Lurralde arteko Kontseiluak zehazten duen harreman-esparruan. Hori guztia lurralde nazionaleko joan-etorrien trazabilitate egokiarekin, sistema osoan kohesioa bermatzeko ezarritako konpentsazio-funtsen bidez.

Ehun eta berrogeita bederatzigarren xedapen gehigarria. *Donostiako Loiolako kuartelak.*

Gobernuak 2021eko ekitaldian amaituko da gaur egun Loiolako kuartelak hartzen dituen lursailak Donostiako Udalari besterentzen.

Horretarako, batzorde bat eratuko da bi aldeen artean, eta haren birkalifikaziotik lortzen diren aprobetxamenduen arabera finkatuko da prezioa.

Ehun eta berrogeita hamargarren xedapen gehigarria. *Kataluniako inbertsioen jarraipena.*

Estatuko Azpiegituretako Inbertsioei buruzko Batzordean, lau hilean behin, Kataluniako Autonomia Erkidegoan aurrekontuetan programatutako inbertsioen gauzatze-mailaren jarraipena egingo da. Jarraipen horren helburua izango da inbertsio horiek bultzatzea eta arintzea, horiek egitea maximizatzen duten mekanismoak aztertuz, lurralde horretako urteko gauzatze-maila ez dadin izan lurraldeka banatutako estatu-inbertsio osoaren batez bestekoa baino txikiagoa.

Ehun eta berrogeita hamaikagarren xedapen gehigarria. *Ikerketa Metalurgikoen Zentro Nazionaleko instalazio pilotu hidrometalurgikoa, meatzaritzako hondakinetatik eta tresna elektriko eta elektronikoen hondakinetatik material kritikoak berreskuratzeke.*

COVID-19aren osteko Berreraikuntza Sozial eta Ekonomikorako Diputatuen Kongresuaren irizpen konklusiboaren 37. puntuan eskatzen da Espainia material kritikoen berreskurapenean Europako abangoardian jar dadila, berezko metalurgia-planta bultzatuz. Agindu hori betetze aldera, Gobernuari baimena ematen zaio, inbertsioen 6. kapituluan milioi bat euro gehiago sartzeko, CSICen mendeko Ikerketa Metalurgikoen Zentro Nazionalaren aurrekontua handitzeko, meatzaritzako hondakinetatik eta tresna elektriko eta elektronikoen hondakinetatik material kritikoak berreskuratzeke instalazio pilotu hidrometalurgiko bat eraikitzeke.

Ehun eta berrogeita hamabigarren xedapen gehigarria. *Klima-aldaketaren aurkako herritarren batzarra.*

Klima-aldaketaren aurkako borrokan onartzen diren plan, programa, estrategia, tresna eta xedapen orokorrak egiteko, baimena ematen zaio Gobernuari hiru administrazio-mailetan klima-aldaketaren aurkako herritarren batzarrak egiteko. Administrazio-mailak: Batzar nazionala, autonomia-erkidegoetako batzarrak eta udaletako batzarrak. Emakumeen eta gizonen arteko ordezkartza orekatua kontuan hartuko da batzarra osatzean, eta gazteek ere parte hartuko dute. Urtebeteko epean garatu eta ezartzeko, bi milioi euroko aurrekontu-gehikuntza egingo da 456N programan, 23. atalean.

Ehun eta berrogeita hamahirugarren xedapen gehigarria. *Betearaztea Estatuko Administrazio Orokorraren eta Kanarietako Autonomia Erkidegoaren arteko errepideen arloko lankidetzaren hitzarmenari buruzko epaiak. Eragindako baliabideen tratamendua, aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzko araudiaren ondorioetarako.*

1. Estatuko Administrazio Orokorraren eta Kanarietako Autonomia Erkidegoaren arteko errepideen arloko lankidetzaren hitzarmenaren ondoriozko Auzitegi Gorenaren 2075/2017, 255/2018, 415/2018 eta 1095/2018 epaien betearazpen-esparruan, Estatuko Administrazio Orokorrak 100.000,00 mila euro ordainduko dizkio Kanarietako Gobernuari 2021eko ekitaldian, 17.38.453B.756 aurrekontu-partidaren kargura.

Zenbateko horrek konturako izaera izango du, Estatuko Administrazio Orokorraren eta Kanarietako Gobernuaren artean aipatutako epaien betearazpena artikulatzeko lor daitezkeen akordioen ondorioetarako, aipatutako Hitzarmenaren Jarraipen Batzorde Mistoan gauzatu eta ziurtatu diren jarduketei dagokienez.

2. Kanarietako Autonomia Erkidegoak baliabide horiek aplikatu ahal izango dizkie finkagarriak ez diren enplegu ez-finantzarioei, salbuespenezkoei eta aldi baterako.

Ehun eta berrogeita hamalagarren xedapen gehigarria. *Estatuaren eta Kataluniako Generalitatearen arteko Ekonomia eta Zerga Gaietarako Batzorde Mistoa.*

Lege hau indarrean sartu eta sei hilabeteko epean, Estatuaren eta Kataluniako Generalitatearen arteko Ekonomia eta Zerga Gaietarako Batzorde Mistoa bilduko da, Estatuko Administrazio Orokorrak Kataluniako Generalitateari baliabideak transferitzeko prozedura aztertu eta behin betiko erabakitzeko. Interes orokorreko trenbide-sareko zabalera iberikoko sarearen gainean aldiriko eta eskualdeko trenbide bidezko bidaiarien garraio-zerbitzuei dagozkien baliabideak dira, eta Kataluniako Generalitateari eskualdatu zitzaizkion, hurrenez hurren, abenduaren 30eko 2034/2009 Errege Dekretuaren eta azaroaren 26ko 1598/2010 Errege Dekretuaren arabera, Autonomia Estatutuan ezarritakoarekin bat etorritik, Estatutik Generalitateara eskualdatu behar diren funtzioen eta zerbitzuen eskualdatzeetan bete behar diren arauetan ezarritakoaren arabera, eta aurreko paragrafoan aipatu diren bidaiariak garraiatzeko zerbitzuen arloan gaur egun arte onartu diren erabakiak eta tresnak ere kontuan hartuta. Batzordea 2021eko ekitaldian amaituko da transferentzia hori egiten.

Ehun eta berrogeita hamabosgarren xedapen gehigarria. *Merkatuekin lan egiten duten enpresei kanonak murriztea.*

Merkatuen sozietate kudeatzaileen administrazio-kontseiluetako Mercasa ordezkariak akordio batzuk sustatuko ditu, ondoren zehazten diren baldintzetan, fakturazioan, eta, ondorioz, diru-sarreretan beherakada izan duten enpresa guztiei kanonak edota errentak murrizteko, COVID-19aren ondorioak arintzeko hartutako neurriak aplikatzearen ondorioz.

Merkatuak kudeatzen dituzten sozietateen akordioek zehaztuko dituzte kanon edo errenten murrizketei dagozkien kudeaketa-araubidea, betekizunak eta baldintza espezifikoak.

Edonola ere, kanonaren edota errentaren murrizketa gehienez ere % 50ekoa izango da.

Murrizketak aldi baterakoak izango dira, eta, nolana ere, ezin izango dira hamabi hilabetez baino gehiagoz luzatu.

Ehun eta berrogeita hamaseigarren xedapen gehigarria. *Toki-erakundeen titulartasuneko garraio publikoko zerbitzuei laguntzeko aparteko kreditu bat baimentzea.*

1. Aparteko kreditu bat baimentzen da toki-erakundeen titulartasuneko garraio publikoko zerbitzuak laguntzeko. Kreditu horren helburua finantzaketa handiagoa ematea da, alarma-egoeraren indarraldian zehar eta 2020. urtearen amaierara arte izandako COVID-19aren krisiaren ondorioz toki-erakundeen ezohiko defizita konpentsatzeko. Kreditu hori 2020ko eta 2021eko ekitaldietan banatuko da, 2018ko zerbitzuei dagozkien tarifa-sarreraren arabera, artikulatu honetan jasotako arauari jarraituz eta tokiko erakunde bakoitzeko organoko titularrak igorriko duen ziurtagiriaren arabera.

Transferentzien jasotzaileen eremu objektiboan sartuko dira garraio publikoaren zerbitzua ematen duten udalak, probintzietako aldundiak, foru-aldundiak barne, uharteetako kontseiluak eta kabildoak.

2. Ezohiko kredituak 275 milioi euroko hasierako zuzkidura izango du, eta 1000 milioi eurora arte handitu ahal izango da, 2021eko Estatuko Aurrekontu Orokorraren kargura.

3. Garraio publikoko zerbitzuak ematen dituzten toki-erakunde bakoitzari dagokion finantzaketa esleitzeko, irizpide objektiboak hartuko dira oinarri, garraio-eskariak behera egitearen ondoriozko diru-sarrerak murriztearekin lotuta, hori baita aparteko defizitaren

arrazoi nagusia. Irizpide objektibo horiek erreferentziako urte batean tarifa edo prezio publikoak aplikatuta lortutako diru-sarreraren proportzioan ezarriko dira.

4. Toki-erakundeek baimendutako aparteko kredituaren kargura jasotzen dituzten zenbatekoak hiriko garraio publikoaren zerbitzua finantzatzeko baino ez dira erabili behar. Garraio publikoaren ezohiko defizitaren finantzaketa artikulua honetan xedatutakoaren arabera arautuko da, eta ez zaie aplikatuko Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorra.

Ehun eta berrogeita hamazazpigarren xedapen gehigarria. *Justizia Administrazioaren zerbitzura dauden langileen*

berariazko osagarria egokitzea.

Justizia Administrazioako Ordainsari eta Enplegu Mahaiaren esparruan negoziatuko da berariazko osagarrien gehikuntza bat Laguntza Judizialeko Kidegoan, Izapidetze Prozesal eta Administratiboko Kidegoan, Kudeaketa Prozesal eta Administratiboko Kidegoan, Auzitegi Medikuen Kidegoan eta Toxikologiako eta Auzitegi Zientzietako Institutu Nazionaleko kidego berezietako Kidegoan. Helburua da horiek laneko bolumenari eta erantzukizunari egokitzea eta beste eremu batzuetako lanpostu baliokideetan jasotzen diren hurbiltzea.

Era berean, Justizia Administrazioaren Letraduen Kidegoaren soldadak egokituko dira, kidego horrek prozesu- eta antolaketa-arloko azken erreformatan bere gain hartutako eginkizun berriei dagokienez.

Horretarako, Gobernuak dagozkion erabakiak hartuko ditu, xedapen honi dagokion aurrekontu-zuzkiduraren arabera.

Ehun eta berrogeita hemezortzigarren xedapen gehigarria. *Justizia Administrazioako langileei Gizarte Segurantzako kotizazioak aitortzea.*

Ofizios edo interesdunek eskatuta, Gobernuak Justiziako langileek lan egindako eta kotizatu gabeko aldiak berrikusiko ditu eta kotizatu direla aitortuko du, baldin eta emandako zerbitzuen ziurtagirian agertzen diren benetan lan egindako aldien eta kotizazioen ziurtagirian agertzen diren artean aldeak badaude.

Ehun eta berrogeita hemeretzigarren xedapen gehigarria. *Tokiko polizien kidegoaren berrezarpen-tasa.*

Lege honen 19. artikuluan ezarritakoaz gain, eta administrazio publikoek segurtasun eta ordena publikoaren arloan bete behar dituzten funtzioak bermatze aldera, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bategineko 206.1 artikuluan ezarritakoa aplikatzen baldin bada, eta, ondorioz, tokiko polizien erretiro-adina aurreratzen baldin bada, tokiko erakundeek 2020an berrezarpen-tasa gehigarria baliatu ahalko dute, baina kolektibo horri aplikatzeko baino ez. Ekitaldi honetan eta 2021eko ekitaldian erretiro-adinaren aurrerapen horren ondorioz aurreikusten diren bajen kopuruaren arabera zehaztuko da tasa hori. Tasa gehigarri hori deskontatuko da 2021eko eta 2022ko ekitaldietan aplikatzekoa izango den tasatik.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

Lehenengo xedapen iragankorra. *Estatuko sektore publikoaren zerbitzupeko langileen bizilekuagatiko kalte-ordaina.*

2021ean, Estatuko sektore publikoko langile aktiboen bizilekuagatiko kalte-ordaina orain arte bezala ordainduko da hala onartuta duten Estatuko lurraldeetan, eta 2020ko abenduaren 31n indarrean zeuden zenbateko berdinetan, 18.Bi artikuluan ezarritako gehikuntza aplikatuta.

Nolanahi ere, bizilekuagatik kalte-ordainaren onuradunek jasotzen duten zenbatekoa handiagoa bada Estatuko sektore publikoko langileentzat ezarritakoa baino, gehikuntzarik gabe jasotzen jarraituko dute 2021ean, edota aipatutako langileentzat ezarritako zenbatekora iristeko dagokion gehikuntzarekin.

Bigarren xedapen iragankorra. *Osagarri pertsonalak eta iragankorrak.*

Bat. Osagarri pertsonalek eta iragankorrek, eta izaera analogoa duten gainerako ordainsariak, euren berariazko araudian eta Lege honetan xedatutakoa beteko dute.

Bi. 1985erako Estatuaren Aurrekontu Orokorren abenduaren 30eko 50/1984 Legearen 13. artikuluan xedatutakoari jarraituz abuztuaren 2ko 30/1984 Legearen aplikazio-eremuko langileei aitortutako osagarri pertsonalek eta iragankorrek aurreko urteko abenduaren 31n zuten zenbateko bera izango dute, eta lanpostu-aldaketak eragindako hobekuntzek, halakorik egonez gero, xurgatu egingo dituzte.

Lanpostu-aldaketak ordainsarien murrizketa ekartzen duen kasuetan ere, eutsi egingo zaio sistema berria aplikatzearen ondorioz ezarritako osagarri pertsonal iragankorrari, eta haren xurgatzeari egotziko zaizkio lanpostu-aldaketak eragin ditzakeen hobekuntzak.

Aurreko paragrafoetan aurreikusitako xurgatzea egiteko, Lege honetan ezartzen den ordainsari orokorren gehikuntza bere zenbatekoaren ehuneko 50ean soilik zenbatuko da. Horri dagokionez, soldatak –hamalau hilabete-saritan–, destino-osagarriak eta berariazko osagarriak izaera hori dutela joko da.

Aitzitik, hirurtekoak, produktibitate-osagarria eta aparteko zerbitzuengatik haborokinak ez dira kontuan hartuko.

Hiru. Indar Armatuak, Guardia Zibileko eta Polizia Nazionaleko langileei, Gizarte Segurantzako Administrazioako funtzionarioei eta Osasun Kudeaketarako Institutu Nazionaleko estatutupeko langileei aitortutako osagarri pertsonalek eta iragankorrek, bai eta halakoak jasotzeko eskubidea duten gainerako langileei aitortutakoek ere, aurreko Bi paragrafoan ezarritako arau berberak bete beharko dituzte.

Lau. Atzerrian destinatutako langileei aitortutako osagarri pertsonalak eta iragankorrak Estatuan lan egiten duten langileentzat ezarritako arau berberak aplikatuz xurgatuko dira; nolanahi ere, ukitutako funtzionarioak destino-herrialdea aldatzean, bertan behera utzi ahal izango da.

Hirugarren xedapen iragankorra. *Arduraldi eskusiborik ez duten Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko bokalei aplikatzeko araubide iragankorra.*

Bat. Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia eratzen den arte, Botere Judizialaren uztailearen 1eko 6/1985 Lege Organikoa erreformatzeko abenduaren 28ko 4/2018 Lege Organikoan ezarritako sistemaren arabera, kargua eskusiboki betetzen ez duten kideek dietak jasoko dituzte Osoko Bilkurara edo batzordeetara joateagatik, eta ez dagokie beste ordainsaririk bokal karguagatik, zerbitzuagatik sor daitezkeen kalte-ordainak izan ezik.

Bi. Urteko zenbaketan Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak gehienez ere 364.368 euro izango ditu xedagarri, dieta horiek ordaintzeko.

Laugarren xedapen iragankorra. *Estatuaren 2018rako Aurrekontu Orokorren uztailearen 3ko 6/2018 Legearen hogeita bederatzigarren, hogeita hamargarren eta hogeita hamaikagarren xedapen gehigarrietan aurreikusitako epea salbuespenez luzatzea, aldi baterako enplegua egonkortzeko prozesuak baimentzeko eta argitaratzeko.*

Salbuespen gisa, 2021eko abenduaren 31ra arte luzatzen da Estatuaren 2018rako Aurrekontu Orokorren uztailearen 3ko 6/2018 Legearen hogeita bederatzigarren, hogeita hemeretzigarren eta hogeita hamaikagarren xedapen gehigarrietan aipatzen diren aldi baterako enplegua egonkortzeko prozesuak onartzeko eta argitaratzeko epea. Gainerako alderdietan, prozesu horiek xedapen gehigarri horretan ezarritako betekizunak eta baldintzak bete beharko dituzte.

Bosgarren xedapen iragankorra. *Bidaiarien, itsasoko eta aireko garraio erregularreko diruz lagundutako txartelen komertzializazioa.*

Itsas konpainiek, bai eta diruz lagun daitezkeen billeteak merkaturatzen parte hartzen duen beste edozein pertsona fisikok edo juridikok ere, bi hilabete izango dituzte, Lege hau indarrean jartzen denetik aurrera, beren sistemak egokitzeko eta 2013rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 27ko 17/2012 Legearen hamahirugarren xedapen gehigarriaren bigarren apartatuko hirugarren paragrafoan aurreikusitakoa ezartzeko.

Era berean, itsas eta aireko konpainiek, bai eta diruz lagun daitezkeen billeteak merkaturatzen parte hartzen duen beste edozein pertsona fisikok edo juridikok ere, bi hilabete izango dituzte, Lege hau indarrean jartzen denetik aurrera, beren sistemak abenduaren 27ko 17/2012 Legearen hamahirugarren xedapen gehigarriaren laugarren apartatuko hirugarren paragrafoan ezarritakoaren arabera egokitzeko.

Seigarren xedapen iragankorra. *Lege honen 80. artikuluan aurreikusitako trenbide-kanonen unitate-zenbatekoak aldi baterako aldatzea.*

1. COVID-19aren ondoriozko krisiak trenbide-sektorean eragindako kaltea arintze aldera, indarrik gabe geratzen dira Lege honen 80. artikuluan aurreikusitako trenbide-kanonen zenbateko unitarioak, BOEn argitaratu eta hurrengo hilaren lehen egunetik 2021eko abenduaren 31ra bitarteko aldiak. Tarte horretan, tren-azpiegituren administratzaileek honako zenbateko unitario hauek aplikatuko dituzte trenbide-kanonetarako:

Bat. Interes Orokorreko Trenbide Sarea osatzen duten trenbide-lineak erabiltzeagatiko kanona.

1. Modalitateak eta eskatu ahal diren zenbatekoak.

1.1 Kapazitatea esleitzeagatiko kanona (A modalitatea). Sareari buruzko deklarazioan zehaztutako ordutegi-tarteak kasuan kasuko izangaiei esleitzeko zerbitzuarengatik, tren batek bi punturen artean zirkulatu ahal dezan aldi jakin batez.

Zenbatekoa zehaztuko da honako eragiketa hau eginez: tarifa bakarra bider esleitutako tren-kilometro bakoitzaz. Betiere, ukitutako linea mota eta zerbitzu mota bereiziko dira.

Bi tarifa mota ezartzen dira: bata, A motako lineetan egiten diren zerbitzuetarako; eta bestea, gainerako lineetan egiten direnetarako.

A modalitatea – Tren eta km bakoitzeko euroak	Zerbitzu mota					
	VL1	VL2	VL3	VCM	VOT	M
A motako lineak.	1,6767	1,4873	1,7350	1,6069	1,7776	0,4446
A motakoak ez diren lineak.	0,5082	0,5133	0,5118	1,3851	0,4110	0,0724

1.2 Trenbide-lineak erabiltzeagatiko kanona (B modalitatea). Trenbide-linea bat erabiltzeagatik eta erabilera horren ondorioengatik.

Zenbatekoa zehaztuko da honako eragiketa hau eginez: tarifa bakarra bider zirkulatutako tren-kilometro bakoitzaz. Betiere, linea mota eta zerbitzu mota bereiziko dira.

Bi tarifa mota ezartzen dira: bata, A motako lineetan egiten diren zerbitzuetarako; eta bestea, gainerako lineetan egiten direnetarako.

B modalitatea – Tren eta km bakoitzeko euroak	Zerbitzu mota					
	VL1	VL2	VL3	VCM	VOT	M
A motako lineak.	3,6414	3,0043	3,7855	2,3316	0,9797	1,1055
A motakoak ez diren lineak.	0,7247	0,7320	0,7299	1,9752	0,5865	0,1032

1.3 Trakzioko energia elektrikoa eraldatzeko eta banatzeko instalazioak erabiltzeagatik kanona (C modalitatea). Trenbide-linea baten elektrifikazio-instalazioak erabiltzeagatik eta erabilera horren ondorioengatik.

Zenbatekoa zehaztuko da honako eragiketa hau eginez: tarifa bakarra bider elektrifikatutako trenbide-lineetatik zirkulatutako tren-kilometro bakoitzaz. Betiere, linea-mota eta zerbitzu-mota bereiziko dira.

Bi tarifa mota ezartzen dira: bata, A motako lineetan egiten diren zerbitzuetarako; eta bestea, gainerako lineetan egiten direnetarako.

C modalitatea – Tren eta km bakoitzeko euroak	Zerbitzu mota					
	VL1	VL2	VL3	VCM	VOT	M
A motako lineak.	0,4865	0,4315	0,5044	0,4665	0,5292	0,1855
A motakoak ez diren lineak.	0,2018	0,2039	0,2033	0,5500	0,1635	0,0287

1.4 Ahalmena esleitzeagatik kanonaren (A modalitatea) gehikuntza, haren erabilera ez-efizienteagatik.

Trenbide-sarearen erabilera eraginkorra sustatzen jarrai dezaten, esleitutako eta erabilitako ahalmenaren arteko gutxieneko aldean ehunekoak, gehikuntza hau aplikatzeko oinarri gisa balio dutenak, ehuneko 2 izango dira 2021ean, bidaiari-zerbitzuentzat eta ehuneko 15 merkantzia-zerbitzuentzat.

Gehikuntzaren zenbatekoa zehaztuko da honako eragiketa hau eginez: tarifa bakarra bider esleitutako tren-kilometroen kopuruaren eta egindako tren-kilometroen kopuruaren artean dagoen aldeaz, balio absolutuan; betiere, linea motaren eta zerbitzu motaren arabera:

– Bidaiarien zerbitzuetarako, esleitutako ahalmenaren eta hilabete batean erabilitakoaren artean dagoen aldeaz kilometro-tren bakoitzeko, balio absolutuan, linea motaren eta zerbitzu motaren arabera, alde hori esleitutako ahalmenaren ehuneko 2tik gorakoa denean eta ehuneko hori gainditzen duen heinean.

– Salgaien zerbitzuetarako, esleitutako ahalmenaren eta hilabete batean linea motaren arabera erabilitakoaren artean dagoen aldeaz kilometro-tren bakoitzeko, balio absolutuan, alde hori esleitutako ahalmenaren ehuneko 15etik gorakoa denean eta ehuneko hori gainditzen duen heinean.

Gainetik edo azpitik zirkulatutako km-trenei dagozkien euroak

Linea mota	Zerbitzu mota					
	VL1	VL2	VL3	VCM	VOT	M
A lineak.	8,6371	3,4358	5,4446	3,3744	1,5089	1,2910
A ez diren lineak.	0,9265	0,9358	0,9332	4,8849	0,7500	0,1319

1.5 Trenbide-lineak erabiltzeagatik kanonari egindako gehikuntza (B modalitatea) prestazio handiko sareak erabiltzeagatik edo zabalera aldagarriko zerbitzua ustiatzeagatik edo ordutegi-tarte jakin batzuetan gertatzen diren trafiko-intentsitate handiko bestelako egoera batzuegatik.

Zenbatekoa izango da honako eragiketa honetatik ateratzen dena: tarifa bakarra bider kilometro-plaza bakoitzaz, azken hori kalkulatu erabilerako kilometro-trenaren oinarri hartuta, bider trenak ibilbide bakoitzean dauzkan plaza guztiez, A motako linea bakoitza eta zerbitzu bakoitzeko bereizita.

Euroak/eskaintako 100 km-plaza

A motako lineak	Zerbitzu mota					
	VL1	VL2	VL3	VCM	VOT	M
Madril-Bartzelona-Frantziako Muga.	1,7611	0,0000	0,3023	0,4959	0,0000	0,0000
Madril-Toledo-Sevilla-Málaga linea.	0,8647	0,0000	0,1962	0,3218	0,0000	0,0000
Gainerako A lineak.	0,0000	0,0000	0,0000	0,0000	0,0000	0,0000

Tren eta km bakoitzeko euroak

A motakoak ez diren lineak	Zerbitzu mota					
	VL1	VL2	VL3	VCM	VOT	M
B modalitatearen gehikuntza.	0,0000	0,0000	0,0000	2,3597	0,0000	0,0000

1.6 Trenbideko garraioaren hazkundea sustatzeko hoberia.

Trenbide-sarearen ustiatze eraginkorra pizteko xedearekin eta 38/2015 Legearen 97.6 artikuluan ezarritakoaren arabera trenbideko garraioko zerbitzu berriak sustatzeko, hoberi bat aplikatuko da Interes Orokorreko Trenbide Sarea osatzen duten lineak, A eta B modalitateetakoak, erabiltzeko kanonean, urteko trafiko-handitzeetarako, honako irizpide hauei jarraituz:

- A lineetan, banakako linearen eta zerbitzu motaren konbinazio bakoitzerako aplikatuko da.
- B, C, D eta E motatako gainerako lineetan, linea motaren eta zerbitzu motaren konbinazio bakoitzerako aplikatuko da. Konbinazio bakoitzean operatzen duten subjektu pasiboen multzoari aplikatuko zaio.

Hoberi hori aplikatzeko, trenbide-azpiegituren administratzaileak urtero honako hauek ezarriko ditu sareari buruzko deklarazioan:

- a) Erreferentziako trafikoa, Tref deitutakoa, km-trenetan neurtua, trenbide-azpiegituren administratzaileak normaltzat jotzen duena da, aurrez zegoen egoeraren edo hura dela-eta aurreikuspen den bilakaeraren arabera.
- b) Trafiko objektiboa, Tobj deitutakoa, km-trenetan neurtua, trenbide-azpiegituren administratzaileak merkatua dela-eta dauzkan itxaropenen arabera eta azpiegitura horiek erabiltzen dituzten zerbitzuen arabera zehaztutako trafikoa da.
- c) Trafiko inkrementaletarako hoberi objektiboaren ehunekoa, Bobj deitutakoa, trafiko inkrementalei aplikatzeko zaiena, trafiko hazkundea dela-eta dauden aurreikuspenen arabera finkatutako trafiko objektibora iristen denean. Trafikoaren handitzea erreferentziako trafikoaren eta trafiko objektiboaren arteko balio bati dagokionean, xedeko hoberiari barne hoberi bat aplikatuko zaio, sistema progresibo bat aplikatuta.

Hobaria kalkulatu da 38/2015 Legeak 97.6 artikuluan horretarako jasotako formula aplikatuz.

Bi. Trenbide-azpiegituren administratzaile nagusien titulartasunekoak diren zerbitzu-instalazioak erabiltzeagatiko kanona.

1. Modalitateak eta eskatu ahal diren zenbatekoak.

1.1 Bidaiari-garraiorako geltokien erabilerarengatiko kanona (A modalitatea).

Kanon-modalitate horren zenbatekoa honela kalkulatu da:

1.1.1 1., 2., 3., 4. edo 5. kategorietako geltokietan, honako eragiketa hau eginez: tarifa unitarioa bider geltoki kopuruaz, geltokiaren kategorია, geldialdi mota eta tren mota aintzat hartuta.

Tren geldialdi bakoitzeko euroak

Geltokiaren kategoría	Geldialdi mota	Distantzia luzea	Hiriartekoa	Hirigintza
1	Helmuga.	164,0000	33,7842	8,1082
1	Tartekoa.	63,7800	13,1383	3,1532
1	Irteera.	182,2200	37,5380	9,0091
2	Helmuga.	78,1100	16,0904	3,8617
2	Tartekoa.	30,3800	6,2574	1,5018
2	Irteera.	86,7900	17,8782	4,2908
3	Helmuga.	75,2111	15,0422	3,6101
3	Tartekoa.	29,2487	5,8497	1,4039
3	Irteera.	83,5678	16,7136	4,0113
4	Helmuga.	33,4830	6,6966	1,6072
4	Tartekoa.	13,0212	2,6042	0,6250
4	Irteera.	37,2034	7,4407	1,7858
5	Helmuga.	13,4793	2,6959	0,6470
5	Tartekoa.	5,2419	1,0484	0,2516
5	Irteera.	14,9770	2,9954	0,7189

1.1.2 6. kategoriako geltokietan, aldirietako gune bakoitzari honako hau aplikatuz: kategoría horretako geltokien multzoak dauzkan ustiatze-kostuetatik aldirietako gune bakoitzeko ateratako tarifa-zenbatekoak, haien ordainketa 12 hilekotan zatituta.

Gunea	Hileko zenbatekoa - Euroak
Asturias.	6.817
Bartzelona.	152.411

Gunea	Hileko zenbatekoa - Euroak
Bilbo.	16.368
Cádiz.	451
Madril.	214.246
Malaga.	16.232
Murtzia.	202
Donostia.	13.135
Santander.	1.226
Sevilla	1.527
Valentzia.	8.904
Asturias (ADAR).	12.981
Murtzia (ADAR).	1.047
Kantabria (ADAR).	6.247
Bizkaia (ADAR).	1.709
León (ADAR).	2.967
Hilean, guztira	456.470

1.1.3 Geltokien irekitzeko ordutegiaz kanpoko zerbitzuengatik, honako eragiketa hau aplikatuz: tarifa bakarra bider geltokien irekitze bereziaren orduak edo zatikia, geltoki kategoria bakoitzeko.

	Euroak ordu bakoitzeko
1. kategoriako geltokiak.	632
2. kategoriako geltokiak.	108
3. kategoriako geltokiak.	51
4. kategoriako geltokiak.	23
5. kategoriako geltokiak.	10
6. kategoriako geltokiak.	7

1.2 Bidaiarien geltokietako instalazioen erabilera-intentsitateagatiko gehikuntza.

Gehikuntza hori aplikatuko zaie abiadura handiko Adif-eko 1. kategoriatik 5. kategoriara bitarteko bidaiari-geltokiei, honako eragiketa hau aplikatuz: tarifa bakarra bider geltokiko geldialdi bakoitzean egiazki igotako edo jaitsitako bidaiarien kopurua, bidaiari mota berezita.

	Distantzia luzea	Hiriartekoa	Hiri barnekoa eta hiri ingurukoa.
Euroak igotako eta jaitsitako bidaiari bakoitzeko.	0,4084	0,0871	0,0209

1.3 Zabalera-aldagailuetatik igarotzeagatik ezartzen den kanona (B modalitatea).

Modalitate horretako zenbatekoa izango da honako eragiketa hau aplikatuz ateratzen dena: tarifa bakarra bider trena edozein norabidetan zabalera-aldagailutik igarotzen den aldi kopuruaz.

Euroak aldagailutik igarotzen den bakoitzean.	134,8211
---	----------

1.4. Geltokietan nasa duten trenbideak erabiltzeagatiko kanona, bidaiarien merkataritza-zerbitzuetarako trenak aparkatuta edukitzeko edo beste eragiketa batzuetarako (C modalitatea).

C.1 Bidaiarien merkataritza-zerbitzuetarako trenak aparkatuta edukitzeagatik, bestelako eragiketarik gabe.

Oro har, 15 minutuko denbora-tartea ezartzen da, eta denbora-tarte horretan ez da kanona aplikatu beharrik izango.

Nasetan trenak aparkatzeko denbora zenbatzearen ondorioetarako, ez dira aintzat hartuko merkataritza-ibilbide bateko tarteko geldialdiak, ez eta trenbide-azpiegituretako administratzaileak trena aparkatze-bidean edukitzea erabakitzen duen kasuak ere.

Bi ordutegi-aldi bereizten dira, geltokien saturazioaren arabera: goizeko 05:00etik 23:59ra bitartekoa, saturazio arruntekoa; eta 0:00etatik 4:59etara, saturazio txikikoa. Azken horri tarifa murriztua ezartzen zaio.

Kanonaren zenbatekoa izango da tren bakoitzari aparkatze-denborarengatiko tarifa unitarioa aplikatuz ateratzen dena, ordutegiaren eta geltokiaren kategoriaren arabera.

Euro/Trena

	Saturazio arrunta. 05:00etatik 23:59etara. Aparkatze mota			Saturazio txikia. 00:00etatik 04:59etara. Aparkatze mota		
	A	B	C	A	B	C
1. kategoriako geltokiak.	2,2458	3,3688	4,4917	1,1229	1,6844	2,2459
2. kategoriako geltokiak.	1,1229	1,6998	2,2458	0,5615	0,8499	1,1229

Aparkatze mota:

- A 5 minutu gehigarri bakoitzeko, 15 eta 45 minutu bitarte.
- B 5 minutu gehigarri bakoitzeko, 45 eta 120 minutu bitarte.
- C 5 minutu gehigarri bakoitzeko, 120 minututik aurrera.

C.2 Trenak aparkatzeagatik, beste eragiketa batzuetarako.

Kanonaren zenbatekoa izango da tarifa unitarioa –tarifa hori zehaztuta geltokiaren kategoriaren arabera eta trenean egin beharreko eragiketaren arabera– geratze-denboran zehar egindako mota bakoitzeko eragiketa kopuruari aplikatuz ateratzen dena.

	Euroak eragiketa bakoitzeko
Geltokietan trenea garbitzea, 1-2 kategoriak.	0,6818
Trenea garbitzea gainerako geltokietan.	0,5681
Geltokietan trenea garbitzea, 1-2 kategoriak.	0,6722
Trenea zamalanak egitea gainerako geltokietan.	0,5601
Beste eragiketa batzuk.	0,3947

1.5 Trenbideak erabiltzeagatik kanona, zerbitzuko beste instalazio batzuetan: trenak apartatzea eta garbitzea, erregaia hornitzea (D modalitatea).

Instalazioko zerbitzuko bidea erabiltzeko denboraren arabera ezartzen da, bideak oinarritzko osagaiak dituela: bidea bera, katenaria, desbideratzeak eta ekipamendu gehigarria.

Modalitate horren zenbatekoa izango da honako hauek zenbatetik ateratzen dena: baimendutako bide osoa erabiltzeagatik kopurua, bide hori zuzkituta dagoen ekipamenduari lotutako kopurua eta eskatutako ekipamendu gehigarriaren kopurua, kontzeptu bakoitzaren kopuru unitarioa bider kasuko unitateak aplikatuta, eskatutako aldirako hainbanatuz eta 38/2015 Legearen 98.4.D) artikuluan ezarritako errendimendu koefizientearen arabera.

Oinarritzko osagaiak		
C trenbidea.	5,4020	Euroak/trenbidearen ml-urtean.
C Katenaria:	1,8260	Euroak/katenariaren m-urtean
C I. motako desbideratzea (eskuzkoa).	564,7550	Euroak/unitate-urtean
II. motako desbideratzea (urrutiko agente bidezkoa).	2.165,9540	Euroak/unitate-urtean
Bideari lotutako ekipamendu-osagaiak:		
C Bideen arteko korridorea.	1,1910	Euroak/trenbidearen ml-urtean.
C Trenbidearen argiztapena.	1,3680	Euroak/trenbidearen ml-urtean.
C Trenbide-lautadako argiztapena.	2,0260	Euroak/trenbidearen ml-urtean.
C Suteen aurkako babes-sarea.	5,9530	Euroak/trenbidearen ml-urtean.
C Kargatzeko/deskargatzeko nasa.	52,4900	Euroak/trenbidearen ml-urtean.
Ekipamendurako aukerako osagaiak:		
C Koipeak jasotzeko bandeja.	521,5160	Euroak/unitate-urtean
C Erregaia jasotzeko bandeja.	820,0490	Euroak/unitate-urtean
C Kabinara sartzeko eskailerak.	20,9450	Euroak/unitate-urtean
C Deskargatzeko isurbide-zuloa.	118,0500	Euroak/unitate-urtean
C Mantentze-zuloa (hartunerik gabe).	188,3880	Euroak/unitate-urtean

C Kargatzeko/deskargatzeko arrapala.	602,6130	Euroak/unitate-urtean
C Uraren, elektrizitatearen edo aire konprimatuaren hornidurarako hargunea.	43,7500	Euroak/unitate-urtean

Halaber, 98.4.D) artikulua aplikatuta, honako gutxienerako zenbateko hauek ezartzen dira:

- Erregaia hartzeko zerbitzuaren instalazioak erabiltzeagatik gutxienerako zenbatekoa, ADIFen erregai-hornidurako gune finko zein mugikor guztietarako, 3,75 eurokoa izango da.
- Modalitate honi lotutako gainerako zerbitzu-instalazioak erabiltzeagatik gutxienerako zenbatekoa zerbitzu-instalazio bakoitza lau orduz erabiltzeko gutxienerako aldiaren balioidea izango da.

1.6 Salgaiak kargatzeko tokiak erabiltzeagatik kanona (E modalitatea).

Modalitate horren zenbatekoa izango da honako hauek zenbatetik ateratzen dena: baimendutako bide osoa erabiltzeagatik kopurua, bidearen paraleloan dagoen azalerako zerrenda (bazterra) erabiltzeari lotutako osagaia, bide hori zuzkituta dagoen ekipamenduari lotutako kopurua eta eskatuta ekipamendu gehigarriaren kopurua, kontzeptu bakoitzaren kopuru unitarioa bider kasuko unitateak aplikatuta, eskatutako aldirako hainbanatuz eta 38/2015 Legearen 98.4.E) artikuluan ezarritako errendimendu koefizientearen arabera.

Oinarrizko osagaiak		
C trenbidea.	5,4020	Euroak/trenbidearen ml-urtean.
C Katenaria:	1,8260	Euroak/katenariaren m-urtean
C I. motako desbideratzea (eskuzkoa).	564,7550	Euroak/unitate-urtean
II. motako desbideratzea (urrutiko aginte bidezkoa).	2.165,9540	Euroak/unitate-urtean
I. motako lautada (hormigoia/galtzada-harria).	19,3400	Euroak/m-urtean.
II. motako lautada (aglomerazioa).	11,2320	Euroak/m-urtean.
III. motako lautada (zabor-legarrak).	5,1910	Euroak/m-urtean.
Bideari lotutako ekipamendu-osagaiak:		
C Bideen arteko korridorea.	1,1910	Euroak/trenbidearen ml-urtean.
C Trenbidearen argiztapena.	1,3680	Euroak/trenbidearen ml-urtean.
C Trenbide-lautadako argiztapena.	2,0260	Euroak/trenbidearen ml-urtean.
C Suteen aurkako babes-sarea	5,9530	Euroak/trenbidearen ml-urtean.
C Kargatzeko/deskargatzeko nasa.	52,4900	Euroak/trenbidearen ml-urtean.
Ekipamendurako aukerako osagaiak:		
C Koipeak jasotzeko bandeja.	521,5160	Euroak/unitate-urtean
C Erregaia jasotzeko bandeja.	820,0490	Euroak/unitate-urtean
C Kabinara sartzeko eskailerrak.	20,9450	Euroak/unitate-urtean
C Deskargatzeko isurbide-zuloa.	118,0500	Euroak/unitate-urtean
C Mantentze-zuloa (hartunerik gabe).	188,3880	Euroak/unitate-urtean

C Kargatzeko/deskargatzeko arrapala.	602,6130	Euroak/unitate-urtean
C Uraren, elektrizitatearen edo aire konprimatuaren hornidurarako hargunea.	43,7500	Euroak/unitate-urtean

2. Garraioetako, Mugikortasuneko eta Hiri Agendako Ministerioak tren-azpiegituren administratzaileak konpentsatuko ditu erakunde horiek 80. artikuluan aurreikusitako zenbateko unitarioak aplikatuz jaso beharko zituzten kanonen eta xedapen iragankor honetan ezarritako zenbateko unitarioekin jaulkitako likidazioen ondorioz zergapekoek benetan ordaindutakoen artean dagoen aldeagatik.

XEDAPEN INDARGABETZAILEAK

Lehenengo xedapen indargabetzailea. *Indargabetu egiten da Ondarearen gaineko zerga aldi baterako ezartzen duen irailaren 16ko 13/2011 Errege Lege Dekretuaren artikulua bakarraren bigarren paragrafoa.*

Baliogabetu egiten da Ondarearen gaineko zerga aldi baterako ezartzen duen irailaren 16ko 13/2011 Errege Lege Dekretuaren artikulua bakarraren bigarren paragrafoa.

Bigarren xedapen indargabetzailea. *2015erako Estatuaren Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 26ko 36/2014 Legearen 47. xedapen gehigarria indargabetzea.*

Indargabetu egiten da, 2020ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, Estatuaren 2015erako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 26ko 36/2014 Legearen 47. xedapen gehigarria, eta ondorioz gabe uzten dira xedapen hori aplikatuz sortutako interesak.

AZKEN XEDAPENAK

Azken xedapenetako lehenengoa. *Landare-lorpenak babesteko martxoaren 12ko 12/1975 Legea aldatzea.*

Aldatu egiten da Landareak Babesteko martxoaren 12ko 12/1975 Legearen 27. artikulua A) letraren 4. puntua, eta Lege hau indarrean sartzen denetik aurrera izango ditu ondorioak. Hona nola geratzen den idatzita:

«Landare-lorpenak babesteari buruzko martxoaren 12ko 12/1975 Legearen 27. artikulua 4. puntuan agertzen diren 047 kode-tasaren tasak A eranskinean agertzen diren zenbatekoetara igotzen dira.

A ERANSKINA

Onuradunaren eskubideei urtero eusteagatik:

Lehen urtea:

Lehen taldea: 99,37 euro.

Bigarren taldea: 59,64 euro.

Hirugarren eta laugarren taldeak: 39,37 euro.

Bigarren urtea:

Lehen taldea: 139,10 euro.

Bigarren taldea: 99,37 euro.

Hirugarren taldea: 79,49 euro.

Laugarren taldea: 59,64 euro.

Hirugarren urtea:

Lehen taldea: 198,74 euro.
Bigarren taldea: 159,00 euro.
Hirugarren taldea: 119,27 euro.
Laugarren taldea: 99,55 euro.

Laugarren urtea:

Lehen taldea: 238,47 euro.
Bigarren taldea: 198,74 euro.
Hirugarren taldea: 159,00 euro.
Laugarren taldea: 119,27 euro.

Bosgarren urtea eta hurrengoak (babesa amaitu arte):

Lehen taldea: 294,93 euro.
Bigarren taldea: 252,77 euro.
Hirugarren taldea: 198,74 euro.
Laugarren taldea: 159,00 euro.»

Azken xedapenetako bigarrena. *Administrazio Publikoan Aurretzako Zerbitzuak aitortzeari buruzko abenduaren 26ko 70/1978 Legea aldatzea.*

Lege hau indarrean sartzen denetik aurrerako ondorioekin eta indarraldi mugagabearekin, aldatu egiten da Herri Administrazioan alde aurreko zerbitzuak aitortzeari buruzko abenduaren 26ko 70/1978 Legea. Honela idatzita geratzen da:

Aldatu egiten da bigarren artikulua. Honela idatzita geratzen da:

«Bigarren artikulua.

Bat. Hirurtekoak sortzeko, aurreko artikuluan xedatutakoaren arabera aitortzen diren zerbitzu-denboran egindako eginkizunen antzekoak dituzten kidego, eskala, plantilla edo plazakoei dagokien balioa aplikatuko zaie beroriei.

Karrerako funtzionarioa ez den beste baldintza batean emandako zerbitzuak, ordainsariei dagokienez, kidego, eskala, plantilla edo antzeko eginkizunak dituzten plazakoei dagokien zenbateko berean baloratuko dira.

Bi. Administrazio publikoaren eremu batetik bestera igarotzean aurreko artikuluko hirugarren puntuan aipatzen diren zerbitzu konputagarriak hirurteko bat osatzera iristen ez badira, Administrazio Publikoan emandakotzat hartuko dira, hirurtekoen ondorioetarako kontuan har daitezten, ondoz ondoko zerbitzuak emateko ordena kronologikoari jarraituz aplikatzekoa den legediaren arabera.»

Azken xedapenetako hirugarrena. *Ondare Nazionala Arautzen duen ekainaren 16ko 23/1982 Legea aldatzea.*

Lege hau indarrean sartzen denetik eta indarraldi mugagabez ondoreak izanik, honela aldatzen da Ondare Nazionala arautzen duen ekainaren 16ko 23/1982 Legea:

Bat. Hamaikagarren artikulua berria gehitzen da. Honela idatzita geratzen da:

«Hamaikagarren artikulua.

Ondare Nazionalaren Administrazio Kontseiluko lehendakariak arautuko du ondare nazionala osatzen duten ondasunak bisitatzeko eta jendaurrean erakusteko araubidea. Jarduera horietatik datozen diru-sarrerak prezio publikoak dira, eta Ondare Nazionalaren Administrazio Kontseiluak ezarriko ditu, Ogasun Ministerioak baimena eman ondoren.

Era berean, erakundeak erabaki ahal izango du ondare nazionaleko ondasun higigarriak aldi baterako lagatzea edo gordailutzea, beste erakunde publiko batzuekin egindako hitzarmenen edo erakunde pribatuekin egindako kontratuen ondorioz. Kontratu horiek zuzenbide pribatuaren arabera arautuko dira.

Ondare Nazionaleko ondasunak eta eskubideak behar bezala kontserbatzeko, babesteko eta hobetzeko, eta kultura-, zientzia- eta irakaskuntza-helburuetarako erabiltzeko, erakunde pribatuekiko eta partikularrekiko lankidetzeta bultzatuko da.»

Bi. Hamabigarren artikulua berria gehitzen da. Honela idatzita geratzen da:

«Hamabigarren artikulua.

Honako iturri hauetatik etor daitezke Ondare Nazionalaren baliabide ekonomikoak:

- a. Beren ondarea osatzen duten ondasunak eta baloreak.
- b. Ondare horren produktuak eta errentak, bai eta ondare nazionalaren eta errege patronatuen ondasunen kudeaketatik eratorritakoak ere, erakundeak bere helburuak betetzeko erabiliko dituenak.
- c. Estatuko Aurrekontu Orokorretan egin zaizkion berariazko zuzkidurak.
- d. Administrazioaren edo entitate publikoen eskutik jasotzen dituen transferentzia arruntak edo kapital-transferentziak.
- e. Entitate pribatuen eta partikularren dohaintzak, legatuak, babesak eta bestelako ekarpenak. Ondare Nazionalaren Administrazio Kontseiluko lehendakariari dagokio ekarpen horiek erakundearen gastu arruntetan aplikatzeko baimena ematea, aurrekontu-aldaketa ere barne, beharrezkoa bada.
- f. Jasotzeko baimena ematen zaion edo indarreko xedapenen arabera esleidiakiokeen beste edozein errekurso.

Aurreko zenbakian zehaztutako baliabideak, c) eta d) letretan adierazitakoak salbu, erakundearen baliabide propioak izango dira.

Zuzenbide pribatuko diru-sarrerak izango dira Ondare Nazionalaren Administrazio Kontseiluak jarduerak egiteagatik eta ondasunak ustiatzeagatik jasotzen dituenak, baldin eta prezio publikoak ez badira.»

Azken xedapenetako laugarrena. *Emakumearen Institutua organismo autonomoa sortzeari buruzko urriaren 24ko 16/1983 Legea aldatzea.*

Bat. Aldatu egiten da Emakumearen eta Aukera Berdintasunerako Institutuaren izena, eta «Emakumeen Institutua» deitzen zaio hemendik aurrera.

Bi. Aldatu egiten da Emakumearen Institutua organismo autonomoa sortzeari buruzko urriaren 24ko 16/1983 Legearen lehenengo artikulua. Honela idatzita geratzen da:

«Lehenengo artikulua. *Izaera eta araubide juridikoa.*

1. Emakumeen Institutua sortzen da, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen II. tituluko III. kapituluko 2. atalean ezarritako organismo autonomo gisa, eta Berdintasun Ministerioari atxikita.

2. Emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren hogeita zortzigarren xedapen gehigarriaren arabera, Espainiako Erresuman, Emakumeen Institutua da organismo eskuduna honako bi zuzentarau hauetan xedatutakoaren ondorioetarako: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2006ko uztailaren 5eko 2006/54/EE Zuzentarauaren 20. artikuluan xedatutakoa –gizonen eta emakumeen artean aukera berdintasunaren eta tratu-berdintasunaren printzipioa aplikatzekoa enpleguarekin eta okupazioaren zerikusia duten gaietan (testu bategina)–, eta Kontseiluaren 2004ko abenduaren 13ko 2004/113/EE Zuzentarauaren 12. artikuluan xedatutakoa –ondasunak eta zerbitzuak

eskuratzean eta horietaz hornitzean gizon eta emakumeen tratu-berdintasunaren printzipioa aplikatzeari buruzkoa–.

Era berean, berdintasuna sustatzeko erakundea da, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2010eko uztailaren 7ko 2010/41/EB Zuzentarauaren (jarduera autonomoa duten gizonen eta emakumeen arteko tratu-berdintasunaren printzipioa aplikatzeari buruzkoa eta Kontseiluaren 86/613/EEE Zuzentaria indargabetzen duena) 11. artikuluan ezarritakoarekin bat etorrira.

3. Emakumeen Institutua Lege honetan, urriaren 1eko 40/2015 Legearen II. tituluko III. kapituluko 2. atalean eta aplikagarri zaizkion gainerako arauetan xedatutakoak arautzen du.»

Hiru. Aldatu egiten da bigarren artikulua. Honela idatzita geratzen da:

«Bigarren artikulua. *Helburuak.*

Emakumeen Institutuaren helburu nagusia da askatasuna, emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasun eraginkorra eta emakumeek bizitza politikoan, zibilean, lanekoan, ekonomikoan, sozialean eta kulturean parte hartzea ahalbidetzen duten baldintzak bultzatzea eta sustatzea, bai eta sexuagatiko diskriminazio mota oro prebenitzea eta ezabatzea ere.»

Lau. Hirugarren artikulua aldatzen da eta honela geratzen da:

«Hirugarren artikulua. *Eginkizunak.*

Bere helburuak betetzeko, Emakumeen Institutuak, Estatuaren eskumenen esparruan, honako eginkizun hauek beteko ditu:

a) Emakumeen eta gizonen arteko tratu- eta aukera-berdintasunaren printzipioaren zeharkako aplikazioa bultzatzea eta garatzea, bai eta, beste sail batzuekin lankidetzan, Europar Batasuneko zuzentarauak aplikatzeko txostenak egitea ere, non Institutua berdintasuna sustatzeko erakundea den.

b) Sexuagatiko egitezko zein zuzenbidezko diskriminazio-kasu jakinetan egindako kekek jasotzea eta administrazio-ordenan kanalizatzea, eta arrazoi horrengatik diskriminazioaren biktima direnei modu independentean laguntzea, erreklamazioak izapidetu ditzaten.

c) Sexuaren ziozko diskriminazioaren biktimei laguntzeko eta haiek babesteko neurriak sustatzea, beste organo batzuek dituzten eskumenei kalterik egin gabe.

d) Genero-berdintasunari buruzko informazioa eta dokumentazioa biltzea; Espainiako emakumei eta genero-berdintasunari eragiten dioten gaiei buruzko txostenak, azterlanak eta gomendioak egitea, bereziki aukera-berdintasuneko politika publikoei buruz, Estatuan zein nazioartean; eta txosten, azterlan eta gomendio horiek zabaltzea eta nazioarteko, estatuko, autonomia-erkidegoko edo tokiko ministerio-sailekin eta erakunde publiko edo pribatuekin trukatzea.

e) Emakumeen eta gizonen arteko tratu- eta aukera-berdintasunari eragiten dioten gaiei buruzko estatistika-analisiak egitea, adierazleak egitea eta datu-base estatistikoak mantentzea, eta arlo horretan eskumena duten nazioarteko, estatuko, autonomia-erkidegoko edo tokiko beste erakunde publiko edo pribatu batzuekin zabaltzea eta trukatzea. Era berean, Europako erakunde baliokideekin informazioa trukatzea.

f) Emakumeak jarduera ekonomikoan parte hartzera eta lan-merkatuan sartzera bultzatuko dituzten jarduerak abian jartzea, martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan ezarritakoaren arabera, beste sail batzuei egotzitako eskumenei kalterik egin gabe.

g) Sexismoa eta genero-estereotipoak prebenitzea eta horiei aurre egitea, adierazpen guztietan eta bizitzaren eremu guztietan, bereziki eremu publikoetan,

Interneten, publizitatean, komunikabideetan, lan-eremuan, sektore publikoan eta justiziaren, hezkuntzaren, kirolaren eta kulturaren eremuan.

h) Publizitatean, komunikabideetan, interneten edo hezkuntza, kultura edo aisialdiko sustapen eta zabalkunderako beste edozein modutan emakumeen irudiaren tratamendu ez-sexista zaintzea, eta arlo horietako kexa zehatzei erantzutea, Emakumeen Irudiaren Behatokiaren bidez.

i) Hartu-emanak sustatzea, dagozkien eskumenen esparruan, Estatutuko gobernuz kanpoko erakundeekin, bai eta Estatuko, autonomia-erkidegoetako eta tokiko erakunde publiko zein pribatuekin ere; eta, horrez gain, antzeko gaiak xede dituzten nazioarteko organismoekin hartu-emanak izaten saiatzea; bereziki, Europako erakunde baliokideekin eta Genero berdintasunerako Europako Institutuarekin.

j) Aukerako Berdintasunerako Plan Estrategikoaren jarraipena eta ebaluazioa egitea, koordinatzea eta egitea. Era berean, aldizkako txostena egitea, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren 17. eta 18. artikuluetan jasotakoa, ministerio-sailekin eta, bereziki, sail horietako berdintasun-unitateekin lankidetzan.

k) Gizartea sentibilizatzeko, informatzeko, prestatzeko eta partaidetza bultzatzeko ekimenak eta jarduerak formulatzea, eta adierazitako xedeak lortzeko beharrezko den jarduera oro egitea, aplikatzekoa den araudiaren arabera.

l) Indarrean dagoen araudiak esleitutako beste edozer funtzio betetzea.»

Bost. Seigarren artikulua berria gehitu da. Honela idatzita geratzen da:

«Seigarren artikulua.

Emakumeen Institutuko titularrak zuzendari nagusien maila izango du, eta Ministroen Kontseiluak izendatuko du, Berdintasun Ministerioko titularrak proposatuta.»

Sei. Aldatu egiten da azken xedapenetako lehenengoa, eta honela idatzita geratzen da:

«Gobernuari baimena ematen zaio Lege hau garatzeko eta aplikatzeko behar diren xedapenak emateko, bai eta Emakumeen Institutuaren atxikipena errege-dekretu bidez aldatzeko ere.»

Azken xedapenetako bosgarrena. *Aldatu egiten da 849/1986 Errege Dekretua, apirilaren 11koa, Jabari Publiko Hidraulikoaren Araudia onartzen duena, urei buruzko abuztuaren 2ko 29/1985 Legearen atarikoa eta I., IV., V., VI. eta VII. tituluak garatzekoa.*

Lege hau indarrean jartzen denetik eta indarraldi mugagabez ondoreak izanik, aldatu egiten da 849/1986 Errege Dekretua, apirilaren 11koa, Jabari Publiko Hidraulikoaren Araudia onartzen duena, urei buruzko abuztuaren 2ko 29/1985 Legearen atarikoa eta I., IV., V., VI. eta VII. tituluak garatzekoa. Honela geratzen da:

Bat. 300. artikulua a) apartatuaren azken paragrafoa aldatzen da, eta honela geratzen da idatzita:

«300. artikulua.

[...]

Horrela kendutako zenbatekoei gehituko zaizkie aurreikusitako zenbatekoen eta onesteko unean itxitako azken ekitaldian benetan ekoitzi eta egiaztatutako gastuen arteko aldeak, gehiago edo gutxiago izan.»

Bi. Aldatu egiten da 303. artikulua lehenengo paragrafoa, eta honela geratzen da idatzita:

«303. artikulua.

Erregulazio-kanona aplikatu beharreko ekitaldiaren hurrengo urteko lehen seihileko naturalaren barruan kobratuko da.»

Artikulua gainerako zatia bere horretan idatzita geratzen da.

Hiru. 307. artikulua a) apartatuaren azken paragrafoa aldatzen da, eta honela geratzen da idatzita:

«307. artikulua.

[...]

Hurrengo kenderako zenbaterik gehituko zaizkie aurreikusitako zenbaterik eta onesteko unean itxitako azken ekitaldian benetan ekoizti eta egiaztatutako gastuen arteko aldeak, gehiago edo gutxiago izan.»

Artikulua gainerako zatia bere horretan idatzita geratzen da.

Lau. Aldatu egiten da 310. artikulua lehenengo paragrafoa, eta honela geratzen da idatzita:

«310. artikulua.

Ura erabiltzeko tarifa aplikatu beharreko ekitaldiaren hurrengo urteko lehen seihileko naturalaren barruan kobratuko da.»

Artikulua gainerako zatia bere horretan idatzita geratzen da.

Azken xedapenetako seigarrena. *Estatuko Klase Pasiboen Legearen testu bategina (apirilaren 30eko 670/1987 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsia) aldatzea.*

Aldatu egiten da apirilaren 30eko 670/1987 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Estatuko Klase Pasiboei buruzko Legearen testu bategina. Honela geratzen da:

Bat. 33. artikulua 2. apartatua aldatzen da. Honela idatzita geratzen da:

«2. Halaber, erretiro-pentsioak jasotzearekin batera ezin izango da norberaren edo besteren konturako jarduerarik egin, oro har, baldin eta hori egiteak haren titularra Gizarte Segurantzaren edozein araubide publikotan sartzea eragiten badu.

Aurreko lerokadan xedatutakoari kalte egin gabe, erretiro-pentsioak jasotzearekin batera, testu bategin honen 28.2 artikulua a) letran jasotako kasuan, norberaren edo besteren konturako jardura bat egin ahal izango da, nahiz eta horrek titularra Gizarte Segurantzaren edozein araubide publikotan sartzea ekarri, baldintza hauekin betiere:

a) Erretiro-pentsioa eskuratzeko adinak, gutxienez, dagokion funtzionario publikoaren taldearentzat nahitaezko erretiro-adin izendatutakoa izan behar du.

b) Pentsioaren zenbatekoa zehazteko hartzeko arautzaileari aplikatu beharreko ehunekoak ehuneko ehun izan behar du.

Jardura bateragarri batean arituz gero, pentsioaren zenbatekoa hasierako aitortutako zenbatekoaren ehuneko berrogeita hamar izango da, betiere pentsio publikoaren gehieneko muga, hala badagokio, edo jardura hasteko eguneko pentsioduna jasotzen ari dena, aplikatu ostean, eta gutxienez osagarria, nolana ere, baztertuta, azken hori ezin izango baita eskuratu pentsioa eta jardura aldi berean egiten diren denboran.

Hala ere, jarduera norberaren kontura egiten bada eta gutxienez besteren konturako langile bat kontratatu dela egiaztatzen bada, lanarekin bateragarria den pentsioaren zenbatekoa ehuneko ehun izango da.

Arte-sorkuntzako jarduera bat egiten denean, zeinaren bidez jabetza intelektualeko eskubideetatik eratorritako diru-sarrerak jasotzen baitira, hirugarrenei eskualdatzeagatik sortutakoak ere barne, jarduera horrekin bateragarria den pentsioaren zenbatekoa ehuneko ehun izango da, eta kasu honetan afiliazioari, altei, bajei, datuen aldaketari eta kotizazioari buruz ezarritakoa aplikatuko da, bai eta apirilaren 26ko 302/2019 Errege Dekretuan bateragarritasunari buruz ezarritakoa ere (302/2019 Errege Dekretua, apirilaren 26koa, erretiro-pentsio kontributiboaren eta arte-sorkuntzako jardueraren bateragarritasuna arautzen duena, arte-sorkuntzari eta zinemagintzari buruzko urgentziazko neurriak onartzen dituen abenduaren 28ko 26/2018 Errege Lege Dekretuaren azken xedapenetako bigarrena garatzeko).

Klase Pasiboetako Araubidearen pentsioetarako ezarritako moduan handituko da, osorik, pentsioaren balioa. Nolanahi ere, lan bateragarria egin bitartean, pentsioaren zenbatekoa, metatutako balio-handitzeak gehituta, ehuneko berrogeita hamar murriztuko da. Murrizketa hori ez da aplikatuko erretiro-pentsioa norberaren konturako jarduerarekin bateragarria denean eta egiaztatzen denean gutxienez besteren konturako langile bat kontratatuta dagoela edo jarduera artistikoa dela.»

Artikuluaren gainerakoa berdin idatzita gelditzen da.

Bi. 39. artikulua 3. apartatua aldatzen da eta honela gelditzen da:

«3. Aurreko arauen arabera zehazten den oinarri arautzaileari 100eko 50eko ehuneko finkoa aplikatuko zaio, alarguntza-pentsioaren zenbatekoa lortzeko.

Ehuneko hori 100eko 25 izango da, baldin eta eskubidearen eragilea hil bada, zerbitzu-egintzan edo zerbitzu-egintzaren ondoren zerbitzurako erabilezintzat aitortu eta gero, eta zegokion ezohiko pentsioa beraren alde adierazi ondoren.

Aurreko paragrafoetan ezartzen dena gorabehera, aurreko ehuneko horiei 8 eta 4 puntu gehituko zaizkie, hurrenez hurren, onuradunak honako baldintza hauek betez gero (erregelamenduz ezarriko da nola):

a) 65 urte edo gehiagokoa izatea.

b) Espainiako edo atzerriko beste pentsio bat ez jasotzea. Gehikuntza hori bateratu egin ahal izango da haren zenbatekoa gainditzen ez duten beste pentsio batzuekin, Espainiakoekin zein atzerrikoekin. Kasu horietan, alargun-pentsioaren igoeraren zenbatekoa honako hau izango da soilik: honen eta onuradunak jasotzen duen pentsioaren arteko diferentzia.

c) Langile autonomo gisa edo besteren konturako lanen ondoriozko diru-sarrerarik ez jasotzea.

d) Kapitalaren, jarduera ekonomikoen edo ondare-irabazien etekinik jasotzen badu (pertsone fisikoen errentaren gaineko zergan errenta horietarako ezarrita dagoen kontzeptuaren arabera), urteko zenbatekoa ezingo da izan gutxienezko alargun-pentsioaren onuradun izateko Estatuko Aurrekontu Orokorren Legeak ezartzen duen diru-sarreraren mugatik gorakoa.»

Artikuluaren gainerakoa berdin idatzita gelditzen da.

Hiru. 41. artikulua 2. apartatua aldatzen da. Honela idatzita geratzen da:

«2. Umezurtzak besteren konturako edo bere kasako irabazizko lanik egiten ez badu, edo, horrelako lanik eginda ere, urtean zenbatuta, une bakoitzean ezarrita dagoen lanbide arteko gutxienezko soldataren zenbatekoa baino diru-sarrera txikiagoak izaten baditu, zurtasun-pentsioaren onuraduna izan ahalko da, baldin eta, eskubideon sortzailea hil zenean, hogeita bost urtetik beherakoa bazen. Kasu horretan, titularrak hogeita bost urte betetzen dituenean iraungiko da pentsioa, salbu eta ikasketak egiten ari bada. Kasu horretan, zurtasun-pentsioa hurrengo ikasturtea hasi eta hurrengo hilaren lehen egunera arte jasoko da.

Hala ere, umezurtza hogeita bost urte bete baino lehen lan guztietarako ezgaitzen bada, zurtasun-pentsioa jasotzeko eskubidea izango du, biziarteko izaerarekin.»

Artikuluaren gainerakoa berdin idatzita gelditzen da.

Lau. Aldatu egiten da hemeretzigarren xedapen gehigarria, eta honela idatzita geratzen da:

«Hemeretzigarren xedapen gehigarria. *Alarguntza-pentsio zehatz batzuen ehuneko handitzea.*

Alarguntza-pentsioaren zenbatekoaren oinarri arautzaileari aplikatu ahal zaion 8 puntuko gehikuntza, 39.3 artikuluan azken paragrafoan ezarrita, 1984ko abenduaren 31n indarrean zegoen legeriaren babesean ezarrita dauden alarguntza-pentsioei ere aplikatu ahalko zaie, eskakizun berak ezarrita.

Gerrari lotutako legeria bereziaren babesean sortu diren alarguntza-pentsioak direnean, honako baldintza hauek bete beharko dira, gehikuntza hori gauzatzeko:

a) Pentsioaren zenbatekoa ehuneko zehatz bat aplikatuz kalkulatzeko baldin bada, 39.3 artikuluan ezarritakoaren arabera handituko dira, bai eta artikulua horretan ezarritako eskakizunen arabera ere.

b) Gizarte Segurantzako sisteman 65 urtetik gorakoentzat ezarritako alarguntza-pentsioen gutxieneko zenbateko bera duten pentsioek pentsio horiei ezartzen zaien gehikuntza bera izango dute.»

Azken xedapenetako zazpigarrena. *3/2000 Legea, urtarrilaren 7koa, Landareak Babesteko Araubide Juridikoarena aldatzea.*

Lege hau indarrean jartzen denetik eta indarraldi mugagabez ondoreak izanik, aldatu egiten da urtarrilaren 3/2000 Legea, urtarrilaren 7koa, Landareak Babesteko Araubide Juridikoarena. Honela idatzita geratzen da:

Aldatu egiten da 53. artikuluan 3. zenbakia. Honela geratzen da idatzita:

«Aurreko zenbakian aurreikusitako zergapeko egitatek eratorritako tasaren zenbatekoa 381,27 eurokoa da.»

Artikuluaren gainerakoa berdin idatzita gelditzen da.

Azken xedapenetako zortzigarrena. *Lan Arloko Arau-hauste eta Zehapenen Legearen testu bategina aldatzea, zeina abuztuaren 4ko 5/2000 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartu baitzen.*

Lege hau indarrean jartzen denetik eta indarraldi mugagabez ondoreak izanik, aldatu egiten da abuztuaren 4ko 5/2000 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Lan Arloko Arau-hauste eta Zehapenei buruzko Legearen testu bategina. Honela idatzita geratzen da:

III. kapituluko 5. atala gehitu da. Honela idatzita geratzen da:

«5. atala. *Norberaren Konturako Langileen edo Langile Autonomoen Gizarte Segurantzaren Araubide Bereziaren ordezkari aukera diren gizarte-aurreikuspeneko mutualitateen babes-eremua.*

32 bis artikulua. *Arau-hauste larria.*

Urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bateginaren hemezortzigarren xedapen gehigarriaren 4. apartatuak aipatzen duen kide anitzeko profesionalen zerrenda

telematikoa Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren esku ez jartzea, xedapen horretan ezarritako epean eta edukiarekin.»

Azken xedapenetako bederatzigarrena. *Uztailaren 20ko 1/2001 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Uren Legearen testu bategina aldatzea.*

Lege hau indarrean jartzen denetik ondoreak izanik, eta indarraldi mugagabez, aldatu egiten da uztailaren 20ko 1/2001 Legegintzako Errege Dekretuak onartzen duen Uren Legearen testu bategina. Honela idatzita geratzen da:

Bat. Aldatu egiten da 30. artikulua 2. apartatuaren c) letra. Honela idatzita geratzen da:

«30. artikulua. *Erakundeko presidentearen funtzioak aldatzea.*

[...]

c) Erakundearen aurrekontuko kredituen kargura egiten diren gastuak baimentzea eta dagozkien ordainketak agintzea, ondare-erantzukizuneko kasuak barne, baldin eta kalte hori erakundearen aurrekontuaren kontura obrak egitearen, erakundearen berezko zerbitzuak ematearen eta instalazioak kudeatu eta modu arruntan kontserbatzearen ondorio bada.»

Bi. 113. artikulua 3. apartatuaren bigarren paragrafoa aldatzen da. Honela idatzita geratzen da:

«Metro kubikoko oinarrizko prezioa 0,01808 eurokoa izango da hiriko hondakin-urarentzat, eta 0,04520 eurokoa industriako hondakin-urarentzat. Oinarrizko prezio horiek aldizka berrikusi ahalko dira Estatuaren Aurrekontuei buruzko legeetan.»

Artikuluaren gainerakoa berdin idatzita gelditzen da.

Hiru. 114. artikulua 7. apartatua aldatzen da, eta honela gelditzen da:

«114. artikulua. *Ura erabiltzeko tarifa eta erregulazio-kanona.*

[...]

7. Artikulu honetan ezarritakoaren arabera, aroko erakundeak aplikatuko diren ekitaldia hasi baino lehen zehaztuko ditu ura erabiltzeko tarifa eta erregulazio-kanona, eta dagozkion likidazioak aplikatuko ditu aplikatu beharreko urtearen ondorengo urte naturalaren lehen seihilekoan.»

Azken xedapenetako hamargarrena. *Unibertsitateen abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoa aldatzea.*

Lege hau indarrean jartzen denetik eta indarraldi mugagabez ondoreak izanik, aldatu egiten da abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoaren hogeita bederatzigarren xedapen gehigarria. Honela idatzita geratzen da:

«Hogeita bederatzigarren xedapen gehigarria. *Tutoretza-eginkizunak.*

1. Aurrez aurrekoak ez diren unibertsitateek berezko irakasleak dituzte, eta, kasu jakin batzuetan, beren ezaugarri bereziak kontuan hartuta, irakasle laguntzaileak ere badituzte. Irakasle horiek irakaskuntza-laguntzako funtzioak betetzen dituzte, eta orientazio- eta laguntza-jarduerak egiten dituzte ikasleen ikaskuntzan, lanaldi partzialean, kanpokotasunez, independentzia osoz eta antolatzeke autonomiaz, eta beharrezko baliabideak eta esperientzia teknikoak eta profesionala ematen dituzte. Laguntzaile horiek unibertsitateetik kanpoko dedikazio profesional nagusia izan behar dute.

2. Sektore publikoak sustatutako edo partaidetutako unibertsitate ez-presentzialek, beren ezaugarri eta premia bereziak kontuan hartuta prezio

publikoekin jarduten badute, irakasle elkartuen berezko lan-kontratazioaren modalitateari heldu ahal izango diote, Lege honen 53. artikulua irakasle-kategoria hori arautzen duen moduan.

3. 72.3 artikuluan ezarritakoari kalterik egin gabe, unibertsitate publikoetako irakasleek tutoretza-eginkizunak bete ahal izango dituzte aurrez aurrekoak ez diren unibertsitateetan, publikoetan edo autonomia-erkidegoek zati batean finantzaturako unibertsitateetan, betiere prezio publikoekin jarduten badute.

Azken xedapenetako hamaikagarrena. *Zerga, Administrazio eta Gizarte Neurriei buruzko abenduaren 27ko 24/2001 Legea aldatzea.*

Lege hau indarrean jartzen denetik eta indarraldi mugagabez ondoreak izanik, Zerga, Administrazio eta Gizarte Arloko Neurriei buruzko abenduaren 27ko 24/2001 Legearen 22. artikulua Zazpi apartatua aldatzen da. Honela idatzita geratzen da:

«Zazpi. Honako zenbateko hauetan finkatzen da hurbiltzeko tarifa unitarioa:

a) Alicante-Elx, Josep Tarradellas-Bartzelona-El Prat, Bilbo, Fuerteventura, Kanaria Handia, Eivissa, Cesar Manrique-Lanzarote, Adolfo Suárez-Madril-Barajas, Malaga-Costa del Sol, Menorca, Palma, Sevilla, Tenerifeko iparraldea, Tenerifeko hegoaldea eta Valentzia eremuetako aireportuetan: 20,01 euro.

b) A Coruña, Almería, Asturias, Girona, Federico García Lorca-Granada-Jaén, Jerez, La Palma, Reus, Santiago eta Vigo eremuetako aireportuetan: 18,01 euro.

c) Talavera la Real (Badajoz), Madril-Cuatro Vientos, Melilla, Murtziako eskualdea, Iruña, Sabadell, Matacán (Salamanca), San Sebastián, Seve Ballesteros-Santander, Villanubla (Valladolid), Vitoria-Gasteiz eta Zaragoza eremuetako aireportuetan eta ENAIREk hurbiltzeko aire-nabigazioko zerbitzuak ematen dizkien gainerako aireportuetan: 15,00 euro.

Garraioetako, Mugikortasuneko eta Hiri Agendako eta Hiri Agenda Ministerioak aldatu egin ahal izango du sailkapena, aireportu horiek jasaten duten trafikoa aintzat hartuta.»

Azken xedapenetako hamabigarrena. *Pentsio-planak eta funtsak arautzeko Legearen testu bategina (azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege Dekretuaz onartua) aldatzea.*

Lege hau indarrean jartzen denetik eta indarraldi mugagabez ondoreak izanik, aldatu egiten da Pentsio-planak eta -funtsak arautzeko Legearen testu bategina. Honela idatzita geratzen da:

Aldatu egiten da 5. artikulua 3. apartatuko a) letra. Honela idatzita geratzen da:

«5. artikulua. *Pentsio-planen oinarrizko printzipioak.*

[...]

a) Lege honetan araututako pentsio-planen urtean guztira egindako ekarpenak eta kontribuzioak 2.000 eurokoak izango dira gehienez.

Muga hori 8.000 euro handituko da, betiere gehikuntza hori enpresa-ekarpenetatik baldin badator.

Enpresaburu indibidualak enpleguko pentsio-planen egiten dizkien ekarpenak, baldin eta horien sustatzaile eta partaide ere bada, enpresa-kontribuziotzat hartuko dira, muga hori zenbatzearen ondorioetarako.»

Artikulua gainerako zatia bere horretan idatzita geratzen da.

Azken xedapenetako hamahirugarrena. *Aldatu egiten da 9/2003 Legea, apirilaren 25ekoa, genetikoki eraldatutako organismoak konfinaturik erabiltzeari, nahita askatzeari eta komertzializatzeari buruzkoa.*

Lege hau indarrean jartzen denetik eta indarraldi mugagabez ondoreak izanik, aldatu egiten da genetikoki eraldatutako organismoak konfinatuta erabiltzeko, borondatez askatzeko eta merkaturatzeko araubide juridikoa ezartzen duen apirilaren 25eko 9/2003 Legearen 28. artikulua. Honela idatzita geratzen da:

«28. artikulua. *Tarifak.*

1. 24. artikuluko a) letran zehaztutako kasuetan, honako kuota hauek eska daitezke:

a) Instalazioen lehen erabilera arrisku nuluko edo arrisku oso txikiko erabilera konfinatuko jardueretarako: 1.378,00 euro.

b) Instalazioen lehen erabilera arrisku txikiko erabilera konfinatuko jardueretarako: 2.902,34 euro.

c) Instalazioen lehen erabilera arrisku txikiko erabilera konfinatuko jardueretarako: 3.634,03 euro.

d) Instalazioen lehen erabilera arrisku handiko erabilera konfinatuko jardueretarako: 4.829,11 euro.

2. 24. artikuluko b) letran zehaztutako kasuetan, honako kuota hauek eska daitezke:

a) Genetikoki eraldatutako organismoak konfinatuta erabiltzea arrisku txikiko jardueretan, aldeztatik jakinarazitako instalazioetan, arrisku bera edo handiagoa modu konfinatuan erabiltzeko jardueretarako: 1.506,05 euro.

b) Genetikoki eraldatutako organismoak konfinatuta erabiltzea arrisku txikiko jardueretan, aldeztatik jakinarazitako instalazioetan, arrisku bera edo handiagoa modu konfinatuan erabiltzeko jardueretarako: 1.871,89 euro.

c) Genetikoki eraldatutako organismoak konfinatuta erabiltzea arrisku txikiko jardueretan, aldeztatik jakinarazitako instalazioetan, arrisku bera edo handiagoa modu konfinatuan erabiltzeko jardueretarako: 2.420,65 euro.

3. 24. artikuluko c) letran zehaztutako kasuetan, honako kuota hauek eska daitezke: 5.518,11 euro.

4. 24. artikuluko d) letran zehaztutako kasuetan, honako kuota hauek eska daitezke: 14.682,45 euro.»

Azken xedapenetako hamalagarrena. *Uztailaren 7ko 21/2003 Legea, Aire Segurtasunari buruzkoa, aldatzea.*

Lege hau indarrean jartzen denetik eta indarraldi mugagabez ondoreak izanik, Aire Segurtasunari buruzko uztailaren 7ko 21/2003 Legeari hogeigarren xedapen gehigarria gehitzen zaio. Honela idatzita geratzen da:

«Hogeigarren xedapen gehigarria. *Erresuma Batuko aireportu batera doazen bidaiariei aplikatzeko zenbatekoa.*

2022ko otsailaren 28ra arte, Erresuma Batuko aireportu batera egiten diren bidaietan, bidaiarien irteeragatiko ondare-prestazio publikoen zenbatekoak finkatze aldera, 78. artikuluan xedatutakoaren arabera, eta catering-laguntza emateko zerbitzuaren kasuan, 89.1.5 artikuluan xedatutakoaren arabera, EEEra doazen erabiltzaileentzat indarrean dauden bidaiariengatiko zenbatekoak aplikatuko dira.»

Azken xedapenetako hamabosgarrena. *Administrazio Publikoen Ondareari buruzko azaroaren 3ko 33/2003 Legea aldatzea.*

Lege hau indarrean jartzen denetik eta indarraldi mugagabez ondoreak izanik, Herri Administrazioen Ondareari buruzko azaroaren 3ko 33/2003 Legearen 20 ter artikuluari 6. apartatu berria gehitu zaio. Honela idatzita geratzen da:

«20 ter artikulua. *Ab intestato jaraunsearen deklarazioaren ondorioak.*

[...]

6. Jaraunspena administrazioan dagoela joko da, Estatuko Ondarearen zuzendari nagusiak abintestatoaren likidazio-kontua onartu eta lortutako emari likidoa aplikatzea erabaki arte. Ordura arte, ondasunak administratzeak eragindako gastuak, edo ondasunen titulartasunak edo edukitzak eragindako gastuak, hala nola zergak, tasak, jabeen erkidegoaren kuotak eta antzeko beste batzuk, jaraunsiaren zor eta zamatzat hartuko dira Kode Zibilaren 1023. artikulua 1. apartatuan ezarritako ondorioetarako.»

Artikuluaren gainerakoa berdin idatzita gelditzen da.

Azken xedapenetako hamaseigarrena. *Azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, Diru Laguntzei buruzkoa, aldatzea.*

Lege hau indarrean jartzen denetik ondoreak izanik, eta indarraldi mugagabez, aldatu egiten da azaroaren 17ko 38/2003 Legea.

Bat. 10. artikulua 2. apartatua aldatzen da, eta honela gelditzen da:

«10. artikulua. *Dirulaguntzak emateko eskumena duten organoak.*

[...]

2. Aurreko apartatuan xedatuta dagoena gorabehera, 12 milioi eurotik gorako dirulaguntzak ematea baimentzeko, Ministro Kontseiluaren alde aurreko erabakia beharko da, edo, dirulaguntza erregulatzen duen araudiak hala ezartzen badu, Gobernuaren Ekonomia Gaietarako Batzorde Delegatuaren erabakia.

Lehia-konkurrentziaren araubidearen arabera emandako dirulaguntzen kasuan, aipatutako muga hori gainditzen duen deialdia onetsi baino lehen lortu beharko da aurreko apartatuan azaldu den baimena.

Lege honen 23.2 b) artikuluan eta erregelamenduaren 58.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, gehieneko zenbateko osoaz gain zenbateko gehigarri bat ezartzen duten deialdien kasuan, apartatu honen lehen paragrafoan adierazitako zenbatekoa gehieneko zenbatekotik eta aurreikusitako zenbateko gehigarritik ateratzen den zenbateko globalaren arabera ulertu behar da. Zenbateko orokor hori baimena eskatzen duen erabaki-proposamenean azalduko da, eta, horrela, erabakia hartu ondoren, baimena zenbateko horretaraino egin dela joko da. Zenbateko gehigarria akordio-proposamenean agertzen ez bada, Ministroen Kontseiluari beste baimen bat eskatu beharko zaio.

Baimen horrek ez du esan nahi gastua onartzen denik, hori dirulaguntza emateaz arduratzen den organoari baitagokio.»

Artikuluaren gainerakoa berdin idatzita gelditzen da.

Bi. 51. artikulua 2. apartatua aldatzen da. Honela idatzita geratzen da:

«51. artikulua. *Finantza-kontrolaren txostenen ondorioak.*

[...]

2. Organo kudeatzaileak bi hilabeteko epean jakinarazi beharko dio Estatuko Administrazioako Kontu-hartzailetza Nagusiari, finantza-kontrolako txostena jasotzen

duenetik zenbatzen hasita, itzulketa-espeditatea hasi dela edo hura hastearekin ados ez dagoela. Ados ez egonez gero, arrazoitu egin beharko da. Azken kasu horretan, Estatuko Administrazioako Kontu-hartzaitza Nagusiak jarduera-txostena egin ahal izango dio saileko titularrari, baldin eta dirulaguntza kudeatzen duen organoa sail horren mende badago edo hari atxikita badago, eta organo kudeatzaileari ere helaraziko dio.»

Hiru. Hogeita zazpigarren xedapen gehigarria gehitzen da, eta honela idatzita geratzen da:

«Hogeita zazpigarren xedapen gehigarria. Teknologia Zentroak.

Estatu mailako zentro teknologikoetako gobernu-organoetako dirulaguntzen onuradunak badira, Zentro Teknologikoen, Berrikuntzari Laguntzeko Zentroen eta dagozkien erregistroetan inskribatutako autonomia-esparruko zentro teknologikoen erregistroan inskribatuta badaude, eta Zientzia eta Berrikuntza Ministerioak ezarritako baldintzak betetzen badituzte, ez zaie aplikatuko Dirulaguntzen Lege Orokor honen 29. artikuluko 3. apartatuko b) letran, 29. artikuluko 7. apartatuko d) letran eta 31. artikuluko 3. apartatuan ezarritakoa.»

Lau. Laugarren xedapen iragankor berri bat gehitzen da, eta honela idatzita geratzen da:

«Hogeita zazpigarren xedapen gehigarrian aipatutako teknologia-zentroek bete behar dituzten baldintzak ezartzea.

Hogeita zazpigarren xedapen gehigarrian aipatutako betekizunak ministerio-aginduren bidez ezarriko dira, eta agindu hori indarrean jarri eta hiru hilabeteko epean eman beharko da.»

Azken xedapenetako hamazazpigarrena. *Azaroaren 26ko 47/2003 Lege Orokorra, Aurrekontuei buruzkoa, aldatzea.*

Lege hau indarrean jartzen denetik ondoreak izanik, eta indarraldi mugagabez, aldatu egiten da Aurrekontuen azaroaren 26ko 47/2003 Lege Orokorra. Honela idatzita geratzen da:

Bat. 2. artikuluko 2. apartatuko a) letrari 3. ordinal berria gehitzen zaio. Honela idatzita geratzen da:

«2. artikulua. *Estatuko sektore publikoa.*

[...]

3.a Estatu-agentziak.»

Artikuluaren gainerakoa berdin idatzita gelditzen da.

Bi. 37. artikulua 2. apartatua aldatzen da. Honela idatzita gelditzen da:

«37. artikulua. *Gorte Nagusiei komunikatzea.*

[...]

2. Estatuko Aurrekontu Orokorren Lege-proiektuari dokumentazio osagarri hau erantsi beharko zaio:

- a) Gastu-programak eta urteko helburuak deskribatzen dituzten memoriak.
- b) Generoaren arabera eraginari buruzko txostena.
- c) Haurtzaroan, nerabezaroan eta familian duen eraginari buruzko txostena.
- d) Estatuko Aurrekontu Orokorren Agenda 2030 Garapen Jasangarriko Helburuekin lerrokatzeko txostena.
- e) Kredituen garapen ekonomikoari buruzko eranskin bat, gastua kudeatzen duten zentroen arabera.

- f) Inbertsio publikoko proiektuen urte anitzeko eranskin bat, eta eranskin horretan lurralde-sailkapena ere jasoko da.
- g) Aurreko urteko aurrekontuen likidazioa eta uneko ekitaldiko likidazioaren aurrerapena.
- h) Gizarte Segurantzaren aurreko urteko kontuak eta balantzeak.
- i) Aurrekontuen egoera kontsolidatuak.
- j) Ekonomia- eta finantza-txosten bat, eta bertan aurrekontu bakoitzaren edukien azalpena jasoko da, indarrean daudenekin alderatuta izaten dituzten aldaketa nagusiak zehaztuta.
- k) Zerga-onuren gaineko memoria bat.»

Hiru. Aldatu egin da 38. artikulua. Honela idatzita geratzen da:

«38. artikulua. *Estatuaren Aurrekontu Orokorrak luzatzea.*

1. Estatuaren Aurrekontu Orokorren legea kasuan kasuko ekitaldi ekonomikoaren lehen egunerako onesten ez bada, hartu egingo da aurreko ekitaldiko hasierako aurrekontuak zuzenean luzatu direla, harik eta berriak «Estatuko Aldizkari Ofizial»ean onartu eta argitaratu arte.»
2. Luzapenak ez die eragingo aurrekontuak luzatzen diren ekitaldian amaitzen diren programei edo jarduketei dagozkien gastuetarako kredituei, ezta ekitaldian amaitzen diren obligazioetarako kredituei ere.
3. Luzatutako aurrekontuaren egitura organikoa aurrekontua gauzatu behar den ekitaldian indarrean dagoen administrazio-antolamendura egokituko da, zenbateko osoa aldatu gabe.
4. Ministroen Kontseiluak, Ogasun Ministerioak proposatuta, erabakiko ditu aurreko apartatuak aplikatzeko irizpideak.»

Lau. 66. artikuluko 2. eta 3. apartatuak aldatzen dira, eta honela idatzita geratzen dira:

«66. artikulua. *Izapidetzea.*

[...]

2. Indarrean dagoen merkataritza-legedian xedatutakoaren arabera, balantzea, ondare garbiaren aldaketen egoera-orriak eta memoria laburtuak egin ditzaketen Estatuko merkataritza-sozietateak ez daude behartuta urte anitzeko jarduketa-programa aurkeztera, salbu eta Estatuaren Aurrekontu Orokorren kargura ustiapeneko edo kapitaleko dirulaguntzak edo bestelako ekarpenak jasotzen badituzte. Halaber, ez dute urte anitzeko jarduketa-programa aurkeztu beharko Estatuko sektore publikoko fundazioek, sozietate anonimo gisako estatuko merkataritza-sozietateek, baldin eta haien akzioak bigarren mailako balore-merkatu ofizial batean negoziatzeko onartuta badaude, ezta akzioak dituzten erakundeek ere.
 3. Kontabilitatearen arloko merkataritza-araudiaren mende dauden enpresa-erakunde publikoek eta Estatuko sektore publikoko beste erakunde batzuek, eta Estatuko merkataritza-sozietateek ere bai, baldin eta, araudi horren mende dauden beste erakunde batzuen gaineko kontrola gauzatzuz, Merkataritza Kodearen 42.1 artikuluan ezarritako irizpideen arabera talde bat osatzen badute, beren ustiapen-eta kapital-aurrekontuak aurkeztu ahal izango dituzte, eta, hala badagokio, baita urte anitzeko jarduera-programak ere, hura osatzen duten erakundeekin modu kontsolidatuan erlazionatuta. Arau hau ez zaie aplikatuko ustiapen- eta kapital-aurrekontuak egin behar dituen beste erakunde baten partaidetza zuzena edo zeharkakoa duten Estatuko merkataritza-sozietateei.
- Ez daude behartuta urte anitzeko jarduketa-programa modu kontsolidatuan aurkeztera, baldin eta taldeko sozietateren bat Estatuko merkataritza-sozietateetat jotzen bada, sozietate anonimo gisa, eta haren akzioak baloreen bigarren mailako merkatu ofizial batean negoziatzeko onartuta badaude.

Nolanahi ere, ustiapen- eta kapital-aurrekontua eta, hala badagokio, urte anitzeko jarduketa-programa banan-banan aurkeztu beharko dituzte enpresa-erakunde publikoek, salbu eta sozietate anonimoak diren eta bigarren mailako balore-merkatu ofizial batean negoziatzeko onartuta dauden merkataritza-sozietate estatalen akzioen jabe badira, bai eta Estatuko sektore publikoko fundazioek eta Estatuko merkataritza-sozietateek ere, baldin eta Estatuko Aurrekontu Orokorraren beste edozein eratako ustiapen-ekarpenekin edo bestelako izaerarekin eskatzen badituzte.»

Artikuluaren gainerakoa berdin idatzita gelditzen da.

Bost. 74. artikulua 5. apartatua aldatzen da eta honela idatzita gelditzen da:

«74. artikulua. *Gastuak baimentzearen arloko eskumenak.*

[...]

5. Beste herri-administrazio batzuekin edo erakunde publiko edo pribatuekin hitzarmenak edo programa-kontratuak sinatzeko, bai eta kudeaketarako gomendioak erabakitze ere, eskumena duten ministerio-sailen, haien organismo autonomoen eta Gizarte Segurantzaren zerbitzu komunak eta erakunde kudeatzaileen organoek Ministroen Kontseiluaren baimena beharko dute, baldin eta horiek ekarritako gastua hamabi milioi eurotik gorakoa bada.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa ez zaie aplikatuko Lege honen 86. artikulua arabera autonomia-erkidegoek kudeatutako kredituen finantza-konpromisoak formalizatzen dituzten hitzarmenei.

Halaber, Ministroen Kontseiluak aurreko lehen paragrafoaren arabera baimendutako hitzarmenak, organo beraren baimena beharko da, baldin eta gastuaren zenbateko osoa, xede zehatza edo, hala badagokio, aktibo finantzarioak amortizatzeko edo itzultzeko ezarritako egutegiak aldatzen badira.

Artikulu honetan aipatutako Ministroen Kontseiluaren aurretiko baimena ere beharko dute hitzarmenak, programa-kontratuak edo kudeaketarako gomendioak balio gabetzeko xedea duten erabakiek, baldin eta aipatutako organoak baimendu badu haiek sinatzea edo aldatzea aurreko lerroketan xedatutakoaren arabera, negozio juridiko horiek noiz sinatu edo formalizatu dituzten alde batera utzita.

Ministroen Kontseiluaren baimenak hitzarmenaren edo programa-kontratuaren gastua onartzea ekarriko du.

Edozein hitzarmen edo kontratu-programa izenpetu baino lehen, behar den gastu-espeditentea izapidetuko da; hartan, hartu beharreko betebeharren gehieneko zenbatekoa agertuko da, eta urte anitzeko gastuen kasuan, urteko ordainketen araberrako kasuko banaketa. Aurreko paragrafoen arabera Ministroen Kontseiluaren baimena nahitaezkoa denean, gastu-espeditentearen izapideak gaia aipatutako organoari aurkeztu aurretik egingo dira.»

Artikuluaren gainerakoa berdin idatzita gelditzen da.

Sei. 79. artikulua 3. apartatua aldatzen da, eta honela gelditzen da:

«79. artikulua. *Justifikatu behar diren ordainketak.*

[...]

3. Aurrekontuei buruzko azaroaren 26ko 47/2003 Lege Orokorraren 49. artikuluan ezarritakoaren arabera, justifikatu beharreko libramendu guztien kargura, bakarrik egotzi ahal izango dira onartutako igorpena dagokion aurrekontu-ekitaldian egin diren eta eska daitezkeen jarduketetatik eratorritako betebeharrak. Hala ere, Ministroen Kontseiluak erabaki ahal izango du, aurrekontu bati egotzitako atzerriko gastuetarako justifikatu beharreko funts libratuekin, hurrengo ekitaldian egindako gastuei erantzutea, hori interes orokorrerako garrantzitsutzat jotzen bada.

Ondorio horietarako, justifikatu behar diren ordainketa-proposamen guztietan, helburua edozein dela ere, finantzatu nahi diren jarduketan egutegia jaso beharko da, dagokion ordainketa-aginduarekin.

Egutegitik urte anitzeko gastuak daudela ondorioztatzen bada, gastu-espediente bat izapidetuko da, uneko ekitaldiari eta ondorengo ekitaldiei dagozkien urtekoak banakatzeko.

Nolanahi ere, ordainketak onartzen diren ekitaldian inbertitu ez den zenbatekoa dagokion kutzazain ordaintzaileak altxor publikora itzuli duela frogatzen duen ordainketa-gutunaren bidez justifikatuko da.»

Artikuluaren gainerakoa berdin idatzita gelditzen da.

Zazpi. 86. artikulua aldatzen da, eta honela idatzita geratzen da:

«86. artikulua. *Autonomia-erkidegoek kudeatutako kredituak.*

1. Estatuaren Aurrekontu Orokorren Legearen kredituak, baldin eta autonomia-erkidegoek betearazteko eskumenak dituzten eta Lege horren arabera zuzenean eskualdatu ez diren gaiak, jarduerak, sektoreak edo zerbitzuak finantzatzeko badira, lurraldean autonomia-erkidego horien alde banatu beharko dira lankidetzako arau edo hitzarmen bidez; azken horiek banatzeko irizpide objektiboak jasoko dituzte eta, hala badagokio, funtsak kudeatzeko baldintzak finkatuko dituzte, artikuluko honen 2. apartatuan ezarritakoaren arabera.

Estatuko Administrazio Orokorren organo batek edo haren mendeko erakunde batek honako arrazoi hauek direla-eta kudeatu beharreko kredituak ez dira lurraldean banatuko: haien eraginkortasun osoa bermatzeko sektorearen oinarritzko antolamenduaren barruan; balizko hartzaileek Estatu osoan horiek eskuratzeko aukera berak izan ditzaten bermatzeko edo sektorera bideratutako Estatu-funtsen zenbateko osoa gainditu dadin saihesteko.

2. Autonomia-erkidegoen alde kudeatzeko eta administratzeko lurraldean banatu beharreko kredituak gauzatzeko orduan, honako arau hauek hartuko dira kontuan:

Lehena. Kudeaketa eta administrazioa gastu mota bakoitza arautzen duen Estatuko araudiaren arabera egingo dira, eta hala badagokio, autonomia-erkidegoek egingo dituzte horretarako eskudunak diren neurrian.

Bigarrena. a) Sektoreko Konferentziak finkatuko ditu, ekitaldi ekonomikoaren hasieran, aurrekontu-kredituak lurraldean banatzeko oinarri diren irizpide objektiboak, bai eta haien banaketa ere.

Banatu behar den zenbatekoa, guztira, 12 milioi eurotik gorakoa bada, Konferentzia Sektorialaren deialdia egin aurretik Ministroen Kontseiluaren baimena lortu beharko da. Baimen horrek ez du berekin ekarriko gastuaren onarpena, onarpen hori kasu bakoitzean eskuduna den organoari baitagokio. Baimena lortzearen ondorioetarako, Konferentzia Sektorialari aurkeztuko zaion banaketa-proposamena igorriko da.

Aurreko paragrafoan ezarritako zenbatekoari dagokionez, unean uneko Konferentzia Sektorialari aurkeztzen zaion banaketa-proposamenaren guztizko zenbatekoa hartu beharko da kontuan, eta 12 milioi euroren muga kuantitatiboa kalkulatzeko ez da egokia izango hasierako banaketaren ondoriozko zenbatekoa eta, hala badagokio, aurrekontu-ekitaldi berean kreditu horietarako egin diren edo proposatu diren zenbateko gehigarriak metatzea.

Organo eskudunak onartu beharko du gastua, Konferentzia Sektoriala egin aurretik.

b) Aurreko a) letran xedatutakoaren arabera Ministroen Kontseiluak kredituak banatzeko proposamena baimendu duen kasuetan, kreditu horiei eragiten dien zenbateko gehigarri bat banatzeko proposamen orok Ministroen Kontseiluaren

baimena beharko du, banatu behar den zenbateko gehigarriaren zenbatekoa edozein izanda ere.

Hirugarrena. Kreditua banatzeko Konferentzia Sektorialari aurkezten zaion proposamenak zorrotz bete beharko ditu aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren printzipioen eskakizunak; hori dela eta, Ministroen Kontseiluak baimena eman aurretik, hala badagokio, eta organo eskudunak banatu ahal izango den gehieneko guztizko gastua onartu aurretik, araudiaren arabera nahitaezkoak diren txostenak bilduko dira. Estatuko Administrazio Orokorrek, justifikatuta dagoen kasuetan, jatorrian banatu gabeko kredituen erreserba orokorrak ezarri ahal izango ditu, aurrekontua gauzatzen den bitartean aurrekusi gabeko beharrak edo eskariak betetzeko.

Laugarrena. Behin Konferentzia Sektorialak kredituen banaketa onartuta, Estatuko Administrazio Orokorreko organo eskudunen edo haren mendeko erakundeen esku egongo da finantza-konpromisoak formalizatzeko tresna juridikoak, hitzarmenak edo ebazpenak sinatzea edo onartzea.

Bosgarrena. Autonomia-erkidego bakoitzak kudeatu beharreko kredituak lau zatitan igorri eta ordainduko dira hiru hileko bakoitzaren bigarren hamabostaldi naturalean; arau horren salbuespenik lehen hiru hilekoaren ordainketan baino ez da egongo, berau ezin izango baita gauzatu, harik eta kredituen lurralde-banaketa behin betiko onartzen den arte eta dagozkion finantza-konpromisoak, hitzarmenak edo ebazpenak sinatzen edo formalizatzen diren arte, aurreko arauetan xedatutakoaren arabera.

Banatu beharreko kredituek xedetzat izaera pertsonaleko edo sozialeko prestazioak dituztenean, hamabi zatitan igorriko zaizkie autonomia-erkidegoei, hilaren hasieran.

1. zenbakiko helburuko eskualdeetarako Arrantza Programa Operatiboa eta 1. zenbakiko helburutik Kanpoko Eskualdeetarako Programazio Dokumentu Bakarra (DOCUP) finantzatzeko ordainketa-aginduak osorik eman ahal izango dira Sektoreko Batzarrean banatzeko irizpide objektiboak zein horien ondoriozko banaketa hitzartu, eta Ministro Kontseiluaren erabakiz berretsi ondoren.

Nekazaritzako, landa-garapeneko eta ingurumeneko jarduerak –Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsak kofinantzatuta– eta Arrantza Programen arrantza-sektoreko jarduerak –Arrantzaren Europako Funtsak kofinantzatuta– finantzatzeko ordainketa-aginduak osorik eman ahal izango dira dagokien Sektoreko Batzarretan banatzeko irizpide objektiboak zein horien ondoriozko banaketa hitzartu, eta Ministro Kontseiluaren erabakiz berretsi ondoren.

Seigarrena. Ekitaldi bakoitza amaitzean geratzen diren konprometitu gabeko funtsen geldikinek, autonomia-erkidegoen esku daudenek, transferitzeko orduan zuten xedea atxikiko dute oraindik, eta hurrengo ekitaldian jatorrizko diruzaintza-egoera gisa erabiliko dira, autonomia-erkidego bakoitzari transferitu beharreko zenbatekotik kenduko den geldikin moduan.

Geldikina dagokion gastua edo jarduera hurrengo ekitaldiko aurrekontuan jasota ez badago, hura, lehenik eta behin, aurreko ekitaldiaren amaieran ordaintzeke zeuden obligazioak gauzatzera bideratuko da, eta konprometitu ez dagoen soberakina Estatuari itzuliko zaio.

Zazpigarrena. Ekitaldi ekonomikoa amaituta, eta, berandu jota, hurrengo ekitaldiko martxoaren 31n, autonomia-erkidegoek ekitaldiaren gauzatze-egoera bat bidaliko diote dagokion ministerio-sailari; horren bidez urtean egindako kreditu-konpromisoen, aitortutako konpromisoen eta egindako ordainketen zenbateko osoa adieraziko dute, funts-transferentziak egin ziren Estatuko Gastu Aurrekontuaren aurrekontu-aplikazio bakoitzeko zehaztuta. Sektoreko Batzarrari jakinaraziko zaio informazio hori, eta kontuan hartuko da funtsak banatzeko erabakiak hartzeko orduan.

Zortzigarrena. Artikulu honetan aipatutako kredituak kudeatzen dituzten autonomia-erkidegoek jasotako funtsen gaineko kontrol egokia eduki beharko dute,

azken hartzaileek horiek behar den moduan eskuratu, eduki eta erabiltzen dituztela bermatzearren.

3. Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsarekin (LGENF) batera finantzatutako jardueri dagokienez, baldin eta Europar Batasunak onartutako egitasmoak baditu eta haiek gauzatzea autonomia-erkidegoen eskumenekoa bada, Estatuko Aurrekontu Orokorren Legean Estatuko Administrazio Orokorren funtsen ekarpen gisa adierazten diren kredituak emateko, 82.1.a) artikuluan adierazitako diruzaintza-aurrerakinekin finantzatutako kopuruak igortzen diren maiztasuna hartuko da kontuan.»

Zortzi. 90. artikulua aldatzen da, eta honela idatzita geratzen da:

«90. artikulua. *Altxor Publikoa.*

Honako hauek osatzen dute Altxor Publikoa: finantza-baliabideek (dirua edo Estatuko Administrazio Orokorren baloreak edo kredituak izanda ere), haren organismo autonomoek eta Estatuko administrazio-sektore publikoko gainerako erakundeek, 2.2. b), d), g), h) eta 2.3. artikuluetan jasotako subjektuak kanpo utzita, aurrekontu-eragiketak izanik zein ez.»

Bederatzi. 91. artikulua aldatzen da, eta honela idatzita geratzen da:

«91. artikulua. *Sektore publikoaren funtzioak.*

Honako hauek dira Altxor Publikoari agindutako funtzioak:

a) Estatuaren betebeharrak ordaintzea eta haren eskubideak biltzea, hargatik eragotzi gabe Estatuaren Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 27ko 31/1990 Legearen 103. artikuluan ezarritakoa.

b) Kutxa-batasunaren printzipioa betetzea, aurrekontuetako eta aurrekontuetatik kanpoko eragiketek sortutako funts eta balore guztiak zentralizatuz.

b bis) Altxor Publikoa osatzen duten finantza-baliabideak kudeatzea, baliabide horien eraginkortasuna ziurtatzeko beharrezkoak diren finantza-eragiketa aktiboak edo pasiboak hitzartuta.

c) Estatuaren betebeharrak unean-unean betetzeko diru-baliabideak denboran eta lurraldean banatzea.

d) Finantza-sistema nazionalak ondo funtziona dezan laguntzea.

e) Estatuaren zorra jaulki, bereganatu eta kudeatzea, eta zor horri dagozkion finantza-eragiketak gauzatzea.

f) Estatuak Lege honen xedapenen arabera hartutako abalen aurrean erantzutea.

g) Aurretik zerrendatutakoetatik eratorzen diren edo horiekin erlazionatzen diren gainerakoak egitea.

Hamar. 106. artikulua aldatzen da, eta honela idatzita geratzen da:

«106. artikulua. *Diru-aurrekontua.*

1. Ekonomia Gaietako eta Transformazio Digitaleko Ministerioaren titularrak, ordainketen denbora-banaketa egokia eta Estatuaren zorpetze-beharraren estimazio egokia lortze aldera, urtero diru-aurrekontu bat onartuko du, Altxorraren eta Finantza Politikaren Zuzendaritza Nagusiak proposatuta, eta ordainketa-aginduen jaulkipena horretara egokitu beharko da. Halaber, aurrekontu horretan Estatuaren diru-sarrerren gaineko aurreikuspena jasoko da.

2. Aurrekontua egiteko, Altxorraren eta Finantza Politikaren Zuzendaritza Nagusiak aipatutako aurrekontuan eragina izan dezaketen ordainketei eta diru-sarrierei buruz egokitzen jotzen dituen datu, aurreikuspen eta dokumentazio guztiak

eskatu ahal izango dizkio Estatuko sektore publikoari (Lege honen 2.1 artikuluan definituta dago).

3. Diru-aurrekontua ekitaldi batean zehar aldatu ahal izango da, aurrekontuaren gauzatzeari edo diru-sarreraren edo ordainketen aurreikuspenetan izandako aldaketei buruzko datuen arabera.

4. Estatuko diruzaintzaren kudeaketa eraginkorra ziurtatzeko, Altxorraren eta Finantza Politikaren Zuzendaritza Nagusiak ordainketa-proposamenak atxiki ahal izango ditu Altxor Publikoa osatzen duten finantza-baliabideak dituzten Estatuko administrazio-sektore publikoko erakundeen alde, erakunde horiek aurreikusita dituzten ordainketen eta eskura duten diruzaintzaren arabera, esleituta dituzten eskumenak eragotzi gabe.»

Hamaika. 108. artikulua 1. apartatua aldatzen da, eta honela idatzita gelditzen da:

«108. artikulua. *Altxor Publikoaren kontuak eta diruzaintza kudeatzeko eragiketak.*

1. Oro har, Estatuko Administrazio Orokorraren, haren organismo autonomoen eta Altxor Publikoa osatzen duten finantza-baliabideak dituzten Estatuko administrazio-sektore publikoko gainerako erakundeen diru-sarrerak eta ordainketak bideratuko dira Espainiako Bankuan daukaten kontuaren edo kontuen bidez, harekin adostutako moduan, eta Espainiako Bankuaren Autonomiari buruzko ekainaren 1eko 13/1994 Legearen 13. artikuluan ezarritakoa betez. Kontu horiek irekitzeko, Altxorraren eta Finantza Politikaren Zuzendaritza Nagusiaren alde aurreko baimena beharko da, organismo autonomo bakoitzaren edo Altxor Publikoa osatzen duten gainerako erakundeen diruzaintza zentralizatza bideratutakoak izan ezik.

Altxor Publikoan finantza-baliabideak dituzten erakundeen kontuek Altxor Publikoak Espainiako Bankuan duen posizio globala osatuko dute, Espainiako Bankuaren Autonomiari buruzko ekainaren 1eko 13/1994 Legearen 13. artikulua arabera. Parametro horri buruzkoa izango da Estatuko diruzaintzaren kudeaketa, eta, bereziki, finantzaketa- eta zorpetze-beharrak, hargatik eragotzi gabe erakunde horiek beren funtsak kudeatzeko duten autonomia.

Kontuak Kreditu Ofizialeko Institutuan ireki ahal izango dira, institutu horrek aurreko lerrokadan aipatutako erakundeen finantza-agente gisa jarduten duenean. Kontu horiek irekitzeko, Altxorraren eta Finantza Politikaren Zuzendaritza Nagusiaren alde aurreko baimena beharko da. Kontu horiek erabiltzeko baldintzak arautzen dituzten hitzarmenak sinatu baino lehen, Altxorraren eta Finantza Politikaren Zuzendaritza Nagusiaren aldeko txostena jaso beharko da.

Ekonomia Gaietarako eta Transformazio Digitalerako ministroak ezohiko egoerak zehaztu ahal izango ditu, Altxorraren eta Finantza Politikaren Idazkaritza Nagusiak baimena eman dezan kontuak beste kreditu-erakunde batzuetan irekitzeko, hurrengo artikuluan xedatutako moduan.»

Artikulua gainerakoa berdin idatzita gelditzen da.

Hamabi. 109. artikulua 1. apartatua aldatzen da, eta honela gelditzen da:

«109. artikulua. *Kreditu-erakundeekiko harremanak.*

1. Estatuko Administrazio Orokorreko, bere organismo autonomoetako eta finantza-baliabideak Altxor Publikoan izaten dituzten Estatuko sektore publiko administratiboko gainerako erakundeetako funtsen kontu bat Espainiako Bankutik kanpo irekitzeko, Altxorraren eta Finantza Politikaren Zuzendaritza Nagusiaren baimena jaso beharko da aurrez, eta kontua irekitzearen helburua eta erabiltzeko baldintzak adierazi beharko dira. Baimena eman ondoren, kontratazio-espeditzea hasteko bidea irekiko da, eta Sektore Publikoko kontratuei buruzko araudian xedatutakoa beteko da.

Baimena ematen zaio Ekonomia Gaietarako eta Transformazio Digitalerako Ministerioko titularrari arau bidez garatzeko baimenaren mendeko erakundeek banku-kontuak baimentzeko, irekitzeko eta erabiltzeko araubideari buruzko baldintza gehigarriak.

Baimena eskatzen denetik hiru hilabeteko epean ez bada baimenaren jakinarazpenik jasotzen, baimena ezetsizat joko da.

Kontratuek nahitaez jaso beharko dute konpentsazio-ahalmena baztertzeko eta funts publikoak enbargatzeko ezintasunaren onurarekiko errespetuaren klausula, Lege honen 23. artikuluan ezartzen dena.

Kontratua esleitu eta formalizatu ondoren, Altxorraren eta Finantza Politikaren Zuzendaritza Nagusiari horren berri emango zaio, eta kontratua gauzatzen hasteko data ere adieraziko zaio. Kontua aurreikusitako epea baino lehen ezerezten baldin bada, Altxorraren eta Finantza Politikaren Zuzendaritza Nagusiari horren berri eman beharko zaio.»

Artikuluaren gainerakoa berdin idatzita gelditzen da.

Hamahiru. 136. artikulua 3. apartatua aldatzen da eta honela gelditzen da:

«136. artikulua. *Estatuko sektore publikoko erakundeek argitaratu beharreko informazioa.*

[...]

3. Horrez gain, Estatuko Administrazioako Kontu-hartzaitza Nagusiak uztailaren 31n «Estatuko Aldizkari Ofizial»ean argitaratuko du «Sektore publikoaren urteko kontuen erregistroa»ri buruzko erreferentzia, eta bertan Estatuaren Kontu Orokorra, Estatuko Administrazio Orokorren Kontua eta Estatuko sektore publikoko gainerako erakundearen urteko kontuak, eta dagokion kontu-auditoretzako txostena ere argitaratuko dira.

Artikuluaren gainerakoa berdin idatzita gelditzen da.

Hamalau. 145. artikulua 1. eta 5. apartatuak aldatzen dira eta honela geratzen dira:

«145. artikulua. *Kontrolatzaileen betebeharrak eta ahalmenak, lankidetzaren betebeharrak eta laguntza juridikoa.*

1. Kontrolatzeko eginkizunak burutzen dituzten langileek konfidentzialtasunez eta isilpean mantendu beharko dituzte lana dela-eta ezagutzen dituzten gaiak.

Beren zereginetan lortutako datuak, txostenak edo aurrekariak bakar-bakarrik kontrolak egiteko erabili ahal izango dira, eta, beharrezko izanez gero, bai eta administrazioako, kontabilitate-erantzukizuneko edota delituzko arau-hausteak izan daitezkeen ekintzak salatzeke ere.

Kontu Auzitegiak edo estatuko organoren edo organismoren batek esleituta dituen helburuak betetzeko, finantza-kontrol iraunkorreko edo auditoria publikorako txostenetarako sarbidea behar badu, Estatuko Administrazioako Kontu-hartzaitza Nagusiari sarbidea eskatuko dio, eta, hala badagokio, eskatutako txostenak bidaltzeko ere eskatuko dio. Estatuko Administrazioako Kontu-hartzaitza Nagusiak egindako bidalketen berri emango dio ministerio-saileko titularrari, txostenean aipatzen den organo, organismo edo erakundearen atxikipenaren, loturaren edo mendekotasunaren arabera.

Kontrol-txostenak legez eskuratu behar diren gainerako kasuetan, horien eskaera zuzenean bidaliko zaie hartzaileei.

[...]

5. Estatuko Administrazioako Kontu-hartzaitza Nagusiak bost urteko epean gorde eta zainduko ditu auditoria publikoak edo finantza-kontrol iraunkorrak osatzen dituzten agiriak, bai eta adierazitako txostenetan jasotzen diren frogak eta ondorioen euskarria osatzen dituzten lan-paperak, eta gainerako dokumentazioa, informazioa,

artxihoak eta erregistroak ere. Epe hori zenbatzen hasiko da Lege honen 166.1 eta 159.2 artikuluetan hurrenez hurren aipatzen diren auditoria publikoaren txostena eta txosten orokorra egiten diren egunetik aurrera.

Ikuskaritza publikoaren edo finantza-kontrol iraunkorraren txostenari buruzko erreklamazioa, epaiketa edo auzia egonez gero, edo apartatu honetan aipatzen den dokumentazioa frogaelementu izan badaiteke, Estatuko Administrazioako Kontu-hartzailatza Nagusiak horren berri baldin badu, ebazpen edo epai irmoa eman arte edo prozedura amaitu arte edo gatazka horri buruzko azken jakinarazpena egin zenetik bost urte igaro arte luzatuko da epea.»

Artikuluaren gainerakoa berdin idatzita gelditzen da.

Hamabost. Aldatu egiten da bederatzigarren xedapen gehigarria, eta honela idatzita geratzen da:

«Bederatzigarren xedapen gehigarria. *Merkataritza-sozietateak eta sektore publikoaren kontrolpeko beste erakunde batzuk.*

Estatuak autonomia-erkidegoekin edo toki-erakundeekin hitzarmenak egitea sustatuko du, Estatuko sektore publikoko erakundeek, autonomia-erkidegoen edo toki-erakundeen administrazioak edo haiei lotutako edo haien mendeko erakundeek parte-hartze gutxiengoduna duten merkataritza-sozietateen aurrekontu-, finantza-, kontabilitate- eta kontrol-araubidea koordinatzeko, baldin eta haietan duten parte-hartzea, batera hartuta, gehiengoduna bada edo beren kontrol politikoa badakar.

Merkataritza-sozietate horiek derrigorrean aurkeztu behar dizkiote urteko kontuak Kontu Auzitegiari, Estatuko Administrazioaren Kontu-hartzailatza Nagusiaren bidez, baldin eta Estatuko sektore publikoaren partaidetzaren ehunekoak berdina edo handiagoa bada gainerako administrazio publiko bakoitzarena baino; horrez gain, autonomia-erkidego bakoitzak duen araudian ezarritakoa ere bete behar dute. Kontuak emateko prozedurari dagokionez, Lege honetan xedatutakoa aplikatuko da. Halaber, Estatuko Administrazioaren Kontu-hartzailatza Nagusiak gauzatutako kontrol-jardueren mende geratuko dira, Lege honen VI. tituluan ezarritakoarekin bat etorriz.

Aurreko lerroketan xedatutakoa fundazio publikoei eta beste forma juridiko batzuei ere aplikatuko zaie, baldin eta, haietan, Estatuko sektore publikoaren parte-hartzea gainerako administrazio publiko bakoitzaren berdina edo handiagoa bada, betiere autonomia-erkidego bakoitzaren berezko araudian xedatutakoa alde batera utzi gabe.»

Hamasei. Hogeita laugarren xedapen gehigarria. Honela idatzita geratzen da:

«Obrari atxikitako makina astunen materialak edo ekipoak instalatzeko eta biltzeko egindako prestaketa-eragiketen ondoriozko konturako ordainketak, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 240. artikuluen bigarren apartatuan araututako moduan, aurrekontuari dagokionez, «Aktibo finantzarioak» 8 kapituluari egotziko zaizkio.»

Hamazazpi. Azken xedapenetako bosgarrena xedapen berria gehitzen da. Honela idatzita geratzen da:

«Azken xedapenetako bosgarrena.

Aurrekontu eta Gastuen Estatu Idazkaritzari ahalmena ematen zaio, Estatu Idazkaritzaren ebazpen bidez, Lege honen 37.j) artikuluan aurreikusitako genero-eraginari buruzko txostena egiteko metodologia onartzeko.»

Azken xedapenetako bosgarrena, «Indarrean jartzea, azken xedapenetako seigarrena izango da aurrerantzean.

Azken xedapenetako hemezortzigarrena. *Martxoaren 5eko 1/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsi zen Higiezinaren Katastroari buruzko Legearen testu bategina aldatzea.*

Lege hau indarrean jartzen denetik eta indarraldi mugagabez ondoreak izanik, martxoaren 5eko 1/2004 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Higiezinaren Katastroari buruzko Legearen testu bateginaren bigarren xedapen iragankorraren 1. paragrafoa aldatu egiten da, eta honela geratzen da idatzita:

«Bigarren xedapen iragankorra. *Landa-ondasun higiezinaren katastro-balorazioa.*

1. Etenda geratzen da Lege honen II. tituluan katastro-balioa zehazteko ezarritakoa, landa-eremuko ondasun higieziari dagokienez, harik eta, lege bidez, aplikazio-data ezarri arte.

Une horretara arte, aipatutako ondasunen katastro-balioa izango da 1989ko ekitaldiari dagokion nekazaritzako eta abelazkuntzako luraren kontribuziotik salbuesteko indarreko likidazio-oinarrien zenbatekoa ehuneko hiruan kapitalizatzearen ondoriozkoa; oinarri horiek kontribuzio horren bi ebaluazio mota aplikatuz eskuratu dira, zerga-arau batzuen premiazko luzapenari eta egokitzapenari buruzko abenduaren 29ko 7/1988 Errege Lege Dekretuaren edo gerora horien ordezkotza onetsi direnen arabera luzatutakoak; hala ere, urtero eguneratuko dira, Estatuaren Aurrekontu Orokorren Legeek ezarritako eta ezarriko dituzten koefizienteen bidez, ekitaldi bakoitzean izandako edo izango dituzten katastroko aldaketak sartuta.

Ebaluazio mota horiek, hainbat labore eta aprobetxamenduri dagozkienak, estatuko, probintziako eta udaleko koadroetan jasoko dira, eta Katastroko zuzendari nagusiaren ebazpen bidez onartuko dira.»

Azken xedapenetako hemeretzigarrena. *Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bategina aldatzea, martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitakoa.*

Lege hau indarrean jartzen denetik ondoreak izanik, eta indarraldi mugagabez, aldatu egiten da martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsi zen Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateginaren 212. artikulua 3. eta 5. apartatuak. Honela idatzita geratzen dira:

«212. artikulua. *Kontu orokorra ematea, argitaratzea eta onartzea.*

[...]

3. Kontu orokorra, aurreko apartatuan aipatutako Batzorde Bereziaren txostenarekin batera, jendaurrean jarriko da gutxienez 15 eguneko epean. Epe horretan, interesdunek aztertu eta erreklamazioak, eragozpenak edo oharrak aurkeztu ahal izango dituzte. Batzorde Bereziak horiek aztertu eta beharrezkotzat jotzen dituen egiaztapen guztiak egin ondoren, beste txosten bat egingo du.

[...]

5. Osoko Bilkurak Kontu Orokorrari buruzko erabakia hartu eta onartu edo baztertu ondoren, korporazioko presidentek Kontu Auzitegiari emango dio.»

Artikulua gainerakoa berdin idatzita gelditzen da.

Azken xedapenetako hogeigarrena. *Apirilaren 24ko 8/2006 Legea, Tropako Militarren eta Marinelena, aldatzea.*

Lege hau indarrean jartzen denetik eta indarraldi mugagabez ondoreak izanik, aldatu egiten da Tropako Militarren eta Marinelen 8/2006 Legearen 20. artikuluko 3. apartatua (apirilaren 24ko 8/2006 Legea). Honela idatzita geratzen da:

«20. artikulua. *Administrazio publikoetarako sarbidea.*

[...]

3. Defentsa Ministerioari atxikitako funtzionario-kidegoetan eta eskaletan sail horretako eta haren organismo autonomoetako langile lan-kontratudun gisa eta Defentsako Ospitale Sareko estatutupeko langile gisa sartzeko deialdietan, enplegu publikoaren eskaintzaren arabera argitaratuta, gutxienez lanpostuen ehuneko 50 tropako militarrei eta marinelei gordeko zaizkie, baldin eta, gutxienez, zerbitzuan bost urte eman badute, bai eta prestasun bereziko erreserbagileei ere, baldin eta deialdiak argitaratu arte, prestasun-ordainsaria Lege honetako 19.1 artikuluan zehaztutako zenbatekoan eta baldintzetan jasotzen bazuten.

Halaber, deialdi horietan, erreserbatutako plaza guztietatik gutxienez ehuneko 15eko erreserba ezarriko da konpromisoaren azken 10 urteetan dauden tropako eta marineltzako militar profesionalentzat.»

Azken xedapenetako hogeita batgarrena. *Radio y Televisión Española SA SME Korporazioa Finantzatzeko abuztuaren 28ko 8/2009 Legea aldatzea.*

Aldatu egiten da Espainiako Irrati eta Telebista SA SME Korporazioa Finantzatzeari buruzko abuztuaren 28ko 8/2009 Legearen 4. artikulua 2. apartatua. Aldaketak Lege hau indarrean jartzen denetik indarraldi mugagabez izango ditu ondorioak. Honela idatzita geratzen da:

«4. artikulua. *Jabari publiko irrati-elektikoaren erreserbaren gaineko tasaren errendimenduaren gaineko ehunekoa.*

[...]

2. Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko legeek jabari publiko irrati-elektikoa erreserbatzeagatiko tasaren errendimenduaren gainean bestelako portzentajerik ezartzen ez duten bitartean, portzentajea % 100 izango da, eta urteko gehieneko zenbatekoa 410 milioi eurokoa izango da.»

Artikuluaren gainerako zatia bere horretan idatzita geratzen da.

Azken xedapenetako hogeita bigarrena. *2010erako Estatuaren Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 23ko 26/2009 Legea aldatzea.*

Lege hau indarrean jartzen denetik eta indarraldi mugagabez ondoreak izanik, aldatu egiten da 2010erako Estatuaren Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 23ko 26/2009 Legea. Honela idatzita geratzen da:

Gehitu egiten da berrogeita bigarren xedapen gehigarriaren Hiru apartatuaren c) letrako 8. baldintza berria. Honela idatzita geratzen da:

«8.a Sozietate emakidadunak enpresaburu ordenatu baten arduraz jardungo du mailegua itzultzen saiatzeko. Xede horretarako, 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera, honako betebeharrak izango ditu:

a) Urtero mailegua itzultzeko funts bat hornitzea, eta gutxienez urtero maileguaren saldoaren eta sozietate emakidadunaren baliabide propio guztien arteko aldearen % 16,7 izango da. Horretarako, aktiboan erreserba-kontu bat sortu beharko da. Kontu hori xedaezina izango da, mailegua amortizatzeko ez bada, edo, zor publikoan inbertitzeko,

bidesariko autobide nazionalen sozietate emakidadunei aldez aurretik jakinarazita. Erreserba positiboa izango da beti, eta, gehienez ere, sozietatearen urteko kontuetan agertzen den ekitaldiko zergen aurreko emaitzaren berdina.

b) Gobernuaren Ordezkaritzaren baimena lortzea ordainpeko autobide nazionalen sozietate emakidadunetan edozein zorpetze-eragiketa egin aurretik, baldin eta eragiketa horien zenbatekoak, bakarrik edo uneko ekitaldiko beste batzuekin batera, kapital sozialaren % 5 gainditzen badu, bai eta bazkideei edo hirugarrenei edozein mailegu eman aurretik ere. Baimen horiek emango dira zorpetzearen helburua eta sozietate emakidadunaren egungo zein etorkizuneko finantza-egoera kontuan hartuta.

Sozietate emakidadunaren urteko kontuak aztertzean, Gobernuaren Ordezkaritzak, ordainpeko autobide nazionalen sozietate emakidadunetan, betebeharrak horiek betetzeari buruzko informazioa emango du, eta, txostena kontrakoa bada, batzar orokorrari aurkeztu beharko dio, horiek onartzean.»

Xedapenaren gainerakoa berdina idatzita geratzen da.

Azken xedapenetako hogeita hirugarrena. *Estatuko Portuei eta Nabigazio Zibilari buruzko Legearen testu bategina, irailaren 5eko 2/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsia, aldatzea.*

Lege hau indarrean jartzen denetik ondoreak izanik, eta indarraldi mugagabez, aldatu egiten da 2/2011 Legegintzako Errege Dekretua, irailaren 5ekoa, Estatuko Portuei eta Merkataritza Nabigazioari buruzkoa. Honela idatzita geratzen da:

182. artikulua lehen paragrafoa aldatzen da, eta honela idatzita gelditzen da:

«Espainiako portuen lehiakortasuna bultzatzeko eta nazioarteko merkatuetan unean-unean dauden baldintzetara egokitzeko, emakidaren xedea salgaien itsas terminal bat denean, hobari bereziak aplikatu ahal izango dira urtean behin, okupazio-tasari dagokion kuotaren ehuneko 30eraino.

Portu Agintaritzaren Administrazio Kontseiluak proposatuta, dagokion enpresa-planean modu arrazoituan finkatu beharko dira merkantzia-terminal mota bakoitzari aplikatu behar zaizkion hobariak, portuak duen egoeraren arabera, nazioarteko lehiari eta bertan manipulatzeko den merkantziarekin lotutako merkatuei dagokienez. Estatuko Aurrekontu Orokorren Legean edo, hala badagokio, onartzen den legean, terminal horietako mota bakoitzari esleitutako hobariak sartuko dira.

Era berean, ekonomiaren deskarbonizazioari eta klima-aldaketara egokitzeari zuzenean lotutako jarduerak bultzatzeko, Portu Agintaritzak ehuneko 30era arteko hobari bereziak aplikatu ahal izango ditu, emakidaren xedea itsasoko instalazio eolikoetarako elementuen fabrikazio industrialak denean.

Hobari horiek edo horien aukera ez dira inola ere adierazi behar emakida edo baimena emateko tituluari. Hobari hori ekitaldi batean aplikatzeak ez dio subjektu pasiboari sortzen hurrengo ekitaldietan ere jasotzeko eskubidea, ezta inolako emakida-eskubiderik ere.»

Azken xedapenetako hogeita laugarrena. *Jokoa Arautzeko Legea (maiatzaren 27ko 13/2011 Legea), aldatzea.*

49. artikulua 5. apartatua aldatzen da, eta honela idatzita gelditzen da:

«5. Zenbatekoa.

Honako hauek izango dira tasaren zenbatekoak, artikulua honetako 2. apartatuko kasu bakoitzean:

- a) 20 euro.
- b) 38.000 euro.

- c) 2.500 euro.
- d) Lizentzia bakoitzeko 10.000 euro eta baimen bakoitzeko 100 euro.
- e) 5.000 euro.

f) Ustiapeneko diru-sarrera gordinen milako 0,75; horien % 25 iruzurraren aurka borrokatzeko ekimenak egiteko behar diren baliabide materialak, tresnak eta inbertsioak indartzeari lotuko zaio; prebentzio-, komunikaziorako, sentsibilizaziorako, esku-hartzeko eta erreparatzeko neurriak, joko arduratsuaren praktikak errazteko eta joko-jarduera ez-osasungarri batek eragindako ondorio desatseginak arintzeko, bai eta gaiari buruzko azterlanak, memoriak eta ikerketa-lanak egiteko ere.

- b) eta e) letretan ezarritako zenbatekoak gutxienekoak izango dira.

Erregelamenduzko arau bidez zehaztu ahal izango dira zerbitzua edo jarduera emateko behar diren ordu-kopuruaren eta langileen arabera eska daitezkeen zenbatekoak.

Aurreko f) letrari dagokionez, operadorearen ustiapeneko diru-sarrera gordintzat hartuko da jokoan parte hartzeko erabilitako kopuruaren zenbateko osoa; apustu gurutzatuen kasuan, berriz, parte hartzen duten jokalariek irabazitakoaren zenbatekoa.

Estatuko Aurrekontu Orokorren Legeak, hala badagokio, urtero ezarri ahal izango du operadoreak lortzen dituen ustiapeneko diru-sarrera gordinean aplikatu beharreko ehunekoa, tasa kobratzearen ondoriozko diru-sarreraren eta Jokoaren Batzorde Nazionalaren funtzionamenduak eragindako gastuen arteko erlazioa kontuan hartuta.

Tasagatiko diru-sarreraren eta erregulatuzaileak egindako jarduera horretatik eratorritako gastuen arteko oreka lortzea izango da helburua.

Hala ere, Estatuaren Aurrekontu Orokorrei buruzko Legearen ehunekoa diru-sarrera gordinaren milako 0,75eko mugara murrizten bada, lortutako diru-sarreraren eta gastuen arteko superabita, halakorik balego, Jokoaren Batzorde Nazionalak sartuko du Altxor Publikoan, erregelamendu bidez ezartzen diren epe eta baldintzetan, finantzaketa-beharrak kontuan hartuta.»

Artikuluaren gainerakoa berdin idatzita gelditzen da.

Azken xedapenetako hogeita bosgarrena. *Zientziaren, Teknologiaren eta Berrikuntzaren Legea (ekainaren 1eko 14/2011 Legea) aldatzea.*

Lege hau indarrean jartzen denetik eta indarraldi mugagabez ondoreak izanik, aldatu egiten da urtarrilaren Zientziaren, Teknologiaren eta Berrikuntzaren Legea (ekainaren 1eko 14/2011 Legea). Honela idatzita geratzen da:

26. artikuluko 5. apartatua aldatzen da, eta honela geratzen da:

«26. artikulua. *Enplegu publikoan sartzeta eta barne-igoera.*

[...]

5. Eskala zientifikoetan sartzeko, dagozkion hautaketa-prozesuen bidez, txanda libre bat egingo da, eta doktore-titulua edo baliokidea dutenak eta aurreko zenbakietan adierazitako baldintzak betetzen dituztenak sartu ahal izango dira, bai eta barne-igoerako txanda bat ere.

Ikerketako erakunde publikoetako ikertzaile zientifikoaren eskalan sartzeko, barne-igoerako txandan parte hartu ahal izango dute ikerketa-erakunde publikoaren zientzialari titularren eskalako funtzionarioek, bai eta Estatu Administrazio Orokorreko ikerketa-erakunde publikoek ikertzaile sarituaren modalitatean kontratatutako ikertzaileek ere, Lege honen 23. artikuluan arabera.

Ikerketa-erakunde publikoetako ikerketa-irakasleen eskalan sartzeko, barne-igoerako txandan parte hartu ahal izango dute ikerketa-erakunde publikoetako

ikertzaile zientifikoen eta ikerketa-erakunde publikoetako zientzialari titularren eskaletako funtzionarioek.

Gainera, ikerketa-erakunde publikoetako zientzialari titularren eskalan sartzeko deitutako hautaketa-prozesuetan, barne-igoerako txandan parte hartu ahal izango dute Estatuko Administrazio Orokorreko ikerketa-erakunde publikoek Lege honetako 22.3 artikulua araberan lan-kontratu finkoko langile gisa kontratatutako ikertzaileek.

Era berean, erabaki ahal izango da eskala zientifikoetan sartzeko hautaketa-prozesuetan, unibertsitate publikoen zerbitzura jarduten duten unibertsitateko irakasleen kidegoetako karrerako funtzionarioek eta unibertsitate publikoetan lan-kontratu finkoko langile gisa kontratatutako langileek parte hartzea, Lege honen 22.3 artikulua araberan.

Barne-igoera hautaketa-prozesuen bitartez egingo da, betiere, berdintasun-, merezimendu-, eta gaitasun-printzipio konstituzionalak eta apirilaren 12ko 7/2007 Legearen 55.2 artikuluan ezarritakoak betetzea bermatzen bada. Barne-igoerako txandaren bidez sartzeko diren langileek sartzeko eskatzen diren baldintzak bete beharko dituzte: gutxienez bi urteko antzinasuna izan beharko dute lan-kontratu finkoko ikertzaile gisa kontratatuta, edo bi urteko antzinasuna izan beharko dute jatorrizko eskalan edo kidegoan, karrerako funtzionarioen kasuan, eta dagozkion hautaketa-prozesuak gainditu beharko dituzte.

Artikuluaren gainerakoa berdin idatzita gelditzen da.

Azken xedapenetako hogeita seigarrena. *Irailaren 5eko 2/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsi zen Estatuko Portuei eta Merkataritzako Nabigazioari buruzko Legearen testu bategina aldatzea.*

Lege hau indarrean jartzen denetik eta indarraldi mugagabez ondoreak izanik, aldatu egiten da 2/2011 Legegintzako Errege Dekretua, irailaren 5ekoa, Estatuko Portuei eta Merkataritza Nabigazioari buruzkoa. Honela idatzita geratzen da:

Aldatu egiten da 208. artikulua e) letra, eta honela idatzita geratzen da:

«208. artikulua. *Kuota osoa.*

[...]

e) Uhartedi bereko uharte arteko itsas zerbitzuetan integratutako ontzietan garraiatzen diren garraio-araubideko bidaiarien eta bidaiari-araubideko ibilgailuen kasuan, koefizienteak a) letraren 1. zenbakian adierazitakoen edo b) edo c) letrak aplikatzearen ondoriozkoen ehuneko 20 izango dira. Kanarietako uhartediaren kasuan, koefiziente murriztu horiek ehuneko 30ekoak izango dira, eta soilik aplikatuko dira bidaiari-araubideko ibilgailuen kasuan eta Kanarietako Autonomia Erkidegoan bizi diren garraio-araubideko bidaiarien kasuan, baldin eta uharteen arteko itsas zerbitzuetan integratutako ontzietan garraiatzen badira. Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren jurisprudentzian xedatutakoaren araberan, 4055/86 (EEE) Erregelamendu Komunitarioaren aplikazioan salbuespenak onargarriak izan daitezten, koefiziente murriztaile hori justifikatzen da artxipelagoa osatzen duten uharte-lurraldeen kohesioa indartzeko behararekin lotutako interes orokorreko arrazoiengatik eta uhartetan bikoitzak dakartzan kostu gehigarriek uharte txikien garapen ekonomikoan eta lehiakortasunean dituzten ondorioz ez izateko.»

Artikuluaren gainerakoa berdin idatzita gelditzen da.

Azken xedapenetako hogeita zazpigarrena. *Lan Merkatua Erreformatzeko Premiazko Neurriei buruzko Legea (uztailaren 6ko 3/2012) aldatzea.*

Lege hau indarrean jartzen denetik eta indarraldi mugagabez ondoreak izanik, aldatu egiten da Lan Merkatua Erreformatzeko Premiazko Neurriei buruzko Legea (uztailaren 6ko 3/2012). Honela:

Zortzigarren xedapen gehigarriaren Bat apartatua aldatzen da, eta honela idatzita geratzen da:

«Zortzigarren xedapen gehigarria. *Estatuko sektore publikoko merkataritza-kontratu en eta goi zuzendaritzako en berezitasunak.*

Bat. Aplikazio-eremua.

Xedapen hau aplikatuko zaio Aurrekontuei buruzko azaroaren 26ko 47/2003 Lege Orokorren 2.1 artikuluan aurreikusitako erakundeek osatutako Estatuko sektore publikoari.»

Xedapenaren gainerakoa berdin idatzita geratzen da.

Azken xedapenetako hogeita zortzigarrena. *2013rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren abenduaren 27ko 17/2012 Legea aldatzea.*

Lege hau indarrean jartzen denetik eta indarraldi mugagabez ondoreak izanik, aldatu egiten da 2013rako Estatuaren Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 27ko 17/2012 Legea. Honela idatzita geratzen da:

Bat. Aldatu egiten dira hamahirugarren xedapen gehigarriaren bi, hiru eta lau apartatuak. Honela idatzita geratzen dira:

«Hamahirugarren xedapen gehigarria. *Kanarietako, Balearretako, Ceutako eta Melillako egoiliarrentzako dirulaguntzak, aireko eta itsasoko garraiorako.*

[...]

Bi. Kanarietako eta Balear Uharteetako autonomia-erkidegoen eta Ceuta eta Melilla hirien, hurrenez hurren, eta Espainiako gainerako lurraldearen arteko ibilbide zuzenetan, joanekoak izan edo joan eta etorrikoak izan, itsas garraiorako txartelek garraio-zerbitzu erregularren tarifaren ehuneko 75eko hobaria izango dute tarifan, indarraldi mugagabez; uharteen arteko bidaietan, berriz, % 50ekoa izango da hobaria.

Ondorio horietarako, zuzeneko ibilbidetzat hartzen da jatorrizko puntuko portutik (artxipelagoetan, Ceutan edo Melillan) Espainiako gainerako lurraldeko helmugara egiten dena, eta alderantziz, tarteko eskalarik gabe; edo, tarteko eskalak egonez gero, hamabi orduko iraupena gainditzen ez dutenean, salbu eta zerbitzuaren beharizan teknikoek edo ezinbesteko arrazoiek ezarritakoak.

Estatuko Administrazio Orokorrek kudeatutako zenbait hobari bateragarri ibilbide berean metatzen direnean, aplikatu beharreko hobari osoaren ehuneko ezin izango da inola ere garraio-zerbitzu erregularren tarifaren ehuneko 85 baino handiagoa izan.

Hiru. Kanarietako eta Balear Uharteetako autonomia-erkidegoen eta Ceuta eta Melilla hirien, hurrenez hurren, eta Espainiako gainerako lurraldearen arteko bidaiarien aireko garraioko zerbitzu erregularren zein uharteen artekoen tarifen hobari-ehunekoak, indarraldi mugagabez, garraio-zerbitzu erregularren tarifaren ehuneko 75ekoa izango da joaneko edo joan eta etorriko zuzeneko ibilbide bakoitzeko; uharteen arteko bidaietan, berriz, zenbateko horren ehuneko 75ekoa izango da.

Ondorio horietarako, joaneko zuzeneko ibilbidetzat jotzen da uharteetako, Ceutako edo Melillako abiapuntuko aireportutik edo heliportutik Espainiako lurraldeko beste batera doana eta alderantzizkoa, tarteko eskalarik gabe edo eskalak eginda, baldin eta horiek gehienez 12 orduko iraupena badute, zerbitzuaren premia teknikoek edo ezinbesteko arrazoiek eraginik izan ezean.

Hobari hori aplikatzeko, Aireko Segurtasunari buruzko uztailaren 7ko 21/2003 Legeak 68.2 artikuluko d), e) eta f) letretan aipatzen dituen ondare-prestazio publikoen zenbatekoa kenduko da garraio-zerbitzu erregularren tarifaren zenbatekotik, bidaiariari ordainarazi zaizkion ala ez kontuan eduki gabe. Horretarako, ondare-prestazio horiek banakatuta agertuko dira hegal-di-kupoiak justifikatzeko dokumentazioan.

Lau. Xedapen honetan araututako hobarien ondorioetarako, indarreko erroldatze-ziurtagiriaren bidez egiaztatuko da Kanarietako eta Balear Uharteetako autonomia-erkidegoetako eta Ceutako eta Melilla hirietako egoiliar-izaera.

Erregelamendu bidez beste bide batzuk ezarri ahalko dira egoiliar izatea egiaztatzeko, zenbaki honetan xedatutakoa ordeztuz edota osatuz.

Hobaridun ibilbideetan txartelak merkaturatzeko erabilitako bidea alde batera utzita, bidaiariari ez zaio egoiliar-izaerari buruzko informaziorik eskatuko erosketa-prozesuaren azken fasera arte, hain zuzen ere, penintsulaz kanpoko lurraldeetan bizi bada, ordainketa egiteko eta txartela emateko baldintza hori betetzen duela egiaztatu behar den arte.»

Bi. Aldatu egiten da hamahirugarren xedapen gehigarriaren Sei apartatua, eta honela idatzita geratzen da:

«Sei. Bost zenbakian aurreikusitako bitartekaritza-plataformaren bidez ezin bada egiaztatu dirulaguntzen onuradun izateko eskatutako betekizunak betetzen direla, aplikatu beharreko araudian xedatutako edozein bitartekoren bidez egiaztatuko dira betekizun horiek. Ondorio horietarako, erroldatze-ziurtagiria hobari horiek garatzeko araudian erregelamendu bidez xedatutakoari lotuko zaio.

Aurreko apartatuan ezarritakoari kalterik egin gabe, gerora sortutako gorabehera teknikoengatik ezin izan denean Bitartekaritza Plataformaren bidez egiaztatu aipatutako baldintzak betetzen direla itsas garraioko zerbitzu erregular baten hasiera programatua baino 24 ordu lehenago, itsas konpainiek aukera izango dute, beren arrisku eta menturarako, onuradunaren egiaztatzea lortzeko, gorabehera ebatzi eta hurrengo 48 orduetan egindako kontsulta telematikoen bidez.»

Azken xedapenetako hogeita bederatzigarrena. *Aldatu egiten da 17/2014 Errege Lege Dekretua, abenduaren 26koa, autonomia-erkidegoen eta toki-erakundeen finantza-iraunkortasunerako neurriei eta bestelako neurri ekonomikoari buruzkoa.*

Lege hau indarrean sartzen denetik eta indarraldi mugagabez ondoreak izanik, aldatu egiten da 17/2014 Errege Lege Dekretua, abenduaren 26koa, autonomia-erkidegoen eta toki-erakundeen finantza-iraunkortasuneko neurriei eta beste neurri ekonomiko batzuei buruzkoa. Honela idatzita geratzen da:

Bat. Aldatu egiten da 6. artikulua bigarren apartatua. Honela idatzita geratzen da:

«2. Autonomia Erkidegoak Finantzatzeko Funtsa bost konpartimentutan egituratuta dago, eta konpartimentu bakoitzak bere ezaugarri eta baldintzak ditu. Honako hauek dira:

- a) Finantza Erraztasuna.
- b) Likidezia Funts Autonomikoa.
- c) Gizarte Funtsa.
- d) Autonomia Erkidegoen Hornitzaileei Ordaintzeko Likidazioko Finantzaketa Funtsa.
- e) REACT-UE likidezia-funtsa.»

Artikuluaren gainerakoa berdin idatzita gelditzen da.

Bi. Xedapen gehigarri bat gehitzen da, eta honela idatzita geratzen da:

«Hemeretzigarren xedapen gehigarria. *Autonomia Erkidegoak Finantzatzeko Funtsaren REACT-UE Likidezia Funtsaren konpartimentua.*

1. REACT-UE Likidezia Funtsaren konpartimentuaren helburua da hari atxikitzen zaizkion autonomia-erkidegoei finantzaketa eta finantza-likidezia ematea, Kohesiorako eta Europako lurraldeetarako Berreskuratzeko Laguntza (REACT-UE) azkar hedatu eta gauzatzeko.

2. REACT-UE Likidezia Funtsaren konpartimentuaren bidez autonomia-erkidegoen esku jarritako finantza-baliabideak ez dira baldintzapekoak izango; beraz, autonomia-erkidegoen erantzukizuna izango da baliabide horiek ordaintzeko helburura bideratzea.

3. REACT-UE Likidezia Funtsaren konpartimentuari atxikitzeko eskatu ahal izango dute Kohesiorako eta Europako Lurraldeetarako Berreskuratzeko Laguntzaren (REACT-UE) 2021-2022 aldiko egitura-funtsetarako baliabide gehigarrien onuradun diren autonomia-erkidegoek, Ekonomia Gaietarako Gobernuaren Ordezko Batzordeak erabakitzen duen mailegua atxikitzeko prozeduraren eta eman beharreko finantza- eta zerga-baldintzen arabera.

4. Konpartimentu horri atxikitako autonomia-erkidegoak dagokion kreditu-eragiketa sinatuko du Estatuarekin. Estatuak kudeatuko ditu, autonomia-erkidegoaren izenean eta haren kontura, Ekonomia Gaietarako Gobernuaren Ordezko Batzordeak, Kreditu Ofizialeko Institutuaren bidez, autonomia-erkidego atxikien alde erabakitako xedapenak eta ordainketak. Kreditu Ofizialeko Institutuak autonomia-erkidegoentzako finantzaketa-funtseko ordainketa-agente gisa jardungo du.

5. REACT-EU Likidezia Funtsaren konpartimentuari atxikitako autonomia-erkidegoek REACT-EU laguntza antolatzen duen autonomia-erkidego bakoitzeko eskualdeko programa operatiboari dagozkion gastuen ziurtagiriaren bidez lortutako baliabideak erabili beharko dituzte REACT-EU Likidezia Funtsetik emandako kreditua zati batean edo osorik amortizatzeko, Ogasun Ministerioari eta Kreditu Ofizialeko Institutuari aldez aurretik jakinarazita.

6. REACT-UE baliabide gehigarriak artikulatzen dituzten programa eragileak ixten direnean, REACT-EU Likidezia Funtsaren konpartimentuari atxikitako autonomia-erkidegoek Autonomia Erkidegoak Finantzatzeko Funtsaren konpartimentu horretan oraindik dagoen maileguaren zenbatekoa ezeztatu beharko dute.

Azken xedapenetako hogeita hamargarrena. *Hazkuntza, Lehiakortasuna eta Efizientzia Sustatzeko Urgentziazko Neurriak onartzen dituen Legea (urriaren 15eko 18/2014 Legea) aldatzea.*

Lege hau indarrean jartzen denetik eta indarraldi mugagabez ondoreak izanik, indargabetu egiten da hamazazpigarren xedapen gehigarria. Hazkuntza, lehiakortasuna eta efizientzia sustatzeko premiazko neurriak onartzen dituen urriaren 15eko 18/2014 Legearen Aena SA sozietatearen urte anitzeko aurrekontua eta jarduera-programa.

Azken xedapenetako hogeita hamaikagarrena. Sozietateen gaineko Zergaren azaroaren 27ko 27/2014 Legea aldatzea.

Bat. Aldatu egiten da Sozietateen gaineko Zergari buruzko azaroaren 27ko 27/2014 Legearen 36. artikuluen 1. apartatuaren a) letra. Honela idatzita geratzen da:

«36. artikulua. *Kenkaria ekoizpen zinematografikoetan, ikus-entzunezko serieetan, eta arte eszenikoen eta musikalen zuzeneko ikuskizunetan inbertsioak egiteagatik.*

1. Film luze eta labur zinematografikoen eta fikziozko, animazioko edo dokumentaleko ikus-entzunezko serieen Espainiako ekoizpenetan egindako

inbertsioek, baldin eta industria-ekoizpen seriatuaren aurretik euskarri fisiko bat egitea ahalbidetzen badute, ekoizleari edo finantzaketan parte hartzen duten zergadunei kenkari baterako eskubidea emango diete:

- a) Ehuneko 30eko kenkaria kenkariaren oinarriaren lehen milioiari dagokionez.
- b) Zenbateko horretatik gorako ehuneko 25eko kenkaria.

Kenkariaren oinarria produkzioaren kostu osoa izango da, baita ekoizlearen kargura ordaindu beharreko publizitate- eta sustapen-gastuak nahiz kopietarako gastuak ere –ekoizpen-kostuaren ehuneko 40ko muga, bien kasuan–.

Kenkari-oinarriaren ehuneko 50ek, gutxienez, Espainiako lurraldean egindako gastuekin lotuta egon beharko du. Kenkari horren zenbatekoa ezingo da 10 milioi eurotik gorakoa izan. Koprodukzioen kasuan, apartatu honetan adierazitako zenbatekoak kasuan kasuko partaidetza-ehunekoaren arabera zehaztuko dira koproduktore bakoitzarentzat.

Kenkaria aplikatzeko, honako eskakizun hauek bete beharko dira:

a') Produkzioak dagokion nazionalitate-ziurtagiria lortu beharko du, baita edukiarekin lotutako izaera kulturala, Espainiako errealitate kulturalarekin duen lotura edo Espainian ematen diren obra zinematografikoen aniztasun kulturalaren aberastasunerako ekarpena egiaztatzen duena ere; horiek Zinematografia eta Ikus-entzunezko Arteen Institutuak egingo ditu, edo dagokion organoak arlo honetan eskumena daukan autonomia-erkidegoan. Ziurtagiri horiek lotesleak izango dira aurreko zerga-pizgarriak egiaztatzearen eta aplikatzearen eta ekoizle onuraduna identifikatzearen arloan eskumena duen zerga-administrazioarentzat, edozein dela ere pizgarri horiek emateko unea.»

Bi. Aldatu egiten dira Sozietateen gaineko Zergari buruzko azaroaren 27ko 27/2014 Legearen 39. artikulua 1. eta 5. apartatuak, eta 7. apartatua sortu da. Honela idatzita geratzen dira:

«39. artikulua. *Kapitulu honetan aurreikusitako kenkariaren arau komunak.*

1. Kapitulu honetan aurreikusitako kenkariak titulu honetako II. eta III. kapituluetakoen kenkariak eta hobariak egin ostean aplikatuko dira.

Kenkari gisa aplikatu ez diren zergaldiko zenbatekoak ondorengo 15 urteetan eta hurrengoetan amaitzen diren zergaldietako kitapenetan aplikatu ahal izango dira. Nolanahi ere, Lege honetako 35. artikuluan aurreikusitako kenkariari dagozkien zenbatekoak ondorengo 18 urteetan eta hurrengoetan amaitzen diren zergaldietako kitapenetan aplikatu ahal izango dira.

Kapitulu honetan aurreikusitako kenkariak egiteko epeen konputua geroratu ahal izango da iraungipen-epetaren barruan emaitza positiboak dauden lehen ekitaldira arte, honako kasu hauetan:

- a) Entitate sortu berrietan.
- b) Aurreko ekitaldietako galerak saneatzen dituzten entitateetan; horretarako, baliabide berrien ekarpen eraginkorra egin beharko da, baina erreserben kapitalizazioa edo aplikazioa ez da halakotzat hartuko.

Paragrafo honetan aipatzen diren kapitulu honetan aurreikusten diren eta zergaldian bertan aplikatzen diren kenkariaren zenbatekoa ez da, inola ere, kenkarietan murriztutako kuota osoaren ehuneko 25 baino handiagoa izango, horrela, nazioarteko zergapetze bikoitza eta hobariak saihesteko. Hala eta guztiz ere, muga ehuneko 50era igoko da, Lege honen 35. eta 36. artikuluetan ezarritako kenkariaren zenbatekoa –zergaldian bertan egindako gastuei eta inbertsioei dagokiena– nazioarteko zergapetze bikoitza eta hobariak saihesteko helburuarekin murriztutako kuota osoaren ehuneko 10 baino handiagoa denean.

5. Aurreko artikuluetan aurreikusitako kenkariekin lotutako ondare-elementuek funtzionamenduan mantendu beharko dute 5 urtez, edo 3 urtez ondare higigarriak badira, edo haren balio-bizitzan, hura txikiagoa izanez gero. Ekoizpen zinematografikoen eta ikus-entzunezko serieen kasuan, baldintza hori betetzat joko da, baldin eta ekoizleak obraren titulartasun-ehuneko berari eusten badio 3 urteko epean, hargatik eragotzi gabe obraren ondoriozko ustiapen-eskubideak osorik edo zati batean hirugarren bati edo gehiagori merkaturatzeko ahalmena.

Betekizun hori betetzen ez den zergaldiari dagokion kuotarekin batera, kendutako kantitatea ordainduko da, berandutze-interesez gain.

7. Halaber, Lege honen 36. artikularen 1. eta 3. apartatueta aurreikusitako kenkaria eskuratzeko aukera izango du beste zergadun batek egindako film luze eta labur zinematografikoen ekoizpen espainiarren eta fikzio, animazio, dokumental edo arte eszeniko eta musikalen zuzeneko ikuskizunen ekoizpen eta erakustaldien finantzaketan parte hartzen duen zergadunak, finantzaketa gisa kopuruak ematen dituenean, ekoizpenaren kostu guztiak edo batzuk ordaintzeko, jabetza intelektualeko eskubiderik edo bestelako eskubiderik eskuratu gabe, emaitzei dagokienez; eta horien jabetza, nolana ere, ekoizlearena izango da. Ekarpene horiek ekoizpenaren edozein fasetan egin ahal izango dira, nazionalitate-ziurtagiria lortu arte.

Emandako zenbatekoak itzultzeko, ekoizleak finantzaketan parte hartzen duen zergadunari eskualdatzen dizkion kuotako kenkari likidoak erabiliko dira, kontratuaren eta 36. artikuluko 1. eta 3. apartatueta ezarritakoaren arabera.

Artikulu honetan xedatutakoa aplikatzeko, beharrezkoa izango da ekoizleak eta ekoizpenaren finantzaketan parte hartzen duten zergadunak finantzaketa-kontratu bat sinatzea, besteak beste, honako hauek zehaztuta:

- a) Ekoizpenean parte hartzen duten zergadunen identitatea.
- b) Ekoizpenaren deskribapena.
- c) Ekoizpenaren aurrekontua, gastuen eta, bereziki, Espainiako lurraldean egingo diren gastuen deskribapen xehatuarekin batera.
- d) Ekoizpena finantzatzeko modua, honako hauek bereizita zehaztuta: ekoizleak ematen dituen kopuruak, finantzaketan parte hartzen duen zergadunak ematen dituenak eta dirulaguntzei eta bestelako laguntza-neurriei dagozkienak.
- e) Erregelamendu bidez ezartzen diren gainerako kontuak.

Finantzaketan parte hartzen duen zergadunek artikulu horretan aurreikusitako kenkaria autolikidazioan egiaztatzeko eskubidea izango dute, eta haren zenbatekoa ekoizleak aplikatutako baldintza berberetan zehaztuko da. Aurrekoa gorabehera, ekoizpenaren finantzaketan parte hartzen duen zergadunak ezin izango du dagokion zenbatekoa baino kenkari handiagoa aplikatu, eta zenbateko hori, kuotari dagokionez, hura finantzatzeko ordaindutako zenbatekoen zenbatekoa 1,20z biderkatuta ateratzen da. Soberakina ekoizleak aplikatu ahal izango du.

Produkzioaren finantzaketan parte hartzen duen zergadunak edo zergadunek urtero aplikatuko dute artikulu honetan ezarritako kenkaria, zergaldi bakoitzean ordaindutako ekarpenen arabera.

Artikulu honetako kenkaria baliatu nahi duten zergadunek finantzaketa-kontratua eta 36. artikuluko 1. apartatuko [a'] eta [b'] baldintzak edo 3. apartatuko [a'] baldintza betetzen dituztela egiaztatzeko ziurtagiria aurkeztu beharko dituzte, dagokion moduan, Zerga Administrazioari egindako jakinarazpen batean. Jakinarazpena ekoizleak eta ekoizpenaren finantzaketan parte hartzen duen zergadunak sinatu behar dute, kenkaria sortzen den zergaldia amaitu baino lehen, erregelamendu bidez ezarritako baldintzetan.

Finantzaketan parte hartzen duen zergadunak kenkaria egiaztatzea bateraezina izango da, osorik edo zati batean, Lege honen 36. artikularen 1. eta 3. apartatueta xedatutakoa aplikatzeagatik ekoizleak izango lukeen kenkariarekin.»

Azken xedapenetako hogeita hamabigarrena. *Abenduaren 26ko 36/2014 Legea, 2015erako Estatuaren Aurrekontu Orokorrena, aldatzea.*

Lege hau indarrean jartzen denetik eta indarraldi mugagabez ondoreak izanik, aldatu egiten da 2015erako Estatuaren Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 26ko 36/2014 Legearen hamaikagarren xedapen gehigarria. Honela idatzita geratzen da:

«Hamaikagarrena. Kredituak zentralizatzea.

1. «Kontratazio zentralizatua» 923R aurrekontu-programaren «kontratazio zentralizatua» 10. ataleko 01 «Kontratazioa Arrazionalizatzeko eta Zentralizatzeko Zuzendaritza Nagusia» aurrekontu-zerbitzuarri egotzi beharreko gastuak finantzatzeko kredituak zuzkitzeko, honako prozedura hauetako bat baliatu ahalko da:

a) Ekitaldi bakoitzeko Estatuaren Aurrekontu Orokorretan, hasieran.

b) Organo hartzailearen aurrekontutik egin beharreko kreditu-transferentzien bidez, honako aurrekontu-programa honi egotzi beharreko gastuak finantzatzeko: «Kontratazio zentralizatua» izeneko 10. ataleko 923R aurrekontu-programari («Kontratazio zentralizatua»), edota, aplikatzekoa den aurrekontu-araubidearen arabera transferentzia hori egiterik ez dagoenean, kreditua sortuz honako aurrekontu-zerbitzu honetan: 01 Aurrekontu-zerbitzuan («Kontratazioa Arrazionalizatzeko eta Zentralizatzeko Zuzendaritza Nagusia»), «Kontratazio zentralizatua» izeneko 10. ataleko 923R Programan («Kontratazio zentralizatua»), kontratu zentralizatuaren xede den hartzaileak egindako diru-sarreretatik, edo transferentzien bidez. Aldaketa horiek Ogasun Ministerioaren titularrak onartuko ditu, Kontratazioa Arrazionalizatzeko eta Zentralizatzeko Zuzendaritza Nagusiaren ekimenez eta Ogasuneko idazkariordeak proposatuta.

c) b) letran aurreikusitakoez bestelako aurrekontu-partidetatik datorren kreditua transferitzeagatik edo sortzeagatik. Kasu horietan, Gobernuari dagokio «Kontratazio zentralizatua» 10. atalaren eta beste ministerio-sail batzuei dagozkien atalen arteko transferentziak baimentzea. Ondorio horietarako, Ogasuneko ministroak dagokion proposamena igorriko dio Ministroen Kontseiluari. Hala eta guztiz ere, Ogasun Ministerioaren titularrari dagokio «Kontratazio zentralizatua» 10. atalaren eta Ogasun Ministerioaren aurrekontu-atalaren arteko transferentziak baimentzea.

d) Aurrekontuei buruzko azaroaren 26ko 47/2003 Lege Orokorrean ezarritakoaren arabera aplikatu daitezkeen beste edozein prozedura.

2. Ogasuneko ministroak emandako ministerio-aginduek onartutakoan, Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen testu bateginaren 229.1 artikuluan ezarritakoarekin bat etorruta, hala dagokionean eta kontratu bakoitzaren espedientea izapidetzen hasi aurretik, Kontratazioa Arrazionalizatzeko eta Zentralizatzeko Zuzendaritza Nagusiak Lege horren 3.1 artikuluko a), b), c), d), e) eta g) letretan aipatutako erakundeei eta organismoiei jakinaraziko die, aurreko 1.b) apartatuan ezarritako kasuan, kontratuaren xedearen banaketaren arabera dagokien kreditu-atxikipenaren zenbatekoa.

3. Beren aurrekontuen finantzaketa orokorrerako edo bereizi gabeko finantzaketarako Estatuaren Administrazio Orokorren transferentziak jasotzen ez dituzten organismo edo erakundeek ekitaldiaren lehen hiruhilekoan transferitu beharko dizkiote altxor publikoari zerbitzu zentralizatuari dagozkien zenbatekoak. Ondore horietarako, Kontratazioa Arrazionalizatzeko eta Zentralizatzeko Zuzendaritza Nagusiak transferitu beharreko zenbatekoak komunikatuko dizkie organismo horiei.

4. «Kontratazio zentralizatua» izeneko 923R Programaren kredituak kudeatzeko organo arduraduna Kontratazioa Arrazionalizatzeko eta Zentralizatzeko Zuzendaritza Nagusia da. Organo horretako titularrak Kontratazio Zentralizatuaren Batzarreko burua izango da, zuzendaritza orokor horri atxikita dagoen kide anitzeko organoa da, eta Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen 229.5 artikuluen arabera (azaroaren 8ko 9/2017 Legea), kontratazioa zentralizatzeko estatu-sistemaren kontratazio-organoa ere bai.»

Azken xedapenetako hogeita hamahirugarrena. *Lan-arloko Enplegurako Lanbide-heziketaren Sistema arautzen duen Legea (30/2015 Legea, irailaren 9koa) aldatzea.*

Lege hau indarrean jartzen denetik eta indarraldi mugagabez ondoreak izanik, aldatu egiten da 30/2015 Legea, irailaren 9koa, Lan-arloko Enplegurako Lanbide Heziketaren Sistema arautzen duena. Honela idatzita geratzen da:

Bat. Aldatu egiten da 6. artikulua 5. apartatuko d) letra, eta honela geratzen da idatzita:

«6. artikulua. *Finantzaketa.*

[...]

d) Dirulaguntzen zuzeneko emakida prestakuntza-ekintzetan parte hartzen duten langabeei ematen zaizkien beken eta laguntzen kasuan –garraiorako, mantenurako eta ostaturako– aplikatuko da, eta 12 urtetik beherako seme-alaben edo mendeko senideen zaintza eta prestakuntza-saioretara joatea uztartzeko aukera ematen duten laguntzen kasuan; horrez gain, hala badagokio, enpresei lanekoak ez diren praktika profesionalak egiteagatik ematen zaien konpentsazio ekonomikoaren kasuan ere aplikatuko da, baldin eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 22.2 artikuluan jasotako salbuespena betetzen bada.

Era berean, azaroaren 17ko 38/2003 Legearen arabera zuzenean dirulaguntzak ematea aurreikusita duten ekimen eta kasuak alde batera utzi gabe, emakida modu hori aplikatuko zaie, interes publiko eta sozialeko arrazoiak direla medio, askatasunaz gabetuta dauden pertsonak eta indar armatuekin aldi baterako harremana duten tropako eta marineltzako militarrek prestatzeko erakunde publiko eskudunek sinatzen dituzten hitzarmenei, eta, halaber, Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak Ondare Nazionalaren Administrazio Kontseiluari eta Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren Espainiako Agentziari ematen dizkien dirulaguntzei ere aplikatuko zaie, lantegi-eskolen, ikas-ekinezko prestakuntzako ikastegien, enplegu-lantegien eta sustapen- eta garapen-unitateen enplegu- eta prestakuntza-programa publikoak garatzeko.»

Bi. 6. artikulua 6. apartatua aldatzen da eta honela idatzita geratzen da:

«6. Aurreko apartatuetan zehaztutako dirulaguntza publikoak emateko oinarri arautzaileak erregelamendu bidez ezarriko dira, eta 1. apartatuan aurreikusitako funts guzti-guztiak kudeatzeko eskudunak diren administrazioei aplikatuko zaizkie oinarri horiek. Oinarri arautzaile horietan, dagokion dirulaguntza ematen denetik aurrera egiten diren prestakuntza-ekintzen finantzaketa soilik bilduko da.

Halaber, prestakuntza-jarduera hasi aurretik funtsak emateko aukera ere aurreikus daiteke oinarri horietan, azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 34. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, eta gehieneko muga ere izango du, zeina ez baita izango emandako zenbatekoaren ehuneko 25 baino handiagoa. Behin prestakuntza-ekintza hasi dela egiaztatzen denean, beste ordainketa bat egin daiteke, gehienez ere ehuneko 35koa. Beraz, horrek esan nahi du onartutako zenbatekoaren gutxienez ehuneko 40 diruz lagundutako prestakuntza-jarduera amaitutakoan eta justifikatutakoan emango dela.

Administrazioak eman behar dituen gainerako aurrerakinak eta ordainketak, aurreko paragrafoan jasotakoaren arabera, hiru hilabeteko epean egingo dira gehienez ere, onuradunak aurrerakina eskatzeko behar den dokumentazioa aurkezten duenetik zenbatzen hasita, edo hamabi hilabeteko epean, dirulaguntzaren xede den jardueraren amaierako egiaztagiria aurkezten direnetik zenbatzen hasita, ez bada behintzat emakida- eta justifikazio-arubidea moduluka aplikatzen dela (7. artikulua 2. zenbakia); horrelakoetan, sei hilabeteko epea izango da.

Oinarri horietan xedatutako irizpideei dagokienez, ez dira sartuko, inolaz ere, erakunde jakin batzuetarako jardueraren erreserba dakarten dirulaguntzak emateko

irizpideak, ez eta kaudimen teknikoarekin eta finantzarioarekin loturarik ez duen bestelako irizpiderik ere.

Administrazio eskudunek aurreko zenbakietan aipatu diren funtsak kudeatzen dituztenean Merkatu Batasuna Bermatzeari buruzko abenduaren 9ko 20/2013 Legearen II. kapituluaren aurreikusitako printzipioak bete beharko dituzte.»

Hiru. 6. artikulua 7. apartatua aldatzen da eta honela gelditzen da:

«7. Enplegatu publikoen prestakuntza finantzatzeko, lanbide-heziketako kuotatik datozen funtsen ehuneko jakin bat bideratuko da; hain zuzen ere, ekitaldi bakoitzeko Estatuko Aurrekontu Orokorren Legean ezartzen den ehunekoa. Prestakuntza hori administrazio publikoen eremuan sinatzen diren prestakuntza-akordioaren arabera sustatutako programa espezifikoen bitartez garatuko da.

Akordio horiek alde batera utzi gabe, enplegatu publikoen prestakuntzarako finantzaketaren emakida norgehiagoka-araubidearen arabera arautuko da, eta prestakuntza-erakunde guztietara zabalik egongo da, betiere indarrean dagoen araudiaren arabera inskribatze- edota egiaztatze-eskakizunak betetzen badituzte.

Aurreko paragrafoan esandakotik salbuetsita geratzen da administrazio publikoek berezko baliabideekin beren langileei zuzenean ematen dieten prestakuntza, bai eta administrazio publikoen mendeko prestakuntza-erakunde publikoek emandakoa ere, prestakuntza-erakunde pribatueta jotzen ez badute.»

Lau. 6. artikulua 8. apartatua aldatzen da eta honela idatzita geratzen da:

«8. Negoziazio kolektiboarekin eta gizarte-elkarrizketarekin lotutako eginkizunak garatzeko gaikuntza lortzea xede duten prestakuntza-ekintzak finantzatzeko, Estatuko Aurrekontu Orokorren Legean urtero finkatzen den zenbatekoa bideratuko da. Erregelamendu bidez ezarriko dira dirulaguntza publikoak emateko oinarri arautzaileak, bai eta justifikatzeko eta ordaintzeko mekanismoak ere.

Administrazio publikoen eremuan, prestakuntza hori administrazio publikoetako enplegurako sinatzen diren prestakuntza-akordioaren arabera sustatutako programa espezifikoen bitartez garatuko da. Administrazio Publikoetako Enplegurako Prestakuntza Akordioaren esparruan, apartatu honetan aipatutako ekintzak Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren gastu-aurrekontuan ekitaldi bakoitzean esleitutako zenbatekoen kargura finantzatzeko dira, Herri Administrazioaren Institutu Nazionalaren prestakuntza-jarduera finantzatzeko, aurreko 7. apartatuaren arabera.»

Azken xedapenetako hogeita hamalagarrena. *Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren Legea (40/2015 Legea, urriaren 1ekoa) aldatzea.*

Lege hau indarrean jartzen denetik eta indarraldi mugagabez ondoreak izanik, aldatu egiten da

40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena. Honela idatzita geratzen da:

Bat. 84. artikulua aldatzen da, eta honela idatzita geratzen da:

«84. artikulua. *Estatuko sektore publiko instituzionalaren osaera eta sailkapena.*

1. Estatuko sektore publiko instituzionalaren barnean honako entitate hauek daude:

a) Estatuko Administrazio Orokorrari lotutako edo haren mendeko organismo publikoak. Organismo publiko horiek honela sailkatzen dira:

1. Organismo autonomoak.
2. Enpresa-entitate publikoak.
3. Estatu-agentziak.

- b) Administrazio-agintaritza independenteak.
- c) Estatuko merkataritza-sozietateak.
- d) Partzuergoak.
- e) Sektore publikoko fundazioak.
- f) Nortasun juridikorik gabeko funtsak.
- g) Transferitu gabeko unibertsitate publikoak.

2. Estatuko Administrazio Orokorrak edo sektore publiko instituzionaleko entitate batek, berez nahiz beste entitate publiko edo pribatu batzuekin elkarlanean, ezingo du sortu artikulu honetan azaldu direnez bestelako entitaterik, ezta sortutako entitateak zuzenean edo zeharka kontrolatu, edozein direla ere entitate horien izaera eta araubide juridikoa.

Apartatu honetan xedatutakoa ez zaio aplikatuko Estatuak nazioarteko organismoetan edo nazioz gaindiko entitateetan izan dezakeen parte-hartzeari, ezta normalizazio eta egiaztapenerako organismo nazionaletan edo Birmoldaketari eta Berrindustrializazioari buruzko uztailaren 26ko 27/1984 Legearen babesean sortutako sozietateetan izan dezakeen parte-hartzeari ere.

3. Transferitu gabeko unibertsitate publikoak azaroaren 26ko 47/2003 Legeak eraenduko ditu, aplikagarria zaien heinean; beren araudi espezifikoan aurreikusita ez dagoen guztian, berriz, Lege honetan xedatutakoak eraenduko ditu.»

Bi. 86. artikulua aldatzen da, eta honela idatzita geratzen da:

«86. artikulua. *Baliabide propioa eta zerbitzu teknikoa.*

1. Sektore publiko instituzionaleko entitateak botere adjudikatzaileen eta botere adjudikatzaile ez diren gainerako ente eta sozietateen baliabide propio eta zerbitzu teknikotzat jo ahalko dira baldin eta azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen testu bateginean ezarritako baldintza eta betekizunak betetzen badituzte.

2. Baliabide propio eta zerbitzu teknikotzat joko dira baldin eta egiaztatzen bada sorrerako arau edo akordioaren arabera haien sozietate-xedearekin bat datorren jarduera-sektorean prestazioak emateko baliabide nahiko eta egokiak izateaz gain inguruabar hauetako bat gertatzen dela:

- a) Kontratazio publikoa baino aukera efizientegoa da, eta iraunkorra eta efikaza da errentagarritasun ekonomikoko irizpideak aplikatuta.
- b) Beharrezkoa da segurtasun publikoko arrazoiengatik edo baliabide propioak edo zerbitzu teknikoak emandako ondasun edo zerbitzuak edukitzeko presarengatik.

Baliabide propio eta zerbitzu teknikoen efikazia kontrolatzean, egiaztatu beharko da aipatutako betekizun horiek betetzen direla.

Baliabide propio diren sektore publiko instituzionaleko entitateen izendapenean nahitaez agertu beharko da «Baliabide Propioa» adierazpena edo horren laburtzapena, «B.P.».

3. Baliabide propio eta zerbitzu tekniko berri bat sortuz gero, aurreko apartatuan xedatutakoa egiaztatzen duen justifikazio-memoria baten deklarazio-proposamena erantsi beharko da; eta sortu berria baldin bada, Estatuko Administrazioaren Kontu-hartzailetza Nagusiak txostena egin beharko du.»

Hiru. Aldatu egin da 87. artikulua. Honela idatzita geratzen da:

«87. artikulua. *Estatuko sektore publiko instituzionaleko entitateen eraldaketak.*

1. Estatuko sektore publiko instituzionaleko edozein organismo autonomo, estatu-agentzia, enpresa-entitate publiko, Estatuko merkataritza-sozietate edo fundazio eraldatu ahalko da, eta aipatu diren entitateetako edozeinen izaera juridikoa hartu.

2. Nortasun juridikoari eutsita eraldaketa egiteko, entitate eraldatuaren aktibo eta pasiboa osorik laga eta integratuko da, egintza bakarrean, eta eskubide eta betebeharrak guztiak hartuko ditu ondorengotzaz.

Eraldaketa horrek ez ditu aldatzen bereganatutako betebeharren finantza-baldintzak, eta ezingo da ulertu harreman juridikoen suntsiarazteko arrazoi modura.

3. Eraldaketa errege-dekretu bidez egingo da, nahiz eta sorrera-legea aldatzea ekarri, estatu-agentzia bihurtzearen kasuan izan ezik, kasu horretan lege bidez egin beharko baita.

4. Organismo autonomo, enpresa-erakunde publiko edo estatu-agentzia bat enpresa-erakunde publiko, estatu-agentzia, Estatuko merkataritza-sozietate edo sektore publikoko fundazio bihurtzen denean, eraldaketa egiteko legearekin edo errege-dekretuarekin batera dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

a) Memoria bat, honako hauek jasoko dituena:

1.a Eraldaketa justifikazioa, jatorrizko izaera juridikoari eutsita eginkizunak betetzen jarraitzeko ezintasunarengatik.

2.a Efizientziari buruzko azterketa. Azterketa horretan jasoko dira, batetik, eraldaketak sortuko duen aurreziaren aurreikuspena, eta, bestetik, lehendik dagoen beste organo, organismo publiko edo entitate batek egiten dituen eginkizunekin bikoiztasunik ez dagoelako egiaztapena.

3.a Langileek izango duten egoeraren azterketa; azaldu beharko da, hala badagokio, langile horien zati bat Estatuko Administrazio Orokorrean sartuko den ala eraldaketaren ondorioz sortzen den enpresa-entitate publikoan, Estatuko merkataritza-sozietatean edo fundazioan sartuko den.

b) Estatuko Administrazio Kontu Hartzailletza Nagusiaren nahitaezko txostena, artikulua honetan aurreikusita dagoena betetzen den baloratzeko.

5. Eraldaketa buruzko errege-dekretua onesteak ondorio hauek izango ditu:

a) Izaera juridikoa aldatzearen ondorioz bitarteko pertsonal, material eta ekonomikoen antolaketa behar bezala egokitzea.

b) Langileak entitate eraldatuan edo Estatuko Administrazio Orokorrean sartu ahal izatea. Halakorik gertatzen bada, integrazio hori funtzio publikoaren legerian edo aplikatu beharreko lan arloko legerian ezarritako mugikortasun-prozeduren arabera egingo da.

Entitate eraldatuko mota batzuetako eta besteetako langileak aplikatu behar zaien araudiaren arabera dagozkien eskubide eta betebeharrak berberak izango dituzte.

Eraldaketa ondorioz langileak egokitu egin beharko balira, horrek ez luke eragingo, besterik gabe, entitate eraldatuan zerbitzuak ematen zituzten lan-kontratadun langileak funtzionario publiko bihurtzea.

Ordura arte funtzionario publiko izan gabe funtzionarioen eginkizunak egiten dituztenak eraldatutako entitatean edo Estatuko Administrazio Orokorrean sartu ahal dira, «azkentzeko» baldintzarekin; aurretiaz baloratu beharko dira, bai ukitutako lanpostuen ezaugarriak, bai eta, zein entitatetan integratu behar diren, haren beharrezan ere.

Eraldaketa-neurriak betearazteak ez du ekarriko entitate eraldatuan lehendik zegoen soldata-masa handitzerik.»

Lau. Aldatu egiten da 96. artikulua, eta honela idatzita geratzen da:

«96. artikulua. *Estatuko organismo publikoak desegitea.*

1. Estatuko organismo publikoak arrazoi hauengatik desegin beharko dira:

- a) Sorrera-legean azaldutako iraunaldia igaro delako.
- b) Haien xede eta helburu guztiak Estatuko Administrazio Orokorreko zerbitzuek beren gain hartu dituztelako.
- c) Haien xedeak guztiz bete direlako, eta, beraz, organismo publikoak irautea justifikatzen ez delako, baldin eta efikazia kontrolatzean hori agerian jarri bada.
- d) Jarduketa-planaren jarraipenetik ondorioztatu delako erakundea sortzea justifikatu zuten xedeak ez direla bete edo organismoak irautea ez dela modurik egokiena xede horiek lortzeko, baldin eta efikazia kontrolatzean edo etengabe gainbegiratzean hala ondorioztatu bada.
- e) Estatuetan ezarritako beste edozein arrazoirengatik.
- f) Ministro Kontseiluak hala erabaki duelako, desegitea erabakitzeko egintza juridikoan horretarako zehaztutako prozedurari jarraituz.

2. Organismo publiko bat aurreko apartatuko a), b), c), d) edo e) letretan aurreikusitako desegite-arrazoietakoa batean badago, organismoko zuzendaritza-organo gorenaren titularrak hori jakinaraziko dio adskribatuta dagoen departamentuaren titularrari. Horretarako, bi hilabeteko epea izango du, desegiteko arrazoia gertatzen den unetik aurrera. Epe hori igarotakoan, desegiteko arrazoia gertatu arren ezer ere jakinarazi ez bada, organismo publikoa automatikoki desegingo da eta ezingo du inolako egintza juridikorik egin, salbu eta beraren likidazioa eta azkentzea efikaza dela bermatzeko behar-beharrezkoak direnak.

Bi hilabeteko epean, aurreko paragrafoan azaldu den komunikazioa jasotzen denetik aurrera, Ministro Kontseiluak desegiteko erabakia hartuko du. Erabaki horretan, likidatzaile-eginkizunak hartuko dituen Estatuko sektore publiko instituzionaleko administrazio-organoa edo entitatea izendatuko du, eta horren berri emango zaio Estatuko, Autonomia Erkidegoko eta Tokiko Sektore Publikoko Entitateen Inbentarioari, argitara dadin. Epe hori igaro eta desegiteko erabakia argitaratu ez bada, organismo publikoa automatikoki desegingo da eta ezingo du inolako egintza juridikorik egin, salbu eta beraren likidazioa eta azkentzea efikaza dela bermatzeko behar-beharrezkoak direnak.»

Bost. 103. artikuluen 1. apartatua aldatzen da eta honela gelditzen da:

«103. artikulua. *Definizioa.*

1. Enpresa-erakunde publikoak zuzenbide publikoko erakundeak dira, eta nortasun juridiko propioa, ondare propioa eta kudeaketa-autonomia dituzte. Merkatuko diru-sarrerekin finantzatzen dira, salbu eta Sektore Publikoko Kontratuen Legearen arabera bitarteko propio pertsonifikatu deklaratuak izateko baldintza edo baldintzak betetzen dituztenak, eta, administrazio-ahalak egikaritzearekin batera, kontraprestazioa jaso dezaketen prestazio-jarduerak, zerbitzuak kudeatzeko jarduerak edo interes publikoko ondasunak ekoizteko jarduerak egiten dituztenak.»

Artikuluaren gainerakoa berdin idatzita gelditzen da.

Sei. Kendu egiten da 106. artikuluko 3. apartatua.

Artikuluaren gainerakoa berdin idatzita gelditzen da.

Zazpi. 107. artikulua 3. apartatua aldatzen da, eta honela idatzita gelditzen da:

«107. artikulua. *Ekonomia, finantza eta ondarearen arloko araubidea.*

[...]

3. Enpresa-erakunde publikoak merkatuko diru-sarrerekin finantzatu dira gehienbat, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen arabera bitarteko propio pertsonifikatu deklaratuak izateko baldintza edo baldintzak betetzen dituztenak izan ezik. Kontuen Europako Sistemaren arabera merkatuko ekoizletzat hartzen badira irizten zaio gehienbat merkatuko diru-sarrerekin finantzatu direla.

Horretarako, kontuan hartuko da Kontu Nazionalen Batzorde Teknikoak nola sailkatzen dituen entitate publikoak kontabilitate nazionalerako. Sailkapen hori Estatuko, Autonomia Erkidegoko eta Tokiko Sektore Publikoko Entitateen Inbentarioan jasoko da.»

Artikulua gainerakoa berdin idatzita gelditzen da.

Zortzi. Gehitu egiten da II. tituluko III. kapituluko 4. atala, berria, 108 artikulua ondoren. Hona hemen izenburua:

«4. atala *Estatu-agentziak*»

Bederatzi. Gehitu egiten da 108 bis artikulua. Honela idatzita geratzen da:

«108 bis artikulua. *Definizioa.*

1. Estatu-agentziak zuzenbide publikoko erakundeak dira, nortasun juridiko publikoa, ondare propioa eta kudeaketan autonomia dute, bai eta administrazio-ahalak erabiltzeko ahalmena ere. Gobernuak sortzen ditu, Estatuko Administrazio Orokorrek bere eskumenen esparruan garatzen dituen politika publikoei dagozkien programak betetzeko.

Estatu-agentziek lege honetan ezarritako autonomia funtzionaleko, kudeaketa-erantzukizuneko eta emaitzen kontroleko mekanismoak dituzte.

2. Izendapena edozein dela ere, organismo publiko bat Estatu-agentzia denean, haren izenean «Estatu-agentzia» dela jaso beharko da.»

Hamar. Gehitu egiten da 108 ter artikulua, eta honela idatzita geratzen da:

«108. ter artikulua. *Araubide juridikoa.*

1. Estatu-agentziak lege honen arabera arautzen dira, eta, haren esparruan, agentzia bakoitzaren berezko estatutuaren arabera, bai eta aplikagarri zaizkien administrazio-zuzenbide orokorreko eta bereziko gainerako arauen arabera ere.

2. Estatu-agentzien jarduna, urteko ekintza-planaren arabera, indarrean eta dagokion urte anitzeko kudeaketa-kontratuaren arabera gertatzen da. Kontratu horrek, gutxienez, eta indarraldirako, honako alderdi hauek ezarri behar ditu:

a) Lortu nahi diren helburuak, lortu beharreko emaitzak eta, oro har, garatu beharreko kudeaketa.

b) Helburuak lortzeko behar diren planak, dagozkien denbora-esparruak eta estrategia bakoitzari lotutako proiektuak eta horien denbora-epeak zehaztuta, bai eta lortutako emaitzak ebaluatzeko adierazleak ere.

c) Langileen gehieneko plantilla-aurreikuspenak eta giza baliabideen kudeaketaren arloko jarduera-esparrua.

d) Helburuak lortzeko eman behar diren giza baliabideak, baliabide materialak eta aurrekontu-baliabideak. Automatikoki berrikusiko dira, dagokion ekitaldiko Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko Legearen edukiaren arabera.

e) Helburuen betetze-mailari lotutako efektuak, organo betearazleen eta zuzendarien erantzukizunaren araberakoak, bai eta langile lan-kontratudunen produktibitate-osagarrira edo antzeko kontzeptura bideratutako soldata-masaren zenbatekoa ere.

f) Diru-sarrera errealak zenbatetsitakoekiko nahikoak ez izateagatik urteko defizitak estaltzeko jarraitu behar den prozedura, eta, hala badagokio, defizit horietatik jarraitu behar den kudeaketa-erantzukizunaren ondorioak. Prozedura horrek, nolana ere, dagokion ekitaldiko Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko Legean ezarritakoa bete beharko du.

g) Hala dagokionean, urteko aldaketak edo egokitzapenak sartzeko prozedura.

3. Kudeaketa-kontratuan zehaztuko dira helburuak ez betetzeagatik aurreko apartatuko e) letran aipatzen diren erantzukizunak eskatzea ahalbidetzen duten mekanismoak.

4. Estatu-agentzia bakoitzeko Kontseilu Errektoreak hasierako kudeaketa-kontratuaren proposamena onartuko du, eratu eta hiru hilabeteko epean.

Ondorengo kudeaketa-kontratuak aurreko kontratuaren indarraldiaren azken hiruhilekoan aurkeztuko dira.

Kudeaketa-kontratua onartzeko, Lurralde Politikako eta Funtzio Publikoko eta Ogasuneko ministerioek batera emandako agindu baten bidez onartuko da, gehienez ere hiru hilabeteko epean, aurkezten denetik zenbatzen hasita. Epe horretan onartzen ez bada, aurreko kudeaketa-kontratuak indarrean jarraituko du.

5. Kontseilu Errektorean Kontrol Batzorde bat eratuko da, estatutueta zehaztutako osaerarekin.

Kontrol Batzordeari dagokio Kontseilu Errektoreari kudeaketa-kontratuaren betearazpenaren berri ematea eta, oro har, Kontseiluak berak ezagutu behar dituen eta estatutueta zehazten diren kudeaketa ekonomiko-finantzarioari buruzko alderdi guztien berri ematea.

Hamaika. Gehitu egiten da 108 quater artikulua. Honela idatzita geratzen da:

«108 quater artikulua. *Langileen araubide juridikoa.*

1. Honako hauek dira estatu-agentzien zerbitzuko langileak:

a) Eratzeko unean estatu-agentziaren zerbitzuetako lanpostuak betetzen ari diren langileak.

b) Edozein administrazio publikotatik lege honetan aurreikusitako lanpostuak betetzeko prozeduren bidez estatu-agentzian sartzten diren langileak.

c) Estatu-agentziak hautatutako langileak, lege honetan ezarritako baldintzetan horretarako deitutako hautapoben bidez.

d) Zuzendaritzako langileak.

2. Aurreko apartatuko a) eta b) letretan aipatzen diren langileek jatorrizko funtzionario, estatutupeko langile edo lan-kontratuko langile izaten jarraituko dute, aplikatu beharreko legeriaren arabera.

3. Funtzionarioak eta estatutupeko langileak kasuan kasuko funtzio publikoa arautzen duen araudiak eraentzen ditu, lege honetan aurreikusitako berezitasunekin eta, lege honen arabera, estatu-agentzia bakoitzaren estatutuan ezartzen diren berezitasunekin.

Urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartzen den Langileen Estatutuaren Legearen testu bateginak eta lan-arloko gainerako araudiak arautzen dituzte lan-kontratuko langileak.

4. C) letran aipatzen diren langileak deialdi publikoaren bidez hautatzen dira, eta desgaitasunen bat duten pertsonak enplegu publikora sartzeko berdintasun-, merezimendu- eta gaitasun-printzipioen arabera. Horretarako, eta kudeaketa-kontratuan aurreikusitako epean, estatu-agentziek hautapoben bidez zehaztuko

dituzte bete beharreko langile-beharrak. Bete behar diren langile-lanpostuak zehazteko, Estatuko Aurrekontu Orokorren Legean dagokion ekitaldirako ezartzen den berrezarpen-tasa aplikatuko da. Langile-premien aurreikuspena dagokion estatu-agentziaren urteko lan-eskaintzan txertatzen da, eta Estatuko enplegu publikoaren eskaintzan integratzen da, Estatuaren Aurrekontu Orokorrei buruzko urteko Legeak ezarritakoaren arabera.

Estatu-agentziek beren hautaketa-organoen bidez hautatzen dituzte langile lan-kontratudunak, aurreko paragrafoan ezarritako betekizun eta printzipioen arabera.

Funtzionarioak hautatzeko deialdiak kasuan kasuko kidego edo eskalak atxikita dituen ministerioak egingo ditu, eta, salbuespen gisa, estatu-agentziak berak, horretarako sinatutako hitzarmenaren bidez.

Estatu-agentziako langileen ordezkartza-organismoak kontuan hartuko dira egiten diren hautaketa-prozesuetan.

5. Estatu-agentziek, langileak hautatzeko organo espezializatuak proposatuta, funtzionarioen lanpostuak betetzeko deialdiak egiten, deitzen eta ebazten dituzte, funtzio publikoaren araudian ezarritako printzipio orokorrekin eta hornidura-prozedurekin bat etorrira.

6. Estatu-agentzietan destinatutako funtzionarioen mugikortasuna aurretiazko baimenaren mende egon ahal izango da, haien estatutueta zehaztutako baldintza eta epeekin eta funtzio publikoari buruzko araudiarekin bat etorrira.

7. Estatu-agentziek beren lanpostuen zerrenda dute, estatu-agentziak berak egina eta onartua, giza baliabideen arloan kudeaketa-kontratuan ezartzen den jarduera-esparruaren barruan.

8. Estatu-agentzietan lan egiten duten langileei mailaz igotzeko eskubidea aitortuko zaie karrera profesional ebaluagarri baten barruan, Enplegu Publikoaren Estatuaren esparruan. Karrera horrek homogeneotasun-irizpideak ahalbidetzen dituzten elementuak izango ditu esparru bereko estatu-agentzien barruan. Horrela, antzeko ordainsariak erraztuko dira antzeko lanbide-mailetarako, eta langileen arteko mugikortasun-neurriak ahalbidetuko dira, hargatik eragotzi gabe 6. apartatuan ezarritakoa.

9. Estatu-agentzietako funtzionarioen eta estatutupeko langileen ordainsari-kontzeptuak Estatuko Administrazio Orokorren funtzio publikoaren araudian ezarritakoak dira, eta haien zenbatekoak Estatuko Aurrekontu Orokorren Legeetan ezarritakoaren arabera zehaztuko dira.

Lan-kontratuko langileen ordainsari-baldintzak hitzarmen kolektibo aplikagarrian eta dagokion lan-kontratuan ezarritakoak dira, eta haien zenbatekoak aurreko 1. apartatuan adierazitakoaren arabera finkatuko dira.

Araudi aplikagarriak ezartzen dituen baldintzak aplikatuko dira estatu-agentzien soldata-masa baimentzeko. Produktibitate-osagarria edo langile lan-kontratudunen kontzeptu baliokidera bideratutako soldata-masaren zenbatekoa, nolahi ere, kudeaketa-kontratuan finkatutako helburuen betetze-mailari lotuta egongo da.

10. Estatu-agentzietako zuzendaritzako langileek betetzen dituzte agentzia horietako estatutueta halakotzat jotako lanpostuak, haiei esleitutako zereginen erantzukizun berezia, gaitasun teknikoa eta garrantzia kontuan hartuta.

Estatu-agentzietako zuzendariak Kontseilu Errektoreak izendatzen eta kargugabetzen ditu, organo exekutiboek proposatuta, goi-mailako tituludunen arteko gaitasun profesionaleko eta esperientziako irizpideei jarraituz, eta meritua, gaitasuna eta publizitatea bermatuko dituen prozeduraren bidez. Funtzionarioek lehentasuna dute.

Lanpostuak betetzeko prozesua artikuluko 5. apartatuan aipatzen diren hautaketa-organoen espezializatuak egin ahal izango dute. Organoren horietako lanpostu bakoitzerako hiru hautagai proposatuko dizkiote estatu-agentziako zuzendariari, eta proposamena arrazoituko dute.

Estatu-agentzietako zuzendaritzako langileak funtzionarioak direnean, zerbitzu aktiboko egoeran jarraituko dute dagokien kidegoan edo eskalan, edo lan-legeriaren arabera dagokien kidegoan, izaera horretako langileak badira.

Estatu-agentzien estatutuak erantzukizun goreneko zuzendaritza-postuak aurreikus ditzake, eta lan-erregimenean eta goi-zuzendaritzako kontratuen bidez bete beharko dira.

Estatu-agentzietako zuzendariari, edonola ere, 451/2012 Errege Dekretuan ezarritakoa aplikatuko zaie (451/2012 Errege Dekretua, martxoaren 5koa, enpresa-sektore publikoko eta beste entitate batzuetako arduradun eta zuzendari nagusien ordainsari-sistema arautzen duena). Zuzendarien jarduna ebaluatuko da, eraginkortasunaren, efizientziaren eta legezketasuna betetzearen irizpideen, kudeaketa egiteko erantzukizunaren eta emaitzen kontrolaren arabera, finkatu zaizkien helburuei dagokienez.

Zuzendaritzako langileek ordainsariaren zati bat jasotzen dute errendimendupizgarri gisa, produktibitatea balioesten duen osagarriaren bidez, Kontseilu Errektoreak ezartzen dituen irizpide eta ehunekoen arabera, Estatu Agentziako zuzendaritza-organoek proposatuta.

11. Estatu-agentziako organo exekutiboa zuzendaria da. Kontseilu Errektoreak izendatzen eta kentzen du, lehendakariak proposatuta, kargurako beharrezko kualifikazioak dituzten pertsonen artean, Estatutuan zehaztutakoaren arabera.»

Hamabi. Gehitu egiten da 108 quinquies artikulua, eta honela idatzita geratzen da:

«108 quinquies artikulua. *Ekonomia, finantza eta kontratazioaren arloko araubidea.*

1. Honako hauek dira estatu-agentziak finantzatzeko baliabideak:

- a) Estatuaren Aurrekontu Orokorretan adierazten diren transferentziak.
- b) Kontratuei, hitzarmenei edo legezko xedapenei jarraituz, beste erakunde publiko, pribatu edo pertsona fisiko batzuentzat egin ditzakeen jardueren kontraprestazio gisa jasotzen dituen diru-sarrerak propioak.
- c) Bere ondarea osatzen duten ondasun eta baloreak besterentzea.
- d) Bere ondasun eta baloreetatik datorren etekina.
- e) Erakunde pribatuen eta partikularren borondatezko ekarpenak, dohaintzak, jaraunspenak eta legatuak, bai eta doako beste ekarpen batzuk ere.
- f) Pertsona fisiko edo juridikoengandik jasotako diru-sarrerak, mezenasgoagatik, jarduera edo instalazioen babesagatik.
- g) Jasotzeko baimena duten zuzenbide publikoko edo pribatuko gainerako diru-sarrerak.
- h) Eman dakioken beste edozein baliabide.

2. Estatutuetan berariaz aurreikusitako kasuetan, eta soilik baliabide propio nahikoak sortzeko gaitasuna badute,

estatu-agentziak Estatuaren Aurrekontu Orokorren VIII. kapituluan aurreikusitako kredituen kontura finantzatu ahal izango dira, konkurrentzia publikoko prozeduren arabera, eta ikerketa- eta garapen-proiektuak finantzatzera bideratuak. Ekitaldi bakoitzeko Estatuaren Aurrekontu Orokorren Legean ezarriko dira finantzaketa horren mugak.

3. Aurreko 1. zenbakiko b), e), f) eta g) apartatuetatik eratorritako baliabideak estatu-agentzien aurrekontuan hasiera batean jasotzen ez badira, gastu handiagoak finantzatzeko erabili ahal izango dira, zuzendariak hala erabakitzen badu.

4. Estatu-agentziek debekatuta dute zorpetzea, legez kontrakoa xedatzen ez bada. Hala ere, diruzaintzako aldi baterako desfaseei erantzuteko, estatu-agentziek kreditu- edo mailegu-polizak kontratatu ahalko dituzte, baldin eta saldo biziak ez badu gainditzen aurrekontuaren % 5.

5. Estatu-agentzien kontratazioa sektore publikoari aplikatu beharreko araudiaren arabera da. Estatu-agentziek sortutako edo haien partaidetza nagusi duten merkataritza-sozietateek eta fundazioek betiere publikotasun- eta lehia-printzipioetara egokitu beharko dute beren kontratu-jarduerak.»

Hamahiru. Gehitu egiten da 108 sexies artikulua. Honela idatzita egongo da:

«108 sexies artikulua. *Aurrekontu, kontabilitate eta kontrol ekonomiko eta finantzarioaren alorretako araubideak.*

1. Kontseilu Errektoreak estatu-agentziaren aurrekontuaren aurreproiektua egin eta onartuko du, kudeaketa-kontratuan xedatutakoaren arabera. Estatu-agentziaren aurrekontu-aurreproiektua atxikipen-ministerioari bidaliko zaio, azter dezan, eta, ondoren, Ogasun Ministerioari helaraziko dio. Azken ministerio-sail horrek aztertu ondoren, aurreproiektua Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzkoan sartuko da, Ministroen Kontseiluak onar dezan eta Gorte Nagusietara bidal dezan, eta Estatuko sektore publikoa osatzen duten gainerako erakundeen aurreproiektuarekin batera sendotuko da.

2. Ogasun ministroak ezartzen du estatu-agentzien aurrekontuaren egitura, bai eta horrekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa ere.

Estatu-agentzien aurrekontua mugatzailea izango da zenbateko osoari dagokionez, eta gutxi gorabeherako izaera kredituak kategoría ekonomikoetan banatzeko; langileen gastuei dagozkienek, baina, izaera mugatzailea eta loteslea izango dute zenbateko osoagatik, eta dirulaguntza izandunen eta protokolo eta ordezkartzako arretak, berriz, izaera mugatzailea eta loteslea ezartzen diren sailkapen ekonomikoaren maila edozein dela ere.

3. Honako hauei dagokie aurrekontu-aldaketak onartzea:

a) Ogasun ministroari dagokio aurrekontuaren zenbateko orokorraren eta langile-gastuei eragiten dieten aldaketak baimentzea, zuzendariaren ekimenez eta Kontseilu Errektorearen proposamenez, hurrengo letran aurreikusitakoak izan ezik.

Era berean, Ogasun ministroari dagokio aurrekontu-aldaketak erabakitzea edo ukatzea, estatu-agentzietako zuzendarien eskumeneko kasuetan, kontu-hartzailletza eskuordetuaren txosten negatiboa dagoenean eta eskumenaren titularrak, ados egon gabe, Ogasuneko ministroari bidaltzen dionean.

b) Estatu-agentziako zuzendariari dagokio gainerako aldaketa guztiak baimentzea, baita zenbateko globalean ere, honako kasu hauetan: 108 quinquies artikuluen b), e), f) eta g) apartatuetatik eratorritako baliabideekin finantzatzen direnean eta hasieran aurrekontuan sartutakoak baino handiagoak direnean, langileen gastuei eragiten ez dietenean eta horien eraginkortasunaren behar bezalako bermea dagoenean. Kontrol Batzordeari berehala eman beharko zaio horren berri.

4. Aurrekontu-ekitaldiaren likidaziotik ateratzen diren diruzaintzako soberakinak, hurrengo ekitaldiko aurrekontuaren finantzaketari lotuta ez daudenak, diru-sarreraren aurrekontuan aplikatu ahal izango dira, eta gastuen gehikuntza finantzatzeko erabili, zuzendariak hala adostuta, eta Kontrol Batzordeari horren berri emanda. Urteko diru-sarreraren estimazioa ez betetzearen ondoriozko defizitak kudeaketa-kontratuan ezarritako moduan konpentsatuko dira.

5. Estatu-agentziek baimendutako ekitaldiaren ondorengo ekitaldietara hedatu behar diren gastu-konpromisoak hartu ahal izango dituzte, betiere honako muga hauek gainditu gabe:

a) Gastuak gehienez ere lau ekitalditan aplikatu ahal izango dira.

b) Hurrengo ekitaldietako bakoitzari egotzitako gastuak ezin izango du gainditu programa bakoitzaren guztizko kopuruari honako ehuneko hauek aplikatuz ateratzen den zenbatekoa, langileen gastuen kapitulua eta izaera loteslea duten

gainerako kredituak alde batera utzita: Hurrengo lehen ekitaldian, ehuneko 70; bigarren ekitaldian, ehuneko 60; eta hirugarren eta laugarren ekitaldietan, ehuneko 50.

Langile-gastuen edo izaera loteslea duten beste gastu batzuen kasuan, gastu-konpromisoak hartu ahal izango dira hurrengo ekitaldien kargura, lehen adierazitako muga barruan, kalkulurako erreferentzia gisa hasierako zuzkidura hartuta.

Gobernuak aurreko mugak aldatzea erabaki ahal izango du, bereziki justifikatutako kasuetan. Ondorio horietarako, Ogasuneko ministroak dagokion estatu-agentziaren ekimenez, dagokion proposamena helaraziko dio Ministroen Kontseiluari, Aurrekontuen Zuzendaritza Nagusiak txostena egin ondoren.

6. Estatu-agentzien aurrekontua betearaztea haien organo exekutiboek dagokie, eta organo horiek, hilero, aurrekontuaren betearazpen-egoera bat landu eta Kontrol Batzordeari bidaltzen diote.

7. Estatu-agentziek Aurrekontuen Lege Orokorren 121. artikuluan ezarritakoaren arabera dagozkien kontabilitate-printzipioak aplikatu beharko dituzte, beren jardueraren eragiketarako, kostuak eta emaitzak behar bezala islatzen diren ziurtatzeko, bai eta garrantzi ekonomikoa duten datuak eta informazioa emateko ere.

Estatuko Administrazioako Kontu-hartzaitza Nagusiari dagokio kontabilitate-araudia estatu-agentzietan aplikatzeko irizpideak ezartzea, aurrekontu-legeriak Estatuko sektore publikoko erakundeentzat ezarritakoaren arabera.

8. Estatu-agentziak hauexek izango dituzte:

a) Informazio ekonomikoko sistema bat. Honelakoa:

i) Sistemak, egoera eta txostenen bidez, ondarearen, finantza-egoeraren, emaitzen eta aurrekontuaren gauzatzearen irudi leiala erakutsiko du.

ii) Sistemak jardueraren kostuei buruzko informazioa emango du, erabakiak behar bezala eta eraginkortasunez hartzeko adinakoa.

b) Kudeaketa-kontabilitateko sistema bat, kudeaketa-kontratuan hartutako konpromisoen betetze-mailaren jarraipena egin ahal izateko.

Estatu-administrazioako Kontu-hartzaitza Nagusiak ezartzen ditu estatu-agentziek artikulatu honetan xedatutakoa betetzeko bete beharko dituzten eskakizun funtzionalak eta, hala badagokio, prozedura informatiboak, Aurrekontuen Lege Orokorren 125. artikuluan xedatutakoaren arabera.

9. Estatu-agentzien urteko kontuak zuzendaritzako titularrak formulatzen ditu, ekitaldi ekonomikoa ixten denetik hiru hilabeteko epean. Estatuko Administrazioako Kontu-hartzaitza Nagusiak kontu horiek ikuskatu ondoren, Kontseilu Errektorearen mende jarriko dira, eta hurrengo urteko ekainaren 30a baino lehen onartuko dira.

Kontseilu Errektoreak onartu ondoren, kontuak Estatuko Administrazioako Kontu-hartzaitza Nagusiaren bidez bidaliko zaizkio Kontu Auzitegiari, fiskalizatu ditzan. Ekitaldi ekonomikoa amaitu eta hurrengo zazpi hilabeteen barruan bidaliko dira Kontu-hartzaitza Nagusira.

10. Estatuko agentzien ekonomia- eta finantza-kudeaketaren kanpo-kontrola Kontu Auzitegiari dagokio, bere araudi espezifikoen arabera.

Estatu-agentzien ekonomia- eta finantza-kudeaketaren barne-kontrola Estatuko Administrazioaren Kontu-hartzaitza Nagusiari dagokio, eta finantza-kontrol iraunkorren eta ikuskaritza publikoaren modalitateen mende egingo da, Aurrekontuen Lege Orokorrean ezarritako baldintzetan eta baldintzetan. Etengabeko finantza-kontrola estatu-agentzietako esku-hartze eskuordetuek egingo dute, Estatuko Administrazioaren Kontu-hartzaitza Nagusiaren funtzionalitatearen mende.

Aurreko paragrafoan ezarritakoari kalterik egin gabe, estatu-agentziek eraginkortasun-kontrola eta etengabeko ikuskapena jasoko dituzte: kontrol hori,

kudeaketa-kontratuaren jarraipenaren bidez eta onartu arte, jarduketa-planaren bidez gauzatuko da, 85. artikuluan ezarritako baldintzetan.»

Hamalau. Aldatu egiten da laugarren xedapen gehigarria, eta honela idatzita geratzen da:

«Laugarren xedapen gehigarria. *Estatuko entitate eta organismo publikoak egokitzea.*

1. Lege hau indarrean jartzen denean Estatuaren sektore publikoa osatzen duten entitate eta organismo publiko guztiak legearen edukiari egokitu beharko zaizkio 2024ko urriaren 1a baino lehen, Legea indarrean jartzen denetik aurrera zenbatuta, eta egokitzen amaitu arte beren araudi espezifikoa eraenduko ditu.

Egokitzeko prozesuan zaindu egingo dira organismo eta entitateek gaur egun langileria, ondare, aurrekontu-araubide, kontabilitate eta kontrol ekonomiko eta finantzarioaren arloetan nahiz finantzaketa-agente gisa egindako eragiketen arloan dituzten berezitasunak, barne hartuta, azken eragiketa horiek direla-eta, hala badagokio, ordenamendu juridiko pribatuaren mende jartzea. Berezitasunak zaindu egingo dira baldin eta egokitzeko unean diru-sarreraren eta gastuen kontrolean finantza-desoreka sortzeko moduko gabezia handirik sortu ez badute.

Botere adjudikatzailerik ez diren entitateek berezitasun hori zainduko dute Europar Batasunaren araudiaren aurka ez doan guztian.

Espainiako ekonomia eta enpresa nazioartekotzearen aldeko sustapena egitea xede duten entitateek, gainera, eta muga berberekin, laguntzen arloko berezitasunak zainduko dituzte Europako Erkidegoko araudiaren aurka ez doan guztian.»

Hamabost. Gehitu egiten da hogeita hirugarren xedapen gehigarria. Honela idatzita geratzen da:

«Hogeita hirugarren xedapen gehigarria. *Itsas Salbamendu eta Segurtasunerako Sozietatea (SASEMAR) enpresa-erakunde publikoari aplikatu behar zaion araubide juridikoa.*

Itsas Salbamendu eta Segurtasunerako Sozietateak (SASEMARek) enpresa-erakunde publikoa izateari eutsiko dio, berariazko legerian jasotako berezitasunekin, eta erakunde horiei 40/2015 Legean ezartzen zaizkien xedapenek arautuko dute (Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa), lege horretako 103.1 eta 107.3 artikuluetan merkatuko diru-sarreraren bitartezko finantzaketa nagusiari buruz ezarritakoa eskusiboki izan ezik.»

Hamasei. Gehitu egiten da hogeita laugarren xedapen gehigarria. Honela idatzita geratzen da:

«Hogeita laugarren xedapen gehigarria. *Teknologia eta Industria Garapenerako Zentroa enpresa-erakunde publikoari aplikatu behar zaion araubide juridikoa.*

Teknologia eta Industria Garapenerako Zentroak (CDTIk) enpresa-erakunde publikoa izateari eutsiko dio, berariazko legerian jasotako berezitasunekin, eta erakunde horiei 40/2015 Legean ezartzen zaizkien xedapenek arautuko dute (Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa), lege horretako 103.1 eta 107.3 artikuluetan merkatuko diru-sarreraren bitartezko finantzaketa nagusiari buruz ezarritakoa eskusiboki izan ezik.»

Hamazazpi. Gehitu egiten da hogeita bosgarren xedapen gehigarria. Honela idatzita geratzen da:

«Hogeita bosgarren xedapen gehigarria. *Tren-azpiegituren administratzaile orokorreari aplikatu behar zaien araubide juridikoa.*

Tren-azpiegituren administratzaile orokorrek beren enpresa-erakunde publikoen izaerari eutsiko diote, beren legerian jasotako berezitasunekin, eta erakunde horiei 40/2015 Legean ezartzen zaizkien xedapenek arautuko dute (Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa), lege horretako 103.1 eta 107.3 artikuluetan merkatuko diru-sarreraren bitartezko finantzaketa nagusiari buruz ezarritakoa eskusiboki izan ezik.»

Hemezortzi. Gehitu egiten da hogeita seigarren xedapen gehigarria. Honela idatzita geratzen da:

«Hogeita seigarren xedapen gehigarria. *SEPES Lurzoruaren Enpresa Erakunde Publikoari aplikatu behar zaion araubide juridikoa.*

Lurzoruaren Enpresa Erakunde Publikoak (SEPESek) enpresa-erakunde publikoa izateari eutsiko dio, berariazko legerian jasotako berezitasunekin, eta erakunde horiei 40/2015 Legean ezartzen zaizkien xedapenek arautuko dute (Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa), lege horretako 103.1 eta 107.3 artikuluetan merkatuko diru-sarreraren bitartezko finantzaketa nagusiari buruz ezarritakoa eskusiboki izan ezik.»

Hemeretzi. Gehitu egiten da hogeita zazpigarren xedapen gehigarria. Honela idatzita geratzen da:

«Hogeita zazpigarren xedapen gehigarria. *Red.es Enpresa Erakunde Publikoari aplikatu behar zaion araubide juridikoa.*

Red.es Enpresa Erakunde Publikoak enpresa-erakunde publikoa izateari eutsiko dio, berariazko legerian jasotako berezitasunekin, eta erakunde horiei 40/2015 Legean ezartzen zaizkien xedapenek arautuko dute (Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa), lege horretako 103.1 eta 107.3 artikuluetan merkatuko diru-sarreraren bitartezko finantzaketa nagusiari buruz ezarritakoa eskusiboki izan ezik.»

Azken xedapenetako hogeita hamabosgarrena. *Aldatzea Sendagaien eta Osasun Produktuen Bermeen eta Erabilera Zentzuzkoaren Legearen testu bategina, zeina uztailaren 24ko 1/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartu baitzen.*

Lege hau indarrean jartzen denetik eta indarraldi mugagabez ondoreak izanik, aldatu egiten da Sendagaien eta Osasun Produktuen Bermeen eta Erabilera Zentzuzkoaren Legearen testu bategina, uztailaren 24ko 1/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua. Honela idatzita geratzen da:

Bat. 98. artikulua 2. apartatua aldatzen da eta honela gelditzen da:

«98. artikulua. *Erreferentzia-prezioen sistema.*

[...]

2. Multzoek Osasunaren Mundu Erakundearen (ATC5) sendagaien sailkapen anatomiko-terapeutiko-kimikoaren 5. maila bera eta hartzeko bide bera dituzten sendagai finantzatuaren aurkez-molde guztiak bilduko dituzte, eta horien artean, Osasun Sistema Nazionalaren farmazia-prestazioan, gutxienez, sendagai generiko edo bioantzeko produktu bat egongo da, sendagaia edo bere osagai aktibo nagusia Europar Batasuneko estatu kide batean gutxienez hamar urteko aurrerapenarekin

baimendu bada izan ezik; azken kasu horretan, ez da ezinbestekoa izango sendagai generiko bat edo bioantzeko bat egotea multzo bat osatzeko. Pediatriako tratamenduentzat adierazitako itxurak, baita ospitale-arloko sendagaiei dagozkienak ere, ontzi klinikoak barne, multzo independenteak izango dira.»

Artikuluaren gainerakoa berdin idatzita gelditzen da.

Bi. 102. artikulua 8. apartatua aldatzen da eta honela gelditzen da:

«102. artikulua. *Erabiltzaileen eta onuradunen ekarpena farmazia-prestazio ambulatorioan.*

[...]

8. Ekarpena egin behar izatetik salbuetsita egongo dira honako kategoria hauetakoren batean dauden erabiltzaileak eta haien onuradunak:

- a) Sindrome toxikoa duten pertsonak eta desgaitasuna duten pertsonak, beren araudi berezian jasotako kasuetan.
- b) Gizarteratzeko errentak jasotzen dituzten pertsonak.
- c) Kotizazio gabeko pentsioak jasotzen dituzten pertsonak.
- d) Langabezia-subsidioa jasotzeko eskubidea galdu duten langabetuak, egoera horrek irauten duen bitartean.
- e) Lan-istripuen eta lanbide-gaixotasunen ondoriozko tratamenduak dituzten pertsonak.
- f) Bizitzeko gutxieneko errentaren onuradunak.
- g) % 33koa edo desgaitasun-maila handiagoa aitortuta duten adingabeak.
- h) Gizarte Segurantzaren prestazio ekonomikoa jasotzen duten pertsonak, familia-harrera iraunkorreko erregimenean edo adopzio helburuko zaintzan ardurapeko seme-alaba edo adingabe bakoitzarengatik
- i) Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitortzeneko likidazio-oinarri orokorraren eta aurrezkiaren laukitxoan kontsignatutako urteko errenta (5.635 euro) baino txikiagoa duten Gizarte Segurantzako pentsiodunek, eta, aitortzen hori aurkeztu beharrik ez badute, urteko errenta (11.200 euro) baino txikiagoa jasotzen dutenek.»

Artikuluaren gainerakoa berdin idatzita gelditzen da.

Azken xedapenetako hogeita hamaseigarrena. *Langileen Estatutuaren Legearen testu bategina aldatzea, urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuaz onartua.*

Lege hau indarrean jartzen denetik eta indarraldi mugagabez ondoreak izanik, aldatu egiten da urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsi zen Langileen Estatutuaren Legearen testu bategina. Honela idatzita geratzen da:

Bat. Aldatu egiten da Langileen Estatutuari buruzko Legearen 11. artikulua, eta 3. apartatu bat gehitzen zaio artikulua horri (horren ondorioz, 3. apartatuaren zenbaki berria 4 da). Honela idatzita geratzen da:

«3. Unibertsitateek erakunde laguntzaileekin sinatutako hezkuntza-lankidetzako hitzarmenen esparruan formalizatuko da unibertsitateko prestakuntza dualerako kontratua; eta unibertsitateko ikasleen lanbide-kualifikazioa izango du xede. Horretarako, ordaindutako lan-jardueraren txandakatzeko-araubidea ezarriko da, beren unibertsitate-prestakuntzaren esparruan jasotako prestakuntza-jardueraren batean, haren eta langilearen prestakuntzaren eta ikaskuntzaren artean harreman handiagoa egon dadin.

Erregelamendu bidez garatuko dira unibertsitate-zentroetan eta enpresetan langileen prestakuntza emateko sistema eta prestakuntzaren ezaugarriak, bai eta prestakuntza hori aitortzea ere, benetako lanarekin txandakatuta.

Era berean, erregelamendu bidez garatuko dira prestakuntza-jardueraren finantzaketarekin eta kontratatutako langilearen ordainsariarekin lotutako alderdiak. Ordainsari hori benetan lan egindako denboraren proportzioan ezarriko da, hitzarmen kolektiboan ezarritakoaren arabera, eta ez da inola ere lanbide arteko gutxieneko soldata baino txikiagoa izango.

Unibertsitateko prestakuntza dualerako kontratatutako langilearen Gizarte Segurantzaren babes-ekintzak barne hartuko ditu kontingentzia babesgarri eta prestazio guztiak, langabezia barne. Halaber, Soldatak Bermatzeko Funtsak eskaintako estaldurarako eskubidea izango da.»

Bi. 33. artikulua 2. apartatua aldatzen da eta honela gelditzen da:

«33. artikulua. *Soldatak Bermatzeko Funtsa.*

[...]

2. Soldatak Bermatzeko Funtsak, aurreko zenbakian adierazitako kasuetan, kalte-ordainak emango dizkie langileei, baldin eta langileen alde emandako epaien, autoen, adiskidetze-ekitaldi judizialen edo administrazio-ebazpenen ondorioz onartu badira kalte-ordain horiek, eta lege honen 50., 51., 52., 40.1. eta 41.3 artikuluen arabera, eta Konkurtso Legearen testuategina onartzen duen maiatzaren 5eko 1/2020 Legegintzako Errege Dekretuaren 181. eta 182. artikuluen arabera kontratu-amaitzeak badira kausa; bestalde, aldi baterako edo iraupen mugatuko kontratuak azkentzeagatik kalte-ordainak ere emango dizkie, legez hala dagokion kasuetan. Kasu guztietan, gehieneko muga urtebeteko kopurua izango da, arau horren 41.3 artikulua kasuan izan ezik, gehieneko muga 9 hilekoa izango bailitzateke, eta kalkulurako oinarriak, hau da, eguneko soldatak, ezingo du lanbide arteko gutxieneko soldata baino bi bider handiagoa izan, aparteko ordainsariei dagokien zatia ere barnean hartuta.

Lege honetako 50. eta 56. artikuluen arabera kaleratzen kasuan edo kontratu-azkentzeen kasuan, Soldatak Bermatzeko Funtsak egin behar dituen ordainketen ondorioetarako, zerbitzuan egindako urte bakoitzeko hogeita hamar eguneko oinarria hartuta kalkulatu da kalte-ordainaren zenbatekoa, baina aurreko paragrafoan finkatutako mugaren barruan.»

Artikulua gainerakoa berdin idatzita gelditzen da.

Azken xedapenetako hogeita hamazazpigarrena. *5/2015 Legegintzako Errege Dekretua aldatzea (Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testuategina onartzen duen 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa).*

Aldatu egiten da Legegintzako Errege Dekretua (Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testuategina onartzen duen 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa). Honela idatzita geratzen da:

Bat. Aldatu egiten dira 48. artikulua a) eta f) letrak. Honela idatzita geratzen dira:

«48. artikulua. *Funtzionario publikoen baimenak.*

Honako baimen hauek izango dituzte funtzionario publikoek:

a) Odol-ahaidetasunezko edo ezkontza-ahaidetasunezko lehen mailako senide baten heriotzagatik, istripuagatik edo gaixotasun larriagatik, ospitaleratzeagatik edo etxean atsedean hartzea eskatzen duen ebakuntza kirurgikoagatik, hiru egun baliodun, gertaera herri berean gertatzen bada, eta bost egun baliodun beste herri batean gertatzen bada.

Odol-ahaidetasunezko edo ezkontza-ahaidetasunezko bigarren mailako senide baten heriotza, istripua edo gaixotasun larria, ospitaleratzea edo etxean atsedean hartzea eskatzen duen ebakuntza kirurgikoa denean, bi egun baliodunekoa izango

da baimena, gertaera herri berean gertatzen bada, eta lau egun balioduneko beste herri batean gertatzen bada.

[...]

f) Hamabi hilabete baino gutxiagoko semea edo alaba edoskitzeagatik, lana ordubetez uzteko eskubidea izango dute, ordu hori bi zatitan bana dezaketela. Eskubide horren ordez, lanaldi arrunta ordu erdiz murriz daiteke lanaldiaren hasieran eta amaieran, edo ordubete lanaldiaren hasieran edo amaieran, helburu berarekin.

Apartatu honetan jasotako baimena funtzionarioen eskubide indibiduala da, eta, beraz, ezin zaio beste guraso, adoptatzaile, zaintzaile edo harreragileari eskualdatu.

Edoskitze-denboraren ordez ordaindutako baimena eska daiteke; horrelakoetan, lanaldi osoetan metatuko da dagokion denbora. Jaiotzagatiko, adopzioagatiko, zaintzagatiko, harreragatiko edo dagokion ama biologikoaz bestelako gurasoaren baimena amaitzen denetik aurrera soilik hartu ahal izango da modalitate hori.

Baimen hori proportzionalki handituko da erditze, adopzio, adopzio-helburuko zaintza edo harrera anizkoitzetan.»

Artikuluaren gainerakoa berdin idatzita gelditzen da.

Bi. 49. artikulua b) eta c) letrak aldatzen dira. Honela idatzita geratzen dira:

«49. artikulua. *Lan-arloko eta familiako bizimoduak elkarri egokitzeko baimenak, genero-indarkeriagatik eta terrorismoaren biktima zein zuzeneko senideak izateagatik.*

[...]

b) Adopzio, adopzio-helburuko zaintza edo harreragatiko baimena (aldi baterako harrera zein iraunkorra): hamasei aste iraungo du. Sei aste lanaldi osoan hartu beharko dira, nahitaez eta etenik gabe, adopzioa eratzten duen ebazpen judiziala eman edo adopzio-helburuko zaintzari edo harrerari buruzko erabaki administratiboa eman eta berehala.

Bi gurasoek lan egiten badute, nahitaezko atsedenekoa lehen sei asteak igaro ondoren, baimen hori etenik gabe baliatu ahal izango da, gertaera eragilearen ondorengo nahitaezko atsedenaldua amaitzen denetik aurrera, hamabi hilabeteko epean, semea edo alaba jaiotzen denetik aurrera zenbatuta, edo adopzioa gauzatzen duen ebazpen judizialek edo adopzio aurreko zaintzaren edo harreraren administrazio-erabakitik aurrera zenbatuta. Baimenaldua etenak eginez hartzen bada, baimenaldi bakoitzeko, gutxienez 15 egun lehenago jakinarazi beharko da, eta aste osoak hartu beharko dira.

Baimen hori bi astez luzatuko da –astebete guraso bakoitzarentzat–, adoptatutako edo harreran hartutako adingabea desgaitua bada eta seme-alaba bakoitzeko, bigarrenetik aurrera, adopzio, adopzio-helburuko zaintza edo harrera anizkoitza bada.

Gurasoak erabakiko du epea nola zenbatu, adopzio-helburuko zaintzari edo harrerari buruzko erabaki administratiboa hartzen denetik aurrera, edo adopzioa eratzten duen ebazpen judiziala ematen denetik aurrera; adingabe berak ezin du eskubiderik eman, inola ere, baimen hori hainbat alditan hartzeko.

Baimen hori lanaldi osoan edo lanaldi partzialean baliatu daiteke, zerbitzuaren beharrek hala ahalbidetzen badute, eta erregelamenduz zehazten diren baldintzetan, artikulua honetan ezarritako arauen arabera.

Gurasoek adoptatuaren jatorrizko herrialdera joan behar badute, nazioarteko adopzio edo harrera kasuetan, bi hilabetera bitarteko baimena hartzeko eskubidea izango dute, eta, aldi horretan, oinarrizko ordainsariak baino ez dituzte jasoko.

Aurreko paragrafoan aurreikusitako bi hilabete arteko baimenaz gainera, eta paragrafo horretan jasotako kasurako, adopzio, adopzio-helburuko zaintza edo harreragatiko baimena –harrera aldi baterakoa zein iraunkorra izan–, adopzioa

eratzten duen ebazpen judiziala edo harrerari buruzko erabaki administratiboa edo judiziala baino lau aste lehenago has daiteke.

Baimen hori baliatzen den bitartean, Administrazioak iragartzen dituen prestakuntza-ikastaroetan parte har daiteke.

Artikulu honetan aurreikusitako adopzio, adopzio-helburuko zaintza edo harrera kasuak –aldi baterakoak zein iraunkorrak izan–, Kode Zibilean edo horiek arautzen dituzten autonomia-erkidegoetako lege zibiletan ezarritakoak izango dira, eta aldi baterako harreraren iraupena ez da urtebetetik beherakoa izango.

c) Guraso biologikoa ez den gurasoaren baimena, seme edo alaba baten jaiotza, adopzio-helburuko zaintza, harrera edo adopzioa dela eta: hamasei asteko iraupena izango du, eta gertaera eragilearen ondorengo sei asteak nahitaezko atsedenerako izango dira. Baimen hori beste bi astez luzatuko da –astebete guraso bakoitzarentzat–, semea edo alaba desgaitua bada, eta seme edo alaba bakoitzeko, bigarrenetik aurrera, jaiotza, adopzio, adopzio-helburuko zaintza edo harrera anizkoitza bada; aste horiek jaiotza-datatik, adopzio-helburuko zaintzari edo harrerari buruzko erabaki administratibotik edo adopzioa eratzten duen ebazpen judizialek aurrera hartuko dira.

Baimen hori hartu behar duen gurasoak baimena banatzeko aukera du, betiere lehenengo sei asteak etenik gabe eta berehala hartzen badira, jaiotza-dataren, adopzio-helburuko zaintzari edo harrerari buruzko erabaki judizialaren edo adopzioa eratzeko erabaki judizialaren ondoren.

Bi gurasoek lan egiten badute, lehen sei asteak igaro ondoren, baimen hori etenik gabe baliatu ahal izango da, hamabi hilabeteko epean, semea edo alaba jaiotzen denetik aurrera zenbatuta, edo adopzioa gauzatzen duen ebazpen judizialek edo adopzio aurreko zaintzaren edo harreraren administrazio-erabakitik aurrera zenbatuta. Baimenaldia etenak eginez hartzen bada, baimenaldi bakoitzeko, gutxienez hamabost egun lehenago jakinarazi beharko da, eta aste osoak hartu beharko dira.

Baimen hori jaiotzagatik baimenaren 16. astearen ondoren hartzea aukeratzen bada, eta azken baimen hori duen gurasoak eskatzen baldin badu hamabi hilabete baino gutxiagoko semearen edo alabaren edoskitze-denbora lanaldi osoetan metatzeko (48. artikulua f letra), aldi hori amaitzean hasiko dira zenbatzen ama biologikoa ez den gurasoaren gainerako hamar asteak.

Baimen hori lanaldi osoan edo lanaldi partzialean baliatu daiteke, zerbitzuaren beharrek hala ahalbidetzen badute, eta erregelamenduz zehazten diren baldintzetan, artikulu honetan ezarritako arauen arabera.

Garaia baino lehen jaiotako haurren kasuan eta, beste edozein arrazoiengatik, jaioberriak ospitaleratuta jarraitu behar duen kasuetan, jaioberria ospitalean dagoen bezainbeste egunez luzatuko da baimena; hamahiru aste gehiagoz, gehienez ere.

Semea edo alaba hiltzen bada, baimenaren iraupena ez da murriztuko, salbu eta nahitaezko atsedenaldirako sei asteak amaitu ondoren lanpostura itzultzeko eskatzen bada.

Baimen hori baliatzen den bitartean, jaiotza-dataren ondorengo eta etenik gabeko lehenengo sei asteak hartu ondoren, Administrazioak iragartzen dituen prestakuntza-ikastaroetan parte har daiteke.

a), b) eta c) letretan aurreikusitako kasuetan, baimen horiek baliatzen emandako denbora benetako zerbitzutat hartuko da ondorio guztietarako, eta bermatuko da funtzionarioak eta, hala badagokio, beste guraso funtzionarioak eskubide ekonomiko guztiak izango dituztela baimenak irauten duen aldi osoan eta, hala badagokio, baimena hartu ondorengo aldietan, baldin eta aplikatzekoa den araudiaren arabera kontzepturen bat jasotzeko eskubidea badute.

Jaiotza, adopzioa, adopzio-helburuko zaintza edo harrera dela-eta (aldi baterakoa zein iraunkorra) baimena baliatu duten funtzionarioek, behin baimenaldia amaituta, eskubidea izango dute beren lanpostura itzultzeko –baimenaz baliatzeko

aldian baino baldintza eta modu okerragoak izan gabe– eta absente dauden bitartean lan-baldintzetan izan zezaketen edozein hobekuntza baliatzeko.»

Artikuluaren gainerakoa berdin idatzita gelditzen da.

Hiru. Gehitu egiten da 50. artikulua 3. apartatua. Honela idatzita geratzen da:

«50. artikulua. *Funtzionario publikoen oporrak.*

[...]

3. Funtzionario publikoen urteko oporraldi ordainduaren ordez ezin da eman diru kopuru bat. Borondatez uko eginez gero, beti bermatu beharko da sortutako oporrak hartuko direla.

Aurrekoa gorabehera, funtzionario publikoen borondatearekin zerikusirik ez duten arrazoiak direla-eta, funtzionario publikoen zerbitzu-harremana amaitzen denean, eskubidea izango dute konpentsazio ekonomiko bat eskatzeko sortutako eta hartu gabeko oporregatik, eta, bereziki, ezintasun iraunkorragatiko edo heriotzagarriko erretiroaren kasuan, gehienez ere hemezortzi hilabetekoa.»

Azken xedapenetako hogeita hemezortzigarrena. *Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bategina aldatzea, zeina urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartu baitzen.*

Lege hau indarrean jartzen denetik ondoreak izanik, eta indarraldi mugagabez, aldatu egiten da urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsi zen Gizarte Segurantzaren Legearen testu bategina. Honela idatzita geratzen da:

Bat. Aldatu egiten da 153. artikulua. Honela idatzita geratzen da:

«153. artikulua. *Erretiroa eta lana bateragarri diren kasuetako kotizazioa.*

Erretiro-pentsioarekin bateragarria den besteren konturako lan bat egiten den bitartean, 214. artikuluan ezarritako moduan, enpresaburuak eta langileak Araubide Orokorrean kotizatuko dute soilik aldi baterako ezintasunarengatik eta gertakari profesionalengatik, araubide horri buruzko araudian ezarritakoaren arabera; halere, elkartasuneko kotizazio berezi bat ordaindu beharko dute, gertakari arruntengatik kotizazio-oinarriaren ehuneko 9koa, baina kotizazio hori ez da kontuan hartuko prestazioen ondorioetarako, eta haien artean banatuko da: enpresaburuak ehuneko 7 ordainduko du eta langileak ehuneko 2.»

Bi. 163. artikulua 1. apartatua aldatzen da eta honela gelditzen da:

«1. Araubide orokor honen pentsioak elkarrekin bateraezinak izango dira onuradun berarengan metatzen direnean, legez edo erregelamenduz berariaz kontrakoa xedatzen ez bada.

Beste pentsio bat jasotzeko eskubidea sortzen bada, eta pentsio hori ez bada bateragarria jasotzen ari den pentsioarekin, erakunde kudeatzaileak ordainketari ekingo dio edo, hala badagokio, zenbateko handieneko pentsioa ordaintzen jarraituko du, urteko kopuruetan, eta aurrekoaren arabera dagokion pentsioa eten egingo da.

Hala ere, interesdunak erabaki hori atzera botatzeko eta etendako pentsioa jasotzeko aukera izango du. Aukera horrek ondorio ekonomikoak izango ditu eskaera egin eta hurrengo hilaren lehen egunetik aurrera.»

Artikuluaren gainerakoa berdin idatzita gelditzen da.

Hiru. Aldatu egin da 309. artikulua. Honela idatzita geratzen da:

«309. artikulua. *Erretiroa eta norberaren konturako lana bateragarri diren kasuetako kotizazioa.*

1. Erretiro-pentsioarekin bateragarria den norberaren konturako lan bat egiten den bitartean, 214. artikuluan ezarritako moduan, langileek araubide berezi horretan kotizatuko dute soilik aldi baterako ezintasunarengatik eta gertakari profesionalengatik, kapitulu honetan ezarritakoaren arabera. Halere, elkartasuneko kotizazio berezi bat ordaindu beharko dute, gertakari arruntengatik kotizazio-oinarriaren ehuneko 9koa. Kotizazio hori ez da kontuan hartuko prestazioen ondorioetarako.

2. Era berean, Norberaren Konturako Langileen edo Autonomoen Araubide Bereziko gutxieneko kotizazio-oinarriaren gaineko ehuneko 9ko elkartasun-kotizazioa izango dute, pentsioa norberaren konturako lanbide-jarduera batekin bateragarri egiten duten erretiro-pentsiodunek, hemezortzigarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren babesean aipatutako araubide bereziaren ordezkotuz mutualitate batean sartuta badaude. Mutualitate hori ez da zenbatuko prestazioen ondorioetarako.

Dagokion kuota hileroko kenduko da pentsioaren zenbatekotik.»

Lau. Gehitu egin da 318. artikulua g. apartatu berria. Honela idatzita geratzen da:

«g) 163. artikuluan xedatutakoaren arabera.»

Artikulua gainerakoa berdin idatzita gelditzen da.

Bost. Gehitu egin da 4. apartatu berria. Honela idatzita geratzen da:

«4. Gizarte Segurantzako Norberaren Konturako Langileen edo Autonomoen Araubide Berezien alternatiba gisa jarduteko baimendutako gizarte-aurreikuspeneko mutualitateek, 2021eko martxoaren 1etik aurrera, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren esku jarri beharko dute, alta edo baja hartu eta hurrengo hilabete naturala amaitu baino lehen, modu telematikoan, kide diren elkargokideen zerrenda, erregimen berezi horren alternatiba gisa. Bertan berriaz adierazi beharko da horietako bakoitza zein egunetan sartu zen, zein den haien jardura profesionala eta, hala badagokio, jardura uzteagatik mutualitatean baja emandako eguna.»

Xedapenaren gainerakoa berdin idatzita geratzen da.

Sei. Aldatu egin da hogeita hirugarren xedapen gehigarriaren 1. apartatuko bigarren paragrafoa. Honela idatzita geratzen da:

«Era berean, kontingentzia arruntengatik langile horientzat ezartzen diren enpresa-kuotei ehuneko 45eko hobaria aplikatuko zaie. Izaera bereziko lan-harremanetarako ezarrita egon daitezkeen edo ezartzen diren hobariak aplikatzekoak direnean, onuragarrien gertatzen direnak aukeratuko dira.

Xedapenaren gainerakoa berdin idatzita geratzen da.

Zazpi. Gehitu egin da hogeita hamabigarren xedapen gehigarria. Honela idatzita geratzen da:

«Hogeita hamabigarren xedapen gehigarria. *Gizarte Segurantzaren babes-ekintza finantzatzea, Toledoko Itunean jasotako iturriak bereizteko printzipioa betez.*

109.1 a) artikuluan ezarritakoarekin bat etorrira,

Estatuaren Aurrekontu Orokorren Legean urtero jasoko da Estatuak Gizarte Segurantzaren aurrekontura egin behar duen transferentzia bat, honako hauek finantzatzeko: araubide eta kolektibo jakin batzuen Gizarte Segurantzako kotizazioaren onurak; koefiziente murriztaileak aplikatzearen ondoriozko erretiro-

prestazio aurreratua aitortzearen kostua, kotizazio gehigarriak aurreikusi ez bada; kotizatu gabeko aldiak sistemaren prestazioen oinarri arautzailea zehaztean integratzearen kostua; eta Gizarte Segurantzaren kotizazioan legez ezarritako murrizketak.

Era berean, eta 109.2 artikulua azken tartekian xedatutakoarekin bat etorritik, Estatuaren Aurrekontu Orokorren Legean finkatuko da, urtero, Estatuak Gizarte Segurantzari egindako transferentziaren bidez finantzatuko diren prestazioen zenbatekoa.»

Azken xedapenetako hogeita hemeretzigarrena. *2017rako Estatuaren Aurrekontu Orokorrei buruzko Legea aldatzea (3/2017 Legea, ekainaren 27koa).*

Lege hau indarrean sartzetik aurrera, aldatu egiten da 3/2017 Legearen laurogeita zazpigarren xedapen gehigarriaren Bi apartatua (2017rako Estatuaren Aurrekontu Orokorrei buruzko 3/2017 Legea, ekainaren 27koa). «Montserrat 1025-2025 milurtekorako Hamar Urteko Plana» ekitaldiari aplikatzeko zerga-onurak. Honela idatzita geratzen da:

«Laurogeita zazpigarren xedapen gehigarria. «*Montserrat 1025-2025 milurtekorako Hamar Urteko Plana*» ekitaldiari aplikatzeko zerga-onurak.

[...]

Bi. Gertakari horri laguntzeko programak 2019ko urtarrilaren 1etik 2022ko urtarrilaren 31 arte iraungo du.»

Xedapenaren gainerakoa bere horretan idatzita geratzen da.

Azken xedapenetako berrogeigarrena. *9/2017 Legea aldatzea (azaroaren 8koa, sektore publikoko kontratuena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora).*

Lege hau indartzen jartzen denetik eta indarraldi mugagabez ondoreak izanik, aldatu egiten da 9/2017 Legea (9/2017 Legea, azaroaren 8koa, sektore publikoko kontratuena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora). Honela:

Bat. Kendu egiten da 32. artikulua 5. apartatua. Horrez gain, aldatu egiten dira artikuluko bereko 2. eta 4. apartatuak, eta honela idatzita geratzen dira:

«32. artikulua. *Botere adjudikatzaileek bitarteko propio pertsonifikatuei emandako mandatuak.*

[...]

2. Sektore publikoko erakunde zehatz bakar baten bitarteko propio pertsonifikatutzat hartuko dira ondoren ezartzen diren baldintza guzti-guztiak betetzen dituzten zuzenbide publikoko zein zuzenbide pribatuko pertsona juridikoak:

a) Mandatuak eman ahal dituen botere adjudikatzaileak horien hartzailea den enterearen gainean kontrol bat izatea, zuzenekoa zein zeharkakoa, bere zerbitzu edo unitate propioekiko duenaren antzekoa, halako moduz non lehenengoak bigarrenaren eragin erabakigarria eduki ahalko duen helburu estrategikoetan eta erabaki garrantzitsuetan.

Nolanahi ere, kasu honetan ulertuko da mandatuak eman ahal dizkion botere adjudikatzaileak mandatuaren hartzailea den enterearen gainean kontrol bat duela, bere zerbitzu edo unitate propioen gainean duenaren antzekoa: hark berak edo beste botere adjudikatzaile batek edo batzuek edo lehenengoak era berean

kontrolatutako pertsona juridiko batzuek mandatuak eman ahal ditzaketenean, mandatuaren hartzaile den entearentzat nahitaez betetzekoak direnak, estatutuek edo sorrerako ekintzak halaxe ezarri dutelako, halako moduz non horien artean erabakitze-batasun bat egongo den, mandatua egin dezakeen enteak alde bakarrez finkatutako jarraibide batzuen arabera.

Ordaindu beharreko konpentsazioa ezartzeko, tarifa hauek hartuko dira erreferentziatzat: bitarteko propio pertsonifikatuak nagusi duen erakunde publikoak onetsita dauzkanak bitarteko propioak zuzenean egiten dituen eta enkarguaren xede diren jardueretarako. Eta, horretarako, mandatuaren xede diren eta enpresaburu partikularrekin azpikontratatzaren jardueretarako bitarteko propioak jasandako egiazko kostuari erreparatuko zaio, erregelamenduz erabakitzen den eran erreparatu ere, kostu hori txikiagoa denean azpikontratutako jardueri tarifak aplikatzetik heldu dena baino.

Tarifa horiek, betiere, bitarteko propioak zuzenean ekoizitako unitateak egiteko benetako kostuak jasotzeko moduan kalkulatu dira.

b) Mandatuaren hartzailea den entearen jardueren ehuneko 80 baino gehiago egin daitezela mandatua ematen duen eta hura kontrolatzen duen botere adjudikatzailerak –edo mandatua ematen duen erakundeak era berean kontrolatutako beste pertsona juridiko batzuek– emandako eginkizunak betez.

Mandatuaren hartzailea den entearen jardueren ehuneko 80 hori kalkulatzeko, honako hauek hartuko dira aintzat: negozioen bolumen orokorraren batezbestekoa; botere adjudikatzailerari emandako zerbitzuengatik izandako gastuak, edozein entitateri emandako prestazioen truke bitarteko propioak izan dituen gastu guztiak aintzat hartuta; edo jarduerari buruzko beste edozein adierazle fidagarri. Hori guztia mandatua formalizatu aurreko hiru ekitaldiei dagokienez.

Mandatu formalizatu aurreko hiru ekitaldietako negozio-bolumen orokorra edo –aurreko paragrafoan ezarri bezala– jarduerari buruzko beste adierazlerik eskura ez badago mandatua ematen duen botere adjudikatzaileraren sorrera-data dela-eta, haren jardueraren hasiera dela-eta edo haren jarduerak berrantolatu direla-eta, edo indarra galdu badute, nahikoa izango da jarduera-mailaren kalkulua errealtatearekin bat datorrela egiaztatzea, negozio-proiektzioen bitartez bereziki.

c) Mandatuaren hartzailea den entea pertsonifikazio juridiko pribatuko ente bat denean, gainera, haren kapital edo ondare guztiak titulartasun edo ekarpen publikokoa izan beharko du.

d) Mandatuaren hartzaile den erakundeak berariaz aitortu beharko du, bere estatutuetan edo sorrera-ekintzetan, mandatua ematen duen botere adjudikatzailer jakinaren bitarteko propio pertsonifikatua dela, honako baldintza hauek bete ondoren:

1.a Zer botere adjudikatzaileretik bitarteko propioa izango den, haren adostasuna edo berariazko baimena.

2.a Erakunde publikoak egiaztatu beharko du bere bitarteko propioa izango den ente horrek giza baliabide eta baliabide material egokiak dituela mandatuak beren xede sozialaren arabera betetzeko.

Mandatuaren hartzaile den entearen estatutuek edo sorrera-ekintzak honako hauek zehaztu beharko ditu: enteak izaera hori zer botere adjudikatzaileretik duen, eta eman ahal zaizkion mandatuaren araubide juridiko eta administratiboa zein den. Gainera, estatutuek edo sorrera-ekintzak bitarteko propioari debekua ezarri diote bere botere adjudikatzailerak deitutako lizitazio publikoetan parte hartzeko –halere, lizitatzailerak bakarrenean ere aurkeztu ez denean, mandatua eman ahal izango zaio enteari lizitazioaren xede diren prestazioak emateko–.

Letra honen 2. zenbakian ezarritako baldintza, nolana ere, enteak dauzkan talde, azpitalde eta kategoriei dagokien sailkapena lortu duenean pentsatuko da betetzen dela.

[...]

4. Elkarrekiko independenteak diren bi botere adjudikatzaileraren edo gehiagoren bitarteko propio pertsonifikatutzat hartuko dira baldintza hauek guztiak betetzen dituzten zuzenbide publikoko zein zuzenbide pribatuko pertsona juridikoak:

a) Mandatuak eman diezazkioketen botere adjudikatzailleek beren zerbitzu edo unitate propioekiko izan lezaketaren antzeko kontrol bat izatea, batera, horien hartzailea den entearen gainean.

Baterako kontrol bat izateko, honako baldintza hauek guztiak bete behar dira:

1.a Mandatuaren hartzaile den entearen erabakitze-organoetan ordezkari izatea hari mandatuak eman ahal dizkieten ente guztiek; halakoetan, ordezkari bakoitzak azken horietako batzuk edo guztiak ordezkatu ahalko ditu.

2.a Azken horiek zuzenean eta batera eragin erabakigarria eduki ahal izatea mandatuaren hartzaile den entearen helburu estrategikoei eta erabaki garrantzitsuei buruz.

3.a Mandatuaren hartzaileak ez izatea mandatuak eman ahal dizkieten entearen interesen aurkakoak diren interesak.

Ordaindu beharreko konpentsazioa ezartzeko, tarifa hauek hartuko dira erreferentziatzat: bitarteko propio pertsonifikatuak nagusi duen erakunde publikoak onetsita dauzkanak bitarteko propioak zuzenean egiten dituen eta mandatuaren xede diren jardueretarako. Eta, horretarako, mandatuaren xede diren eta enpresaburu partikularrekin azpikontratatzat diren jardueretarako bitarteko propioak jasandako egiazko kostuari erreparatuko zaio, erregelamenduz erabakitzen den eran erreparatu ere, kostu hori txikiagoa denean azpikontratatzat jardueri tarifak aplikatuz heldu dena baino.

Tarifa horiek, betiere, bitarteko propioak zuzenean ekoizitako unitateak egiteko benetako kostuak jasotzeko moduan kalkulatu dira.

b) Mandatuaren hartzailea den entearen jardueren ehuneko 80 baino gehiago egin daitezela hura kontrolatzen duten botere adjudikatzailleek –edo botere adjudikatzaille horiek bere kontrolatzat beste pertsona juridiko batzuek– emandako eginkizunak betez. Ehuneko 80 hori artikuluko honen 2. apartatuaren b) letran ezarritakoaren arabera kalkulatu da.

c) Artikulu honen 2. apartatuko c) eta d) letratan ezarritako baldintzak betetzea.

5. (Kendu egin da).»

Artikuluaren gainerakoa berdin idatzita gelditzen da.

Bi. Aldatu egiten da 33. artikuluko 2. apartatua. Honela idatzita geratzen da:

«33. artikulua. *Sektore publikokoak izan eta botere adjudikatzailatzat hartzen ez direnek bitarteko propio pertsonifikatuei emandako mandatuak.*

[...]

2. Botere adjudikatzailatzat hartzen ez den sektore publikoko erakunde baten bitarteko propio pertsonifikatutzat hartuko dira honako baldintza hauek guztiak betetzen dituzten zuzenbide publikoko zein zuzenbide pribatuko pertsona juridikoak:

a) Mandatua egiten duen enteak mandatuaren hartzaile den entearen kontrola izatea, zuzeneko zein zeharkakoa, lege honen 32.2.a) artikuluko lehenean eta bigarren paragrafoetan ezarritakoaren zentzuan.

b) Mandatuaren hartzaile den entearen kapital edo ondare guztia titulartasun publikokoa izatea.

c) Mandatuaren hartzailea den entearen jardueren ehuneko 80 baino gehiago egin daitezela mandatua ematen duen eta hura kontrolatzen duen erakundeak –edo mandatua ematen duen erakundeak era berean kontrolatzat beste pertsona juridiko batzuek– emandako eginkizunak betez.»

Artikuluaren gainerakoa berdin idatzita gelditzen da.

Hiru. Aldatu egiten da 159. artikulua 1. apartatuaren b) letra. Honela idatzita geratzen da:

«159. artikulua. *Prozedura ireki sinplifikatua.*

[...]

a) Balio zenbatetsia gutxienez 2.000.000 eurokoa izatea obra-kontratuen kasuan, eta hornidura- eta zerbitzu-kontratuen kasuan, balio zenbatetsia lege honen 21.1 artikulua a) letran eta 22.1 artikulua a) letran ezarritako kopuruen edo horien eguneratzeen berdina edo txikiagoa izatea.»

Apartatuaren gainerako zatia berdina idatzita geratzen da.

Lau. Aldatu egiten da 159. artikulua 6. zenbakiaren b) letra, eta honela idatzita geratzen da:

«6. 80.000 eurotik beherako balio zenbatetsia duten obra-kontratuetan eta 60.000 eurotik beherako balio zenbatetsia duten hornidura- eta zerbitzu-kontratuetan, objektutzat izaera intelektualeko prestazioa dutenetan izan ezik, zeinei ez baitzaie apartatu hau aplikatuko, prozedura ireki sinplifikatuak honako izapidetze honi jarraitu ahalko dio:»

Apartatuaren gainerako zatia berdina idatzita geratzen da.

Bost. Gehitu egiten zaio 6. apartatu berria 321. artikuluari. Honela idatzita geratzen da:

«321. artikulua. *Botere adjudikatzailerak ez diren sektore publikoko erakundeek kontratuak adjudikatzea.*

[...]

6. Lege honen aplikaziotik kanpo egongo dira sektore publikokoak diren eta botere adjudikatzailerak ez diren bi merkataritza-sozietateen arteko kontratuak, baldin eta baldintza hauek guztiak betetzen badira:

a) Sozietate kontratatzailerak kontratistaren kapital sozial osoa zuzenean edo zeharka izatea, edo alderantziz; edo hirugarren sozietate batek, sektore publikokoek ere bai, zeinak botere adjudikatzailerak ez baitu, zeharka edo zuzenean lehen bien kapital sozialaren 100eko 100en titulartasuna izatea.

b) Kontratuen xedea erakunde kontratatzaileraren helburu sozialaren berezko merkataritza-jarduera gauzatzeko behar diren ondasunak eskuratzea edo zerbitzuak ematea izatea.

c) Kontratuek merkaturako lehia askea ez desitxuratzea.

Aurreko paragrafoan ezarritakoaren ondorioetarako, sozietate kontratatzaileraren tutoretza dagokion ministerio-sailak edo erakundeak txostena eskatuko dio alde aurretik Merkaturaren eta Lehiaren Batzorde Nazionalari edo, hala dagokionean, dagokion autonomia-erkidegoko eskumen-agintaritzari, sozietateek sinatzea aurreikusten dituzten kontratu zehatzak edo antzeko ezaugarriak dituzten kontratuen kategoria orokorrak aztertzeko. Txosten hori, gehienez ere, hogeita eguneko epean emango da.»

Artikulua gainerakoa berdina idatzita gelditzen da.

Azken xedapenetako berrogeita batgarrena. *28/2018 Errege Lege Dekretua aldatzea (28/2018 Errege Lege Dekretua, abenduaren 28koa, Pentsio publikoak handitu eta gizarte-, lan- eta enplegu-alorrean presako beste neurri batzuk hartzekoa).*

Lege hau indarrean jartzen denetik eta indarraldi mugagabez ondoreak izanik, aldatu egiten da 28/2018 Errege Lege Dekretua (28/2018 Errege Lege Dekretua, abenduaren

28koa, pentsio publikoak handitu eta gizarte-, lan- eta enplegu-alorrean presako beste neurri batzuk hartzekoa). Honela idatzita gelditzen da:

Aldatu egiten da laugarren xedapen gehigarria, eta honela idatzita geratzen da:

«Laugarren xedapen gehigarria. *Esportatzeko diren tomate freskoak manipulatzeko eta ontziratze lanen araubide bereziko kotizazioak Gizarte Segurantzako Araubide Orokorrean egitea.*

1. Esportatzeko diren tomate freskoak manipulatzeko eta ontziratze lanen araubide berezian dauden enpresaburuek kontingentzia guztietarako ordaintzen dituzten kotizazioak Gizarte Segurantzako Araubide Orokorreko orokorrean ezarritakoaren arabera egingo dira, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bategineko 22.1.b) artikuluan azaltzen den kuotak zuzenean likidatzeko sistemaren bidez.

2. 2021ean, sistema berezi honetan dauden enpresaburuek eskubidea edukiko dute kontingentzia arruntei dagozkien kotizazioetarako egiten dituzten ekarpenak ehuneko 70 murrizteko eta ehuneko 8,75eko hobaria jasotzeko.

Murrizketa eta hobari horiek progresiboki gutxitzen joango dira Estatuaren aurrekontu orokorren ondoz ondoko legeetan, kendu arte. Hobari bien aplikazioa amaitzen den ekitaldian, esportaziorako tomate freskoak manipulatu eta ontziratatu ez ezik ekoiztu ere egiten dituzten enpresaburuak eta gainerako langileak, araubide berezian daudenak, Gizarte Segurantzako Araubide Orokorreko Nekazaritzako Besteren Konturako Langileentzako Araubide Orokorreko Sistemari sartuko dira.

Apartatu honetan aipatzen den hobaria Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren aurrekontuaren kargura finantzatu da.»

Azken xedapenetako berrogeita hamabigarrena. *Maiatzaren 5eko 17/2020 Errege Lege Dekretua aldatzea. Dekretu horren bidez, kultura-sektoreari laguntzeko eta zergak ordaintzeko neurriak onartzen dira, COVID-19ren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egiteko.*

Lege hau indarrean jartzen denetik eta indarraldi mugagabez ondoreak izanik, aldatu egiten da maiatzaren 5eko 17/2020 Errege Lege Dekretua, Dekretu horren bidez, kultura-sektoreari laguntzeko eta zergak ordaintzeko neurriak onartzen dira, COVID-19ren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egiteko.

Bat. Aldatu egiten da maiatzaren 5eko 17/2020 Errege Lege Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarriaren 2. apartatua. Dekretu horren bidez, kultura-sektoreari laguntzeko eta zergak ordaintzeko neurriak onartzen dira, COVID-19ren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egiteko. Honela idatzita geratzen da:

